BIZKAIA (1526-2026) FORU-TESTUAK EUSKARAZ

Aurkezpena, sarrera eta argitaraldia
Andres M. Urrutia Badiola

14 Clásicos de Derecho Vasco
Euskal Zuzenbidearen Klasikoak

BIZKAIKO FORU BARRIA
FUERO NUEVO DE BIZKAIA
Bizkaia
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA
Dykinson, S.L.
AVD·ZEA
Academia Vasca de Derecho
Zuzenbidearen Euskal Akademia

Bizkaia (1526-2026). Foru-Testuak Euskaraz. Sarrera: Andres M. Urrutia Badiola. Bilbao: Dykinson 2026. Zuzenbidearen Euskal Akademia = Academia Vasca de Derecho. LXXVI + 540 or. : il. bl. y n. ; 15x21 zm. - (Colección 'Clásicos del Derecho Vasco' = 'Euskal Zuzenbidearen Klasikoak' bilduma; 14)

Liburu hau ebaluazioaren menpe egon da gure Argitalpen Batzordearen aldetik. Informazio xeheago izateko ikus "http://www.dykinson.com/quienes_somos"

Eskubide guztiak erreserbaturik daude. Argitalpen hau, zatiz edo osorik, ezin kopia daiteke ez eta bildu edo igorri inola ere, dela elektrikaz, dela mekanikaz, dela fotokopiaz, dela grabazio magnetikoz, dela bestelako informazio biltze eta berreskuratze sistemaz, baldin eta lehendaurrez egileen eta argitaratzailearen baimenik ez badu.

© Pedro Pujanaren oinordekoak *Bizkai'ko Foru*aren testuarengatik

© Aurkezpena eta sarrera: Andres M. Urrutia Badiola

© ACADEMIA VASCA DE DERECHO
ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA
www.avd-zea.com

Editorial DYKINSON, S.L.
Meléndez Valdés, 61. 28015 Madrid
Teléfono (+34) 91 544 28 46 • (+34) 91 544 28 69
e-mail: info@dykinson.com
http://www.dykinson.es • http://www.dykinson.com

Diseinua: Ikeder, S.L.

ISBN: 979-13-7047-662-5
Lege-gordailua: M-27039-2026

AURKIBIDEA

BIZKAIA (1526-2026) FORU-TESTUAK EUSKARAZ

14. "Euskal Zuzenbidearen Klasikoak" bilduma

Andres M. Urrutia Badiola
Akademiako Lehendakariaren aurkezpena VII

Andres M. Urrutia Badiola
Sarrera. Bostehun urte ez dira alferrik igaro:
Euskara, jalgi hadi foruetara! IX

1. Foruak eta euskara: historiaren bihurguneak XI
2. Foruak eta euskara: gogoeta orokorrak XIV
3. Foruak eta euskara: bi zuzenbide, hizkuntza bakarra. Egoera horren oinarri jurilinguistikoak XVII
4. XVIII-XIX. mendeak; *Mintçoric, eta hizcuntçarik içan ez baliz...* XXXVI
5. XX. mendearen lehen herena XXXIX
6. XX. mendearen segidakoa: *legegizonek behar duten hiztegi berezia* XLV
7. Bizkaiko Forua euskaraz: aurrekariak XLIX
8. Bizkaiko eta Arabako Foru Zibilaren Bilduma eta horren testu euskaratua (1959) L
9. *Bizkai´ko Forua*, Pedro Pujanaren eskutik (1985) LI
10. Geroko testuak: 1988, 1992 eta 2015. urteetako legeak, Bizkaiko foru edukiaren segidakoak LVI
11. Ondorioak LXIII
13. Bibliografia LXV
14. Webgrafia LXXVI

I. BIZKAI´KO FORUA (1526) 1

II. BIZKAIKO ETA ARABAKO FORU 289
ZUZENBIDE ZIBILAREN BILDUMARI
BURUZKO UZTAILAREN
30EKO 1959/32. LEGEA
[E.B.O. ko (BOE) 1959.eko uztailaren 31ko 182. zk.]

III. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN 315
XEDAPEN OROKORRAK

III.1 Epailaren 18ko 6/1988 Legea, Foruzko..... 317
Herri-Legea zati baten aldatzezkoa
[EHAA, 70. zk. 1988, apirilaren 12. Hutsen zuzenketa EHAA, 102. zk. 1988 maiatzaren 27koa]

III.2.a Uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal 323
Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa
[EHAA, 153. zk., 1992ko abuztuaren 7koa]

III.2.b Euskal Herriko foru-zuzenbide zibilari 397
buruzko uztailaren 1eko 3/1992 legearen
ontzat emandako Bizkaierako idazkera
[EHAA, 153. zk., 1992ko abuztuaren 7koa]

III.3 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, ... 469
Euskal Zuzenbide zibilari buruzkoa
[EHAA, 124.zk.,2015eko uztailaren 3koa eta Hutsen zuzenketa, EHAA, 84.zk., 2016ko maiatzaren 5ekoa]

"EUSKAL ZUZENBIDEAREN KLASIKOAK" BILDUMA

[AURKEZPENA]

Zuzenbidearen Euskal Akademia sortu zenetik, hauxe da Euskal Zuzenbidearen Klasikoak bildumaren lehen euskarazko liburukia. Izatez, bilduma honen helburua historian zehar euskal zuzenbidea jomuga eta jardunbide-ardatz izan duten legelarien lanak zabaltzea eta gizarteratzea izan da, eta hori egitea, gainera, euskal herrialde desberdinetako autoreekin.

Bostehun urte geroago (1526-2026), egokia eta zehatza da Bizkaiko Foru Barria bilduma honetan txertatzea, euskaraz, hain zuzen ere, bizkaitarrok menderen mendetan erabili dugun hizkuntzaz. Egun, hainbat erakunde hedatu dira Foru Barri honetatik euskal herrialde batzuetara. Besteak beste, euskal auzotasun zibilak ahalbidetu du euskal zuzenbidearen edukia areagotzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztientzat aplikagarri egitea.

Horretarako lanabesa izan da, ezbairik gabe, Euskal Zuzenbide Zibilaren 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa. Lege horrek, beste behin ere, euskaraz izendatu ditu tresna juridiko horiek, aurrekarietan izan diren oinarrietan ongi finkaturik. Horiexek datoz argitaraldi honetara, eta modu bateratuan eskaintzen dira.

Has gaitezen Bizkaiko Foru Barria aipatzen. Hainbatez, oinarrizko lege-testu horren euskaratze-lana Pedro Puxana euskaltzain ohorezkoak ondu eta 1985. urtean argitaratu zuen. Oinarria jarrita, laster etorri

dira zutabeak eta adarrak, lehendik zeudenak eta gerokoak euskaraz eskaini ahal izateko.

Betoz, segidan eta erreskadan, argitaraldi honek barruratzen dituen lege-xedapenak, Bizkaiko herrialdeari dagozkionak eta historiaren hari sendoa osatzen dutenak: i) Bizkaiko eta Arabako Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma, 1959ko uztailaren 30eko Legea; ii) otsailaren 18ko 6/1988 Legea, Foruzko Herri-Legea zati batean aldatzekoa; iii) uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa; iv) aurrekoaren testua bizkaieraz; eta v) 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa.

Begi-bistakoa da honako hau geroenean etorriko diren beste lege-testuen itxaropenarekin agertzen dela, eta Zuzenbidearen Euskal Akademiak horrelakoak biltzen eta berreskuratzen jarraituko duela, euskal zuzenbide zibilaren onerako.

Horretarako, eskuzabalak izan dira Pedro Puxanaren etxekoak eta, esan gabe ere joan arren, liburu hau egiteko laguntza eman diguten Bizkaiko Foru Aldundia eta Bizkaiko Batzar Nagusiak, Bizkaiko Foru Berriak bostehun urte betetzen dituen 2026. urte honetan.

Horrela lortuko da forua belaunaldi gazteen eskuetan jartzea; izan ere, haiek izango dira etorkizunean foru-mezuaren ustezko eramaile eta hedatzaileak, seguru asko, egun ohikoak diren baliabide teknologikoak erabilita.

Andres M. Urrutia Badiola
Burua
Zuzenbidearen Euskal Akademia

[SARRERA]

Andres M. Urrutia Badiola

Bostehun urte ez dira alferrik igaro:

Euskara, jalgi hadi foruetara!

1. FORUAK ETA EUSKARA: HISTORIAREN BIHURGUNEAK

Bernat Etxepare lehen poeta euskaldunak bere *Kontrapas* olerki eta kantua ondu eta argitaratu zuenetik (1545) ia bostehun urte igaro dira. Pittin bat aurrerago aldarrikaturiko Bizkaiko Foru Barriak aurten bete ditu bostehun urte (1526-2026). Bostehun urteren ondoren, sarritan egon da euskaldunen aho-mihietan foruen testua euskaraz noizko eta nolakoaren kezka. Horri erantzuna ematera dator argitaraldi hau, alegia, foru testu horretatik erreskadan etorri diren foru testuen euskarazko letrak batzera eta herritarren eskuetan jartzera, Bizkaiko herrialdeari dagokionez.

Euskal herrialde historikoek, bakoitzak bere esparruan, Foru zuzenbide beregain baten jabe izan arren, ez zuten euskararentzat finkatu gune ofizial baten sorrera. Foruetan, bertako erdarak (gaztelania, nafar erromantzea, gaskoia, frantsesa) ziren nagusi, zalantza nimiñorik gabe.

Horra hor, hasteko, lehendabiziko abiapuntua. Euskara eta bertako Foru zuzenbidea, molde idatzian behinik behin, ez ziren bat. Lehena ez zen bigarrenaren eramaile izan. Hizkuntza eta Zuzenbidea, bion arteko lotura, estatu zein hizkuntza handien legelarientzat sustrai ohikoa eta hastapen eztabaidaezina, ez zen euskaraz sekula ere garatu.

Horretarako arrazoiak batera eta bestera erkatu izan dira. Taxu eta edu desberdineko kariak ekarri dituzte autoreek auzi horretara. Lau izen alderatuko dira hona, eztabaida horren lerro eta lerrabideak argitzeko. Laurok dira nafarrak, Nafarroa izan baita historian zehar gertaera horien adibiderik garbiena eta esanguratsuena. Nafar erresumaren egitura politiko bete eta osoa izan daiteke, Euskal Herriaren baitan, horretarako lantegirik egokiena.

Lehenik eta behin, LACARRAk[1] argi ikusi zuen horren oinarria, inguruko erdara horiek zeregin ofizialetarako aurretiaz zituzten erabilera eta

[1] LACARRA, J. M.: *Vasconia medieval. Historia y filología, Seminario de Filología Vasca* "Julio de Urquijo", Donostia, 1957, 30. or.: «Sería interesante precisar por qué el vascuence, que lo veremos hablado por todo un pueblo, en el que se constituye una entidad política independiente —el reino de Navarra—, no llegó a ser nunca lengua escrita

zorroztasunean. Cierbidek[2] ere ikuspegi berbera erakutsi du Euskal Herriko historian zehar gertatu den eleaniztasuna ikertzean.

Beste batzuk, González Ollé[3], adibidez, gehiago lerratu dira arazo hau gizarte ikuspegitik epaitzera, goi eta behe mailako hiritarren artean zeuden erabilera eta tirabira linguistikoen adierazpide moduan. Jimeno Juríok[4] ere antzeko bidetik agertu ditu inoiz bere gogoetak.

Ñabarduraz beteriko oharrak egin dakizkieke, dena den, halako baieztapenei. Goi mailako euskaldunen artean, esaterako, ezaguna da, besteak beste, Juan de Zumarraga, Bertran Etxauzko, Bela, Oihe-

---

[…]. Pero nada de esto se daba en el País Vasco: Ni hay una liturgia en vascuence, ni una corte o unos elementos directivos totalmente ajenos al latín. De aquí que no se sienta en la corte una necesidad absoluta de redactar los documentos en una lengua nueva con la adaptación correspondiente, cuando ya disponían del latín o del romance, inteligible para una buena parte de los súbditos del reino. Piénsese que cuando en el siglo X se estabiliza la monarquía navarra, ésta se extendía desde Jaca hasta la Rioja, y que precisamente la dinastía Jimena procede —según veremos mañana— de la zona más romanizada del País».

[2] Cierbide, R.: «Plurilingüismo histórico en Euskal Herria», *Fontes Linguæ Vasconum*, 56, 1990, 156. or., «De hecho, el euskaldún, tan pronto como ampliaba el círculo de acción, estaba obligado a comunicarse en algún romance, al norte en gascón y al sur en romance de Navarra o castellano. De este modo, el vascuence, de salida, estaba muy mal situado para ganar la carrera, a pesar de su evidente arraigo popular. Dos factores negativos más se añaden en contra del euskera: 1. La labor evangelizadora llevada a cabo por la Iglesia Católica en Occidente se realizó en la lengua de cultura, no en la del pueblo, ya que sólo a partir de la Contrarreforma comienza a aflorar la lengua escrita. 2. El vascuence carecía de una lengua madre a la que referirse para pasar al estadio de la escritura y para enriquecerse con formas nuevas, como así sucedía con los romances respecto del latín, provocando con ello adaptaciones, siempre mucho más penosas de lo que pudo ocurrir con los romances».

[3] González Ollé, F.: *Vascuence y romance en la Historia lingüística de Navarra*. Iruñea: Ediciones y Libros Cofradía gastronómica del pimiento seco, V, 1972, 53. or.: «Todas las anteriores consideraciones han estado dirigidas a precisar el fenómeno histórico previamente expuesto: Un territorio, un reino, que desde el punto de vista geográfico se muestra homogéneo en el uso hablado del vascuence, no lo utiliza en la escritura de sus documentos. De ahí se desprende inmediatamente que dentro del área considerada vascohablante tuvo que darse una escisión, una diferenciación vertical, sociocultural, entre vascuence y romance. Y que es bajo tal aspecto —y no bajo el territorial— como debe estudiarse el conflicto entre ambas modalidades lingüísticas».

[4] Jimeno Jurío, J. M.: *Navarra. Historia del euskera*, II. kapitulua. Tafalla: Txalaparta, 1997, Gure klasikoak.

NART eta abarren euskalduntasuna. SATRUSTEGI[5] euskaltzain osoak ere egoki irazi zituen XVI. mendeko espioitza gutunak, agintean zeudenek elkar trukean idatziak eta euskaraz adieraziak.

Euskara euskal gizartean bizi da, bertan dago sustraiturik. Horretara, XVI. mendeko lehen testuek (batik bat, atsotitzek) euren barnean daramatzate halako esamolde eta erranairuak, eduki juridikoz beteak. Hamaikatxo dira horren tankerakoak. Horietako batzuk aipatu nahi eta bi etor daitezke harira, hain zuzen: *atzerri, otserri*[6] eta *urde urdaondo e(ta) açia etondo*[7].

---

[5] SATRUSTEGI, J. M.: «Relectura de los textos vascos de espionaje del siglo XVI», *Fontes Linguæ Vasconum*, 64, 1993, 443-476 orr.; TREBIÑO, I. (arg.): *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati. Instituto Vasco de Administración Pública / Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2001; MAIORA MENDIA, F.: *Reino de Navarra, Euskera lengua inteligible, causas del retroceso, injurias, coplas*... Iruñea, 2018 eta MONTEANO SORBET, P.: *Del euskera al castellano/el comienzo del cambio de lengua en el reino de Navarra (1550-1650)*. Iruñea: Mintzoa arg., 2024.

[6] IRIGOIEN, A.: «Oihenarten atsotitz eta errefrauez nota tipia», *Euskera*, 34, 1989, 564 orr.: «2. Ohienart, nº 49: **Azerri Otserri,** 'païs d´estranger, païs de loups'. Latinez bazen errefrau politiko bat, zeinen arauera: **Hospes hostis,** 'atzerritarra etsai', baitugu, euskarazkoa bezain laburra eta aliterazio ta guztizkoa. *Atzerri otserri* zaharra bada, latinezkoa zaharragoa. Argi dagoela dirudi latinez ***hosp**e**s*** eta ***host**i**s*** hitzek sortzen duten aliterazioa gogoan izanik eraiki dela euskarazkoa ere; ***atzerri otserri.*** Hitz konposatu bietan bigarren elementu den *herri,* 'païs', berdina baita ***atz*** eta ***ots*** formen txistukariekin jokatu da. Latinezko errefrauak eta euskarazkoak elkarren artean zer ikusirik ez dutela pentsatzea zaila dela deritzat eta, jakina, denborari dagokionez arrazoizko da latinezkoa lehenagokoa dela uste izatea».

[7] IRIGOIEN, A.: «Urde Urdaondo e(ta) açia etondo», in *De Re Philologica linguae Uasconicae III*, 1990, 96. or. eta ondorengoak. 1452. urtean legegin bizkaitarrak honetara dio Foru zaharrean: «Otrosi dixieron que por quanto quando alguno ferma a alguno/fijo suyo o fija, o a otro heredero, alguna casa e caseria con todos/los bienes muebles e rayzes a ella perteneçientes ponen duda/si daçion general de bienes muebles vale o non; e por quitar esta/dubda dixieron que hordenauan e estableçian que tal daçion gene/ral e fermamiento de la tal casa e caseria e bienes raizes, vala/e en quanto la daçion general de los bienes muebles, non vala (signo) // (Fol. 59 vº) (Al margen: Fuero Viejo de/ Vizcaya), saluo si dieren nombrando e declarando cada cosa sobre si; pero/por tal donaçion general no nombrando otros ganados o dine/ros se entiendan auer dado los bienes muebles que el Fuero An/tiguo de Vizcaya manda vr de Vrdaondo e açia Etondo, que son/la casta de lo puercos que fueren en casa, e el pan que ouieren co/gido en casa, asi trigo como borona e çebada que aya cogido en/aquel anno e en esto non se entienda de el pan que truxiere/de fuera parte, ni los toçinos por muchos que tengan, saluo el/que estouiereençentado, e vna cuba en que tenga la despensa, e/vna arca en que tenga el pan cozido e la

Azken horren inguruan badago zeresanik, berorrek baieztatzen baitu Euskal Herriko hainbat testu juridikotan ageriko den jokaera, hau da, erdaraz idatzitako testuaren barruan, erakunde edo egintza juridiko jakin batzuen izena euskaraz ematea. Horrek ere aldi hartako testigantza zuzenekoa ematen du, bertan egiaztatzen baitira euskarak eta euskaldun letraduek moldatzen zuten jokoa: erdaraz idatzi, euskarazkoa ere emanez, euskarazko horrek adierazten zuela euskaraz sortu, eta ohitura eta erabileraren bidez moldaturiko kontzeptua. Euskarazkoak balio zuen erakunde bera adierazteko; kasu honetan, etxe barruko dohaintzak zer hartu behar zuen egokien azaltzeko: *pero/por tal donaçion general no nombrando otros ganados o dine/ros se entiendan auer dado los bienes muebles que el Fuero An/tiguo de Vizcaya manda vr de Vrdaondo e açia Etondo, que son/la casta de los puercos que fueren en casa, e el pan que ouieren co/gido en casa*… Adibideak nonahi dira[8]. Caro Barojak[9] batzuk argitaratu ditu, Nafarroako zuzenbidean eta, oro har, euskal zuzenbidean ere.

2. FORUAK ETA EUSKARA: GOGOETA OROKORRAK

Datu horiek sarrera gisa balio dute, *paisaia* gisa, euskararen arlo juridikoko jarduera-eremu klasikoa definituko duten ondorio batzuk ateratzeko. Izatez, XV. mendetik gutxienez XIX. mendearen hasierara arte,

---

caldera que se tru/xiere de cada dia e unos manteles e las layas e açadas e hachas/e cosas menudas de labrar qu ouiere en casa, e vna cama de/ropa de las comunales que ouiere en casa». (Hidalgo De Cisneros, C., eta beste batzuk.: «Fuentes jurídicas medievales del Señorío de Vizcaya», in *Fuentes documentales medievales del País Vasco*. Donostia: Sociedad de Estudios Vascos, 1986).

[8] Osés, C.: «Léxico vasco en documentación notarial guipuzcoana», *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 26, 3, 1992, 813-824 orr.: «Los escribanos utilizaban el léxico vasco para aquellas esferas lingüísticas más alejadas del vocabulario común de las piezas que redactan, cuando se hacen necesarias denominaciones de la vida diaria para realidades en que no participa el "romance"(819. or)».

[9] Caro Baroja, J.: «Prólogo», in Beristain, A. eta beste batzuk: *Fuentes de Derecho Penal Vasco siglos XI-XVI*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, Antropología Vasca, 1980, 5. liburukia, 16. or.: «¡Qué no se habrá perdido de palabras de este tipo y otras en relación con conceptos que eran familiares a las gentes en el medioevo y aún después! El léxico se hace y se deshace, como se hacen y deshacen las leyes y se modifican las creencias y opiniones».

elkarren artean desberdinak ziren foru-antolamendu juridikoen agintepean bizi ziren eta, gainera, Espainiako eta Frantziako ordenamendu juridikoekin partekatzen zituzten lurralde batzuen barruan.

Ondorio horiek honela adieraz daitezke:

a) Euskal Autonomia Erkidegoa, bere antolaketa historikoan, «forulegeriaren» mende zegoen lurraldea izan zen, hau da, bere lege (foru) eta ohitura propioen mende. Ohiturazko tradizio sendokoa, Euskal Herriaren antolaketa politikoa, hala ere, gazteleraz, nafar erromantzez, okzitanieraz, gaskoiz, frantsesez edo latinez garatu zen. Euskara ez zen administrazio eta gobernuko hizkuntza ofiziala izan sei lurraldeetan (Nafarroa, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Lapurdi eta Zuberoa). Aldiz, gaztelania, erromantze nafarra, okzitaniera eta gaskoia (eta gero frantsesa) izan ziren funtzio juridiko eta administratiboen eramaileak, eta euskara, foru-erregimenean gehienbat hitz egiten zena izan arren, ez zen inoiz bere legeak idazteko hizkuntza-bidea izan (Katalunian gertatu zen bezala), ezta bere Auzitegiena ere, eta horrek zenbait gaitasun garatzea galarazi zion, eta gaitasun horiek ezinbestekoak ziren (gaur egungo ikuspegitik) berarentzat[10].

b) Aurreko mendeetako Euskal Herriko joera soziolinguistikoan salbuespenik izan gabe (ahozko hizkuntza batekin eta idatzizko beste batekin), egia da Euskal Herriko berezko zuzenbidea gaztelaniaz, nafar erromantzez, gaskoiz edo frantsesez adierazi zela.

c) Euskararen nolabaiteko ofizialtasunaren aldeko salbuespenak XIX. mendekoak dira jada, eta Bizkaiko Batzar Nagusien jardunaren ondorioak dira nagusiki; izatez, Batzar Nagusien euskal testuak argitaratuak izan ziren. Hauxe zuten aginduzko XIX. mendeko Bizkaiko Batzar Nagusiak euskarazko langintza horri heltzerakoan. Egin ere,

---

[10] Brunner, T.: «Le passage aux langues vernaculaires dans les actes de la pratique en Occident», *Le Moyen Âge*, CXV, 2009, 1 lib., 29-72 orr., bereziki 36. or. Autore honen arabera, tokian tokiko hizkuntzak akta ofizialetan islatzeko unean, euskararen grafizazio *exogenoa* izan zen, alegia, gaztelaniaren bidez egindakoa. Hala eta guztiz ere, nabarmena da testu eta agiri juridikoetan euskarazko hitz eta esamoldeen agertzea, ikus: Urrutia Badiola, A. M.: « El castellano y el euskera: léxico jurídico de contacto », *Oihenart*, 26, 2011, 527-558 orr.

hala egin zuten, lexikoak eta joskerak adierazten duten bezala. Lexiko eta hiztegiaren kontuetan, mailegua zen nagusi, orduko hitz berrikeriaren aurrean. Orobat joskeran, literaturaren tradiziotik gertu, herriarenari muzin egin gabe: *Uriarte, argi dago, ez zen horrenbeste desbideratu eta beste askoren gehiegikerietan jausi. Horiek osatzen dute, euskarari dagokionez behintzat, eragingarritasun komunikatiboa, hizkuntza-erraztasuna, analfabeto zen herri batengana hurreratzeko ahalegin berezia. Gaztelaniazko diskurtso baten atzetik moldatutako ahalegin hori ez zen, egungo ikuspegiak bestera eramaten bagaitu ere, horren deuseza. Estatusari dagokionez, ordu arteko historia guztian egundo ere izan ez zuen bidea ireki zion euskarari; corpusaren aldetik, zer esanik ez, Frantziako Iraultzaren ondorengo saiorik trinkoena izan zen hori, bere akats, aje eta guzti, geroko bide baterako irekiera izan*[11].

d) Hala ere, ahozko mailan, euskara hizkuntza juridiko gisa erabiltzea, batik bat, auzitegietan, errealitate bat da, XVI. mendetik aurrera gertatzen diren ahozko prozesuetako dokumentazio ugariak erakusten duen bezala; prozesu horietan, eskribauek eta hartzaileek askotan jartzen dituzte lekukoen ahotan euskarazko esaldiak eta esamoldeak[12]: *For example, although all the transcripts are written completely in Castilian, a small number of the parties and witnesses to the lawsuits were primarily or entirely Basque speakers, a fact that necessitated the appointment of translator (intérpretes) by the courts and authorities. Such was the case in 1623 of María de Fuica, a seventeen-year-old-victim of a horrific sexual assault and for whom the Corregidor in Bilbao appointed a translator because 'she does not know how to speak Castilian clearly' ('so save abler castellano con claridad'). In another lawsuit for defloration in 1664, part of the initial investigation (información sumaria) was carried out with the assistance of a paid translator because several of the witnesses knew no Castilian. Similar language difficulties arise in other contexts as well; the advocate of a defendant accused of estupro in 1617 objected that some of the witnesses in the case did not know Castilian –nor the magistrate*

[11] Urrutia Badiola, A. M.: *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833-1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa*. Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 2003, 104 or.

[12] Urrutia Badiola, A.M.: «De verbo ad verbum: Derecho, mediación lingüística y escribanos vascos (s. XIX)» in Pradilla Cardona, M. (zuz.): *Miscel·lània d'homenatge a Joan Martí i Castell / Joan Martí i Castell (hom.)*. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili, 2016, 1. lib.,167-175 orr.

Basque, for that matter– and that their testimony had been taken down without the use of translators. It is of course impossible to know exactly how accurate or faithful the translation was, but it would be extremely surprising if the transference from Basque to Castilian –and vice versa– of the testimony did not result in modifications –subtle or otherwise– of the original wording and discourse[13].

3. FORUAK ETA EUSKARA: BI ZUZENBIDE, HIZKUNTZA BAKARRA. EGOERA HORREN OINARRI JURILINGUISTIKOAK

Esan bezala, gaur egun estatu espainol erresumaren barneko herrialde euskaldunak izan dira, historian zehar eta aspalditik «zuzenbide foralekoak», hots, Foru Berezien jabeak, zuzenbide publiko zein pribatu batez hornituak beren jatorrizko iturburu, aplikaziorako bide, Auzitegi eta abarrekoak zituztela. Horiek guztiek, alde batera, *gune* juridiko berezi bat osatzen zuten, Espainia osorako mendeen joan etorrietan orokorra eta arrunta bihurtu zena Gaztelako Zuzenbidearen aldamenean.

---

[13] Barahona, R.: *Sex Crimes, Honour, and the Law in Early Modern Spain: Vizcaya, 1528-1735*. Toronto: University of Toronto Press, 2003, 55 or. Erdozia Mauleón, J. L.: «Zenbait euskal testu Nafarroan XVII. mendean», *Fontes Linguæ Vasconum*, 2005, 99, 307–334 orr. eta Fernández de Pinedo, K.; Otsoa de Alda, X.: «"Brujas" euskaldunes alavesas en el proceso inquisitorial de Logroño (1609-1614)», *Fontes Linguæ Vasconum*, 40, 2008, 419-441 orr. Araban: Ibisate Lozares, A.: «Fórmula de juramento en euskara en Álava en el siglo XVI. El testimonio de Fray Juan de Victoria», in Knörr, H.; Zuazo, K. (arg.): *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak. El euskara alavés. Estudios y textos*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco, 1998.517-524 orr. Nafarroan: Satrustegi, J. M.: «Promesa matrimonial del año 1547 en euskera de Uterga», *Fontes Linguæ Vasconum*, 25, 1977, 101-114 orr.; «Anotaciones al proceso matrimonial vasco de Esparza de Galar (1557)», *Fontes Linguæ Vasconum*, 26, 1977, 259-270 orr. eta «Cuatro promesas matrimoniales inéditas en euskera del siglo XVI», *Fontes Linguæ Vasconum*, 59, 1992, 55-70 orr. Gipuzkoan: Satrustegi, J. M.: «Documentos vascos del año 1664 en un proceso matrimonial de Oyarzun», *Fontes Linguæ Vasconum*, 33, 1979, 529-548 orr.; Ipar Euskal Herrian: Oyharçabal, B.: «La langue basque en Labourd au début du XVIIe siècle à travers le témoignage de Pierre de Lancre», in Courouau, J. F. eta beste batzuk (arg.): *Les Voix de la nymphe aquitaine. Écritures, langues et pouvoirs 1550-1610*. Agen / Tolosa Okzitania: Centre Matteo Bandello / Section Française de l'Association internationale d'Études occitanes, 2005, 133-152 orr. Ikus 5. oharra.

Erresuma bereko beste Lurralde foral batzuetan, *gune* foral berezi hori, hizkuntza propio batez emango da; honela Katalunian esaterako, katalan mintzaira izango da Foru zuzenbidearen giltzarria eta tresna eta bere aparteko «gune juridiko eta linguistikoaren» euskarria ere. Areago, katalan hizkuntza izango da ofiziala Zuzenbide Katalandarrean bertako erakunde foralak desagertu arte eta harez gero ere, zenbait kokagune eta ekintzetan[14].

Ez zen horrela gertatu Hego Euskal Herriko Herrialdeotan eta horregatik haietariko bakoitzean Foru zuzenbide oso baten aldean gaztelania izango da honen adierazlea. Ez daude hemen, Euskal Herrian, bi zuzenbide desberdinak, bi hizkuntzez osatuak, baizik eta hizkuntza batez eraikitako bi zuzenbide edo legeria desberdinak, maila formaletan bederen. Hitz berriagotan esateko «bi ordenamendu juridisko» ezberdin eta autonomoak[15].

3.1 *Foru gunearen ezaugarri juridikoak*

Zernahi gisaz, euskal zuzenbideak badu, Txepetxarena erakarriz[16], halako gune juridiko berezi bat, non euskarazko gune linguistikoaren

---

[14] Solé i Cot, S.: «La llengua dels documents notarials catalans en el període de la Decadència» in *Recerques: Història, Economia, Cultura*, 1982, 12, 39-56 orr. Fonollosa, M. C.; Matas, P.; Pérez i Vallmana, D.; Ribas, X.; Vila, R.; Viros, LL.: «Castellanització i decadencia de la llengua a la comarca del Bages. Un estudi dels protocols notarials», *Revista de Llengua i Dret*, 1986, 185-207 orr. Horren osagarri: Congost i Colomer, R.: «La llengua dels notaris. Notes sobre l'ús social del català (i del castellà) a la Girona de mitjan segle XIX» in *Estudi general: Revista de la Facultat de Lletres de la Universitat de Girona*, 2002, 22 (Ejemplar dedicado a: Miscel-lània d' homenatge a Modest Prats, II), 125-148 orr.; Marfany Garcia, J. LL.: *La llengua maltractada. El castellà i el català a Catalunya del segle XVI al segle XIX.* Barcelona: Editorial Empúries, 2001. Cazeneuve i Desacarrega, X.: «La llengua en la documentació notarial de la Barcelona de 1700» in Santanach i Suñol, J.; Torres Sans, X.; Cazeneuve i Descarrega, X. eta beste batzuk: *Llengua i literatura. Barcelona 1700*. Barcelona: Ajuntament de Barcelona, 2011, 105-153 orr.

[15] Ordenamendu juridiko konzeptuari buruz, ikus daiteke Vallet de Goytisolo, J.: «Las expresiones "fuentes del derecho" y "Ordenamiento jurídico"», in *Estudios sobre fuentes del Derecho y método jurídico.* Madrid: Editorial Montecorvo, 1982, 23-148 orr.

[16] Txepetx soziolinguistaren kontzeptuan hizkuntza baten «gune sinbolikoa» hiru elementuez osatua dago: «Tiene consistencia propia. Es más reducido. Su tiempo

parean, bere metodologiari jarraiki eta gune linguistikoa nolabait juridikoa ere bihurtuz, hiru ezaugarri nagusi hauek agerikoak bailirateke:

A) Bere barne muin propioa du, hots, gizarte batek sostengatzen eta erabiltzen du bere osotasunean. Zuzenbide foralaren kasuan esaterako Bizkaiko gizartean erabili, sortu eta eraberritzen da (Batzar Orokorretan) eta baita aplikatzen (bere Auzitegietan eta Valladolideko *Chancilleria*ren Sala Berezian). Horrela legea (esanahi zabalean ulertua eta ez lege idatziaren letra hertsian) eratzeko eta moldatzeko boterea Bizkaitik kanpoko eskumenetara doanean (Foruen galera) gune juridiko horren barne muin bereziari eusteko lokarria hautsi egiten da eta berarekin gunea bera ere bai. Honek, lehen esan denez, hizkuntzaren aldetik ez badu ondorio zuzenik (gune foralaren hizkuntza gaztelera baitzen) Zuzenbide ikuspegitik, aldiz, eta Txepetxek esan duenez, badu bere eragina, zeren eta Zuzenbide foralak, ordurarte bere barne muinean botere mezu emailea (legegilea) eta hartzaileak bizkaitarrak izatetik, mezu sortzailea kanpokoa izatera pasatzen baitu. Adibidez, zuzenbide pribatuaren eremuan honek dakarren ondorioa hauxe da: Zuzenbide forala Kode Zibil orokorraren inguruan kokatzea eta horrela bera eraberritzeko ahalmena kanpora joatea. Beraz, Zuzenbide Foral hau eguneratzeko saioak (XX. mende hasierako Eranskin proiektuak kasurako) nahiz eta bertako jakintsu batzuk formulatu, ez dira besterik Gobernu Nazionalari aurkezturiko egitasmo batzuk baizik, honek geroxeago indarra emateko haiei Espainia osorako Botere Legegilearen bitartez (XX. mendeko 1959. urteko Konpilazioaren kasua).

---

es más breve puesto que ordinariamente nace después y muere antes que ellos». Konzeptualizazio hau autore honen *El espacio bilingüe*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1981, liburuan dager 31-32 orrialdeetan, Kontzeptualizazio hau alderatu da zuzenbide foralera, eremu desberdinak izan arren, aberasgarri izan dakigukeelakoan gure azalpenean. Prozesu legegilearen ildotik joan zen Txepetx ere geroago, botere politikoaren jerarkia linguistikoa deskribatzerakoan eta konkretuago legearen mezu emailea eta hartzailea linguistikoki bereizteko orduan. Ikus bestela *Un futuro para nuestro pasado.* Donostia: 1987, 215-216 orr. Ikus orobat, Urrutia Badiola, A.M.: *Euskara Legebidean.* Bilbo*:* Universidad de Deusto, 1990 eta Urrutia Badiola, A. M.: «Euskararen corpusa eta estatusa zuzenbidearen alorrean: ikuspegi iurilinguistikoa» in Madariaga Orbea, J. eta Adot Lerga, A. (koord.): *Euskara gobernuko goi erakundetan historian zehar: nazioarteko jardunaldiak*. Iruñea: Pamiela, 2014, Ensayo y testimonio, 155.

Harantzago joanaz, planteatzen den gaia hauxe da: Zuzenbide Foral honen barnean egungo Espainiako Konstituzioak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoaren ahalmen esklusibo izate hori, Zuzenbide foralaren gune juridiko sinbolikoa errekuperatzeko haina izan al daiteke?[17].

Orobat joka daiteke Zuzenbide Foralean euskarak eduki lezakeen presentziari buruz. Bitarte honetan, hots, Foruen galeratik gaur egunera doan abagune historikoan, euskal gizartean euskararekiko grina areagotu dela ez dago duda izpirik ere. Desioa eta eskaerak gehitu diren ber, euskararen mintzalekua urrituz joan da. Horrexegatik barne muin hori berreskuratzen denean, eskuratze horrek baldintza batzuk bete behar ditu: euskal zuzenbidearen edukiarena lehenez, sunda arkaikoa izan dezakeen leize zulotik ateraz eta euskaraz formulazio bat emanez, barne muin hori eta mundu taxuketa hori euskaraz moldatzeko gai izan dadin. Honetan du hitza Euskal Autonomia Erkidegoak. Bistakoa da Ohiturak, garai jakin bateko liberalismoaren eraginpean itoa, ez duela behar hainako indarrik lege idatziari aurre egiteko (edo eta lege idatziak duen sustengurik nagusiari hots, «segurtasun juridikoari» muzin egiteko). Horregatik eta lege idatzia nagusi bihurtu den honetan beharrezkoa da, euskararen aldetik, mundu foral horren euskarazko sorketari ekitea.

B) Foru Zuzenbidearen *gune juridiko* hori Euskal Herriko errealitate baino txikiagoa da, hau da, zuzenbideak bere baitan biziaren egoe-

[17] Hori dago eta ez besterik Carlos Lasarte-k idatzitako testu honetan: «En cuanto que precisamente, la previa existencia o inexistencia de Derechos Forales en las diversas regiones o países que constituyen el Estado es el criterio determinante de la posible legislación atribución civil; a las respectivas Comunidades Autónomas de competencias sobre la legislación civil; la cual, en principio, es de competencia exclusiva del Estado.» Honetan zirtolari ateratzen zaio Encarna Roca foruzale kataluniarrari, argi ikusten denez: «Discrepo pues en cuanto ahora desarrollo de las consideraciones conclusivas a las que llega Roca, E.: «El Derecho Civil catalán en la Constitución de 1978», *Revista Jurídica de Cataluña* 78, 1, 1979, 7-36 orr. Entiende que «con la Constitución desaparece definitivamente el derecho foral, para pasar a ser derecho civil de la Comunidad Autónoma de que se trate, en este caso, de Cataluña. La utilización del término derecho foral en la Constitución se debe a reminiscencias históricas, mas que a la propia organización constitucional.» (Lasarte, C.: *Autonomía y Derecho privado en la Constitución española*. Madrid: Civitas, 1980, 100-101 orr.).

ra desberdinak hartzen baditu ere, gune juridiko hau maila askotan adierazten da.

Beraz, nolabait esateko, zuzenbidearen *taxuketa forala* egin egiten da eta Zuzenbide foralak bere erara antolatzen du, nahiz eta erdaraz egin, maila foraletan. Zuzenbide foralak maila idatzian, mundu juridikoaren *berbakuntza* erdaraz egiten du eta bakarrik onartzen du euskara maila ez idatzietan edo eta zenbait kasu berezietan, geroxeago adieraziko denez. Honek badu bere zeresana, oraingo begirada garaikideen kaltetan dena, fenomeno hau hiru botereen banaketarako Montesquieu zenak azaldutakoaren ildoko antiparrekin ikusten bada batik bat.

C) Gune juridiko foral hau denbora laburragokoa da, ez du zuzenbideak aurretik sortzen bestelako guneak betetzen ez diren bitartean behinik behin. Zuzenbide forala sortzen doa, ohituren bilketaz eta praktikaz. Honela moldatzen da bere osotasunean eta honela dago eratua bere erroan. Geroago idazten da, ohiturazko sistema honek lege idatzien erasoari aurre egin behar dionean, lege idatziaren parean kokatzeko. Baina idazterakoan ere, erro hori ez da ahanzten eta ohituraren jokabidea erruz onartzen da, Foru Barriaren Atariko Azalpenean irakurtzen denez: *...se dejaron de escribir en el dicho Fuero y se usa y platica por uso y costumbre y a las veces sobre lo tal hay pleitos y reciben las partes mucha fatiga y costa en probar como ello es de uso y de costumbre y se guardan... para que así escrito y reformado el dicho Fuero y las Leyes de el en todo lo necesario, sobre que en el dicho Fuero estuviere escrito no haya necesidad ninguna de las partes de hacer probanza alguna sobre si el dicho Fuero y las Leyes de el son usadas y guardadas o no*[18].

Hor dago, bestalde, Foruaren bizitasuna adierazten duen bereizketa, «Forista» eta «foralista» kategorien artekoa, Aragoiko zuzenbide foralean[19]. Lehengoek Zuzenbide foralaren bizia bizi bazuten ere, bere

[18] Bizkaiko Diputazioa: *El Fuero, Privilegios, Franquezas y Libertades del M. N. y M. E. Señorío de Vizcaya*. Bilbao: Publicaciones de la Excma. Diputación de Vizcaya, 1977.

[19] Bereizketa hau argi dago Aragoi herrialdean. Ikus daiteke erabat erakusgarria den aldetik Lalinde Abadía, J.: «Derecho y Fuero», in *Comentarios a la Compilación del Derecho Civil de Aragón.* Zaragoza, 1988, 11-88 orr. Bizkaiko eta Arabako kasuan idazle foruzale klasikoak ez dute bere formazioan parte hartzen baizik eta sistema

osotasunean hura moldatzeko prozesuan parte hartuz, besteek haatik, zuzenbide foral honek bere iturburuak galdu eta gero gelditzen denaren gainean dihardute. Elkarren kontrako filosofia eta areago metodologia juridiko baten aurrean aurkitzen da honetan, zuzenbide bizitik zuzenbide fosilizatura doan bide laburra/ luzea.

3.2 *Foru gunearen nondik norako jurilinguistikoak*

Halere gorago aipatu denez, euskararen kasuan testu idatzien azpitik euskal Zuzenbide foralaren barnean gune juridiko-linguistiko bat eman dela esatea ez da ganoragabeko eta funts gabeko arrazoia. Askotan testu motzetan[20], errefrauetan, esakeretan eta abarretan euskararen esapide juridikoa begi bistakoa da[21]. Gogora bitez bestela, euskaraz oraindik bizirik dirauten hainbat hitz eta esamolde, dela Foruetan bertan[22] dela inguruko literaturan[23].

---

foral jakin baten gainean jarduten. Honela «forista» gure artean zuzenbidearen praktikoak dira. Foru Barriaren Atarian aipatzen direnak, Zuzenbidc hau erreformatzeko garaian: …acordaron que debían de diputar personas de letras, y de ciencia y de conciencia y experimentados en el dicho Fuero, usos y costumbres...». Honi buruz eta Zuzenbide foralari buruzko teorizazio klasikoaren ikusmiran irakur daiteke Elías de Tejada, F.: *El Señorío de Vizcaya*. Madrid: Minotauro, 1963.

[20] Ikus esaterako Mitxelena, K.: *Textos Arcaicos Vascos*. Madrid: Minotauro, 1964 edo eta Apat-Echebarne, A.: *Noticias y viejos textos de la Lingua Navarrorum*. San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1971. Baita ere Arzamendi, J.: *Términos vascos en documentos medievales en los s. XI-XVI*. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, 1985.

[21] Errefrau kontuetan kasurako Urquijo, J. de: *Refranero Vasco. Los refranes y sentencias*. San Sebastián: Auñamendi, 1964, I eta II. liburukiak edo/eta Oihenart, A.: *Atsotitzak eta Neurtitzak*. Donostia: Irakur Sail, 1971; Caro Baroja, J.: «Observaciones sobre el vascuence y Fuero General de Navarra», *Fontes Linguæ Vasconum*, 1, 1969, 61-95 orr.

[22] Dokumentu notarialetan aldiz guztiz jakingarria da Maite Lanforcade-ren tesia, non bere hirugarren tomoan Lapurdin akta notarialetan bildutako zenbait euskal testu agertzen diren. Ikus Lafourcade, M.: *Mariages en Labourd sous l´Ancien Regime.* Bilbo: Universidad del País Vasco, 1989.

[23] Esaterako Mogel idazlearen *Peru Abarca* idaztian. Hirugarren autuan hauxe irakurtzen da: «...Bizcaico porubac emoten deust escubidia aututeco zuben artian gura dodana neure oinordecotzat. Guztiac bardin diriala, autuco dot semeen artian lenen jaijua. Zubec buru dongacuac bacinee, autuco neuque alaba nagusija...». Mogel, J. A.: *Peru Abarka*. Durango: Gerediaga Elkartea, 1981, 108 or.

Besterik ez bada, zilegi bedi hona ekartzea Oihenart legegizon zaharraren lana, bere *Atsotitzak eta Neurtitzak* famatuan esanahi juridiko betea duten esamoldeak bildu zituena frankotan:

Herrik bere lege, etxek bere aztura (0.229)

Hemen bereizten diren bi planoak nabariak dira, *Herria* gizarte antolatua, erakunde politiko bezalaxe duen *legea* eta *etxea* gizarte zibila, gune pribatuak oinarri nagusitzat duen ohitura edo aztura. Behetik gora datorren zuzenbidea da Zuzenbide forala, ohituraz sendotua eta legearen sentidu zabalaren erabiltzailea.

Emok emaileari eta egiok egileari (0.789)

Hona hemen bestela ere «do ut des» latin esamolde juridikoaren ordaina obligazioen munduan, kategorizazio nabari baten aldamenean, euskaraz adieraziz alde bitasuna duen obligazioa.

Nori berea da zuzenbidea (0.341)

Agian bere esakeraren biribiltasuna dela medio, zuzenbidearen zehaztapen ezin politagoa da hauxe. Ohar bedi *zuzenbidea* erabiltzen dela eta ez *eskubidea*, azken honek norberaren *eskubidea* izateaz at maila objektibotik gune subjektibora eramaten baikaitu, Irujo zenak ongixko adierazi zuenez bere *Instituciones Jurídicas Vascas* liburuan, eskubide delako hau gainera zuzenbide germaniarraren esamolde ezaguna den *hand wahre hand* izenekoarekin erka daitekeela[24].

Zer esanik ez, antzekoak topa daitezke nonahi euskal errefrau bildumetan, errealitate honen adierazgarri zuzenak. Ezin utzi ordea hona alderatzeke Azkuek *Euskalerriaren Jakintza* liburuan dakarrena, euskaldunek etxe eta etxe inguruko harreman juridikoen seinale argia: Be-

[24] Esamolde germaniar honen sentidua ikus daiteke esaterako edukitza aztertzerakoan: «Hand wahre hand» (eskuak eskua gorde dezala) non eskuaren ideia germaniarra euskal «esku»aren parean kokatzen den. Ikus honi buruz IRUJO, M. DE: *Instituciones Jurídicas Vascas*. Buenos Aires: Editorial Vasca Ekin, 1945, 20 or. eta edukitzari buruz: CASTÁN TOBEÑAS, J.: *Derecho Civil español, común y foral*. Reus, Madrid: 1981, II. liburukia, I. bolumena, 10. argitaraldia.

gira ezak etxea, begiraturen hai etxeak[25]. Horra hor beraz Zuzenbide foralaren gune linguistiko-juridikoaren ñabardura batzuk eta baita ere ohar linguistikoak.

Oro har, alabaina eta historian zehar, euskararekiko alor linguistiko-juridikoaren eza, oso eztabaidatua izan da ikusmira guztietatik eta nagusiki eman diren oinarrizko eta kontrakarreko arrazoiak hauexek izan dira:

A) Euskara historian zehar behe mailako funtziotan aritu da, hots, diglosia gorritan. Fergusonek asmatu eta geroxeago Fishmanek burututako tipologian badirudi eta atzerapen geografikoaren gaindi, Bizkaian eta Gipuzkoan batik bat diglosia hori nahiko egonkorra izan dela, euskara ahozko hizkuntza zelarik eta zeregin idatzietan (juridikoetan ere) gaztelera nagusia. Hortxe dago, besteak beste, Bizkaiko Foru Barriaren agindua bere 9. tituluko 2. Legea; bertan aurreikusten den egoera hauxe da: jujeak ez du euskara ezagutzen ez eta lekukoek gaztelera, beraz interpretea beharrezkoa da, bion arteko zubia egin dezan. Zentzu horretan ari da Forua. Ildo beretik Larramendi zenak euskaldun jakintsuak euskararekiko zuten atxikimendu urria gogor gaitzesten du: *Los que debieran estar más instruidos en lo dicho son los que están menos y los que hablan el vascuence indignamente y sin rastro de inteligencia... Estos son los eclesiásticos, religiosos, caballeros y gentes acostumbradas desde chicos al castellano o a la gramática que aprendieron del latín...*[26].

Komeni da halaber diglosia hori historikoki nola izan den agertzea, aldi foralean behinik behin (XV-XVII. mendeetan). Orainari buruz egindako saioetan, Euskal Herriko diglosia, hizkuntzari buruz bederen eta Fishmanek proposatuko eskema klasikoaren barnean elebitasunik gabeko diglosiaren aldetik izan da esplikatua, diglosia ordezkatzaile bezalaxe, euskara B hizkuntza desagertzera zeramana. Hori nabaria bada azken bi gizaldiotan, Foruen galera gertatu eta gero, badirudi ez dela hain argi gelditzen Foruek iraun bitartean.

---

[25] Azkue, R. M. de: *Euskalerriaren Yakintza. Literatura Popular del País Vasco*. Madrid: Euskaltzaindia / Espasa Calpe, 1989, III. liburukia, 3. argitaraldia, 125 or.

[26] Larramendi, M. de: *Corografía de Guipúzcoa*. San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969, 283 or.

Esan daiteke aldi horretan diglosia eta elebitasuna elkarren kontrakoa baino elkarren artekoa zela, gaztelera A hizkuntza izanik, maila juridikoan erabilia, eta goiko klaseek bultzatua; euskara B hizkuntza izatean maila ez formaletan gelditzen zela. Larramendik halakoa adierazten du esaterako hauxe idazterakoan: *ocasiones hay en que no debe de predicarse en vascuence o en la lengua común de todos los oyentes y es en aquellos sermones cuyos asuntos miran a los que mandan, dirigen y gobiernan y no son para el común de los oyentes*...[27].

Honetaz aparte, ezaguna denez, zenbait kasutan gaztelera ez jakitea kargu publikoetara iristeko oztopo bihurtzen da, behin eta berriro batzar aktetan errepikatu denez. Hortxe daude, geroxeago aztertzekotan Bizkaiko Batzar Orokorren debekuak, gazteleraz ez zekiten aldunentzat eta hortxe leudeke, besteak beste, Fishmanek arazo hau berplanteatzerakoan idatzitakoa: *Diglossic societies are marked not only by compartmentalization conventions but by varying degrees of access restriction. Nevertheless the perceived ethnocultural legitimacy of' two languages as "our own" and the normative functional complementary of both languages, each in accord with its own instituonally congruent behaviors and values, remains relatively undisturbed*[28].

Hitz hauek nahita nahiez *tubalismo*aren ildora igortzen dute zuzenean eta baita bere eraginera ere. Batik bat euskararen teorizazioan, Tovar edo Juaristik ideologia hauen azterketan erakutsi dituzten ondorioak biltzera eta diglosia/elebitasun honen egonkortasuna defendatzera.

B) Horrela Foru zuzenbidearen muinean datzan ohitura izaera agertuko litzateke euskarazko *gune linguistiko-juridikoa* ez izateko arrazoi nagusi moduan. Izan ere, Foru zuzenbidea ohiturazko zuzenbidea izanik, lege idatziaren indarra motelduagoa gertatzen da bere baitan lehen aldietan behintzat. Honi buruz franko idatzi arren nabaria da euskararen aldetiko idazketaren gabeziak erakartzen duela euskara-

---

[27] *Ibidem*, 289. or.

[28] Fishman, J.: «Bilingualism and Biculturalism as Individual and as Societal Phenomena», in *The Rise and Fall of the Ethnic Revival*. Berlin: Mouton & De Gruyter, 1985. Erreka beretsutik ikus daitezke tubalismoaren ondorioak eta elementuak: Tovar, A.: *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Madrid: Alianza Editorial, 1980 eta Juaristi, J.: *Euskararen Ideolojiak*. Donostia: Kriselu, 1976, 1. liburukia.

ren sarrera halako maila ez formaletan (gogoratu errefrauak). Honen hondakin garbiak dira oraintsu arte kontratazio motak aipatzerakoan legelariok aztertzen genituen *erdirikue, kortaganadue* eta *ameterish* kontratu bereziak[29] edo eta hamaika adibide zuzenbide foraletan agertzen direnak: *bidezorrak*, *jokoak* eta abar[30].

Beraz behe mailan zebiltzan herritarrak bere harreman juridiko arruntetan euskaraz ari baziren ere, herrialde euskaldunetan (ez ahaztu Bizkaiko Herrialde erdaldunak) harreman horiek formaltzerakoan eta areago idazterakoan gaztelera hutsean egindako testuak bihurtzen ziren, honetarako bitartekari juridikoak, legelariak, eskribauak eta abar itzultzaileak zirela, B hizkuntzatik A hizkuntzarako zubiak, gehienak bertako semeak baitziren. Arazoa zera da, bitartekari horiek zergatik idazten zuten gazteleraz edo erromantzez eta ez ordea euskaraz. Bat nator Larramendi eta Akesolorekin inguruko erromantzeek eduki zezaketen pisua aipatzerakoan. Hizkuntza distantziarik gabeko soluzioa bilatu zen, uharte linguistikoaren kaltetan, batez ere, Administrazio eta Gorte Kontuetan, maisuki adierazten duenez LACARRAk[31].

Honek guztiak eramaten du gaia bide beretsutik gizaldietan zehar edukin juridiko foral hori euskaraz adierazteko egin diren saio eta ahaleginetara, hau da, Bizkaiko Foruak Foruaren eta gune foralaren euskarazko ikuspegitik forala aztertuko den ekin-lerro nagusietara[32].

---

[29] UNAMUNO, M. DE: «Vizcaya», in COSTA, J.: *Derecho Consuetudinario y Economía Popular de España.* Zaragoza*:* Guara Editorial, 1981, II. liburukia, IV. zatia.

[30] Artezki bilduak hemen: VICARIO Y DE LA PEÑA, N.: *Derecho Consuetudinario de Vizcaya*. Madrid, 1901.

[31] Ikus 1. oharra, LACARRA, J. M.: *Vasconia medieval. Historia y filología,... op. cit.* Baita ere SATRUSTEGUI ZUBELDIA, J. M.: «Impacto del cambio político de la situación del euskera y posterior evolución», in *475 Aniversario Conquista de Navarra.* Donostia*:* Eusko Ikaskuntza.

[32] Albo batera utziz bestelako aurrekinak esaterako EUSKALTZAINDIA: *Euskararen Liburu Zuria*, Bilbo: Euskaltzaindia, 1977 delakoan agertzen direnak, bereziki 333-397 orr. edo/eta kasurako SAN MARTÍN, J.: «Cadizko konstituzioa euskaraz 1820», *Euskera*, 32, 1987, 393-397 orr. Azken honek berez eta berariz eskatzen du azterketa sakon eta luzea, euskarak honelako arloetan ere bere presentzia eduki duela agertarazteko eta ikertzeko; ikus: GALLASTEGI ARANZABAL, C.: *Euskera y régimen foral. Lengua, comunica-*

4. XVIII-XIX. MENDEAK: *MINTÇORIC, ETA HITZCUNTÇARIC IÇAN EZ BALIZ…*

Urteak joan, urteak etorri eta XVIII–XIX. mende bitarte horretan begirada jarriz gero, berehala aurkitzen dira foru idatzien islak.

Hainbatez, aurreko garaiko idazleak, hala nola, Etxepare, Leizarraga eta Axular ere, bide beretik[33]. Unerik kontuzkoenean, euskara nolabaiteko ofizialtasun baten jabe. Aitzindaritza Leizarragaren *Testament Berria.* Horren gibelean, Albretarren erregetza protestantea, Intxausti[34] eta Knörrek[35] azpimarratu dutenez.

Frantzian, *Villers-Cotterets* ordenantza tartean dela, frantsesa nagusi. Biarno eta Behe Nafarroako erresuma beregain horretan, biarnesa[36].

---

ción, poder y Derecho en Bizkaia, Gipuzkoa y Álava (1500-1876). Oñati: Instituto Vasco de Administración Pública / Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2017.

[33] Urrutia Badiola, A.M.: *Euskal letretan barrena, legea mintzo.* Bilbo/Madrid: Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia/Ilustre Colegio Notarial del País Vasco/Editorial Dykinson, 2026, Minor Bilduma 14.

[34] Intxausti, J.: «Leizarraga eta Leizarragatarrak (1563-1571), Erreforma–Kontrarreformetako ilun-argitan», *Revista internacional de los estudios vascos,* 40, 1995, 119-160. orr.

[35] Knörr, E.: «Joannes Leizarraga», in *Los escritores, hitos de la literatura clásica euskérica*. Gasteiz: Fundación Sancho el Sabio, 1996, Besaide bilduma, 115-138 orr.

[36] Cierbide, R.: *Arnaud d'Ohienart (1592–1667). Vida y obra*. Gasteiz: Euskalerriaren Adiskideen Elkartea, Arabako Batzordea, 1997, 8. or.: «Con posterioridad a la primera edición de su obra, obtuvo para Saint-Palais la creación de la Senescalía o Tribunal de Primera Instancia (1639), con objeto de que se impartiera justicia en lengua vasca a los habitantes del tercer estado de Baja Navarra, ya que los naturales, dice el decreto: "… no sabían ni comprendían otra lengua que la vasca y sufrían grandes inconvenientes al trasladarse a Pau, teniendo que correr con grandes gastos a causa de los traductores, para defender sus causas frente a los nobles y otros privilegiados"». Jaurgainek ere, Pierris de Casalivetery Mauleko notarioaren egunerokoa eskuan hartu eta berehalakoan ohartu euskararen ahozko erabileraz: «La sentençe était rédigée et prononcée en gascon, puis lue en basque par le greffier; mais les plaidoiries pouvaient se faire en cette dernière langue» (Jaurgain, J. de: «Journal de Pierris de Casalivetery», *Archives historiques de la Gascogne,* XVIII-3, 1908). Aurrekoarekin batera, eta Bizkaian bertan (xv-xvi. mende bitartean), hona hemen argigarri izan daitezkeen lerro hauek: «… sin embargo, su interés trasciende del caso concreto por cuanto supone de institucionalización de la figura del intérprete euskaldun, propuesta además por la suprema audiencia y el Juez Mayor de Bizkaia con residencia en Valladolid, por lo que se merece un cuidadoso examen. Según

Euskararen zeregina, ahoz zein idatziz, ugaria. Idatzizkoari dagokionez, adibide argia Txomin Peillenek[37] *Euskera* aldizkarian jasotako lege hiztegia; bertara batu dira, XVI. mendeko Zuberoako foruan, Jakes Bela abokatuak bilduriko hitzak.

Euskal idazletza ere ahozkotasunaren eramaile dela agerikoa da. Horretarako bi aldarte desberdin, igarri-igarrian baitago biotan euskarazko lege kontua. Lehena, XVIII-XIX. mende bitarteko hainbat idazlerena, beroriek Zuzenbide eta lege topikoak dakarzkigutela. Bigarrena, lege testu apurrak, euren urritasunean ere, borborrean zebilen mundu baten adierazle direnak.

Bi alderdi horiek aztertuko dira jarraian.

Iragan bitartean jauzi luzea egin eta Larramendiri datorkio haria. Bi osagai ditu aurrelari andoaindarraren ahaleginak: foruak eta euskara. Haren hitzak eta izkribuak ere bi lerroetatik datozkigu, liburugintzan zein hiztegigintzan. Bikoitza ahalegina, batua emaitza.

Horren *Diccionario Trilingüe* delakotik hona berba batzuk[38], adibide moduan, gure eremuan bete-betean sartzeko modukoak direnak:

---

representaba la propia administración hasta aquel momento sólo había dispuesto de un receptor euskaldun, mientras que la gran afluencia de pleitos sobrevenidos desde Bizkaia y Gipuzkoa hacía necesario "otro recebtor vascongado que resida en´sa dicha abdiencia". Pues a raíz de tal desempeño exponían las consiguientes disfunciones: junto con el escribano cada proceso exigía de un intérprete, suponiendo el pago de dos en vez de un salario; los pleitos se dilataban en exceso; y la misma justicia resultaba mediatizada por la versión del traductor. Como respuesta a los problemas planteados en esta súplica lo corte nombró receptor profesional a Juan de Murga puesto que era vascongado y escribano eficiente, y por ello se le integró en la plantilla de escribanos receptores del alto tribunal» in Aguirre Gandarias, S.: «La oficialidad del euskera en procesos postmedievales (con documentos inéditos», *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo*", 26, 1992, 259-279 orr.

[37] Peillen, Tx.: «Zuberotar lege hiztegia hamaseigarren mende hastapenean», *Euskera*, 27, 1982, 231-238 orr.

[38] Larramendi, M. de: *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latín*. Donostia: Txertoa, 1984, berrargitaraldia, 2 liburukia. Ildo beretik eta foruen edukia aintzar hartuz, Aizpitarte, J. M.: «El Diccionario Vasco proyectado por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País y la obra de José María de Aizpitarte. Instrucción para la formación de un diccionario de la lengua vascongada», in *Colección de Documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa*. San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa,

Acreedor (artzecoduna, artzecoduena: hartzekoduna); *alquilar* (alquilatu, alogueratu, alocatu); *cómplice* (gaistaquidea); *contratar* (salerosi, tratuquidatu); *delinquir* (arautzi); *diputación, comission* (ecauta); *divorcio* (desezcontza); *enajenar* (besterendu, bercerendu); *fe pública* (fede jaquiña); *juez* (ecadoya, jueza); *ley* (legue, leguea); *monarchia* (bacarondea); *nulidad* (iñolazcogoa); *pleito, litigio judicial* (aucia); *querella* (querella, querellea); *solar, donde se edifica* (urubea); *subrogación* (ordeztea, besteren ordean sartzea); *testamento* (atzenaya, testamentua, testamenta); *usufructo* (gozamena, usufrutua).

Beste horrenbeste esan daiteke haren liburugintzaren alderditik. *Fuero*a zen nagusi eta, ondorenez ere, ezin arbuiagarriagoak *fuero*aren aurkako erasoak[39]: *Argatic Azpeiticoan erabaqui zan, Hiri guciai eman cedilla contu, irundarrac billatu ta arquitu cituzten eguiteco egiazcoena. Baña orduan bertan junta etzidin batzarreric, asmatu zuen aitzaquia ortic, luzagarri emendic Madridaño joateco eta Consejuaren gobernariagandic ateratzeco, iñon ere ez batzarrera biltzeco aguintea; aleguia biltzen bazan, arazo andiac, jaiteac ta auciabarzac izango ciradela; ceña zan eguia etzana: eta eguia etzanean, cer ote zan? Badaquite bada orrelaco aguinteac escatzea, ta eracartea dala goitican bera gure fueroa austea; eta eztirala eguin bearrac, baicic uts utsic obeditu bearrac. Badaquite, ez gobernariac ecen ez eta arequin batean bere bilguma osoac ere, ecin quenduco digula fueroac ematen digun escua, libertadea ta bidea. Cer eguiñen degu bada? Adisquideac goitic, lagunac betic, bearco ditugu noizbait; cincilica bezala gaude bata besteagandic. Orain laurguitu dezagun, guero osatuco degu fueroa. Zori gaistoco buru, nascarriac!*

Antzekotasunik eta parekotasunik badago halako gorabeheretan Bizkaiko lurraldean geroxeago biziko den giroarekin. XIX. mendea hasita, Ulibarri arabarrak[40] idatzi dio Aita Zabala euskaltzale bizkaitarrari, horrek Bizkaiko Forua euskara dezan: *Orduan emeen porua imini*

1965, 6. bolumena, 104. orr. Ikus, era berean, Urrutia Badiola, A. M.:«Legearen zirrikituetatik barrena: ahozkotik idatzizkora» *Euskera*, 43,1,1998, 13-47 orr.

[39] Larramendi, M. de: *Euskal Testuak*. Andoain: Andoaingo Udala, 1990, 32 or. Testu horiek Patxi Altunak eta Joseba Andoni Lakarrak prestatu dituzte.

[40] Ulibarri y Galíndez, J. P. de: *Gutunliburua*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundi Txit Gorenaren Kultur Kontseilua, 1975, argitalpen faksimilea, 44-45 orr.

biar dana da euzkera urrezco bichia edo izkeacaz […] *eiteen dabeen mesedea andigarria da chito euzkeel Errietaraco; ycengo da urrezco guiltzea Oneenpean yagoteco escutapeneco yakiturizco gauza gustiac; lenengo Yaincoen Aguinduec gordetaco; eta bigarrena gueure euzkera oneresia, bere ecandu, oitura, astura zuzengarri donzu gustiacaz.*

Abandoko errementariari erantzun mingotsa luzatzen dio fraide bilbotarrak[41]: *Orregaiti esateco nengoan, eta guichi gaiti lumeac escribidu eztau, orrec gogo eroac eta alperrac direala; baya nire artean eguin dot: oneri berba astuna erichico yeutsac, ta gay gozan ishilic: eta alan atzeratu na* […] *baya gaucea ondo beguirauturic, biotzac esan deust, ta ez bein; ez dot ori iritzat; ireac bashen indar ta lagungarri obeac bear dituc ortaraco. Izan bere nic eztaucat ori eguiteco bear dan aztiric, ez gura leukean era onic, ez diruric ta ez ecer: eta okerrago dana, ya eztacat gogoric* […] *nigatic forua erderaz guelldituco da.*

Nolanahi ere, XIX. mendean badira arestian esandakoaren zantzuak. Zuzenekoak eta lehen eskukoak, gainera, Aita Villasantek artez eta sakon ikertu dituen euskal sermoilari langile eta sutsuen liburugintzan.

Hala bada, maiz kausitzen dira Juan Antonio Mogel, Frai Bartolome, Frai Pedro Astarloa eta abarren liburuetan halako aipamenak, juridikotasunik juridikoena burutik burura erakusten dutenak. Orobat Gipuzkoako Ubillos edo Agirre Asteasukoarenetan. Zeresanik ez, Nafarroako Lizarraga Elkanoko eta Lapurdiko Etcheberri Sarakoaren autuetan.

Frai Bartolome bizkaitarrak badaki bereizten, euskaraz ere, Bizkaiko tradizioaren araberako udal agintariak, forudunak —*pielak*— eta forugabeak —*alkateak*[42]—. *Urijeetaco Alcate Jaunac, ta Errijetaco Piel Jaunac nai balebee bere, quendu ezin leguijeez, Urijac, edo errijac nai ezdavela, sarritan icusidogun leguez. ¿Noc ditu bada guztiz quendutecuac?* […] *Ciudadiac, Urijac, eta Errijac quendu leguijez eureen luurrecuac, gura balebee. Ezdau cristandadeco Legueguinec ez Uriric, ez Ciudaderic, ez Erriric castigueetan, bere luurreco dantza nastecuac quendu ditubalaco.*

---

[41] *Ibidem*, 47-48. orr.

[42] Frai Bartolome Santa Teresa: *Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatzozpinduba* (Luis María Mujikaren edizio kritikoa), Bilbo: Euskaltzaindia (Euskararen lekukoak), 1986, 174 eta 175 orr.

Halaber, legea zer den zehaztu guran ibili eta fraidea[43] laster ohartzen da, baita irakurleari ohartarazi ere, legeen arteko aldeaz: *Gueuri aguinduteco, escubidia dauqueenac, modu ascotaracuac dirian leguez, mandamentubac, edo leguiac bere modu ascotaracuac dira. Eleisia da, pedeco gauceetan, ta oitura oneetan cristinaubac Cerura vidian imiñi, ta zucendu biar dituban, Aguintaribat. Ta orregaiti dagoz Eleisiaren mandamentubac, edo aguindubac. Erreguiac, eta Erreinuben Burubac dira, eureen aguinduban dagozanai, bata bestiaren arteco artu emonetan, cleituco, aciendaco, ta baque oneco gauceetan cer eguin biar daveen, ta cer eguin biar ez daveen, aguindu biar deutseenac. Ta orregaiti dagoz Erregueen, ta euren lecuban dagozaneen aguinduban, eta leguiac.*

Frai Pedro Astarloa durangar zena, Zuzenbide kontuetan, irakasle oparoa. Honetara ematen ditu berak, lukurreriaz diharduela, egun erabilera handirik izan ez, baina berak[44] bizi-bizirik ezagutu zituen *censu*ak: *… jaquin biar dozube modu bitacua dala censua; bata eche, solo, edo frutuemaile dan gauzaren baten ganian ifinten dana, eta deitza erriala. Censo onetan euneco iru baño gueijago ecin eruan leitequez, dinue Españaco leguiac. Bestia da guizonaren irabaci, edo tratu, nai comercijuan ifinten dana. Oni deritzo personala.*

Ezin aipatzeke utzi Juan Antonio Mogel[45] eibartarra. Hor dago *Peru Abarka,* maisu lana. Horren orrialdeetan, oinordetzaren inguruko foru bizkaitarraren mezu ezin beteagoa irakur daiteke: *Eztaucat eche bat baño. Bizcaico porubac emoten deust escubidia aututeco zuben artian gura dodana neure oinordecotzat. Guztiac bardin diriala, autuco dot semeen artian lenen jaijua. Zubec buru dongacuac bacinee, autuco neuque alaba nagusija. Ezta ondo gurasuac lotuta euquitia euren escubac.*

Gipuzkoarren baitan, gailen da, ezbairik gabe, Agirre Asteasukoa, Ubillosen lana ere baztertu gabe. Ubillosengan[46] lege naturala zer

---

[43] *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac*, *Aita Prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco Predicadoriac ateraac*. Iruñea: Rada alargunaren Liburuguilla, 1816, 21 eta 22. orr.

[44] Frai Pedro Astarloa: *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco catecismua*. Bilbo: D. Pedro Apraizen moldategia, 1818, 172. or.

[45] Mogel, J. A.: *Peru Abarka... op. cit.*, 107 eta 108. orr.

[46] Fray Juan Antonio de Ubillos: *Christau doctriñ berriecarlea*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1989, 16-68 orr.

den erraz antzematen da: *Cer gauza da* legue naturala *deritzan jaiozco ta ecarriazco leguea? Da, cer dan gauz ona ta cer dan gauz gaiztoa eracusten digun gueren buruco arguia ta ezagumentua.* […] *Baciequien alabaña, iñorc esan gabe, onetan eta beste gauz ascotan gaizqui eguiten zuela. Norcnai bere burutic duan argui ta ezagumentu oni deritza* legue naturala *edo jatorrizco leguea.*

Agirre Asteasukoa da, esan bezala, lehendabiziko eta nagusia aztergai den alorrean. Horren liburuetan Zuzenbidea nonahi da present. Garai hartako legeak ezagutzen ditu. Erabili ere egiten ditu, sermoigintzan beharrezko duenean adibideren bat edo jartzeko. Jakina da, Aranburu haren herrikideak hala arakatu eta idatzia, Agirre Asteasukoak bere bibliotekan bazituela aldi hartako lege testuak nahiz lege autore garaikideen libururik aukerakoenak[47].

Haren idatzietan aurkitzen dira, sarri askotan, erdarazko legeen itzulpenak, hala nola, *Novísima Recopilación* Espainiako lege testuaren bilduman agerturiko VIII. liburuaren XI. tituluko V. legearen testua[48]: *Españaco legueac aguintzen du, ez dezala iñorc ere esan, ez cantatu itz desonestoric, ez gauaz, ez egunaz caleetan, placetan, eta bideetan, eun azote, eta urte betean deserrituric vicitzeco penaren azpian* (*leg. 5, titulo 10* (sic) *lib. 8 Novæ Recop.*)[49].

Molde bera badarabil asteasuarrak ezaugarri sendoak dituen ezkontzari buruz, Espainiako errege Karlos III.ak aldarrikaturiko testua[50] artez euskaratzen duela.

---

[47] Aranburu, P. J.: *Juan Bautista Agirre Elola, 1742-1823. Gizon eta apaiz eredugarria*. Oñati. 1995; «Juan Bautista Agirre, euskal idazlearen liburutegia, 1742-1823», *Fontes Linguæ Vasconum*, 73, 1996, 493-505 orr.

[48] *Novísima Recopilación,* VIII. liburua, XI. titulua, V. legea: «Mandamos, que de aqui adelante ninguna perfona fea ofado à dezir, ni cantar de noche ni de dia por las calles, ni plaças, ni camions, ningunas palabras fuzias, ni deshoneftas, q comunmente llaman pullas, ni otros cantares que fean fuzios, ni deshoneftos, fo pena de cien açotes, y defterrado vn año de la Ciudad, villa o lugar donde fuere condenado».

[49] Agirre Asteasuko, J. B.: *Jaungoicoaren legueco amar aguinteen gañean eracusaldiac*. Donostia: Hordago, Lur, 1978, 2. liburukia, 145. or.

[50] 1776ko maiatzaren 23ko Pragmatika, hil bereko 27an argitaratua: «… los matrimonios de los hijos é hijas de familia menores de veinte y cinco años, mando, que estos deban, para celebrar el contrato de esponsales, pedir y obtener el consejo y consentimiento de su padre, y en su defecto de la madre, y á falta de ambos, de los abuelos por ambas líneas respectivamente, y no teniéndolos, de los dos parientes

Agirre Asteasukoak[51] honetara laburtu eta itzultzen du testu hori: *Carlos irugarrenac milla zazpi eun, eta iruroguei ta amaseigarren urtean ipiñi zuan legue bat, non aguindu zuan, lenengo lecuan: oguei ta bost urte ez dituen seme, eta alabac escatu bear diezala gurasoai beren baimena ezcontzeco itzac emateco. Bigarrena, oguei, ta bost urte izan arren, escatu bear diezala gurasoai, consejua bederic. Irugarrena, gurasoen baimena, edo consejua escatu gabe ezcontzen badira, ez deceela izan beren echeco ondasunetan escu, ta escabideric.*

Ez du Asteasukoak[52] ahazten foru arazoa eta, garaiari dagokiona aintzat hartuta, lege horrek izan zituen gorabeherak ere ekartzen ditu, Nafarroako Kontseiluak ez baitzuen onartu erregeren agindu hori.

Aipagaia da, bestalde, Lizarraga Elkanokoari[53]. Horren *De Matrimonio: quid, a quo*… tratatuak, ezkontza bera zer den azaltzean, sakramentu izaera eta kontratu izaera bereizten ditu: *Errealidádean matrimonio dá guizón ta emastequibáten uniónea vici gucíco engendraceagátic húmeac,*

---

mas cercanos que se hallen en la mayor edad, y no sean interesados ó aspirantes al tal matrimonio, y no habiéndolos capaces de darle, de los tutores ó curadores. […] Si llegase á celebrarse el matrimonio sin el referido consentimiento ó consejo, por este mero hecho, así los que lo contraxeren, como los hijos y descendientes que provinieren del tal matrimonio, quedarán inhábiles, y privados de todos los efectos civiles, como son el derecho á pedir dote ó legítimas, y de suceder como herederos forzosos y necesarios en los bienes libres, que pudieran corresponderles por herencia de sus padres o abuelos, á cuyo respecto y obediencia faltaron contra lo dispuesto en esta pragmática. […] Los mayores de veinte y cinco años cumplen con pedir el consejo paterno para colocarse en estado de matrimonio, que en aquella edad ya no admite dilación, como está prevenido en otras leyes; pero si contravinieren, dexando de pedir este consejo paterno, incurrirán en las mismas penas que quedan establecidas, así en quanto á los bienes libres como en los vinculados».

[51] Agirre Asteasuko, J. B.: *Jesucristoc bere elizari utzi ciozcan, zazpi sacramentuen gañean eracusaldiac*. Donostia: Hordago, Lur, 1978, 1. liburukia, 603. or.

[52] *Ibidem*, 603 or.: «Carlos laugarrena etzan onembesterequin contentatu, eta aguindu zuan, ez daquiela ezcontzeco itzen auziai lecuric eman, letraz ezarriac, eta Escribauaren, eta testiguen aurrean emanac ezpadira. Baña Obispo Jaunac ez due artu bigarren legue au, eta etzan erraz artzea, ala nai izan arren; Ceren Aita Santu Benedicto Amalaugarrenac dionez, ez duen onembeste escu. Nafarroaco Consejuan, eta Provincia onetan ere, etzitzayon lecuric eman ezcontzeco itzen modu berri oni. Atera ezazu emendic, gaztea, ezcontzeco itzac Jaincoaren aurrean balio dezaqueala, letraz ezarria, eta Escribau, ta testiguen aurrean emana ez izan arren».

[53] Apecechea, J.: «Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga (año 1782)», *Fontes Linguæ Vasconum*, 29, 1978, 339-360 orr.

ematendiréla bátac berceái derécho ta potestáde bere gorputzain, obligacendiréla vicicerá compañia ónean ta separaestaizquen guisan, baicic elcarréqui beti viciquide becála, elcárr maitátus, elcárr lagúndus, ta conformátus vicicecó báquean, ta acicecó húmeac Ceruráco. […] *Christioen matrimoniogóntan direbi gauza, contrátua ta sacraméntua: Matrimoniac, contrátu becála dacárr obligácio guizonari emásteas, ta emasteari guizonás, baña eztacárra graciaric; sacramentu becála dacárra grácia Cristoren meritoes cumplicecó aiságo obligácioac…*

Aurrekoari den guttiena ere kendu gabe, ezin zaio hurrenkera labur horri amaierarik eman, ETCHEBERRI[54] Sarako doktorearen *Lau urdiri gomendiozco carta edo guthuna* gogora ekarri gabe. Hortxe dira, besteak beste, goiburutzat hartuta, Zuzenbidea eta legea uztartzen dituzten euskal hitz egoki eta euskarazkoak: *Ecen mintçoric, eta hitzcuntçaric içan ez baliz gure artean, nola bicico guinen mundu honetan? Munduac nola iraunen çuen? bat bederac nola emanen çuen aditçera bere arroçoina eta çuçena? Bere ondicoa nola bertceri erranen, eta contatuco cioen? Mintçoric, eta hitzcuntçaric içan ezbaliz, norc cer irakhatsico çuen? Legueac norc eta nola eguinen cituen? Mundua norc gobernatuco çuen? Ceini bere çucena nola emanen, eta beguiratuco citçayoen? Batbedera bere ondicoan, eta atsecabean norc consolatuco çuen, mintçoric içan ez baliz?* […] *Mundu hau bada bere oinean badago, matenatcen bada, legueac eguiten badira, nori bere çucena beguiratcen baçayo, jaquintasuna, eta escolac irakhasten, eta ikhasten badira, Hirietan, eta Herrietan Gendeac elkharrequin bici badira, eta gucien gainetic baldin salbatcen bagara; ontasun, eta fagore hauc guztiac heldu çaizquigu mintçotic, eta itz eguitetic.*

Esaneko berbetan egon eta bigarren tankerako zehaztapenak egin daitezke arau eta manu sorgintzan euskara erabili zuten aginduen laburpena.

Guztiak jite berberekoak ez badira ere, bai, ordea, sailkatzeko modukoak. Hona hemen, labur bildurik, halakoen aztarna nagusiak:

1.— Hegoaldean eta, batik bat, Gipuzkoan, bistan da ahozko tradizio juridikoak bere segidakoak izan zituela, bi aldarteotan gutxienez. Lehena, XVIII. mendetik aurrera ageriko diren udal ordenantzak

[54] D'ETCHEBERRI, J.: «Lau urdiri gomendiozco carta edo guthuna», in *Obras Vascongadas del Doctor Joannes d'Etcheberri*, Paris: Paul Geuthner, 1907, 302 eta 303. orr. Sarrera eta oharrak Julio de Urquijo e Ibarrak egin ditu.

(Tolosa, Usurbil)[55], herri euskaldun elebakarrari hainbat agindu helarazteko asmoz sortu zirenak. Bide beretik, San Martin euskaltzain osoak iragarri zuenez, 1812. urteko Konstituzio espainiarra euskaraz zabaltzeko saioak[56]. Horien aldamenean, zalantzarik ez, XIX. mendean Donostiako *Lore-joko*ek erakutsitako joera, euskara nolabait *ofiziala* moldatuko duena. Ordenantzen euskara lexiko mailegatuena eta joskera erdaratik itzuliarena bada ere, Donostiako *Lore-joko*ena, aldiz, hitz berri eta hitz hurren estuagokoa da, Larramendiren eragina nabari dariola, nabarmen izan arte[57]. Bigarren horrek, motz eta labur

[55] Tolosako ordenantzen inguruan, ikus Urrutia, A.; Lobera, A. (arg.): *Euskara, Zuzenbidearen hizkera.* Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1997, 2. argitaraldia, 427-430. orr. Usurbilgo ordenantzen inguruan, ikus Zabaleta, J.: *Euskal itzulpenaren antologia*. Donostia: Itzulpen Eskola, 1984.

[56] San Martín, J.: «Cadizko Konstituzioa euskaraz 1820», *Euskera*, 32, 1987, *op. cit*.

[57] «*aitzati* (patrimonio), *alderdi* (partido político), *aldimaitz* (comisión), *aldimaitz zuzendari* (comisión directiva), *aldiri* (provincia), *anaikidago* (cofradía), *araude* (reglamento), *arazgetu* (jubilado), *argidotar* (ilustre), *arraude* (derecho, privilegio), *arrotzentzako echandi* (consulado), *artuagiri* (pagaré), *atzenopamen* (testamento), *aurkeztari* (comisionado), *aurrande* (derecho, privilegio), *bainande* (1. condición; 2. pacto), *bakidargo* (comunidad), *bakide* (1. conjunto; 2. unión), *baldinde* (1. capitulación; 2. convenio, pacto), *ballera* (cofradía), *begoitetu* (invertir), *berepuxka* (patrimonio), *bialkin* (embajador), *billaldi* (sesión, junta), *bilguma* (1. ayuntamiento; 2. consistorio, junta), *burdinbide* (ferrocarril), *dianagusi* (presidente), *dianagusi ordeko* (vicepresidente); *dianagusitu* (presidir), *dianagusitza* (presidencia), *dieronde* (república), *dierri* (nación), *dierritar* (compatriota), *egintza* (1. acta; 2. acto), *ekauta* (diputación), *ekautu* (diputado), *ekautuen bilguma* (Diputación como cuerpo), *ekindari* (procurador), *enparatu* (embargar), *epalle* (jurado), *epalletza* (jurado), *epakitzalle* (jurado), *erabakida* (resolución), *erabakitza* (resolución, acuerdo), *erondari* (gobernador), *eronde* (gobierno), *erregezko* (real), *erri eche* (ayuntamiento, casa consistorial), *eskriton(t)zi* (escribanía), *eskudantegi* (licencia), *gallaldi* (privilegio), *gainde* (alteza), *geidiati* (excelentísimo), *gizarande(ak)* (derecho de gentes), *gizaraudeak* (derecho de gentes), *goarpelari* (secretario), *goitikida* (Constitución), *guziz goitagarri* (excelentísimo), *ikasola* (universidad), *intereskucha* (caja de ahorros), *irakasde* (instrucción), *iraungituri* (tradición), *irigoki* (popular), *iritarau* (política), *ichaskinde* (marina), *itsaslapur* (pirata), *jabegabetu* (declarar desierto), *jauntasun* (señorío), *jauntza* (señorío), *lagundi* (1. compañía, sociedad; 2. compañía), *lagunkida* (1. compañía, sociedad; 2. compañía), *laguntza* (compañía, sociedad), *lanari* (trabajador), *lenenkari* (1. presidente; 2. principal), *leñargi* (1. nobleza; 2. noble), *lerden* (derecho, privilegio), *lugorki* (capital), *lurbira* (territorio, comarca, región), *On* (Don), *Ona* (Doña), *onbereiskuntz* (privilegio), *ondekidatu* (fundar), *ontzidi* (flota, armada naval), *otsandetu* (promulgar, publicar), *otsanditu* (solemnizar), *otsaundi* (solemnidad), *otsaunditu* (solemnizar), *purube* (solariego), *chit geidiati* (excelentísimo), *chit goiti* (excelentísimo), *chit goititu* (excelentísimo), *chit goitu* (excelentísimo), *uritzaile* (gobernador), *zuzejaun* (director), *zuzejauntze* (patronazgo), *zuzendari* (1. directivo; 2. director), *zuzende* (dirección, señas)». (Pagola, I.: «Neologismos en los Juegos Florales», *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 18, 1984, 55-141 orr.).

barik, luzetxo iraun zuen XX. mende hasierako giro berriak berori ezabatu arte.

2.— Bizkaiko Jaurerriari dagokionez, azpimarratzekoa da XIX. mendean, lehen esan den jokaera beretik abiatuta, Bizkaiko Batzar Nagusietako euskal testuen multzoa. Euskal Herriko Hegoaldean inoiz izan den euskarazko testu-multzo juridikorik bateratuena da hori. Irizpideak irizpide, Uriarte euskaltzale eta Bonaparte printzearen solaskideak buru-belarri jardun zuen urte luzeetako zeregin horretan. Zernahi gisaz, haren pentzutan eginiko testuak ez dira zerrenda horren testu guztiak, bestelakoak ere baitziren tartean[58]. Azpimarratzekoa, denon bistarako, bizkaieraren abialdian gertatzen den hori. Hainbatez, euskalki bera, doitua eta literatura mailara igoa izan eta administrazio zereginetan ere ageriko, foru sistema juridikoaren hondakinak bertan behera datozen garai berean.

---

[58] Ruiz de Larrinaga, J.: «Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 2, 1957, 233. or: «Ya desde el año 1843, por lo menos, venía prestando al Señorío este servicio de Traductor de sus documentos oficiales al vascuence sin remuneración alguna, según lo consigna expresamente esta párrafo de su Carta 199 del 2 de agosto de 1867: "Hace más de 24 años que a la Diputación de Vizcaya he hecho todos sus trabajos bascongados y demás, y no me ha agradecido absolutamente con nada… Hay que traducir bienalmente en las Juntas varios discursos muy difíciles"…». Hemos consultado los Registros impresos de las Juntas Generales de Guernica desde los primeros tiempos de Isabel II, y lo que sobre el indicado asunto hemos hallado es lo siguiente: En los años 1839 y 1841 (págs. 10 y 14 respectivamente), sólo se dice que se hizo una explicación del discurso del señor Corregidor en idioma bascongado. En las de 1844 nada de eso se consigna. En cambio desde 1846 en adelante hasta 1868 inclusive, fuera de las de los años 1850, 52 y 54 están dichos discursos de los Corregidores en castellano y vascuence, siendo éste el característico de nuestro P. Uriarte en las eufonías, v. gr. gustija, dontzuba, ditubeen, etc., etc. ». En las de 1864 y 1866 además del discurso del Corregidor están traducidos al vascuence los de don Antonio López de Calle, don Miguel de Loredo sobre los fueros; del mismo Loredo, del General don Francisco de Lersundi, de don José Niceto de Urquizu y otro más del dicho señor Loredo, sobre la batalla naval de Callao, en los registros de 1864, págs. 151-166, y de 1866 pp. 142-165 respectivamente. Todas esas versiones parecen ser de nuestro P. Uriarte, no así las de las Juntas de los años 1868 y 1870, que son las últimas en que hay traducciones vascas, en la primera de las cuales ya nuestro sujeto andaba muy mal de salud, y en la segunda era difunto». Ikus: Urrutia Badiola, A. M. (zuz.): *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833-1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa... op. cit.* Bertara bildu dira testu guztiak eta horien gaineko azterketa jurilinguistikoa.

URIARTEk berak[59] BONAPARTE printzeari idatziz eman zion bere iritzia lan horri buruz, eginkizun neketsua eta ardura handikoa zela azalduz: *Hace más de 24 años que a la Diputación de Vizcaya he hecho todos sus trabajos bascongados y demás. Siempre estoy resuelto a no hacerles nada; pero siempre encuentran personas a cuyas exigencias no puedo negarme. Dicen que ahora me pagarán por todo; pero yo no lo creo. Hay que traducir bienalmente en las Juntas varios discursos muy difíciles.*

Testu horiek, bestaldetik, tradizio baten oihartzun dira. Hiztegiz erdararen menpeko izan arren, joskeraz ez edonolakoak. Bakan batzuk, ordea, hitz berriak[60].

3.— Nafarroarenak aitzakia ederra ematen du, beste behin ere, arestian aurreratu den puntu baten gaineko gogoetak indartzeko. Ordenantzen mundua ezaguna da Nafarroan eta hortxe daude, lekuko-

[59] RUIZ DE LARRINAGA, J.: «Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 3, 1958, 428-429 orr.

[60] Hauxe da, besteak beste, orduko dekretu baten bertsioa: «Junta generalac entzunic gustoric an dijenagaz berbaldi au, icusiric berariz icentautaco Comisinoiac bere informiau proponidu cituban neurrijac, eta egonic euracaz guztiz conforme, aguindu eta decretau eban: Lelengo: Declarau eta artuten zala Vizcaico semetzat D. Casto Mendez Nuñez, Ontzidijaco Almirante jauna, emoten jacola jarlecu onragarrija Aita Provincijaco jaunen bancubetan Junta generaletan. Bigarren: bardin declarau eta artutenzala Vizcaico senetzat D. Miguel Lobo, Ontzidijaco General nagusi jauna, emonagaz jarlecu onragarrija Apoderaduben artian Guernicaco Juntetan. Irugarren: Emon daquijuezala berarizco esquerrac otsaudico voto baten bitartez onzidija ataco beste Comandante eta Oficialejaun guztijai. Laugarren: Esan dau ontzidijac euqui eban guda edo guerran, parte artu eben euscaldun marinel guztijai, entregauco jaquela bacochari bere diploma edo despachuba, ceiñetan aguertuta egongo dirian Señorijo edo lur linargui onen mirariz eta esquer onez beterico sentimentubac, eta mariñel lelengüetateco don Alejandro Llano, Portugaleteco semiari, cein eriduba izan zan Almansaco fragata edo ontzijan, entregauco jacola esan dan diploma edo despachuba, eta onezaz ganetic, bere servicijaco demporija amaituten dabeneco gueratuco dala encargauta Diputacinoe generala emplietaco marinel au bere claseco bati jaocan leguez». Eguin zan decreto au Guernicaco arboliaren azpijan esan dan garagarilleco laugarren egunian milla zortzireun eta irurogueta seigarren urtian», in URRUTIA, A. eta LOBERA, A. (arg): *Euskara, Zuzenbidearen hizkera,* Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2. argitaraldia, 1997, 82. or.

tza bizia emanez, besteak beste, Bera[61] edo Goizuetakoak[62]. Orobat, Nafarroan bertan Justizia Administrazioan zeuden errezeptore euskaldunen eta erdaldunen arteko istiluak[63]. Nafarroan dira testugintza juridikoaren inguruko aipamenik ugarienak, aspalditik adituen jakinmina sortu dutenak. Ikerkuntza horretan aritu dira, berbarako, Menéndez Pidal[64], Etxegarai[65] eta Caro Baroja[66]. Horren aldera euskal hitzak: *azaguerrico, echaiaun, echandra, chandra, opilarinzada, gayola*…

Ahoz zein idatziz, eta lorratza beretik, bada antzekorik beste herrialde batzuetan ere: *abeurrea* eta *bidigasa* Bizkaiko Foru Barrian (1526), *auzolan, andabideak, lorrak, alkarpoderoso, bide-zorrak, oilo lur, gizelana* bizkaitarren ahotan; *ondazillegi* eta *gorozeta* gipuzkoarren mintzoan; eta *sainhoa, abel haxacarri* eta *gasaila* Zuberoako ohituran.

Egun ere, horren arrastoek bizirik diraute Nafarroako eta Bizkaiko foru idatzietan. Horretara, Nafarroan arauturik daude *belena* (376. legea), *etxekoarteak* (404. legea) eta *langa* edo *keleta* (402. legea), Baztan aldeko *zocorra* eta *carloa* (Ordenantzen XII. kapitulua) bazterrean utzi gabe. Bizkaian, aldiz, *hilburuko* testamentua (23. art.) bistakoa da, oraindik, foru idazkeran.

4.— Iparraldean, laugarrenez, aspaldikoa da aurrekoaren moduko euskal tradizioa. Aspaldikoa eta, hala ere, beste herrialdeetan legez, hagitz mugatua. Horren erakuskari eta eurok agortzeke, hiruzpalau adibide. Lehena, Frantziako Iraultzaren testugintza euskaratuarena, aski ezagu-

---

[61] Idoate, C. eta Villanueva, J. J.: «Unas ordenanzas de Vera en vascuence», *Fontes Linguæ Vasconum*, 37, 1981, 275-281 orr.

[62] Satrustegi, J. M.: «Goizuetako udal ordenantzak», *Fontes Linguæ Vasconum*, 72, 1996, 297-313 orr.

[63] Zenbait Autore: *Geografía histórica de la lengua vasca (siglos XVI al XIX)*. Zarautz: Icharopena, 1960, 79 or., 1. liburukia, Auñamendi Bilduma.

[64] Menéndez Pidal, R.: «Introducción al estudio de la lingüística vasca», in *En torno a la lengua vasca*. Buenos Aires: Espasa Calpe, 1962, Austral Bilduma.

[65] Etxegarai, B.: «Algunas voces vascas usadas en el Fuero General de Navarra», *Euskera*, VIII urtea, I–II, 1927, 43-65 orr.

[66] Caro Baroja, J.: «Observaciones sobre el vascuence y Fuero General de Navarra»... *op. cit.*, 61-95 orr.

na. Bigarrena, Lapurdiko *État* edo Batzar Nagusiek euskaraz erregeri zuzendu zioten *Cahiers de Doleances* deiturikoa, Vinsonek argitara emana. Hirugarrena, Maite Lafourcadek bildu eta adierazia, notario protokoloetan bilatu testu sorta esanguratsua. Bestelakoak ere badira, eta berariaz aipa daitezke frantses idazte ofizialetik eguneroko euskal idazte horretara doan zubian. Hortxe dago XX. mendearen atarian, Baïgorrico *Laborari Confrariaco erreglamendua* (1892. urteko martxoaren 19koa). Laburbilduz, bada, garai bateko esamolde eroso eta malgua, egun bihurri gertatzen diren testu frankoren aurrean eskarmentu ederra ematen dutenak: *3en Art.— Confraria egina da laborantzaren onetan ditazken gauzen bilhatzeco, eta gauza hec ahalaz laborarien escuetan emaiteco eta begiratzeco. Erosico ditu batean, merkeago izaiteagatic, laborantzaco behar edo on diren guziac, nola tresnac, ongailuac, haziac, bihiac eta bertze. Egin ahala eginen du confrarian direneri beren mozkinen ongi salarazteco. Egin ahala eginen du ere laborarieri iracusteco zer ongailu mota galdetzen duten heien lurrec, tokiec, haziec edo landarec*[67].

Azken horretan, beste behin ere, hitz berri gutxi eta joskera jatorra.

Zirriborroan bada ere, lau lerro nagusi horietan bistan da, Euskal Herriko Ipar zein Hegoaldean, bi-biotan, liberalismoak eta konstituzioek ekarri zutena antzekoa izan zela, hau da, estatu osorako erakunde bakarrak izatea, forua desagertzea eta, oro har, era beretze ahaleginetarako bidea jartzea.

Ideologia liberal horrek pentsaera berria zekarren. Ideologia berri horren aldamenean, hizkera berria ere: *liberté, légalité, fraternité* denon gogoan. Berebat gertatzen da gaztelaniaz, *patria, libertad, derecho, constitución* eta abarrek eratortzen baitituzte egoera berrirako bereizgarririk jatorrenak.

5. XX. MENDEAREN LEHEN HERENA

XIX. mende hondarrerako ikuspegia aldaturik dator. Foruak ezabatuak izan dira 1876. urtean eta euskararentzako jomuga beste bat da,

[67] Charritton, P.: *PIERRE BROUSSAIN, Sa contribution aux études basques*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2007, 44 or., Euskaltzainak Bilduma.

hau da, nazio hizkuntzaren maila eskatu eta euskaldun guztiek osaturiko erakunde politiko erkide baten hizkuntza ofiziala izateko aldarrikatze gogotsua. Horrek berez zekarren euskararen erabilera, eginkizun eta zeregin guztietan aritu beharra. Aurki, mundu berri hori euskaraz antolatzeko abiapuntua.

Aurretiazko zantzu larramenditarrak aipatu dira. XIX. mende hondarrean desagertua eta haizeak eraman legez ezereztatua, larramenditar giroak geroko bidea zabaldu zuen. Giro hori izan zen, zalantzarik gabe, ARANAk eta AZKUEk hiztegigintza kontuetan ekarri zuten aldikada berriaren atari ezaguna.

Biok goiztiar jokatuz, bitzuon arrangura da hiztegiarena. Iritzietan, ostera, bata bestearengandik urrun samar. ARANAren ahalegina, hasiera ezaguna. Hasierako haren idaztietan edonon ikus daiteke horretarako kezka. Adibidetzat har dezakegu, besterik gabe, berak [68] idatziriko *Umiaren lenengo aizkidia* (1897) liburutxoan jarri zuen eranskina: *Ingurti onek daukazan itz barrijak*. Hitz horien artean erraz antzeman daitezke lege esanahia dutenak ere:

> *agintz* (mandamiento), *aberri* (patria), *arrotz* (extranjero), *arpide* (suscripción), *arpidedun* (suscriptor), *arpidaldu* (suscribir), *autetsi* (elegir), *edesti* (historia), *ordelari* (representante), *luiki* (territorio, país), *landola* (oficina), *salneurri* (precio), *sendi* (familia), *sengi* (hijo, hijas), *sendu* (engendrar), *irazti* (libro), *ikurrin* (bandera), *ikurton* (sacramento), *ikastola* (escuela), *irasi* (fundar), *bildegi* (depósito), *bazkun* (sociedad, compañía).

ARANAren kasuan hitz berria bazen nagusi, AZKUEk berebiziko oinarri eta pisua ematen zien euskal hitzaren tradizioari eta euskararen berezko altxorrari, hitz berriak ahalik eta bazterren erabiliz.

Bi hitz berri ekimen zeuden jokoan[69] eta tenka horretan dabil garai horretako euskalgintza. ARANA, jakina denez, gazterik hil zen. Hura

---

[68] ARANA, S.: «Umiaren lenengo aizkidia», in *Obras completas*. Buenos Aires: Sabindiar batza, 1965, 1016-1066 orr.

[69] Bion arteko ezaugarriak egoki asmatu zituen PAGOLAk: *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*. Bilbo: Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca, 2005,

hilez gerokoa da, hamabost urte geroagokoa, hain zuzen, Euskaltzaindiaren sorrera (1918). Sorrerako Euskaltzaindia horri hasiera-hasieratik axola zaio euskararen auzia, berba eta joskera ere barne.

Berbategiaren beharrean ikusten du bere burua erakunde berriak eta lanean hasten da. Aldapaz gorakoa izango zaio, alabaina, erakunde berriari euskararen berbategi kontua. Ardura horrek bultzatzen du, ezbairik gabe, bere *Euskera* aldizkariaren lehenengo aleetan agertzen den *Itz Berrika*[70]. Bertan, urruti joan gabe, Zuzenbideari hertsiro loturiko berbatxoak aurki daitezke:

> *aberri* (patria), *abertzaletasun* (patriotismo), *araudi* (regla), *arteztzaile* (gerente), *autarkitalde* (turno de votación), *aurtarkuntz* (votación), *auteskunde* (votación), *baldinkuntza* (comisión), *batzaldi* (reunión), *batzorde* (comisión), *bazkun* (corporación, asamblea), *bazkunde* (corporación), *errikoi* (patriota), *erritasun* (ciudadanía), *erizpen* (dictamen), *erki* (región), *erkigutundegi* (biblioteca municipal, provincial), *erroldaizen* (título), *esertaldi* (sesión), *gizamaila* (jerarquía), *gotzaiñ* (obispo), *gudayaurtari* (gobernador militar), *idatzaiñ* (secretario, archivista), *iraskunde* (institución), *jakide* (cultura), *jartzaile* (fundador, organizador), *lankai* (instru-

Iker, 18, XXV-XXVII orr.: «La labor neologista de AG se desarrolla en tres direcciones: a) sustitución de términos "alienígenas" b) creación de voces que satisfagan las nuevas inquietudes, y c) perfeccionamiento de formas indígenas […]. Lo cierto es que Azkue es esencialmente tan purista como AG. Casi no hay neologismo de éste para el que aquél no ofrezca alternativa; en cambio, no puede decirse lo mismo de AG con respecto a Azkue, sin duda porque éste vivió muchos más años. Azkue participa de la obsesión de AG por rehuir los préstamos; lo que le reprochan al creador del nacionalismo vasco es su imperfecto conocimiento del idioma, es decir, básicamente, el quebrantar las leyes fonéticas de la composición y derivación contrayendo en exceso los vocablos […]; y la creación innecesaria de los mismos por existir enla lengua términos equivalentes por muy remotos y arcaicos que éstos sean […]. Azkue solo recurre a la formación de voces nuevas una vez ha agotado esta última vía; en cambio a AG la sustitución de préstamos le conduce casi siempre al neologismo, sin duda porque su conocimiento del léxico vasco es notablemente inferior al de Azkue, pero sobre todo porque, contra la tradición (Oihenart, Larramendi, etc.) que Azkue no interrumpe, para él no existe, si no es en un cierto nivel de abstracción, el léxico vasco patrimonio de todo el euskera. El euskera no es uno, sino varios y cada dialecto ha de habérselas con sus propios recursos».

[70] Euskaltzaindia: «IIIna Itz Berrika», *Euskera*, I. urtea, 2, 1919-1920, 90-95 orr.

mento), *legejakintza* (ciencia del derecho), *lurrizenbatzaile* (comisión de toponimia), *yaursail* (comisión de propaganda), *zadorlari* (secretario), *zarpiketari* (gobernador), *zeindiñ* (carácter, cualidad).

Badira, izatez, garai horretako Euskaltzaindian autu horretaz arduratzeko legelari trebeak. Horien artean, Federico Belaustegigoitia eta Bonifacio de Etxegarai, biak abokatuak, izan daitezke entzutetsuenak, González Echavarri eta Nazario Oleaga ere alboratu gabe.

Belaustegigoitiak aspalditik esana du, 1909. urtetik, hain zuzen, zertan den bere iritzia. Urte horretako berbaldi batean *(Por la lengua nacional vasca),* euskara gero eta erdararen menpekotasun handiagoan ikusten du. Horri buelta emateko neurriak plazaratzean, zuzenbideari buruzkoak ez ditu zokoratzen idazle horrek[71]. Horretarako, dena den, euskara bera egokitu behar. Egokitzapen horretan hitzak behar ditu euskarak, Laudioko legelariaren iritziz[72].

Bonifacio de Etxegarai, gerra aurreko Euskaltzaindia hartan, gai honetaz sakon eta luze arduratu zen, Arana Martijak[73] egoki gogo-

[71] Granja, J. J.: «La obra y las ideas de Federico Belaustegigoitia», in *Federico Belaustegigoitia (1876–1947)*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, Kultura Saila, 1989, 92. or.: «Como ya hemos dicho anteriormente, Belaustegigoitia no era tan solo un observador de la situación del euskera, sino que proponía soluciones a su decadencia. Entre los objetivos para ayudar al euskera establece el siguiente: «Extender documentos privados en euskera y testamentos».

[72] *Ibidem*, 93. or.: «En este aspecto también tuvo que contradecir a muchos de sus correligionarios políticos, fieles a las doctrinas aranistas, por lo que caían en frecuentes exageraciones del léxico, flexiones verbales o construcción sintáctica. Ante ellos, Belaustegigoitia prefiere el idioma menos puro pero más útil como instrumento de comunicación oral y literaria». Belaustegigoitia bera ere, aiurri beretik: «Izkera indartsu geyenak anartu dituen itz *yakintsu* ta bestelako asko geuretu bear ditugu, batez ere *gure artean gutxi erabillen diran lanbidekoak*, ta ordezko erraz bat aurkitzen ez zayenak» (Belaustegigoitia, P.: « Arau nagusiak», *Euskera,* I. urtea, II., 2. atala, 1919-1920, 63-64 orr.

[73] Etxegarairen bizitza eta lanaz, ikus Arana Martija, J. A.: «Bonifazio Etxegarai eta Korta», *Euskera*, 24, 1979, 45–59 orr.; *Estudios de Derecho privado vasco: 1919-1951* (sarrera: Urrutia Badiola, A. M.), Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia, Bilbao, 2021. Ikus, orobat. Echegaray Eizaguirre, L.: *En busca de Vasconia: vida de Bonifacio Echegaray (1878-1956)*. Madrid: Dykinson/Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2021.

ratu duenez. Euskaltzain oso horrek lege ikasketak bukatu eta Espainiako Auzitegi Gorenaren Gela bateko idazkaritza eskuratu zuen. Euskal Herriko foru eta ohiturak maite zituen zumaiar horrek lan ugari ekarri zuen euskara eta Zuzenbidearen alorrera. Bera ere laster ohartu zen gaiaren garrantziaz eta bere zereginetan euskarak antzina bereganatu zituen berba juridikoak batzea izan zuen xede. Honela dio berak[74], Euskaltzaindiaren aurrean diharduela, 1930. urtean: *Creo que ha de ofrecer interés no escaso la formación de un vocabulario de palabras que expresen ideas, que directa o indirectamente trasciendan al orden del Derecho* […] *Conviene que diga, antes de pasar adelante, que mi propósito no alcanza a otra cosa que a recoger aquellas formas que entrañan un valor en las múltiples modalidades que afectan a las relaciones derivadas de los conceptos fundamentales de familia, propiedad, sucesión y contratación, o sea a lo que se llama Derecho privado. Han de ser descubiertos mediante las noticias que suministren personas de edad, de inteligencia despierta, y las que proporcione una escrupulosa busca en libros y documentos antiguos. Esta labor ha de ser de eficacia segura, pues el pueblo se acomoda mejor al empleo de palabras que alguna vez se han conocido, aun cuando se hubiere desvanecido la huella de su presencia en el hablar ordinario y corriente, que al de aquellas otras de nueva creación. La experiencia aconseja que se limite a lo puramente indispensable el número de los neologismos, y es punto que debe meditarse si en la materia a que me refiero es conveniente acudir a aquellos en todos los casos, o si al igual de lo que se ha hecho en otras lenguas, basta con tomar de las clásicas tales medios de expresión, adaptándolos al genio del idioma vasco. Problema es éste que habrá de ser resuelto por la Academia con autoridad inapelable*.

Bestetik ere badabil zumaiarraren arnasa, Euskaltzaindiaren 1926. urteko azaroaren 25eko bilkuraren agiriak[75] argi erakusten duenez: *Etxegaray jaunak adierazi digu, egin nai lukela legegizon artean dabiltzan itzen iztegitxo euskaldun bat. Oraingoz ez dakar besterik: Belena ta Kardaba nolaz eta zertaz esaten diran. Euskaltzaindiak gogoz entzun diyo ta lenbailen datorrela Etxegaray´k egin nai luken iztegi ori*.

---

[74] Etxegarai, B.: «Nombres vascos de los espacios intermedios entre casas», *Euskera*, 1 (1930), 72 eta 73. orr.

[75] Euskaltzaindia: «Euskaltzaindia'ren batzar agiriak. Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1926'ko Azaroa'ren 26'an», *Euskera*, VIII. urtea, I-II., 1927, 36.or.

Abegi onez ikusi zuen, beraz, gerra aurreko Euskaltzaindiak Zuzenbide hiztegiaren inguruko asmo berria.

Dena den, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek beren zirkularrak euskaraz zabaltzeko erabakia hartu zuten eta gauzatu ere bai, lehen Bizkaia eta bigarrena Gipuzkoa[76]. Horra katebegia XIX. mendeko testuekin lotzen dena eta geroko Euzko Jaurlaritzaren *Agintaritzaren Egunerokoa* delakoaren testu elebidunak aurreratzen dituena.

Berehalakoan, eta gerla tartean zela, Euskal Herriko Mendebalak autonomia eskuratu zuen Espainiako Bigarren Errepublikaren garaian, eta horrek bidea erraztu zion euskarari Zuzenbidearen bitarteko izateko. 1936-1937.urteetako bolada laburrean, Eusko Jaurlaritzak bere kautan jardun zuen euskara hizkuntza ofizial gisa erabiltzen eta, ageri-agerian, euskal hitz juridikoen premia gorria nola edo hala betetzen.

Ahalegin horren egileak, alabaina, euskararen barnean lehendik ziren hitz juridikoak erabiltzera lerratu ziren neurri batean, hitz berrien bidea nagusiki hartu bazuten ere[77].

Horrenbestez, gerraren poderioz aurrerako biderik gabe gelditu zen horrek bazuen nondik jo[78]. Horren ostean, porrot mingotsa eta gerra ondoko giro iluna.

---

[76] Testuak bilduak eta argitaratuak: Urrutia Badiola, A. M.: (arg.): *Euskara Foru Aldundien zirkularretan: Bizkaia (1917-1919), Gipuzkoa (1918-1923)*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia / Academia Vasca de Derecho, 2015, Abeurrea Bilduma, 13.

[77] Leizaola, J. M.: «Irakurleei», in *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*, Durango: Leopoldo Zugaza, 1977: «Esanbearrik ez dago —dio Leizaolak, orduko Eusko Jaurlaritzaren boletinaren atarian— nere "Oroagindua" laphurtarretik *oro* hitza arturik eta *Zaingoa* nik aspalditik Zuberoko lege Zarrean artzaintzarentzat erabillia irakurriya neukalako Eguneroko ortan sartu nituala. Itzultzaileen lanaren eredutzat, izendatze bakar bat aukeratuko det. Erdarazko "Juzgado de Instrucción" aitatzeko "Epailetza Argibidelaria" irakurtzen da urrengo orrialdetan. Ba, erdal-izteginginтzan instrucción ori zer dan adierazi nayean elucidación edo elucidar hitzak emango zaizkizute, lux, luz (argia) itz bakunak sustrai bezala dutenak. Euskal itzulpena benetan egokiya iruditzen zait aurrean daukazuten Egunerokoarena».

[78] IVAP-HAEE: *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa (1936ko urritik 1937ko ekainera)-hiztegia*, Gasteiz: IVAP-HAEE, 1997. Ikusmolde beretik, Lobera, A.: «Hainbat jakingarri Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren gainean», *Karmel*, 3, 1995, 28-55, orr.

6. XX. MENDEAREN SEGIDAKOA: *LEGEGIZONEK BEHAR DUTEN HIZTEGI BEREZIA*

Gerra ondoko urte latzak igaro ondoren, euskara moldatu, itxuratu eta antolatu behar. Zeregin horietarako dei egin du Aita Villasantek[79] behin baino gehiagotan. Adibideak ugari. Besteak beste, 1972. urtean berak ondu zuena, Arrue euskaltzain oso zenaren eskariz eta zirikadaz, *Zuzenbide*aren inguruko hitzak zirela eta: *Joan den hileko batzar egunean Antonio Arrue euskaltzain eta lege gizon jaunak hitz zerrenda bat ekarri zidan beren ofizioko gizonek maizenik erabili behar izan dituzten hitzez osatua. Zerrenda hau ez da luzea. «Derecho privado» deritzaion sailekoak dira gehienbat hitzok. Berak nahi luke hitz hauen euskal itzulpena edo euskal ordaina guk eskeintzea. Nahiz eta zerrenda luzea ez izan, sail berezi bateko hitzak dira, eta ez dut uste lan hau arinki eta nolanahi egin daitekeanik. Alde batetik, euskeraz ongi jakin behar da, eta bestetik, lege gauzatan jantzia egon. Euskera lege gauzatan gutxi erabilia izan bada ere, agian badira zenbait hitz eremu hontakoak, izkribu zaharretarik, euskal foruetarik edota herriaren ahotik jaso eta kontuan eduki beharko liratekenak. Nolanahi ere, zailtxoa da ene ustez lan hau. Baditu bere oztopo eta eragozpideak, alegia. Batek bakarrik gogoak ematen dizkion hitzak jarriz edo zernahi hitz asmatuz, ez dut uste gauza onik egingo gendukeanik. Beste aldetik, honelako eskabideei Euskaltzaindiak ezin die muzinik egin. Bere ahalen neurrian erantzutera eta kobru ematera beharturik dela uste dut.*

Villasantek[80] berak erantzunak bilatu gura bai eta proposamen argia egin zuen: *Zer egin, bada? Bidea pixka bat luzexeagoa izanarren, uste dut lehendabizikorik galderak egin beharko direla gauza hoietan adituak diren gizonen artean. Haien erantzunak jaso ondoren, Mitxelena jaunari bidaliko zaizkio, hark begiratu bat eman eta bere eritzia ager dezan.*

Hala gertatu eta galdezkatuak izateko, Villasantek zerrendatu egin zituen aditu batzuen izenak, itzal handikoak eurok: Arrue, Lojendio, Monreal, Caro Baroja, Santamaria, Zabaleta, Oleaga eta Muniategi.

---

[79] Aita Villasante: «Lege gizonek behar duten hiztegi berezia», *Euskera*, 18, 1973, 203-204 orr.

[80] *Ibidem*, 203. or.

Azken bi horiei aipamen berezia zor zaie, urte luzeetan beldurrik gabe aritu baitira euskararen defentsan eta babesean, euskara bera aho-ezpainetan eta luma idatzian erabiliz.

Betor lehena Jesus Oleaga euskaltzain urgazle eredugarri eta legelari nekaezina izan zena. Jarrai bekio horri Abel Muniategi, akademiaren urgazle, eta zuzenbideaz egoki jantzia. Horrek, bertsolaritzari ez ezik, Zuzenbideari ere eman izan dio bere ekimen aberasgarria. Aurrenekoa eta hurrena jarrita, ezin bukatu bestea aipatu gabe, hau da, hirugarrena eta azkena. Villasanteren lerro horietan aurrera zetorren idazkaria, lege eta administrazio gorabeheretan euskaraz idazteari emana, hau da, Jose Luis Lizundia. Villasantek izendatu zuen bezala, *erakunde gauzatan duen trebetasunagatik*[81]. Lizundiak[82], *Euskera* aldizkarian bertan agertu zuen *Administrazio hiztegiñoa,* erabilgarria eta onuragarria.

Bide beretik ez bada ere, antzeko asmoak bultzatua sortu zen Uzei. Horren jaiotza-agiriaren modukoa jaso zuen Euskaltzaindiak 1977. urtean, Joseba Intxaustik egin zuen aurkezte ekitaldian[83]. Hortxe zeuden, besteak beste, hiztegi espezializatuak eta unibertsitate joko arauak uztarturik eta, behin-behinekoa izaeraz, egoki ezkonduta.

Behialako proiektua sendotu ahala, Zuzenbideari bere txanda heldu zitzaion. Horrela, UZEIren barnean biribildu zen lehendabizikoz, modu antolatu, orokor eta orohartzaile baten bidez, Zuzenbidearen mundua euskaraz ematea.

---

[81] *Ibidem*, 204. or.: «Eta gero hitzen azken hautatzea batzorde txiki batek egingo duela. Beraz, delako batzorde hori ere orain jarri beharra dago. Izen hauek proposatzen dira hortarako: *Luis Mitxelena,* hiztegi gauzatan duen maisutasunagatik. *Antonio Arrue,* lege gauzen esparruko bere jakiteagatik. *Jean Haritschehar,* beste aldekoen ordezkari bezala. Eta *Jose Luis Lizundia,* erakunde gauzatan duen trebetasunagatik. Mitxelena jauna izango da buru eta Lizundia jauna idazkaria».

[82] Lizundia, J. L.: «Herri administralgo Hiztegiño baten eskabide eta premiaz», *Euskera,* 24, 1979, 279-289. orr.

[83] Intxausti, J.: «Euskal Unibertsitatearentzat aurregitura batez», *Euskera*, 22, 1977, 935-940 orr.

Ahalegin hori ez zen, horratik, behin betikoa. Hala geratu zen esanda *ZUZENBIDEA* (1987) hiztegiaren sarreran[84], eta hala gertatu da eginda denboraren harian, berori izan baita geroko hainbat ekimenen bizkarrezur eta mamia.

Baziren eta badira, beraz, Zuzenbide jakintzagaiaren garapenerako osagaiak euskararen baitan. Lehena, hizkuntzaren beraren batuketa abiatze osoa eta bigarrena, aldiz, hizkera berezietan noraezekoa den terminologiaren oinarriak aurrera eramateko beharra. Badira, bide beretik ere, Administrazioaren mundua zein unibertsitateen nekeak, Justizia Administrazioaren hasierako urrats horiek zokoratu gabe.

Artean, VILLASANTEren hitz haiek —*Euskaltzaindiak ezin die muzinik egin*— beste ildo batzuetatik abiatuak ziren. Esana zuen Euskaltzaindiak 1959. urtean[85] zeintzuk ziren euskal hitzak. 1991. urteko apirila-

[84] UZEI: *Zuzenbidea hiztegia (1)*. Donostia: Elkar, 1987, 1. liburukia, 29. or.: «Hiztegiak nekez bil dezake gerora sortuko den edo sortu beharko litzatekeen lexikoa. Hiztegi hau asmatu eta programatzean bertan bururatu zitzaizkigun kezka eta galderak izan ziren: Gaur egun Euskal Herriak duen sistema eta lexiko juridikoaren berri eman behar al genuen, eta «sistema» hori euskaraz adierazteko tresna? Ala Euskal Zuzenbide tradizionalean landuriko —eta bereziki euskaraz erabilitako— kontzeptuen berri? Ala etorkizunerako euskal sistema juridiko euskarazkorako oinarriak jarri eta bideak urratu behar ote genituen? Orain arte esandako guztiengatik, lehen helburuari erantzuten dio gehienbat hiztegi honek. Eta alde horretatik, erdaraz (frantsesez eta espainieraz) landuriko sistema juridiko espainolaren —eta partez frantsesaren— euskarapena da hiztegi hau. Beste helburu biak oso gogoan egon dira, hiztegia programatzean eta lantzean, baina eranskin gisa gelditu direla esan behar da. Halabeharrez! Hor daude, hala ere, bigarren asmoa, neurri batez hiztegi honetan burutua, eta hirugarren helburua, hasieratik adierazia eta hiztegi honen bidez irekia eta bideratua. Izan ere, Euskal Herriak, bere burujabetza lortzean eta bere berrikuntza juridiko instituzionalean eta bere kultura hizkuntzazko berreskurapenean euskaraz sortu, landu, erabili eta gorpuztu behar duen sistema juridikoa bideratzeko oinarri eta abiapuntu baliagarria dela uste dugu Zuzenbide hiztegi hau…». Orobat Zuzenbidearen Euskal Akademiaren web gunea, www.forulege.com. Horien segidakoak izan dira Deustuko Unibertsitateak eginiko Hiztegi Juridikoak: DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREN HIZTEGI JURIDIKOAK: www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/minordcho/minordcho07.pdf eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultatearen Hiztegi Juridikoa: EHUKO ZUZENBIDE FAKULTATEKO HIZTEGI JURIDIKOA: www.ehu.eus/ehg/juridikoa. Ikusmolde beretik:. ZORRILLA RUIZ, M. M.: «Espacio Judicial Autonómico», *Estudios de Deusto*, 2000, 48/2, 153-186 orr.

[85] EUSKALTZAINDIA: «Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz», *Euskera*, 4, 1959, 214-217. «Euskal itzak dira euskera bizian sustraituak daudenak. Sustrai hori zenbat eta sakonagoa izan, ainbat eta eskubide geiago du itz batek erabillia izateko», 215 or.

ren 26an[86] ere berresana zuen Euskaltzaindiak euskal hitzak nondik sustraitu: *Euskara bizian sustraituak ez daudenak, ez dira euskal hitzak… Azkenik orduan esana berriz errepikatu, inork gaizki adi ez dezan mezua: kultura eta zibilizazioko hitzak, mailegatuak izanik ere, ontzat hartzen dira, hala nola politika, teknika, literatura, metro, kilometro eta abar.*

Era berean, hiztegi espezializatuen eremuak ere beste lorratz batetik joan behar zuela aldarrikatu zuen Euskaltzaindiak[87] 1982. urtean: *Hondarribian, 1981.eko Abenduaren 29an bildurik, Euskaltzaindiak honako hau aditzera ematen du: Euskaltzaindiak literatura eta gramatikaz beste alde, hiztegi lana du bere eginkizun nagusienetarikoa…3. Zuzenean ez da Euskaltzaindiaren lana, beste edozein hizkuntzatan ere ez den bezala, hiztegi espezializatuen sortzea eta banan banako azterketa egitea, hizkuntzari eta euskararen egiturari dagozkion funtsezko punduak zaintzea izan ezik. Hizkuntz teknikoetan Euskaltzaindiak pozik ikusten du grafia gai orokorretan erabakiak daudenek harrera ona izan dutela. Erabaki gabe daudenak lehenbaitlehen argitzen ahaleginduko da. Ezin hobeki deritza Euskaltzaindiak edonork taldeka nahiz bakarka arlo honetan lan egiteari.*

Urte batzuk geroago, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak[88] mezu berbera luzatu zuen: *Azkenik Euskaltzaindia delakotz hizkuntzaren zaintzalea, hiztegi espezializatu guziek behar lukete Euskaltzaindiaren oniritzia ukan, batasun bat ukan dezaten denek ortografiaren aldetik edo joskeraren aldetik.*

Lotura estukoa, beraz, hizkuntza eta Zuzenbidearen artekoa[89]. Estuagoa, edu bertzean, hizkera arrunta eta hizkera juridikoaren artekoa, azken horrek gehienetan hitz arruntak zamatzen baititu karga semantiko beregainarekin. Esan gabe doa horren indarra eta, zehatzago, indar performatiboa, hortik zehazten baitu hizkera juridikoak berak

---

[86] Euskaltzaindia: «Euskaltzaindiaren adierazpenak: Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz», *Euskera*, 36, 1991, 445-447 orr.

[87] Euskaltzaindia: «Euskaltzaindiaren adierazpenak: Hiztegigintzaz», *Euskera*, 27, 1982, 263-271 orr.

[88] Haritschelhar, J. G.: *Administrazioaren eginbeharra hizkuntz minorizatuen etorkizunean*, *IVAP. Hamar urte*. Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1994.

[89] Urrutia Badiola, A M.: *Lengua vasca, cooficialidad lingüística y relaciones jurídicas inter privatos.* Oñati. Instituto Vasco de Administración/Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2016.

arautzen duen errealitatea. Euskara, beraz, prest zegoen gerora etorriko zen ofizialtasunaren bidez, zuzenbidearena bereganatzeko eta horren barruan, behinolako foruena ere moldatzeko.

7. BIZKAIKO FORUA EUSKARAZ: AURREKARIAK

Euskal tradizioan legelariak ugariak badira ere, ohizkoa bihurtu den aipamena zor zaio gai honetan lehendabizi Juan Bautista de Ulibarri okondarraren *Gutun-liburua*ri, non euskaltzale honen Forua euskaratzeko gogoari Aita Zabala euskaltzaleak muzin egin baitzion zuzenean. Lehenak gutun baten bidez lan honetan jardun dezan eskatzen dio: *orduan emeen porua imini bear da euzkera urrezcobichia edo izkeacaz*... eta besteak aldiz erabat ukatzen dio, lan astuna eta eskergaiztokoa dela, euskal liburuek duten arreta eskasaz etsitua:... *nigaitic forua erderaz guelldituco* da[90].

Bestelakotsua da eta ia topikoa egin zaigun gaia, Bizkaiko Batzar Orokorretan zenbait deialdietan euskaraz ez zekiten ordezkarien sarrera galarazteko debekua. Berrikitan irakurri dut Aita Lino Akesoloren lana honi buruz eta agindu honen sentidua argitzen doala dirudi euskararen presentzia dela eta ez dela Batzar horietan.

Jakina eta ezaguna da eta aipatua izan da arestian XIX. mendean Bizkaiko Batzar Orokorren deialdietan aurreko ekitaldian trataturiko gaien laburpen euskarazkoa agertzen dela eta areago, zenbait kasutan ere, Korrejidorearen berberaren mezua[91].

Honek ez du zinez ezabatzen gure egungo ikuspegitik (ausaz ordukoa desberdina izango bailitzateke) Zuzenbide foralaren eremua ikustatzerakoan sentitzen den liluramendurik eza. Hainbatez, Ganbara Legegile baten fruituak eta gainerako mundu juridikoa erabat erdalduna ikustean, igarri-igarrian dago aurreko saio guztiek ez zutela lortu euskararentzako prosa juridiko eta gune linguistiko-juridiko propio baten eraketa.

---

[90] Ulibarri y Galíndez, J. P. de: *Gutunliburua*... *op. cit.*

[91] Akesolo, L.: «Bizkaiko Forua, Gernikako Batzarrak eta Euskerea», in *Idazlan Guztiak* (Julen Urkiza (arg.). Zornotza: Karmel, 1989, 89-94 orr.

Horiek horrela, XIX. mendea hastear dagoenean eta liberalismoa zabaltzen den ber, Zuzenbide foralaren edukia murriztuz doa. Azkenean 1876. urtean Foruaren azken hondakin publikoak indargabetzen direnean, bakarrik gelditzen da indarrean zuzenbide pribatuaren eremua, alegia, 1526. urtean argitaraturiko Foru Barriaren zuzenbide zibileko gaiak.

Indargabetze horren ostean, Forua zuzenbide bizia izaten utzi den heinean eta historia hutsa bilakatzeko patua etorri zaionean, bera euskaratzeko ahaleginak ezagutu izan dira. Kontraesan eta paradoxa nabarmena!

8. BIZKAIKO ETA ARABAKO FORU ZIBILAREN BILDUMA ETA HORREN TESTU EUSKARATUA (1959)

Aurreko erregimen politikoaren barnean, Lurralde desberdinetako Foru zuzenbide zibilak batzea izan zen helburua, Espainiako Kode Zibilaren (1888) eranskina izan zitezen. Saio batzuen ostean, lehena Bizkaiko eta Arabako Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma etorri zen, besteak beste, 1959ko uztailaren 30eko Legea. Ondo ulertuko denez, euskarazko testurik ez zuen izan, debekatuta baitzegoen orduan euskara erabiltzea horrelako zereginetan. Hala ere, aldien joan-etorrietan, gero eta nabarmenagoa gertatu zen horren euskarazko testuaren premia, batik bat euskaraz ikasten duten Zuzenbideko Fakultatearen ikasleen aldetik.

Horrexegatik hartu nuen erabakia halakoa egiteko, hiru ardatz nagusitan oinarri hartuta:

a) Nahiz eta bi euskal herrialde bakarrik kontuan hartu, testu horretan agertzen ziren erakunde foralek berebiziko indar zabaltzaile izan zezaketen gerokoan Autonomia Erkidego osoan zabaltzeko, gaztelaniaz ez ezik, euskaraz ere. Beraz ariketa egin beharra zegoen, ofiziala izan ez arren.

b) Eduki murriztua izan arren, honek berebiziko garrantzia zuen hainbat hitz eta esamolde juridiko finkatzeko euskal zuzenbide zibilean, his-

torian zehar gaztelaniaz baitzituen horrek espresamolde eta adierazpide. *Testamentua, jarauntsia, senar-emazteen arteko araubide ekonomikoa* eta abar hortxe ziren, euskaraz emanak eta biziak, historian zehar lehendabizikoz. Euskarak bazuen indar gauzatzailea horrelakoetan ere.

c) Bizkaitarra izanik, eta bizkaierazko izate hori ukatu gabe, beharrezkoa zen euskara estandard baten alde egitea, beti ere, berezko hitz juridiko bizkaitarrak ahaztu eta alboratu gabe: *hil buruko, alkarpoderosoa* eta osterantzekoak.

Horra, bada, arrazoi nagusiak ekimen hau gauzatzeko. Zorionez, berehala etorri ziren besteak, alegia, i) uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa; ii) aurrekoaren testua bizkaieraz; eta iii) 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa eta horiekin batera, euskal zuzenbide zibilaren mundu beregaina eraikitzeko aukera, euskara ere horren eramailea dela.

9. *BIZKAI´KO FORUA*, PEDRO PUJANAREN ESKUTIK (1985)

9.1 *Euskarazko testu baten nondik norakoak: hasikinak*

Historian zehar egingarri izan ez zena, alegia, Bizkaiko Foru Barriaren (1526) euskarazko testua, azkenik 1985. urtean Pedro Pujana euskaltzale errimearen eskutik etorri zen euskararen eremura.

Nor Pedro Pujana (1915-2001)?[92] Arabarra (Aramaioko Oleta) jaiotzez, bizkaieraren jabe hizkuntzaz, Pedro Pujanak bere bizitzan zehar euskararen inguruko hamaikatxo lan egin zituen. Horren biografia

[92] Pujanari buruz ikus daitezke URIBARREN LETURIAGA, P.: «Pedro Pujana Agirregabiria (1915-2001)», *Euskera,* XLVI, 1, 2001, 489-495 orr. eta ORTIZ DE LANDALUCE, A.: *Pedro Pujana (1915–2001)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2002, Bidegileak Bilduma. Puxana/Pujana deituraren grafiaren aldetik testuan hobetsi da Pujana; dena den aipamenak egiterakoan aipaturiko testuan erabilitakoa gorde egin da. Pujana eskarmentu handiko euskaltzalea eta idazlea izan zen. Ohorezko euskaltzaina. Hainbat aldizkaritan artikulu egilea eta Euskal aditzaren nondik norakoetan aditu trebe eta jakintsua. Besteak beste, aipa daitezke *Oletako Euskal aditza* 81979) edota *Euskal aditza bizkaieraz/Flexiones del verbo vizcaíno* (1970).

eta argitalpen esanguratsuak aski ezagunak izanik ere[93], esan daiteke ondo jantzita zegoela euskarari dagokionez, tankera horretako lan batean bere burua murgiltzeko. Bizkaiko Foruaren garrantzia azpimarratu eta gero, Pujanak harridura handiz ikusi zuen halako testu oinarrizkoa oraindik euskaratu gabe egotea, mendeak igarota.

Pujanak, dena den, egoki ezagutzen zituen Bizkaiko giroa eta bizkaieraren esparrua. Berak hala esanda, José Estornes Lasa izan zen lehena horretara bultzatu zuena. Pujanak ezetz, besteak baietz. Pujanak aholkatu zion lan hori egiteko Mikel Zarate zenaren figura. Zarate, alabaina, euskarazko sorkuntza lanetan zebilen eta horiek lehenetsi zituen hark. Estornes, orduan, Pujanarengana berriro jo eta bigarren itzuli honetan Pujanak onetsi zuen mandatua eta buru belarri jardun zuen zeregin horretan bi urtetan[94].

9.2 *Lanaren metodologia*

Pujanak adieraziak[95], agerikoak dira zernolako zailtasunak zituen lan honek, berehala etortzen baitira bistara lege testuak eta antzekoak izaten dituzten esanahi bereziak, testuak itzultzean eta kasu honetan, euskaratzeko orduan. Kontuak kontu, lehena zen testuaren garaia. 1526. urteko testua zen eta horren hizkuntza aldi haretako gaztelania. Lau t´erdi mende geroago, testua euskaratzeko tenorean orduko hizkuntza eta oraingo testuak erkatu behar, ordukoaren itxura eman nahi bazen ere.

Hori egiteko heldulekurik non? Joskera, lexiko eta semantika juridikoa nondik taxutu? Pujanak berak atondu behar izan zuen bere hiz-

---

[93] Besteak beste: «Bizkaiko Forua dala eta ainbat jakingarri», *Euskerazaintza*, XXXII, 1995, 27-35 orr.; «Bizkaiko Forua dala-ta», *Karmel*, 176, 1986, 6-19 orr.; «Bizkaiko Forua eta errakuntzak», *Zer*, 199, 1995, 11–12 orr.; «Bizkai´ko Forua», *Zer*, 8, 1978, 8–9 orr.

[94] Jardun horri buruz ikus daitezke: Puxana Agirregabiria, P.: «Bizkai´ko Forua», *Zer*, 8, 1978, 8-9 orr.; «Bizkaiko Forua eta errakuntzak», *Zer*, 199, 1995, 11-12 orr.; «Bizkaiko Forua dala eta ainbat jakingarri», *Euskerazaintza*, XXXIII, 1995, 27-35 orr.; «Bizkaiko Forua dala-ta», *Karmel*, 176, 1986, 6–19 orr. eta batez ere, «Bizkaiko Foruaren Euskerazko lenengo itzulpena dala», *Euskerazaintza*, XXXIV, 1996, 22-34 orr.

[95] Puxana´Tar, P.: « Bizkaiko Foruaren Euskerazko lenengo itzulpena dala », *op. cit.*

tegia eta 711 berba sailkatu, testuan barruratu eta euskaraz eman. Zalantzak zalantza, Pujanak berak halakoak izan arren, orokorrean erabilgarri eta onuragarri ikusi zituen horiek, beti ere, hobe baten itxaropenean.

Hitzak, hitz juridikoak ez ezik, joskera eta batik bat, hitzen esanahia izan zen Pujanarentzat kezka iturria. Horretan José Estornes Lasaren laguntza paregabea gertatu zitzaion. Hainbatez, José Estornes Lasak argitzen zizkion Pujanari berak zituen zalantzak batik bat, foruaren hainbat kontzeptu eta erakunde juridiko ulertu behar baitziren euskaratzen hasi baino lehen. Hartara dator liburuaren azalean Estornesen zeregina: *foru-adierazlea*. Premiazkoa zen hori, Pujanak bere ahaleginetan gorde nahi izan zituelako hiru ezaugarri nagusi: Foruarekiko zintzotasuna, leialtasuna eta zer esanik ez, euskararen jatortasuna. Nahiz eta lehen biak nagusi izan, hirugarrenari ere men egin zion, eta berak aitortua *inoiz euskeraren bere-berezko joskerari ere uko egin behar izan neutsan*.

Hainbatez, egoki jardun zuen Pujanak. Legelari izan gabe, euskararen ulerterrazaren alde egin zuen hautua eta horretarako, esan gabe doa, bizkaieraren aldeko hautua egin zuen[96]. Hautu hori gainera, ez nolanahikoa, deklinabide, aditza eta lexikoan hurbildu nahi izan zituelako euskararen euskalkiak. Bien bitartean, bere teknika bistakoa da: *aal zala, euskerazko berbea erabilli. Ori ezin zanean, gaztelerazko testuak dakarren berbea euskaldundu.*

Horiek guztiak begi-bistakoak izan arren, berebiziko zailtasunak erakusten zituen testu horiek. Nola eman *libertades* edo *rebeldia* edo *privilegio* edo *franqueza*? Hasteko haren esanahia ondo ulertu eta gero Estornesek emandako argibideekin, garbizalekeriatik zein mordoilokeriatik ihes egin zuen Pujanak.

Libertate horren ondarea *erri-eskubideak* bihurtu ziren, *rebeldia* moduan epaitu, Larramendiri segika, *privilegio* bere horretan utziz eta *frankeza*

[96] *Ibidem.* Horretarako aipatzen du Estornesen eragina, bizkaieraren alde, Bizkaiko Forua euskaratzen zelako. Dena den, Pujanak argi dio: «Nik itzulpenean darabildan bizkaiera onek, alan ere, badu zerbait berezirik edo oargarririk. Aldi aretako kezkaren agergarri izan zala esango neuke». Era berean, Mikel Zarate zenak bizkaieratik baturako ahaleginen jarraitzaile erakusten du bere burua Pujanak.

ere bai, ortografia euskalduna bereganatuz. Zailtasun horiek gainditzen lagunak izan zituen eta hala aitortzen du lainoki itzultzaileak: Plazido Muxikaren hiztegia, Azkueren hiztegia, eta lantzean behin ere, aita Manuel Larramendirena.

Bi zailtasun nagusi aipatzen ditu Pujanak euskaratze lanean: lehena, hamaseigarren mendeko gaztelera itzuli beharra eta bigarrena, *amaseigarren gizaldiaz onantza esaldi eta berba askoren esankizuna eta adierazkizuna aldatu egin dala izan zan.* Hirugarrena ere izan zen, alegia, *legeen eta berba askoren adiera bear dan zintzotasunnaz eta argitasunaz argitara ekarteko euskerazko itz egokirik eza*. Horra lehen aipaturiko hiztegitxoa, testuaren azkenean datorrena.

Zailtasunak zailtasun, itzulpenak hiru idatzaldi izan zituen eta idatzaldi bakoitzean lege bakoitzaren hiru-lau aldiz itzuli zuela aitortzen du Pujanak: *Itzulpena ez zan arrapaladan eta arin-arin egiña izan.* Bi urtez jardun zuten horretan eta 268 lege, 36 ataletan bilduak euskaratzeko ibilbidea 1981. urtean bukatu zen, forua onetsi eta 455 urte geroago, Pujanak ondo baieztatu zuen moduan.

Egilearen iritzia ere aintzat hartzekoa: *Guzti-guztia ondo-ondo euskeratuta ez da egongo ziurkiro, baiña dan-dana txarto-txarto egongo danik ere ez dot uste*.

9.3 *Emaitzaren gaineko iritziak*

Bizkaieraz buruturiko itzulpen hau zehatza eta doi doia izanik, ez ditu, alabaina, alderatu mereziko lituzkeen arreta eta iruzkinak. Aita Villasantek zoriondu zuen euskaratzailea[97]. Bereziki gogoangarria da *RIEV* delako aldizkarian, On Manuel Lekuona zenak dedikatu ziona, haren lumatik isuritako *Amicaliter*[98] artikulu funtsezkoa. Bertatik ekar daitezke hitz hauek, bizkaieraren bertsio horren nondik norakoa taxutzeko: *Gure iritzia euskerari buruz oso ona ta baikorra da. Euskera ondo ezagutzen duanaren erregali ederra dala gure adiskide Puxana-ren lana. Banan gauza auetan itzuleraren elburua ondo ezagutzeaz gaiera, liburuaren ezaguera ere*

[97] *Ibidem*.

[98] Lekuona Etxabeguren, M.: «Bizkai´ko Forua. Pedro Puxana», *Revista Internacional de Estudios Vascos*, XXXII, 2, uztaila–abendua, 1987, 429-435 orr.

oso bearrezkoa bait da-batez ere liburuaren gaia naiko teknikoa danean-eta naiko teknikoa bait da Foruaren eta Legearen izaera.

Erreskada batean etorri ziren gero bestelako iritziak. Muniategiren hitzetan: *Beraz euskera ederrean idatzitako liburu mardularen orrialdetan bai Foruaren eratzea dala-ta Batzarraren Agiriak deritxon atalean ta gañontzeko beste zenbaietan IZTEGIAZ amaitzen dan azkeneraño, gauza berezi, jakingarri eta onuragarri asko aurkituko dozue asti apur bataz irakurri ezkero*. Olazar ere bide beretik: *Dana dala, eta amaitzera noa, geure arteko eztabaida txikiak alde batera, barriro esan bearrean nago, Puxana´ren euskerea, eta liburu honetakoa batez be, euskera ederra, jatorra, garbia, ondo josia, egokia, berba baten esateko, benetako bizkaierea, bizkaiera apaindua, zuzendua, egokitua eta batua dala eta bizkaieran sakondu gura daben guztiak ondo egingo dabe liburu eder au erosi eta irakurriaz. Legeetan gure izakerearen susterra, euskeran gure euskalkiaren oiñarria eta abertzaletasunean berotasunerako bidea aurkituko dabe*[99].

Lino Akesolo ere soka beretik: …*Puxana jauna Bizkaiko euskeraren jabe da, euskera au erabilten benetan maisutzat dago. Eta orra zergaitik egin dauan itzulpen au bere-berea dauan euskerara…Bizkaiko euskerea ez da, gaiñera, bizkaitarrena eta arabarrena bakarrik…Pujana jaunak ezteutso olango zoritxarrik opa Bizkaiari ez bere euskereari, ez Euskalerriari. Guztiontzat kaltegarri baño ez litzakela izango badaki. Orregatik ez da lotsa izan Bizkaiereari eusten. Eta gaur adorea bear da orretarako…*[100].

9.4 *Itzulpenaren ondorioak*

Argi dago Pujanak proposatu zuena aspaldiko testu foralaren euskaratze lana izan zela. Eta hori arrazoi askorengatik eta batik bat, egungo euskaldunok euskaraz eskura izan ditzagun gure betiko legeak, gure elkarbizitzaren muina eta ardatza izan direnak eta egun ere ba-

---

[99] Arregi´Tar, J.: «Forua/erri eskubideak (Pujana'ren idaztitik laburpena)», *Zer*, 163, 1992, 6. or. eta Muniategi-Tar, S.: « Bizkai´ko Forua», *Zer*, 60, 1982, 7. or. eta Olazar´Tar, M.: «Bizkai´ko Forua euskeraz», *Zer*, 1982, 50, 3-4 orr.

[100] Akesolo, L.: «Bizkaiko Forua, Gernikako Batzarrak eta Euskerea»... *op. cit.* eta «Etapas de un largo camino hacia un bilingüismo oficial», in *Plurilingüismo y evolución cultural. III Jornadas Vizcaya ante el siglo XXI*. Bilbo: RSBAP, 1986, 2. liburukia, 137-148 orr.

direnak. Sinbolo hutsetatik harago, aldi berean, zuzenbidearen jardule juridikoei aukera eman zien lan honek jatorrizko Foru zuzenbidetik egunotan Bizkaian eta Araban indarrean dagoen Zuzenbide zibilaren testuak euskaraz izateko.

Beraz, testu historikoetatik kanpo legelariek dituzten eguneroko beharrizan eta premiei erantzun bat ere eman nahi izan zaie, irizpide batzuk eskaini eta ereti egokiaren bila joan, geroari begira batik bat. Hainbatez, etorkizunean Zuzenbide honen garapenerako Euskal Autonomia Erkidegoak dituen ahalmenak egikaritzeko orduan hemengo irizpide edo proposamenak zenbait kasutan bederen baliagarriak izan daitezke.

10. GEROKO TESTUAK: 1988, 1992 ETA 2015. URTEETAKO LEGEAK, BIZKAIKO FORU EDUKIAREN SEGIDAKOAK

1978ko Konstituzioak aurrekoa hautsi zuen, azterketa honetarako interesgarriak diren bi jarduera-ardatzetan: alde batetik, zuzenbide zibil foral edo bereziaren eskumena (Espainiako Konstituzioaren 149.1.8 artikulua), autonomia-erkidegoei eskuratu zitzaien, egileen artean ageriko doktrina-polemika sortu duen esamolde batean. Esan bezala, polemika horrek Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako foru-zuzenbide zibilaren eremuan ere izan du adierazpidea[101], baina benetako aldaketa kopernikarra da arlo horretan, eta, bestetik, hizkuntza desberdinen arteko ofizialtasuna (besteak beste, euskara) gaztelaniarekin batera. Horri esker, lehenengo aldiz agertu zen euskarazko testu bat foru-zuzenbide zibilaren arloan, indarra eta lege-maila izan zuena. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.5, 14.1 eta 35.1. eta 3. artikuluek eman zioten Euskal Autonomia Erkidegoari foru-zuzenbide zibilaren arloko eskumen-titulua eta haren aplikazio judiziala, 14. eta 35. artikuluekin osatuta.

---

[101] Delgado Echeverría, J.: «El art. 149.1.8 de la Constitución y la modificación y desarrollo del Derecho Foral», in *Actualización del Derecho Civil vizcaíno. VI Jornadas Vizcaya ante el siglo XXI.* Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia, 1988, 39-55 orr., bereziki 41 eta jarr.

10. atala

Euskal Herriko Komunitate Autonomoak ondoko gaiei dagozkienean konpetentzia exklusiboa du.

[…]

5. Euskal Herria osatzen duten Herrialde Historikoen Zuzenbide Zibil Foral eta berezi —idatzia nahiz ohizkoaren— kontserbazio, aldatze eta bilakaera, bai eta beraren indarraren lurralde barrutiaren finkapena ere.

[…]

14. atala

1. Euskal Herriko jurisdikzio organoen konpetentzia ondoko hauetara hedatzen da.

a. Zibil mailan instantzia eta gradu guztietara, Euskadiko Zuzenbide Zibil Foralaren gaietan kasazio eta berrikusketazko errekurtsoak barne direlarik.

[…]

35. atala

1. Magistratu, Epaikari eta Idazkarien izendapena Botere Judizialaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lege Organikoetan aurreikusten den bezalaxe, egingo da, Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagutzen dutenei lehentasuna emanez, izatasuna eta auzotasuna dela eta, salbuespenik egin gabe.

[…]

3. Bere eremuan Komunitate Autonomoari dagokio Justizia Administrazio zerbitzuko pertsonala eta bere funtzionamendurako behar diren medio materialak eta ekonomikoak hornitzea, Botere Judizialaren Lege Organikoak Eskubide hori Gobernuaren eskutan uzten duen hitz beretan, pertsonala hornitzeko sistemetan Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagutzen dutenei lehentasuna emango zaielarik.

[…][102].

Hizkuntzari dagokionez, *6. atala:*

> *l. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.*
>
> *2. Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.*
>
> *3. Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.*
>
> *4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale.*
>
> *5. Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzutako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroiekin izan ditzaketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala -edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko-, horretara euskara zaindu eta bultza dadin*[103].

Hartara, Bizkaiko foru-zuzenbide zibilarekin lotutako lege-testu bat lehen aldiz argitaratu zen lege-mailako aldizkari ofizial batean, euskaraz. Hain zuzen ere, Eusko Legebiltzarraren 1988ko martxoaren 18ko Legea, Foru Zuzenbide Zibilaren zati baten aldaketari buruzkoa[104].

Bigarren aukera uztailaren 1eko 3/1992 Legeak, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoak, eman du. Lege horrek, gainera, euska-

---

[102] Eusko Jaurlaritza: www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/autonomi-estatutua-euskal-herriko-oinarrizko-erakunde-araua/.

[103] *Ibidem*.

[104] Ikus, horri buruz: Urrutia Badiola, A.: «Euskal Zuzenbide foralaren erreforma», in *Euskara Legebidean*, Bilbo: Universidad de Deusto, 1990, 119-132 orr.

rari eta Bizkaiko eta Arabako Foru Zibilari buruzko aipamen berezia egin zuen *Zioen azalpenean*:

Euskara eta Foru Zibila.

Aparteko ahalegina egin da lege honen euskarari dagokionez, itzulpena izan beharrean benetan «euskarazkoa» izan dadin, Foru-Zuzenbide pribatuan euskarari bere legebidezko eremua eman nahi izan zaiola. Horretarako erabilitako erizpidea hauxe izan da: arlo honetan herri-hizkeran erabili izan diren hitzak («alkar-poderosoa», «bide-zorrak») eta aurretik datozenak («hil-burukoa») jaso eta gaurregun euskarak legegintza-arloan izandako harremanen eraginez sortutako esamoldeekin batera erabiltzea, testuan berezko barne-egokitasuna eta borobiltasuna lortzeko asmoz. Beste alde batetik, euskararen eta Foru-Zuzenbidearen arteko lotura lortzeko, lege honen eraginpekoak izan daitezkeenei Foru Zibil honetako ekintzak eta hitzarmenak euskaraz egiteko eskubidea aitortzen zaie, horren ondorenez sor litezkeen egoerak arautuz (15. atala). Foru-Zuzenbide pribatuaren eremuan euskararen normalkuntzarako urrats garrantzitsua ematea ekarriko du guzti horrek, horretan ez dago zalantzarik, lehenengoz elkartzen bait dira testu berean (1988.eko martxoko legea salbuetsita) Euskal Herriaren berezitasunetako bi: bere hizkuntza eta bere Zuzenbide pribatua[105].

Bestalde, hizkuntza-araudiak honako hau zehazten zuen: *15. Atala. Foru Zibil honek arautzen dituen ekintza eta hitzarmenak euskaraz egin daitezke. Ekintza edo hitzarmenok Eskribau aurrean egin eta Eskribauak euskaraz ez badaki, eskritura egin nahi duenak aukeratutako itzultzaile bat beharko da, bere aginduak gaztelaniara itzul ditzan, eta agiria hizkuntza bietan idatziko da Eskribautza-araudiak ezartzen duen bezala, beti ere indarrean dagoen hizkuntzari buruzko legeriak besterik agintzen ez badu*[106].

Gainera, Bizkaiko Batzar Nagusiek egindako proposamena zenez lege horren ekimena, euskarazko testu estandarrari legearen Bizkaiko aldaera gehitu zitzaion testu moduan, salbuespen gisa, eta argitalpen honetara ere ekarri da.

---

[105] Zuzenbidearen Euskal Akademia / Academia Vasca De Derecho: *Forulege*, www.forulege.com . Ikus, orobat, Celaya Ibarra, A.: *Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco*, in Albaladejo, M.; Díaz Alabart, S. (zuz.), *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*. Madrid: Edersa, 1997, XXVI. liburukia.

[106] *Ibidem*.

2015. urtean burutu zen orain arteko zuzenbide zibileko lege-erreforma esanguratsuena, eta horrek funtsezko eragina izan du Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko zuzenbide zibilean. Eusko Legebiltzarrak 5/2015 Legea onetsi zuen, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa (aurrerantzean, EZZL). Lege hori, 2015eko uztailaren 3ko EHAAn (124. zk.) argitaratu ondoren, 2015eko urriaren 3an jarri zen indarrean, eta zuzenbide zibileko sistema bat ezarri du, euskal auzotasun zibila duten pertsona guztiei historian lehen aldiz aplikatzeko. Lege-testu hori hizkuntza ofizialetan aldarrikatu da eta euskal zuzenbide zibilaren arloko xedapen espezifiko bat jaso du 7. artikuluan, eta, horren ondorioz, euskal foru-zuzenbide zibil batetik euskal zuzenbide zibil aplikagarri eta predikagarri batera igaro da Euskal Autonomia Erkidego osoan, baita euskaraz ere.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak hizkuntza-arloko xedapen hauek jasotzen ditu: *7. artikulua. Hizkuntza koofizialak eta Euskal Zuzenbide Zibila. 1.–Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetatik edozeinetan formalizatu ahal izango dira lege honek araututako egintzak eta kontratuak. 2.– Egilesleek egilespen-tokiko hizkuntza ofizialetatik zein hitzartu eta hizkuntza horretan idatziko dira agiri publikoak; eta hizkuntza ofizialak bat baino gehiago izanez gero, alderdiek aukeratutakoa erabiliko da. Alderdien artean desadostasuna gertatuz gero, agerkai publikoa bertako hizkuntza ofizial guztietan idatzi beharko da. Tokiko hizkuntza ofizialetatik eskatzaileak zein aukeratu eta hizkuntza horretan luzatuko dira kopiak*[107].

Testua alderdi horretatik aztertzeko, euskara hiru ardatz iturri moduan hartu behar da aintzakotzat euskal zuzenbide zibilaren erregulazioaren eremuan:

a) Euskal Zuzenbide Zibilaren Legea euskarazko hizkuntza-substratu baten eramaile da, eta euskarazko izendapenarekin ezagutzen diren zenbait erakunde eratzen ditu. Gauza jakina da euskarak ez zuela berezko adierazpen juridikorik lortu historian zehar, idatzizko mailan behintzat; hala ere, euskarazko eduki juridikoko ahozko lekukotzak, atsotitzak eta abar ugariak dira, testu honetan deskribatu den bezala,

[107] *Ibidem*

baina egia esan, euskal hitzak *(abeurrea, bidigaza* eta beste batzuk) euskal hizkerako lurraldeetako lege zibilen idazketan agertzen ziren[108].

3/1992 Legearen irizpideari jarraituz, Euskal Zuzenbide Zibilaren Legeak gaztelaniaz eta euskaraz jasotzen jarraitzen du euskaldunek erakunde juridiko zibil batzuk aipatzean erabili izan dituzten izenak. Adibide gisa, *hilburuko* testamentua gogoratu behar da (31. atala) gaztelaniazko testuan agertzen da. Ildo horretan, euskarazko testuan *bide-zorrak* terminoa agertzen da (128. atala), bide-zortasunaren kontzeptua, Bizkaiko herrialdean hain zabalduta dagoena bilduz. Horrela, Euskal Zuzenbide Zibilaren Legearen testuan, euskal hiztunen ahotik ez ezik, zuzenbideko profesionalen ahotik ere gero eta ohikoagoak diren Euskal Autonomia Erkidegoko izendapen batzuk onartzen dira, eremu juridikoan euskararen erabilera normalizatzearen ondorioz.

b) Euskal Zuzenbide Zibilaren Legearen euskarazko testuak, zalantzarik gabe, garrantzia du euskarazko zenbait termino eta adierazpenen finkatzaile gisa. Kontuan izan behar da euskal zuzenbide zibilaren eremu horretan dituela Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen zabalak. Argi dago termino eta adierazpen asko euskaraz definituz efektu biderkatzaile nabarmena lortu dela eremu juridikoan euskararen hizkuntza-normalizazioan inplikatutako guztientzat.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Legearen euskarazko testuak, aurreko arloan azaldutakoa gorabehera, arazoak planteatzen ditu; izatez, esan den bezala, herriak berak eta euskarazko literaturak dokumentatuta zituzten termino batzuk zeuden, hala nola *gozamena*, *senipartea* edo *bide-zorra*, baina, era berean, agerikoa zen beharrezkoa zela, tradizio hori jasotzeaz gain, haren testugintza egitea beste terminologia batekin. Terminologia hori, zuzenbide zibilean orokorragoa izanik, Euskal Autonomia Erkidegoan ere erabiltzen eta euskarara itzultzen ari da, baina ez oso modu sistematizatuan, bai gaian interesa duten profesional batzuek eskatuta, bai Zuzenbideko beste eremu batzuek eskatuta, adibidez, fiskalak edo zerga-arlokoak, bertan Euskal Auto-

[108] Bizkaiko Jaurerria: *Fuero Nuevo de Vizcaya* (Adrián Celaya Ibarraren sarrera). Durango: Leopoldo Zugaza, 1976, Delmasen 1865eko argitalpenaren faksimilea, Legea IV, titulua XXIV, 66-67 orr.

nomia Erkidegoko lurralde historikoen araugintza-gaitasuna ezaguna eta aitortua dela.

Testuinguru horretan, kontzeptu batzuk daude, hala nola *testamentua*, *aurrekoak*, *ondorengoak*, *ahaidetasuna*, *ezkontidea* eta beste batzuk, beren-beregi foralak direnekin batera (*tronkalekotasuna* edo *foru-komunikazioa*), tratamendu espezializatuagoa behar dute, eta euskaraz finkatzeko ahalegina, arian-arian egitea komeni dena, arlo horretan gehien eragin duten lanen eta irizpideen arabera[109].

Horregatik, euskarazko testuan jarraitu ziren irizpideak ahalik eta zabalenak izan ziren, kontzeptu askoren euskarazko baliokidetzea zaila zelako eta hautua eztabaidagarria zela kontuan hartuta. Gai horiek eztabaidagarriak dira, baina betiere konponbidea bilatu nahi bada euskaraz hizkuntza juridiko zehatza eratzeko, espezializazio teknikoko hizkuntza bat, haren xedearen beharrei eta ezinbesteko segurtasun juridikoari begiratu behar zaie. Horrela definitutako kontzeptu horiek, gainera, eragin biderkatzaile argia dute euskararen normalizazioaren ikuspegitik. Gaur egun, euskara Euskal Herriko Zuzenbide Fakultateetan aztertzen da, ez irakasgai gisa, baizik eta eduki juridikoen eramaile gisa. Familiaren, oinordetzen eta beste arlo batzuen arloan euskarazko terminoak aurkitu nahi dituen unibertsitateko profesionalak eta irakasleak testu honetan islaturik ikusiko ditu, eta horrek, jakina, bere ahaleginean laguntza ekarriko dio, alde batera utzi gabe, gainera, euskarazko testu on bat finkatzeak euskal zuzenbide zibilaren esparrutik harago ere izan dezakeen garrantzia, *areago* bat bilatuz, euskarazko benetako *bertsioa* izan dadin, eduki koherente eta zehatza duena zuzenbidearen aldetik.

c) Euskal Zuzenbide Zibilaren Legea, gainera, tresna garrantzitsua da euskara euskal arlo zibilean aplikatzeko eta hizkuntza-estatusa hedatzeko. Konstituzioan eta estatutuetan euskararentzat ezarritako hizkuntza-lurraldetasunaren printzipioarekin batera, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, euskal arlo zibilari eta, kasu askotan, Euskal Zuzenbide Zibilaren Legeak araututako egintza eta kontra-

[109] Uzei: *Zuzenbidea Hiztegia*. Donostia: Elkar, 1985, I eta II liburukiak. Ikus: 83. oharra.

tuetan euskal auzotasun zibilaren titular jardule izateari lotutako hizkuntza-alderdia agertzen da hemen.

Beraz, arlo zibilari dagokionez, hizkuntza-nortasunaren irizpidea berariaz lotuta dago auzotasun zibilarekin. Hori indarrean dagoen Kode Zibilaren atariko tituluan arautzen da, eta haren aplikazioa zabal daiteke, hizkuntza-ofizialtasunaren araudiaren lurralde-aplikaziotik harago.

11. ONDORIOAK

Ibilbide horren ostean, ondorioak berehala datoz gogora:

1. Historian zehar gertatu ez dena, alegia, Bizkaiko Forua euskaraz argitaratzea lege testu moduan gertatu ez bazen ere, egun bada, Pedro Pujana euskaltzale eta ohorezko euskaltzainari esker, haren euskarazko bertsioa, herritarrentzat erabilgarria eta onuragarria, nahiz eta informazio mailan bakarrik izan halako ondorioak.

2. Hori gorabehera, begien bistakoa da bizkaitarrok bostehun urte horietan Bizkaiko forua bizi dugula ohituraz eta ahozko euskaraz, eta horren aztarna sakonak agertu direla sarritan foru testu idatzietan, egungo errealitatera iritsi arte: *hilburukoa, bidezorrak, alkarpoderosoa, etxaguntza* eta abar... Horiekin batera ere esamoldeak, *abeurrea, bidigaza*...

3. Horren frogantzak dira, besteak beste, bizkaierazko idazle klasikoen aipu eta erabilerak, erakusten dutenak euskaraz ere Foruaren eragina ohikoa zela. Horra hor, guztion partez, Mogelen hitzak, Peru Abarka pertsonajearen ahotan jartzen dituenak: *Bizcaico porubak emoten deust escubidia*...

4. Lekukotasun horiek erakusten dute Foruaren bizitasuna eta horrekin batera herritarrontzat eskubide linguistikoak auzitegi zein agintarien aurrean euskara erabiltzeko orduan. Zoritxarrez, gaur egun geratzen diren testuak, XIX. mendeko Batzar Nagusikoak izan ezik, bakanak dira eta jarraitutasunik gabekoak.

5. Hari berari jarraituz, egungo bizkaitarrok hortxe ditugu gure habeak eta oinarriak, bizi dugun euskararen ofizialtasunari eusteko eta aurrera eramateko eta gizarte honetan errotzeko, beste behin ere, gure sustraietan egon den kultura juridiko propio baten adierazpidea, etorkizunari buruz ari dena.

6. Bizkaiko Foruak bostehun urte geroago hainbat ekarpen egin dio garai honetako euskal zuzenbide zibilari, euskaldunontzat erkide den zuzenbide zibil berri horri. Hortik dator, etorri ere, gerokoa, eta horretan, beti gertatu den bezalaxe, prest egon beharra dago euskaldunon artean foruaren espiritu eta letra aitzina eramateko, eramaile prestua euskara dela. Horretan lagundu nahi du argitaraldi honek. Gure iturriak ezagutarazteko eta euskararen normatibizazio eta normalizazio prozesuetan lagungarri izateko.

12. ARGITARALDI HONEN EDUKIA

Aurrekoa gorabehera, honetara batu diren lege-testuak Bizkaiko herrialdearen Foru zuzenbideari dagozkionak dira. Salbuespenez eta Laudio eta Aramaion Bizkaiko Foru zuzenbide zibila indarrean izanik, horiek ere barruratu dira.

Hona hemen testuen zerrenda, argitaraldi honetara bilduak:

I. *Bizkai'ko Forua* (1526) . Pedro Pujanak bizkaieraz euskaratua (1985).

II. Bizkaiko eta Arabako Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma, 1959ko uztailaren 30eko Legea; Andres Urrutiak euskaratua (1990).

III.1 Otsailaren 18ko 6/1988 Legea, Foruzko Herri-Legea zati batean aldatzekoa.

III.2a Uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa.

III.2b Uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa. Testua bizkaieraz.

III.3 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa.

Testuak eskaintzen dira euren horretan, alegia, faksimile erara eta argitaratuak izan diren moduan. Beraz, bizkaieraz zein euskara estandarrean doaz. Helburua euskarazko testuak argitaraldi batera ekartzea izan da eta horrexegatik informazio jomuga lehenetsi da, azterketa linguistikoen gainetik. Agerikoa da itzultzaileak, aldiak aldi, molde desberdinetan jokatu dutela. Orobat, idaztankeraren aldetik esku desberdinak izan direla partaide testuetan. Bestalde 1988. urteaz geroztiko testuak lege indarra dute eta beraz, osterantzeko esanahia eta ondorioak.

Bidaia horretan, argi dago euskara bera aldatu egin dela. Batetik, lexiko eta adierazmoldeak findu eta zorroztu dira/ditugu; bestetik, euskal zuzenbide zibila sortu da eta egun hainbat erakunde juridiko Euskal Autonomia Erkidegoan zabaldu dira, azken hamarkada honetan (2015-2025). Horretara dator, etorri ere, argitaraldi hau bere xumean. Euskal zuzenbide zibilaren iturriak euskaraz ematera, uste izanik, gerogarrenean horiek hurrengo belaunaldientzat erabilgarri eta onuragarri izango direlakoan.

Eskerrik beroenak eta berezienak Pedro Pujana zenaren ondorengoei, bidea erraztu dutelako zeregin hau burutzeko. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Batzar Nagusiei, euren laguntza luzatzearren eta Zuzenbidearen Euskal Akademiari eta Dykinson argitaletxeari, sustengua eta laguntza ematearren Bizkaiko Foru Barria aldarrikatu zenetik bostehun urte betetzen direnean.

Hasieran esandakoaren haritik: *Euskara, jalgi hadi foruetara*!

13. BIBLIOGRAFIA

Agirre Asteasuko, J. B.: *Jaungoicoaren legueco amar aguinteen gañean eracusaldiac*. Donostia: Hordago, Lur, 1978, 2. liburukia.

—: *Jesucristoc bere elizari utzi ciozcan, zazpi sacramentuen gañean eracusaldiac*. Donostia: Hordago, Lur, 1978, 1. liburukia.

Aguirre Gandarias, S.: «La oficialidad del euskera en procesos postmedievales (con documentos inéditos)», *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 26, 1992, 259-279 orr.

Aita Villasante: «Lege gizonek behar duten hiztegi berezia», *Euskera*, 18, 1973, 203-204 orr.

Aizpitarte, J. M.: «El Diccionario Vasco proyectado por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País y la obra de José María de Aizpitarte. Instrucción para la formación de un diccionario de la lengua vascongada», in *Colección de Documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa*. San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa, 1965, 6. bolumena, 99-126 orr.

Akesolo, L.: «Bizkaiko Forua, Gernikako Batzarrak eta Euskerea», in *Idazlan Guztiak* (Julen Urkiza (arg.). Zornotza: Karmel, 1989, 89-94 orr.

—: «Etapas de un largo camino hacia un bilingüismo oficial», in *Plurilingüismo y evolución cultural. III Jornadas Vizcaya ante el siglo XXI*. Bilbo: RSBAP, 1986, 2. liburukia, 137-148 orr.

Apat-Echebarne, A.: *Noticias y viejos textos de la Lingua Navarrorum*. San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1971.

Apecechea, J.: «Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga (año 1782)», *Fontes Linguæ Vasconum*, 29, 1978, 339-360 orr.

Aranburu, P. J.: *Juan Bautista Agirre Elola, 1742-1823. Gizon eta apaiz eredugarria*. Oñati. 1995.

—: « Juan Bautista Agirre, euskal idazlearen liburutegia, 1742-1823», *Fontes Linguæ Vasconum*, 73, 1996, 493-505 orr.

Arana Martija, J. A.: «Bonifazio Etxegarai eta Korta», *Euskera*, 24, 1979, 45-59 orr.

Arana, S.: «Umiaren lenengo aizkidia», in *Obras completas*. Buenos Aires: Sabindiar batza, 1965, 1016-1066 orr.

Arregi´Tar, J.: «Forua/erri eskubideak (Pujana'ren idaztitik laburpena)», *Zer*, 163, 1992, 6. or.

ARZAMENDI, J.: *Términos vascos en documentos medievales en los s. XI–XVI*. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, 1985.

AZKUE, R. M. DE: *Euskalerriaren Yakintza. Literatura Popular del País Vasco*. Madrid: Euskaltzaindia / Espasa Calpe, 1989, III. liburukia, 3. argitaraldia.

BARAHONA, R.: *Sex Crimes, Honour, and the Law in Early Modern Spain: Vizcaya, 1528–1735*. Toronto: University of Toronto Press, 2003.

BELAUSTEGIGOITIA, P.: « Arau nagusiak», *Euskera,* I. urtea, II., 2. atala, 1919-1920, 63-64 orr.

BIZKAIKO DIPUTAZIOA: *El Fuero, Privilegios, Franquezas y Libertades del M. N. y M. E. Señorío de Vizcaya*. Bilbao: Publicaciones de la Excma. Diputación de Vizcaya, 1977.

BIZKAIKO JAURERRIA: *Fuero Nuevo de Vizcaya* (Adrián Celaya Ibarraren sarrera). Durango: Leopoldo Zugaza, 1976, Delmasen 1865eko argitalpenaren faksimilea.

BRUNNER, T.: «Le passage aux langues vernaculaires dans les actes de la pratique en Occident», *Le Moyen Âge*, CXV, 2009, 1 lib., 29-72 orr.

CARO BAROJA, J.: «Observaciones sobre el vascuence y Fuero General de Navarra», *Fontes Linguæ Vasconum*, 1, 1969, 61-95 orr.

—: «Prólogo», in BERISTAIN, A. eta beste batzuk: *Fuentes de Derecho Penal Vasco siglos XI-XVI*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, Antropología Vasca, 1980, 5. liburukia.

CASTÁN TOBEÑAS, J.: *Derecho Civil español, común y foral*. Reus, Madrid: 1981, II. liburukia, I. bolumena, 10. argitaraldia.

CAZENEUVE I DESACARREGA, X.: «La llengua en la documentació notarial de la Barcelona de 1700» in SANTANACH I SUÑOL, J.; TORRES SANS, X.; CAZENEUVE I DESCARREGA, X. eta beste batzuk: *Llengua i literatura. Barcelona 1700*. Barcelona: Ajuntament de Barcelona, 2011, 105-153 orr.

CELAYA IBARRA, A.: *Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco*, in ALBALADEJO, M.; DÍAZ ALABART, S. (zuz.), *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*. Madrid: Edersa, 1997, XXVI. liburukia.

CHARRITTON, P.: *PIERRE BROUSSAIN, Sa contribution aux études basques*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2007, Euskaltzainak Bilduma.

Cierbide, R.: *Arnaud d'Ohienart (1592–1667). Vida y obra*. Gasteiz: Euskalerriaren Adiskideen Elkartea, Arabako Batzordea, 1997.

—: «Plurilingüismo histórico en Euskal Herria», *Fontes Linguæ Vasconum*, 56, 1990, 149-164 orr.

Congost i Colomer, R.: «La llengua dels notaris. Notes sobre l'ús social del català (i del castellà) a la Girona de mitjan segle XIX» in *Estudi general: Revista de la Facultat de Lletres de la Universitat de Girona*, 2002, 22 (Ejemplar dedicado a: Miscel-lània d' homenatge a Modest Prats, II), 125-148 orr.

Delgado Echeverría, J.: «El art. 149.1.8 de la Constitución y la modificación y desarrollo del Derecho Foral», in *Actualización del Derecho Civil vizcaíno. VI Jornadas Vizcaya ante el siglo XXI.* Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia, 1988, 39-55 orr.

D'etcheberri, J.: «Lau urdiri gomendiozco carta edo guthuna», in *Obras Vascongadas del Doctor Joannes d'Etcheberri*. Paris: Paul Geuthner, 1907.

Elías de Tejada, F.: *El Señorío de Vizcaya*. Madrid: Minotauro, 1963.

Erdozia Mauleón, J. L.: «Zenbait euskal testu Nafarroan XVII. mendean», *Fontes Linguæ Vasconum*, 2005, 99, 307-334 orr.

Espainiako Erresuma: *1776ko maiatzaren 23ko Pragmatika*, 1776ko maiatzaren 27an argitaratua, 1776.

—: *Novísima Recopilación*, VIII. liburua, XI. titulua, V. legea, d.g.

Echegaray Eizaguirre, L.: *En busca de Vasconia: vida de Bonifacio Echegaray (1878-1956)*. Madrid: Dykinson/Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2021.

Etxegarai, B.: «Algunas voces vascas usadas en el Fuero General de Navarra», *Euskera*, VIII urtea, I-II, 1927, 43-65 orr.

—: «Nombres vascos de los espacios intermedios entre casas, *Euskera*, 1, 1930, 72-192. orr.

—: *Estudios de Derecho privado vasco: 1919-1951* (sarrera: Urrutia Badiola, A. M.), Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia, Bilbao, 2021.

Euskaltzaindia: «Euskaltzaindiaren adierazpenak: Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz», *Euskera*, 36, 1991, 445-447 orr.

—: «Euskaltzaindiaren adierazpenak: Hiztegigintzaz», *Euskera*, 27, 1982, 263-271 orr.

—: «Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz», *Euskera*, 4, 1959, 214-217 orr.

—: «Euskaltzaindia'ren batzar agiriak. Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1926'ko Azaroa'ren 26'an», *Euskera*, VIII. urtea, I-II., 1927, 36.or.

—: *Euskararen Liburu Zuria*, Bilbo: Euskaltzaindia, 1977.

—: «IIIna Itz Berrika», *Euskera*, I. urtea, 2, 1919-1920, 90-95 orr.

Fernández de Pinedo, K.; Otsoa de Alda, X.: «¨Brujas" euskaldunes alavesas en el proceso inquisitorial de Logroño (1609–1614)», *Fontes Linguæ Vasconum*, 40, 2008, 419-441 orr.

Fishman, J.: «Bilingualism and Biculturalism as Individual and as Societal Phenomena», in *The Rise and Fall of the Ethnic Revival*. Berlin: Mouton & De Gruyter, 1985.

Fonollosa, M. C.; Matas, P.; Pérez i Vallmana, D.; Ribas, X.; Vila, R.; Viros, Ll.: «Castellanitzacio i decadencia de la llengua a la comarca del Bages. Un estudi dels protocols notarials», *Revista de Llengua i Dret*, 1986, 185-207 orr.

Frai Bartolome Santa Teresa: *Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatzozpinduba* (Luis María Mujikaren edizio kritikoa), Bilbo: Euskaltzaindia (Euskararen lekukoak), 1986.

—: *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac*, *Aita Prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen Ortozeco Predicadoriac ateraac*. Iruñea: Rada alargunaren Liburuguilla, 1816.

Frai Pedro Astarloa: *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco catecismua*. Bilbo: D. Pedro Apraizen moldateguia, 1818.

Fray Juan Antonio de Ubillos: *Christau doctriñ berriecarlea*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1989.

GALLASTEGI ARANZABAL, C.: *Euskera y régimen foral. Lengua, comunicación, poder y Derecho en Bizkaia, Gipuzkoa y Álava (1500-1876)*. Oñati: Instituto Vasco de Administración Pública / Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2017.

GONZÁLEZ OLLÉ, F.: *Vascuence y romance en la Historia lingüística de Navarra*. Iruñea: Ediciones y Libros Cofradía gastronómica del pimiento seco, V, 1972.

GRANJA, J. J.: «La obra y las ideas de Federico Belaustegigoitia», in *Federico Belaustegigoitia (1876–1947)*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, Kultura Saila, 1989.

HARITSCHELHAR, J. G.: *Administrazioaren eginbeharra hizkuntz minorizatuen etorkizunean*, *IVAP. Hamar urte*. Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1994.

HIDALGO DE CISNEROS, C., eta beste batzuk: «Fuentes jurídicas medievales del Señorío de Vizcaya», in *Fuentes documentales medievales del País Vasco*. Donostia: Sociedad de Estudios Vascos, 1986.

IBISATE LOZARES, A.: «Fórmula de juramento en euskara en Álava en el siglo XVI. El testimonio de Fray Juan de Victoria», in KNÖRR, H.; ZUAZO, K. (arg.): *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak. El euskara alavés. Estudios y textos*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco, 1998, 517-524 orr.

IDOATE, C. eta VILLANUEVA, J. J.: «Unas ordenanzas de Vera en vascuence», *Fontes Linguæ Vasconum*, 37, 1981, 275-281 orr.

INTXAUSTI, J.: «Euskal Unibertsitatearentzat aurregitura batez», *Euskera*, 22, 1977, 935-940 orr.

—: «Leizarraga eta Leizarragatarrak (1563-1571), Erreforma–Kontrarreformetako ilun-argitan», *Revista internacional de los estudios vascos*, 40, 1995, 119-160 orr.

IRIGOIEN, A.: «Oihenarten atsotitz eta errefrauez nota tipia», *Euskera*, 34, 1989, 564 orr.

—: «Urde Urdaondo e(ta) açia etondo», in *De Re Philologica linguae Uasconicae, III*, 1990, 96 or. eta ondorengoak.

IRUJO, M. DE: *Instituciones Jurídicas Vascas*. Buenos Aires: Editorial Vasca Ekin, 1945.

IVAP-HAEE: *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa (1936ko urritik 1937ko ekainera)-hiztegia*, Gasteiz: IVAP-HAEE, 1997.

Jaurgain, J. de: «Journal de Pierris de Casalivetery», *Archives historiques de la Gascogne,* XVIII-3, 1908.

Jimeno Jurío, J. M.: *Navarra. Historia del euskera*, II. kapitulua. Tafalla: Txalaparta, 1997, Gure klasikoak.

Juaristi, J.: *Euskararen Ideolojiak*. Donostia: Kriselu, 1976, 1. liburukia.

Knörr, E.: «Joannes Leizarraga», in *Los escritores, hitos de la literatura clásica euskérica*. Gasteiz: Fundación Sancho el Sabio, 1996, Besaide bilduma, 115-138 orr.

Lacarra, J. M.: *Vasconia medieval. Historia y filología*, Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo". Donostia, 1957.

Lafourcade, M.: *Mariages en Labourd sous l´Ancien Regime.* Bilbo: Universidad del País Vasco, 1989.

Lalinde Abadía, J.: «Derecho y Fuero», in *Comentarios a la Compilación del Derecho Civil de Aragón.* Zaragoza, 1988, 11–88 orr.

Larramendi, M. de: *Corografía de Guipúzcoa*. San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969.

—: *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latín*. Donostia: Txertoa, 1984, berrargitaraldia, 2 liburukia.

—: *Euskal Testuak*. Andoain: Andoaingo Udala, 1990.

Lasarte, C.: *Autonomía y Derecho privado en la Constitución española*. Madrid: Civitas, 1980.

Leizaola, J. M.: «Irakurleei», in *Euzkadi´ko Agintaritzaren Egunerokoa*, Durango: Leopoldo Zugaza, 1977.

Lekuona Etxabeguren, M.: «Bizkai´ko Forua. Pedro Puxana», *Revista Internacional de Estudios Vascos*, XXXII, 2, uztaila–abendua, 1987, 429-435 orr.

Lizundia, J. L.: «Herri administralgo Hiztegiño baten eskabide eta premiaz», *Euskera*, 24, 1979, 279-289 orr.

Lobera, A.: «Hainbat jakingarri Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoaren gainean», *Karmel*, 3, 1995, 28-55, orr.

Maiora Mendia, F.: *Reino de Navarra, Euskera lengua inteligible, causas del retroceso, injurias, coplas*... Iruñea, 2018.

Marfany Garcia, J. LL.: *La llengua maltractada. El castellà i el català a Catalunya del segle XVI al segle XIX.* Barcelona: Editorial Empúries, 2001.

Menéndez Pidal, R.: «Introducción al estudio de la lingüística vasca», in *En torno a la lengua vasca*. Buenos Aires: Espasa Calpe, 1962, Austral Bilduma.

Mitxelena, K.: *Textos Arcaicos Vascos*. Madrid: Minotauro, 1964.

Mogel, J. A.: *Peru Abarka*. Durango: Gerediaga Elkartea, 1981.

Monteano Sorbet, P.: *Del euskera al castellano/el comienzo del cambio de lengua en el reino de Navarra (1550-1650).* Iruñea: Mintzoa arg., 2024.

Muniategi-Tar, S.: « Bizkai´ko Forua», *Zer*, 60, 1982, 7. or.

Oihenart, A.: *Atsotitzak eta Neurtitzak*. Donostia: Irakur Sail, 1971.

Olazar´Tar, M.: «Bizkai´ko Forua euskeraz», *Zer*, 1982, 50, 3-4 orr.

Ortiz de Landaluce, A.: *Pedro Pujana (1915–2001)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2002, Bidegileak Bilduma.

Osés, C.: «Léxico vasco en documentación notarial guipuzcoana», *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 26, 3, 1992, 813-824 orr.

Oyharçabal, B.: «La langue basque en Labourd au début du XVIIe siècle à travers le témoignage de Pierre de Lancre», in Courouau, J. F. eta beste batzuk (arg.): *Les Voix de la nymphe aquitaine. Écritures, langues et pouvoirs 1550–1610*. Agen / Tolosa Okzitania: Centre Matteo Bandello / Section Française de l'Association internationale d'Études occitanes, 2005, 133-152 orr.

Pagola Hernández, I.: *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*. Bilbo: Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca, 2005, *Iker*, 18.

—.: «Neologismos en los Juegos Florales», *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 18, 1984, 55-141 orr.

Peillen, Tx.: «Zuberotar lege hiztegia hamaseigarren mende hastapenean», *Euskera*, 27, 1982, 231-238 orr.

Pérez Milla, J. J.: *La territorialidad en el ordenamiento plurilegislativo español*. Valencia: Ciriec-España, 1999.

Pujana, P.: *Euskal aditza bizkaieraz / Flexiones del verbo vizcaíno*, 1970.

Pujana, P.: *Oletako Euskal aditza*, 1979.

Puxana Agirregabiria, P.: «Bizkaiko Forua dala eta ainbat jakingarri», *Euskerazaintza*, XXXIII, 1995, 27-35 orr.

—: «Bizkaiko Forua dala-ta», *Karmel*, 176, 1986, 6-19 orr.

—: «Bizkaiko Forua eta errakuntzak», *Zer*, 199, 1995, 11-12 orr.

—: «Bizkai´ko Forua», *Zer*, 8, 1978, 8-9 orr.

Puxana´Tar, P.: «Bizkaiko Foruaren Euskerazko lenengo itzulpena dala», *Euskerazaintza*, XXXIV, 1996, 22-34 orr.

Roca, E.: «El Derecho Civil catalán en la Constitución de 1978», *Revista Jurídica de Cataluña* 78, 1, 1979, 7-36 orr.

Ruiz de Larrinaga, J.: «Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 2, 1957.

—: «Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 3, 1958.

San Martín, J.: «Cadizko Konstituzioa euskaraz 1820», *Euskera*, 32, 1987, 393-397 orr.

Satrustegi, J. M.: «Goizuetako udal ordenantzak», *Fontes Linguæ Vasconum*, 72, 1996, 297-313 orr.

—: «Impacto del cambio político de la situación del euskera y posterior evolución», in *475 Aniversario Conquista de Navarra.* Donostia*:* Eusko Ikaskuntza, 1989.

—: «Relectura de los textos vascos de espionaje del siglo XVI», *Fontes Linguæ Vasconum*, 64, 1993, 443-476 orr.

—:«Anotaciones al proceso matrimonial vasco de Esparza de Galar (1557)», *Fontes Linguæ Vasconum*, 26, 1977, 259-270 orr.

—: «Cuatro promesas matrimoniales inéditas en euskera del siglo XVI», *Fontes Linguæ Vasconum*, 59, 1992, 55-70 orr.

—: «Documentos vascos del año 1664 en un proceso matrimonial de Oyarzun», *Fontes Linguæ Vasconum*, 33, 1979, 529-548 orr.

—: «Promesa matrimonial del año 1547 en euskera de Uterga», *Fontes Linguæ Vasconum,* 25, 1977, 101-114 orr.

Solé i Cot, S.: «La llengua dels documents notarials catalans en el període de la Decadència» in *Recerques: Història, Economia, Cultura*, 1982, 12, 39-56 orr.

—: «Més sobre la llengua dels documents notarials», *Revista de Llengua i Dret,* 40, 2003, 291-302 orr.

Tovar, A.: *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Madrid: Alianza Editorial, 1980.

Trebiño, I. (arg.): *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati. Instituto Vasco de Administración Pública / Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2001.

Txepetx: *El espacio bilingüe*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1981.

—: *Un futuro para nuestro pasado.* Donostia, 1987.

Ulibarri y Galíndez, J. P. de: *Gutunliburua*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundi Txit Gorenaren Kultur Kontseilua, 1975, argitalpen faksimilea.

Unamuno, M. de: «Vizcaya», in Costa, J.: *Derecho Consuetudinario y Economía Popular de España.* Zaragoza*:* Guara Editorial, 1981, II. liburukia, IV. zatia.

Uribarren Leturiaga, P.: «Pedro Pujana Agirregabiria (1915–2001)», *Euskera,* XLVI, 1, 2001, 489-495 orr.

Urquijo, J. de: *Refranero Vasco. Los refranes y sentencias*. San Sebastián: Auñamendi, 1964, I eta II. liburukiak.

Urrutia Badiola, A. M.: *Euskara Legebidean.* Bilbo*:* Universidad de Deusto, 1990.

—: «Euskal Zuzenbide foralaren erreforma», in *Euskara Legebidean*, Bilbo: Universidad de Deusto, 1990, 119-132 orr.

—: «Legearen zirrikituetatik barrena: ahozkotik idatzizkora» *Euskera*, 43,1,1998, 13-47 orr.

— (zuz.): *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskara: 1833-1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa*. Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 2003.

—: « El castellano y el euskera: léxico jurídico de contacto », *Oihenart*, 26, 2011, 527-558 orr.

—: «Euskararen corpusa eta estatusa zuzenbidearen alorrean: ikuspegi iurilinguistikoa» in Madariaga Orbea, J. eta Adot Lerga, A. (koord.): *Euskara gobernuko goi erakundetan historian zehar: nazioarteko jardunaldiak*. Iruñea: Pamiela, 2014, Ensayo y testimonio, 155.

— (arg.): *Euskara Foru Aldundien zirkularretan: Bizkaia (1917–1919), Gipuzkoa (1918–1923)*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia / Academia Vasca de Derecho, 2015, Abeurrea Bilduma, 13.

— «De verbo ad verbum: Derecho, mediación lingüística y escribanos vascos (s. XIX)» in Pradilla Cardona, M. (zuz.): *Miscel·lània d'homenatge a Joan Martí i Castell / Joan Martí i Castell (hom.)*. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili, 2016, 1. lib.,167-175 orr.

—: *Lengua vasca, cooficialidad lingüística y relaciones jurídicas inter privatos.* Oñati. Instituto Vasco de Administración Pública / Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2016.

—: *Euskal letretan barrena, legea mintzo.* Bilbo/Madrid: Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia/Ilustre Colegio Notarial del País Vasco/ Editorial Dykinson, 2026, Minor Bilduma 14.

Urrutia, A.; Lobera, A. (arg.): *Euskara, Zuzenbidearen hizkera.* Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1997, 2. argitaraldia.

Uzei: *Zuzenbidea Hiztegia*. Donostia: Elkar, 1985, I eta II. liburukiak.

Uzei: *Zuzenbidea hiztegia (1)*. Donostia: Elkar, 1987, 1. liburukia.

Vallet de Goytisolo, J.: «Las expresiones "fuentes del derecho" y "Ordenamiento jurídico"», in *Estudios sobre fuentes del Derecho y método jurídico.* Madrid: Editorial Montecorvo, 1982, 23-148 orr.

Vicario y de la Peña, N.: *Derecho Consuetudinario de Vizcaya*. Madrid, 1901.

Zabaleta, J.: *Euskal itzulpenaren antologia*. Donostia: Itzulpen Eskola, 1984.

Zenbait Autore: *Geografía histórica de la lengua vasca (siglos XVI al XIX)*. Zarautz: Icharopena, 1960, 1. liburukia, Auñamendi Bilduma.

Zorrilla Ruiz, M. M.: «Espacio Judicial Autonómico», *Estudios de Deusto*, 2000, 48/2, 153-186 orr.

14. WEBGRAFIA [kontsulta datak 2026-10-12]

Zuzenbidearen Euskal Akademia / Academia Vasca De Derecho: *Forulege*, www.forulege.com

Zuzenbidearen Euskal Akademia / Academia Vasca De Derecho: www.avd-zea.com

Eusko Jaurlaritza: www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/autonomi-estatutua-euskal-herriko-oinarrizko-erakunde-araua/

Ehuko Zuzenbide Fakultateko Hiztegi Juridikoa: www.ehu.eus/ehg/juridikoa

Deustuko Unibertsitatearen Hiztegi Juridikoak: www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/minordcho/minordcho07.pdf

I

BIZKAI'KO FORUA
(1526)

BIZKAI'KO
jaurerritar zaldun aitonen semeen
FORU

LEGE BEREZI

FRANKEZA TA ERRI-ESKUBIDEAK



Puxana eta Agirregabiria'tar Kepa'k
Leenengo aldiz euskerara itzuliak.
Estornes eta Lasa'tar Joseba
Foru-adierazle.
MCMLXXXI

BAIMENA

DON FELIPE'k, Jainkoaren graziaz, Gaztela'ko, Leon'go, Aragon'go, Sizilia bietako, Jerusalen'go, Portugal'go, Naparra'ko, Granada'ko, Toledo'ko, Mallorkaseko, Sebilla'ko, Zerdeña'ko, Kordoba'ko, Korzega'ko, Murzia'ko, Jaen'go, Algarbes'ko, Aljeziras'ko, Jibraltar'go, Kanaria Ugarteetako, Sorkalde ta Sarkaldeko Indietako, Itxas Aundiko Ugarte ta Leorreko Erregek, Austria'ko Artxidukeak, Borgoña ta Brabante ta Milan'go Dukeak, Absburgo'ko, Flandes'ko, Tirol eta Barzelona'ko Kondeak, Bizkaia ta Molina'ko Jaunak, etab. Zuok, Bizkai'ko Jaurerri guztiz noble ta guztiz leiala egiten dozuen aldetik esan daustenez, zuok Foruaren ale bat baiño ez daukazuela-ta, asko ta asko bear dozuela-ta, Foru ori barriro irarteko premiñan zagoze, bai jatorriz zuen seme-alaba diranei emoteko, baita Erriaren zuzenbide ta araubiderako eta zuen auziak ebazten diran Epai-leku ta Auzitegietan banandu aal izateko bere: *epaikarientzat eta beste pertsonentzat eta zuen erritarrentzat argibide izan daiten,* eta Foru orretan datozan Legeen arabera zuen zuzentasuna egin daiten. Orregaitik, zuen Foru onetan datozan Legeak barriro irarteko baimena emon gengiala erregu egiten euskuen, zeuon pentzutan ori egiñik, inprimatzaile alogeraduna badaukazuela-ta, eta baimen ori guk gaur

arte emon ditugun baieztapen guztiak irarteko bere izan daitela, eta zuon Foru orren aurkezpena bear bezela zin egiñez edo geure mesedez deritxogunez egingo dozuela. Gure Batzarrekoek au aztertu ondoren eta liburu-irarpenari buruz azkenengo pragmatiku-legeak erabagitakoa Foru-liburu orretan bete izan danez, arazo orri dagokion geure eskutitz au emon egin bear geuntsuela erabagi genduan, eta guk ontzat izan genduan. Ori dalata, zure aalmen berezia daukan pertsonek, eta ez bestek, irarri aal dagian gure baimena ta eskubidea zuri emoten dautsuguz, eta gorago aitatzen dan Foru liburu au eta beronen baieztapenak barriro irarri daitezala, irartaldi ori gure Batzarrean aurkeztu zan leen-izkribuagaz bat etorri ezkero. Leen-izkribu onen orri guztiak izenpeturik dagoz, eta azkenean Erran'go Pedro Fernandez, gure Batzarre onetan eskribau danak eta berton egotez dagoanak izenpeturik dator, eta, irar daitenean, ez daitela sal eta ezin daitekela saldu bere egin, berari leenago ekarri baga, inprimaldia leen-izkribuagaz bat datorren ikusteko, eta ale bakotxa ze salneurritan salduko dan ebatzi daitela, aitaturiko pragmatiku-legean ezarritako eta, gaiñera, geuk ezarriko ditugun eta gure Dirutegirako izango diran amar milla marairen zigorrenpean jausi ez zaitezen, zigorrok zeuonganaturik. Orregaitik, gure eskutitz au gure silluaz sillauta eta gure Batzarrekoen bidez emon zeitela agindu genduan, eta, emon bere, emon genduan. Madrid'go uri onetan milla seireun eta berrogei ta bigarreneko Azaroaren amazortzigarrenean. Don Diego Gotzaiñak. Iodar'ko Markesak. Don Fernando Pizarro Lizentzidunak. Zeballos'ko don Diego'k. Mendizabal'go don Gregorio Lopez'ek. Neuk, Errege gure jaunaren Batzerreko Idazkari nazan Erran'go Pedro Fernandez onek aren aginduz eta Batzarrekoen on-eretxiz idatzierazo neban. Ezarririk. Gaspar Santxez'ek. Gaspar Santxez, Kantziller Nagusiaren Ordezkariak.

SALNEURRIA

NIK, Erran'go Pedro Fernandez'ek, gure Errege Jaunaren Dirutegiko Eskribau eta aren Batzarrekoa nazan onek onoko au autortzen eta egiztatzen dot: Batzarrekoek baimena emonez gero irarri dan Forua Bizkai'ko Jaurerriaren izenean Batzarrekoei aurkeztu jakela. *Aitaturiko Foru-liburuaren orri bakotxa lau marai ta erdian taiutu eben, eta liburuak asierarik barik irurogei ta bost orri ta aurkibideak daukazanez, orri bakotxeko lau marai ta erdi izanez gero, guztiz berreun eta larogeta bost eta erdi marai egiten dabe, eta neurri orretan saldu bear da paperean.* Eta esaniko salneurri orretan saldu aal izateko baimena emon eben, eta salneurri au liburuaren asieran ipinteko agindu eben, eta salneurri ori barik ezin daitekela saldu, eta au onelantxe izan daiten egiztabide au emoten dot. Madrid'en, milla seireun eta berrogeta seigarreneko Maiatzaren amabigarrenean.

Erran'go Pedro Fernandez

BIZKAI'KO
FORU, FRANKEZA
TA ERRI - ESKUBIDEAK

FORUAREN ERATZEA DALA-TA BATZARRAREN AGIRIAK



ernika'ko Zugazpean, Guztiz Noble ta Guztiz Leial dan Bizkai'ko Jaurerri onetako Batzarre Nagusiak egin oi diran lekuan, Jesukristo gure Salbatzaillea jaio ezkero milla bosteun eta ogeitaseigarreneko Jorraillaren bosgarrenean.

Batzarre Nagusi jakin baterako deia artu ondoren, Zugatz onenpean guztiz Noble dan Loaisa'ko Pedro Jiron Lizentzidun Jauna, Jaurerri onetako Korrejidorea, eta Muxika ta Butron'go Don Joan Alonso, Aramaio'ko Jauna, eta Arteaga ta Ganboa'ko Don Joan, Arteaga Etxe ta Sortetxeko Jauna, eta Bizkai'ko beste Zaldun, Eskutari ta Aitonen Semerik asko, ainbeste ta ainbeste diranez izenik ez da aitatzen, eta aitaturiko Jaurerriko Udal eta Elizateetako Ordelari diran Zergazaiñak, oneen izenak beerago ezarten diralarik, Jaun Aundien Eskribau ta areen Gortean eta Erreiñu ta Jaurerri guztietan Erri-Notario eta Bizkai'ko Batzorde ta Korrejimentuko

Batzarraren Agiriak

Eskribau garan Ibarbuen'go Iñigo Urtiz eta Basaraz'go Martin'en aurrean batu ziran; eta aitaturiko Zaldun, Eskutari ta Aitonen Semeak antxe egozan alkarturik, baita Elizate ta Errietako Ordelariak bere. Ordelariok eta Zergazaiñok oneexek dira: Mundaka'ko Andra Mari Elizatearen ordez Aretxeta'ko Fernando Urtiz: eta Sukarrieta'ko San Andres Elizatearen ordez Learreta'ko Joan Perez: Axpe-Busturia'ko Andra Mari Elizatearen ordez Santarena'ko Rodrigo eta Dolara'ko Otxoa: eta Murueta'ko Andra Mari Elizatearen ordez Murueta'ko Joan Saez: Ugarte-Muxika'ko Elizatearen ordez Agirre'ko Pedro: Arrieta'ko Elizatearen ordez Arrieta'ko Joan: Mendata'ko Elizatearen ordez Marmez'ko Otxoa: eta Ajangiz'ko Elizatearen ordez Ortuzar'ko Martin eta Zaballa'ko Joan: eta Arrazua'ko Elizatearen ordez Zarra'ko Martin Urtiz Eskribaua: Ereño'ko Elizatearen ordez Zea'ko Txomin: eta Ibarrangelua'ko Elizatearen ordez Garrasteliz'ko Otxoa Ruiz: eta Gautegiz'ko Elizatearen ordez Ozollo'ko Pedro: eta Kortezubi'ko Elizatearen ordez Terligiz'ko Joan eta Basozabal'go Joan Ruiz: eta Ispaster'ko Elizatearen ordez Beitia'ko Rodrigo: eta Natxitua'ko Elizatearen ordez Urazandi'ko Joan: eta Bedarona'ko Elizatearen ordez Olabe'ko Joan: eta Murelaga'ko Elizatearen ordez Tellaetxe'ko Martin: eta Nabarniz'ko Elizatearen ordez Etxebarria'ko Joan: eta Gizaburuaga'ko Elizatearen ordez Gorostiza'ko Otxoa Lopez: eta Mendexa'ko Elizatearen ordez Algorta'ko Gartzia: eta Berriatua'ko Elizatearen ordez Garduza'ko Joan: eta Zenarruza'ko Elizatearen ordez Yurrebaso'ko Martin: eta Arbazegi'ko Elizatearen ordez Garro'ko Joan: eta Jemein'go Elizatearen ordez Gabiola'ko Martin Perez: eta Etxebarria'ko Elizatearen ordez Maguregi'ko Ander: eta Amorebieta'ko Elizatearen ordez Jauregibarria'ko Martin: eta Etxano'ko Elizatearen ordez Epaltza'ko Martin Fernandez: eta Barakaldo'ko Elizatearen ordez Urkulu'ko Joan Urtiz: eta Begoña'ko Elizatearen ordez Saltzedo'ko Pedro: eta Abando'ko Eli-

Batzarraren Agiriak

zatearen ordez Etxaso'ko Martin: eta Galdakano'ko Elizatearen ordez Lekue'ko Martin: eta Arrigorriaga' ko Elizatearen ordez Larrinaga'ko Martin Eskribaua: eta Arrankudiaga'ko Elizatearen ordez Ormaetxe'ko Pedro: eta Lezama'ko Elizatearen ordez Basabil' go Pedro: eta Erandio'ko Elizatearen ordez Agirre'ko Martin Urtiz: eta Getxo'ko Elizatearen ordez Ormae-Joan: eta Berango'ko Elizatearen ordez Getxo'ko Otxoa Urtiz: eta Sopelana' ko Elizatearen ordez Larraondo'ko Joan: eta Urduliz'go Elizatearen ordez Repela'ko Martin: eta Gorliz'ko San Joan: eta Lemoniz'ko Elizatearen ordez Gazitua'ko San Joan: eta Maruri'ko Elizatearen ordez Unibaso'ko Joan: eta Gatika'ko Elizatearen ordez Ajabide'ko Pedro: eta Laukiniz Elizatearen ordez Laukiniz'ko Pedro: eta Basigo' ko Elizatearen ordez Errenteria'ko Joan Gonzalez: eta Meakaur'go Elizatearen ordez Zorrotza'ko Martin Perez: eta Mungia'ko Elizatearen ordez Bilela'ko Iñigo: eta Fruniz'ko Elizatearen ordez Mugerra'ko Joan Otxoa: eta Fika'ko Elizatearen ordez Landeta'ko Fortuño: eta Meñaka'ko Elizatearen ordez Etxebarria'ko Joan: eta Lemoa'ko Elizatearen ordez Atutxa'ko Fortuño: eta Yurre'ko Elizatearen ordez Lasarte'ko Joan: eta Arantzazu'ko Elizatearen ordez Emegarai'ko Joan eta Dima'ko Elizatearen ordez Artadi'ko Joan: eta Zeanuri'ko Elizatearen ordez Arrikibar'ko Joan Urtiz: eta Kastilla ta Elejabeitia'ko Elizateen ordez Emegarai'ko Joan: eta Olabarrieta'ko Elizatearen ordez Ginea'ko Joan: eta Ubidea'ko Elizatearen ordez Gerra'ko Otxoa Urtiz.. Eta aitaturiko Zaldun, Eskutari, Aitonen Seme eta Ordelariok, Batzarre Nagusi jakin onetarako deia artuta gero, esaniko Eskribau garanon aurrean Korrejidoreagaz batuta egozala, eta gure Jaun eta Jainkoaren eta gure Jaun Aundi ta Andera Aundi diran Don Karlos Errege Enperadore ta beronen ama Doña Joana Erregiñaren aintzagarri diran gauzetaz, eta Zuzentasuna ondo bete daiten, eta Zaldun, Eskutari, Aitonen Semeen eta Jaurerri onetako

Batzarraren Agiriak

bizilagun guztien onerako, bakebide ta nasaibiderako eta Jaurerri au egokiro zaintzeko izango diran gauzetaz ziarduen: euren artean berba egiñez, besteak beste, Bizkai'ko Jaurerriko Forua antxina idatzia, eta ez bakerik, ez Zuzentasunik, ez Letrau ugaririk ez zan aldian eta Jaurerrian orain daukagun auziei buruzko jakiterik (Jainkoa goratua izan daitela) ez zan aldian eratua izan zala esan eben; ori dala-ta, gaur bear ez dan ainbat gauza idatzi zan Foruan, beste batzuk, ostera, denporak aldatu egin diranez eta ikusien gaiñera dakigunez, alperreko egin dira: beste batzuk, barriz, erriaren bakebide ta nasaibiderako eta Zuzentasuna artez egin daiten bearrezko diranak eta usarioz eta oituraz egin oi diranak ezarri barik dagoz bertan; orregaitik arazo oni buruz batzuetan auzibideak sortzen dira, eta usarioz eta oituraz gordetzen dirala ta baita aitaturiko Foruan idatzirik diranak bere usarioz erabiltzen dirala egiztatzea alderdientzat neke ta diru-eralgite aundikoa izan oi da, ortik diru-eralgite aundi ta neke ta auzibide ta burrukak areago sortzen dirala, eta Auzia zelan ebatzi Epaikariak sarri zalantzatan izan oi dira, eta diru-eralgite, auzibide ta burruka ta egiztabideok ken daitezan, alderdien artean geitu ta geitu egiten dira-ta, eta alperrikakoa dana eta mesedegarria ta bearrezkoa ez dana kendurik, eta idatzi baga egoana eta usarioz eta oituraz egiten zana erantsirik eta idatzirik. Bizkai'ko Foruko Legeak ulergarriagoak eta argiagoak izan daitezan; Forua eta bearrezkoa dan guztiari buruz berton idatzita dagozan Lege guztiak onelan idatzi ta barriztatu ezkero, Forua ta bertoko Legeak betetzen diran ala ez jakiteko alderdiek ez daukela ezer egiztatu ez eralgi bearrik, eta Auzitan diarduenei ori egiztatu ta dirua eralgi bearra ken dakiela, eta Foru barriztatuan dagozan Legeak bete daitezala, Jaurerri onetako auzibideak Lege oneetaz erabagi ta ebatzirik: Pertsona Eskolatu, jakitun eta barru garbiko diranak eta aitaturiko Bizkai'ko Foru, usario ta oitura ta Erri-Eskubideetan askoikasiak ziranak izendatu bear zirala erabagi eben,

Batzarraren Agiriak

Jaurerri onek idatzirik daukan Forua ta bertoko Lege ta Lege Berezi ta Erri-Eskubide ta usario ta oiturak ikusteko Aalmena eurei emonaz; eta Jainkoaren eta Jaun Aundien serbitzua bakarrik gogotan ebelarik, euren eginkizuna ondo ta zintzoro, alderdikeririk barik beteko ebela zin eginda gero, eta erria ondo zaindu ta Justizia artez egin daiten eta Bizkaitar eta bertoko bizilagunen onerako ta bakebiderako barriztatzen aaleginduko zirala: eta onantxe zin egiñik, aitaturiko Aldunek Korrejidore Jaunagaz batera Foru, usario ta oitura ta Lege Berezien barriztapena egin dagiela.

Forua ikusi ta barriztatu ta eratuko daben Pertsonen izendatzea.

Eta orretarako, guztiek bat eginda gero, Ugarte'ko Joan Santxez Batxillerra ta Muxika'ko Diego Otxoa Lizentziduna ta Burgoa'ko Martin Perez Batxillerra ta Zirarruista'ko Ortun Santxez Batxillerra ta Ugarte'ko Lope Ibañez eta Belendiz'ko Rodrigo Martin eta Baraia'ko Pedro Foru-Alkatea, eta Ibarguen'go Iñigo Urtiz eta Zarra'ko Martin Urtiz eta Oinkina'ko Martin Saez eta Gerra'ko Otxoa Urtiz eta Luno'ko Pedro Martinez izendatu zituen. Pertsonok Eskolatuak eta Bizkai'ko Foru, usario ta oitura, Lege Berezi ta Erri-Eskubideetan aituak, trebeak eta bear-ainbat jakituriz jantziak, eta barru garbikoak ziran ezkero, Jaurerri onetako Foru, usario ta oiturak, Lege Berezi ta Erri-Eskubideak ondo eta zintzoro eratu ta barriztatuko zituela uste eben. Au dala-ta, aitaturiko gizonoi ta Bizkai'ko Korrejidore dan Loaisa'ko Pedro Jiron'i, legezko ziña egin ondoren, Foru idatzia ta Lege Bereziak, Frankeza ta Erri-Eskubideak, idatzirikoak eta idatzi bearrekoak, eta Bizkai'ko Zaldun, Eskutari ta Aitonen Semeek zituenak ikus egiezan bear eben ainbateko aalmen betea emoten eutseen eta, emon bere, emon eutseen, eta erria ondo zaintzeko barriztatu dagiela, bertoko auzibideak garbitzeko ta bizilagunen nasaibide ta bakebiderako bear zan guztia idatzirik: alperrekoa ta bearrezkoa ez zana ken-

Batzarraren Agiriak

durik, erantsirik edo moztu-rik, eurek zelan eritxen eta alantxe, eta Forua Ataletan eta Legeetan zatiturik idatzi dagiela, eta barriztatze onetan ogei egun egin dagieza-la, eta langintza onetan egi-ten eben egun bakotxerako ezarri jaken saria emon dakiela; eta barriztapen au burutu ta Foru barria idatzi ondoren, aitaturikoak eta Jaurerri onetako Letrau, Aldun eta Errejidoreak, aitaturiko barriztatzea egin eta leenengo Batzarre-aldian Korrejidore Jaunagaz batu daitezala; eta aitaturiko Aldunak eratu ta idatzi ebe-na guztien artean barriro ikusi ta aztertu dagiela: eta guztien artean ikusi ta alkar artu ondoren, garbirik atara eragin dagiela, garai aretan Bizkai'ko Batzarre ta Errejimentuko Eskribau izango diranek izenpetzen dabela; eta Bizkai'ko Jaurerriko silluaz sillatuz gero, Jaun Aundiei bidal dagioela, Lege, Foru, Zuzen, Lege Berezi ta Erri-Eskubidetzat onar dagiela eskaturik eta, zein Bizkai'ko Jaurerri one-tan zein emendik kanpora, Balladolid eta Granada'ko Goi-Batzorde ta Errege-Auzitegiko Buruak eta Oidoreak eta Balladolid'en egotez dagoan Bizkai'ko Epaikari Nagusiak eta Erreiñu ta Jaurerri oneetako Epaikari ta Justizigin guz-tiek erabagi ta garbituko dituezan Auzi guztiak Biz-kaitarren artean Foru one-tako Legeez eta ez bestez, Legeok ebatzi daitekezanak izan ezkero, erabagi ta gar-bitu daitezala agindurik, Legeok oiturazkoak diran ala ez eta gordetzen diran ala ez jakiteko alderdi auzi-lariek ezer egiztatu bearrik ez dabela. Eta Gortean aita-turiko onartzea eskatzera ta eroango zituen beste betekizunak betetzera joango ziran Ordelariak izendatzeko ta gertetako eta aitaturiko Ordelariek Foruagaz batera eroango zituen betekizunak zeaztuteko, esan eben: Aita-turiko Jaurerriko Aldunei ta Errejidoreei ta gorago izen-datu diran Aldunei aitaturi-ko Foruaren barriztatzea egin egien bear-ainbateko aalmen betea emoten eutsee-la eta, emon bere, emon eu-tseela baita Konderriko Erre-jidoreei bere aztertu ta bate-ratu egien; eta Gortera joan-go diran Ordelariak gertetа-ko, ostera, eta epea ta saria ta betekizunak zeaztuteko,

Batzarraren Agiriak

esan eben: Euren aldetik eta euren erri guztien aldetik eta Batzarre Nagusian baturik dagoan Bizkai'ko Jaurerri guztiaren aldetik bear-ainbateko aalmen betea emoten eutseela eta, emon bere, emon eutseen, aalmen au ez-ustez eta loturaz aldamenetako ta ondoretako atal guztietara edatzen dala, eta aitaturiko Udaletako Pertsonek, ondasun eta guzti, euren gurariz eta burubidez euren buruak lotzen dituela, izendatutakoek aitaturiko eginkizunari buruz emondako aalmenen indarrez egin eta erabagiko eben guztia sendotzat, legezko ta ontzat, iraunkor eta munduaren aldi guztirako baliozkotzat izango ebela; eta eginkizun onen ordez *Iudicium Sisti judicatum solui* izeneko Legetxatalaren arabera eralgi bear eta emon bear guztia kentzen eutseela: eta bear eben ainbateko aalmen osoa ta sendoa emon eutseen, agiria emonazorik, eta guri, Eskribauoi, onantxe izenpenturik emon gengioela erreguz eskatu euskuen eta an egozanei onen Lekuko izan eitezala: bertan egozan Zarate'ko Joan, Bizkai'ko Prestameruaren Ordezkari Nagusia ta Zarate'ko Rodrigo, Busturia ta Markina'ko Prestameruaren Ordezkaria, eta Ibarguen'go Fortun Iñigez eta Galartza'ko Pedro Otxoa, Eskribauak, Basañez'ko Martin, Urtiz'ko Iñigo izan ziran Lekuko.

Forua eratzeko izendatu ziran Aldunek, Korrejidorearen aurrean aurkeztu-rik, zin egin ebela.

Eta gorago esanikoa egin ondoren, Bilbo'ko Uri Nobletik at dagoan Naja'ko Martin Saez'en Etxean, Jesukristo gure Jauna jaio ezkero, milla bosteun eta ogeitaseigarreneko Abuztuaren amargarrenean. Guztiz Noble dan Loaisa'ko Pedro Jiron Lizentziduna, Bizkai'ko Jaurerri Noblean Korrejidore dana, Jaun Aundien Eskribau ta areen Gortean Erri-Notario eta Bizkai'ko Jaurerri Noble onetako Batzorde ta Errejimentuko Eskribau garan Zarra'ko Martin Ibañez eta Galartza'ko Pedro Otxoa'ren ta beerago aitatuko diran Lekukoen aurrean egoan; Ugarte'ko Joan Santxez Batxillerra ta Burgoa'ko Martin Perez Batxillerra ta

Batzarraren Agiriak

Zirarruista'ko Fortun Saez Batxillerra ta Ugarte'ko Lope Ibañez eta Belendiz' ko Rodrigo Martinez eta Getxo'ko Otxoa Urtiz eta Zarra'ko Martin Urtiz eta Luno'ko Pedro Martinez bere antxe egozan. Eta Bizkai'ko Foruaren barriztatze-egintzan jardun egien etor eitezala Korrejidoreak agindu eutsenez, agindu oni men egiñik, eurek egin bear eben guztia egiteko prest zirala berari esan eutsoen. Eta Korrejidoreak, ondoren, esan eutsen: Korrejidoreagaz batera Bizkai'ko Foru, usario ta oituren barriztapena egiteko Bizkai'ko Batzarre Nagusian eurei aalmena emon izan jakela, eta gorago ezarri dan aalmen ori erakutsi bere, erakutsi eutsen; eta aitaturiko aalmen orrek dakarren legezko ziña egin eta betekizuna bete beste ezer baiño leen egin egiela, eta, ori buruturik, ogei egunen buruan ez eitezala Bilbo'ko Uri onetatik aldendu, Foruaren barriztatze-egintza amaitu arte, eta ogei egunok gaur asten dirala. Eta urrengo, Korrejidoreak Gurutzea ta Ebanjelioak bere aurrera ekarri eragin zituan, eta liburua edegi eban, Ebanjelio baten gaiñean Gurutzea ezarririk, eta gorago aitaturiko guztiei euren eskumako eskua Gorutzearen eta Ebanjelio Santuaren berben gaiñean ipiñazorik, zin eragin eutsen, esanez: "Zuok eta zuotariko bakotxak Jainkoari, Andra Mariari eta Zeruko Gorteko Gizakume ta Emakume Santu guztiei ta zuon eskuaz ikutu dituzuen Gurutze ta Ebanjelioari, Bizkai'ko Foru, usario, oitura, Lege Berezi ta Erri-Eskubideak barriztatzeko Jaurerri Noble ta Leial onetako Batzarrak, Zaldun, Eskutari, Aitonen Semeek eta Ordelari ta Udalek emoniko aalmena artez erabilliko dozuela zin dagioezue, egiteko au ondo, zintzoro ta leialkiro, eta ezertariko gorroto, alderdikeri, azpikeri ta iruzurrik baga beterik, eta aitaturiko barriztatze-egintza au eta Jainkoaren eta Jaun Aundien serbitzurako ta erria ondo zaintzeko ta Justiziaren eginbiderako eta Bizkai'ko Jaurerri onen onerako ta probetxurako onuragarri ta mesedegarri diran gauza guztiak eratuko dituzuela, onuragarri ta mesedegarri ez litzatekezan guztiak kendurik; eta Kristi-

Batzarraren Agiriak

ñau on eta Zintzo ta urkoaren zale ta Erri guztiaren on-egille ta Erritar zintzoak zareenez egiteko guzti onetan jardungo dozuela". Eta gorago aitaturiko guztiek eta euretariko bakotxak, onan erantzun eben: "Bai, zin dagit". Eta Korrejidoreak, ondoren, ziñaren betebearra aitatu eutsen, esanez: "Onelan egin badagizue, Jainkoa mundu onetan gorputzetan lagun dakizuela, eta beste munduan zuon Arimei bere Paradisu Santua emon dagioela. Eta besterik egin badagizue, besterik egin dagian zuotariko bakotxari, mundu onetan oker ugariz ordaindu dagizuela, eta bestean, zuon arimak infernuko oñazeetara bidal dagizala, Kristiñau ta Erritar gaiztoak izan zareelako, Jainkoaren izenean guzurrez zin egin eta egindako ziña ausi egin dozuelako". Eta aitaturiko bakotxak erantzun eban: "Amen". Korrejidoreak, egozan Etxe ta Leku aretara egunean bi bidar etorteko egindu eutsen; goizean seiretan, eta amarrak arte antxe egoteko, lau orduotan barriztatze-egintzan jardunez; eta eguerdi ostean ordu batetan etor eitezala, eta bostak arte jardun, beste lau ordutan, zigor onenpean: ordu aretarako norbait etorriko ez balitz, egun aretako saria gal egiala; eta etorriko ziranek beragaz batera Forugintza aurrera eroan egiela. Eta Geuri, Eskribauoi, guzti au egikeran, antxe izan geintezala agindu euskun; urrengo, gorago aitaturikoak aurrean zirala, Ziloniz'ko Otxoa Eskribauak izenpeturiko Bizkai'ko Forua emon eta eskuetan ipiñi euskun, aitaturiko Aldunek ango Legeak ikusi ta eurek euken aalmenaren arabera barriztatu egiezan; eta Aldunok esan eben: Guzti onegaitik pozarren egozala eta guzti au begiko jakela: eta bertan egozan Zarate'ko Joan, Prestameruaren Ordezkari Nagusia, eta Susunaga'ko Ortun Saez, Konderri onetako Alduna eta Mugaguren'go Lope Ibañez izan ziran Lekuko.

Aldunek Forua barriztatu ondoren, beronen eratzea egin ebela.

Aurrerago esaniko guztia eginda gero, Naja'ko Martin Saez'enean bertan, milla bosteun eta ogeitaseigarre-

Batzarraren Agiriak

neko Abuztuaren ogeigarrenean, aitaturiko Korrejidorea ta Foruaren barriztapena egiteko izendatu ziran Aldunak, Martin Ibañez eta Galartza'ko Pedro Otxoa Eskribau garanon eta beerago aitatuko diran Lekukoen aurrean batuta egozala, gorago aitaturiko Korrejidoreak eta Aldun Jaunek esan eben: Foru zaarra, ondoen eritxen modura aztertu ta barriztau ebela, alperrekoa zana kendurik eta Foruz eta usarioz zituen eta idatzi bagarik egozan beste gauza batzuk ezarririk eta idatziri k, eta Guri, aitaturiko Eskribauoi, guztia gomutagarri ezarrita, erakutsi ta irakurri eragin euskuen; eta Foru zaarretik artu ebenaz eta euren Foru ta oiturei burez barriro idatzi ebenaz, guztia eraz eta idazkera onez idatzi eta liburu barri bat egitea bearrezkoa zanez, eta eratze-lan au egitea, guztiak an izan ezkero, luzatu egingo litzatekenez, eta Bizkai'ko Jaurerriarentzat eta bertoko Bizilagunentzat eralgi bear aundia letorkelata, eralgi bear au kentzeko ta egoki idaztea aldi laburragoz eta aitaturiko Foruko Legeak azaltzea, idazkeraz eta eraz, obeto egin eiten, esan eben: Liburuaren egitea antxe bertan ziran Bizkai'ko Jaurerriko Letrau zan Burgoa'ko Martin Perez Batxillerraren eta Jaurerri bereko Sindiku zan Ibarguen'go Iñigo Urtiz'en ardurapean itxi bear ebela, eurei idatzi eragiñik, eta eginkizun au emon bere, Forua barriztatzeko aurretiaz zin eragiñez, eurei emon eutseen; oneek barriztatu ziran Foru zaarra ta barria batera aldean artu ta eurekaz eroan egiezan eta Gernika Uriko Antxiñako gure Andra Mari eritxan Elizan alkartu eitezan; eta Eliza aren barruan eurek barriztatu zituen Lege zaar eta barriez liburu barri bat egin egiela, Legeok atalka ta zatika banandurik eta Lege bakotxaren adiera idazkera on eta argiz garbi-garbi azaldurik; eta eurek onartu ta barriztatu eben Foruaren atalik edo Legerik, mamiñezko izan zeitekenetan zerbait erantsiz edo moztuz, aldatu barik liburua idatzi egiela, eta berau amaitu arte beste ezertako zeregiñik euren gain ez egiela artu; eta onelan liburua egin eta idatziz gero, leku onetara ekar

Batzarraren Agiriak

egiela, bai Foru zaarra eta baita eurek eratu ebena bere, aitaturiko Batxillerrak eta Iñigo Urtiz'ek idatzi ta eratu ebena, emondako aginduen arabera, Errejimentuko Jaunekaz batera eurek zuzendu ta onartu egien, eta Foruaren eratze-lan onegaitik Martin Perez Batxillerrak eta Iñigo Urtiz'ez izango eben saria zala-ta, bakotxari onenbestekoa ezarririk, aitaturiko Foruak emon eutseezan; eta aitaturiko Burgoa'ko Martin Perez Batxillerrak eta Iñigo Urtiz'ek eginkizun au euren gain arturik, Foru zaarra ta barriztatu ziran Legeak aitaturiko liburua egiteko jaso zituen, agindu jakenez eta emoniko aginduaren arabera egin ondoren, liburu barri idatzia ekarri egien; eta au egiñez gero, aitaturiko liburua egin eiten artean, Korrejidoreak Batzarra amaitu eban eta barriztatzailleei euren etxera joateko agindu eutsen; antxe egozan Renteria'ko San Joan, Gerra'ko Otxoa Urtiz eta Irazabal'go Joan Perez izan ziran Lekuko.

Aldun guztiek eta Korrejidoreak Forua ikusi ebela ta onartua izateko bialdu ebela diñoan Agiria.

Gorago esandakoaren ondoren, Bilbo'ko Uri Nobletik at dagoan Naja'ko Martin Saez'en Etxe berean, Jesukristo gure Jauna jaio ezkero, milla bosteun eta ogeitaseigarreneko Abuztuaren ogeitabatgarrenean: Loaisa'ko Pedro Jiron Lizentzidun Jauna, Bizkai'ko Jaurerri onetako Korrejidorea bertan zala, Zarra'ko Martin Ibañez eta Galartza'ko Jaun Aundien eta Bizkai'ko Batzorde ta Errejimentuko Eskribau garanon aitzinean, aitaturiko Muxika'ko Diego Otxoa Lizentziduna eta Ugarte'ko Joan Saez eta Burgoa'ko Martin Perez eta Zirarruista'ko Ortun Santxez eta Ugarte'ko Lope Ibañez eta Belendiz'ko Martinez eta Belendiz'ko Otxoa Batxillerrak, eta Baraia'ko Pedro, Foru-Alkatea, eta Ibarguen'go Iñigo Urtiz eta Oinkina'ko Martin Saez eta Gerra'ko Otxoa Urtiz eta Luno'ko Pedro Martinez, zin eginda gero, Forua barriztatzeko deitu izan jaken Aldunak, eta Garita'ko Ortun Lopez Lizentziduna, Jaurerriko

Batzarraren Agiriak

Letraua, eta Susunaga'ko Ortun Santxez, Aldunak, eta Otaola'ko Lope Ibañez eta Goikolea'ko Frantzisko eta Puerto'ko Santxo Ortiz eta Numiaran'go Rodrigo Ibañez eta Urtubia'ko Lope Ibañez eta Biteri'ko Joan Urtiz eta Urkiza'ko Martin eta Basabil'go Pedro eta Agirre'ko Martin Urtiz, Bizkai'ko Jaurerriko Errejidorea, aitaturiko Korrejidore Jaunaren aurrean aurkeztu ziran; eta guztiak batera antxe zirala, aitaturiko Burgoa'ko Martin Perez Batxillerrak eta Ibarguen'go Iñigo Urtiz'ek Bizkai'ko Jaurerri onetako Forua dan eta aitaturiko barriztatzailleek idatzi ebena eurek biridatzirik eta aldaturik eta Iñigo Urtiz'ek bere letraz egiñiko liburu bat erakutsi ta agertu eben guztien begien aurrean, zaarretik alperrikakoa zana kendu eta oituraz eta usarioz ebena erantsita gero, Jainkoaren aurrean eta euren barruan ondoen eritxen erara egiña; beerago ezarriko dan auxe da liburu au; baita Korrejidore Jaunak emon eban Foru zaarra ta barriztatzailleek barriztatuz idatzi ebena bere, Korrejidoreak eta gorago aitaturikoek, orretarakoxe egozan batuta-eta, Batzarre Nagusian emoniko Aalmenaren arabera, bai bata ta bai bestea ikusi ta aztertu egiezan, euren eretxiz kendu bearrekoa kendurik eta ezarri bearrekoa ezarririk; eta gero Korrejidore Jaunaren eta gorago aitaturikoen aginduz, Guk, Eskribauok, Foruaren eta oituren barriztatzearen inguruan egin eta idatzi izan zan guztia euren aurrean irakurri genduan, baita Foru zaarreko Legeak bere, Foru barriztatu eta Foru zaarreko atal eta Lege guztiak banan-banan eta guztien artean azterturik; guztiguztiak bat egiñik, esan eben: Barriro egin zan aitaturiko Forua ondo egoala, eta Bizkai'ko Lege Berezi, Erri-Eskubide, Foru ta oituren arabera idatzia izan zala; eta barriztatu zan Foru au Geuk, aitaturiko Eskribauok, garbiratu gengiala, eta geure Silluaz eta Bizkai'ko Silluaz sillatuz gero, eurek izendatuko zituen Ordelariei emon gengioela, Jaun Aundiak onartu ondoren, ekar egien, eta Forutzat eta Legetzat artu eitela, eta Guri, Eskribauoi, Agiri au izkribuz ezarri gengiala

Batzarraren Agiriak

agindu euskuen, eta Agiri onen urrengo, Foru barriztatu au idatzi gengiala; antxe egozan Zarate'ko Joan, Bizkai'ko Prestamerua, eta Mugaguren'go Lope Ibañez Eskribaua eta Zamarripa'ko Diego izan ziran Lekuko.

LEENENGO ATALA, BIZKAI'KO LEGE bereziak.

I Legea. Bizkai'ko jaunak, oiñordeko edo ondorengo dala, Jaurerria bereganatzen dauanean, zin egitera etorri bear.

Leenengo esan eben: Bizkaitarrek Lege Bereziz eta Foruz eta usarioz eta oituraz ebela, Bizkai'ko Jaun barri bakotxak, naiz aurreko Jauna illik dalata, naiz beste edozein bideren batez Jaurerriaren jarraipena eskuratzean, adiñez amalau urtekoa baldin bada, Bizkai'ra berbera etorriaz, bere ziñak eta agintzak barriztau egin bear dituala, Lege Berezi ta usario ta oiturak, frankeza ta Erri-Eskubide ta Foru ta lurrak eta beragandik dituen mesedeak onarturik, Bizkaitarrek ori eragiten dautsoela. Eta Bizkaitarrek ori eskatu ezkero, aitaturiko onartzea ta ziña egiteko urte-barruan etorriko ez balitz, aitaturiko Bizkaitarrek, naiz Lurralde Lauan naiz Uri ta Enkartalde ta Durangaldean bizi, ez dagioela erantzun, ez urte-saripeko diran Uri ta baserrietako artuenik eta urte-saririk eroatera Jaunagana joan, ezta aren Diruzain eta Batzailleagana bere. Eta Jaun onek agindurik eta betebearrik bitartean bidal badagi, *men egin, baiña ez beite bete.* Bizkai'ko Jaunak dituan oletako Errege-Txartelen sariak, ostera, zin egitera etorri zein ez etorri, orrelakoak izan dagizala; urte-saririk eta artuenik, barriz, onartu ta zin egitera

Leenengo Atala

etorteko eska badakio, ez dagiala ezer bere artu, arik eta etorri, onartu ta zin egin arte. Eta Jaun au amalau urtez beerakoa izango balitz, olakoan, beraren Gortea dan lekuan bertan, edozein lekutan dala, berak eta beraren Arduradunek aitaturiko Lege Berezi ta frankeza ta Bizkai'ko Forua, zin egiñik, onartu egin bear dituela. Eta gero, amalau urtera el daitenean, Bizkai'ra etorri bear dauala, gorago esan danez, onartu ta zin egiteko.

II Legea. Bizkai'ko jaunak zein lekutan eta zertaz zin egin bear dauan.

Baita, esan eben: Foruz ebela, Jaun Aundiak, Bizkai'ra etorririk eta Bilbo Uriaundiko ateetan bertako Errejimentuaren eskuetan zin egiñik, auxe agindu bear ebela: Bizkai'ko Errege ta Jaun danez, bertoko Lurralde Laua ta Uriak eta bertoko Uriaundia ta Durangaldea ta Enkartaldea gordeko dituala, baita bertoko bizilagunak eta eurotariko bakotxaren lege berezi, frankeza eta erri-eskubide guztiak, Foru ta usario ta oitura ta lurrak eta beragandik dituen mesedeak bere, aurretiko aldietan izan zituenez eta gorde izan ziranez. Eta andik Larrabetzu'ko San Meterio Zeledon'era etorririk, Abade dan Elizgizonek Jaungoiko gure jaun sagaratuaren Gorputza eskuetan dauala, zin bera egin bear duala: aurretiko aldietan orain arte izan dituen frankeza ta erri-eskubide guztiak, Foru ta usario ta oiturak, eta, Bizkai'ko Jaun eta Errege izan ziranez, bere Aita Erregerengandik eta beste Erregerengandik arturiko lur eta bizilekuak zintzoro ta egitan gorde ta eukiko dituala, euki ta erabilli izan zituenez; eta Bizkaitarrei ta Enkartaldeko ta Durangaldekoei, Zaldun, Eskutari, Aitonen semeei eukiazo ta gorde eragingo dautsela. Eta andik Gernika'rantz datorrela, Bizkaitarrek, Aretxalaga gaiñean arrera egiñaz, eskuan mun egin bear dautsoela, euren Jaun eta Errege da-ta. Eta Gernika'ra etorririk, bertako Zugazpean, Bizkai'ko Batzarrak egin oi diran lekuan, Bizkaitarrek

Leenengo Atala

dituen erri-eskubide, lege berezi ta frankeza ta Foru ta usario ta oitura guztiak, zin egiñik, onartu egin bear dituala, baita aurretiko Errege ta Jaunengandik dituen lur eta mesedeak bere zaindu ta euki ta zaindu eragin eta eukiazo egingo dituala. Eta andik Bermeo'ko Urira joan bear dauala, eta Uri aretako Santa Eufemia'n, Abade dan Elizgizonek, eliz-jantziz jantzita, Jainko Sagaratuaren Gorputza eskuetan dauala, eliza aretako altara gaiñean eskua ipiñiaz, zin bera egin bear dauala: Lurralde Lauko, Uri ta Uriaundi ta Enkartalde ta Durangaldeko Bizkaitarrek dituen erri-eskubide ta frankeza ta lege berezi ta usario ta oitura guztiak, orain arte izan eta orain dituenez, zintzoro ta egitan gordeko dituala ta gordearazo bere egingo dituala.

III Legea. Korrejidoreak eta Ikuslariak eta beste kargudunek, Bizkai'ko Jauna zin egitera etorri arte, euren karguetan iraun dagiela.

Baita, esan eben: Foruz eta usarioz eta oituraz ebela, esaniko ziña ta onartzea egitera Bizkai'ko Jauna etorri zein ez etorri, Bizkai'ko Korrejidore ta Ikuslariak, Prestameru ta Alkate ta Merinuek eta oneen Leku-Ordezkariek euren karguetan iraun dagiela, Bizkai'ko Jaunak, zin egitera ta onartzera etorriaz, karguok bidez eta arrazoiz kendu bearrekoak dirala-ta, bere serbitzuari dagokion erabagia artu arte.

IV Legea. Bizkai'ko Jaunak dituan sari ta errentak, eta bizkaitarrek ez dabela beste eskabiderik, ez zergarik.

Baita, esan eben: Legez eta Foruz Bizkai'ko Jaunek etxe ta baserri batzuetan urtean onenbesteko errenta ta urte-saria beti izan dabela, baita Bizkai'ko Urietan

Leenengo Atala

bere, eurengandik dituen lege berezien arauz; Bizkai' ko ta Enkartalde ta Durangaldeko oletan, ostera, lantzen dan burdin kintal bakotxeko amasei diru zaar; eta Uri aretako Monastegi ta Prebostegietan bere bai. Eta beste eskabiderik ez dabela iñoiz euki, ez arielik, ez bidasaririk, ez martinzergarik, ez dirurik, ez portu leorretako saririk, ez serbitzurik. Bizkaitar guztiak eta Bizkai'ko ta Enkartalde ta Durangaldeko Aitonen semeak beti izan dirala euren eskuko, kitu ta zergabagako, eta orain bere badira, eskabiderik, morrontzarik, dirurik, bidasiririk eta izan leiteken beste edozein eratako betekizunik izan barik, zein Bizkaia'n eta Enkartaldean eta Durangaldean izan zein erbestean izan.

V Legea. Bizkaitarrek, Bizkai'ko Jaunak dei egin ezkero, soldadutzara joan bear dabela, eta soldata zein kasutan emon bear jaken.

Baita, esan eben: Foruz eta Legez ebela, aitaturiko Konderri ta Jaurerriko Zaldun, Eskutari ta Aitonen semeak, Lurralde Lauan eta Urietan eta Uriaundian ziran guztiak eta arei loturikoak, Bizkai'ko Jaunak soldadutzarako dei egiten eutsen bakotxean, usarioa zanez eta oi ebenez, beti doan joan izan zirala, baiña Lujaondo'ko **Malato Zugatzaraiño bakarrik.** Leku a baiño arantzago joateko Jaunak agindu badagioe, barriz, Jaun berak illabete biko soldata ordaindu eragin bear dautsela, mendiz onantz izan ezkero; mendiz arantz izan ezkero, ostera, iru illabetekoa; eta onantxe soldata artuaz, aitaturiko Zaldun eta Eskutari ta Aitonen Semeak, usarioa zanez, euren Jaunei laguntzera joan oi zirala, edozein lekutara bialtzen zituala; esaniko lekuan soldatarik emon ezik, baiña, aitaturiko Malato Zugatza baiño arago joateko usariorik eta oiturarik ez ebela iñoiz izan; ta aske izate ta erri-eskubide au Bizkai'ko Jaunek beti gorde izan ebela.

Bizkai'ko Lege Bereziak

VI Legea. Lur eta mesede ta karguak semez bertoko diranei Jaun Aundiak emon dagioezala, eta itxasoko lantzari ta baleztari-mesedeak, utsik diranean, legezko seme nagusiei emon bear jakezala.

BAita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz eta Bizkai'ko Jaun izan ziran Gaztela'ko Erregeek beti gorde ta onartu ta gordeazoriko lege bereziz ebela, Jaun Aundiak Bizkai'ko lur eta mesede ta Monastegi ta Kargu guztiak semez Bizkai'ko ta Enkartalde ta Durango Merinaldeko ta bertoko erritar diran zaldun eta Eskutari ta Aitonen semeei emon dagioezala, eurei mesede egiñik; eta bat edo bat il egin dala-ta, utsik geldi badadi, lur eta mesede ta Monastegi ta Karguok semez Jaurerritarra dan beste bati emon dagiozala mesedetzat, eta ez beste iñori, eta usarioa onantxe gorde izan zanez, aurrerantzean bere usario ori onantxe gorde daitela; eta lantzari ta baleztari-mesedeak diralata, Jaunak itxasoan eta leorrean dituen lege bereziak bete dagizala; eta aita il egin dalako, utsik gelditu badadi, aitak zituan itxaso ta leorreko lantzari ta baleztari-mesedean jarraipena legezko seme nagusiarentzat izan beite, ta aitak zituan itxaso ta leorreko lantzari ta baleztari-mesedeak aitaturiko seme nagusiari emon dakiozala, ta besteri ez; eta legezko seme nagusirik izan ezik, Jaurerri ta Konderritarra izanik, bertoko bizilagun dan bati, Jaunak nori nai ta arixe, eta ez Jaurerri ta Konderritarra ez dan erbesteko bati, mesedetako Errege-Txartel batek dakarrenez. Errege-Txartel au urrengo dator.



VII Legea. Beroni buruz errege-txartela.

NEUK ERREGE ONEK. Zuoi, neure Kontari Nagusioi, aditzera damotsuet nire Konderria dan Bizkai'ko ta Enkartaldeko Zaldunek, Eskutariek eta nire menpeko diran beste batzuek, leo-

Leenengo Atala

rreko ta itxasoko lantzaritzarako ta baleztaritzarako Bizkai'ko Konderriko Dirutegitik neuk emonda maraiak dituenek jakitun egin ninduen, nire aurretiko Erregeen eta neuk ontzat emoniko Lege ta Erri-Arauen arabera, nire menpekoren bat il egin dala-ta, aitaturiko ta neuk emondako edozein lur utsik dan bakotxean, ildako onek ezkontzako seme nagusirik itxi badagi, nire aurretiko Erregeek eta NEUK bere bai, ezkontzako seme nagusi oni beronen aitak zituan lurrak emon izan dautsaguzala, eta usarioz bete izan diran Lege ta Erri-Arauok gordetzen diralarik, esaniko neure Kontari Nagusiei neure Errege-Txartel au emoteko agindu nengiala mesedetzat eskatu eben: oneetariko lurren bat utsik dan bakotxean, nire menpekoen ezkontzako seme nagusiei emon dakiela, ta beste iñori ez, oni mesedetzat emonda izan arren bere, emote au Bizkai'ko Dirutegiko nire liburuetan ezarten dala ta ezarteko agintzen dautsuedala, eta NIK au onartu egin neban. Orregaitik, Bizkai'ko nire Konderrian aitaturiko nire menpekoen edozein lur utsik danean, menpeko onek ezkontzako seme nagusirik itxi badagi, seme nagusi oni emongo dautsadazan Eskutitz eta Errege-Txartelak Bizkai'ko nire Dirutegiko liburu ta lur-ordaiñetan ezarri daitezala agintzen dautsuet; eta Neuk, oker eginda, lurrok mesedez beste edonori emon badagiodaz, Eskutitz eta Errege-Txartelak berari emonaz, Eskutitz eta Errege-Txartelok guzurrezkotzat eta iruzurrezkotzat izan beitez, indarrik ez dabeta; eta Errege-Txartel onen bir-aldakia, Erri-Eskribauk izenpetua, nire liburuetan ipiñi ta ezarri dagizuela zuoi agintzen dautsuet, gaiñean nire Errege-Txartel au idatzirik, eta Bizkai'ko nire menpekoei emon eta bidal dagioezuela, eurek gorde dagien, eta ez egizue aurkarik egin; Jesukristo jaio ezkero, milla laureun eta berrogei ta amazortzigarreneko apirillaren amairugarrenean. NEUK ERREGE ONEK. Neuk Ziudad Real'go Albar Gomez'ek, Geure Errege Jaunaren Idazkari onek aren aginduz idatzerazo neban; eta

Bizkai'ko Lege Bereziak

Errege-Txartelaren atze aldean onoko au dago idatzirik. Ezarririk. Gure Errege Jaunaren Txartel au berak daukazan lurretako liburuetan ezarri zan: aren Kontari Nagusi ta aren Batzarreko dan Abila'ko Diego Arias'en ordez Rodrigo del Rio'k; Gure Errege Jaunaren Txartel au berak daukazan lurretako liburuetan ezarri zan, Kontari Nagusi dan Bibero'ko Joan'en eta Batzarreko dan Balladolid'go Pedro'ren ordez Madril'go Alfonso Diaz'ek.

VIII Legea. Bizkai'ko Jaunak uria egiteko zein eratan agindu daiken.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela, mendi, usa ta erri-baso guztiak Bizkai'ko Aitonen semeenak eta errienak diranez, Jaunak ezin daikela Uririk egin, ezta egiteko agindu bere, eta Uri oni ezin daikeola mugarrik ezarri Aitonen semeen eta errietakoen muga barruan izan ezik. Orregaitik Gernika'ko Batzarrean eta Bizkaitar guztiak onartuz izan ezik, Bizkai'ko Jaunak ezin daikela Bizkaia'n Uririk egiteko agindu.

IX Legea. Bizkaia'n ez dala Almiranterik.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebenez, naiz Bizkai'ko Lurralde Lauan naiz bertoko Urietan eta Enkartalde ta Durangaldean ez Almiranterik, ez aren Ordezkaririk ez izateko eskubidea dabela, orretan aske izanik; eta ez daukela aren deiei erantzun bearrik, ez itxasoz, ez leorrez, eta ari saririk ez beste ezer emon bearrik edozergaitik bere ez dabela, ezta euren ontziekaz itxasoan edo leorrean zerbait artu arren bere; eta au usarioz eta oituraz, aspaldi-aspaldidanik, besterik gogoan iñork bere ez daukala.

Leenengo Atala

X Legea. Bizkaitarrek euren etxeetan sal-erosteko ta saleroskiak artzeko aukera izan dagiela.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz eta erri-eskubidez ebela, aitaturiko Bizkaitarrak Aitonen seme diranez, euren etxeetan gura daben guztia erosi, saldu ta artzeko aukera izan dabela ta onantxe izan dagiela, orretan aske izanik, euna dala, burdiña dala naiz beste edozer dala, saldu ta erosi daitekena izan ezkero, orain arte beti izan diranez.

XI Legea. Erri-Eskubidearen aurkako errege-eskutitzik bete ez, baiña men egin.

Baita, esan eben: Foruz, eta Legez eta frankezaz eta erri-eskubidez ebela, Bizkai'ko Jaunak Bizkai'ko Legeen eta Foruen aurka emoniko edo emon eragiñiko Errege-Eskutitzik edo Erabagirik, edozertarikoa izanda bere, edo-ta Legeon eta Foruon aurkakoa izan badaiteke, zuzenka naiz zearka dala, ez daitela bete, baiña men egin bekio.

XII Legea. Tormenturik, ezta zemaika bere, ezin dakioke bizkaitarri ezarri.

Baita, esan eben: Foruz eta oituraz eta frankezaz eta erri-eskubidez ebela, edozelango lege-austea edo gaiztakeria dala-ta, erriarena naiz batena, aundia naiz txikia, edozein eratako txarkeria ta astuntasuna dauala, kargudun Epaikariak egintzaz ebatzi aal izatekoa izan naiz ez izan, bizkaitarri ezin dakiokela ezelango tormenturik ezarri, ezta zemaika bere, ez zuzenka, ez zearka, ez Bizkaia'n, ez beste iñongo lekutan.

XIII Legea. Jatorriz judutarra edo morotarra danik ez daitela Bizkaia'n bertokotu, eta bertora datozanak euren jatorriaren barri emon bear dabela.

Baita, esan eben: Bizkaitar guztiak Aitonen seme ta jatorri argi ta odol garbiko diranez, eta Jaun Aundiengandiko mesedea ta Errege-Erabagia dabenez, biurtu barri dan judutarrik eta morotarrik ezin daitekela

Bizkai'ko Lege Bereziak

Bizkai'n bizi ta egotez berton egon, ezta areen ondorengorik eta jatorrikorik bere, eta Errege-Erabagi au Foru onetan dator. Eta batzuren batzuk beste errege-erri ta jaurerrietatik, eta Portugal'dik eta beste urrunetako lekuetatik, edo Gaztela'ko errege-erri oneetatik etorri daitekezan ezkero; eta ez-ezagunak diralarik, eta zein jatorritakoak eta belaunalditakoak diran jakin barik, aitaturiko mesede ta Errege-Erabagiaren kaltetan azpikeriaz iruzur egin daiteken ezkero, eta onango iruzurbideak galerazoteko, esan eben: Legetzat eta Forutzat ezarri gura ebela, Bizkai'ko Lurralde Lauan eta Urietan eta Uriaundian, eta Enkartalde ta Durangaldean egotez egoteko ta bertokotzeko edonor etor badadi, Konderriko Korrejidore ta Ikuslariari edo aren Ordezkariari ta Konderri onetako beste Aldun biri bere jatorriaren eta belaunaldiaren bear-ainbat barri emon eragin dakiola; odol garbikoa dala ta judutarra ta morotarra ez dala, ezta oneen jatorrikoa bere, onantxe argitu ta aztertu daiten; eta argibideak emote ta aztertze au, bertokotzeko asmoz Bizkai'ratu ezkero, irurogei egunen buruan egin dagiala, zigor onenpean: argibideok emon eta agertu barik Bizkaia'n bertoko lez bizi izaten jarrai badagi, aitaturiko mesede ta erabagian datozan sei illabetez gaiñera, bertoko zigorrenpean jausi daitela, neke au bereganaturik. Aitaturiko erabagi au urrengo datorren auxe da.

XIV Legea. Biurtu barriei buruz errege-erabagia.

Doña Joana'k, Jainkoaren graziaz, Gaztela'ko, Leon'go, Granada'ko, Toledo'ko, Galizia'ko, Sebilla'ko, Kordoba'ko, Murzia'ko, Jaen'go, Algarbes'etako, Aljeziras'go, Jibraltar'go, Kanaria Ugarteetako ta Indias'ko, Itxas Aundiko Ugarte ta leorreko Erregiñak, Aragon'go, Sizilia bietako, Jerusalen'go Printxesak, etab., Austria'ko Artxidukesak, Borgoña ta Brabante'ko Dukesak, Flandes eta Tirol'go Kondesak, etab., Bizkai ta Molina'ko Andereak. Zuri, nire Korrejidore

Leenengo Atala

edo Zuribideko Epaikari zaran eta aurrerantzean izango zaran orri, eta Guztiz Noble ta Guztiz Leial dan Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriko Batzarrari, Ordelari ta oizko Alkate ta Aitonen Semeen Anaiartekoei, Osasuna ta Grazia. Gure Fede Santu Katoliku onetara biurturiko judutar eta morotar batzuk, Inkisiziñoaren bilduRrez eta aske ta Aitonen Seme dirala esanda, Gaztela'ko nire Erreiñu ta Jaurerri oneetatik Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriko Uriaundi, Uri ta leku batzuetan bizi izateko ta egotez bertan egoteko joan izan dirana ta joaten dirana jakitun egin nabela jakin egizue; eta oni artezbiderik emon ez badakio, Jainkoarentzat eta niretzat kaltegarri leitekezan oker batzuk geitu egin daitekez. Eta Konderri ta Jaurerri onek egin daustan ainbat eta ainbat serbitzu orain aintzat arturik eta ortik izen txarra datorkien ezkero, Bizkai'ko Konderri ta Jaurerri berorren ordez erregu egiñik, mesedez eskatu eusten: Kristau barri egiñiko morotarrik edo judutarrik edo oneen jatorrikoa dan iñor ezin daitekela Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriko iñongo Uriaunditan, Uritan eta lekutan bertakotu, ezta areen muga barruan bere; eta batzuren batzuk bertakotu izan balitzaz, urten eragin nengioela edo, mesede egiñik, neuri legokidana erabagi nengiala. Eta NIK esaniko au ontzat arturik eta aunditu daitekezan galbide ta okerbideak galazoteko, eta Jainkoaren eta nire serbitzuak eta Inkisiziñoko Auzitegi Santuaren izen onak orixe eskatzen dauala ikusirik, onartu egin neban. Au dala-ta, nire Eskutitz onen bidez edo Erri-Eskribauk izenpeturiko beronen bir-izkribuz, zuri Korrejidore edo Zuribideko Epaikari orri ta Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriko Batzarrari, Aldun eta Alkateei, eta bakotxaren leku ta aginte-barrutian zuetariko edonori agintzen dautsuet, Eskutitz onen bidez eskatu badakizue, Gure Fede Santu Katoliku onetara biurtu diran judutar eta morotarrei, Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriko edozein Uriaunditan, Uritan eta lekutan, bertakoturik, egotez legokezan eta bizi leitekezan guztiei, edonor dala, nire Eskutitz au

Bizkai'ko Lege Bereziak

iragarrita leenengo sei illabeteren buruan leku areetatik eta areen mugetatik joan eragin eta urten eragin dagioezuela, eta aurrerantzean ezin daitekezala leku areetan bertakoturik egotez bizi izan, ondasunak eta pertsonak zigorrez neure menpeko izan ez daitezan; eta Konderri ta Jaurerriko plaza ta merkatuetan eta oizko beste lekuetan iragarri eragin dagizuela, guztiek jakin dagien eta iñork bere jakin-eza aitzakiatzat ekar ez dagian; eta nire Eskutitz onek dakarrena bete ta egin dagizuela, eukiazo, egiñazo ta bete-azo bere egiten dozuela; eta ez orain eta ez gero iñork ez dagizala areek zaindu ta babespetu, eta zaintze ta babespetze au ez dagizuela ontzat artu, ezta orretarako biderik emon bere, zeuok neure aldetik ezarriko dautsazuezan zigorren nekepean, Eskutitz onen bitartez zigorrok NEUK ezarten dautsedaz eta, ezarririkotzat daukadazeta; eta areetariko iñor edo beste edonor nire Eskutitz onek dakarrenaren edo beronen erabagiren edo zatiren baten aurka egiñez etorriko balitz, aitaturiko zigorrok berarengan bete eragin dagizuezala, eta au egin, bete ta burutu dagizuen, aalmen bete-betea damotsuet, aalmen au ez-ustez eta loturaz eta jazoeraz eta aldamenetan erantsiz letorkezan ataletara luzatzen dala; eta ez batzuek eta ez bestetzuek ez egizue aurkarik egin, nire grazia galtzearen eta nire Errege-Dirutegirako litzatekezan amar milla marairen zigorpean. Burgos'en emona, Jesukristo gure Jauna jaio ezkero, milla bosteun eta amaikagarreneko iraillaren zortzigarrenean. NEUK ERREGE ONEK. Neuk Kalzena'ko Joan Ruiz'ek, Erregiña gure Anderaren Idazkari nazan onek aren Aita Errege Jaunaren aginduz idatzi eragin neban. Majister eta Proto-Notarius Petrus-Doktor. Ezarririk, Trinales'ko Joan'ek. Kastañeda'k. Kastañeda'k.

XV Legea. Berau dala-ta.

Baita, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik eta Legetzat eta Forutzat ezarririk, gorago aitaturiko

Leenengo Atala

Errege-Erabagi ori Jainkoaren eta Erregeen serbitzurako ta esaniko Konderritarren eta bertoko bizilagunen zuzenbide ta nasaibiderako bearrezko danez, oso-osorik eta edozergaitik bere bete daitela. Eta Errege-Erabagi au gorabeera, biurtu barri diranetakoren batek edo batzuek edo oneen seme edo billobaren batek, Konderrian egoteko ta bizi izateko, Erregeengandik Txartel edo Mesederen bat beretzat lortzeko bideak ausaz egingo baleuz, ori Jainkoari ta Jaun Aundiei serbitzua ukatzea ta Bizkaitarrentzat gaitz ta kaltebide aundia izango litzateke. Eta oker au galazoteko, agintzen ebela, onantxe agindurik eta Legetzat ezarririk, aitaturikoren batek orrelako Txartelik edo Erabagirik beretzako ekarrita baleuko edo ekarri ta agertuko baleu, men egiñik, ez beite bete, eta onelango Txartela gorabeera, aitaturiko Erabagi a gorde ta bete daitela. Eta Konderriko Sindikuak Txartelaren eskabidea ta orretarako bear dan guztia Konderriaren pentzutan egin dagiala; eta Sindiku oni edo izango diranei berarizko agindua ta aalmena emoten eutseezala, ta, emon bere, emon eutseezala, aitaturiko Erabagi ta Erabidea ardura aundiz eskatu dagien eta gordetzen ete iraunazoten alegindu daitezan.

XVI Legea. Bizkaitarrek Bizkai'tik at euren aundikitasuna euki egin bear dabela, eta orretarako ekarri bear dituen egiztabideak.

Baita, esan eben: Aitaturiko Bizkai'ko Jaurerri guztian, Lurralde Lau, Uri, Uriaundi, Enkartalde ta Durangaldean, izatez bertokoak diralarik, bizi diran Bizkaitar eta bizilagun guztiak agiriko Aitonen Seme zirala eta Aitonen Semeei dagokiezan Lege Berezi guztiak zituela; lurraldea, barriz, arpela ta estu-txikia danez eta bertoko jendetza geitu ta geitu egiten danez, izatez Bizkai'ko Jaurerritar izanda, berton bizi diranen seme-alabarik asko, ezkonduta, Bizkai'tik kanpora Gaztela'ko lurraldeetara ta beste lekuetara bizi izateko joaten zirala, antxe bertakoturik eta oizko

Bizkai'ko Lege Bereziak

bizilekua antxe izanik; eta bizi ziran lekuetan petxu ta zerga ta beste eginkizun batzuk ezarten eutseezala, Aitonen Seme diranek emon bearrik ez eukezanak; eta batzuk ez-eukiak ziralako eta beste batzuk, Bizkai'tik bidaldi luzea ebelarik, urruneko erriren baten bertako lez bizi ziralako, eta beste batzuetan, euren aundiki izatea agertu gura ebenean, Bizkai'ko Jaurerritik aspaldian urten ebenez, senideek ezagutzen ez zituelako; onelango ta onelatsuko zioak zirala-ta, egiztagarriak ekartea gatx egin eta ezin izaten ebenez, zergapeko izaten jarraitzen ebela, euren antxiñako jatorri argiari egokion Erri-Eskubiderik euki baga; eta onango bidebageak eta ortik etorkiezan beste okerrak uxatzeko, Bizkaitarrak eta oneen seme-alaba ta menpekoak, Espainia'ko Foruaren arabera, Aitonen Seme, Lege Berezidun eta zergabagako diran ezkero, euren agiriko jatorri argiak eskatzen ebeñez eta orain bere badabenez eta orain arte izan ebenez, Lege Berezitzat eta frankezatzat onoko au emoteko Jaun Aundiari erreguz eskatzen eutsoela: izatez Bizkaitarra edo onen menpekoa dan edonor, Bizkai'ko lurraldetik kanpora, Espainia'ko erreiñuetako edozein lekutan eta eskualdetan ezkonduta edo bertakotuta bizi izan ezkero, izatez Bizkaitarra edo Bizkaitarra izan zanaren seme-alaba dala, au da, aren aita edo aitaren aita semez Bizkai'ko Jaurerritarra izan zala, eta, errian diñoenez, aren aitaren aldeko aurretikoak Bizkaitarrak izan zirala eta guztiek Bizkaitartzat izan zituela agertu ezkero, aundikitasuna onar dakiola, eta berari dagokiozan lege berezi, frankeza ta erri-eskubideak gorde dakiozala, Aitonen Seme danari, Espainia'ko Foruaren arabera, osorik gorde bear jakozanez, erreiñu oneetako lege ta aginduen arauz bearrezko dan beste eskakizunik ez egiztatu arren.

XVII Legea. Miagairik ez daitela erbesteko erreñuetarako atara.

Baita, esan eben: Foruz, frankezaz eta erri-eskubidez ebela eta Legetzat ezarten ebela, semez Bizkai'ko Jau-

Leenengo Atala

rerrikoa edo Espainia'ko edozein erreiñutakoa izan zein ez izan, zein beste edozein erbestetakoa izan, erbesteko erreiñuren batean burdiña ta galtzairua lantzeko miagairik edo beste metalkirik ezin daikela iñork atara, zigor onenpean, atara dagian edonork bere ondasunen erdia gal dagiala eta erreiñu oneetatik betirako erbesteratua izan daitela, eta orretarako erabilli dauan itxas-ontzia eta beste edozer eta bertan eroazan saleroskiak bere gal dagizala, eta guzti onen eta ondasunen irutatik bat Jaurerri onetako bideak konpontzeko izan beite, bigarrena salatariarentzat eta irugarrena bete-eragille izan dan Justizigiñarentzat.

XVIII Legea. Lege bereziak eta izkribuak eta sillua zein zaintzaillek jagon bear dituan.

Baita, esan eben: Forutzat eta Legetzat ezarri nai ebela, aitaturiko Konderri ta Jaurerriak Jaun Aundiengandik dituan mesede, lege berezi, frankeza ta erri-eskubide guztiak, baita arazo oni buruz dituan Errege-Erabagi ta izkribuak bere, leen-izkribuak izan ezkero, Konderriko kutxan gorde daitezala, kutxa au leenidatziriko ta izenpeturiko Foru onegaz batera Gernika'n, Antxiñako Andra Mariren eliza deritxanean gordetzen dala, obeto gordeta egon daitezan: birizkribuak izan baleitez, barriz, izenpetu ta legezkotuz gero, Konderri bereko kutxan gorde daitezala, kutxa au Konderriko Korrejidorea egotez dagoan edo egongo dan lekuan dagoala; eta kutxa bakotxeko iru giltza izan daitezala, eta Bizkai'ko Korrejidoreak eta Aldunek kutxa bakotxeko giltza bana izan dagiela; eta sillua Gernika'ko kutxan gorde daitela; eta Konderriarentzat mesedegarri ta onuragarri litzateken edozein eskutitz sillatzeko Aldun biek eta Sindiku biek giltza eskatu dagien bakotxean, Korrejidoreak ogeitalau orduren barruan emon dagiala, sillua kutxatik atara dagien: eta Korrejidoreak giltza emon baga ogeitalau orduok igaro badaitez, aitaturiko Aldun biek sarrailla kendu eta sillua arturik, ezertariko zigorrik irabazi baga eskutitzak sillatu dai-

Bizkai'ko Lege Bereziak

keezala.

XIX Legea. Edozein itune ta lege-auste izan arren bere, Bizkaitarrik ezin daitekela Bizkai'tik kanpora iñongo epaikarirengana auzitan eroan, Epaikari Nagusiagana izan ezik; eta Epaikari Nagusiari bidal dakiozala, epaikarien eskumendea alde batera itxirik.

Baita, esan eben: Jaun Aundiek eta oneen aitaleenek mesedez emonda, frankezatzat eta erri-eskubidetzat ebela, bizkaitarrek euren Epaikari Nagusia Balladolid'go Gorte eta Auzitegi Nagusian ebenez gero, Epaikari onek erri-auzi ta zigor-auzi guztiak ebazten ditualarik, Bizkai'koa dan Bizkaitarrik, zein Lurralde Lau, Uri ta Uriaundikoa zein Enkartalde ta Durangaldekoa izan, edozein lege-auste, edo alatsu, ta edozein zor dala-ta bere, Jaun Aundien Zigor-Alkateek edo beste Epaikarik, erreiñu ta Jaurerri onetakoak izango balira bere, ezin daikeela auzitan eurengana eroan, ezta epaitu bere, aitaturiko Bizkai'ko Epaikari Nagusiak izan ezik, legeausteok eta zorrok Bizkai'tik kanpora Gaztela'ko edozein lekutan egiñak izan arren; eta eroan eta atxillotuko baiebez, barriz, Epaikari Nagusiari Leen-bait-leen bidal dakiozala, bialtze au aurretiaz eskaturik eta eskumendea alde batera itxirik.

XX Legea. Bizkai'ko epai-lekuaz.

Baita, esan eben: Jaun Aundiek eta oneen aitaleenek emoniko Errege-Erabagien arabera, Bizkaitarrek mesedez, frankezaz eta erri-eskubidez ebenez, Bizkaitarrei Balladolid'go Errege-Auzitegian eta bertan daukezan Auzi-buru ta Oidoreen aurrean, euren auziketak antxe aztertzen eta ebazten dira-ta, astean-astean egun batez eta eguenez, batez bere, Epai-lekua izendatu dakiela, euren auziketak garbitzeko; eta batzuetan egun ori jaiegun izaten danez gero, urrengo egunez ez jake emoten. Eta jai-egun izan ez arren bere, Epai-leku aretan asitako auziketa ta auzibide batzuk aztertu barik geldi-

Bizkai'ko Lege Bereziak

tzen dira, eta urrengo egunez ez dabe jarraitzen, ez aztertzen: au Bizkaitarren kaltez eta esaniko Errege-Erabagien eta Mesedearen aurka izanik. Orregaitik, Jaun Aundiei eskatuz, Forutzat eta Legetzat ezarri nai ebela, Bizkaitarrei asteanastean egun batez, eta eguenez, batez bere, euren auziketak ebazteko Epai-lekua izendatu dakiela, eta egun au jai-egun izan badadi, eta eziñen bat ager badadi, urrengo barikua izendatu dakiela. Eta esaniko egun orretan aztertzen asi dan auziren bat amaitzeke gelditzen bada, legebidezko litzatekezan urrengo egunetan amaitu arte aztertzen ekin dagiela, eta urrengo eguna legebidezkoa ez baldin bada, urrengo egunez. Eta lege onen aurka emona izan dan edo emondo litzateken Txartelek ezin daikela lege onen ondorioa deuseztu.

BIGARREN ATALA, KONDERRI TA JAUrerriko Epaikari ta Kargudunak, eta oneen lansariak eta Epaikari Aztertzailleak dirala-ta.

I Legea. Justizigiñak Jaun Aundiak izendatu bear dituala.

Leenengo esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela, Bizkai'ko konderri ta Jaurerriko ta Enkartalde ta Durangaldeko Justizigin guztiak Jaun Aundienak izan daitezala, Bizkai'ko Errege ta Jaun dira-ta. Eta Korrejidorea ta Ikuslaria ta Prestamerua ta Alkate ta Merinuak Jaun Aundiak izendatu dagizala eta ez bestek.

II Legea. Korrejidore nor izango dan, eta ordezkari nortzuk izendatu daikezan, eta epaitzeko ze eskubide daukan.

Baita, esan eben: Foruz eta usarioz eta antxiñako oituraz ebenez, Jaun Aundiak Konderri ta Jaurerrirako eta Enkartalde ta Durangalderako Korrejidore ta Ikuslari bat izendatu dagiala; berau Letrau izan bedi, Maisu edo Lizentzidun, eta jatorriz Zaldun edo Aitonen Seme ta odol garbiko. Eta Korre-

Epaikari ta Kargudunak

jidore onek egotez Gernika'n egongo dan Ordezkari Nagusi bat izendatu dagiala, eta Enkartaldean beste bat eta Durango'ko Merinaldean beste bat, eta bere aginte-barrutian ezin daikela beste Ordezkaririk izendatu, eta ez Enkartaldeko Ordezkariak, ezta Durango'ko Merinaldekoak bere, ez dagiela Bizkaia'n euren Auzi-barrutietatik landa eskumenderik izan: egotez Gernika'n dagoan Ordezkari Nagusiak, baiña, Durango'ko Merinaldean aurki daitenean, zein Durango'n zein Konderriko beste Urietan eta Uriaundian eskumendea ta epaitzeko eskubidea izan eta Aginte-makilla eroan daikela, eta aitaturiko Uri ta Uriaundi-barruan egon arren bere, Bizkai'ko Auzibide ta ebazkizun guztiak epaitzeko eskubidea izan daikela, oizko Alkateek eta Alkate Nagusi dan Korrejidoreak dituen Urietako Auzibide ta ebazkizunak izan ezik. Korrejidoreak, alan bere, norbaiti azterraldiren bat egitea eta berarizko auzibideren bat ebaztea zuzenbidez erabagi badagi, Ordezkariak izan arren, egin daikela.

III Legea. Foru-alkateei buruz.

Baita, esan eben: Bizkaia'n Foruz eta usarioz eta oituraz ebela, Jaun Aundiak ipiñiriko bost Foru-Alkate izan daitezala Bizkaia'n, eta erriauzi ta diru-auziak epaitzeko eskubidea izan dagiela. Foru-Alkateok eskualde ta merinalde oneetan soillik izan beitez: Zornotza'ko ta Busturia'ko merinaldeetan iru Alkate; eta Uribe ta Arratia ta Bedia'ko merinaldeetan Alkate bi; eta ogasundun eta zintzoak izan daitezala, bakotxa bere aginte-barrutian eta merinaldean bizi dalarik, eta Uribe ta Arratia ta Bedia'ko Alkate biek ezin daikeela beste merinaldeetan epaitu, eta eskumenderik ez dagiela izan, ezta Busturi'ko ta Zornotza'ko iru Alkateek bere beste merinaldeetan.

IV Legea. Leorreko alkateen eskumendeaz.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebenez, Uribe, Arratia ta Zornotza'ko

Bigarren Atala

merinaldeetan eta beste leku, elizate ta merinaldeetan leorreko Alkate batzuk badirala, eta Alkateok diru zaarreko berrogeitazortzi marai arteraiñoko eskua dabela, orain dabilkigun dirutan larogeitamasei arterañokoa. Orregaitik, aitaturiko lekuetan izango diran Alkateek dirutza orren neurriraiño epaitzeko eskumendea izan dagiela, eta ez geiagorik, Errege-eskumendea eurenganatuz eurek euretara epaitzen daben pertsonen aurka Legeek dakarren zigorrarenpean.

V Legea. Oletaz eta oneen eskumendeaz.

Baita, esan eben: Oletako Alkateak Bizkaia'n badirala, eta Alkateok oletako errementarien eta olaotan lantzen daben besolangilleen artean sortzen diran auzibideak aztertu ta epaitzeko eskubidea izan oi dabela. Alkateok, baiña, Alkate dirala-ta, olei ta oletako arragoei dagokienetatik urtenda, beste pertsona ta arazo batzuetan agintea erabilli eta eurek erabagiten dituen bete-eragipenak egiteko agindua bere emon oi dabenez, eta, okerrago dana, areetariko batzuek Justizi-makilla ekarten ausartzen diranez, au oizko Errege-eskumendearen kaltetan dalarik, esan eben: Legetzat izan nai ebela ta atakotzat ezarten, ez aitaturiko Alkateok, ezta oneetariko batek bere, ez dagiela Justizi-makillarik ekarri, ez bete-eragiteko agindurik emon, ez beste edozein eratako auzibiderik epaitzeko eskubiderik izan, olei ta oletako arragoei dagokiezan arazoak izanik, olaotako mazukari ta beargin eta beso-langille ta alogatzaille ta ola -jaunen artean sortu oi diran gorabeerak baiño, eta olaz kanpo baledi, ogei lepokada ikatz eta ogeitamar kintal miagairaiño, eta ez beste berbabidetako auzibideetan, burdiñari, miagaiari edo ikatzari buruzko edo onei datxekon eztabaidaren bat izan arren bere, orrelako burdiña edo olaren edo olako arragoaren barruan egon ezik. Errege-aginpidea eurenganatuz, eskubide barik eurek euretara epaitzen daben pertsonen aurka legez ezarririko zigorren-

Epaikari ta Kargudunak

pean; eta urte oro Alkateak aldatu daitezala.

VI Legea. Prestameruaz eta onen ordezkariez.

Baita, esan eben: Prestameru izena daroenak Bizkaia'n asko diralako, Bizkaitarrek bidebagarik eta kalterik izaten dabela: eta Justiziaren eta Jaun Aundiaren makillen esanak egiteko ta orrelako Prestameruari, egoki litzateken aldian eta aldean, auzibidez bidebagak eskatzeko, egiazkoak izatea ta Prestameru dana edo izango dana ezagutzea onuragarri ta bear-bearrezkoa danez gero, esan eben: Foruz eta usarioz eta oituraz ebela, Prestameru Nagusiak Busturi ta Uribe ta Arratia ta Zornotza ta Markiña'ko merinaldeetan ezin daikela kargurik izango dauan Leku-Ordezkari bat baiño izendatu, eta Durango'ko merinaldean beste Ordezkari bat: antxiñako aldietan usarioz eta oituraz onantxe izan zaneta, Errege-Erabidezko Legearen arabera onantxe bete bear da; *eta Leku Ordezkari ori ogasunduna ta zintzoa ta Bizkai'ko Konderritik kanpokoa Ebro'z andikoa izan daitela, eta ez semez Bizkai'koa;* berau Bizkai'ko Batzarre Nagusian, Gernika'ko Zugazpean, Prestamerutzat onartua izan daitela, Bizkai'ko Konderrikoak diran zordunorde on, lau ta zintzoak izendaturik, berak egingo leukezan bidebaga ta kalteak zordun-ordeok ordaindu ta kitatu dagiezan eta, epaiturikoa ordaindurik, edozein salatariri legezkoa egin dagioen; eta Durango'ko merinaldean izendatuko dauan Ordezkaria dala-ta bere, orixe gorde daitela; eta Durango'n ipiñi dan Ordezkariak ezin daikela merinalde aretatik kanpo bere egikuntzan jardun. Bizkai'ko beste merinaldeetan imiñi dan Leku-Ordezkariak, barriz, Bizkai'ko ta Durango'ko merinaldeetan bere egikuntzan jardun daikela. Aitaturiko Prestameru Nagusiak, alan bere, Kargu orri dagokiozan sariak eskatu, artu ta batzeko, bere Leku-Ordezkaria ibil daiten norbait izendatu daikela, baiña bete-eragipenik egin eta makillarik ekarri baga, aitaturiko Prestameru Nagusi orri, Ordezkariak eta

Bigarren Atala

Kargudunak dituan aldi guztirako, bere karguaren sari guztiak galduko dituan zigorra ezarten jakola eta Konderriko bideak konpontzen eta erriko lanetan eralgiten dirala; pertsona orri, gaiñera, makilla ta Epaikariaren agindua ekar badagiz bere, ez dakiola men egin eta berari gogor egin arren, iñongo bizkaitarri ez dakiola ezertariko zigorrik ezarri. Eta egingo leukezan bete-eragipen guztiak utsak izan daitezala eta auzilarien eralketak ordaindu dagizala; aitaturiko Prestameru Nagusiak, baiña, bera Konderrian izan ezkero, Ordezkaria euki arren, bere egikuntzan jardun daikela.

VII Legea. Merinuez eta oneen ordezkariez.

Baita: Bizkai'ko Konderrian zazpi Merinalde dira. Oneexek: Busturi'ko Merinaldea ta Uribe'koa ta Arratia'koa ta Bedia'koa ta Zornotza'koa ta Markiña'koa ta Durango'ko Merinaldea, eta areetariko bakotxean Merinu bat dago, Uribe'koan izan ezik. Merinalde bat izan arren, bi dagoz-eta; eta Merinalde orreetako Merinu bakotxak gaur Ordezkari bat, biar beste bat ixillik ipinten ditu, Bizkaitarrek nor aintzat artu ta norengana jo ez dakiela. Au, baiña, Jaun Aundiari uko egitea da ta erriarentzat kaltegarri ta galgarri. Orregaitik, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela, zazpi Merinaldeotako edozein Merinuk bere Merinaldean Leku-Ordezkari bat izendatu daikela, ta geiagorik ez, eta Leku-ordezkari au gizon lau ta zintzoa izan daitela, ta Merinalde aretako Erri-Batzarrean izendatu daitela, ogasundun zordunorde zintzoak ezarrita gero, aitaturiko atalak dakarrenez. Leku-Ordezkaria izendatzen dauan Merinu Nagusiak, baiña, Leku-Ordezkariari dagokiozan arazoetan ezin daikela bere egikuntzan jardun; bete-eragipenik bere ezin daikela Merinu Nagusiak egin, ezta bestek bere aren ordez, Batzarrean onartua izan danak izan ezik, eta ez bestek; eta Merinu Nagusi areetako bakotxak bere egikuntzan ber-berak jardun gura badau, ori egin daikela, Ordezkaririk euki ezik.

Epaikari ta Kargudunak

VIII Legea. Uribe'ko merinuez.

Baita: Uribe'ko Merinaldea aundia danez, an dagozan Merinu bietako bat Merinalde aretako arazoak artez eroateko ez da naikoa. Orregaitik, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela; Merinalde onetan Merinu biek kargua in solidum eroan dagiela, euren egitekoa obeto bete dagien, Merinuok eta euron Ordezkariak beste Merinaldeetako Merinuak izendatu ta onartu diran baibenaz eta eraz eta legezko eginbearrak beteaz izendatu ta onartu ezkero.

IX Legea. Urietako beteeragilleek eta alkateek lurralde lauan ez dagiela makillarik erabilli.

Baita: Konderriko Urietako beteeragillerik eta Alkaterik ez daitela makilla darabillala Lurralde Lauan ibilli, Forutzat onantxe ebelarik, Legetzat onantxe ezarten ebela-ta, zigor onenpean, edozein bizkaitarrek zigorrik eta baibenik eta edozelango okerrik barik gogor egin eta makilla kendu daikeola, itxi dagiala aurretiaz eskatu ezkero.

X Legea. Korrejidorearen lan-sariaz.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela, Jaun Aundiak, Bizkai'ko Jaun danez, bertoko Korrejidoreari bere Errege-Etxetik ordaintzea, Berari gogoko jakonez, beti ontzat izan dauala; orregatik, Foruz ebela ta Legetzat ezarten, Bizkai'ko edozein Korrejidorek eta Ikuslarik, bizkaitarrek ezertariko lan-saririk emon barik bere karguaren betekizuna burutu bear dauala, ta onantxe egin dagiala; eta ez Korrejidoreak, ez Leku-Ordezkariak, ezta Esku-Ordeak bere, euren eginkizuna betetzearren, euren gain artu daben azterraldi edo billakuntzaren bat burutuko baldin badabe bere, zein guztizko azterketa zein berarizkoa izan, ez dagiela lan-saririk, ez beste

Bigarren Atala

ezer artu ta eskuratu; euren karguaren eginbearrak sarirık jaso baga bete dagiezala; azpikeriz dirua artzen daben Epaikarien aurka Foruz eta legez ezarririko zigorrak eurenganatuko dituen zigorpean. Erreiñuko Lansari-araudiak aginduriko oizko sariak, ostera, jaso daikeezala.

XI Legea. Foru-alkateen lansariaz, eta onuraritzarik ez dagiela izan.

Baita, esan eben: Foruz eta oituraz ebela, Bizkai'ko Foru-Alkate bakotxak Jaun Aundiagandik urte oro bi milla marai artzen dituala lansaritzat, Jaun Aundiak Bizkai'ko Dirutegitik ordaintzeko agintzen dauala. Ori dala-ta, Legetzat ezarten ebela, euren karguen eginkizuna bete ta epaiak emotearren, ez daitezala onuraritzarik eroaten eta saririk artzen ausartu, Erreiñuko Lansari-araudiak emoten dautsen lansaria baiño besterik artu baga, aurreragoko txatalean datozan zigorrenpean.

XII Legea. Legezko beteeragipenen sariez.

Baita, esan eben: Foruz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Prestameruak eta Merinuak, Epaikariaren aginduz, norbaiten ondasunen batzuk legez emon eta erreматean salduko balebez, legezko emotea ta beteeragipena ta erremata egin dalako, amarretik bat saritzat eurentzat izan dagiela; eta Prestameru edo Merinu arek legezko salmenta egin dauan borreru edo Merinu txikiari bere amarren amarrena ordaindu dagiola; eta egin daiteken legezko salmenta dala-ta, ez daitela beste saririk izan, Prestameruak edo onen Ordezkariak edo Merinu Nagusiak erremata-egunez bazkaltzeko artuko dituan ogeitalau maraiak izan ezik. Erremata Merinuaren Ordezkariak egin ezkero, baiña, amabi marai baiño ez dagizala artu; eta zigor-auziei buruz Prestameruak eta Merinuak egingo dituen beste joanetorriak dirala-ta, ori egiteko agindu dauan Epaikariak neurtu dagizala, auziaren zelakotasuna ta bete-

Epaikari ta kargudunak

eregilleak daroan jendetza gogoan dauala, berak zer gura ta axe edo, bere eritxiz, ekanduz dagokiona ezarririk.

XIII Legea. Bete-eragipenen sariena zelan ulertzen dan.

Baita, esan eben: Orrelan egiten diran legezko emote ta bete-eragipen eta erremate-tan, zor nagusiaren artzekodunari edo artzekodunei osorik ordaintzeko eta eralketei erantzuteko naiko ondasunik ez izatea jazo daiteken ezkero, eta Prestameruak edo Merinuak, Epaikari bete-eragille danez, bete-eragipena egin dauala-ta, edo erremata egin baga bere bete-eragipena egin daualata, berari dagokion zorraren amarren guztia eskatu ta beretzakotu nai izango leukela. Au artzekodunen kaltetan danez, Foruz eta oituraz ebela eta Legetzat ezarten, zorrak eta eralketak ordaintzeko beste ondasun badanean, aitaturiko bete-eragilleak bere amarrena osorik artu dagiala, baiña ez artzekoduneri zor jakona eta eralketak ordaindu arte, edo zordunak artzekodunagazkoa garbitu arte. Eta ondasunik naiko izango ez balitz, olakoan, bere saria amarrenaren giñoan soillik artu dagiala, erremata egikeran ondasunek egin daben dirutzaren arabera, eta besterik ez. Eta au bere, artzekodunagazkoa osorik eginda gero, esan danez, saldutako ondasunek egin daben neurriraiño.

XIV Legea. Legezko bete-eragipenen sariak norentzat diran, kargudunak aldatu ezkero.

Baita, esan eben: Aitaturiko legezko bete-eragipena eginda gero, erremata egin aurretik aitaturiko bete-eragilleak aldatu egin badira, il egin diralako edo kendu egin dituelako, bete-eragipena egin ebanak erramata ezin egiñez, olakoan, bete-eragipena egin ebanak aitaturiko sarien erdia bereganatu dagiala, eta erremata egin ebanak beste erdia, aitaturiko bereizkuntza kontutan arturik eta esaniko erara egiñik.

Bigarren Atala

XV Legea. Zordunordearen ondasunak legez sal badaitez, saririk ez beite jaso.

Baita: Onango errematetan erostunek errematako zordunordeak izendatzen ditue, eta, jazo oi danez, errematako zordun-ordeok bete-eragillearen menpean katigu dagozalako, erostunak ez dau ordaintzen, au dala-ta, zordun-ordeen ondasunak, bete-eragipena eginda, saldu egiten dirala; olakoan, aitaturiko bete-eragilleak ez dagiala ez amarrenik, ez bazkaririk, ez beste saririk bereganatu ondasunen eukitzea emon daualako edo errematako zordun-ordeak katera ekarri ditualako, erreiñuko Legeak bere Lansari-araudian saritzat izendaturikoa izan ezik.

XVI Legea. Lege au betekeran, legezko bete-eragipenaren saririk ez daitela izan.

Baita: Onelango bete-eragipenak egin oi diranean, jazo oi danez, artzekodunek, euren betebearrak dirala-ta, aurka egiten dabela, eta, auzitan diarduelarik, zordunak bete-eragipena eskatu eban artzekodunagazkoa osotoro egiten dauala; eta beste artzekodunei ta aurkariei, ostera, bete-eragipena egitea ta zordunaren eta errematako zordun-ordeen ondasunak legez saltzea ondo datorkiela; olakoan, onango bete-eragilleak ez dagiala aurkariek emoniko amarrenik ez beste saririk jaso, ezta salduriko ondasunakaitik bere, aitaturiko eukitzea emotearren Foruak ezarten dauana izan ezik. Eta au, aitaturiko amarrena artu ebelako, leenago bete-eragipena egin zan-eta.

XVII Legea. Sariok dirala-ta.

Baita: Zordun batzuek, jazo oi danez, legezko bete-eragipenak eta eralketak kentzearren, Epaikariagana joan eta leenengo unetik euren ondasun guztiak legez bete-eragintzat, neurtutzat eta saldutzat eta erremata egintzat emoten dabela, eta zordunak berak edo ogasunduna izeneko beste zordun-ordeen bitartez, zordun eta artzekodun eta

Epaikari ta Kargudunak

zordun-orde eukitsuen ordaiñetan, ordainketa garaiz egin ez dalako, bete-eragillearen menpean egoteko euren buruak beartzen dituela; eta artzekodunak, jazo oi danez, zordunaren eta zordun-orde eukitsuen ondasunak legez bete-eragiteko eskatzen dauan eskero, bete-eragillea epaia bete-eragitera doanean, eta bete-eraginda gero, aitaturiko bete-eragille onek bete-eragin dauan kopuruaren amarrena beretzakotu daiken dudatan izaten dala. Orregaitik, esan eben: Forutzat eta Legetzat ezarten ebela, olakoan, bete-eragilleak bere amarrena artu dagiala, gorago esaniko eraz eta bereiztasunaz, zordunen eta zordun-ordeen ondasunak legez saldurik; eta zordun eta zordun-ordeok menperatu ta presondegiratzearren Lansari-araudiak dakarren leguako onenbesteko saria bakarrik beretzakotu dagiala, eta amarrenik ez.

IRUGARREN ATALA, OIZKO EPAIKARIEK eta Aztertzailleak Auzitan Gora-jotea onar dagiela, eta bete-eragipenik ez dagiela egin.

I Legea. Auzitan gora-jotea zein gauzatan onar daiteken, eta zer alda daiteken.

Baita, esan eben: Norbaitzuk, jazo oi danez, legeauste arin batzuekaitik salatuak izan ondoren katigu dagozalarik, Epaikariek zigorgarri dirala ebazten dabela, ez gorputzeko nekez, diruz baiño, zigor ori edozein bearrizanetarako ezarririk; eta zigortu dirannek ori bidebagatzat euki eta Nagusiagana joten dabela, zein Konderri barruan zein erbestean, bidezko izan ezkero; eta Epaikariek gora jote ori ez dabe ez onartu ez ukatu egiten eta katigu eukitzen ditue; eta aitaturiko zigorpekook euren zigorra ta epaiturikoa ordaintzeko baibenak emon arren bere, ez dautsee jarein egiten, esanez: Nagusiak auzibidea ikusi ta garbitu arte, Presondegiko nekaldia gorabeera, Presondegian egongo dira. Eta Pre-

Irugarren Atala

sondegi-aldiari alde egitearren, bearbada, bidegabez ezarritako zigorra eta Presondegi-aldia ordaintzea naiago izaten dabe. Orregaitik, onelango zalekeria ta indarkeria uxatzearren, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, Bizkai'ko edozein Epaikari, oizko izan Aztertzaille izan, onelango auzia dela-ta, Gortetik etor badaite, norbait diruz eta erbesteratu bearrez zigortua izan baldin bada, eta onan galdua izan danak gora-jo badagi, Nagusiagana jote ori Epaikariak onartu egin bear dauala eta jarein dakiola agindu, eta zigortua izan danak Nagusiagana joango dala, bidez jokatu eta epaiturikoa ordainduko dauala berbea emon eta ogasundun baibenak ezarri badagiz, alakoari jarein eragin dagiola; eta gora-jo dauan bitartean, ez dakiola bete-eragipenik egin, ezta beste aldakuntzarik bere, jarein egitea baiño, zigor onenpean, besterik egingo balitz, utsa ta indarrik eta ondorenik bagakoa izan beite; eta besterik egiten dauan Epaikariak, gaiñera, amar milla marai zigortzat ordaindu dagizala, iru zatitatik bat Errege-Dirutegirako, beste bat gaitzetsi danarentzat eta beste bat Bizkai'ko bideak konpontzeko dala.

LAUGARREN ATALA, ALKATEEI TA BEte-eragilleei kontu-eskatzeaz.

I Legea. Foru-alkateei ta Oletakoei ta Bizkai'ko Aldunei kontu-eskatu dakiela, eta zein kasutan ezin daiteken kargu bera barriro artu.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Foru-Alkateei ta Oletakoei ta Bizkai'ko Aldunei kontu-eskatzea egin dakiela, Bizkai'ko Korrejidoreari ta beronen Ordezkariari eskatzen jaken bakotxean; eta aitaturiko Alkate ta Epaikariei (aldi aretan Zuribideko Epaikari dan Korrejidoreak eskatu bear dautse-ta) karguak arturik, berak euki dagizala, eta orretarako gauza ta aukerakoak diranei legez banandu dagioezala,

Kontu-eskatzeaz

eta leengo Alkateei ez dakiezala karguok barriro emon, areen kontu-eskatzea egikeran, gaitzetsi diralarik eta ebazkizuna Gortera bialdu dalarik, salakizunen bat egin badakie, arik eta epaibidezko zuribideak andik ekarri arte, eta jarei ta kitu izanik,aitaturiko karguok artzeko ta karguon egikuntzetan jarduteko baietza izan arte.

II Legea. Prestameruei ta Merinuei kontu-eskatzea egin dakiela, eta kontu-eskatzea ikusi arte areen karguek zein eratan iraungo daben.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Bizkai'ko Prestameruari ta Merinuei ta oneen Leku-Ordezkariei kontu-eskatzea egin bear jakela, eta, egin bere, egin dakiela, Bizkai'ko Korrejidoreari ta onen Ordezkariari kontu-eskatzen jaken bakotxean eta ori egiten dan bitartean. Eta kontu-eskatze au egin oi danean, ikusien gaiñera ikusi izan danez, orrelako bete-eragilleek euren lekuan eta eurek euretara beste bete-eragille Ordezkari batzuk izendatzen dituela, eta, ori dala-ta, kontu-eskatzeko ogeitamar egunak amaituz gero, euren aginte-makillak barriro artu ta euren karguaren egikuntzan jardungo dabela jakiten danez, areen indarkeria ta pekatuak dirala-ta, errian egia esaten eta agertzen ez dala iñor ausartzen. Onango bete-eragilleek euren aginte-makillarik eta kargurik barriro artuko ez balebe, oker ori galerazoko litzateke, berau dala bide, erri guztia atsekabetan eta neketan bizi da-ta, eta esaniko bildurrik baga eta bear litzatekenez kontu-eskatzerik ezin jake orrelakoei egin-eta. Ori dala-ta, eragozpen au kentzeko, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, aldi aretan Korrejidore edo Zuribideko Epaikari danak onango bete-eragilleei kontu-eskatzea egin bear dautsen ezkero, aginte-makillak bere artu dagiozala, makillok berak eukirik eta bete-eragilletzat eta karguduntzat gizon lau ta zintzo ta bizikera onekoak eta legebidezkoak izendaturik; eta karguon egikuntzan zintzoro ta legez jardun dagie-

Bosgarren Atala

la; eta kontu-eskatzea egiten jakenei ez dakiela agintemakillarik ez kargurik barriro emon, epaibidez jarei ta kitu dirala garbi agertu arte, eta epai au dala-ta, gorajoterik edo gora bialtzerik edo salakizunik izango balitz, Batzarretik zuribidezko epaia ta aitaturiko karguok barriro artzeko erabagia ta baietza ekarri arte.

BOSGARREN ATALA, ERREJIMENTUAN ez daitela bete-eragillerik ez besterik sartu, Errejimentuko Karguduna izan ezik.

I Legea. Nortzuk ezin daitekezan Errejimentuan sartu.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Aldunak eta Errejimentuko beste kargudunak Korrejidoreagaz alkartuz Bizkaia'n egin oi diran Errejimentuetan, erria ondo eroateaz itz egikeran, aitaturiko bete-eragilleen larregikeri ta indarkeriak eta alperkeria ta bidebagea sarritan aitatzen dan ezkero, orrelekoak Errejimentuetan egotea ez dala arrazoizkoa ta bidezkoa eta, egon bere, ez dirala egoten. Orregaitik, agintzen ebela, onantxe agindurik, ez Prestamerurik, ez Merinurik, ez areen Leku-Ordezkaririk ez daitela Bizkai'ko Errejimentuetan sartu, ezta egon bere, besterik egiten dauanak eta egiten dauan bakotxeko bost milla marairen zigorpean, Bizkai'ko bideak konpontzeko; Errejimentuko karguduna izan ezkero, ostera, egon daitekela; eurei ta euren menpekoei buruz berba egin bear danean, barriz urten dagiela.

SEIGARREN ATALA, ESKRIBAUEN KOpurua, eta legez egiztagarri diran edo ez diran agerkaiak, eta areen sariak eta Bizkai'ko Auzitegietako Ordelariak dirala-ta.

Eskribauen kopurua

I Legea. Merinaldeetan eskribauen kopurua gorde daitela, eta besteren izkriburik ez daitela legez egiztagarri izan.



eenengo esan eben: Foruz ebela, ta Legetzat ezarten ebela, Bizkai'ko Merinaldeetako Eskribauen kopurua edozergaitik bere osorik gorde daitela, bakotxaren zenbakiak eta Erreiñu oneetako Erabidezko Legeek erabagiten eta agintzen daben giñoan eta eran, Lege ta zenbaki oneek aitatzen dituen izkribu ta auziz-besteko itunak izan ezkero. Eta kopuru orretakoa ez dan Eskribauk egindako izkribu-agiririk ez daitela legez egiztagarri izan, ezta ezeren agergarri bere, legez kopuru orretako diran Eskribauen aurrean egin bearreko izkribu ta itunetarikoa izan ezkero, eta auzitan eta auzitik at utsak eta indarrik eta ondorenik bagakoak izan beitez; eta izkribu ta auziz besteko arazo guztiak dirala-ta, aitaturiko Lege ta zenbakiak erabagiten dabena gorde beite.

II Legea. Korrejidorearen eta onen ordezkarien aurrean edozein bizkaitar Eskribauk agiriak egin daikezala.



aita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Bizkai'ko Korrejidoreak eta onen edozein Ordezkarik eta Konderri ta Jaurerrian eta bertoko Urietan eta Uriaundian eskumendea dauan Jaun Aundiaren edozein Epaikarik, edozein erriauzi ta zigor-auzi dala-ta, izen oneko dan Bizkai'ko Konderri'ko edozein Eskribau, Lurralde Laukoa zein Urietakoa izan, bere Auzitegiko Eskribautzat onar dagiala, salatzailleak edo eskatzailleak azterraldia egiteko norbaiti salakizuna edo eskakizuna egin badautso; Foruz, usarioz eta oituraz antxiñako aldietatik orain arte onantxe ebenez, aitaturiko Eskribauok aitaren eta aititaren aldetik jaiotzez Bizkai'koak eta Korrejidorearen auzi-mendekoak izan ezkero; eta besterik iñor ez dagiela onar. Eta onangoen Izkriburik edo agiririk onartuko balebe, barriz, agiriok ez dagiela iñoiz ezer egiztatu

Seigarren Atala

legez, ez ezer probau Bizkaia'n, ezta Bizkai'tik at bere. Eta onartu dituan Korrejidoreak edo edozein Epaikarik eralketak eta kalteak auzilariei ordaindu dagioezala.

III Legea. Aztertzailleen eskribauek auzibideak Bizkaia'n laga dagiezala.

Baita: Jaun Aundiaren edo aren Goi-Batzarreko aztertzailleren bat, jazo oi danez. Bizkai'ra etortea badaiteketa, Epaikari orrek Konderritik ateko Eskribaua beragaz ekarri daike, beronen aurrean auzibidea edo auzibideak eta azterketak edo billaketak egiñik: eta bere karguaren aldia joanik, aitaturiko auzibideen leenizkribua edo izkribuak Konderrian laga barik alde egiten dauala, onelan Konderri onentzat eta bizkaitarrentzat kaltea ta arriskua geituaz, Jaun Aundiari ta onen Dirutegiari edo erri-lanei edo Konderriko Errepublikari dagokion zerbait ostendu ta ezkutau egin daiteke-ta; eta guzurrezko lekukorik izan baldin bada, berau zigortu daiten, eta beste auzialdi ta auzibideetan, bear danean, bir-ekarri daitezan, aitaturiko azterraldien lekukoen egiztabideak eta esanak Konderrian gelditzea bearrezko izan daiteke-ta, Gortean atzera ta aurrera dabizan Eskribauengan eta erbestekoengan au aurkitzea gatx eta ia eziña izaten da. Orregaitik, Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, orrelako Eskribaua Konderrian dagoan bitartean, esaniko auzibide ta leen-izkribuak Konderriko Eskribauren baten mendean gomutagarritzat eta aurkibidetzat lagatzera beartu daitela, Eskribau au Bizkai'ko Korrejidoreak edo onen Ordezkariak izendatzen eta aukeratzen dauala; eta bere karguaren eginkizuna Konderrian betetzen asi baiño leen, onelantxe egingo daualako baiben lau ta fiagarriak Korrejidoreari emon bear dautsazala, orrelantxe bete ta egin dagian; eta, olakoan, Eskribau ori beartzeko eta beroni eragiteko, besteren artean Korrejidorea eskubidedun Epaikari izan daitela.

IV Legea. Eskribauen sariak, eta auzibidea Letrauari emon dagioela.

Eskribauen kopurua

Baita: Bizkai'ko Konderri ta Jaurerri onetako Eskribauek dituen eta jaso bear dituen sariez, Erreiñuko Lansari-araudiak agintzen dituan sariak eta agintzen dauanez bakarrik eskuratu dagiezala, naiz Korrejidoreagana naiz Ordezkariagana, berau dan lekuetan, jo bear dan kasu ta maillatan; eta argitara agertuko diran egiztagarriak liburuan ezarrita egon arren, onelango Eskribauak Leenizkribua leku aretan dagoan eta gorago esaniko gaitasunak daukazan Letrauari emon bear dautsala, eta ezin daikela alderdietakoren bat bir-idaztera beartu; onangoetan, alan bere, alderdi bakotxeko Eskribauak orri bakotxeko marai bat artu dagiala, baiña geigorik ez, bein baiño geiagotan idatzi arren bere, Lansari-araudiko Legeek dakarrezan nekeenpean.

V Legea. Beroni buruz.

Baita: Leenengo Ekiñaldiko auzi ta auzibideei gagokiezala, zein Korrejidorearen aurrean zein beste edozein Epaikariren aurrean izan, aitaturiko Eskribauek esaniko Lansari-araudia oso ososrik eta berbaz-berba edozergaitik bere gorde dagiela, aitaturiko zigorrarenpean, zigor-auzia ta erri-auzia dala-ta, asieran euren aurrean egin ez ziran agiri ta artu ez ziran erabagiak eta gero euren aurrean aurkeztu ziranak leku aretako ta aitaturiko gaitasunak daukazan Letrauari emotearren, orri bakotxeko marai bat jaso aal izan dagiala, alderdi bakotxetik bein, eta besterik ez, geiagotan emon izan bajakoz bere; Epaikariari erakustearren, baiña, onek erabagiren bat artu dagian, ez dagiala ezer eskuratu, esaniko nekearenpean.

VI Legea. Eskribaurik ez daitela lege-gizon izan.

Baita: Korrejidorearen eta onen Ordezkarien eta beste Epaikarien Auzitegietako Eskribau batzuek, Eskribau karguaz bakarrik naiko izan ez eta alderdien Lege-gizon eta Ordelari izatea bere eurek artzen dabela, eta, okerrago dana, eurak alderdiren bateko Eskribau dira-

Seigarren Atala

larik, auzibideetan euretan ixillik eta azpikeriaz alde egiten dabela; egite au, barriz, Bizkaitarrentzat guztiz nekagarri ta ezinbestean kaltegarri izan: orrelan, aurkariak (zintzo eta alderdibako izan bear leuken) Eskribau au bere areriotzat eta beste alderdiko Lege-gizontzat izan oi dau: eta au, aitaturiko Epaikariek euren Auzitegietan Letrau ta Lege-gizon ezagunek izenpetu bagako izkribuak onartzen dituelako batez bere jazoten da. Orregatik, guzti au Erreiñu onetako Legeen aurka egiten danez, eta orrelako azpikeria ta kalteak Bizkaia'n galerazoteko Legeek ezarten dabena naiko ez dalako, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten, Auzitegiotako Eskribau batek bere ezin daikela ez agirian eta ez ezkutuan Lege-gizonen eta Ordelariren egikuntzan jardun, Auzitegi beratan Eskribau dalarik, Eskribau kargua bertan izan ezkero: zigor onenpean, besterik egiten dauan edozein Eskribau, Foruz eta Legez ezarririko zigorrez gaiñera, leenengo aldiz bost milla marairen zigorpean jausi daitela, neke ori bereganaturik, iru zatitatik bat Konderriko bidegintzarako, bigarren zatia salatu dauan salatariarentzat eta irugarrena, ori jazo dan lekuko Gaixo-etxerako ta bertako beartsuentzat izanik; eta bigarren aldiz, bi alako ordaindu dagiala, esaniko erara banantzeko; eta irugarrenez, iruzurti-legeaustearenpean jausi daitela, Iruzurti-zigorra bereganaturik; eta Bizkai'ko Epaikariek ez dagiela euren Auzitegietan Letrau ta Lege-gizon ezagunek izenpetu bagako izkriburik onar: zigor onenpean, besterik egiten dauan bakotxean, irureun marairen zigorpean jausi daitela, neke ori bereganaturik, maraiok aitaturiko erara banantzeko; bere Auzitegiko Eskribaurik bere ez dagiala Ordelaritzat onartu ta onetsi, zigor berarenpean; eta orrelango izkribua alderdiak izenpeturik ekarriko balitzakie, legearen arabera zin eragin baga ez dagiela ontzat artu; eta nork egin edo agindu eban, berak ala bestek, zin egiñez, ager dagiala, esaniko erara bananduko litzeteken zigor berarenpean. Eta olakoetan, Bizkai'ko Aldunak aitaturi-

Eskribauen kopurua

ko Epaikariei buruz eskubidedun Epaikari izan beitez.

VII Legea. Ordelariei buruz eta zelan onartuak izango diran.

Baita: Bizkaia'n ezjakin askok, jazo oi danez, eurek daukezan beste ogibideak alde batera lagata, lanik ez egitearren, aitaturiko Auzitegietan Ordelarien egitekoa auzitan betetzen diardue, eta okerrago dana, irakurten eta idazten jakin barik; onangoak gauza ta gai ez diralako, baiña, auziak galdu egiten jakez, eta Auzitegiak onelango Ordelariz beterik dagozanez gero, Bizkaitarrei bidebagarik eta kalterik eta erriari nekerik asko datorkie. Orregaitik, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, irakurten eta idazten jakin baga Auzitegietan Ordelari izaten ez daitela iñor bere ausartu, eta Bizkai'ko Korrejidoreak edo onen Ordezkariak aztertu dagiala, eta kargu orretarako gauzatzat eta gaitzat onartua izan daitela, ori iragarririk, aurreragoko Legeak dakarren eta esaniko erara ta modura bananduko dan nekearenpean; eta Epaikariek eurek bere ez dagiela orrelakorik ontzat emon, ez onartu, ez onetsi, Epaikarioi ezarriko jaken eta aurreragoko Legean aitaturiko neke berarenpean.

VIII Legea. Nortzuk ezin daikeen jabez aldaturiko auzi-eskubiderik artu.

Baita: Bizkaia'n ikusien gaiñera ikusi izan danez, aitaturiko Ordelariek bete-eragilleei bete-eragipena eskatzen diarduelako, auzi-eskubideak eta aalmenak jabez aldaturik, artzekodunengandik betebearrak eta auzi-epaiak erosi egiten ditue, eurekin dabilzan bete-eragilleek eta Eskribauek bere bardin egiten dabela, onelan artzekodunen eta zordunen aurka askotan azpikeriak eta indarkeriak egiñik; onelango eskubide-aldatzeak, jazo oi danez, merkeago erosten ditue-ta, eta gero guztiaren ordez bete-eragiten ditue, onan esaniko zordunen zor nagusia ta eralketak eurenganatzen dituelarik, eta bear litzateken guztiaz beiñik-bein artzekodunengana joaten ez

Seigarren Atala

diranez, ezta joan bear leukeen aldian eta eran bere, eta, gaiñera, artzekodunekaz zor nagusia zein sariak zein eralketak banandu egiten dituenez, jokabide au zordunentzat guztiz kaltegarri izaten da, baita artzekodunentzat eurentzat bere eta kargudunokaz egin dituen edo egiteko diran banakuntzok dirala bide, artzekodunen eta zordunen artean egiunea ta konponketa egin bearrean, onelakorik egiten ez dira ausartzen: eta beste azpikeria ta ondoren batzuk egunean egunean asmatzen ditue, gaiñera; eta Epaikari diralako, Zuzentasunmakilla darabillen kargudunak diralako, alderdiak zuzena edo eurena dana eskatzen ez dira ausartzen, ezta orrelakoak salatzen eta auzitaratzen bere; eta guzti au Erreiñu oneetako Legeen aurka izan oi zala eta onantxe izaten dala, onango auzi-azpikeria ta eskubideak, gero guztiaren ordez beteeragiteko, merkeago erostea debekatuta dago-ta; aitaturiko azpikeriok kentzeko, baiña, esaniko Legeek erabagiten dabena ta Legeok ezarten dituen zigorrak bere naiko ez diran ezkero, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, ez Prestamerurik, ez Merinurik, ez bete-eragillerik, ez Auzitegietan eta bete-eragipenetan diarduan Eskribaurik eta Ordelariric ez daitela auzieskubiderik artzen ausartu, ezta artzekodunak zordunei buruz daukezan betebear eta auzi-epaiak jabez aldatuz bereganatzen bere, ezta artzekodunekaz zor nagusiaren, eralketen eta eskubideen banakuntzarik egiten bere, ezta artzekodunengana joan daiten, zordunaren zor nagusi, eralketa ta eskubideen ordaiñetan ezer artzen bere: zigor onenpean, leenengoz, onan artu legikeen guztia zor nagusiaren eta eralketaren bi alakoz zordunari biur ta itzul dagioela, beragandik artu eban-eta, eta bi alakoaren zigorraren irutatik bat salatariarentzat, bigarrena Konderriko errilanetarako ta bidegintzarako eta irugarrena bete-eragipena egin eban Epaikariarentzat izan daitela; bigarrenez, barriz, alako lau biur dagiala; eta irugarrenez, alako zazpi, eta, gaiñera, ez daitela orrelako karguetarako gai izan; eta zigorrok esaniko erara banandu daite-

Eskribauen kopurua

zala; eta, onango azpikeriaz eta banakuntzaz eta orrelako zerbaitez egiñiko beteeragipenak utsak eta indarrik eta ondorenik bagakoak izan daitezala, artzekodunari bere artuena bear danez bereganatzeko eskubidea osorik gelditzen jakola. Eta onezaz gaiñera, orrelako eskubide-aldatzea ta ortik datorken guztia utsa ta indarrik eta ondorenik bakoa izan daitela. Prestameruak, Merinuak eta beteeragilleak, alan bere, euren sarietatik artzekodunari zer gura emokuntza egitea ontzat izan eben, emokuntza ori artzekodunari ta beste irugarren bati egin arren bere, zordunarentzat eta beretzat onuragarri izan ezkero: eta zorduna ez daitela emokuntza ori egin dan dirutzaren ordaiña ordaintzera beartu, ta ez dakiola ori eragin, artzekodunak zordunagandik eta beronen eskutik zor nagusiarena ta eralketarena ta aitaturiko sariena artu ta jaso ez balegiz, aitaturiko azpikeriok ken daitezan.

IX Legea. Eliz-gizonak Ordelari zein kasutan izan daitekezan.

Baita, esan eben: Foruz ebela, eliz-gizonik ezin daitekela Erri-Epaikariren aurrean iñoren Ordelari izan, bere buruaren, Elizaren edo beste eliz-gizonen, edo aitaren, edo amaren, edo adinbagako eta arlote diranen ordez izan ezik, eta aitaturiko Epaikariek bere ez dagiela onartu.

ZAZPIGARREN ATALA, AUZIEZ ETA eskatzeaz.

I Legea. Leenengo auziekiñaldian ezin daitekela Bizkaitarrik Bizkai'tik atara.

Leenengo esan eben: Bizkaitarrek Foruz, usarioz eta bituraz eta frankezaz eta erri-eskubidez ebela, edozein legeauste edo beste edozer dala-ta, ezin daitekezala euren etxetik atara, ezta Jaun Aundiaren Gortera edo aren Errege-Auzitegira edo aren Bizkai'ko Epaikari Nagusiagana joan eragin bere, gora-

Zazpigarren Atala

joteko asmoz izan ezik, euren Foruaren eta Bizkaitarrei Jaun Aundiak emon eta emonazoriko Errege-Erabagiaren arabera, Erabagi onek beronek aitatzen dituan kasuetan ez bada, Errege-Erabagi au ementxe ezarririk eta agerturik dator.

II Legea. Berau dala-ta erabagi izana.

ERREGE-eskutitza. Doña Joana'k, Jainkoaren graziaz, Gaztela'ko, Leon'go, Granada'ko, Toledo'ko, Galizia'ko, Sebilla'ko, Kordoba'ko, Murzia'ko, Jaen'go. Aljeziras'go, Algarbes'ko, Jibraltar'go, Kanarias Ugarteetako, Indietako, Itxas Aundiko Ugarte ta Leorretako Erregiñak, Aragon eta Sizilia bietako, Jerusalen'go Printzesak, Austria'ko Artxidukesak, eta Borgoña ta Brabante'ko Dukesak, etab., Flandes eta Tirol'go Kondesak, Bizkai'ko ta Molina'ko Anderak. Nire Auzitegiko Oidore zareen, nire Batzarrekoei, nire Etxe, Gorte ta Goi-Auzitegiko Alkateei, eta Bizkai'ko nire Epaikari Nagusiari, eta nire Korrejidoreari, Alkate ta beste Juztizigiñei, guztiz Noble ta Leial dan Bizkai'ko Jaurerri ta Konderriko edonori, zuotariko bakotxari ta edonori, eta nire Eskutitz onek dakarrena dagokion beste edonori, Osasuna ta Grazia. Jakin egizue, Ugarte'ko Joan Santxez Batxillerrak ta Bitoria'ko Alonso Batxillerrak eta Trupita'ko Santxo Martinez Batxillerrak eta Ariz'ko Joan Santxez'ek, aitaturiko Konderri ta Jaurerriaren izenean, eta bertako Ordelari diranez, eta Konderri ta Jaurerriak emondako aalmenaren indarrez, euren eskabidea nire Batzarrean eta nire aurrean agerturik, Aipamen egin eustela, esanez: Gomuta aundiko nire Aitaleen diran Erregeek emoniko Lege Berezi ta Erri-eskubideen artean, badala bat onan diñoana: Konderritar eta Jaurerritarrik eta bertako bizilagunik, Urietakoa zein Uriaundikoa izan, ezin daitekela Konderri ta Jaurerritik at iñoiz bere atara, ezta Gorteko arazoa izanda bere, azpikeririk, saldukeririk edo emakumea indarrez eroaterik, edo guzurrezko diruaren lege-austerik, edo guzurrezko errege-eskutitzaren edo

Auziez eta eskatzeaz

silluaren kasua izan ezik; eta beste arazo guztietan (Gortekoak izan arren bere) ezin daitekezala Konderri ta Jaurerritik at atara, gorago joteko asmoz ez baldin bada: eta onantxe ebela Legetzat eta Lege Berezitzat, eta nire aginduz Konderrira joan zan Txintxilla'ko Garzi-Lopez Lizentzidunak egiñiko Erriko arautzat. Erriko arauok nire Jaun eta Aita Erregek eta nire Ama eta Andera Erregiñak (goian izan beitez) onartuak izan ziran, betetzeko agindurik: eta oraindik orain, zuok, nire Gorte ta Goi-Auzitegian zagozen aitaturiko Oidoreok eta Bizkai'ko Epaikari orrek aitaturiko Foru ta Lege Berezi ta Erriko arauon aurka leen ekiñaldirako nire erabagi ta eskutitzak emoten jardun dozue, eta ori nire Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriarentzat guztiz iraingarri ta kaltegarri ei da, ori dala-ta, an ainbeste auzi-aldi ta eztabaida ta burrukaldi izanik: Konderri ta Jaurerri onek egin daustazan ainbeste serbitzu aintzat arturik, eta bizkaitar guztientzat ongarri ta mesedegarri danez, arazo oni Zuribidezko edo nire Mesedeari legokion urtenbide bat ezarri nengiala, erregu egiñik, mesedez eskatu eusten. Eta Konderri ta Jaurerrian gomuta aundiko nire Aitaleen diran Erregeengandik arturiko Lege Berezi ta Erri-Eskubide guztiak eta orain arteraiño gorde izan diranak orain bere gorde daitezan nire Mesedea ta Naia dan ezkero, nik ontzat izan neban eta arazo oni buruz neure Eskutitz au emoteko agindu neban: au dala-ta, Bizkai'ko Konderri ta Jaurerrian gorago esaniko arazoari buruz dituezan Lege Berezi ta Foru ta Erriko Arauok orain eta aurrerantzean gorde dagizuezala zuoi agintzen dautsuet, eta erritarrei ta bizilagunei gorde eragin dagioezuezala, eta ori betetzen eta gordetzen dozuela, Konderri ta Jaurerritik at iñor atarateko nire Dei-Eskutitzik ez dagizuela emon, ez bialdu, leen aitaturikoetan edo areetariko batetan izan ezik, eta bestetan ez; eta guztientzat agirikoa izan daiten, zuen Bizkai'ko Auzitegiko Epailekuan idaztol baten ezarri dagizuela: eta aren aurka Eskutitzen bat emon edo bialduko bazendue, men

Zazpigarren Atala

egin, baiña ez beite bete. Eta ez betetzearren Konderri ta Jaurerriko bizilagunak ez daitezala zigorgarri izan, eta euren aurka ez beite auzibidez jokatu. Eta nire Jaurerri ta Konderriak nire Lege berezi onen Eskutitzik nai izango baleu, nire Kantziller eta Notario ta nire Silluen Arduradun diran beste kargudunei Eskutitz ori egin eta emon eta eroan eta sillau dagiela agintzen dautset: eta ez batzuek eta ez bestetzuek ez egizue aurkarik egin; eta ezelan bere ez dagiela aurkarik egin, besterik egiten dauan bakotxari, nire mesedea galduaz gaiñera, nire Errege-Dirutegirako izango diran amar milla marairen zigorra ezarten jakola: eta Eskutitz au erakutsiko dautsun gizonari, etorteko deia artu ta amabost egunen buruan, nire Gortea dagoan lekuan dagoala, aitaturiko zigorrarenpean neure aurrera etorri eragin dagizula agintzen dautsagu: zigor beronenpean edozein Eskribauri agintzen dautsat, orretarako deitua izan baldin bada, erakutsiko dautsunari bere izenaz izenpeturiko agergarria emon dagiola, nire agindu ak zelan betetzen diran Nik jakin dagidan. Burgos'ko Uriandian emona, Jesukristo gure jauna jaio ezkero, milla bosteun eta zazpigarreneko Azaroaren ogeigarrenean. NEUK ERREGE ONEK. Neuk Lope Kontxillos'ek gure Andera Erregiñaren Idazkari onek aren aita Erregeren aginduz idatziazo neban. Konde'k. Alferez'ek. Martinus Doktor'ek. Talabera'ko Artxidiakonus'ek. Lizentziatu Muxika'k. Doktor Palazius Rubius'ek. Ezarririk. Joan Ramirez'ek. Kastañeda Kantzillerrak.

III Legea. Epaikari Nagusiari adieraztea.

Balladolid'go Uri Noblean, milla bosteun eta seigarreneko Azaroaren ogeitazazpigarrenean. Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriko ta bertako Uri ta Uriaundi ta Enkartaldeko Epaikari Nagusi dan Alderete Lizentzidun Jaunaren aurrean neuk Konderri ta Jaurerriko Eskribau Nagusi nazan Eskobar'ko Frantzisko onek eta beerago aitatzen diran Lekukoek jendaurreko

Auziez eta eskatzeaz

Auzialdia egiten geniarduela, Jaun Aundiaren Eskribau ta Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriko ta bertako Uri ta Uriaundiko Ordelari Sindiku dan Arbolantxa'ko Joan'ek gure Andera Erregiñaren Eskutitz eta Erabagi au aurkeztu eban: Epaikariak berau ikusi ta irakurrita gero, men egiola esan eban, eta, egin bere, gure Andera Erregiñaren Eskutitz eta aginduari dagokion begirunez eta maitasunez men egin eutsan; eta beraren betetzeari egokionez, gordetzeko ta betetzeko esan eban, oso-osorik eta edozergaitik bere berak dakarranez eta Erregin Aundiak agintzen ebanez gorde ta bete zeitela agindurik. Eta Arbolantxa'ko Joan'ek aren izenean agergarria eskatu eban; Auzitegi aretan Ordelari diran Mutxaraz'ko Martin Ruiz eta Oro'ko Anton eta Arrieta'ko Joan Lopez Lekuko izan ziran. Eta neu, Eskobar'ko Frantzisko, gorago aitaturiko Eskribau au, Lekukoekaz batera, guzti au esan zanean bertan izan nintzan: eta Arbolantxa'ko Joan onek aren izenean erreguz eskaturik eta esaniko Epaikari jaunak agindurik idatziazo neban, eta neure siñadura au emen orrexegaitik ezarri neban, egiaren agergarri. Eskobar'ko Frantzisko'k.

IV Legea. Beroni buruz agiria.

Eta onen ondoren aitaturiko Balladolid'go Urian, milla bosteun eta zazpigarreneko Azaroaren ogeitabederatzian; Alderete Lizentzidun Jaunak, Bizkai'ko Epaikari Nagusiak, Erregin Aundiaren Eskutitz onetan agindutakoa beterik, Auzitegi aretako Epai-lekuko Idaztolan ezarteko agindu eban, eta ipiñi bere, alantxe ipiñi zan, Erregin Aundiak Eskutitz onen bidez agintzen dituan atalak bertan ezarten zirala. Eta aitaturiko Arbolantxa'ko Joan'ek agergarritzat eskatu eban: Lekuko, Joan Gomez Nebro, aitaturiko Auzitegiko Eskribaua, eta Ballejo'ko Fernando, Eskribaua, eta Ortega'ko Joan, Eskribaua. Eskobar'ko Frantzisko'k.

V Legea. Korrejidoreak zein auzialdi ta zein ordutan egin daiken.

Zazpigarren Atala

Baita, esan eben: Foruz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Bizkai'ko Korrejidoreak, edozein lekutan aurkitzen dala, Auzialdia egin bear dauala, aste bakotxean iru egunez (au da) asteartez, eguenez eta zapatuz bertan egonik. Eta Auzialdia egiteko egunotan jai-egun izan baledi, jai-eguna ez dan urrengo egunez egin daitela; eta Auzialdia egin bear dan egunetan, Pazko egunetik San Migel egunerarte, eguerdiko ordubietan Auzialdia egiteko jesarri daitela; eta Auzialdia egiten egun orretako bostak arte egon daitela; eta San Migel egunetik Pazko egunerarte Auzialdia egiteko eguerdi osteko ordu batetan jesarri daitela eta laurak arte Auzialdia egiten egon daitela. Eta ordu orretara arte ez daitela iñor urrunekotzat salatu, ezta urrunde-zigorrik ezelan bere ezarri; eta Korrejidorearen Ordezkariek eta Bizkai'ko Foru-Alkateek bere orixe gorde ta bete dagiela, zigor onenpean: aitaturiko ordua jagoten ez dauan Korrijidoreak, galdu dauan egun bakotxeko, eun marai ordaindu dagizala: maraiok bera egotez dagoan lekuko Gaixoetxeko beartsuei emon dakiezala, eta aitaturiko Ordezkariek eta Foru-Alkateek bete ez daben eguneko irurogei marai bakotxak ordaindu dagizala, egotez dagozan lekuko Gaixoetxeko beartsuentzat izanik.

VI Legea. Lurralde Lauan ondasunak daukazan Bizkaitarren bat Urietan dauan zorrengaitik atxillotu ezkero, zer egin bear dan.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, edozein Uritan zein Uriaunditan bizkaitarren bat presondegiratu baledi, eta Uri edo Uriaundi aretan ondasunik ez baleuko, katigu dagoanak Lurralde Lauaren barrutian zer ondasun mogikor edo lurondasun dauan agerturik, eta Lurralde Lauaren barrutiko baibenak emonik, zordunak agertu dituan ondasunok ugariak eta akatsik bagakoak izan ezkero, zordunari jarein dakiola; eta berak agertu dituan ondasunak Bizkai'ko Lurralde Lau-

Auziez eta eskatzeaz

ko Foruaren arabera legez sal daitezala: eta Bizkai'ko Korrejidoreak ainbat lasterren jarein dakiola agindu dagiala.

VII Legea. Auzi-deiak zelan egin bear diran.

Baita, esan eben: Foruz eta antxiñako oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, bizkaitarren batek beste bati erri-auzibidez zerbait eskatu nai baleutso edo orretan baliardu, Korrejidoreari edo Foru-Alkateari edo onen Ordezkariari joan dakiokela, eta zertaz eta zenbatez eta zergatik eskatzen dauan agerturik, iru egunetako epemugaren barruan auzi-deia egin: eta auzi-dei onen bidez, zordunari ots egin dagiola, ber-bera aurki aal baleite, eta, bestelan, berak bizilekua non eta angoxe etxekoei, aren emazte eta seme-alaba ta sendiari gizonezko edo emakumezko lekuko baten aurrean aditzera emonik; eta deitua izan danak dei-agiria erakusteko eskatuko baleutso, dei-egilleak emon egin bear dautsala: zigor onenpean, erakutsiko ez baleutso, dana utsa izan daitela, eta egilleak ezer baiño leenago obendunaren eralketak ordaindu begiz, eta iñork ezin daikeola beste bati onelako ta arelako auzitarako egun beratan deirik egin.

VIII Legea. Urrundea zelan salatu bear dan.

Baita: Obendunari auzi-deia egin ezkero, dei-egillea irugarren egunez urrundearen salakuntza berari egitera beartu daitela. Eta egun orretan, Auzialdia egite orduan salakuntzarik egin ez balekio, auzi-deia utsa izan daitela, obenduna auzitara deitua izan ez bailitzan.

IX Legea. Urrundearen zigorraz, eta karta-gaiña zelan eta ze sarigaz atara bear dan.

Baita: Urrundea esaniko erara salatu ezkero, obenduna epearen buruan etor ez baleite, urrundeagaitik lau marai ordaindu dagizala, Erreiñuko Legearen eta Lansari-araudiaren arabera; eta Egilleak karta-gaiña eskatu daikela, eta Epaikariak sei egunen buruan egun biko iru

Zazpigarren Atala

epetan emon dagiola; eta sei egunetako epe-muga au azkenengoa izan daitela, orregaitik Egilleak Epaikariari bere sariak Lansari-araudiaren arabera ordaindurik: eta Eskribauak urrundeagaitik marai bat artu dagiala; beste guztia Lansari-araudiaren arabera.

X Legea. Karta-gaiña zelan adierazo bear dan, eta urrundea dala-ta, zelan jokatu bear dan.

Baita: Karta-gaiña onan atara ezkero, Egilleak Erri-Eskribauaren aurrean obendunari adierazo bear dautsala: eta karta-gaiña onan adierazorik, Egillea esaniko epe barruan aitaturiko Epaikariaren aurrean urrundea salatzera beartu bedi, eta auzi-eskari orren Obenduna gaitzetsi daitela eskatu begi. Eta eskabidea egun guzti orretan onan egiñik, Epaikariak Obenduna gaitzestea atzeratu dagiala: eta urrengo egunez, alderdiak eskaturik (Obenduna agertu ez zanez) eta alderdi orrek zin eginda beste barik, eskatutako erara ta aitatutako agindu ta Karta-gain eta Kopuruaren arabera oso-osorik gaitzetsi dagiala.

XI Legea. Obenduna agertu ezkero, gora-joten zelan eta zein kasutan jarraitu bear dan.

Baita: Obenduna onan gaitzetsita gero, Epaia berberari adierazo bekio, edo aren etxean, aitatu dan erara; eta jakitun egiñez gero, bost egunen buruan Gora-joteko asmoz Epaikari berarengana etor badadi eta Gora-jo badagi, zigorra eralketarik baga milla maraitakoa edo andik beerakoa danean, auzi-deia edo Karta-gaiña ber-berari adierazo jakola Epaikariak ziurkiro baldin badaki, olakoan, Gora-jotea edo Epaia deuseztatzea edo salakuntza edo bere buruaren zuriketa edo erakutsi daiken onango edozein eginbide ukatu dagiola eta, ori gorabeera, Egilleak eskaturik, Epaia betee-ragiteko agindua emon dagiola, alderdiak onarturikoa ta, obendunaren urrundea dala-ta, aren zigorrez eta setakerizko gorrotoz emoniko Epaia danez, oso-osorik eta Azken Epaia bai-

Auziez eta Eskatzeaz

litzan bete-eragiñik. Zigorra milla maraiz goitikoa balitz, ostera, Epaikariak Epaikari Nagusiagana jotea ontzat izan dagiala, alderdiak Gora-jotea onartu ezkero, eta esaniko Epaikariaren aurrean auzia aztertu ta garbitzea naiago izango baleu, barriz, ezer baiño leen eralketak ordaindu ezkero, Epaikariak entzun dagiola ta Egilleak bere eskaria egin, Obendunak bere bereizkuntzak ekarririk, eta oizko epaibidez jokatu dagiala.

XII Legea. Karta-gaiña dala bide, obenduna agertu ezkero, zelan jokatu bear dan, eta izkiriatzea noiz egingo dan.

Baita: Auzitara deitua izaniko Obenduna Karta-gaiñak ezarririko epearen barruan ager baledi, eralketak kitatu ezkero, entzun dakiola, Egilleak bere eskaria ta Obendunak bere bereizkuntzak oizko bidez egiñik; agertuko ez balitz, barriz, eta karta-gaiña ber-berari ez jakola adierazo Epaikariak ziur jakingo baleu, zordunaren ondasunak izkiriatze-bidea edo legearen arabera egiztatze-bidea edo, zordunari jakin eragin dakion, ber-bera aurkitu arte itxarotea Egillearen eskumendean izan daitela; eta onelan urrunekoa dana ezin daitekela gaitzetsi, izkiriatze edo egiztatze-bidea geienetan aukeratu baiño.

XIII Legea. Bizkai'ko Epaikari guztiek Atal onetako legeen auzi-era gorde dagiela, Lege onek dakazan kasuetan izan ezik.

Baita: Aitaturiko Konderri ta Jaurerriko Korrejidore naiz Foru-Alkateek eta oneen Ordezkariek euren edozein Auzitegitan, ondasun mogikor eta lur-ondasun eta abere guztiak dirala-ta egin oi diran auzitaldietan gorago ezarririko era ta jardunbidea berbaz-berba euki ta gorde dagiela, orain arte usarioz eta oituraz gorde izan dan edozein Foruren Lege ta usario ta oitura ta betebearrak gorabeera; guzti au erabagi onen aurka dan edo izan daiteken giñoan ezeztu ta ustela ta utsa egin eben, indarrik eta ondorenik

Zazpigarren Atala

bagakotzat eukirik, bosteun maraiz beetikoa ta iñoren solo ta garaunetan ganaduak egindako kalteen eskariak izan ezik: olakoan, bada, antxiñako Foruaren arabera bere zorduna baitura biziez lotzea, onelangorik izan ezkero, Egillearen eskumendean izan daitela, legepean dagoala ta epaiturikoa ordainduko dauala-ta zordunordea ezarri arte abeletxera eroanik, eta zordun-ordea izendatu ezkero, baitura biziei alik eta lasterren jarein dakiela, eta zordun-ordeak zein Epaikarigana ta zein epetan joan, zotz egiñik, autatu dagiala, eta ezarririko epean alderdiak Epaikari aren aurrean aurkeztu daitezala: eta an Egilleak bere eskaria egin dagiala, obendunak bere bereizkuntzak eta babespideak ezarririk, eta auzia oizko bidez garbitu daitela, eta ordaintzearen epe-muga amaitu dalako, Obenduna gaitzetsi baldin bada, Egilleak zor nagusiaren eta eralketen ordez baitura biziez lotu dagiala, osoosorik ordaindu dakion arte abeletxean eukirik; eta baitura biziok il edo galdu egingo balitzaz, zordun-orde beraren beste baitura batzuk abeletxeratu daikezala, aitaturiko ordaiña eskuratu arte; leenengoz eta abarrez abeletxeratu dituanean, baiña, Egillea, baitura biziak ziurziur abeletxeratu dituala eta zenbat eta zergaitik Obendunari eta onen zordunordeari egun aretan bertan jakin eragitera beartu bedi, iñorena bere aginpidez bereganatu dauanaren aurka legez ezarririko zigorrenpean.

XIV Legea. Urrundearen zigorrari ta eralketei buruz.

Baita: Alkartze-une onetara agertu ez dan edozein alderdik, agertu danak urrundea salatu ezkero, agertu danari urrundearen zigortzat amabi marai ta egun orretako jana ta alogera Epaikariaren naierara ordaindu dagiozala.

XV Legea. Izkiriatzearen sariak dirala-ta.

Baita: Aitatu dan aolku-bidez auzia ebatzi ta garbitzeari gagokiozala, Prestameruak eta Merinuak eta oneen Ordezkariek aitaturiko izki-

Auziez eta Eskatzeaz

riatzea egite ordez, edo zerbaiten edo zerbaitzuen eukitzea emote ordez, Erreiñuko Lansari-araudiak agintzen eta erabagiten dauana bakarrik artu dagiela saritzat, eta geiagorik ez, eta arduraz eta alegiñez euren egitekoa burutu dagiela; zigor onenpean, Legeak dakazan eta Epaikariak ezarriko dautsazan zigorrez gaiñera, aren ordez etorten zenbat egun bear izan dituan eta arenbesteko jana ta alogera ordaindu dagizala, auzia ebazten dauan Epaikariaren naierara.

ZORTZIGARREN ATALA, ZIGOR-AUZIetako egikeraz eta jardueraz, eta Epaikariari egintzaz dagokiozan egiteez.

I Legea. Lege-Ausleak egintzaz zein kasutan auziperatu ta atxillotu daitekezan, Gernika'ko Zugazpera deitu baga.

Leenengo esan eben: Foruz, usarioz eta frankezaz eta Erri-eskubidez ebela, edozein lege-auste ta gaiztakeri dala-ta, ez Jaun Aundiak, ez aren Epaikariak, ez aren Kargudunak ezin daikela Egintzaz azterraldirik, ez billaketarik egin, ezta egiteko agindu, ezta Egilleak edo Fiskalak edo eragilleak edo Prestameru ta Merinuak eskatu arren bere, *lapurtzea ta ostutzea, emakumea indarrez eroatea, lurraldean seniderik ez daukan erbestekoren bat iltea eta bideetan eta bidetatik kanpo ardauagaitik agurka dabiltzan eskekoak (Foruan eskale deritxenak), emakume lotsabagako ta auzo naastaille ta liburu zantarren antzera bertsoka ta kantaka diarduenak (Foruz barritsu deritxenak) eta estalgilleak (Foruz estalgintza deritxana) eta gizonezko ta andrazko aztiak dirala-ta izan ezik.* Eta Fede ukatzearen eta Erregeren aurka egindako lege-austea, ta guzurrezko dirua egin eta dirua aizundu ta karrakatu egiten dabenenen aurka ta sodonkeria dagitenen aurka. Onelangoak izan ezkero, azterraldia ta baillaketa egin daitekela ta atxillotu ta presondegiratu bere bai, Foruak

Zortzigarren Atala

dakazan ogeitamar egunen buruan Gernika ko Zugazpera deitu baga, lege-austea aundi-aundia ta eriozigorgarria izan arren bere; eta atxillotu eragin ezin badakie, Zugazpera deitzebidez egin daikela.

II Legea. Guzurrezko lekukoen eta oneetarikoak azpitik erosten dituenen aurka auzibidez zelan jokatu daiteken.

Baita: Aitaturiko gaizkilleez gaiñera, guzurrezko Lekukoen eta azpikeriaz eta koipekeriaz erosten dituenen aurka Epaikariak Egintzaz jokatu daikela, Lekukoak berak autortu daualako zein aldatu egin dalako zein bere burua guzurtau egin daualako zein beste era batez auzibidean guzurra agertu baldin bada: guzurra ager daiten, baiña, beste azterkuntzarik ez daitela egin, lekuan ikusi izana ta agiri-agirikoa izatea ta norbere begiz ikusirikoa ta Lekukoak barriro ekarri ta alkar jotea baiño. Eta, olakoan, Epaikariak ezin daikela eskubiderik izan onelango Lekukoaren aurka auzibidez jokatzeko, Lekukoak berak autor egin eban auzian izan ezik, ez epaitua izanda gero, epaia emon aurretik onango Lekukoaren aurka ez baliardu: olakoan, bada, auzibidea asita gero, jarraitu daikela ta edozein unetan epaitu bere bai, auziaren arazo nagusia garbitu aurretik zein garbituta gero. Lekukoak aurka egin eutsan alderdiak eskatu ezkero, barriz, edozein unetan Lekukoaren aurka ekin daitekela. Eta onelango Lekukoari bere buruaren alde entzun dakiola eta bere errugetasuna erakutsi ta egiztatu aal izan dagiala, bere burua zuriturik, oi dan eraz eta aal izango leuken beste edozein bidez eta eraz.

III Legea. Biraolarien aurka egintzaz jokatu daitekela.

Baita: Aitaturiko lege-ausleez gaiñera, Epaikariak Egintzaz diardualarik, Gure Jaun eta Jainkoaren eta Santuen aurkako biraolariak atxillotu daikezala, oneelakoen zigorra Erreiñuko Legeen eta Bizi-legeen arauz ogeitamar egunetarako presondegiratzea dalarik.

Egikeraz eta Jardueraz

IV Legea. Biraolariak eta barriro ukatzailleak eta euron presondegiratzea dala-ta.

Baita: Aitaturiko lege-ausleez gaiñera, Gure Jaun eta Jainkoaren eta Santuen barriro ukatzailleen eta biraolarien aurka Epaikariak Egintzaz jokatu daikela. Onangoetan, baiña, Erreiñu ta Bizi-legezko zigorra presondegiko ogeitamar egunez goitikoa baldin bada, Zugazpera deituta izan ezik ezin daikela atxillotu.

V Legea. Zigor-auzietan eskubidez zein epaikarik epaitu daiken.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Bizkai'ko Foru-Alkate dan iñork ezin daikela zigor auzirik eskubidez aztertu ta epaitu, Bizkai'ko Korrejidoreak eta onen Ordezkari Nagusiak eta Korrejidore beraren beste Ordezkariek baiño, bakotxak bere lekuan eta aginte-barrutian.

VI Legea. Foru-Alkateek eskabideak onartu egin bear dituela.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, aitaturiko Foru-Alkateek euren Auzitegietan Letrau ta Lege-gizon ezagunen izkribuak onar dagiezala: Letrau ta Lege-gizonok izenpeturik etorri ezkero, eta bestelan ez, bosteun marairen Eskakizuna ta andik beerakoa izan ezik.

BEDERATZIGARREN ATALA, AKUSAZIño ta salakuntzei buruz; eta onangoetan zelan jokatu bear dan.

I Legea. Zigor-Auzitako salakuntzak zelan egin bear diran.

Lenengo esan eben: Bizkaitarrek Foruz, oituraz eta antxiñako ta betidaniko oituraz ebela ta

Bederatzigarren Atala

Legetzat ezarten ebela, edozein lege-auste ta gaiztakeri dala-ta, astuna zein ariña izan, iñork bere ezin daikela iñor beronen izenaz salatu, lege-auslea ta gaizkillea andi-andika salatu ta akusaturik baiño, aren izena aitatu ez eta salatua nor dan edo salatuak nortzuk diran esan baga, salakuntza-liburuxkan non eta noiz, zein illetan eta urtetan eta beste Legezko betebearrak ekarri ezkero. Eta beste eratako akusaziñorik eta salakuntzarik Bizkai'ko Korrejidoreak ez dagiala zigor-auzitarako onartu, ez onartu eragin, ezta aren Ordezkariak bere, eta onango salakuntzagaitik ez dagiala auzirik epaitu eragin, ezta obendunari deitu eragin eta berau atxillotu eragin bere. Eta onango salakuntza onartu ta azterraldia egiteko, deitzeko ta atxillotzeko aginduko baleu, ori egin daiteken kasuetan, orrelako azterraldia ta deia ta presondegiratzea ta arazo oni buruz egin daiteken guztia, utsa ta indarrik eta ondorenik bagakoa izan daitela: eta Korrejidoreak edo Epaikariak atakotzat izan eta onantxe dala erabagi begi, deitua ta presondegiratua izan danak aurka egiñik, azken erabagitzat ori eskatu ezkero: zigor onenpean, Epaikaria eralketa ta kalte ta geituko litzatekezan etekiñak bere gain artzera beartu daitela, betebear au beregana turik; eta orretan aurka egin dauanak zin egin baldin badau, sinis dakiola ta gaiñera Auzibidea utsa izan daitela. Alderdiak aurka egiterik nai izango ez baleu, baiña, ezta artaz baliatzerik bere, Auzibidea aintzat artu daitela.

II Legea. Zigor-Auzietan argibideak eta egiztagarriak zelan jaso bear diran.

Baita, esan eben: Onelango auzigai ta salakuntzak etorri ezkero, Korrejidoreak berak edo onen Ordezkariak bere zeregiñakaitik edo beste zerbaitegaitik ez dauala legearen arabera egiztagarririk jasoten, lege-austea aundia izanda bere, argibide ta egiztagarriak jasotzea Auziaren Eskribauari edo salatariak izendatzen dauanari leporaturik; eta auziari buruzko egiztagarriak ixilmixilka ta beti egiazkoak ez

Akusaziñoak

ziranak jasoten zituela; eta Bizkaia'n alderdikeri ta areriokeri aundiak diralako eta guzurrezko Lekukoentzako tormenturik ez zalako, salatu izan ziranei kalterik eta okerrik ugari etorten jakela. Orregaitik, Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Korrejidorea ta onen Ordezkaria, Artzaille Esku-ordeagaz batera, Egintzaz zintzoa ta legebidezkoa ta zin egindako euren Aldun izango dan euren Auzitegiko Eskribau laguntzaille bat bialtzera beartu daitezala, eta egiztagarriak zintzoro ta egitan jasoko dituela legearen arabera Eskribau biei zin eragin dagioela, eta Epaikariari baiño beste iñori zuzenka naiz zearka agertu baga, iragarri arte aopean euki dagiezala; eta au, lege-auste orregaitik eriotza edo gorputzzatiren bat ebatea edo odolaren isurtea edo zigorkadak edo betirako erbesteratu bearra jazo daitekela Epaikariak ikus dagianean soillik, eta laguntzaillea Salatariaren pentzutan doala: eta berberak Lekukorik geiago Epaikariagana aitaturiko laguntzaillerik baga ekarri nai badau, ori beraren aukeran izan beite: olakoan, baiña, Lekukoak aztertzen diranean, Epaikaria bera bertan izan daitela: *eta Lekukook gaztelerarik ez dakien euskaldunak izango balitz, aztertu dagizala, egiztagarriak beste Artzaille ta Itzultzailleren bidez jasorik.* Beste kasu guztietan, barriz, Epaikariak izen onekoa dan eta irugarren maillaren barruan Salatariaren senide edo koñau ez dan edozein bizkaitar Eskribauren ardurapean itxi daikela argibide ta egiztagarriak jasotea. Au egin eta bete zigor onenpean egin daitela: gorago erabagitakoaren aurka agertu ta jaso diran egiztagarri ta argibideak, norbaitek salatzen baldin baditu, utsak eta indarrik eta ondorenik eta aztarrenik eta agergarririk bagakoak izan daitezala; eta (salatu izanak eskatu ezkero) leen izkribua jendaurrean alik eta lasterren erre daitela, biridatzirik eta leen izkriburik gelditu baga, onan ekarritako Lekukoak baituak izateko bidea kentzeko: eta auzieralketa, kalte ta geitu diran etekin guztiak alderdikoei ordaintzera Epaikaria beartu daitela, gaiñera.

Bederatzigarren Atala

III Legea. Epaikariak lege-ausleari bera ager daitela zein kasutan agindu daikeon, eta onangoaren presondegiratzea.

Baita, esan eben: Egiztagarri ta argibideok ikusita gero, jazo oi danez, lege-austea txikia dalako naiz Obendunaren aurka bear-ainbat eta nai beste egiztagarri ez dalako, Epaikariek Zugazpera agertzeko dei-epairik ez dabela emoten, Obenduna bera euren aurrera etor daitela agindu baiño; eta gero, salatariak zirikatuta, Obenduna etorri ta erri-presondegian katigu eukiten dauala, edo beste lekuren edo erriren baten, erria presondegitzat damotsolarik; eta au Foruaren aurka dala, *Zugazpera ekarri ta legegatu baga iñor ezin daitekela presondegiratu Foruak agintzen dau-ta.* Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Erabagiten ebela, iñori ez dakiola berbera etorteko agindu, ezta orretara beartu bere, lege-austea txikia ta ariña danean baiño, eta lege-austea aundia izan badadi, bear-adiña ta naiko agergarri danean baiño; olakoan, Obenduna bera etorri ezkero, ezin daitekela atxillotu, ez erriko presondegira eroan, ezta beste lekuren baten katigu euki bere: salatua izan dan Obendun onek legepean dagoala erantzuten daben presondegi-zain erantzugilleak ekarri ta epaitutakoa ordaindu ezkero, eta onango baibenak emon baditu, presondegiratzeko agindu baga eta ezertariko giltzaperik jasan baga (Obendunak eskatu ezkero), *Epaikariak auzibidearen kopia ta bir-izkribua berari emoteko agindu dagiala, ta bere etxera joan daitekela:* zigor onenpean, besterik egiten dauan Epaikariak eralketa, kalte ta etekin guztiak Obendunari ordaindu dagiozala; eta lege-austea baibenik ez ezarteko beste aundia izango balitz eta *beraren autormenagaitik errudun dala agertu ezkero, olakoan, joaten laga dagiola eta Epaikariak, Foruaren arabera, aren aurka dei-epaia emon dagiala.*

Akusiziñoak

IV Legea

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Bizkaia'n egiten dan edozein gaiztakeria ta lege-austeren azterketa ta billaketa dalata, Epaikariek urrengo era ta modu onetara jokatu bear dabela, eta onantxe jokatu dagiela.

V Legea. Lege-Ausleei ots egin bear jakela, eta urrundean dirala, areen aurka zelan jokatu bear dan, eta, ots egin baga, zein kasutan atxillotu daitekezan.

Enelango azterketa ta billaketa dala bide, orbandun eta obendun aurkituko litzatekezanak ezin daitekezala atxillotu eragin, ezta atxillotu bere, deiepaia emon baiño, ogeitamar egunen buruan eta amarna egunetako epetan gaizkilleei ta legeausleei Gernika'ko Zugazpera deiturik, epeon barruan eta oneetariko bakotxean, aitaturiko Konderriko erripresondegian azaldu daitezan, euren aurka egindako salakuntza ta billaketa-dirala-ta, euren buruak zuritu dagiezan; zemai au egiten jakela: ager badaitez, entzungo jakela, euren alde zuzena dana egiñik, eta urrundean, barriz, aurka egin eta gaitzetsi egingo dirala, azken epaia emonik, urruneko ta autorgille ta errudun eta euren aurka salatu dan lege-austearen edo lege-austeen egilletzat izanik, eta legegatu ta atzerriratu egingo dituela, euren aurkaemongo litzateken aitaturiko epaia euren aurka bete-eragiñik; lapurtuz eta ostuz egin oi dan lege-austea ta gorago aitaturiko beste lege-austeak izan ezik, onangoetan, Epaikariek egintzaz atxillotzea zillegi da-ta; eta gaizkillea narruaz eta aragiaz (au da) egikeran bertan edo gaiztakeria egin eta ogeitalau orduren barruan arrapatuko balitz, olakoan, aitaturiko epe-muga orretan (ots egin barik) atxillotu daitekela, edozein astuntasunezko edozein lege-auste izanda bere. *Eta era berean, Bizkai'ko Erri-mugetatik ateko diran erbestekoak Zugazpera deitu barik atxillotu daitekezala, edozein gaiztakerigaitik eta edozein alditan: aldenduko*

Bederatzigarren Atala

diralakoaren susmoa dago-ta; onelantxe atxillotu beitez azti ta sorgiñak eta emakumea indarrez daroenak bere (emakumea indarkatu, egokiago esanda), ez, baiña, koipekeriz eta berba labanez eta guzurrez neska galtzen dauana, indarrez agirian galdu ezik.

VI Legea. Gernika'ko Zugazpera gaizkilleei zein justizigiñek dei egin bear dautsen eta zelan, eta ze sari izan bear daben.

Baita: Dei-epaia Erri-Eskribauaren aurrean emonda zero, Epai onen indarrez edo egiztabidez edo autormenez, Bizkai'ko Prestamerua edo aren Leku-Ordezkaria, berau izan aal badadi, eta au izan ezik, Busturi'ko merinaldeko Merinua edo onen Leku-Ordezkaria Merinalde aretako Merinu txikiagaz Gernika'ko Zugazpera joan daitela: eta an, Erri-Eskribauaren aurrean, epaia iragarri dagiala, epai aren arabera ta epai berak dakarranez, Bizkai'ko Erri-presondegian azaldu daitezan dei egin dagioela, au baiño leenagoko Legeak eta dei-epaiak dakarrezan zigor eta zemaienpean; eta dei egite onegaitik, aitaturiko Prestameruak eta aren Ordezkariak ogeitalau marai eskuratu dagiezala; eta Merinuak dei egingo baleu, amabi marai, deiturikoa bat bakarrik zein bi zein iru zein geiago izan badira bere; eta Eskribauak Lansari-araudiaren arauz bere sariak jaso dagizala; eta dei beragaitik, deitua bat izan ezkero, Merinu txikiak sei marai jaso dagizala; bi izan ezkero, amabi marai; eta iru izan ezkero, amazortzi marai, eta deiturikoak geiago izan arren, sari aundiagorik ez daitela izan.

VII Legea. Deia egin zala zelan adierazo bear dan.

Baita: Esaniko erara ta modura dei egin da gero, zein Eskribauren aurrean deia egin zan eta Eskribau berak egindako deiaren egiztabidea ta agiria salatariari emon begioz; eta egiztabide ta agiri au salatariak Eskribauaren aurrean tinkotu egin bear dauala (au da) deitu izanak nongo erri-

Akusaziñoak

tar edo bizilagun diran eta leku aretako eliza nagusiko ateetan agiri aren bir-izkribua tinkoturik eta domekaz, meza nagusi bitartean, deia egin eta amabost egunen buruan ori egiñik, edo, esaniko erara, agiria tinkotu nai izango ez baleu, deiturikoei eurei Erri-Eskribauaren bidez jakin eragin dakiela; zigor onenpean, aitaturiko epe-mugan deiaren bir-izkribua tinkotuko ez baleu, edo, esaniko erara, berberak adierazoko ez baleutso, deia utsa ta ezereza izan daitela, baliorik eta indarrik bagakoa, eta deia barriro egin daitela, eta Epaikariek leenengo deiaren egitez ez dagiela epaitu.

VIII Legea. Deia egin zala deitu jaken guztiei adierazo bear jakela, bat bere laga barik.

Baita: Aurreragoko zatian esan danez, bakotxari adierazoten edo adierazoko jakonean, ikusien gaiñera ikusi izan danez, deitu izanak asko baldin badira, salatzen diranen artean alde batetik eta bestetik, tratuak izaten dirala; euretariko batzuk aaltsu edo lagun diralako edo beste zerbaitegaitik ez-entzun egin eta egindako deiaren agiria eurei adierazotea luzatu egiten dabela, orretarako era ta bideak aurkiturik, eta orrelan aaltsu ta lagun ez diranei, ostera, adierazo egiten jakela, baita erru txikiagoa izan arren bere: ori dala-ta, obenak zigortu barik gelditzen diran ezkero, Justizi-egintzaren eta Erriaren eta alderdien kaltetan okerrak geitu egiten dirala; eta batzuei buruz ez-entzun egin eta beste batzuei adierazotea salakuntza egin dauanaren eskumendean eta aukeramenean izatea, auziaren ebazkizuna zatikaturik, ez dala zuzenbidea ta arrazoibidea, Batzuei gaur eta beste batzuei biar jakin eragingo balitzakie, orixe egingo litzateke; eta au legearen aurka doa eta iruzurbidea ta alkar artzeko bidea izan oi da. Eta au galazoteko, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, salatuak eta deituak izan diranak zein lekutan bizi diran eta egotez dagozan eta leku aretako eliza nagusian edo eliza nagusietan esaniko epearen buruan aitaturiko agerkaia

Bederatzigarren Atala

(esanda dagoanez) tinkotzera edo deitu jaken guztiei berberak adierazotera salataria beartu daitela; zigor onenpean, tinkotu edo adierazo ezik, aitaturiko deia utsa ta ezereza izan daitela: eta deitu jakenetakorik iñork (deia eurei jakin eragin arren bere) ez daukala aren egitez presondegi aretara agertu bearrik; eta azaldu ez dalako ez daitela ezelango zigorrenpean jausi, ez orrelako zigorrik bereganatu; eta deitutakoren batzuk, alkar artze ori jakin ez dabelako edo nagikeriz azaldu egingo balira, dei a egiteko agindu eban Epaikariak alkar artu dabela ta bere deia ez dala tinkotu, ezta guztiei adierazo bere, ziur jakin ezkero, ezin daikela auzia ebatzi, azaldu diranei ordubete barru jarein eragin dakiela agindu baiño, berak eta Prestameruak saririk artu baga, ezta presondegizaiñak bere, eta azaldu diranak egindako eralketa ta kalte guztiak eta kargudunen sariak salatariari leporaturik: eta besterik egingo edo ebatziko balitz, utsa ta indarrik eta ondorenik bakoa izan daitela; salatariak, barriz, auzi nagusian bere eskubidea izan dagiala Legearen arauz guztientzat batera auzi ori aurrera eroan aal izan dagian, azpitik erosi ez baldin badabe; erosi egin dabela agertuko balitz, Legearen zigorra bereganatu dagiala eta ezin daikezala besteak salatu.

IX Legea. Bizkaitarri ezin dakiokela iñon tormenturik ezarri, ezta zemaika bere, kasu batzuetan izan ezik.

Baita, esan eben: Bizkaitarrik geienak Aitonen Seme diranez eta Bizkaia aske ta Lege Berezidun danez, edozein legeaustegaitik bere, aundia zein txikia, erriarena zein batena izan, iñoiz ez dala berton tormenturik ezarri. Orregaitik, Foruz, usariaz eta antxiñako ta betidaniko oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Epaikariek ezin daikeela Bizkaia'n edo beste nonbaiten ez zuzenka, ez zearka bizkaitarri tormenturik ezarri, ezta onetariko tormentuz zemaitu bere, fede-ukatzearen lege-austea, Erregeren kaltezkoa, guzurrezko diruarena ta izatearen aurkako edo sodonkerizko pekatua izan ezik.

Akusaziñoak

X Legea. Aztarrenez zelan eta zein kasutan gaitzetsi daiteken.

Baita, esan eben: Bizkai au menditsua, mendiz eta bakarlekuz beterikoa ta lurra edatua dalako, edozein legeaustegaitik bere ezertariko tormenturik ez ezarteko Lege Berezidun dala, aurreragoko Legeak dakarrenez; eta berton alderdikeriak eta griñak diralako, ixillik eta ezkuturik, guztiz egiztatu ezin daiteken eraz, legeauste ta txarkeririk asko egiten dala, eta legeauste asko zigortu baga gelditzen diran ezkero, gaizkilleak legea austeko geroago ta azartuago egiten dirala. Orregaitik, aitaturiko kalteok galazoteko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, egindako lege-austea lapurreta edo ostutzea edo geziz zauritzea edo leku bazterren baten edo gauez edo arriskurik baga egindako eriotza izan badaite, olakoan, *gaizkilleari (Aitonen Seme izan ezik) bidez eta legez tormentua ezarteko adiña aztarren eta eretxi baldin bada, aztarrenok eta eretxiok bizkaitar bati oizko zigorra ezarteko naikoa izan daitezala, berezko eriotza emoteraiño bere bai;* bestelako lege-auste ta gaiztakeriak diranean, barriz, oizko zigorrik ez daitela ezarri, aukerabidezkoa baiño, esaniko susmoak eta lege-austearen astuntasuna zelangoak direan eta alangoxea, eta gaizkillea ta salatu izana ta salataria ta iraindu izana nor eta zein bizikeratako, jatorritako ta lanbidetakoak diran gogotan izanik; aukerabidezko zigor au, alan bere, ezin daiteke eriopekoa izan, ez gorputz-zatiren bat ebatea, ez odola isurtea, ez gorputza zigortzea, ez izen ona kentzea, ez ondasunak edo ondasunen batzuk galtzea, ez iru urtez goiti erbesteratu bearra; eta orrelakoaren erbesteratzea ez daitela Bizkai'tik eta Bizkai'ko aginte-barrutitik kanporakoa izan, bertoko errimendekoa baiño.

XI Legea. Erri-Auzitan ezin daitekela iñoiz bere "ad perpetuam rei memoriam" lekukorik ekarri, alderdiari ots egin barik.

Bederatzigarren Atala

Baita esan eben: Bizkaia'n onango griña ta banakuntzak diralako, *eta Lekukoei egia atara eragiteko tormenturik ez dalako,* gorrotoz zein diruzalekeriz zein beste zerbaitek eraginda egiaren aurka autor dagitenak asko dirala, eta Epaikariak eurak bere, Legeak erabagiten dauana gogoan izateke, okerbide izan oi dirala; Epaikariok, bada, erri ta diru ta zigorauzietan bakarrik *"ad perpetuam rei memoriam"* deritxan egiztabidea legez aintzat artu bearrean, Legeok dakarrenaren aurka egiñik eta zuzenbidea urraturik, orrelako egiztagarriak Lekukoengandik errez baiño errezago jasoten dituela; eta, okerrago dana, beste alderdikoei ots egin eta entzun baga ta maltzurkeriz ori egiten dabela, eta onango legezko egiztabidea utsa ta indarrik bakoa izan arren, bizkaitar askok onartu egiten dabela, gai orri buruzko auzia asi nai dabenerako edo ustez etorriko jakenerako orrelako Lekukoak eurentzat irabazirik euki dagiezan eta euren aurkariak bere asmoa Lekukoongan oiñarritu ez dagian; eta onan beste alderdiari bere asmoa egiztatzeko aalmena ta indarra kendu egiten dautsoe, naiz ez jakitez naiz legeaustea iruzurrez egiñik naiz alderdikeriz, Epaikariak orretarako makurberak dira-ta, ortik okerrik asko etorririk. Eta onan sortzen diran eta bestelango okerbideak galerazoteko, Foruz ebana Legetzat ezarriz, erabagiten ebela, onantxe erabagirik, iñongo Epaikarik ez dagiala ez erriauzitan ez diru-auzitan *"ad-perpetuam rei memoriam"* deritxan egiztabiderik onar, ez onartu eragin beste alderdiari ots egin eta entzun baga, zigor onenpean: onango egiztagarririk iñoiz bere ez daitela atakotzat ar eta ez dagiala indarrik ez aztarrenik izan; eta Auzi-liburua beingoan erre daitela, aren bir-izkriburik eta aldakirik gelditu baga, baituak izan diran Lekukoak euren buruaren jabe egin eta bear dan aldian eta lekuan egia autor dagien. Eta aitaturiko alderdiari ots egin baga orrelako egiztabidea ontzat izan edo onartu eragin edo norbaiti egiteko agintzen dautsan Epaikariak, gaiñera, orrelakorik egiten dauan bakotxean, bost milla marai

Akusaziñoak

ordaindu dagizala, erdia beste alderdiarentzat, egiztabidea onen aurkakoa izan zanez, eta beste erdia Konderriko bideak konpontzeko. Zordun iges egillearen eta erbestekoen kaltez argibideak jasotzeari bagagokioz, barriz, arazo oni buruz diarduan Toro'ko Azalpenak bere indarra izan begi ta sendo izan bedi, eta zigorauzietan egiztagarri izateko, salakuntza egiteaz gaiñera, orixe berori egin bedi.



AMARGARREN ATALA, EZKUTATZAIlleei buruz.



I Legea. Ezkutatzailleei buruz.



aita, esan eben: Bizkaia'n salatu diran eta deia egin jaken gaizkilleak urrunekotzat salatu, legegatu ta atzerriratu egin dirala iragarri ezkero, estaldu egiten dirala, babesa, jana ta laguntza eurei eskeintzen jakela, eta onan oker geiago egiten jarraitzeko ausartasuna izaten dabela. Orregaitik, onelako ta bestelako okerbideak galazoteko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, batzuren batzuk gaiztakeriagaitik epaitu ta atzerriratu diranean, epaia elizateren baten edo elizate batzuetan, domekaz, Meza nagusi bitartean guztientzat jakinbide izateko eraz Erri-Eskribau danak iragarri baldin badau, alan epaitu ta erbesteratu izandakoa bere etxean gordetzen erri aretako iñor ez daitela ausartu, ezta jaten emoten eta laguntzen bere, Ezkutatzailleen kaltetan Foruz eta Legez ezarririko nekeenpean; Bizkaia'n, barriz, edozein lege-auste eginda bere (onelako edo arelako lege-auste batzuk izan ezik) *ezin daitekela bizkaitarrik presondegiratu, ogeitamar egunen buruan Gernika'ko Zugazpera deitu baiño, eta epe-muga au igaro arte ta lurraldeko Lege berezien arabera epaitu arte, aske ta bere buruaren jabe izan daitela; eta, ibilli bere, onelantxe ibilli bear dauala (salakuntza egin jakon Epaikariak berak bere ezin daikela orrelakoa*

Amaikagarren Atala

atxillotu). Eta aitaturiko gaizkilleek, jazo oi danez, aldi onetan Lurralde Lauko etxe ta baserrietan eta adiskide ta senideen artean ostatua izaten dabenez eta ostatu au damotsenak Ezkutatzaille dirala esaten dabelako, Konderriko Epaikariek eta etorri oi diran beste Epaikari Aztertzailleek, Ezkutatzaille bailiran, areen aurka egiñik, presondegiratu ta gaitzetsi egiten ditue, jokabide au Lege ta Foru ta lurraldeko Lege Berezien aurkakoa izanik. Orregaitik, agintzen ebela, onantxe agindurik, *iñork iñori bere etxean ostaturik eskeiñiko baleutso, gaizkille dala edo edozein lege-auste ta gaiztakeri egin dauala jakin arren bere, epaitu baiño leen, ezin daitekela orrelakoa Ezkutzailletzat artu, eta Ezkutzailleari dagokion zigorrik ez dagiala bereganatu, ezta ezertariko nekerik bere;* eta ez Konderriko Epaikari batek, ezta beste Aztertzaillek bere, ezin daikela alakoa ez zuzenka ez zearka epaitu, zigor onenpean, besterik egin edo bestelako epairik emongo baleu, utsa ta indarrik eta ondorenik bakoa izan daitela.

AMAIKAGARREN ATALA, KONDERRIko erri-presondegiaz.

I Legea. Presondegi bi izan daitezala, eta presondegizaiña nor izango dan, eta Prestameruak bere egintza non egin daiken.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Erri-Presondegia Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriko leku bitan izan daitela; bata, nagusia, Gernika'n, Korrejidorea ta Ordezkari Nagusia egotez antxe egon oi dira-ta, egon bere, antxe egon bear dabe-ta. Eta bestea, Bizkai'ko Korrejidorea non bizi dan eta egotez non dagoan eta antxe; eta oneetariko edozein lekutan Prestameruak etxea ta toki egoki ta bear ainbestekoa euki dagiala, eta presondegiratu izanak ondo zainduta euki dagizan, bertan oin-billur, kate ta beste oin-burdiñak eta zurartea izan dagizala,

Erri-presondegiaz

katigu dagozan gaizkilleak askatu ez daitezan eta eurengan zuzentasuna egin daiten; eta bere katiguzain on, ogasundun eta zintzo bat izan dagiala, Presondegi bata zein bestea arduraz jagongo dituana, katigu-zain egokiak ez dituan beteeragillearen kaltetan legez eta alderdikoen naiez ezarriko zigorrenpean. *Eta Prestameruak Gernika'ko Presondegian daukan katigu-zaiñak Prestameru egintza Busturia ta Markiña'ko Merinaldeetan soillik egin daikela, Presondegia antxe dago-ta; beste Merinaldeetan, barriz, ez, oraingo usarioa orixe dalako; orrelangoa Ebro'z arantzakoa* ta Prestameru Nagusiak izan bear dituan gaitasunak daukazana izan daitela.

II Legea. Dei egin jakenak, eurek nai izango leukeen presondegian azaldu daitekezala; eta Korrejidorearen aurrera euren pentzutan bein eroan daitezala autorpenak egiteko.

Baita, esan eben: Bizkaia'n aitaturiko leku bietan izan dala Erri-Presondegia, eta, izan bere, antxe izan bear dauala. Orregaitik, Legetzat ezarten ebela, Korrejidorearen naiz Ordezkariaren deiepaiz deitua izan dan edozein bizkaitarrek zein Presondegitara joan nai dauan eta antxe azaltzeko eskubidea ta aukeramena izan dagiala, naiz Gernika'koan naiz Korrejidorea egotez dagoanekoan; eta Korrejidoreak edo onen Ordezkariak onelan azaldu diranak zaintzaille zintzo ta jagola onenpean bere aurrera bein erakarri daikezala autorpenak artu dakiezan, eta erakarte au azaldu danaren bizkar izan daitela, ordaindu bearrekoa ari leporaturik. Eta autormen egiteko ezin diakela geiagotan erakarri; eta autormena entzun dakionean, katigu dagoanak eskatuz gero, berak aukeratu edo aukeratuko dauan Presondegira albait lasterren itzuli eragin dakiola, Epaikariak ori ontzat emonik eta orixe egiteko agindurik, eta besterik egiten dauan bakotxean zigortzat milla marai ordaindu dagizala, erdia irain arturik, katigu dagoanarentzat eta beste erdia Konderriko bideak konpontzeko ta errilanetarako. Eta ori eska dakion bakotxean eta bete

Amaikagarren Atala

ez, zigor bera ezarri dakiola, kasu berean askok eskatu arren.

III Legea. Katigu dagozanen janaren eta ogearen ordaiñetan Presondegizaiñak zer eskuratu daiken.

Baita: Onan azalduriko bizkaitarrei Erri-Presondegi biotako batera deituta gero, ainbat bidar ikusi danez, Prestameruak eta aren Ordezkariek eta katiguzaiñek, arei emoten jaken jakia dala-ta, kalte ta bidebagak egiten dautseezala, eralgiten dabena baiño geiago emotera bearturik. Orregaitik, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, presondegiratu ta azaldu danari Prestameruak edo katiguzaiñak jatordu bakotxeko amabi marai baiño geiagorik ez dagiola kontuan ezarri ta ordaindu eragin, katigu dagoanak sagardaua gura badau eta ez ardaurik. Ardaua edatea naiago izango baleu, ostera, ordaindu dagiala ta jatordu bakotxeko amabost marai kontuan ezarri dakiozala, baiña jana ta ogearen truke geiagorik ez. Katigu dagoanak, alan bere, berenetik jan gura izango baleu, ori egin daikela, naiko ona dan ogearen ordaiñez egun eta gau bakotxeko iru marai emoten daualarik; eta ez batagaitik eta ez besteagaitik ez dakiola geiago kendu, bereganatu dauana, lau alakoz geiturik biurtzea zigortzat ezarten jakola, eta orrezaz gaiñera, indarkeria egin daben eta geiegi eurenganatzen daben Epaikarien kaltetan legez izendaturiko zigorrak ezarri dakiozala; eta zigor au erdi bi egin daitela, bata Konderriko erri-lanetarako ta bideak konpontzeko, ta bestearen erdia beste erdi bi, bata salatariarentzat eta bestea leku aretan dagoan Gaixoetxeko beartsuentzat izanik; eta aitaturiko gaiztakeri ta lege-austeakaitik naiz beste gauza batzuekaitik, esate baterako, zorrakaitik naiz lur-ondasunen baibenakaitik naiz errematagaitik naiz beste zerbaitegaitik Prestameru ta aren Ordezkari ta presondegizaiñen eskuetan dagozanei jan bera ta neurri beratan emon eta eskeiñi dakiela; eta gai oni buruz Korrejidoreak edo aren Ordezkariak astean-astean arazoaren barri emon dagiala, zapatu

Erri-presondegiaz

oro egiñazo dagian ikustaldian, Presondegiko Liburuan oarpena ezarririk, zigor berarenpean; eta Prestameruaren eta aren Ordezkariaren Presondegiari buruz agintzen dan guztiau berau egin eta bete daitela Bizkai'ko Merinuek eta Ordezkariek dituan Presondegietan bere, zigor berarenpean, eta an bere gauzau berau egin daitela; norbaitek berak lo egiteko ogea ta beretzako jana ekarriko baleuz, barriz, katigu dagoanak ez dagizala aitaturiko iru maraiok ordaindu.

IV Legea. Lege-austea zelangoa eta presondegi-era alangoxea izan daitela.

Baita: Onan deituak izan diran eta azaldu diran presondegiratuen artean egin izan diran gaiztakeri ta lege-austeak ezbardiñak dirala, eta, izan bere, onelantxe izan bear dauala, eta eriozigorpean edo gorputz-zigorpean ez dagoanak onenbesteko obena dauanak adiña oin-burdin presondegian eukitea ez dala bidezkoa; eta Epaikariaren griñaz naiz alderdikeriz ori jazo daitekenez, okerbide au kentzeko, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, azalduko litzatekezanak zelango lege-austez salatu diran eta alangoxe presondegi-mueta izan dagiela, obenaren astuntasuna ta ekarri diran egiztagarriak eta obenari dagokion zigorra ta obenduna nor dan gogoan izanik, baita auzia ebatziko dauan Epaikariaren aukeramena bere, ez zigorra geitzeko, arintzeko baiño; eta Merinu ta areen Ordezkariei buruz bere, auxe berau bete beite.

V Legea. Lege-auste batez salatu diranak ezin daitekezala beste lege-auste batez salatu, Lege onek erabagiten dauan erara izan ezik.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, norbait edo norbaitzuk, edozein Zigor-auzi data-ta, Gernika'ko Zugazpera deituak izan diran bakotxean, deitutakook presondegian azaldu baleitez, kasu orretan askatu edo gaitzetsi arte, orretarakoxe deitu jake-ta, beste gaiztake-

Amaikagarren Atala

ri edo lege-auste batez salaturik iñork ezin daikeola olakoari deitu, lege-auste au aundiagoa, ainbatekoa naiz txikiagoa izan arren, ezta beste lege-austeren inguruan azterketarik eta billaketarik egin bere, Presondegian dagoan bitartean. Eta jarein egin bajako, bere eskumendeko dan bitartean bere ez, azaldu baiño leen, bere burua edo euren buruak katigutzat emoten dituenean izan ezik. Baiña, olakoan bere (lege-auste bategaitik edo bigaitik deitu arren) azkatu edo gaitzetsi egiten diran bitartean, ez daitezala, nai ez baldin badabe, auzi bati baiño erantzutera beartu, salakuntza agazkoa garbitu arte. Eta Presondegian dagoanaren auzitaratzea edo aren salakuntza guzurrez, maltzurkeriz eta asmo gaiztoz ez dala egin ziur jakin ezkero, ori onantxe egin daitela. Eta salaturiko ori Presondegitik urtenda baldin badabil eta presondegizaiñak bere erantzukide ditualarik, berbera katigu ez baldin badago, orrelako maltzurkeririk eta azpikeririk badalako antza ta susmoa izan oi da; salatu izanak, baiña, Lege onen babesari uko egiñik, egingo litzakiozan salakuntza guztiei erantzun nai izango baleu, ori egin daikela.

VI Legea. Prestameruaren eta presondegi-zaiñaren zigorrari buruz, katigu dagozanak txarto zaindu diralako joan egiten badira.

Baita: Onan deituta gero azaldu diran batzuk, Prestameruaren edo Merinuaren mendean dagozala, Presondegia apurtuz edo beste era batetara aldendu ta joan egiten dirala, salatariek eta eskatzailleek Justizia ta eurena dana osorik ezin lorturik. Au Bete-eragilleek txarki jagoten dituelako jazoten dala, eta katigu dagozanak aalegin aundiagoz jagon dagiezan eta auzilariek Zuzena lortu dagien, esan eben: Legetzat ezarten ebela, orrelango katiguak bere mendean daukazan Prestameruak edo Merinuak ondo ta zintzoro jagon bear dituala; eta askatu egingo baleuz eta bear dan lez jagon ez, presondegiratu izana ilgarri baldin bazan, ondo ta bear zanez jagon baga askatu

Erri-presondegiaz

ebelako, jagolea bera il daitela; eta jagolea beragaz joango balitz edo berak askatu egingo baleu, katigu egoanak bearreko zigorra bera jasan dagiala; eta jagon ezagaitik, jagolearen nagikeriagaitik joango balitz, urtebetean katean egon daitela; eta katigu egoana gorputzzigorraren merezidun izan ez baldin bazan, baiña bai diruzigorra edo zorra ordaindu bearrekoa, aregaz joango balitz edo jakiñaren gaiñean askatuko baleu, katigu egoanak ordaindu bearrekoa ordaintzera jagolea beartu ta urte erdian katean egon daitela; eta nagikeriagaitik joango balitz, katigu egoanak zor ebana ordaintzera beartu ta iru illabetetan katean egon daitela.

VII Legea. Auzibidearen bir-izkribua katigu dagoanari zelan emon bear jakon.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, deia egin jakon obendunak, onelan azaldu ta Prestameruaren mendean jarri ondoren, bere kaltetan egindako Auzibide guztiaren eta egiztabide ta azterketaren bir-izkribua eskatuko baleu, Eapikariak emon eragin dagiola aren aurka esan eta autortu dan guztia aditzera emonik eta Lekukoen izenak agerturik; eta leen izkribua Letrauari emoteko eskatuko baleu, Letrau ori leku aretan baldin bada eta gorago aitaturiko gaitasunak izan ezkero, emon dakiola, orreetarako ezarri dan alogera Eskribauari emonik. Eta aldaki garbia eskatuko baleu, emon dakiola, ezarrita dagoana ordaindurik.

VIII Legea. Deitutako guztiak azaldu ezik, bir-izkribua azaldu diranei zelan emon bear jaken.

Baita: Deiturikoak asko izan eta deiaren epe-mugaren buruan azalduko balitzaz eta Auzibidearen bir-izkribua guztiek eskatuko balebe, aurreragoko Legearen arabera ta erara emon eragin dakiela. Batzuk azaldu badadiz, baiña, eta beste batzuk ez, olakoan, azaldu diranek Leen izkribuaren bir-idatzia eskatu arren, ez dakiela emon, ezta emon

Amaikagarren Atala

eragin bere, salakuntzaren eta azaldurikoen kaltetan ekarri diran Lekukoek esan eta aurtortu dabenaren Aldakia baiño, Lekukoen izen eta guzti, baiña ez egiztaturik dagoanaren bir-izkriburik edo deia egin eta azaldu ez diranei dagokienik, salakuntzak ekarri dauan auzia ezereza, garrantzi ta gorabeera txikikoa dalako, Leen izkribua emon arren bere, salatariari kalterik ez datorkionean izan ezik; olakoan, Leen izkribua edo Aldakia emotea Epaikariaren aukeramenean izan daitela, berak ondoen deritxona egiñik.

IX Legea. Obendunak bere buruaren alde zelan egin bear dauan, eta egilleak eta obendunak egiztabideak ekarri bear dituela.

Baita: Azaldu dan obendunak Auzibidearen bir-izkribua bereganatuz gero, bere errubakotasuna oiñarritu ta bere burua aldeztu daikela, egoki jakozan bide guztiak erabilliz; eta bere burua onelan aldeztu ta auzia probabiderako amaitu ezkero, Epaikariak probabidetzat onar dagiala legezko era ta epeetan; eta onelan probabidea egiñik, obendunak bere kalketan autormen egin eben Lekukoen akatsak bai esanetan eta bai pertsonetan ager ta egizta daikezala, bere errubakotasuna erakutsi ta bere burua zuriturik, legez aitatzen diran eta berari egoki datorkiozan egiztabide guztiak ekarriz; eta salatariak leenengo Lekukoen Leen Autorpenak barriro ager dagizala, areen esanak (nai izango baleu) egiztatzeko. Eta obendunak lege-austearen parkamenik edo itun-asmorik eskatu edo lege-austea egin zanean beste lekuren baten izan zala edo lege-austea eginda gero sorturiko zurigarriren bat agertuko baleu, olakoan, esankizunoi buruz Egilleak berari dagokiona ager eta egizta dagiala. Lege-austeari gagokiozala, baiña, Egilleak aztarrenik bere ezin daikela ekarri ta egiztatu; eta itaunketa egite unean, itaunketa au esan danaz bat datorren Epaikariak ikus ta azter dagiala; eta egoki ez dato-

Erri-presondegiaz

zan atalak ikusiko baleuz, kendu ta ezeztu dagizala, eta esandakoaren aurka Egilleak Lekukorik ekarri ta aurkeztuko baleu, areen esanak ez daitezala egiztagarri izan, ezta aztarrenez bere probagarri, eta auzibidetik kendu ta jaurti ta erre daitezala, eta auzi nagusia (au da) lege-austea dala-ta, auzibide laburraren eta leen argibideen iragartea egin ezkero, Egilleak ez leenengo ekiñaldian, ez bigarrengoan, ez besteren baten ezin daikela ez Lekukorik, ez egiztagarririk ekarri, eta ekarriko baleuz, ez daitezala legez indargarri izan, ezta aztarrenez bere.

X Legea. Auzi batera ezin daitekela amaituta dagoan beste auzi baten auzibiderik ekarri, Lege onen arauz izan ezik:

Baita: Agintzen ebela, onantxe agindurik eta Legetzat ezarririk, ez auzitan, ez zigor, ez erri-auzitan alderdi batek edo alderdietakoren batzuek ezin daikeela aztertzen diarduen auzi batera amaituta edo amaitzeko dagoan auzibiderik ekarri; orrelako agiri edo egiztagarriren batzuk ekarri nai izango leukezan alderdiak aztertzen diarduen auzirako zein auzibide edo agiri egoki izango litzateken izendatu ta Epaikariari emon eragiteko eskatu ezik; eta Epaikariak, alderdiari deiturik, eskatzen dauan ori badagokion ala ez ikus ta azter dagiala: eta badagokiola ikus badagi, emon dagiola, eta ez dagokiola ikus badagi, ostera, ukatu dagiola. Eta egitekook bete baga, alderdiko iñork ez dagiala beste auziren auzibiderik ekarri; milla marai ordaindu bearreko zigorpean, erdia Konderriko bideak konpontzeko eta beste erdia, zein alderdiren kaltetan ekarri dan eta arexentzako; eta beste era batetara ekarri diran auzibide ta agiriak Auzibidetik kentzeko Epaikariak agindu dagiala.

XI Legea. Obendunek oizko bidez agerturiko lekukoak bir-ekarritakotzat artu ta auzia amaitu daikeela, eta onango kasuan zer egin bear dan.

Amaikagarren Atala

aita: Azalduriko obendunak auzibidearen eta argibidearen bir-izkribua daukala ta ausaz bere Zuzenbide ta errubakotasunean ustea dauala, bere kaltetan egin dan Auzibidea ta Argibidea amaitu nai izango baleu, oizko bidez egindako Auzibidea amaiturik eta Argibide laburreko Lekukoak barriro ekarritakotzat artu ta Auziaren Azken Epaia eskaturik, olakoan, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Epaikariak Auzibidea amaitutzat izan dagiala ta Azken Epaia emon dagiala: eta obendunak bir-ekarri dituan Lekukoak oizko bidekotzat izan daitezala; eta salatariak ezin daikela beste egiztagarririk agertu, berari Zuzenbidea egiteko eskatu ta Azken Epairako auzia amaitu baiño; eta, onan amaiturik, Epaikariak Foruz eta legez Azken Epaia emon dagiala; eta bestetara egindakoa utsa ta indarrik eta ondorenik bagakoa izan daitela, eta Epaikaria alderdien eralketa, kalte ta obariak ordaintzera beartu daitela. Eta Azken Epaia emonda gero, Gora-joterik izango balitz, zein Konderri barruko Nagusiengana zein Balladolid'go Gorte ta Goi-Auzitegira, olakoan, Obendunak edozein auzialditan bir-ekarritakotzat arturiko Lekukoak, alderdiari ots egiñaz, oizko epaibidean izango litzatekezan adiña egiztagarri ta probagarri izan daitezala. Eta leen argibidean egiñiko autorpenak barriro egiteko edo ekarteko, oizko epaibidean aztertu ez ziran arazoak eta auzia baldin badira, ez aitaturiko Nagusiengana, ez Gortera, ez Goi-Auzitegira ezin dakieke deitu, ez eroan. Beste arazo batzuk izan ezkero, baiña, Epaikariek legearen arabera epaitu daikeela.

XII Legea. Argibide laburrean autormen egin eben lekukoak, obendunak eskatu ezkero, epaikariak berak azter dagizala.

Baita: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Epaikariak probabiderako alderdiak onartu baditu, argibide laburrean Errudunaren aurka ekarritako Lekuko guztiak edo batzuk barriro ekarri ta Epaikari berberaren aurrean

Erri-presondegiaz

euren esanak agertu ta autormen egiteko Obendunak eskatuko baleu, olakoan, Obendunari entzun dakiola, eta Epaikariak Lekukook bere aurrera erakar dagizala, eta arretaz eta kontuz aztertuaz, areengandik egia atara ta jakin dagiala, Auziaren ebazkuntzari dagokiola dakusan giñoan eta eran: zigor onenpean, Obendunak eskatuz gero, Lekukoa lurraldean edo beste lekuren baten eta Epaikariagana etorteko moduan baldin bada, Epaikariak berak aztertu bako Lekukorik ez daitela egiztagarri, ezta aztarrenez bere probagarri izan.

XIII Legea. Gernika'ko Zugazpera deitu jakenei urrundea zelan salatu bear jaken.

Baita: Azterraldian obenak joa ta ikutua izan dalako, ogeitamar egunen buruan Gernika'ko Zugazpera deitu jakon auziperatua dala-ta, deia egin eta ogeitamar egunetara salatariak Obendunaren urrundea eskatu bear dautsala Epaikariari, Eskribauaren aurrean ori egiñik; zigor onenpean, esaniko epean eta Epaikariaren aurrean salatuko ez baleu, egindako deia utsa ta indarrik eta ondorenik bagakoa izan daitela; eta arelako Obenduna ez daitela ez autormenean, ez urrundean, ez beste zigorrenpean jausi, onelango nekea bereganaturik; Salatariak, barriz, beste dei bat eskatzeko ta egiteko eskubidea izan dagiala.

XIV Legea. Urrundea salatuz gero, Gernika'ko Zugazpera deitu jakenen aurka zer egin bear dan.

Baita: Esaniko epean eta lekuan urrundea onan salatu ezkero, biaramonean edo geroagoko beste egunen batez, salataria Epaikariaren aurrera azaldu daitekela bere dei-agerkaia ta dei egin eban Epaikariak daukan adierazpen-agiria ta Konderriko Erri-Presondegiko agiria daroazala, dei egin jakona Presondegi aretan ez zala azaldu egiztaturik, eta Obenduna, salatu jakon lege-auste aretan, emondako dei-epaiaren arauz, urrunekotzat eta setatsu ta autor-egiñikotzat agerrazoteko agindu dagiala eskaturik; eta

Amaikagarren Atala

onan agerrazo ezkero, epaitu dagiala ta lege ta Foruaren arauz jokatu dagiala. Eta deitu jakona, dei egin eutsan Presondegian barik, beste Presondegian azalduko balitz, olakoan, azaldu dana beste Presondegian dagoala Epaikariari jakin eragitera beartu daitela, agiri izenpetua berari ekarririk eta emonik, urruneko izatearen zigorra ezarri ez dakion: eta, olakoan, Egilleak gorago esanikoa eskatu ta arazo aren auzia amaitu ezkero, Epaikariak erabagia artzeko agindu dagiala, ta, artu bere, urrengo datorren au artu dagiala.

XV Legea. Urrunekoen aurka lekukoak zein kasutan eta zelan bir-ekarri daitekezan.

Baita: Salakuntza ta azterkuntza ikusi dagizala, eta Obendunari ezarten jakon legeaustea legez (onartu ezkero) astuna bere astuna dalako, eriotza emon edo gorputzari zati bat ebagi edo odola isuri edo zigorkatu edo bost urtetarako edo geiagotarako Konderri guztitik at erbesteratu bearrekoa dala ta orrelango obena badauala ikus badagi, olakoan, Leen Argibidean eta Billaketan izandako Lekukoak barriro ekarteko salatariari agindu dagiola; eta orretarako Egilleak berak Epaikariaren aurrera Lekukoak ekartea autatuko baleu, antxe aztertu dagizala. Artzaillea eroatea gura izango baleu, ostera, Eskribaua lagun dauala emon dakiola, Epaikariak orretarako izendatu baleu bezela, bere pentzutan eroanez, au baiño leenagoko Foruak agintzen eban eta oraingo onek agintzen dauan giñoan eran eta moduan.

XVI Legea. Urrunekoen aurka epaia zelan emon bear dan.

Baita: Salatariak Lekukoak bir-ekarri ta Epaikariari egiztabidea emonez gero, Epaikariak aren bidez eta auziketaren agerbidez oizko zigorra edo Epaikariaren naierakoa ezarteko bear ainbat eta naiko egiztagarri badala ikusiko baleu, olakoan, Egilleak eskatuz gero, Azken Epaia emon eta iragarri dagiala Obenduna gaitzetsi-

Erri-presondegiaz

rik edo asketsirik, Foruz eta legez egin daikela ikus legikenez.

XVII Legea. Urrundean emoniko epaia obendunari zelan adierazo bear jakon.

Baita: Aitaturiko epaia emon eta iragarrita gero, Obendunari berari adierazo dakiola, aal izan ezkero, eta au ezin baldin bada, bera geienetan bizi ta egoten dan etxean, aren emazte, semealaba edo familiari aditzera emonaz, orrelangorik izan ezkero; eta etxerik eta bizilekurik, emazterik eta semealabarik izango ez baleu, barriz, lege-austea egin dan lekuko Eliza Nagusian Epaiaren aldakia tinkotu daitela, Obendunak Epaiaren barri euki ebala edo euki eikelako ustea izateko eran.

XVIII Legea. Ondasunen gaitzespena dala-ta, epaia zelan bete-eragin bear dan, eta legez salduriko ondasunen erosleek segurantza bear dabela.

Baita: Esaniko erara ta modura adierazpena egin eta auzibidean ezarri ta Epaikariari ekarrita gero, Salatariak auzi-eralketak neurtzeko eskatu daikela, onangoetan gaitzespenik izan bazan; eta Epaikariak ori egin eta neurtu ezkero, gaitzespen-epai a izan zala bide, Errege Dirutegirako edo Konderriko auzo-lanetarako ta bideak konpontzeko edo alderdiarentzat emon bearrik eta beste eratako ondasunen galtzerik izan bazan, esaterako, lapurretan egiñikoa edo ostu edo arturikoa edo indarrez kendurikoa edo beste kalteren edo obariren bat biurtu bearrik-edo, olakoan, (Egilleak eskatu ezkero) ondasunei ta eralketei buruzko Epaia ta gaitzespena ta bete-eragipena egiteko agindua emon dakiozala ta ori emoteko agindu dagiala; eta Epaia bete-eragin daitela, gaitzetsi dan aitaturiko Obendunaren ondasunetan osoosorik betetzen dala; gaitzespen au dala bide, ondasunak sal daitezala, eta Eliza Nagusian sal daitekezala, ondasun mogikor, abereondasun eta lur-ondasunak, danak batera, etenik bagako iru domekatan, irugarren domekan geien emoten dauanari saltzen jakozala,

Amaikagarren Atala

Bizkai'ko beiñolako Foruz gaiztakerizko ondasunak eritxenen arauz; eta Egilleari, beraren alde Epaia emon dalarik, auzi-eralketeen gaitzespenarena ta kendu jakon guztia oso-osorik ordaindu dakiola, eta aitaturiko Errege-Dirutegiari ta Konderriari aitaturiko zigorrakaitik emon bearrekoa emon dakiela: eta ondasunon erostun danak segurantza izan dagiala, ta auziperatuak berak nai izanda ta berberaren gurariz erosirikoa errematean saldu balekio lez erostea balio dakiola.

XIX Legea. Epaia emonda gero presondegiratua izan baldin bada, obendunak bere burua zuriturik erruga dala zelan erakutsi daiken, eta onango zorian zer egin bear dan.

Baita: Gaitzespen ori izan dala bide, aitaturiko Obenduna Bete-eragilleek presondegiratu egin dabela jazoko balitz, eta Erri-Presondegira Prestameruaren menpera ekarri eta, an dagoala, bere errubakotasuna erakutsi ta bere burua zuritu gura izango baleu, eta eralketak kitatu ta legepean egoteko beste baiben egoki emotea ta epaiturikoa ordaintzea nai dauala-ta, bere naikundea orixe dala-ta, kendu jakozan ondasunak eta etxaldea biur dakiozala eskatuko baleu, olakoan, auzi nagusiari buruz (ots, gorputzeko zigorrari ta erbesteratzeari buruz) bere buruaren alde egite guzti au onar dakiola, oizko bidez berbera azaldu bailitzan; eta legez aal dauan eta ondo datorkiozan bide guztiak erabilliz bere buruaren alde egin eta bere errugetasuna egiztatu ta bere burua zuritu daikela, eta aurkako Lekukoei kontra egin, areen esanak eta pertsonak ezezturik; eta bere kaltetan ekarri ta bir-ekarririko Lekukoren bat edo batzuk Epaikariaren aurrera etor daitezala nai izango baleu, leen esan ebenaz jabetzeko edo bir-esateko, entzun dakiola, Lekuko ori edo Lekukook bizirik izan eta auziperatuaren pentzutan ekarri ezkero. Baiña illik balira edo guztiz urrun, laster etorteko itxaropenik

Erri-presondegiaz

baga, olakoan, aitaturiko Lekukoak eta Obendunak eskatu ez dituan guztiak bere bir-ekarri daitezala, esan dan giñoan eta eran; onango zorian, barriz, Obendunaren gorrotoz eta aren urrundez eta setakeriz guztizko egiztagarri ta probagarri izan daitezala alderdiak ots eginda, oizko bidez bir-ekarriak eta aztertuak izan bailiran, zein ekiñaldi onetan zein beste edozeiñetan, zein Konderri barruan zein Balladolid'go Gorte ta Goi-Auzitegian; eta orrelako Lekukoak ezin daitekezala indarrez beartu beste ekiñaldi baten aitaturiko. Nagusien aurrean aurreragoko ekiñaldian agertu ebena bir-esatera ta barriro autor egitera, ezta aitaturiko auzia onartzera bere, eta, auzi au dala-ta, Salatariak ezin daikela beste iñoizko ekiñaldi-tan beste Lekukorik ekarri. Auziagai barririk eta leenago ebatzi ez zanik izan baleite, baiña, (auzi nagusitik sorturikoak eta ari dagokiozanak izan ezkero) Lekuko geiago legez ekarri daikela, eta beste era batetara egingo litzatekena edo egiztatu ta egin nai litzatekena utsa ta indarrik eta ondorenik bagakoa izan daitela, eta ez daitela ez egiztagarri ez probagarri izan, ezta aztarrenez bere.

XX Legea. Ondasunen eta auzi-eralketen gaitzespena dala-ta, obenduna azaldu ezkero, zer egin bear dan.

Baita: Gaitzespena ondasunei, eralketei ta maraiei buruzkoa dalarik, epaia bete-eragiten danean, gaitzespena ondasunen zati bat galtzekoa balitz eta ez maraiei buruzkoa, onenbesteko bat emon bear dala zeazturik, eta Epaia emon eta leenengo urtearen buruan Obenduna atxillotu baldin badabe edo berbera urte orretan azaldu baldin bada, olakoan, aitaturiko babesgarriak eta baibenak ekarri ta eralketak kitatu ezkero, ondasunak biur dakiozala, ondasunon bidez bere buruaren alde egin dagian eta bere errugetasuna erakutsi ta egiztatu; gaitzespen ori, baiña, eralketak eta kalteak ordaintzekoaz gain, amar milla marai arteraiñokoa izango balitz, olakoan, marai ta auzi-eralketa ta kalteoi buruz egindako beteeragipena sendo izan daite-

Amaikagarren Atala

la, aren lege-auste ta urrunde ta setakeriaren gorrotoz; eta neke onen ondorioz, ez dakiola arazo onetan entzun, gorputzeko zigorraz eta auzi nagusiaz izan ezik.

XXI Legea. Beroni buruz.

Baita: Gaitzespena goragokoa izan eta bete-eragipen au dala bide, aren ondasunak legez saldu ta lekuz aldatuko balitzaz, aitaturiko baibena ezarri ta eralketak kitatu ezkero, biur dakiozala, ondasunon erdiari edo zatiari buruz emondako gaitzespenean erabagi ta agintzen danez. Gorrotorik, baiña, destaiñarik, zigorrik eta oneetarikoren saririk ez beite Bizkaia'n izan; eta bertoko Epaikariek ez dagiela orrelako gaitzespenik emon ez bete-eragin, Bizkaitarrek euren Foruz eta Erri-Eskubidez betidanik orixe izan eta Legetzat ezarten ebelako. Epaia emon eta urtebete ta egun bat geroago Obenduna Presondegira etorriko balitz edo atxillotuko balebe, baiña, diru ta ondasun-nekeari buruz ez dakiola berari entzun, Azken Epaiaren bidez bera ta beraren ondasunak aske dirala erabagi arte; eta onantxe ulertu ta mugatu bedi au baiño aurreragoko zatian erabagi dana. Eta salatua izan dan urrunekoa adiñetakoa danean, gorago esaniko orixe egin daitela: adiñez txikia baldin bada, ostera, auzi-eralketak ordaindu ezkero, legearen arabera biurtzearen konponketa onar dakiola.

XXII Legea. Beroni buruz.

Baita: Obenduna bere lege-austeagaitik, gorago aitaturiko zigorrak (erio-zigorra ta besteak, gorago esan danez) baiño txikiagoren merezidun izango balitz, olakoan, aitaturiko Presondegian bera azaldu ta bere errubakotasuna erakutsi ta egiztatu gura izango baleu, entzun dakiola, gorago aitatu dan erara ori ontzat emoten jakola; baiña egiztagarriak jasoteko ta argibide laburra egiteko Epaikaria ez daitela bere Auzitegiko Eskribaurik Salatariak daroan Artzailleari emotera

Erri-presondegiaz

beartu; Artzailleak berak, aldiz, legearen arabera Lekukoak aztertu dagizala, eta argibidea ekarri ta, esan danez, deia egiñik, berau tinkotu daitela edo berari adierazo dakiola, goragoko txataletan erabagiten dan giñoan eta eran eta bertan ezarten dan zigorrarenpean: eta deia eginda ogeitamar egunetara urrundea salatzera ta gorago agerturiko eginkizunak betetzera Egillea beartuta dagoala: eta au egiñez gero, Obenduna agertuko ez balitz, Egilleak salatu dauan zer ari buruz urrundean gaitzesteko eskatu dagiala, eta amaituz gero, Epaikariak arelakoa probabiderako oizko bidez onartzeko agindu dagiala, eta Egilleak Artzailletzat aurkeztu dagiala, edo Epaikariak erabagiten dauanez, artutako Lekukoak soilki bir-ekarri dagizala; eta onan bir-ekarri ta euren egiztabidea jaso ta iragarri ta amaituaz, Epaikariak Foruz eta legez epaia emon eta iragarri dagiala; eta epai au gorago esaniko erara aditzera emon dakiola, eta adierazo ezkero, Epai beronen indarrez betteragiteko agindua emon daitela, Obendunaren ondasunetan bete-eragiñik eta eralketak eta egin leiteken beste gaitzespenen bat ari erantsirik, eta ondasunok, gaiztakerizkoak diranez, legez sal daitezala, gorago aitatu dan erara, eta ondasunon, eta oneen orde-sarien bidez eralketak eta gaitzespen-nekea Egilleari ordaindu dakiozala, baita Artzailleari bere, ordezko izan dan aretan; eta Obenduna atxillotuko balebe ta bere errubakotasuna erakutsi ta egiztatu gura izango baleu, ondasunak biur dakiozala; eta, olakoan, ondasunei ta diru-zigorrari buruz ez dakiola entzun, Epaikariak Azken Epaia emonik, asketsi edo gaitetsi arte, urrundean emon izan jakon gaitzespena txikitu edo aunditu edo kendurik, berak zelan deritxon eta alantxe; baiña urrundean emondako epai-zigorra iru milla maraitaraiñokoa edo beeragokoa izan ezkero, Epai au bete-eragin baldin bada, edo lege-auslearen gorrotoz edo aren urrundearen eta setakeriaren zigorrez beteeragiteko agindu, Epaia sendo izan beite, aitaturiko eralketak ezarririk, Legeaustearen zigorrez, baiña (diru-zorraz gain) erbestera-

Amaikagarren Atala

tu bearra edo beste nekeren bat ezarri baldin bajako, txikitu edo aunditu egin daikeola, auzialdian zer ikusi dan eta alantxe egiñik; eta auxe egin eta bete daitela, Obenduna atxillotu baga, berak nai izanda Presondegi aretan azaltzen danean, gorputz-zigorrari, diruzkoari ta eralketei dagokienetan.

XXIII Legea. Salataria auzitik atzeratu daitekela, auzia etenik, eta zelan egin daiteken: eta salataria atzeratu ezkero, auziak ez dagiala aurrera egin, eta Fiskalik ez daitela izendatu.

Baita, esan eben: Antxiñako Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, edozein lege-auste ta gaiztakeri dala-ta, eriopeko izan, astuna naiz ariña, erriarena naiz batena izan, Bizkaitarren batek auziperatu ta salatu baldin badau edo Epaikariari salatu baldin badautso, olakoan, *Salatariak auzi ta salakuntza aretatik atzera egitea nai izango baleu, auziperatuagaz alkarturik eta berari parkaturik, salakuntza eginda gero auziaren edozein unetan ori egiteko eskubidedun izan daitela, zein Epaia emon baiño leen zein emonda gero, Epai ori egitan bete-eragin aurretik,* Epaikariari baietza ta amaia eskatu ta legeak agintzen dauan erara zin egin ezkero: eta Epaikaria deuseztatzea ta baietza emotera bearturik dagoala, legezko era orretan parkatu dakion, edozein Epai emon dauala naiz bete-eragiteko agindu dauala, lege-austea astuna naiz ariña naiz aitatu dan erakoa izan; eta alderdiak onan parkatuz gero, Epaikariak ezin daikela Egintzaz azterkatu, ez auzi orretan Epairik emon, ez emon dauana bete-eragin, gorputz-zigorra dala, naiz ondasunak legez kentzekoa dala, naiz maraiei buruzko gaitzespena, naiz beste zerbait dala, aitaturiko zigor-auzietan eta lege-austeetan izan ezik, olakoetan, Egintzaz billakatu ta auziari jarraitu ta gorago aitaturikoak atxillotu daikez-eta. Eta auxe berau egin daitela, salatariaren eta auzipekoaren artean asitako auzi edo arazoa bertan beera itxi edo eteten danean, bertan beera izte edo etete ori luzarorako

Erri-presondegiaz

izan naiz ez izan, parkatzen dauanean eskatu bear dauanez, Salatariak baietza ta deusestatzea Epaikariari eskatu ezkero: eta Egilleak izte edo amaitze au bein, bitan naiz geiagotan egin daikela, berak nai dauanetan, aitaturiko baimena eskatu ta legearen arabera egiñez; eta Lege onek erabagiten dauan giñoan eta eran egitera, emotera ta betetzera ta gordetzera Epaikaria bearturik dagoala, Obendunari berari ezarri edo ezarriko jakon zigorrarenpean, eta Foruaren eta Legearen aurka, errurik baga eta bidebagaz euren epaiak bete-eragiten dituen Epaikarien kaltez Foruan eta Legean aitatzen diran zigorrenpean; eta, gaiñera, zigorgarri izan baga, eta izena baltzitu baga orrelako bete-eragipenari gogor egin dakiokela: eta zori onetan, auzia eten edo parkamena emon ezkero, Epaikariak ezin daikela salatariik, ez Fiskalik izendatu Bizkaia'n, ez Balladolid'go Gorte ta Goi-Auzitegian.

XXIV Legea. Ildakoaren senideek eriotza zelan salatu ta parkatu daikeen.

Baita, esan eben: Bizkaia'n illak izaten diran lege-austeak noiz edo noiz izaten dirala, eta ildako onek gurasoak eta aitita-amomak, edo semealabak eta menpekoak, edo anaia-arrebak eta anaia-arreben seme-alaba diran lobak, edo aitaren eta amaren aldeko osaba-ixekoak, edo osaba-ixekoren semealabak izten dituela; eta oneetariko batzuek eriotza salatu egiten ebela, baiña gero, Jainkoarren eta onan ildakoaren ondorengo ta aurretikoen artean aitaturiko maillen barruan ezin-ikusi ta gorrotoak kentzearren, onango legeausleari parkatu egiten eutsoela; aitatu diran senideak baiño urrunagoko beste batzuek, baiña, ekin egiten ebela, eriotza barriro salatuz eta erriarentzat guztiz kaltegarri diran ezin-ikusiak euren artean sorrerazoz. Eta onelango kalteak galazoteko ta bakea ondo baiño obeto etorkielako, Foruz, usarioz eta oituraz eta erri-eskubidez ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, orrelako edozein eriotza jazo eitenean, ildako onek ondorengorik eta aurretiko-

Amaikagarren Atala

rik edo osaba-ixekorik eta anaia-arreben seme-alaba dan lengusurik edo onelakoen batzuk itxiko baleuz, oneek edo aitaturiko maillaren baten senide diranak parkatu ezkero, parkatze onek balio dagiala, eta, parkamena emonez gero, urrunagoko senideek ezin daikeela salatu, ez eriotza a izan zala-ta, barriro ekin, eta iñongo Epaikarik ez dagioela arazo oni buruz entzun; ildakoak, baiña, aitaturiko maillako ondorengorik edo aurretiko seniderik edo osaba-ixekorik edo lengusurik ez baleu, laugarren maillako edozein senidek bere seniderearen eriotza salatu daikela; salatu dauan senide onek parkatuko baleutso, barriz, beste senideek ezin daikeela orretan ekin, auzitaratu ta salatu ebanaren salakide izan eta berak bere seniderearen eriotza salatu ebanean izan ezik; olakoan, salakide izan dan edozeiñek (besteek parkatu arren) auziari jarraitu daikeola.

XXV Legea. Ze ondasun ezin daiteken legez kendu.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, bizkaitarrek, uts egiñez, egin dauan edo egin eban edozein lege-auste dela-ta, erriarena zein batena, aundia zein txikia izan, Bizkai'ko eskumendean eta aundiki lurretan dagoan lur-ondasunik ezin daitekela legez kendu *(ondasunok sortetxetikoak diranez eta lurraldeko lege bereziaren eta Foruaren arabera sort-enborra sort-enborrari ta erroa erroari itzultzen jakonez)*, ezta Jaun Aundiaren Errege-Dirutegi ta Ondasuntegirako emon eta ezarri bere, ez aundirik, ez txikirik: ondasunon oiñordeko, ostera, seme-alabak izan daitezala, zein ondorengoak zein aurretikoak, edo gaizkillea ilda gero, jatorriz nondik datozan eta angoxe sortsenideak eta, Foruaren arauz, oiñordeko izateko eskubidea dabenak. Eta Urietako eskumendean daukazan lur-ondasunak diralata bere, auxe berau bete bedi.

Erri-presondegiaz

XXVI Legea. Iñor ez beite Presondegira eroan Epaikariaren aginduz izan ezik: eta onek jarein egiteko agindu ezkero, diru-eralketakaitik ez daitela jarein egite au atzeratu.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, ez Prestamerurik, ez Merinurik, ez beste bete-eragillerik ez daitela Lurralde Lauan iñor atxillotzen ausartu, eskubidedun Epaikariak agindu baga: Legeak ontzat emoten dituan kasuetan izan ezik, obenaldi bero-beroan norbait arrapatzen danean, esate baterako. Eta bere mendean katigu daukan bati jarein dakiola eskubidedun Epaikariak agindu ezkero, albait lasterren askatu dagiala, Presondegian dagoanak edozein gauzaren edo zorren ordez urteerako ta sarrerako saritzat ogeitalau marai ordaindu ezkero; eta jan edo eralgi dauanagaitik ez dakiola aske izatea galazo, ez une batez, ez luzaro, katigu dagoan arek eralgi ta jandakoaren ordaiñetan baitura edo zordunkide zintzoa ezarri ezkero, bere gogoz eta eskubide utsez norbait presondegira eroaten dauanaren kaltez Legeak dakazan zigorrenpean, eta alderdiari egindako kalte ta obarienpean, gaiñera; aitaturiko jana eta eralgitakoa, jazo daitekenez, zeaztu barik egotea badaiteke-ta, olakoan, baitura ta zordunkide zintzoa ezartea Legeak berariaz agintzen dauana da.

AMABIGARREN ATALA, IRAUN-LEgeak dirala-ta.

I Legea. Bete-eragiteko eskubidea iraun-legez zelan lortzen dan, eta zerbaiti ta norbaiti buruzko eginbidea.

Baita, esan eben: Foruz ebela la Legetzat ezarten ebela, norbaiten eginbearrez bete-eragiteko eginbideak eta orrezaz emondako aginduak amar urteren barruan iraun-legea lor daikela, eta ez gitxiagoz. Eginbear orretan Baikuntzarik izan ezkero, barriz, edo eginbear au bitarikoa, norbaitegazkoa ta zerbaitegazkoa baldin bada, zorrak

Amabigarren Atala

amabost urtetako epez iraun-legea lor dagiala, eta ez gitxiagoz, eta beste edozein eginbidek, zerbaitegazkoa naiz norbaitegazkoa izan, amabost urtetako epez iraun-legea lor dagiala.

II Legea. Eukitzearen iraun-legea zelan lortzen dan.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, bizkaitarrek ondasun mogikorrik edo lur-ondasunik edo abere-ondasunik urtebete ta egun batez, tituluz eta uste onez izan eta euki ezkero, orrelakoak eukitzearen eskubidea ta titulua iraun-legez epe orretan lortzen dituala.

III Legea. Kanpokoen eta anaia-arreben eta oiñordekoen artean, lur-ondasunei buruzko eginbideak iraun-legea zelan lortzen dauan.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela, kanpokoen artean lur-ondasunei buruz bestek daukan eginbideak, berton izan ezkero, amar urtetako epez iraun-legea lor dagiala, eta urrun izan ezkero, ostera, amabost urtetako epez, eta anaia-arreba eta oiñordekoan artean, amabost urtetako epez.

IV Legea. Neskea galdu izana ta ezkon-saria zein epetan eskatu bear diran, eta adinbakoa izan ezkero, on-egiñez biur dakiola.

Baita, esan eben: Andrazkoen eta oneen gurasoen eragitez eta eskariz sorrerazoko auzi ta eztabaidakaitik Bizkaia'n asko neketan bizi zirala, ule-txortadun neskak izan eta galdu egin zituela areen aurka salaturik, eta galtze au dala bide, Erreiñu onetako Legeak agintzen dauana egin daitela ta ezkon-saria emon dakiela eskaturik. Askok, baiña, guzurrez salatzen dabela ikusien gaiñera agertzen dana da, salatu izan diranek barik beste batzuek ixillean galdu zituen-eta; gero, barriz, orrelako adiskideei euren sasi-emazte dirala zabaldu eragiten dautsee, Lurralde onetako ekanduaren arabera emazteen burukoa egiñazorik; eta, jazo oi danez, adin

Iraun Legeak

aunditako ta beartsu diralako, zaartuta bere uletxortadun jarraituko ete daben bildur izaten dira. Eta bere gogoa beteta gero, adiskidea ezkondu edo aldendu egiten bajako, arek galdu egin ebala salatzen dau, gorago esanikoa eskaturik; eta denboraldi luzea joan danez, adiskide orrek ezin izaten dau beste batek galdu ebala egiztatu, eta ezkon-saria emotera bere burua beartzen dau, beste zigorrak eta eralketak bere bereganatuz. Eta okerbide au ta emendik sortu oi diran bestelakoak galerazoteko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Ez emakumek, ez aren aitak ez amak, ez aren izenean bestek ezin daikela salatu neska galtzea edo aide-obena eskatu, galdua izan edo aragiz batu ziranez gero urte bi igaro baldin bada, eta Epaikariek ez dagioela zigor-legez entzun. Eta erri-legez ezkonsaria bost urteren buruan eskatu daitekela, eta adiñetakoak diranean, urteok igaro ezkero, Epaikariek ez dagioela entzun: adinbakoak izan ezkero, barriz, legearen arabera on-egiñez biur dakiola.

AMAIRUGARREN ATALA, ZIN egiteaz.

I Legea. Erabagiteko ziña zelan egiten dan.

Eenengo esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Egilleak bere Zordunari edo Obendunari ipiñitako edozein auzitan, norbaiti zein zerbaiti buruzko eginbidea zein bietakoa zein beste edozein eratako ta modutakoa izan, alderdi batak besteari Auziaren eta salakuntzaren erabagia Zinbidez eskatzen badautso, orretarako bere Zin-eliza aukeraturik, ori egin daikela, ta Zin ori baliozkoa izan daitela; eta beste alderdia Zin ori onartzera ta eliza aretan egitera beartu daite-

Amairugarren Atala

la; eta Epaikariak onartu ta eskatu egin bear dauala, alderdien naierara makurturik, Eskaria bosteun maraiz beetikoa izan ezik. Olakoan, bada, Epaikariaren aurrean eta Gurutzearen gaiñean Zin egin dagiala, eta Zin au eliza aretan eta Eskribauaren aurrean egin bear dala, eta, egin bere Ebanjelioaren eta Gurutzearen gaiñean egitea ontzat ebanak egin bear dauala.

II Legea. Oiñordekoen aurka erabagiteko ziña zelan egin bear dan.

Baita, esan eben: Bizkaitarren bat ilda gero, jazo oi danez, aren Ondorengo ta Oiñordekoi auzokide batzuk aregandik dirutzaren edo gauzaren batzuk artzeko dituela esanez etorten jakezala: eta agirik ezin ekarri eikeelako, Ondorengoei Zin egiteko eskatzen eutseela, aurreragoko Legean esan danez, eta Ondorengoak areen naierara Zin ori egitea ukatu egiten ebela, esanez: adinbakoak zirala edo orrelako zorrik bazanik ez ekiela, edo Ilburukoaren izkriburik ez zala agertzen, ez eginbearrik, eta, orregaitik, bai batzuk eta bai bestetzuk neke-lorretan bizi zirala eta Auziak luzatzen. Au dala-ta, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, olakoan, adinbakoa naiz adiñetakoa izan, Izkriburik izan naiz ez izan, Egilleak Ondorengo dan Obendunari Zin egiteko eskatu ezkero, Obendun ori adiñetakoa baldin bada, Ziña onartu ta berberak egin bear dauala, eta adinbakoa izan eskero, barriz, Arduradunen bitartez, Egilleak eskatu dauan eran eta moduan eta lekuan; berak ez dakiala ta, uste izan bere, ez dauala uste aitaturiko bere Aurretikoak edo beraren auzipekoak arelako gauzarik edo dirutzarik zor ebanik, eta onan Zin egin ezkero, jarein dakiola, eta beste ezer egitera ez daitela beartu, eta Zin ori ezin daikela ukatu, Zin ori Egilleari ezarriko jakon zigorrarenpean: Egilleak, baiña, egiztabidetzat Lekukoak ekartea edo beste egiztabideren bat eskatuko baleu, entzun dakiola, Ondorengo ori adinbakoa izan eta Izkriburik izan ez arren.

Epaiei Buruz

AMALAUGARREN ATALA, EPAIEI buruz

I Legea. Epaikariak azken epaia edo bitartekoa zein epetan emon daiken.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, aitaturiko edozein Epaikari edozein Auzibidetan, epaia auzibitartekoa izan ezkero, Auzibidea amaituta berari emon eta bost egunen buruan epaia emotera bearturik dagoala, eta Azken Epaia izan ezkero, barriz, amabost egunen buruan; zigor onenpean, Auzi-bitarterako Auzibidea izango balitz, Lekukoen eta alderdiaren eralketez gain eun marai ordaindu dagizala; eta Azken Epaia emoteko izan ezkero, barriz, berreun marai, leku aretako Gaixoetxeko beartsuentzat.

II Legea. Aolku-saririk ez daitela emon.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, aitaturiko Epaikariek Jaun Aundiengandik euren lan-sariak eta etorriak daukezanez, Auzibide baten epaia emon bear dabela-ta, ez dagiela aolku-saririk ez zuzenka ez zearka eskuratu, epai ori naiz eurek naiz Letrauaren eta Aolkulariaren bitartez iragarri: zigor onenpean, onan eskuratu dabenaren lau alakoa biur dagiela, laurena alderdiarentzat, eta geratzen dan iru zatitatik bat salatariarentzat, bestea beteeragin eban Epaikariarentzat eta bestea Bizkai'ko bideak konpontzeko.

III Legea. Epaikariek eta Eskribauek Lansari-araudia gorde dagiela.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriko Epaikariek eta bertoko Auzitegiko Eskribauek euren aurrean ebazten diran auzi ta auzigaietan Erreiñuko Lansari-araudiak izendatzen dituan sariak soillik jaso dagiezala, eta besterik ez; Agiriren bat egiteko edo egiztagarriak artzeko

Epaiei Buruz

edo Lekukoak aztertzeko Epaikariek eurek joan bear badabe bere, eta geiagorik ez dagiela ez zuzenka ez zearka jaso, aitaturiko lau alakoa ordaindu bearra zigortzat ezarten jakela, aurreragoko Legean esaniko erara banantzeko.

AMABOSGARREN ATALA, AUZITAN EZ-naia egitea dala-ta.

I Legea. Auzia amaitu ezkero, Epaikariari eznaia egiterik ez daitela onartu.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Azken Epairako dan Auzia amaitu ezkero, Korrejidoreari edo Ordezkariari edo Foru-Alkateari edo Aldunari edo Aldunen Aolku-emoille dan Letrauari eznaia egitea utsa izan daitela ta Epaikariak ez dagiala onartu; eznaia egin dauanak orretarako dauan arrazoia barria dala edo barriro esku-artu dauala egiztatzeko prest dagoala, zin eginda, esan ezik.

AMASEIGARREN ATALA, EMOKUN-tzak eta bete-eragipenak dirala-ta.

I Legea. Bete-eragiteko agindua zelan emon bear dan.

Leenengo esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Epaikariaren aurrera eginbearra edo epaia edo dirutzaren kobratzea ekarri ezkero, legeak erabagiten dauanez, Epaikariek bete-eragiteko agindua emon dagiela, Artzekodun nagusiak, leku aretan baldin bada, eta alde eginda badago, aren Ordelariak aalmen berezia ekarri ezkero, eta artzeko dauken eta kobratzeko agintzen dauan dirutza zer dan azaldurik, legeak erabagiten dauanez Zin egin eta ze dirutza artu bear dauan azaldu dagiala.

Emokuntzak eta Bete-eragipenak

II Legea. Eginbearra gauza zeatza edo dirutan onenbeste kobratzekoa ez danean, bete-eragiteko agindua zelan emon bear dan.

Baita: Bete-eragiteko eskatzen dan eginbearra gauza zeatza edo dirutan onenbeste kobratzekoa ez baldin bada, Andragaiaren arrioa edo beste ondasun mogikorrak edo abere-ondasunak, esaterako, garia, ardaua edo miagaia edo burdiña edo euna edo bete-eragipena egin aurretik auzipean dagoan gauzea baliotu ta osoan zenbat dan jakin bearrekoa izan ezik, esan eben: Erabagiten ebela, bete-eragiteko Agindua emon aurretik, zordun alderdiari, gauzea baliokeran, antxe izan daitela agindu dakiola, eta onantxe baliotu daitela, eta baliotzea egiñez gero, beteeragiteko Agindua emon daitela; eta Artzekodunak baliotzea egin baiño leen bete-eragiteko Agindua auta balegi, onar dakiola, Agindu orretan auxe agindurik: aldarria ta neurketa egiten diran epemugaren buruan erremata egin aurretik baliotzea egin daitela, eta erremata elizan egin aurretik egin daitela: zigor onenpean, gauzea baliotu baiño leen erremata egingo balitz, ortik sortu dan ondorena utsa izan daitela, eta Artzekodunak eralketak ordaindu dagizala ta legeak erabagiten dauanez erremata egiteko eskubidea izan dagiala. Eta bete-eragiteko Agindu au egindako auzi-eskubidearen aldaketaren indarrez Jabe-aldatuak eskatuko baleu, ez dakiola onar, iru egun aurretik Zordunari Eskribauaren bidez adierazo baga, zigor berarenpean.

III Legea. Lege-austetik ez datorren zorrengaitik ezin daitekela bizkaitarrik presondegiratu, ezta beronen etxerik legez saldu bere, ez armarik, ez zaldirik.

Baita: Bizkaia'n bizkaitar guztiak Aitonen seme izanik, danek atakotzat ezagutu ta artu ta euki ta onartzen dituela, eta Aitonen seme izatea, edo alatsu, euki izan dabela ta orain bere badaukela, ez bakarrik Aitaren eta Aititaren aldetik, baita Aurretiko guztien aldetik bere, eta beti-

Amaseigarren Atala

danik euki dabela; eta Jaun Aundiak Aitonen semeei emoniko Lege berezi ta Erri-Eskubide ta lokabe izatearen artean, auxe dago: lege-austetik, edo alatsukotik, ez datorren zorrengaitik ez daitela alako Aitonen semerik presondegiratu, ezta aren Etxerik menpean artu ta legez saldu bere, ez Armarik, ez Zaldirik, eta Lege berezi oni Aitonen seme danak ezin daikeo berariz uko egin. Esan eben: Forutzat eta Legetzat ezarten ebela, lege austetik, edo alatsukotik, ez datorren zor bat dala-ta, bizkaitarrik ezin daitekela presondegiratu, ez presondegian euki, ezta aren bizilekurik eta etxerik legez saldu bere, ez Armarik, ez Zaldirik, ezta eginbear orretan edo Epai edo Itune edo Izkribuan aren atxillotzea edo Etxe, Arma ta Zaldien legezko salmenta eskatzen dalako, arelakoak Aitonen seme izateari berariaz uko egin badautso bere: zigor onenpean, bete-eragipen ori utsa izateaz gaiñera, bizkaitarren bat atxillotzeko edo onen Etxea ta Armak eta Zaldia baitzeko agindu dauan Epaikaria, ori egiteko agintzen dauan bakotxean, amar milla marairen zigorpean jausi daitela, neke ori bereganaturik, erdia atxillotzeko agindu dan Bizkaitarrentzat eta beste erdia zati bitan banantzen dala, bata leku aretako Gaixoetxeko beartsuentzat eta bestea Bizkai'ko bideak konpontzeko.

IV Legea. Merinua edo bete-eragillea bete-eragipena egiteko etxeetan zelan sartu daiteken.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, edonorentzat bere Etxea babesleku ziurra izatea legezkoa dalako ta Bizkaitarrak agiri-agirian Aitonen seme diranez, lege-austetik edo alatsukotik ez datorren zorra dala-ta, bizkaitarrik ezin daitekela presondegiratu, ezta aren bizileku dan Etxerik eta Armarik eta Zaldirik legez saldu bere. Orregaitik lege-austetik edo alatsukotik ez datorren zorragaitik ez Prestamerurik, ez Merinurik, ez beste bete-eragillerik ezin daitekela bete-eragipena egiteko bizkaitarren Etxeren baten sartu, ezta ango jabearen gogoz kontra inguruko lau bigabesa baiño geiago Etxe aretara urreratu bere, legez salgai dagozan ondasu-

Emokuntzak eta Bete-eragipenak

nak ikusteko ta lerrokatzeko Prestameruaren edo Merinuaren gizon bat Eskribauagaz batera ta Arma barik sartu ezik; zigor onenpean, sartu edo lau bigabesa baiño geiago urreratuko balitz, ezertarako zigorrik baga gogor egin dakiokela. Baiña bete-eragille orrek legebako edo gaizkilleren batzuk atxillotzeko eskubidedun Epaikariaren agindua erakus balegi ta arelako etxeren baten sartu gura izango baleu, egin daikela ta ez dakiola gogorgeriarik egin, Legez eta bidez arazo oni buruz ezarritako zigorrenpean.

V Legea. Bete-eragipenak jotako ondasunak zelan lerrokatu daitekezan, eta zordunak ez dagizala saldu, ez lekuz aldatu.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Egilleak bete-eragiteko agindua arturik, ondasunak dagozan lekura joanda, agindua bete-eragin dagiala; eta leen esandako erara, berak edo beraren gizonak Eskribauagaz batera ikusi dagizala ta bete-eragipenak jotako ondasun guztiak lerroz-lerro ipiñi eragin dagiozala, ondasun eta abere-ondasun bakotxa aitatuz, eta zenbat eta ze eratakoa dan eta balioa gitxi gorabeera ezarriz; lekuz aldatuko balira, zenbat eta zer balio daben eta eroan zituana zertara dagoan bearturik jakiteko eran, dagokiozan zigorrak eta (eroan ez dagizan) seireun marairen balioa ta alderdiaren obaria leporatzen jakozala, eta ordaindu artean presondegian egon daitezala. Ete bete-eragipen ori beste era batetara egin baleite, utsa izan daitela, baita ortik datorken ondorena bere, bete-eragipena egiten danean, Zordunak, jazo daitekenez, erri-baso ta larretan daukazan Bei ta Idi saldo, Abere, Mando ta Zaldi ta beste abere batzuk izan ezik; olakoan, bete-eragilleak argibidea izan dagiala bai Zordunak eta bai Abere orreen barri dakianek emonda: eta argibidea izanez gero, agiria atara eragin eta bertan ezarri eragin dagiala, eta onan agiri orretan ezarrita, Etxe orretako barri jakiñik (Abereak kanpoan izan arren) bertan balira legez bete-eragipena burutu daikela.

Amaseigarren Atala

Eta onela eragipena burutu-rik, bete-eragipen onek jotako ondasunak edo zatiren bat Zordunak saldu edo lekuz aldatuko baleu, bete-eragilleak ezarriko dautsazan zigorrenpean jausi daitela eta presondegian egon daitela (Aitonen seme edo Emakume izanda bere) ondasunok barriro eskuratu edo osorik ordaindu ta zigorra kitatu arte eta orrelako ondasunen erostuna, gaiñera, leengoak besteko ondasun onak ordaiñik baga ekartera beartu daitela, agindua bete-eragikeran, Zordunа bertan izan naiz ez izan.

VI Legea. Bete-eragipena zordunari amar egunen buruan adierazo dakiola.

Baita: Gorago aitaturiko erara bete-eragipena burutu-rik, bete-eragipena Zordunaren aurrean egin ez bazan, Artzekodunak bete-eragipena egin dala Zordunari amar egunen buruan adierazo dagiola, aurkitu aal bada; eta epe orretan aurkitu ez bada, beraren Etxean aren emazteari edo semealabei edo menpekoei adierazo dakiela, bera jakitun egin daiteken eran, bete-eragipena ta ortik datorken guztia utsa izango dan zigorpean.

VII Legea. Ondasun mogikorrak eta lur-ondasunak bete-eragipenaz errematean zelan saldu bear diran.

Baita: Bete-eragipena egiteko izan dan parroki aretako elizan bete-eragipena burutu-rik, Erri-Eskribau baten aurrean eta eliza aretan, etenik bagako iru domekatan, egun aretako Meza Nagusiko eliz-bira egite orduan edo Eskeintza bitartean, bete-eragipenak jotako ondasun mogikor edo lur-ondasun edo abere guztien iru aldarri ta neurketa jendaurrean egin daitezala; eta irugarren aldarria ta neurketa eginda gero, geien emoten dauanari ondasun mogikorrak eta abereak erremateaan sal dakiozala. Eta ordu aretan bertan lur-ondasunak saltzeko epea ezarri bedi andik urtebete ta egun batera; eta urtebete ta egun au igaro ezkero, lur-ondasunoi buruz bere Eskri-

Emokuntzak eta Bete-eragipenak

bauak beste iru aldarri eten bako iru domekatan aitaturiko orduan egin dagizala, eta irugarren domekan nork geiago eskeintzen dauan eta arixe errematean sal dakiozala, eta leenago ez; aurkariak egin legiken edozein itun edo egiune alperrekoa izanik.

VIII Legea. Bete-eragipenez salduriko ondasunak errematean erosi dituanak zordunkide bat ezarri dagiala, eta zer egin eta zelan ordaindu bear dan aurkaririk ager baleite, edo ez baleite.

Baita: Aitaturiko erremata bakotxean erostun gertatu danak, ondasun mogikorrak naiz abere ta lur-ondasunak izan, kopuru aren eta auzieralketen ogasundun zordunkide zintzoa izendatu dagiala eta zordunkide onek (ondasunak akatsik bakoak izanik) errematean bete-eragille izandako Epaikariak jarritako epe edo epeetan erosleak zorraren ordainketa ta agindu dauan kopurua ordainduko dauala berbea emon dagiala; eta erosleak uts egin ezkero, Egillearen menpean katigu dagoalarik, bere ondasunak gaiztakerizko ondasuntzat saltzeko prest egon eta ori ontzat emonda, berak ordainduko dauala, eta bete-eragilleak baiben au jaso ondoren, alderdiei ta aurkariei irugarren egunean Epaikariaren aurrera agertzeko dei egin dagioela, bakotxak bere zuzenari legokiona erakutsi dagian; eta (Zorduna errematean egon ezik) Artzekoduna berbera Zordun oni esaniko erremata egin zala jakin eragitera beartu daitela; eta Zorduna aurkitu ezin baledi, aren etxekoei, emazte edo seme-alaba ta menpekoei gorago aitaturiko bete-eragipena egikeran zeaztu danez, ta erremata egindako egunean edo biaramonean adierazo dagiola; eta onela adierazo ta gero, Artzekodunak izendaturiko egunean Epaikariagana etorri bear dauala, bete-eragipenaren agiri guztiak dakazala, eta Zordunari ta aurkariei urrundea salaturik, erremataren onartzea eskatu dagiala; zigor onenpean, aitaturiko erremata esaniko epe barruan egin ez bada, edo urrundea salatu ez bada,

Amaseigarren Atala

Epaikariak ezin daikela erremata ontzat artu, eta erremata egiten ikusi edo bere zuzenbideari dagokiona erakutsi dagian, Artzekodunari agertu daitela jakin eragiteko agindu dagiala; eta gorago esaniko au onela bete ta Epaikariaren aurrean agertu diranei urrundea salaturik, Zordunari ta aurkariei dagokien zuzenbidez entzun eragin dagioela, Foruz eta bidez Legearen arabera Auzia garbiturik. Erremata orretarako ezarririko epe-muga barruan Epaikari beraren aurrean aurkaririk azalduko ez balitz, barriz (Artzekodunak urrundea salatu eta), egun ori igaroz gero, erremata sendo izan bedi; eta Artzekodunak eskaturik Epaikariak orixe agertu ta zabaldu dagiala, Erostunak noiz eta non eukitzea artu ta ordainketa egingo dauan edo zordunkidea atxillotu ta onen ondasunak salduko diran iragarririk; Epai ta Agerpen au Erosleari adierazo dakiozala, baita Zordunari berari ta onen etxekoei bere, gorago erabagi dan erara ta modura. Beste irugarren aurkari batzuk, baiña, zein Epaia emon aurretik zein emonda gero, errematean saldu diran ondasunak Erostunaren menpean jarri baiño leenago Epaikariaren aurrean aurkeztu baleitez, auzitan entzun dakiela, eta bete-eragipenaren Epaikariak, bere agerpena gorabeera, zuzenbidez arei entzun dagioela, Foruz eta Legez auzia garbiturik. Erostunari eukitzea emon ezkero, barriz, aurkarien eginbiderik ez daitela aintzat artu, aurkariok eta Artzekodunok aldarria ta neurketa egin diran elizatekoak izan eta zerbait biurtu-bearra edo Foruz eta Legez beste eginbideren bat ez baldin bada; beste elizate edo erri batetakoak balitzaz, ostera, Legearen arauz entzun dakiela.

IX Legea. Zordunkideak zelan presondegiratu ta areen ondasunak zelan saldu bear diran; eta ogasundun zordunkideei buruz bere orixe egin bedi.

Baita: Bete-eragipenez errematean salduriko ondasunen erostunak erremateko epaian ezarritako epean eta eran ordainduko ez baleu, aren zordunkide edo zordunkideak presondegiratu

Emokuntzak eta Bete-eragipenak

daitezala, bete-eragilleak bere menpera eroanik; baiña Presondegian edo euren etxean egotera ezin daitekezala beartu ta bortxatu; areek eskatu ezkero, barriz, uri edo lekuren bat bertako komanezarekin edo errialdeko zerbait izendatu dagiala, eta Epaikari bete-eragillearen baimenik baga andik ez dagiela urten; (aitonen semeen legea gorabeera) bete-eragilleak edo bete-eragipenaren epaikariak ezarriko dituan zigorrenpean eta onango presondegi-era urratu ezkero, aitaturiko zigorra arengan bete-eragin daitela ta presondegi-era estutu, erdia bete-eragillearentzat eta beste erdia Konderriko bideak konpontzeko ta erri-lanetarako; eta onantxe Presondegian dagozala bederatzi egun igaro ezkero, areen ondasunak gaiztakerizkotzat sal daitezala, eta Epaikariak gaitzetsi baditu, Zordunkideei buruz bere, ogasundun zordunkide diranez, auxe berau egin eta bete daitela.

AMAZAZPIGARREN ATALA, SALMENtak dirala-ta.

I Legea. Lur-ondasunak zelan saldu bear diran; eta salmenta zelan iragarri bear dan, sort-senideak jakitun egin daitezan.

Lenengo esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, norbaitek lur-ondasunen batzuk saldu gura izango baleuz, sal dagizala, soloa edo lurra dagoan eliza aretan Eskribau baten aurrean eta Meza bitartean, eliz-bira edo Eskeintza egikeran, eten bako iru domekatan dei egiñik eta saldu egin gura dituala ta sort-senideek erosi nai dituen iragarririk; eta onelan dei eginda, deiok egiten diran bitartean, norbaitzuk sort-senide dirala ta, sort-senide diranez, gizon zintzoak jarritako salneurrian ondasunok erostea gura dabela esanez, aurka egiteko azalduko balitzaz, aurka egite au Erri-Eskribauaren aurrean egin dagiela, saltzailleari aditzera emonik; eta adierazpen au

Amazazpigarren Atala

eginda irugarren egunera Korrejidoreagana edo onen Ordezkari edo Foru-Alkateagana biak azaldu daitezala, eta biok onan azaldurik, bakotxak bere gizon zintzoa taiutzailletzat izendatu dagiala, Epaikariak irugarrena izendatzen dauala; eta onan izendatu ezkero, taiutzea ondo eta zuzenkiro egingo dabela zin egin dagiela: eta saltzaillea ta sort-senidea edo sort-senideak aitaturiko Alkateagana joan eta bakotxak ogasundun zordunkide lau ta zintzo bi izendatu dagizala, sort-senideak beerago aitatuko diran iru zatitan ordainketa egiteko, eta saltzailleak salmenta egiteko ta ondasunak akatsik bakoak eta onak izango dirala segurantza emoteko; eta gero agiriko ituna egin dagiela, eta aitaturiko baibenak emonik, taiutzailleak euren eginbidea onartzera, zin egitera ta taiutzera beartu daitezala Epaikariak ezarriko dautsen nekeen azpian, alderdien pentzutan ori egiñik eta alogera egokia emonik; eta taiuketa ori, zin eginda (esan danez) eta ondasunak dagozan lekura joanda egin dagiela, Erri-Eskribauaren aurrean eretxia agertuz eta alderdiari jakin eragiñez. Eta salneurria milla maraiz beetikoa izango balitz, sort-senideak berbertan ordaindu bear dauala; geiago izango balitz, ostera, iru zatitan, leenengoa salneurria jakiterakoan, eta bestea andik sei illabetera ta bestea (onekin salneurri guztia) beste sei illabetera; eta oneetariko edozein epe igaro ezkero, Epaikariak (saltzailleak eskatu ta agiriak eta salmenta ekarririk) Zordunkideak atxillotzeko agindua emon eragin dagiala, eta katigu dagozalarik, euren ondasunak gaiztakerizko ondasuntzat sal daitezala, eta bete-eragilleak ori egin eta bete dagiala, bete-eragite onen sariak saldu danaren neurriz eskuraturik; eta au egiñez gero, salmenta sendo ta baliozko izan daitela.

II Legea. Lur-ondasunak erosteko senide asko datozenean, leenago zein izango dan.

Baita: Onango deiak eginda gero sort-senide asko etortea jazo baleite, eta mailla bera-

Salmentak dirala-ta

tan batzuk urragokoak beste batzuk baiño, edo bestelako etorbidetakoak, batzuk Aitaren aldetikoak, beste batzuk Amarenetikoak, olakoan, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, ondasunak Aitaren sortetxe ta aldetikoak izan ezkero, etorbide orretako sort-senideak leenago izan daitezala, bakotxa bere saillean eta maillan (au da) urrena dan sort-senidea leenago izan daitela urriñagokoa baiño, Amaren aldetik senitartez eta odolez urragokoak izan arren; eta Aitaren aldetik asko izan ezkero ta guztiak senitartez eta odolez kideko, guztiak bardiñean erostun izan daitezala. Ondasunok, baña, Amaren sortetxetikoak eta alde onetatik datozenak izango balira, alde onetatiko sort-senideak erosteko leenago izan daitezala, Aitaren aldetiko sort-senideei buruz esan danaren arauz eta eraz; eta ondasunak sortetxetikoak izango ez balira, norbaitek, senarrak edo emazteak erbestekoren bati erosiak baiño, olakoan, alde bakotxekoek erdi bana izan dagiela gorago aitaturiko araura, erara ta modura erosle izateko besteak baiño leenago izanik. Beste bati erosi baga, baiña, Senarraren edo Emaztearen sortetxe ta aldetik etozalako erosi izan bazituen, olakoan, alde onetako sort-senideak erosteko leenago izan daitezala beste aldetikoak baiño, gorago aitaturiko saillaren eta maillaren arauera; eta sailla ta mailla ta sortetxea ta etorbidea gogoan dala, sort-senideak ondasunak legez erosteko onartu, parte izan eta leenago izateari gagokiozala, Bizkaia'n legezko bete-eragipenez egin oi diran lur-ondasunen salkuntza guztietan ondasunen Jabeek euren gogoz egiñiko salmentei buruz erabagi dan axe bera egin daitela, Artzekodunari ta aurkariei esaniko epe ta aldi-mugetan leen aitaturiko eraz eta bidez eta Gizon zintzo areek erabagitako salneurriaren arabera aitaturiko ordainketa egiñik eta baiben eurak emonik. Lur-ondasunei buruz deiak egikeran, baiña, aurka egiteko ta berea dana eskatzeko sort-senide danik azalduko ez balitz, andik aurrera soloaren jabeak nori saldu gura dautsan eta arixe saldu daikeola, eta senide edo

Amazazpigarren Atala

sort-senideren batek ezin daikeola erosleari auzibidez eskatu, ezta beste eratara bere.

III Legea. Beroni buruz, eta sort-senidea leenago izan daitela zatiduna baiño.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, onango lur-ondasunen salmenta egikeran, berea dana eskatzera saltzaillearen senide urrenik etorriko ez balitz, sortetxe ta etorbide bereko ta laugarren mailla barruko dan edozein sort-senide onar daitekela ta erosle izan, aitaturiko saillean eta maillan leenago dalarik, gorago erabagi danez. Soloa ez datorren aldetiko senideak, baiña, soloa alde aretatik ez datorrenez (saltzaillearen urrekoak izan arren) sortetxeari buruz arrotz izan daitezala; sort-seniderik izan ezik, baiña, ontzat artu daitezala ta ondasunok eurenganatzeko Erreiñuko legeen arabera leenago izan daitezela. Lur-ondasunen edozein salkuntza dala-ta, eskubidea dauken zatiduna ta partedu-na ta laugarren maillako sort-senidea etor baleitez, ostera, sort-senidea leenago izan daitela zatiduna ta parteduna baiño; eta batabesteagaz zatiketarik eta parterik ez dan gauzetan sort-senide orrek aurrerago esaniko erara ta modura ta aitaturiko epeetan eta salneurrian bereganatu dagiala. Baiña zatidun aregaz batera erosle izateko sort-seniderik eta etorbide aretako seniderik ez baletor, aitatu dan Erreiñuko legea bete beite.

IV Legea. Salmentak baliozko izan daitezala, eta alderdien oneretxiz izan ezik ez daitezala apurtu, eta salduko litzatekezan ondasun guztiak sort-senideak beretzakotu dagizala.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, aitaturiko deiak egin eta, esan danez, saltzailleak sort-senideari ta onek ari esaniko baibenak emon ezkero, ez batari ta ez besteari ez dakiola garbatu, batari saltzea ta beteari erostea, nori zer dagokion eta axe egitera beartu baiño,

Salmentak dirala-ta

bion eretxiak orretan bat ez baletoz. Eta norbaitek bere ondasun guztiak saldu nai izatea jazoko balitz, eta solo baten edo biren edo iruren deiak egin, eta sort-senideren bat etorri ta berak ez dauala ondasun guztiak saltzerik gura, soloren bat edo beste, edo zatiren bat edo beste baiño esango baleu, sort-senide onek autatu ezkero, onetariko senidea izatea saltzaillearentzat kaltegarri izango litzateke, beste ondasun guztiak ezin izango leukez batera saldu eta. Orregaitik esan eben: Agintzen ebela, sort-senide ori ez daitela onar, ezta beronen aurka egitea ta erostea bere, ondasun guztiak batera artu nai izan ezik.

V Legea. Lege-auste bategaitik legez salgai dagozan ondasunak zelan saldu bear diran.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, bizkaitarren baten ondasunak gaiztakeri edo lege-auste baten zorra ordaintzeko saldu bearra etorriko balitz (urtea ta egun bat gogoan izan baga), ondasunok zein elizatakoak diran eta iru domekatan antxe deia egin ezkero, irugarren domekan errematean sal daitezala, beste ondasunei buruz esan danaren arabera ta erara. Eta sort-senideren bat edo batzuk etorriko balira, onar daitezala, beste ondasunetaz berba egikeran aitatu dan arauera ta erara ta modura obetsirik eta alantxe parte arturik, sort-senide onek aurrerago esaniko irurenik eta eperik baga bederatzi egunen buruan ordainketa egin ezkero, taiutu dan iru zatitatik bat berari doan emon eta beste biak bederatzigarren egunean ordaintzen dirala; eta sort-seniderik eta erosle arrotzik ez balitz, ondasunok zein elizatetan dagozan eta ango auzokide ta bizilagunak salneurri berean (au da) sort-senideak erosiko leukezan aretan artzera ta erostera beartu daitezala, irutatik bat kendurik eta ordainketa bederatzigarren egunean egin dagiala eta ondasunak beretzakotu dagizala, nai dauanez erabil dagizan. Baiña sort-senide au ondasunen jabe danaren seme edo loba edo birloba izango

Amazazpigarren Atala

balitz, olakoan, beretzakotu dagizala, irutatik bat gitxiago ordaindu bearreko mesedea berari egiñez eta urtebete ta egun bateko epea emonez, eta aren eskubideak ez dagiala aldi laburragoz iraun-legerik lortu.

VI Legea. Ondasunak atal onetako legeen arabera saldu ezik, salkuntza ez daitela senideen kaltetan baliozko izan.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, bizkaitarren batek elizatean salmenta-deiak egin baga Bizkai'ko lur-ondasunen batzuk saltzea jazoko balitz, etorbide aretako seme-alaba edo sortseniderik urrenak ondasunak beretzakotu daikezala. Eta urtebete ta egun bat igarota gero etorriko balitz, ez dakiola entzun, onartu bere ez, salkuntza egin zanik ez ekiala legearen arauera zin egiten ez badau, olakoan, bada, salkuntza egin zan egunetik iru urteren buruan etorri arren bere, deia egin baldin bazan, gorago esan eta azaldu dan arauera ta erara onar daitela.

VII Legea. Ondasunak zatitu baga saltzen diranean, erostunak ez dagiala ordainketarik ukatu.

Baita, esan eben: Salmenta-deiak egin da, salgai dagoan soloa saltzaillearena ta beste batena izatea jazoten dala, eta sort-senidea etorri ta salkuntzari aurka egiten dautsala, eta berak eta satzailleak alkarri baibenak emonik, Saltzailleak zatitu ta beste zatidunen eta ezkontideen artean banandu arte sort-senideak ordainketa ukatu egiten dauala, au Saltzaillearentzat kaltegarri izanik (saltzen dauan bere zatiaren akats-bakotasunaren Erantzuleak ezarri zituan ezkero). Orregaitik, Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela,aitaturiko zatiketa egin ez baldin bada bere, ta batak besteari esaniko baibenak emonik (gorago azaldu dan erara) Erostunak ezin daikela iru epetan ordainketa egiterik ukatu.

Salmentak dirala-ta

VIII Legea. Doan emoleak ondasunak saldu daikezala, doadunak ari janariak emote ordez artu izan baleuz bere: eta sortsenideak orrela saltzen diran ondasunak bereganatzeko eskubidea dauala.

Baita, esan eben: Norbaitek janariak eta adigurak ordez artzeko eskubidea dauala bere ondasunen batzuk doan edo ezkon-saritzat emotea jazo baleite, eta janariok bear danez emoten ez jakozalako, deiak egiñik, salgai ipiñi, esanez: ondasunak saldu egiten dituala salneurriaz bera bizi aal izateko, eta nork erosi nai dituan; eta doadunari iruzur egiñaz, deiak (elizan egin arren) ixillik egitea jazoten dala. Orregaitik, azpikeriok galazoteko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Olakoan doadunak janariak emon egin bear dautsazala, eta ituna beteteko Epaikariak eskatu ta agindu ondoren ta beteko ez baleu, emoleak Meza Nagusi bitartean eta eskeintza egikeran eta bi edo iru bidar txiliña joaz iru bidar dei egin dagiala, dagokien alderdiak eta sortsenideak jakitun egin daitezan; eta Erri-Eskribaua elizan dala, irugarren domekan aitaturiko janariak emongo dautsazanari errematean ondasunak sal dakiozala, eta beste era batetara ez; eta emen bere sort-senideen atzerabidea aintzat izan bedi, gorago esan dan arauera ta erara; eta ondasunak eginbear onegaz artuko dituanik ez balitz, leenean gelditu daitezala ta doan emoleari itzul dakiozala.

IX Legea. Gozamendun gurasoek zein areitz moztu daikeen eta zein ez.

Baita: Okerbide batzuk eta Baserri erdiaren gozamena daben Gurasoen eta oneen seme-alaba edo doadunen artean sortzen diran auzieta batzuk kentzeko, eta seme-alabek eta doadunek eurek moztu ez daben Areitzik doan emole diran Gurasoek bere ezin daikeela moztu esaten dabenez, eta onango auziak kentzeko erabagi ta agindu eben, moztuteko eran dagoan Areitz guztia

Amazortzigarren Atala

doan emoleak moztu daikela, antxiñako Areitza ta bein bere moztu bagakoa ta ezkurra ta frutua ekarri dagizan moztu baga itxirikoa izan ezik; orrelakorik ez daitela moztu ta garaua erdi bana egin daitela.



AMAZORTZIGARREN ATALA, TRUK egitea ta ordez emotea dala-ta.



I Legea. Iruzurrez truk egitea zelan ausi daiteken.



aita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Bizkaitarren batek beste bati truk egiñez edo ordez emonez soloren bat artuko baleutso, eta urtebete ta egun baten buruan, truk egikeran eta ordez emokeran, iruzur egin jakola erakutsirik, barriro eskatuko baleu, truk egite ta ordez emote orretan irugarren batek iruzur egin ebala agertu ezkero, iruzur ori arteztu daitela. Iruzur ori arteztu edo gauzea biurtu, baiña, gauzea daukan beste alderdiaren eskumendean izan daitela.

II Legea. Sort-senideei iruzur egiñik ezin daitekela ezer truk egin.



aita, esan eben: Bizkaitarren artean jazo oi danez, onango truk egitea ta ordez emotea sort-senideei iruzurrez kentzeko egiten dala, salerosteetan izan ezik, belaunondareko ta sortetxearen ondasunei buruzko lege berezia truk egikeran eta ordez emokeran ezin daitekela onartu esanez. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Soloen truk egitea ta ordez emotea egin oi dan guztietan, lege berezi ori ez daitela aintzat artu eta sort-senideri ez dakiola entzun, ezta orrela truk egiñiko ta ordez emoniko solorik bereganatzen berari itxi bere, orrelango azpikeririk eta sort-senideek iruzur dagitelako usterik eta truk egiñiko ta ordez emoniko soloren bat baliotasunean bestea baiño irutatik bat geiago izan ezik; olakoan,

Baikuntzak dirala-ta

bada, sort-senide oni entzun dakiola ta saldutako gauzetan erabilli oi diran era ta eginbide ta moduen arauera onartua izan daitela. Eta truk eginda gero, batak edo besteak edo bere izenean edo beste batzuen bitartez bere soloa leen lez erabilli ezkero, onelango iruzurbidea badalako ustea izan daitela.

EMERETZIGARREN ATALA, BAIKUNtzak dirala-ta.

I Legea. Baitu dan soloa sort-senideak bereganatu daikela.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, norbaitek solo edo lur-ondasunen batzuk eukirik baitu egingo baleuz, egin daikela, etorbide aretako sort-seniderik urrenak Artzekodunak emon ebana berari eskeintzeko eskubidea izan ezkero, eta orren ordez urtebete ta egun baten buruan bereganatu daikela, eta geroago ez.

II Legea. Gauzea baitu ebana ta artu ebana zenbatetan bat ez datozenean, zer egin bear dan.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, norbaitek urrezko gauzaren bat baituta baleuko ta jabeak kendu nai izango baleutso, baiña jabea ta Artzekoduna zenbat dirutan baitu izan zan bat etorri ez, Zordunak gitxiagotan dala ta Artzekodunak geiagotan dala esaten dabela, eztabaida au kentzeko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, emolearen gauzea baituta daukala Artzekodunak jakingo baleu, baita Zordunak bere Artzekodunari ta Errudunari gauzea emon eutsala autortuko baleu eta gauzea zenbatetan baitu izan zan argibiderik izan ez, Artzekodunak eta gauzadunak legezko eginbearrak beterik eta legearen arabera onenbestetan emona izan zala zin egin ezkero, sinis dakiola, zein Zin-elizan zein Epaikariaren aurrean zin egin, zelan eta zenbatez

Emeretzigarren Atala

zin egin daiteken ziñei buruz gorago erabagi danez.

III Legea. Zordunak kendu gura ez dautsalako artzekodunak baituran daukana saldu gura badau, zer egin bear dan.

Baita: Baituran daukazan gauzak Zordunak kendu nai ez dautsazalako Artzekodunak saldu nai izango balitu, Epaikariagana joan daitekela eta beste alderdiari ken dagiozan eta, kendu ezik, saltzeko baimena ta eskua emon dagiozan dei egin dagiola, eta agindua Zordunari Erri-Eskribauaren bidez adieraz dagiola, eta adierazpena eginda gero irugarren egunean edo aginduan ezarritako epean kentzen ez badautsoz (aginduaren bidez orretarako baimena ta eskua emon jakoz eta), Zordunaren Eliza Nagusian, Meza Nagusi bitartean eta Eskeintza edo Eliz-bira egikeran, Eskribauaren aurrean iru domekatan eten baga gauzea salgai jarri dagiala; eta Eroslerik ez balitz, Artzekodunak Eroslea billatu ta iragarri dagiala, eta Zordunari bere adierazo dagiola, zein geiagokariren bat ekarri zein zorra ta eralketak ordaindu dagizan. Eta iru egunen buruan geiagokaririk ekarri edo zorra ta eralketak ordaindu ezik, gauza a leenean izan beite ta leen Eroslearena izan daitela. Eta esaniko epearen barruan, jazo daitekenez, Zordunak gauzearen geiagokaria ekarriko baleu, nork geiagoka Eskribauaren aurrean egin daitela; eta nork geiagoka egin eta urrengo egunean geiagokariak zorra ordaintzeko ta gauzea eskatzeko Eskribauaren aurrera Artzekodunari etorri eragingo ez baleutso, egun orretan Epaikariak (legez eginbearrekoa bete zala ziurkiro jakin ezkero, Beteeragilleari geiagokari ori atxillotzeko agindu dagiala, errematean zordunkide izan zalako katigu eroanik); eta presondegi-era ta geiagokariaren ondasunen erremateko salmenta Zordunkide diranei buruz erabagi ta agindu danaren arabera ta erara bete daitela, gorago esan danez. Eta zor nagusia ta eralketak osorik ordaindu dakiozan arte Artzekoduna ez daitela gauzea biurtzera beartu. Eta gorago erabagi-

Ezkon-sariak eta emoitzak

tako au, Artzekoduna ta Zorduna baituran daukan gauzeari buruz bat datozean bete daitela. Baiturari buruz itunik ez balitz, baiña, eta baituran daukala jabeak edo gauzadunak ukatu ezkero, olakoan, jabeak gauzea berea dala egiztatu ezkero, gauzaduna baituran daukala egiztatzera beartu daitela.

OGEIGARREN ATALA, EZKON-SARIAK

eta emoitzak eta sort-senideak eta senar-emazteen arteko irabaziak dirala-ta.

I Legea. Senar-emazteen ondasunak bata-bestearentzat izan daitezala, seme-alabak dituela il ezkero; eta izan ezik, zelan bananduko diran.

Leenengo, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Senaremazteak legez ezkondu ta seme-alabarik edo baten ondorengorik izan ezkero, ezkontza aretarik sortu ta bizirik badira (Ezkontza askatu ezkero) bien ondasun mogikorrak eta lur-ondasunak, naiz eukille naiz jabe dirala (Gizonak ondasun aundiak izan arren eta Emazteak ezer ez, edo Emazteak aundiak eta Gizonak ezer ez) bienak erdi bana izan daitezala; eta ondasunoi buruz nebarrebatasuna ta bardintasuna izan dagiela euren artean. Eta umerik eta ondorengorik ez eta Ezkontza eten badadi (Bizkaia'n lur-ondasun guztia sortetxeari dagokionez), Ezkontza aretara Senarrak eta Emazteak edo bietatik batek edo emoiz lur-ondasunik ekarri izan baleu, biur dakiola ta ekarri ebanarena izan daitela; eta biotatik batek bestearen Etxera ta Baserrira ezkon-saritzat eta emoitzat ondasun mogikorrik edo abere-ondasunik ekarri ezkero, seme-alabarik ez eta Ezkontza askatuko balitz, ekarri ebanak edo aren oiñordeko edo ondorengoek ekarri ebana ta Ezkontza eten aurretik irabazi ta geitutakoaren erdia eurenganatu dagiela.

Ogeigarren Atala

II Legea. Ezkontza askatuz gero, senarraren baserrira etorri dan andreak bere bizigarritzat etxe aretako frutuen gozamena urtebetez izan bear dauala, baita senarrak bere, andrearen baserrira etorri ta andik urten baga egon ezkero.

Baita: Ezkon-saria edo arrioa dakarrela Baserrira etorri dana, Andrea izan dala jazo baldin bada, umerik ez eta Ezkontza askatu baledi, Alargun jantzia erabillirik eta erdiaren gozamena izanik, urtebete ta egun batez bertan bizi daitekela, orpotik ebagi ezik, ori gozamena baiño geiago litzateke-ta, eta etxerako bear dauan egurra baiño adar geiago ebagi ezik: eta mendiren baten geiago ebagiten badau, artu bear dauanaz ordaindu dagiala, beste guztitik, baiña, bizigarritzat bear dauana artu daikela ezer gitxitu baga; eta andrearen etxera joan dan gizonari buruz bere auxe berau egin daitela. Eta barruan dagoala ta esaniko frutuen gozamena dauala urtebete ta egun bat igaro ezkero, egoki baldin badatorkio, bakotxak berea eskatu daikela, eta bere ezkonsaria kitatu arte frutuen gozamena ezer gitxitu baga izan dagiala; eta urtebete ta egun bat igaroz gero, agiria eskeiñirik, urten eragin dakiola, eta leenago ez.

III Legea. Beste ezkontza bateko seme-alabak diranean, ezkon-sariz ekarritako ondasunak zelan banandu bear diran.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Bizkaia'n aitak edo amak edo beste norbaitek seme edo alaba edo besteren bati, erri-itunez Sortetxe edo Etxe edo Baserriren bat ango errenta ta ari dagokiozanekaz edo beste lurondasunen batzuk ezkonsaritzat edo emoitzat eskeiñi ta aginduko baleutsoz, eta Ezkontza eginda (andik luzarora) Ezkontza aretatiko umeak edo ondorengoak dirala, Ezkontza eten egingo balitz, aita edo ama bizirik dala, eta bizirik gelditu danak, bitan edo geiagotan ezkondurik, bigarren edo irugarren Eskontzaz umerik edo ondorengorik izango

Ezkon-sariak eta emoitzak

baleu, ume ta ondorengook leenengo Ezkontzako semealabekaz batera ez dagiela lur-ondasunetan artzekorik izan, leen Ezkontzara ezkon-sariz edo emoiz ituna eginda ekarririkoak dira-ta; leen Ezkontzako semealabek eta ondorengoek osoosorik eurenganatu dagiezala.

IV Legea. Etxe ta solo ereiñak leen ezkontzakumeek eurentzakotu bear dituela, eta bigarren edo irugarren ezkontzakumerik izan ezkero, senar-emazteek ezkontza-bitartean irabaziriko ondasunak erabilli daikeezala.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, leen Ezkontzara ezkon-sariz edo emoiz ekarritakoak lur-ondasunak baldin badira, Ezkontza orretatiko umerik edo ondorengorik izan ezkero ta bizirik dan aita edo ama birritan edo geiagotan ezkonduko balitz, eta bigarrenez eta irugarrenez ezkonduta gero, senar-emazteek leen Ezkontzara ezkon-sariz edo emoiz ekarritako ondasunetan etxe edo erein edo obekuntzak egingo balebez, ondasun guztion jabetza leen Ezkontzakumeek izan dagiela, etxe, solo, obari ta guzti, leen Ezkontzakumeok orrelan obetu edo egin danaren erdia bigarren edo irugarren ezkontzara kanpotik etorri dan gizonari edo emakumeari ta onen oiñordekoei ordaintzera beartu ezkero, obekuntzaren balioa iru gizon zintzok ezarririk; eta obeturikoa beretzakotu dauan leen Ezkontzako oiñordekoa, obetutako erdiaz jabetu dan egunetik urtebetera ordaintzera beartu daitela; eta beretzakotukeran, onantxe bete ta ordainduko dauala-ta, baibentzak bear-ainbat Zordunkide lau ta zintzo ezarri dagizala, Zordunkideok Bete-eragillearen menpean dagozalarik, erremateko Zordunkide dira-ta. Eta Senar-emazteek bigarren edo irugarren Ezkontzako umerik edo ondorengorik izan ezkero, edo lur-ondasunik erosi edo irabazi edo ondarez izango balebe, onango ondasunak bienak izan daitezala eta edozein umeri edo ondorengori,

Ogeigarren Atala

bigarren edo irugarren Ezkontzakumeak izan arren, itxi edo doarik emon dakiokezala, besteak alde batera itxi ta lur-zati bana, aundi edo txiki, emonik, erosi edo irabazi dan au leen Ezkontzako itune-arauen barruan egiña izan arren.

V Legea. Senarraren lege-austeagaitik emaztearen ondasunik ezin daitekela saldu, ezta alderantziz bere.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Senarrak, uts egiñez, egin daiken edozein gaiztakeri ta lege-austegaitik, Emazteak jakin arren bere (Senarraren aginpidetik ezin urten daiken ezkero), Emaztearen ondasunik ezin daitekela saldu, ez iñorentzakotu, Andrea bera gaiztakeri orretan eginkide izan edo berak beste gaiztakeriren bat egin ezik: olakoan, bada, zigortua izan daitela, Legearen zigorra berak edo bere ondasunak eroaten dabela; eta, alderantziz, Andrearen gaiztakeria dala-ta, Senarrari ez dakiola ikutu, ez onen ondasunei, gaiztakeria egin aurretik jakitun izan ez bada; jakitun izan ezkero, ostera, legea ausi eban Emazteak izan eban zigor bera jasan dagiala, ez eban galerazo-ta.

VI Legea. Senarrak ezkontza bitartean irabaziriko ondasunak bere zorrei erantzuteko sal daikezala, eta ezkontza bitartean irabazi ez diranei buruz.

Baita esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Ezkontzat dirauala Senar-emazteek ondasunen batzuk eurenganatuko edo obetuko balebez, Gizonak bere zorrei erantzuteko sal daikezala erreiñuko Legeak erabagiten dauan neurriaren arabera; ezkontza bitartean ugaritu ez diran eta irabazi ez diranei buruz, barriz, Erreiñuko Legea gorde daitela, Senarra ta Emaztea orretara beartu ezkero, olakoan, Erreiñuko Legea gorderik.

VII Legea. Ezkontza bitartean irabaziriko ondasunen erdia senarrak saldu edo galdu ezkero, zer egin bear dan.

Ezkon-sariak eta emoitzak

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, zorra edo lege-austea edo baibena dala bide (ezkontzak dirauala), Senarrak berari dagokion ondasunen erdia saldurik, Emaztearena erdi banatu (au da) erdiaren erdia bereganatu gura izango baleu, ezin daikela egin, Andrearena osoosorik izan baiño (Ezkontzat dirauan artean) jabez aldatu baga, Senarra ta Emaztea ta umeak ondasunokaz bizi ezkero; eta umerik ez eta Ezkontza askatu badadi, Emaztea sortetxetikoa barik etorkia baldin bada, bere ezkon-sariagaz urten dagiala; eta biengandiko umerik izan ezkero, Andreak aitaturiko erdiaren eukitzea ta jabetza osoosorik izan dagiala (gorago azaldu danez), Gizonak jabetzan parterik izan baga.

VIII Legea. Gizonaren edo andrearen aldetiko ondasunak erosten diranean eta seme-alabarik ez, zer egin bear dan.

Baita, esan eben: Senar-emazteek, Ezkontzak dirauala, jazo oi danez, soloak edo etxeak erosten dituela, edo Senarragandik edo Emazteagandik datorren lurrean eta soloan obekuntzak egiten dituela; eta seme-alabarik eta ondorengorik ez eta Ezkontza askatu ezkero, ondasunotaz nor jabetu sortsenideen artean eztabaida sortzen dala. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Gizonaren aldetiko lur eta soloan egindako obekuntzat izan ezkero, edo erosirikoa aren sortetxetikoa izan, olakoan (Senarra il badadi), aren oiñordekoek eta sort-senideek jarauntsi dagiela, Andreari ta onen oiñordekoei erosiriko ta obeturikoaren bidezko salneurriaren erdia emon ezkero; eta erositakoa Andrearen aldetikoa baldin bada, edo obekuntza aren sortetxetiko ondasunetan egin, Andrearen sort-senide ta oiñordekoek jarauntsi dagiela, Senarrari ta onen oiñordekoei bidezko salneurriaren erdia emonik; eta bizirik dan Senarrak edo Emazteak, edozeiñek, bizirik dan

Ogeigarren Atala

artean erdia euki ta bakez gozau dagiala; eta bizitzearen azken egunetan gorago aitaturikoa egin eta bete daitela.

IX Legea. Senarrak ezin daikela saldu emaztearen baietzik baga.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Ezkontzak dirauala irabazi ez dan lur-ondasunik, mogikorrik eta abererik, erdia Emazteari baldin badagokio, Senarrak ezin daikela Ezkontzak dirauala Andrearen baietzik baga saldu, ondasunok Gizonaren aldetikoak izan arren.

X Legea. Senar-emazteen zorra dala-ta, ondasunei buruz bete-eragipena egingo balitz, ezkontza askatuz gero, zor ori zelan ordaindu bear dan.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, senar-emazte biek alkarri *in solidum* eginbearra emon izanik (Erreiñuko Legeen arabera emaztea beartu aal danean), bietatik bat il eta bizirik gelditu danaren ondasunei buruz bete-eragipena egingo balitz, Artzekodunak ordaiña artu ezkero, ildakoaren oiñordekoak zorraren eta eralketen erdia ordaintzera bearturik dagozala.

XI Legea. Gurasoek etxaldea euren seme-alaba bati itxi daikeoela, besteak lur apur bat emonda baztarturik, eta legezko ez diran semeen ondorengotzari buruz.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, legezko Ezkontzako seme-alabak daukazan edozein Gizon edo Emakumek bere bizialdian edo eriotz-aldian legezko Semeren edo Alabaren bati edo illik dan Semeren edo Alabaren legezko ondorengo dan birlobaren bati bere ondasun mogikor eta lur-ondasun guztiak itxi daikeozala, beste seme-alaba ta ondorengoak, naiz-eta legezko Ezkontzatikoak izan, lur zati bana, txiki edo aundi, emonda baztarturik. Eta legezko Ezkontzako

seme-alabarik edo ondorengorik izango ez balitz, era berean emon daikeozala ezkonga dan neskarengandik izandako ixilkumeri, besteak baztarturik; Sasiemazteren seme-alabarik, baiña, ezin daitekela ondorengo ta oiñordeko izan, ez bizialdian ez eriotz-aldian, legezko Ezkontzako semealaba edo ondorengoekaz batera, Aitak edo Amak ondasun mogikor edo lurondasunen zati bat ezaupidetzat itxi edo emon ezik, eta ondasun guztien bostena baiño geiago izan ezik. Eta legezko Seme-alabarik ez balitz, ezta ezkonga dan neskagandikorik bere, baiña gizon ezkonduak, bere legezko Andrea bizirik dala, beste emakumerengandik sorturiko umerik balitz, edo Emazte ezkonduak, bere legezko Senarra bizirik dala, beste gizonengandik sorturikorik, edo legez gai ez dan besterik, onango semealabak bidezko ez dan alkartzetik sortu dira-ta, ezin daitekezala Aitaren ondasunen ondorengo edo oiñordeko izan, ez bizialdian ez eriotz-aldian, Jaun Aundiak legezkotu ez baldin baditu. Eta amari gagokiozala, Eliz-gizonek edo Fraillek Andrea dalakoagandik sorturiko seme-alabak ezin daitekezala ez bizialdian ez eriotzaldian amaren ondasunen ondorengo izan, berezko eriotzaz zigorgarri dirata; olakoan, baiña, legez gai ez diranoi Aitak edo Amak jatekoa emon daikeoela eta ondasun mogikorren eta lurondasunen bostena itxi bere bai, baiña geiagorik ez. Eta bosten onegaz illeta ta ilostekoak doarik egin daitezala; Andreak, baiña, ez Elizgizonegaz edo Fraillegazko alkartzetik, eriotza merezi dabe-ta, beste era batetako sasi-kumerik izango baleu, olakoari ondasun mogikorrak eta abereak itxi edo emon daikeozala, lurondasunik, ostera, ez, ondasunon oiñordeko sortsenideek izan bear dabe-ta, geroago esango danez.

XII Legea. Saltzen edo doarik emoten diran ondasunak zeatz-meatz Eskribauaren aurrean agertu bear dirala.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Gizon edo Emakume-

Ogeigarren Atala

ren batek Etxerik, Olarik edo Errotarik edo bestelako bazterrik ugari izan ezkero, eta doarik emon edo saldu edo besterenduz, semealabari edo besteren bati emotea gura izango baleu, Erri-Eskribauaren aurrean egin dagiala, ituna egikeran, saltzen edo emoten dauan Etxe edo Ola edo Errota bakotxaren izena ta inguruko mugak zeatz aitatuz; eta Etxeren bat beroni dagokiozanekaz emongo baleu eta Olarik edo Errotarik an izan ez, olakoan, Etxe edo Baserri a berari dagokiozanekaz doarik emon edo saldu egiten dauala naiko izan daitela geiago aitatu barik; eta Aitak Semeri ta Anaiak Anaiari edo beste Nonork nonori emon daikeozan lurondasunak bere, orixe berori egiñik, orrelantxe emon dagiozala. Eta guztiak batera ezer zeaztu barik aitatze orretan illobia ta Elizako lekuak bere artu daitezala eta Etxe edo Baserri ari dagokiozan edozelango beste ondasunak bere bai.

XIII Legea. Zeaztu baga oro-ar egiten diran emoitzak zelan ulertu bear diran.

Baita, esan eben: Norbaitek, jazo oi danez, bere semeri edo ondorengori bere Etxea edo Baserria beroni dagokiozan guztiekaz eta ondasun mogikor eta lurondasun guztiagaz emoten dautsala, eta ondasun mogikorren doarik eta oro-ar emote onek indarrik ba ete daukan edo izan bear ete dauan eta zein ondasun mogirretara edatzen dan zalantza izaten dala. Orregaitik, zalantza ta oztopo guztiak kentzeko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onango ituna indardun eta baliodun izan daitela, lurdun ondasunak beste sort-senideentzat izan ezkero, gorago esanda dagoanez. Eta beste ondasun mogikorrak doarik emoteari buruz, barriz, emon eta doarik emoten dauanak nai dauana berezi daikela eta berezitako au berak nai dauanarentzat izan daitela: eta ezer berezi ezik, berari dagokiozan ondasunak oro-ar esatean, Baserria eroateko bearrezko diran apaindura ta edergailluak eta doarik emoten dauan etxe aretan dagozan upel eta kutxa ta ogeak aditzen dira-

Ezkon-sariak eta emoitzak

la, berezi dana izan ezik.

XIV Legea. Ondasun mogikorrak eta lur-ondasunak eta sort-ondasunak zelan erabilli daitekezan, umerik izan badadi ta ez badadi.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela edozein Gizon edo Emakumek ondasun mogikorrik izan ezkero, zein bei ta idi zein beste edozein eratako abere, zein liñuzko ta ulezko jantzi, zein urre ta zillar, zein beste edozein eratako ondasun mogikorrik, legezko Semealabarik, ondorengorik edo aurretikorik izan ezkero, ondasun mogikor eta lur-ondasun guztien bostena arteraiño bere gogara erabilli ta itxi daikela, eta geiagorik ez: legezko ondorengorik eta aurretikorik ez baleuko, barriz, ondasun mogikor guztiak bere gogara erabilli daikezala, lur-ondasunak sort-senideentzat berezirik: eta lur-ondasunak eta mogikorrak dituanak zorrik baleuko, zorrok ondasun mogikorrez ordaindu daitezala, ez lur-ondasunez.

XV Legea. Lurralde Lauan ondasunak dituen urietako bizilagunek, ondasunok erabilkeran, Foruak agintzen dauana egin dagiela.

Baita, esan eben: Bizkaiko Urietako bizilagunen batek, jazo oi danez, bera dan Uri aretako auzimendean daukazan lur eta soloez gaiñera, Lurralde Lauan eta ango auzimendean beste lur eta solo batzuk izaten dituala, baita sort-ondasunak bere: eta onango uritarrak, naiz bizialdian naiz eriotz-aldian sort-ondasunok bereziki edo Uri aretako soloekaz naasturik erabilli oi dituala; eta sortetxetiko ondasunok sortetxetikoak ez diranak bezela erabilli ba ete daikezan ala ez zalantza izaten dabela. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, (Erreiñuko Legeen arabera) ondasunak zatigarri diran Uriko bizilagunak Lurralde Lauan eta Bizkai'ko auzimendean daukan lur-ondasun guztia, izatez eta izaeraz, Lege bereziz eta Foruz Bizkaitarrek Lurralde Lauan daukezan

Ogeigarren Atala

sort-ondasunen erakoa izan daitela; eta naiz bizialdian naiz eriotz-aldian Lurralde Lauko Bizkaitarrek erabilli daikeenez erabilli daikezala: eta sortetxetiko ondasunok dirala-ta, Lurralde Lauan bizi diran Bizkaitarrek eurek ondasunak zelan saltzen eta izten dituezan eta sortsenideak bere alantxe erabilteko onetsi daitezala.

XVI Legea. Erosi dan Lur-ondasuna ondarez arturikoaren erakoa izan daitela.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, gizonek edo emakumek bere bizialdian erosi daiken edo erosi dauan lur-ondasun guztia jabez aldatzeko edo nork beraren naierara erabilteko ez daitela ondasun mogikortzat artu, sortetxetik etorpidez datorren etxepartetzat baiño, eta ez dakiola erbestekori emon edo itxi, oiñordekori edo sort-senideri izan ezik, beste lur-ondasunak lez, Foru onen arabera beronek jarauntsi bear dau-ta.

XVII Legea. Jakien artzealde egiñiko emoitza doan emoleari biur dakiola, bera bizirik dala, semealabarik ez eta doaduna il ezkero.

Baita, esan eben: Norbaitek, jazo oi danez, bera bizirik dala, bere semeri edo beste oiñordeko bati jakiak eta serbitzuak artzeko eskubidez berea emon ezkero, eta seme edo oiñordeko au, bere aita edo doan emolea bizirik dala, seme-alabarik ez eta il badadi, olakoan, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, orrelako emoia aitari edo emon ebanari biur dakiola, berebereak diran ondasunak lez erabilli dagian; eta oiñordekorik edo ondorengorik izan ezik, orrelango doadunak ezin daikezala aitaturiko ondasunak erabilli ez bere bizialdian, ez eriotz-aldian.

XVIII Legea. Emoitzat eta agintzaritzat ze ondasun emon daiteken, eta nori.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta

Ezkon-sariak eta emoitzak

Legetzat ezarten ebela, ez gizonek ez emakumek ezin daikela lur-ondasunik kanpokoari doarik emon edo agindu edo itxi, legezko ondorengorik edo aurretikorik edo laugarren maillako zearkako sort-seniderik izan ezkero. Ondasun mogikorrak, ostera, bere naierara erabilli daikezala, legezko ondorengoak eta aurretikoak dituanean, ondasunen bostena gaindu ezik. Eta lur-ondasunei buruz bere arimaren alde bostena arteraiñokoa erabilli daikela, legezko oiñordeko ta sortsenideak izanda bere.

XIX Legea. Illobiez.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, norbaitek, jazo oi danez, berak dituan Etxea ta Sortetxea ta Elizako illobiak ezkonsaritzat edo emoitzat emongo baleuz, edo bera ez danerako Semeren edo ondorengoren bati agindu ta itxiko baleutsoz, olakoan, beste Seme-alabek (emoitza edo agintzari ori gorabeera) euren Aiten edo Amen illobian edo illobietan eortzi ta lurperatu daitezala agintzeko bidea ta eskua izan dagiela, eta oiñordekoak ezin daikela au galerazo, bere Anaia-arrebek eta Etxeko Seme-alabek (illobi ta lurpeok baga) non eortzi ta lurperatu izan badaukela esan arren. Beste lekuren bat izanda bere, euren naierara aukeratu daikeela euren Aita ta Ama eortzita dagozan lekua. Baiña onango Anaia-arreben Seme-alabek, jazo oi danez, euren Etxe ta Baserri ta illobiak beste lekuren baten euki ezkero, olakoan, Anaia-arrebon Seme-alabak eta oneen ondorengo ta zearkako senideak illobi areetan lurperatu daitezan ezin daitekela nagusiaren gogoaz bestera agindu. Baiña laugarren mailla barruko *Seme-alabok eta ondorengo ta zearkakook euren illobirik edo orren zatirik izan ezik, olakoan, naiz legezkoa naiz edozein sasikumetarikoa izan, euren Gurasoen edo Aititen edo aurretikoen illobi ta lurpetan eortzi daitezan aukerameneż eta eragozpenik baga agindu daitekela; eta illobitzeari gagokiozala, oiñordeko nagusiak ez dagiala ezelango eragozpenik eta oztoporik jarri,*

Ogeitabatgarren Atala

gorago aitaturiko eortze guztietan illobi buruan lurperatua izateko eskubidea oiñordeko nagusiarentzat, berau da-ta oiñordeko ta ondorengo, edo ezkon-sariz Etxea ta Sortetxea itxi jakozanarentzat izan ezkero.

OGEITABATGARREN ATALA, ILBURUkoak eta agintzariak eta ilburukobakoak dirala-ta.

I Legea. Senar-emazteek batera dagiten ilburukoaz, eta bizirik gelditu danak zein kasutan indargatu daiken.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Senarra il-zorian edo gaixorik edo onik dala, berak eta Emazteak alkar arturik, Ilburukoa edo agintzariak batera egingo balebez, eta batak egiñiko Ilburukoa besteak goratu edo onartuko baleu, edo illik dan Ilburukogiñaren bizialdian onetsiko baleu, onango Ilburukoa edo agintzaria ta Ilburuko arek dakazan izendatze edo izendatzeak indardun eta baliodun izan daitezala; eta Ilburukoa egin eta andik urtebete ta egun bat baiño leen bietatik bat ilgo balitz, bizirik gelditu danak ezin daikela indargatu, eta Ilburuko orrek aitatzen dauan ondasunik ezin daikela saldu ez jabe-aldatu, ezta Ilburukoak dakarren erara baiño erabilli bere, eta bizirik gelditzen danak geroago egindako zorrakaitik bere ezin daikela saldu edo beteeragiñez besterendu, erdiaren gozamena jabetzaren kalterik baga bere naierara bizi dan guztian beretzako izan ezkero; baiña andik urtebete ta egun batera biak bizi izan ezkero, euretariko bakotxak indargatu daikela ta beste edozein Ilburuko egin, Azken Naia agertuz.

II Legea. Ilburukoaren indargatzea zelan egiztatu hear dan.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, norbaitek Erri-Eskribau baten eta Lekukoen aurrean bere Ilburukoa egingo baleu, bere agintza-

Ilburukoak eta Agintzariak

riak eta agintzak egin eta oiñordekoa izendatuz, eta Ilburukoa egin eta Egillea ilda gero, jazo oi danez, aren seme-alaba edo sortsenideren bat, Lekukoak ekarririk, Ilburukogiñak Eskribauaren aurrean egin eban Ilburukoa Lekukoon aurrean indargatu egin ebala ta beste oiñordekoren bat izendatzea erabagi ebala egiztatu nai izanez etorriko balitz, onango egiztapen askotan guzurra dariola ibilli oi dirala.

Orregaitik, oker ori uxatzeko, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, oiñordekoa edo oiñordekoak izendatzea dala-ta, Erri-Eskribau ta Lekukoen aurrean egiñiko Ilburukoa ezin daitekela Lekukoen aurrean Erri-Eskribau barik indargatu, Eskribauaren aurrean egiñiko leen Ilburukoa baliozko izan baiño; beste agintzari ta agintzei buruz, ostera, Eskribauak egindako Ilburukoa indargatu daitela, indargatze au bear-ainbat Lekukok egiztaturik.

III Legea. Ordeazkoak dirala-ta, eta oiñordekoa zelan autatu daikeen.

Baita, esan eben: Askok, il-agiñean dagozala, ezin daikeela Ilburukorik eta agintzaririk atondu ta egin eta, aal izan arren, ez dabela Azken Naia agertu gura izaten, eta beste batzuei, euren alderdikoei ta adiskideei, edo Emazteak Senarrari edo Senarrak Emazteari, aalmena emoten dautseela, Ilburukoa egin bear dauana ilda gero, Ordeazkoek Ilburuko ori egin dagien, oiñordekoa edo oiñordekoak izendatuz; eta il danak bere oiñordeko izango diran Seme-alaba edo ondorengo edo sortsenideak umezurtz eta txiki izatea jazo daitekela, ta onelakoen adiña ta izaera ta gaitasuna kontutan artu ezkero, Ordeazkoek ezin izaten dabela egokiro autatu, umeon artean oiñordeko izateko ta Etxe ta Baserria eroateko egokien eta geien gauza dana edo bear-ainbateko gaitasuna daukana edo Etxerako aukerakoena izendaturik, eta orregaitik umeen artean eta luzatu baga autatu bear dalako, ez dirala batzuetan bear litzatekezan ondorengoak izaten. Orregaitik, Foruz, usarioz eta oituraz ebena Legetzat

Ogeitabatgarren Atala

ezarriz, erabagiten ebela, onango aalmena ta ordeazkotza baliozko izan daitela eta Ordeazkook oiñordekoa edo oiñordekoak izendatu daikeezala, nor edo nortzuk izango diran izenez aitaturik, Ilburukogiñaren Seme-alaba edo ondorengo edo sortsenide edo sortetxetikoek, Ilburukogiña ilten danean, ezkontzeko bear dan adiña euki ezkero; eta, olakoan, Ordeazkoek urtebete ta egun bateko epea izan dagiela izendapen au edo izendapenok egiteko; baiña Seme-alabok eta ondorengook umezurtz adiñetakoak izan ezkero, Seme-alaba ta ondorengoak adinbako ta ezkontzeko gai diran bitarte guztian Ordeazkoek izendatzea egiteko eretia izan dagiela, eta adin orretara eldu ta andik urtebete ta egun batera, eurek nai daben aldian autamena ta izendapena egin dagiezala. Eta egingo leukeen izendatze au indardun izan daitela, Ilburukogiñak bere Ilburukoan eta Azken Naia agerkeran zein semek edo ondorengok edo oiñordekok urrengo jabetasuna bereganatuko dauan edo Ordeazkoek zein autatu ta izendatu bear daben iragarri ez badau bere. Baiña, jazo oi danez, egunak joan eta egunak etorri, orrelako Ordeazkoren bat edo batzuk autakuntza egin baga il egingo balira, bizirik izango litzateken edo litzatekezan Ordeazko guztiek aalmen ori bardiñean izan dagiela.

IV Legea. Eskribau bagarik egiten dan ilburukoaz.

Baita, esan eben: Bizkaia menditsua danez ta bertoko Erritarrak eta bizilagunak bata-besteagandik aldenduta bizi diranez, norbaitek Ilburukoa egin bear dauanean, Erri-Eskribaurik ez dala izaten, ezta Legeak eskatzen dauan beste Lekukorik bere. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, edozein Gizonek edo Emakumek mendiko lekuren baten izen oneko diran eta orretarakoxe erreguz deituak izan diran Gizonezko zintzo biren eta Emakume baten aurrean Ilburukoa egingo baleu, bere Azken Naia adierazorik, Ilburuko au ta Azken Nai au baliozko izan daitezala,

Ilburukoak eta Agintzariak

Lekukook oizko Epaikariren aurrean alderdiak (au da) ilburukobako diran sortseniderik urrenak eskaturik, Ilburukogiña il eta irurogei egunen buruan aurkeztu ezkero, oiñordekoa ta Lekukoak lurraldean diranean; eta oiñordekoa kanpoan izan ezkero, epe beraren barruan, lurraldera etorrita gero kontatzen asita. Eta epe ori joanda gero Lekukoak ager baleitez, areek esana ez daitela egiztagarri ez probagarri izan, ezta aztarrenez bere, Lekukook lurraldean izan ezkero; Konderritik at izango balira, ostera, alderdiak izendatu dagizala ta Ilburukoa egin zanean kanpoan izan zirala egiztatu dagiala, eta alderdiak eskaturik, ekarteko bear dauan epea Epaikariak emon dagiola; eta beste era batetara aurkeztuko balitzaz, ez daitezala egiztagarri izan, esan danez; eta alderdiak barriro ekarri gura izango baleuz, esaniko eran eta epe barruan egin daikela, leen Auzi-liburua ta oni ondorioz erion izan jakona Lekuko euren aurrean aurretiaz ausi ta urratu ezkero, eta onan apurturik, egia, dakienez, agertu daikeela.

V Legea. Lur-ondasunak eta mogikorrak dituanak zelan eta zenbatez erabilli daikezan, aurretikoak eta ondorengoak dituanean edo ez dituanean.

Baita, esan eben: Ilburukoak Erri-Eskribaurik baga Lekukoen aurrean egin oi dira-ta, ikusien gaiñera agertu danez, askotan iruzur egiten dala, oiñordekoen eta ondorengo ta agintzadunen artean Lekukoen egiztabideak era batetara ta bestetara jasoten diralako eta egizkoak ez diran agintzat egin oi diralako, batetik, eta Lekukoetariko batek bere kabuz eta Ilburukogiñak eragiñik, onek izten eta agintzen dauana Gomutagarritzat idazten daualako, bestetik, eta Ilburukogiña il ezkero, Idazleak (ausaz) berak nai dauanez, bere alderako geiturik edo gitxiturik idazten dau, eta Lekukoek gero idatziriko au aitatzen dabe, Ilburukogiñak euren aurrean egin ebana gogotan artu baga; eta onegaitik auziak eta auziak eta eztabaidak eta eztabaidak sortzen dirala. Orregaitik, guzti au kentzeko, Foruz

Ogeitabatgarren Atala

ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, Erri-Eskribau baten aurrean egiten ez dan Ilburukoa ta Azken Naia izan ezkero, ondorengoak eta oiñordekoak daukazan Ilburukogiñak ezin daikela familiaz bestekori ondasunen bostena baiño geiagorik itxi, eta illetak eta elizagintzak bosten orretatik atara bear dirala beste ezer baiño leenago; eta ondorengorik eta aurretikorik izan ezik, bere ondasunen bosten au bere Arimaren alderako itxi daikela eta geiagorik ez. Eta au Lurondasunei buruz; mogikorrei buruz, ostera, ondorengorik eta aurretikorik ez bada, bere gogara ta berak nai izango leuken erara itxi daikezala, eurekaz beste ezer baiño leenago illetak egin ezkero.

VI Legea. Senar-emazteek bien ondasunak batera erabilli daikeezala eta bakotxak bereak.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Senar-emazte biek batera Seme-alabaren bati, asko izan arren, edo ondorengoren edo (orrelakorik izan ezik) aurretikoren edo zearkako sort-senideren bati, beste guztiak lur-zati txiki edo aundi batega baztartuz, eurena biena dana emon eta doarik emon edo itxi daikeoenez, euren azken aldian eta Azken Naia agerkeran bere onantxe itxi ta banandu daikeela. Eta ez biek batera soilki, baita bietako batek bakarrik bere berari dagokion erdia besteagaz barik erabilli daikela, ondorengoen edo aurretikoen edo zearkakoen artean bananduz, gorago azaldu dan arauera ta erara.

VII Legea. Seme-alabei eginbearra zein kasutan ezarri dakieken.

Baita, esan eben: Euren ondasunak eta ondarea erabilten zituen Gurasoek eta beste batzuek naiz bizialdian naiz eriotz-aldian (beste Seme-alabak eta sort-senideak euren ondasun, seniparte ta ondarerik baga itxiaz eta baztartuaz eta orretarako emon jaken lurzatiaz gaiñera), onelan baztarturiko Seme-alabei ta

Ilburukoak eta Agintzariak

sort-senideei marai-pilloren bat edo beste edozein ondasun askotan emoten eta izten eutseela, Gurasoek eta beste erabiltzailleek maraion eta ondasunon bidez baztartu izanei eginbearren bat leporaturik; eta askotan eginbear ori leporatu eitekean zalantza izaten zala, ondasunok eta maraiok eginbearrik ez daukan senipartearen ordez emoten jakezala zirudialako, eta, ori dala-ta, auziak iraun egiten ebela; eta zalantzok kendu ta auziok galerazoteko, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten, Gurasoek eta beste edozein erabiltzaillek naiz euren bizi-aldian naiz eriotzaldian senipartearen eta baztarturikoei zor jakenaren kaltetan ezin daikeela aitaturiko lur-zatiari dagokion eginbearrik ezarri, ez loturarik, ez menderatzerik ez biurtu bearrik, lur-zati orregaz egin oi dan baztartzea ta bereizketa egikeran; aitaturiko lur-ondasun ori senipartearen eta zor diranen ordez emoten dalako; eta eginbearrik ezarri balegie utsa ta ezarri ez balebe lez izan daitela. Gurasoek eta beste erabiltzailleek, baiña, niz bizialdian naiz eriotzaldian (baztartzea egin dan lur-zatiaz gain) Semeri edo Alabari edo sort-senideri edo beste norbaiti marai-pilloren bat, zein onenbeste zein arenbeste izan, edo beste edozein ondasun mogikor edo lur eta abere-ondasun, eskubide edo eginbide emon edo doarik emon edo itxi balegioe (Seme edo Alaba edo ondorengo edo sort-senide edo beste edozelango baztartuei ezkon-sari edo emoitzat, ezkontzagaitiko edo ezkontza-ornitzat emonak izan arren) baliozko izan daitela, eta dalako lur-zatiaz gaiñera, aitaturiko Gurasoek eta erabiltzailleek naiz bizialdian naiz eriotz-aldian emon edo itxi dituen maraiotan eta ondasunotan ezarritako edozein lokarri, menderatze, biurtze edo beste edozein eginbear edo erabagi bete daitela.

VIII Legea. Ilburukorik ez, eta lur-ondasunen eta mogikorren gerokoa zelan erabagi.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Ilbu-

Ogeitabatgarren Atala

rukorik baga eta Azken Naia agertu baga Gizonen edo Emakumeren bat il baledi, legezko semerik edo ondorengorik euki ezkero, ondasun guztien oiñordeko eurak izan daitezala, maillaz-mailla ta urrenezurren; eta Seme-alabarik eta ondorengorik izan ezik, aurretikoak izan daitezala ondorengo ta oiñordeko, maillaz-mailla ta urrenezurren (au da): lur-ondasunei gagokiezala, ondasunok zein sortetxeri ta etorbideri dagokiozan eta andixek datozan ondorengoak; eta aurretikorik ez baledi, lur-ondasunok zein etorbideri dagokiozan eta etorbide aretako sort-seniderik urrenak, eta Ildakoak aitaren aldetik ondarez arturiko edo eskuraturiko lur-ondasunak itxiko baleuz, etorbide aretako senideek eurentzakotu dagiezala urrengorik urrengora ta maillaz-mailla, Ama bizirik baldin bada bere, eta Amaren aldetik ondarez arturiko ondasunik baledi, Amaren aldetiko senideek bereala eurentzakotu dagiezala urrengorik urrengora ta maillaz-mailla, Aita bizirik bada, artzaille izan baga, eta illik bada, Aitaren aldetiko senideak artzaille izan baga, senitartez eta odolez urragokoak izan arren. Ondasun mogikorrei gagokiezala, ostera, Aitaren eta Amaren senide guztiak bardiñean izan daitezala oiñordeko urrenezurren eta maillaz-mailla aurretikorik ez baldin bada; eta Aitaren aldetiko senideak geiago izango balira Amaren aldetikoak baiño, edo alderantziz, olakoan, Aitaren aldetikoek erdia jarauntsi dagiela eta Amaren aldetikoek beste erdia, ildakoak, bera bizirik zala, agintzariz edo emoitzaz ondasun mogikorrak beste senitartekoren edo familiaz bestekoren bati itxi izan ez baleutsoz; eta aurretikorik izan ezkero, ildakoak itxiriko mogikor eta abereondasun guztia urrenezurren aurretikook eurenganatu dagiela.

IX Legea. Aitak beste ezkontzako seme-alabak dituanean, semegandik ondarez eskuraturiko ondasunak zelan erabilli daikezan.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten

Ilburukoak eta Agintzariak

ebela, jatorrizko erabidea urratuz, jazo oi danez, aitak edo amak (seme-alaba bi edo iru edo geiago izanik) bere aita edo ama il egin zalako, oneetariko semeren batek zituan ondasunak eta ondarea bereganatuko edo bereganatu izan baleuz, onan jarauntsi dauan aita edo ama bitan edo geiagotan ezkonduko balitz eta bigarren edo irugarren ezkontzako seme-alabarik izango baleu, olakoan, aita edo ama onek leenengo ezkontzako semegandik ondarez bereganatu eban lur-ondasunik ezin daikeola ez bere bizialdian ez eriotz-aldian bigarren edo irugarren ezkontzako semeren edo ondorengoren bati emon edo itxi, leen ezkontzako seme-alabei baiño; eta oneen arteko nai dauanari emon daikeola edo nai dauan erara banandu, zein bere bizialdian zein azken egunetan.

X Legea. Arimarentzat zer itxi daiteken.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, ondorengo edo aurretiko oiñordekorik ez daukan gizonek edo emakumek lur-ondasunen bostena baiño geiagorik ezin daikela bere Arimaren alderako emon edo itxi, eta bosten au ondasun mogikorrik euki ezik; mogikorretan lur-ondasunen bostena gaindu ezkero, ezin daikela ez bere bizialdian ez eriotz-aldian lur-ondasunetatik ezer itxi, Ilburukogiñak erosiak edo beste edozein eratan eskuratuak izan arren, oiñordeko diran sort-senideei ta sortetxetikoei eta, ain zuzen, bere Ilburukogiñak autatu ta izendatu nai izango leukezanei itxi baiño, Foruaren arabera oiñordeko oneexek izan bear dabe-ta, urreragoko maillakorik izan arren eta ondasunak bizialdian erosiak izan arren, beste sort-senideak lur-zati txiki edo aundi bana emon eta alde batera baztarturik; eta ondasun mogikorrei buruz nai izango leukena egin dagiala.

OGEITABIGARREN ATALA, ADINBAkoen eta oneen ondasunen zaintzeaz.

Ogeitabigarren Atala

I Legea. Umezurtzen aitorde ta zaintzaille izatea nori dagokion.



eenengo, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Senarra edo Emaztea il eta aren Seme-alabarik edo ondorengorik geratuko balitz, bizirik dan Aita edo Ama Seme-alabon legezko Aitorde ta arduradun izan beite, Legezko epean lege-eginbearrak eta ondasunen zerrenda egin eta, Aitordea familiaz bestekoa danean, Legez ezarri bearreko baitura ta babesa ezarri ezkero; eta lege-eginbearra ta zerrenda onelan buruturik, adin-bakoak eta oneen ondasunak bere mendean euki dagizala eta Aitak seme-alabon ondasunen gozamena izan dagiala, bera edo Seme-alabak edo oneetarikoren bat ezkontzeko dagoan bitartean; Seme-alabak, baiña, ondo zaindu bearra dauko ta oneen ondasunak legez eta zintzoro erabilli bearra, eta azi ta jaten emon eta irakatsi ta ondo oitu, irakurten irakatsi ta beste guztia egin bearra, Aita batek bere seme-alabei egitea egoki danez, gozamenaren frutuak aitaturiko jakiez kitaturik. Amak, barriz, ez dagiala gozamenik izan, ez ezer beretzakotu, eta ez dauko bere Seme-alabei jaten emon bearrik (nai izango ez baleu) areek zer jan izan ezkero; zerrenda egin eta legezko aitordekotza artu ezkero, Seme-alabak eta oneen ondasunak bere mendean euki dagizala, alargun jantziz dagoan bitarte guztian zaintzen eta azten dituala eta ondasunak errentan emon eta jagoten dituala; eta au, Seme-alabei buruz Aitak aitaren mendea daukalako, Seme edo Alaba ori ezkontzeko dagoan bitartean, eta Amak, ez. Aitak, baiña, jazo oi danez, Seme-alaboi jaten ez emotearren, beretzako gozamenik nai izango ez baleu, olakoan, ezin daitekela Seme-alaben aitorde ta arduradun izan, eta Epaikariak beste aitorde ta arduradun egoki batzuk izendatu dagizala senide urrenen artean, Aitaren aldetik bat eta Amaren aldetik beste bat ezarririk, eta adin-bakoak eta oneen ondasunak areen mendeko izan daitezala, Legezko eginbearrak bete ezkero eta ondasunen

Adinbakoen eta oneen Ondasunen

zerrenda eurei emonik; eta Amak aitorde ta arduradun izaterik nai izango ez baleu, orixe berori egin daitela, aitorde dan artean gorago erabagi dana beterik. Adinbakoak, baiña, umezurtz-arotik eta aitordea izendatzekotik urten ezkero, Amaren aitordekotza ta ardura amaitu beitez, bere ardura-aldiaren kontua ta ordaiña Seme-alabei emoten dautsela, eta oneek aitordetzat autatzen baldin badabe, izan daitekela, onelakoan Legezko eginbearrak bete ezkero. Aita, barriz, bere Seme-alabak umezurtz-arotik urtenda bere (ezkontzen ez danez eta bere mendean daukazala, areen ondasunen gozamendun danez) areen legezko arduradun izan daitekela, Seme-alabok euron eskuko izan arte. Baiña zein Aita zein Ama ezkonduz gero, adin-bakooi beste aitorde ta zaintzalle batzuk ezarri bekiez, Aitaren aldetik bat eta Amaren aldetik beste bat, gorago esan danez. Eta gorago esandako guzti au, Aitak Ilburukoan Seme-alabentzat aitorderik edo zaintzaillerik aukeratu ez dauanean bete daitela; Aitak aukeraturikoak Ama ta beste senide ta sortsenideak baiño leenago dirata.

II Legea. Adinbakoa bere ondasunen ardura izateko gauza baldin bada, emon dakiozala, amazortzi urtetakoa izan ezkero.

Baita, esan eben: Aitaturiko Zaintzaillek adinbakoak eta oneen ondasunak Legearen arabera ogeitabost urterarte euren mendean eukiten dituen arren, adinbako batzuk, jazo oi danez, urte orretara eldu aurretik, euren buruen eta ondasunen ardura izateko naiko zuur eta burutsu izan oi dirala. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela ta Legetzat ezarten, edozein Gizakume edo Emakume, amazortzi urtekoa izan ezkero, bere Epaikariaren aurrera azaldu ta adin orretakoa badala eta aitaturiko Zaintzaille barik, bere buruaren eta ondasunen ardura izateko ta jagoteko, zuzentzeko ta zaintzeko beste buru argiko, zuur eta arduratsua badala berari jakin eragin dagiola; eta Epaikariak argibideak eka-

Adinbakoen eta oneen Ondasunen

rrita (orrenbeste urte badauala ta gai badala jakinda gero) atakotzat ager dagiala, Zaintzailleen agindupetik atara eragiñik eta Zaintzailleok adinbakoari beronen ondasun, frutu ta errenta guztiak emon dagioezala agindurik.

III Legea. Aitordeek eta zaintzailleek euren ardura izatearen ordez ze sari artu bear daben.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, adinbakoen Aitorde ta Zaintzailleek adinbakoon eta euron ondasunen ardura dala-ta, izan dituen zeregin eta bearren ordez Epaikariak ze sari erabagi dauan eta axe eurentzakotu dagiela, ondasunen onenbestekotasunaren, arduraren eta bearren ordaiña aitaturiko Aitorde ta Zaintzailleek neurri batez artu ebela kontutan izanik.

OGEITAIRUGARREN ATALA, GURASOen eta aitita-amamen janariak eta bizigarriak dirala-ta.

I Legea. Doan emoleak janariak artze-alde doadunari ondasunak emonda gero, doaduna, adinbako umeak dituala, il badadi, doan emoleak bere janariak izan dagizan eta adinbakoak bertan beera gelditu ez daitezan, zer egin bear dan.

Leenengo esan eben: Batzuren batzuk, jazo oi danez, euren bizialdian semeri edo senideri ezkontza-bidez edo beste bideren batez ondasunak emoten dautsoezala, eurek janariak eta serbitzuak artzealde; eta doan emolea bizirik dala, ondasunak eskuratu zituan doaduna, adinbako seme-alabak edo ondorengoak dituala, il badadi, doan emoleak batzuetan onelango seme-alaba adinbakoei iruzur egin eta doan emoniko ondasunak bizirik dan euren seme-alabaren bati eta batzuei ondarez itxi nai izanik, eta beste batzuetan eurek dituen beste arra-

Janariak eta Bizigarriak

zoi batzuengaitik, Elizara joan eta janarien ordez eurek emongo leukeezan ondasunak nork artu gura dituan deiak egiten dituela, eta au ixillik egin bere: eta adinbakoen Aitorde ta Arduradunek ezer ez dakielako naiz iruzur aretan tarteko diralako, iruzur ori ostendurik, ondasunok errematean familiaz bestekoren bati edo-ta doan emolearen beraren semeren bati saltzea onartu egiten dabela; doan emoleek, gaiñera, familiaz besteko diranengandik barik, euren semealabengandik edo urreko senideengandik janariak artzea naiago dabela esaten dabe. Eta iruzurbideok kentzeko ta batari ta besteari konponbidea emoteko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, doan emoleek deiak adinbakoen Eliza Nagusian egin dagiezala, jatorriz nongoak diran eta antxe, adinbakoon Epaikariaren aginduz, euroi ta euron Aitorde ta Arduradunei (izango balebez) aditzera emonik, eta Aitorderik eta Arduradunik ez baldin bada, legezko begiraleak ezarririk. Eta deiak onantxe eginda, Aitorde ta Arduradunak aitaturiko bizigarriak emotera ta erantzugille lauak izendatzera beartu daitezala, eta au egin eta beste betebearrak bete ezik, doan emoleek Epaikariari baimena eskatu dagioela ondasunei buruz berak nai izango leukena egin dagian; eta Epaikariak Gizon on bana izendatzeko agindu dagiala, eta bien arteko konponbidea aipaturik, ondasunak ikusteko agindu dagioela, janariak eskatzen dituenek maltzurkeriz ori egiten daben eta ondasunen frutuak eurentzakotu daikeezan ikusirik; eta maltzurkeriz eskatzen dituela Epaikariak ikusiko baleu, adinbakoen kaltetan ez daitezala besterendu agindu dagiala; maltzurkeririk baga ta premiñaz dagozalako eta ondasunen gozamenaz ezin bizi diralako eskatzen dabela ikusiko baleu, ostera, semeren edo oiñordekoren bati edo nori nai daben eta arixe aukeran emoteko ager dagiala; eta onan emonikoa baliozko izan daitela, aurreragoko doan emotea kontutan artzeke. Adinbakoak, alan bere, euren eskubidea babesteko, Aitordeen eta Arduradunen aurkako egin-

Ogeitairugarren Atala

bidea izan dagiela, oneen ardurarik eza salatuz. Eta Aitita doan emolea illik izan ezkero, Amama bizirik dala, edo alderantziz, bizirik danak ildakoaren ondasunen erdia bizigarritzat eska daikela, itune eginda edo batak eta besteak alkar artuta, izkribuz besterik erabagi ez bazan.

II Legea. Janariak artze-alde ondasunen doan emole diranak ondasunoi buruz doadunen beste artzekodun guztiak baiño leenago izan daitezala.

Baita, esan eben: Aitak edo Amak edo besteren batek, jazo oi danez, seme-alabei edo sort-senideei ezkontzabidez edo beste bideren batez janariak eta serbitzuak artzeko eskubidez eurena emoten dautsela; eta eginbear onegaz ondasunak eurenganatzen dituenek edo oneen seme-alaba edo ondorengoek, doan emolea bizirik dala, zorrak egiten eta betebearrak leporatzen dituela; eta Artzekodunek bete-eragipenez ondasunak saldu eta besterenganatu egiten dituela, bete-eragipenezko saltze oni doan emoleek euren leenagoko itunaz edo baituraz aurka egiten dautsoelarik; Artzekodunak, baiña, janariekazko eginbear beragaz artzea nai dauala-ta, errematean gorago joten dauala; eta (doadunengandik janariak artu bear dituana Aita edo Ama danean, batez bere), ez dala arrazoizkoa familiaz bestekorengandik artzea. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, doan emoleek, eurak bizirik dirala edo euretatik bat bizirik dala, onelango baitura edo janaribearkuna ezarri baldin badabe, doan emoniko ondasunik, ez oneen zatirik doadunaren edozelango zor eta lege-austegaitik (doan emolearen baietzik baga) ezin daitekela saldu, ez besterendu.

III Legea. Janariak artze-alde ondasunak doan emoten dituenek bear daben bizigarririk ez dabela artzen salatu ezkero, zer egin bear dan.

Baita, esan eben: Batzuren batzuek, askotan jazo oi

Janariak eta Bizigarriak

danez, euren ondasunak seme-alaben edo besteren batzuen eskuetan jarten dituela edo ezkon-sariz edo beste era batez emoten dautseezala, janari, jantzi ta oiñetakoak ordez artzeko; eta gero, zein doan emolea aregaz bat ez datorrelako, zein doadun dan semeak bear dauan beste janari, jantzi ta oiñetako emoten ez dautsalako, eztabaidak eta Auzibideak sortzen dirala, janari, jantzi ta oiñetakook zelan emon ezin ebatzirik; eta onelango Auzibideak kentzeko, Forutzat eta Legetzat ezarriz, erabagi ta agindu eben: doan emolearen eta doadunaren artean onango Auzibiderik sortuko balitz, Korrejidoreak edo onen Ordezkariak edo Foru-Alkateak edo beste Epaikariren batek, nork auzia garbitu bear dauan eta arexek (doan emolea nor dan eta doan emoniko ondasunak aundiak ala txikiak diran kontutan izanik) doan emoleak egun oro zer janari, jantzi ta oiñetako bear dauan neurri batez ikusi dagiala; neurtu danaz doan emolea egokiro bizi aal izan eta janaririk ezagaitik ilteko edo gaixoaldiren baten jausteko arriskua izan ez dagian.

OGEITALAUGARREN ATALA, ETXEgintza ta etxeak dirala-ta.

I Legea. Lagindun batek ola edo errota barriztatu gura izan eta barriztatu bere egin eta besteek orrelakorik nai ez dabenean, zer egin bear dan.

Leenengo, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, lagindun askok Ola edo Errotaren bat guztien artean izan ezkero, Ola edo Errota ori ondatuko balitz denporaldiren baten ezer eio ta landu baga, eta langindunen batek edo batzuek barriztatu nai izango balebe barriro eio ta landu dagian eta beste langindunek nai izan ez, olakoan, agintzen ebela, onantxe agindurik, konpontzea nai dauan langindunak Erri-Eskribauaren bidez beste lagindunei barriztatzera etorteko ots egin dagioela;

Ogeitalaugarre Atala

eta onelan dei eginda gero, etor ez baleitez, deia egin dauan lagindunak aitaturiko Ola edo Errota barriztatu dagikela, landu ta eio eragiñik; eta onelan barriztatu ezkero, beretzat izan eta euki dagiala, barriztatzelanetan eurei egokien zatia emon gura izan ez eben langidunek ezertan parterik artu baga; eta ango errenta ta frutuak beretzakotu dagizala, ezer gitxitu baga eta barriztatukeran eralgiriko dirutzaren ordez ezer artu baga, arik eta langindu bakotxak berari dagokiona ordaindu dagion arte; eta ordainduz gero, oi dana emon dagioela.

II Legea. Edozein bizkaitarrek bere lurrean etxea egin daikela, eta etxegintza barri au dala-ta salatua izan ezkero, zer egin bear dan.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legezat ezarten ebela, edozein Bizkaitarrek, Bizkai'ko bere lurretan Torretxea edo Etxe utsa, zer gura ta axe egin daikela: eta norbaitek galerazoko baleutso edo etxegintza barri ori dala-ta salatuko baleu, alderdiak Epaikariagana joan daitezala; eta Epaikariak alderdioi labur-labur entzunda gero, zortzi egunen buruan argibideak artu dagizala, etxegilleak etxegintza orretarako lurra tituloren bategaz berarena lez bakez daukan jakiteko; eta au garbi ager badakio, irugarren egunetik aurrera eta aitaturiko zortzi egunen barruan etxegilleari etxegintza orretarako baimena emotea erabagi ta agindu dagiala; oizko auzialdian, alan bere, besteren lurrean eregi dauala agertuko balitz, larogeitamar egunak gogoan artzeke eregitakoa lurrera eratsiko dauala, Baiturak ezarririk, aurretiaz berbea emon dagiala; au dala-ta, Epaikariak auzi au amar egunen buruan garbitu dagiala gai orretzaz, gai nagusiari edo jabetzari buruzko eztabaida auzilariek oizko auzibidez erabagitzeko eskubidea dabelarik, zigor onenpean: auzialdia luzeagotu edo beste zerbait egin daiken Epaikariak etxegilleari kalte ta obari guztiak ordaindu dagiozala.

Etxegintza ta Etxeak

III Legea. Etxegilleak etxearen egin-gaiak besteren soloan zear iragon daikezala.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Torretxeren eta Etxeren bat eregiteko edozein Bizkaitarrek dolaren agarik edo beste zurik edo arririk besteren soloan zear eroan bearrik baleuko, egin daikela, lurraren jabeari Gizon on biren eretxiz eta oneen aurrean kaltea ordaindurik, besteren soloan sartu baga ibilkizun dan bide egokirik iragonteko ez baldin bada.

IV Legea. Bidigazak eta abeurreak guztiena dan lurrean zelan bota bear diran.

Baita, esan eben: Bizkai'ko erri-basoak eta usak Aitonen semeenak diranez, eta batzuek basootan zear doazan ibai-bide ta erreka-bideetan bidigazak botatzen eta era berean abeurreak (etxeezaugarri diranak) jartzen dituenez, onango ezaupideak botatzen dituen lekuetan Ola edo Errota edo Boluren baterako andapara egiteko, edo-ta etxetxoa dagoan lekuan Ola edo Errota edo Bolua eregiteko asmoz; eta au ixillik egiten dabela, leku a eurentzakotu dagien, orretarako urtebete ta egun batez, iñork jakin ez dagian, bidigaza uretan ixillik botata eukirik. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, onango bidigazaren bat bota edo abeurreak jarriko leukezanak agirian egin dagiala, lurra dagoan lekuko Elizan, Eskribau baten aurrean, Domekaz eta Meza bitartean eta eskeintza egikeran Kanpai nagusiaz iru dangada joaz adierazorik, eta bidigazak botata ta abeurreak jarrita daukazala eta non eta nondik nora daukazan azaldurik. Eta, olakoan, urtebete ta egun bat baiño leenago aurka egiteko iñor etor ez baledi, leku aretan andapara edo Ola edo Errota edo Bolua eregiteko (zer nai dauan eta axe) eskubidea bereganatu dagiala, berea dan lurrean egingo baleu lez; eta esaniko urtearen barruan Elizate aretako norbaitek aurka egingo beleutso, ezin daikela etxegintza

Ogeitalaugarren Atala

ori amaitu, ez Olarik edo Errotarik edo Bolurik eregi. Eta aurkaririk edo kontra egitekorik izango ez balitz, irabazle izan daitela (esan danez) eta urtebeteren buruan bere eginkizuna buruturik, etxea asi ta egitera beartu daitela, ura neurtu ta etxegintzari jarraitu ezkero (nai izango baleu). Eta urtebete ta egun baten buruan asi gura izango ez baleu, Elizate aretako beste edozein Bizkaitarrek egin daikela, leenengoak bete zituan betekizunak beterik eta, arek lez, ura bereganaturik, eta leenengoz ura bereganatu ebanak edo beste norbaitek aurkarik egiteke, urtebete ta egun bat igaro ta berak leenengo egin ezkero. Eta ura bereganatu ta etxea egin dauanak ezin daikela urte aretan erriko baso edo usa aretako beste lekuren baten urik bereganatu, ez etxerik euki edo egin; bere lurrean, baiña, egin daikela.

V Legea. Lagindunen soloetan bidigazak zelan bota eta abeurreak zelan jarri bear diran.

Baita esan eben: Ola, Errota edo andapararen bat egin daiteken lurra edo soloa, jazo oi danez, lagindun askorena danean, oneetarikoren batek besteen kaltez ura bereganatzeko ta etxea egiteko eskubidea izan dagian, beste lagunekaz barik andapara edo Ola egingo dan lekuetan bidigazak bota ta abeurreak jartzen dituala, onelan euren artean eztabaidak sorturik. Orregaitik, auzi ta eztabaidok kentzeko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, aitaturiko betekizunak bete ta ura bereganatu nai izango leuken lagindunak, leku aretan zer egingo dauan eta bidigazak botata ta abeurreak jarrita daukazala andapara edo Ola edo Errota egongo dan soloaren edo soloen beste lagindunei Erri-Eskribauaren bidez adierazo dagiola; eta ori adierazo dautsenetik ogeitamar egunetara lagindunok edo oneetarikoren batek, beraren kontra jarriz, aurkarik egingo ez baleutso, bere egitekoa egin daikela, besteek ezertan galerazotzeke, euren lagiña eurek egitea nai dabela esan eta

Etxegintza ta Etxeak

asmo ori erakutsiko balebe bere, soloaren beste lagindunei dagokien zatiaren sal-neurriaren bi alakoa iru gizon onen eretxiz dirutan ordaindu ezkero. Ogetamar egunen buruan aurka egingo baleutsoe, baiña, aurka egin dautsan edozein lagindunek, batek edo geiagok, egintza ta zeregin orretan euretariko bakotxari dagokion zatia izan dagiela (lurra ondorez izan ebenez), alkarregaz berbatu diran erara, guztien artean egitekoa burutuz eta etxea egiñez; eta egitekoa noiz asi ezin badira alkartu, Epaikariari joan dakiola eta onek lau illabeteko epe-muga ezarri dagiola; eta epe orretan norbaitek etxea egin gura izango ez baleu, besteek eurentzat egin dagiela, nai izan ez ebanari beronen zatiaren sal-neurriaren bi alakoa iru gizon onen eretxiz ordaindurik; eta auxe berau egin bedi itxas-ertzean errotak egin ezkero bere; eta Ola edo Errota eregiko dan lurraren erdia berea izan daitela eta andapara egingo dan lurraren erdia bere bai; eta andapararen egalak birenak edo geiagorenak izan ezkero, bakotxak ertzaren laurena berea izan dagiala. Baiña andapararen eta Ola edo Errotaren bitartean dagozan soloetan edo etxearen beeraiño ura ekarteko datorren urbidearen iturburuaren bitartean dagozanetan lagindun diranek ez dagiela etxegintzan eta beargintzan parterik izan, ezta andaparatik ibairaiño uraren bidea soloetan zear galerazo bere,lur onen jabeari sal-neurriaren bi alakoa iru gizonek erabagita ordaindu ezkero. Eta arelango lur eta soloetan Eliza edo Jauna langindun izango balitz bere, Bizkaitarrei ta errigizonei buruz gorago esandako orixe bete bedi.

VI Legea. Ola-etxea egingo dan lekua batena ta andapara egingo dana besterena izan eta etxea egiteko biak bat ez datozenean, zer egin bear dan.

Baita, esan eben: Andapara edo Ola-etxea edo Errota-etxea egingo dan lurra ta lekuak batenak eta besterenak izango balitzaz, eta leku baten jabeak etxea egitea nai izan eta bestearenak ez, eta etxea egiteko zein leku auta-

Ogeitalaugarren Atala

tu bear dan edo egitea bera galerazo bear dan zalantza izango balitz, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, olakoan, Ola-etxea edo Errota-etxea eregiko dan lurraren eta lekuaren jabe ta lagindunak andapara egingo dan lurraren jabeak baiño leenago izan daitezala, Ola-etxea edo Errota-etxea egingo dan lekuaren jabeek andapara egingo dan lekuaren jabeei egin eragiñik, eta ez andapararen lekuaren jabeek besteei; eta (Ola-etxe edo Errota-etxearen jabeek eskatu ezkero) andapararen jabeek egiterik nai izango ez balebe, Ola-etxe edo Errota-etxearen lekuko jabeek etxea egin eta eregi daikeela, andapararen jabeek etxerik ez dabèla nai esango balebe bere.

VII Legea. Ola edo errota barriak egiten dituenek ura emon egin bear dabela, gorago egindako zaarragoek kalterik euki ez dagien.

Baita, esan eben: Bizkaia'n Olarik eta Errotarik asko dagoanez, batzuek beste batzuei kalte egiten dautseela, andaparak leku garai-garaian egin eta ura bertaratu eta leenago eginda dagozan goragoko Ola ta Errota batzuei landu ta eiotea galerazo egiten dautsee-ta, ortik eztabaida aundiak sorturik. Orregaitik, ekitaldiok kentzeko, Foruz, usarioz eta oituraz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, Ola edo Errota zaarragoa dagoan alboan barria egin nai dananak, egin daikela, baiña urari bidea emon eta galerazo baga eta andapararra ura eroan eta gorago dagozan Ola ta Errota zaarragoei landu ta eiotea galerazo baga; eta barria egiten dauana gorago ta leenago eginda dagozan Ola ta Errotara ura joateko oizko iru zentzadarreko bitartea iztera beartuta dagoala, urbaztarreko maixuek ori ebatzirik. Eta orrelako bitartea itxiko ez balebe, beeragoko Olaren edo Errotaren jabea andapara beeratzera beartu daitela, goragokoak iru zentzadarreko ura izateko erara ta modura, andapararen azpian ura gelditu arte.

Etxegintza ta Etxeak

VIII Legea. Goragoko olen jabeek urari zelan eutsi daikeoen.

Baita, esan eben: Udaldian Olak eta Errotak uraz urri izaten diranez, goragoko Olen jabeek urari eutsi egiten dausoela, landu aal izateko, ura eurenganatuz; eta onelan urari eutsi jakolako, beerago dagoan Olari kaltea datorkiola, urari bere bidean joaten ez jako izten-eta. Orregatik, Foruz ebena Legetzat ezarriz eta guztiei dagokien erabagia artuz, agintzen ebela, onantxe agindurik, goragoko etxearen jabeek euren naierara urari eutsi daikeoela ta ura doan atea zearo itxi bere bai, beeragoko etxea geroagokoa dala ta goragokoa, barriz, leenagokoa, azterraldia eginda gero, ziur jakin ezkero; biotatik zein dan leenagokoa jakin ezik, barriz, goragoko etxeak ezin daikela uraren atea guztiz itxi, beeragokora ura joan daiten lau azbeteko bitartea itxi baiño. Eta Ola baterako ur-atea balitz, lau azbeteok ez baitez maillu-gurpillaren ur-atearenak langoak izan, sutegi-auspoarentzako langoak baiño; eta Errotei buruz auxe berau egin bedi, bitartea esaniko erara itxirik; besterik egiten dan bakotxean alderdiaren zigorrak eta seireun marairen nekea ezarten dirala Konderriko bideen konponketarako.

IX Legea. Bidigazarik eta abeurrearik ez dagiala iñork kendu Epaikariaren aginduz izan ezik.

Baita, esan eben: Norbaitzuek, goragoko esan danez, auzo-lurrean bidigazak bota ta abeurreak jarrita eukiten dituenez, batzuek euren eskubidez ezkutuka ta ixilka kendu egiten dituela. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Epaikariaren agindu barik iñor ez daitela kentzen ausartu, milla marairen zigorpean bein egin ezkero, eta bi alakoa bigarrenez, erdia ipiñi zituanarentzat eta beste erdia Bizkai'ko errilanetarako dalarik, eta irugarrenez egin ezkero, il daitela; eta zigor orixe izan eta eroan dagiala besteren soloan ipiñi ezkero bere,

Ogeitalaugarren Atala

auzo-lurra izan ezik.

X Legea. Leenago beste bat egon zan lekuan errota edo ola barria egiten dabenei buruz, eta alboan beste batzuk egin dituenek ezin daikeela aurkarik egin, eta barriztatu dagianak bere uraren gozamena izan dagiala.

Baita, esan eben: Batzuek, jazo oi danez, euren lurrean Ola edo Errota izan eta jausten, lurreratzen eta ondatzen itxirik, luzaroan eio ta landu baga eukiten dituenez, eta Ola edo Errota ori ondatuta ta bertan beera itxita dagoala ikusiz, beste batzuek gorago edo beerago zaarraren kaltetan barria egin oi dabela, ura eurentzako arturik eta gorderik. Eta zaarragoaren jabeak edo onen oiñordekoek zaarragoa izan zan lekuan bertan beste Ola edo Errota barri bat egitea edo zaarra barriztatzea gura izan ezkero, geroago egin ebanak, berak eginda daukala-ta, eskubidea berak daukala-ta, aurka egin eta galerazo egin izaten dautsala, ortik eztabaidak sortuz. Orregaitik, zalantzok kentzeko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, norbaitek bere lurrean orrelako etxerik izan eta etxe au lurreratu izan balitz, edozein modutan eta alditan izan dala (zein eun urte zein berreun zein geiago izan) eta aurrezdik Ola edo Errota izandakoaren ondakiñik edo seiñalerik agertuko balitz, esate baterako, andapararen ondakiñik, ziririk edo etxearen oiñarririk edo arragorik edo ikatz zeerik, eta errota-ondakiñik, ziririk edo Errotaren oiñarririk edo andapararen ol zatiren batzuk, olakoan, Ola edo Errota zaarraren jabeak barria egin edo barriztatu daikela, naiz gorago naiz beerago, edozelango etxeak geroago egin baldin badira bere: eta etxe barri au urarentzat esandako iru zentzadarreko bitartea dagokion estoldaren azpitik egon daitela: eta urari eutsirik-edo, goragokoari ez dagiola kalterik egin, eta geroago egiñiko etxeok ari kaltegarri izango jakon guztia alboratu dagiela, uretako Maixuen eritxiz ori ebatzirik.

Zugatz landarei eta beste frutuei buruz

OGEITABOSGARREN ATALA, ZUGATZ-landarei ta beste frutuei buruz.

I Legea. Plazan edo lagindunen auzo-lurrean jarritako zugatz-landarei buruz, eta oneen frutua norentzat dan.

Leenengo, esan eben: Bizkai'ko leku askotan etxe bi edo iru edo geiago izaten dirala, etxeon aurre aldean edo plazan auzotar guztiek eskubidea dabenak; eta auzotar oneetariko batek edo batzuek plaza aretan onelango edo arelango zugatzat landatzen dituela frutua eurentzako izateko asmoz, plaza aretan eskubidea daben auzotarrekaz alkar artzeke eta besteei kalte egiñik. Orregaitik, Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, onango auzotarrik ez daitela onelan landaturiko zugatzik edo igali-zugatzik iñausten ausartu, ez ebagiten, ez frutua berak batzeko astintzen,zigor onenpean: makillaz edo gora igon eta frutua batzen dauanak eun eta amar marairen nekea jasan dagiala, gaiñetiko lagindunentzako izanik; eta zugatzari garauak berez jausten itxi dakiola, eta onelan jausi daitena aal dauanak aal dauana jaso dagiala zugatza landatu ebanak galerazotzeke, guztien lurrean landatu ebaneta. Garaua botateko ta batuteko guztiak edo geienak bat etorri ezkero, baiña, egin daitekela, besteei joateko eskaturik, eta oneek joaterik nai izango ez balebe, nai izango leukeenak batu dagiela; eta esaniko zigorra beste langidunek ogeitamar egunen buruan eskatu dagiela, eta geroago ez. Eta onelango zugatzak eta igali-zugatzak eta arboladuiak guztientzako egon beitez zutik. Eta plaza oneetako frutu ta zugatzei buruz esan au, usa ta erribasoetan landatu ziran eta landatuta dagozan igali-zugatz eta zugatzetara bere luzatu daitela, emen esan dan au onantxe ulerturik eta egiñik, erriak, lagindunek edo partedunek landatu izan diran zugatzei dagokiena landatzailleei ordaindu ezkero, arboladuia landatu zan aldian eta egunean, gizon

Ogeitabosgarren Atala

onen eretziz, zer eralgi zan eta zer balio eban eta axe bakarrik emonda.

II Legea. Soloaren lagindun batek besteek jakiteke landaturiko sagarrondoen aleak norentzat diran.

Baita, esan eben: Langindun bik edo iruk, jazo oi danez, soloren bat danek batera zatitu baga euki eta areetarikoren batek besteei ezer jakin eragiteke sagarondoak landatzen dituala, ortik euren artean eztabaidak sorturik. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, norbaitek sagarrondoak orrelan landatuko baleuz, eta beste Lagindunek urtebete ta egun bat baiño leenago aurka egingo baleutsoe, eralgi danaren lagiña ordaindu nai izanik, guztiek eskubide bardiñez sagarrondoen frutuak batu dagiezala, bakotxak soloan ondarez daukan neurriaren arabera; eta epe ori aurkaririk baga igaroko balitz, ostera, beste lagindunek ez dagiela parterik izan, ordaindu gura izan arren bere, landatzailleak aitondare ta sortetxe bereko beste lekuren baten berea dan eta lagindunen parterik baga daukan arenbesteko solo-zatia emon gura izan ezkero: Eta sortetxe ta jatorri bereko dan solo-zatirik ezin emon izan ezkero, sagasti orren ardurea landatzailleak berak izan dagiala eta garau eta sagar-alearen erdia beste lagindunei emon dagioela sagastiak dirauan artean, areetariko bakotxak solo aretan ondarez daukan eskubidearen arabera; eta sagastia gal badadi, soloa guztiena izan daitela, leenago izan zanez: Eta beste eratako zugatzei buruz bere, auxe berau egin bedi.

III Legea. Landatzailleaaren eta soloaren jabearen artean sagar-aleak banandu egin bear dirala, eta landatzailleek zer egin eta solotik noiz urten bear dauan.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, iñork bere soloa besteri sagarrondoak landatzeko emongo baleutso (frutua erdibana egiteko), landatzailleak soloa landu ta atxurtu

Zugatz landarei eta beste frutuei buruz

ta zaindu ta ongarritu dagiala; eta onelan zaindu ezkero, jabeak eta landatzailleak alcak erdibana egin dagiezala, sagastiaren irutatik bik dirauan artean; eta bitartean landatzailleak urtean bi aldiz atxurtu dagiala eta iru urtetik iru urtera ongarritu amabi urterarte, eta gero bost urtetik bost urtera: Zigor onen azpian, onelan landu ez dauan leenengo urtean, ale guztiak soloaren jabearentzat izan daitezala; eta onelan lantzen ez dauan bigarren urtean, sagarrondo guztiak soloaren jabearentzat izan daitezala, landatzailleak ezertako parterik izateke. Landu ta ongarrituz gero, baiña (esan danez), irutatik bi galduko balitzaz landatzailleak solotik urten dagiala, soloa jabearen menpean lagarik. Eta sagastiaren irutatik bik dirauan artean, jabeak, sagastia emoten asi zanetik aurrera, erdia (ale bitatik bat) beretzat izan dagiala eta landatzaillea ez daitela solo aretatik alerik artzen eta eroaten ausartu jabeak jakiteke eta eskatzeke; zigor onenpean, onelan eroaten dauan guztia bi alakoz ordaindu dagiola; eta soloaren jabea nai dauanean eta eragozpenik baga solo aretan sartu daitela zelan zainduta dagoan ikusteko ta bere garauak eskatzeko, batukeran eta banandukeran landatzailleari antxe egon eragiñik.

IV Legea. Besteren soloan landatzen dabenei buruz.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, besteren iurrean edo soloan zugatzik edo igalizugatzik landatzen iñor ez daitela ausartu, esaterako, intxaurrik, gaztañarik edo lizarrik edo beste eratako zugatzik solo aren jabearen baietzik baga; bortxagilleren zigorrenpean, eta landatu dauan guztia gal dagiala eta lurraren eta soloaren jabearentzat izan daitela, landatzailleak ezertariko parterik izateke, sagarrondoak landatzeari buruz gorago ezarririko Legeak indardun eta sendo dirala.

Ogeitabosgarren Atala

V Legea. Landatzen diran zugatzen eta besteren solo edo etxeen artean ze bitartek izan bear dauan kalterik egin ez dagien, eta arazo oni buruz zer egin bear dan.

Baita, esan eben: Batzuek zugatzak eta igali-zugatzak, jazo oi danez, besteren soloen ondoan landatzen dituela edo landatuta eukiten dituela, eta kerizpea dala edo susterrak edo adarrak dirala eta zugatzok alboko soloari egin oi dautsoen kalte ta ondamendiari buruz zugatzen eta eta soloaren jabeen artean eztabaidak izaten dirala, zugatzen eta soloaren artean ze bitartek izan bear dauan Foruz ebatzita ez dagoan ezkero. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, lantzen dan besteren soloaren alboan ezin daitekela areitxik edo beste zugatzik egon eta landatu (areitxa izan ezkero) amabi bigabesen barruan; eta leizarra amabi bigabesataraiño, eta gaztaiña zortzi bigabesataraiño, eta intxaurra sei bigabesataraiño, eta sagarra, madaria, mizpilla, ikua ta duranzana ta beste igali-zugatz txikiak bigabesa ta erdira. Eta ori baiño urrerago balego, soloaren jabeak zugatzaren jabeari eskatu ezkero, zugatzaren jabeak ebagi ta atara egin bear dauala, aspaldi-aspaldidanik landaturik ez baldin badago eta agintzaillearen aurretikoek orrelakorik iñoiz bere agindu ez ba eben eta landatzailleak illik izan ezkero: orrelangoak ezin daitekezala bota eragitera beartu, kalte egiten dautsan solotik agunaz zuzen-zuzen neurturik garbitu eragin baiño. Baiña gari-arlo edo maasti edo sagasti edo ortu edo etxeren alboan zugatzik balego eta zugatz onek soloaren jabeari kalte aundia balekartso, zugatzaren jabeari protxu txikia damotsolarik, olakoan, alderdiak Epaikariari joan bekioz eta onek iru gizon on izendatu begiz kaltea neurtu dagien; eta egiten dauan kaltearren, zugatzak bertan egon bear dauala ikusiko balebe, ez dagiala ebagi; kalte aundia egiten dauala ikusiko balebe, ostera, ta zugatzak protxu txikia ekarri, ebagi edo garbitu daitela iru gizon areek erabagiten daben lekutik, orixe balioz-

Zugatz landarei eta beste frutuei buruz

ko izanik; eta besteren etxeari buruz, ogeitamar oiñen barruan ez beite landatu.

OGEITASEIGARREN ATALA, EGINBEARRAK eta ordaindubearrak diralata, zeintzuk baliozko izan bear daben eta zeintzuk ez.

I Legea. Gurasoen eta seme-alaben arteko eginbearrei buruz, ezkon-sarien inguruan iruzurrik izan ezkero.

Leenengo esan eben: Semealabak dituan Aitak edo Amak, jazo oi danez, semeren bat ezkondukeran, ari Etxea edo Baserria ezkon-saritzat emon edo izten dautsala; eta aretarikoren batek batzuetan Semeari, ezkondu aurretik, bere alderako onelango edo arelango eginbearra ezarten dautsala, edo Aita edo Ama, orrelan ezkontzen jakon semeari edo berak daukan beste semeren bati, onelango edo arelango eginbearraz lotzen jakola; eta au maltzurkeriz eta iruzur egiteko egin oi dabela, edo ezkontzaz datorren erranari, berau obeagotzat eta zintzoagotzat izanik eta agirian guztia berari eskeiñirik, Semea aopean eginbearrez lotzen dabelako, edo Aitak ausaz leenago zituan edo geroago billatu zituan Artzekodunei iruzur egiteko, Semea dan ezkero, berau leenagokotzat eukirik: eta au kentzeko ta Gurasoen eta Semeen artean onango eginbearrik, itxurazkoak eta azalezkoak diranez, aintzat ezin artu daitekelako, eta Bizkaitarrek onango auzibedez nekerik izan ez dagien, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, onango iruzurbiderik ez daitela izan: eta Aitak edo Amak edo bietakoren batek Semeari edo Semeak Aitari edo Amari ezarririko eginbearrik ez daitela baliozko izan, zein ezkondu aurretik zein ezkondukeran eginbearori leporatu; eta semeei buruz esaniko au alabei buruz aditu bedi.

Eginbearrak eta Ordaindubearrak

II Legea. Kobraturiko zorren ordez bete-eragipena egiten dabenei buruz.

Baita, esan eben: Atzekodunen batzuek euren ordaiña artu ta kitatuta gero, eginbear edo baituren batzuen bidez zordunen ondasunak bete-eragipenez eta iruzurrez saldu egiten dituen ezkero, eta batzuetan zordunak ordaindu ebala ezin egiztaturik, Artzekodunek bein, bitan edo geiagotan kobratzen dautsala. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, ordainduriko zorragaitik Artzekodunak salaketarik egin badagi eta zorra iru milla maraiz beetikoa izan ezkero, zordunak gizonezko Lekuko biren bidez edo Erri-Eskribauaren ordain-agiriz ordaindu ebala egiztatu daikela; zorra iru milla maraiz goitikoa izan ezkero, barriz, Erri-Eskribauaren ordain agiriz edo entzute oneko bost gizonezko Lekukoren bidez; zorduna bere eskumendeko izan daitela eta Artzekoduna eralketak eta bi alako artzekodunarentzat ordaintzera beartu daitela.

OGEITAZAZPIGARREN ATALA, BIdeak eta errege-bideak dirala-ta.

I Legea. Iñor ez daitela iñoren soloan zear geldoa daroala igaro.

Lenengo esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, iñor ez daitela besteren soloan zear geldoa daroala igaroten ausartu, errege-bidez baiño, zigor onenpean, besterik egin legikena milla marairen zigorpean jausi daitela, neke ori bereganaturik, erdia kaltea datorkion soloaren jabearentzat eta beste erdia Konderriko erri-lanen konponketarako.

II Legea. Bideak bear diran besteko zabalak izan daitezala.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten

Bideak eta Errege-bideak

ebela, Menditarte ta Ola ta Errege-bideen arteko bideak zabaleraz ogei oin izan dagiela; eta Menditarteko ta Ola ta Itxas-kaien artekoak zabalagoak izatea bearrezko danez (burdi batzuek beste batzuekaz tril egikeran, batek besteri galerazo baga, eroso joan aal daitezan), orregaitik, agindu eben: Onango bideak zabaleraz lau bigabesa ta erdi izan dagiela. Eta non edo non estuagoak izango balira, edo konpondu ta konpondu egin arren, burdirik ezin ibiltekoak, olakoan, urren dagoan soloaren jabea bere lurretik emotera ta bideok osotzera beartuta dagoala, iru gizon onek ikusi ta aztertuta gero, iru gizon onok ezarritako salneurriaren bi alakoa aurretiaz ordaintzen jakola: eta lekua zein Elizatetakoa dan eta angoxe Erriak ordaindu dagiala.

III Legea. Iñork ez dagiala zugatzez edo beste zerbaitez biderik itxi, eta itxi badagi, zer egin bear dan.

Baita, esan eben: Erriarentzat egindako bideetan zugatzak landatu ta bestelako esi ta oztopoak jarriz, erriko bideok ibilgatx egiten asko ausartzen dirala, lurra ta zelaia eurenganatzeko asmoz, erriari kalte egiñik. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agindu eben, erriarentzat zabalduriko bidean iñor ez daitela zugatzik landatzen ausartu, ez esirik ipinten, bidea ibilli eziñeko egiñik. Eta besterik egin dagianak (edozein Bizkaitarrek agindu ezkero), ori eskatu eta amar egunen buruan onela jarri ebana atara ta ebagi dagiala; seireun marairen zigorpean, erdia salatariarentzat eta beste erdia bideok konpontzeko dala; eta Elizate aretakoak (Prestameruak edo Merinuak agindu ezkero) eragozpide ori atara, ebagi ta kentzera beartu daitezala, bidea ibilkizun egiñik, beste amar egunen barruan; eta Elizate edo Erri arek egin ezik, bidea ibilkizun egiteko Elizate aren kontura Prestamerua edo Merinua Konderriko edonork eroan daikela; eta besterik izan ezik, Prestameruak edo Merinuak berak oztopoa kendu daikela eta zigor bera eroan.

Ogeitazazpigaren Atala

IV Legea. Elizate bakotxak bertako bideak bere pentzutan konpondu dagizala, eta aukerabidezko diru-zigorrak konponketa onetarako oso-osorik izan daitezala.

Baita, esan eben: Bizkaitarrek bideak konpontzeko Jaun Aundiaren Mesedea ta Erabagia dabenez, Erabagi onen arabera, Erriei bideak konpondu eragiteko Konderriko Epaikariei agintzen jakela, Erri bakotxak bertako Elizatekoak konponduz, eta onetarako bear diran bide-banakuntza edo banakuntzak egin eta ezarten diran aukerabidezko diru-zigor guztiak bideok konpontzen eralgiz: Eta Epaikariek euren buruak zuritu egiten ditue, orrelako diru-zigorren erdia bideak konpontzeko ta beste erdia Jaun Aundiaren Dirutegirako dala esanez: eta au erriaren kaltetan dala eta aitaturiko Erabagian ebatzitakoari aurka egiten jakola, Erabagi orretan guzti-guztia bideak konpontzen eralgiteko agintzen da-ta. Orregaitik, agintzen ebela, erdia badauken ezkero eta Bizkaia'n bideak lakartsuak eta lurraldea euritsua ta ibilteko trokatsua izanik, bideak konpontzeko premiña gorrigorria dagoanez, esaniko diru-zigorrak konponketa orretan oso-osorik eralgi daitezala, ezer kendu baga ta aitaturiko Dirutegirako ezer itxi baga; eta lege au ta Erabagi au betetzeko indar aundiagoa izan dagien, Erabagi au berau Foruaren zati onetan bir-idatzi daitela, ta urrengo datorren au da.

V Legea. Beroni buruz errege-eskutitza.

Boña Joana'k, Jainkoaren graziaz, Gaztela'ko, Leon'go, Aragon'go, Sizilia bietako, Jerusalen'go, Naparra'ko, Granada'ko, Toledo'ko, Balenzia'ko, Galizia'ko, Mallorka'ko, Sebilla'ko, Zerdeña'ko, Kordoba'ko, Korzega'ko, Murzia'ko, Jaen'go, Algarbes'ko, Aljeziras'ko, Jibraltar'go, Kanaria Ugarteetako, India Ugarteetako ta Leorreko, Itxas Aundiko Erregiñak, Barzelona'ko Kondesak, Bizkai eta Molina'ko Anderak, Atenas eta Neopatria'ko Dukesak. Ruisellon eta Zer-

Bideak eta Errege-bideak

dania'ko Kondesak, Oristan eta Goziano'ko Markesak, Austria'ko Artxidukesak, Borgoña ta Brabante'ko Dukesak, Flandes eta Tirol' go Kondesak, eta Zuri, Korrejidore zaran edo izango zaran orri, eta Bizkai'ko Guztiz Noble ta Guztiz Leial dan nire Jaurerri ta Konderriko Kargudun Epaikari orri, eta egintza onetan zure Leku-Ordezkari danari, eta Eskutiz au erakutsiko jatzuen zuotariko bakotxari, Osasuna ta Bakea. Jakin egizue Konderri orretako Ordelari Nagusiek eskabide bat egin eustela, esanez: Konderri ta Lurralde Lauko bideak guztiz txarrak dirala, eta lurazala urria ta elkorra dalako, ezin izaten dituela konpondu, eta ortik kalte ta ondamen aundiak etorri dirala, eta, etorri bere, badatozala; zuk eta Konderriko beste Epaikariek ezarten dituzuen diru-zigor guztiak erribideak konpontzen eralgi ezkero, orri urtenbidea emon ei lekioke: Orregaitik erabagi au emon nengiala edo neuk neritxon Mesedea egin nengiala eskatzen eustela. Eta nire Batzarrekoek aztertuta gero, eskabide au aintzat arturik, Eskutitz au bialdu egin bear nebala erabagi zan; eta nik onartu egin neban: Orregaitik, goragoko ori ikusi dagizun bezain laster eta arazo au dagokien guztiei dei egin eta entzunez, Konderrian eta Lurralde Lauan konpontzeko ta ibilterrezteko premiñarik daben bide guztiak barriztatu ta konpondu daitezala agintzen dautsut, Konderri ta Lurralde Lauko Errien lepotik ori egiñik, erri bakotxak berari dagokiona ordaintzen dauala. Eta gaurgero ibilterrezagotu ta konpondu daitezan, aukerabidezko diru-zigorrik ezarri dagizuenean, onelango diru-zigor guztiak, bideak konpontzen eralgi daitezala, eta kobrau eraginda gero Konderri orretako ogasundun eta zintzo dan baten eskuetan itxi eragin dagizuzala zuri agintzen dautsut, nire Korrejidore orren begiratupean gorago esanikoetan eralgi daitezan, eta beste gauzetan ez: Zigor onenpean, beste gauzaren baten eralgi daitekena, zeuk zeure ondasunez ordaindu bear dozula, eta ezelan bere ez aurkarik egin, nire mesedea galdu ta amar milla

Ogeitazazpigarren Atala

marai nire Dirutegirako ordaindu bearreko zigorrenpean. Madrll'go Urian emona, Jesukristo gure Salbatzaillea jaio ezkero, milla bosteun eta amaseigarreneko epaillaren amalaugarrenean. Aritxiepiskopus Granaten. Lizentziatus de Santiago, Lizentziatus Polanko, Fernandus, Episkopus Almeriensis, Lizentziatus de Kuoalla. Neuk, Kastañeda'ko Bartolome Ruiz'ek, gure Erregiña Anderaren Errege-Dirutegiko Eskribau nazan onek, aren aginduz idatziazo neban, aren Batzarrekoekaz bat egiñik. Ezarririk. Lizentziatus Jimenez, Kastañeda Kantzillerrak.

VI Legea. Diru-zigorrak bidegintzan eralgiteko erabagi au Epaikari Nagusiek bete dagiela.

Baita, esan eben: Gorago ezarririko Legearen dirugaitzespenak dirala-ta, Bizkaitarrek, Balladolid'era jokeran, Jaun Aundiagandik daben aitaturiko Mesedeari buruz eta berau dala bide, bidebaga ta kalte aundiak izaten dituela, Mesede orren arabera, aukerabidezko

Olen sugarria etab

OGEITAZORTZIGARREN ATALA, OLEN sugarria eta bertako aztagailluak eta burdin-meak dirala-ta.

I Legea. Olak ikatzez ornidu egin bear diralako, ikatza eroskeran, leenago izan daitezala, eta ikatzzorroak ze neurritakoak izan bear daben.

Leenengo, esan eben: Bizkai'ko Oletatik Jaun Aundiari serbitzu aundia datorkiola ta bertoko bizilagunei onura aundia; eta Olok burdiña apaindu dagien ikatza egingo daben basoak bearrezkoak dirala. Orregaitik, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, erriko alkartearena dan edozein Baso izan ezkero (leenago bein edo geiagotan Olen sugarrirako iñausi baditue), Erriko basoon jabeek Oletarako emon bear dituela, Olen jabe ta alogeratzailleei iru gizon onen eretxiz ezarten dan salneurrian saldurik, eskualdean dabillen salneurria gogoan dabela. Beste iñork ezin daikezala Erriko basook erosi, Olen jabe ta alogeratzaille izan ezik; eta beste norbaitzuek erosiko balebez, erosleok Olen jabe ta alogeratzailleei emon eta saldu bear dautseezala (esan danez), iru gizon onen sal-neurria ordainduaz. Eta Olaren jabe edo alogeratzailleren batek Erriko basoak erosiko baleuz eta Ola beraren beste jabe batek edo beste Olaren batekoak bere zatia eskatuko baleutso, erosleak emon egin bear dautsala berak erosi eban sal-neurrian; batzuk eta bestetzuk geien baten ornidu daitezan. Basoa berea ta lurra mugarrituta daukan Bizkaitarrik, baiña, ezin daitekela onelan emotera indarrez beartu, nai izango ez baleu; eta Oletan erabilten diran ikatz-zorroak, gaiñera, neurri zaarrekoak izan daitezala, Meriñalde bakotxean usarioz oi izan danez, pisu ta neurri txarrak darabizenen aurka legez ezarririko zigorrenpean.

Ogeitazortzigarren Atala

II Legea. Burdin-mearen aztagaillua nork euki daiken eta non, eta nork erosi daiken eta nork ez, eta zamatzen dan burdin-mea ona izan daitela.

Baita, esan eben: Meagunetik Oletara doazan burdinmeak askotan bideetan saldu eta birsaldu egiten dituela, erosi ta saltzeko pisuak jarririk, eta au Jaun Aundiaren kaltetan eta Bizkai'ko Olen jabeen ondamenetan izaten zala, orain bere onantxe izanik. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, burdin-mearen eta burdiñaren pisurik eukiten eta jarten iñor ez daitela ausartu, burdin-mea eratsi eta burdiña zamatu egin oi dan Oletan eta Itxas-kaietan izan ezik. Eta pisuok Olen jabeek eta alogeratzailleek eta burdin-mea dakarren Ontzi-buruak ipiñiak izan bear dabela, eta Ola berea dauana edo bertan lagiña dauana edo alogeran emonda daukana izan ezik, iñork bere ezin daikela burdinmearik itxas-kaian erosi, ez bidean, ez Olan ez andik kanpora; seireun marairen zigorpean erosten dauan bakotxeko, erdia salatu ebanarentzat eta beste erdia Konderriko bidegintzarako izanik; eta erosi dauan burdin-mea gal dagiala, gaiñera, esaniko erara zatituz; eta Olen jabe edo alogeratzaille edo Ontzi-buru ez dan iñor ez daitela onelango pisurik esaniko meagunetatik kanpora eukiten ausartu; aitaturiko zigorrenpean, gorago esaniko erara banantzeko, eta oneek bere ezin daikeela saldu. Baita, Oletarako burdin-mea ekarteko meagunetara doazan manda-zaiñek ontzat emoniko burdin-mea ekarri dagiela, eta ez arri txarrik, eta mea-langilleek ez dagioela burdin-mea ona izan ezik eroaten laga; onangorik egiten daben bakotxeko seireun marairen zigorra bakotxari ezarten jakola, aitaturiko erara banantzeko.

III Legea. Pisuak neurri berekoak izan daitezala, eta Aldunek aztertu dagiezala.

Baita, esan eben: Bizkai'ko Oletan landuriko burdiñaren kintal-pisuak eun eta berro-

Olen Sugarria

geitalau libra daukazala, libra bakotxa amasei ontzakoa izanik; eta Ola batzuetan txikiagoak eta Errenterietan aundiagoak izaten diranez, ori dala-ta eztabaidak sortzen dirala. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Oletan eta Errenterietan esaniko neurriko pisua izan daitela, ez aundiagorik ez txikiagorik; eta Oletako ta Errenterietako pisua bardiña izan daitela; eta Errenteri ta Ola bakotxak librako pisuak euki dagizala; seireun marairen zigorpean, onelango pisu ezbardiña eta aundiagoa ta txikiago aurkitzen dan bakotxean; eta diru-zigor au, guzurrezko pisua aurkitu jakon Olaren jabeak edo alogeratzailleak edo errenteroak, edozeiñek, ordaindu dagiala, erdia salatariarentzat eta beste erdia Konderriko bideak konpontzeko izanik; eta Bizkai'ko Aldunek edo eurotatik edozeiñek pisuok ikusi egin bear dituela, premiñarik badala agertzen dan bakotxean, ziurrak eta zeatzak ipiñerazoz.

IV Legea. Euren etxeak eta atariak alogeratzen dituenek eta burdiña ta galtzairua gordeteko ardura dabenek ez dagiela orrelakorik sal-erosten jardun.

Baita: Forutzat eta Legetzat ezarri ta agindu ebela, Errenteriko etxea ta ardura dauan errenterok, bere etxe ta atarietan burdiña ta galtzairua gordeten dituanek, ezin daikela ez burdiñarik, ez galtzairurik erosi ta saldu, ez onango sal-eroskuntzan jardun, bere etxe ta atarietan jabeek izten dituen burdiña ta galtzairua zintzoro-zintzoro jagon baiño; alogera ta saria orretarakoxe ordaintzen dautsoez-eta; errenteroek eta atari-alogeratzailleek burdiña ta galtzairua sal-erosten jardun izan dabenean, ikusien gaiñera ikusi izan danez, burdin eta galtzairuen jabeek kalte aundia artu izan dabela; eta burdiña ta galtzairua sal-erosten liarduken edozein errentero ta atari-alogeratzaille, ori egiten dauan bakotxeko, amar milla marairen zigorpean jausi daitela, erru-ordain ori

Ogeitabederatzigarren Atala

bereganaturik, erdia salatariarentzat eta beste erdia bidegintzako dala.

OGEITABEDERATZIGARREN ATALA, auzitan gora-joteaz.

I Legea. Foru-Alkateagandik Korrejidoreagana edo onen Ordezkariagana jo daitekela.

Leenengo esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Bizkai'ko Foru-Alkatek edo beste edozein alkatek emoniko azkeneko edo bitarteko epaitik (gora-jotea bidezko danean) Bizkai'ko Korrejidoreagana edo onen Ordezkari Nagusiarengana jo daitekela, gora-joleak norengana nai eta arexengana; eta Korrejidoreak edo onen Ordezkariak edo eurotariko bakotxak eurei dagokien gora-jote maillan Foruz eta legez auzia garbitu dagiela.

II Legea. Ordezkari Nagusiagandik Korrejidorengana jo beite.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Korrejidorearen Ordezkari Nagusiak emoniko edozein Epai dala-ta, zein azkenekoa zein bitartekoa, zein erri-auzia zein zigor-auzia izan (legez egin aal izan ezkero) Korrejidoreagana jo daitekela, eta onek, Goragoko Epaikari danez, auzia aztertu ta ebatzi daikela, Foruz eta legez bidezko eretxi lekionez.

III Legea. Korrejidoreagandik Aldunengana jo daitekela, eta Korrejidoreagaz batera edo a bagarik epaia iragarri daikeela, eta areen epaitik Goi-Auzitegira jo daitekela.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Korrejidoreak emoni-

Auzitan Gora-joteaz

ko ta iragarririko edozein epaitatik, erri-auzia naiz diru-auzia dala, azkenekoa naiz bitartekoa dala, legez Gora-jo aal izan ezkero, Bizkai'ko Aldunengana jo daitekela. Eta Aldunok (Korrejidorearen Auzitegian egotez baldin badagoz) Gora-jote au onar dagiela eta onartuta gero, agiriak eta Gora-jotearen auzibidea eratu dagiezala, Auzitegi aretan auzia amaitu arte, azkeneko edo bitarteko Epaia emonez, Aldunak kanpotik izan arren. Eta auzia amaituz gero, Aldunek auzibidea onar dagiela, eta Letrau aolkularien oneretxiz eta beragaz batera eta Letrau au ezaguna ta Konderri barrukoa dalarik (Lurralde onetako Foruz ta oiturak eta Auzitegiko jokabideak obeto ezagutu daikez eta, ikasiago bere izan daitekez-eta) Epaia emon dagiela; eta Epai au eta auzibide au arturik, Korrejidoreagana joan bear dabela, leenago beronek Auzia aztertu ta Epaia emon eta iragarri ebanez eta euren Auzibidea ta Epaia ikusi eragiteko agindu dagioela; Eta eurekaz bat egiñik, Epaia onartu egin bear dauala baderitxo, izenpetú dagiala, eurekaz batera Epaia iragarririk: Eta egiteko au burututa gero, Auzibidea ta Epaia emon dakiozala azter dagizan eta onelan egin bear dauan ala ez ikus dagian Korrejidoreak erantzun badagi, Aldunek iru egun itxaron dagiela; ezin daitekela egin edo euren Epaia ez dauala ontzat artzen erantzun badagi, ostera, (geiago itxaron bagarik) egun aretan bertan Epaia emon eta iragarri dagiela, euren Aolkulariak atonduta dakarrenez, eta Korrejidoreagaz batera emona izan bailitzan baliozko izan daitela; Eta Korrejidoreak ez dagizala Auzibidea ta Epaia luzaroago euki, bost milla marairen zigorpean, erdia Aldunentzat eta Gora-jo dabenentzat eta beste erdia Konderriko bidegintzarako dala, eta Alderdiaren obaria, gaiñera, euki legiken bakotxean; Aldunek emoniko Epai onetatik Gortean eta Balladolid'ko Goi-Auzitegian dagoan Bizkai'ko Epaikari Nagusiagana jo daitekela, eta onengandik Gorteko Buru ta Oidore diranengana; eta gora-joteko ta gora-jotea aurkez-

Ogeitabederatzigarren Atala

tu ta jarraitzeko epe ta mugak Erreiñuko Legeek izendatzen dituenak izan daitezala; eta Alderdiren batek Konderriko Letrauei eznaia egingo baleutse, olakoan, Aldunek Konderritik atekoa dan susma bagako beste Letrau bat Aolkularitzat izendatu dagiela.

IV Legea. Amabost milla maraiz beetiko auzia izan ezkero, ez dagoala Goi-Auzitegira joterik.

Baita, esan eben: Bizkaitarrek euren auzi guztiak, zein erriauzia dala zein zigor-auzia dala, Konderri barruan garbitzeko eskubidea betidanik eta asieratik Foruz izan dabenez (euren Forua aukeramenezkoa ta guztien legez gaindikoa danez) Errege-Auzitegiko Epaikari Nagusiek auzi oneetan euren Erreiñuko legeen edo guztien legearen arabera geiagotan ebatziko leukeela emengo Foruaren arabera baiño; eta Errege-Auzitegia ia gaiñez eginda egoteraiño Bizkaia'n auziak eta auziak dagozanez, gora-joteok eta ango ekitaldiok dirala-ta, Bizkaitarrek eralketa ta neke aundiak izaten dituela. Orregaitik eta okerbideok kentzeko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Amar edo amabi urtetatik onantz Gortera ta Goi-Auzitegira joten dan ezkero, arazo oni buruz Jaun Aundiak onarturiko agindu bat ebela eta berau Forutzat eta Legetzat ezarri nai dabela eta erabagi au era onetakoa dala: Edozein Erri-auzi ta Diru-auziri buruz, amabost milla maraiz beetikoa izan ezkero (eralketarik baga), zein dirutan eta ondasun mogikorretan zein lurondasunetan zein beste edozein eskaritan gora-joterik ez beite bidezko izan, ez indargatzerik, ez beste auzibiderik ez Konderritik at etor daiteken beste ebatzbiderik, berton amaitu ta garbitu baiño; eta norbaitek Bizkai'ko Epaikari Nagusiagana edo Gorteko Buruagana eta Oidoreengana joko baleu, Auzibide ori Bizkai'ra itzuli eragin dagiela, gora-jolea eralketak ordaintzera gaitzespenez bearturik: eta Aldunek eta Korrejidoreak Gora-jote au kontutan artzeke, Epaia bete eragin dagiela.

Auzitan Gora-joteaz

V Legea. Amabost milla maraiz beetiko auzietan gora-joteaz, eta olakoan Korrejidoreak eta Aldunek emon bear daben epaiaz.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, amabost milla maraiz beetiko auzietan (eralketak bagarik) onango gora-jote era izan daitela: Edozein Foru-Alkatek emon daiken edo egin daiken bidebaga dala-ta, (legez gorajoterik aal badaite), Iraindua izanak Korrejidoreagana edo onen Ordezkari Nagusiarengana jo daikela, norengana jo beraren aukeramenean dalarik; eta Ordezkari Nagusiak emon daiken epaiari buruz Iraindua izanak Korrejidoreagana ta Aldunengana batera jo daikela, eta ez batzuengana bai eta besteengana ez; eta Korrejidorearen aurrean eta beronen Auzitegian auzia asi ta amaitu daitekela, azkenengo erabagia emon arte; eta Auzia amaitu ezkero, Auzibidea Korrejidoreari emon dakiola Epaia ikus ta molda dagian; eta moldatuz gero, Auzibidea (Epairik baga) Korrejidoreak Aldunei emon dagioela, Aolku-saria neurtuz; eta Aldunek euren Aolkularien irizpidez Epaia moldatu dagiela eta barriro Korrejidoreagana etorririk, erakutsi dagioela, Korrejidoreak bere berea eurei erakutsiz, eta Epai biok guztien artean ikusiz gero (eretxikideko baldin badira) guztiek batera Epaia emon eta iragarri dagiela; eta Epaioi buruz eretxi bat ez balitz, Korrejidoreak aitaturiko Aolkularia edo Aldunen Letraua erakarri ta bien artean Auzibidea aztertu dagiela, bakotxak berea azaldurik, eta Epai bat emoteko alkartuko balitzaz, emon eta iragarri dagiela: Korrejidorea ta aitaturiko Aolkularia bat ez baletoz, barriz, alderdi bien pentzutan beste Letrau bat izendatu dagiela, eta izendatu izan dan irugarren onek Auzibidea azter dagiala, bere eretxia besteei jakin eragiñez; eta irugarren Aolkulari onek onartuko leuken Epai auxe emon eta iragarri dagiela, irurek izenpetzen dabela, Korrejidoreak eta Aldunen Aolkulariak eta irugarren Letrauak; eta Epai onetatik

Ogeitabederatziren Atala

ez daitela gora-joterik izan, ez indargatzerik, ez beste auzibiderik, ez beste urtenbiderik eta babespiderik; auzia ebatzi ta auzilari guztiek onartua izan balitzan, Epai au bete-eragin daitela.

VI Legea. Foru-alkateagandik Korrejidoreagana jo daitekela, eta onegandik Aldunengana, eta Aldunen auzialdian Korrejidorearen aurrean auzibidea zelan egin eta epaia zelan emon bear dan.

Baita: Foru-Alkatearen Epai edo iraiña dala bide, Iraindua izanak bereala Korrejidoreagana joatea autatuko baleu, egin daikela; eta Korrejidoreak onar dagiala, Auzia Foruz eta legez azterturik; eta Korrejidorearen Epai orretatik Aldunengana jotea bidezko izan daitela; eta Aldunak an izango ez balira, Gora-jotea Korrejidoreak berak onar dagiala, azkeneko Epaia emon arte Auzia bere aurrean azterturik; eta amaituz gero, Aldunek euren Auzibidea eurekaz dabela, Aolkularitzaren ordaiña zeaztuz, euren Letrau Aolkulariari joan bekioz, eta onek Epaia moldatuz gero, Korrejidoreari erakutsi dagioela, eta eurekaz bat etor daitela eskaturik, iragarri ta izenpetu dagiala; eta Korrejidorearen Epaiaz bat baletor, egin dagiala; ez baletor, barriz, Korrejidoreak Letrau Aolkularia beregana erakarri dagiala (Aldunen Epaia zuzenduta agertzen dala baderitxo) eta Auzibideaz batera erakutsi dagiela: eta Epai bat emoteko ondo alkartuko balitzaz, Korrejidoreak eta Aldunek Epaia iragarri dagiela; alkar artuko ez balebe, ostera, eurekaz adituko dan irugarren Letrau bat izendatu dagiela (aurreragoko Legearen arabera) ta iruren artean geienek autatu ta erabagiko leukeen Epaia emon dagiela, aurreragoko Legeari buruz esan zanez eta ango eraz egin eta sari bera ezarriz: eta leenengo ekiñaldian Ordezkari Nagusiek Auzia aztertzen jardun eta arengandik Korrejidoreagana eta onengandik Aldunengana jo ezkero, Lege orrek dakarrena egin eta bete daitela, erabagi bera arturik, gorago esan danez eta ango eraz egiñez, eta, ori dala-ta, ama-

Auzitan Gora-joteaz

bost milla maraiz goitiko kopururik ez dan Auzian (eralketarik baga) iru ekiñaldiok baiño geiagorik ezin daitekela izan.

VII Legea. Korrejidorearen aurrean asi diran amabost milla maraiz beetiko auzietan jarduera bera izan daitela.

Baita: Amabost milla maraiz goitiko ez diran auzi ta auzigaietan (eralketarik baga), Korrejidorean aurrean asi badadiz, Epaia Korrejidoreak berak emon dagiala, Foruz eta legez egin legikenez; eta Epai onetatik Aldunengana jo daitekela, eta Aldunok esaniko erara Auzia garbitu ezkero, Auzibidea aztertzeko Aolkularia ekarri dagiela, Letrau Aolkulari onen bidez Epaia moldaturik eta Korrejidoreari eurekaz batera Epaia emon eta iragarri eragiñik; eta bereagaz bat baletor, egin dagiala, ez baletor, ostera, aurreragoko Lege bietan ezarririko era ta modua ta jarduera bera erabil daitezala. Eta zein kasu onetan zein aurreragoko Lege bietan azaltzen diran aitaturiko kasuetan Letrau biak Korrejidoreagaz alkartu daitezenean, Auzi aretako Epaia emokeran, gorrotorik eta alderdikeririk eta emokaririk eta koipekeririk baga Auzia ondo ta zintzoro ebatziko dabela Korrejidoreak, zin eragiñez, berbea emonazo dagioela; eta onelan emoniko Epaia Korrejidoreak bete-eragin dagiala, aurreragoko Legeetan erabagi danez.

VIII Legea. Iru milla maraitako ta ortik beerako auzietan izan bear daben jardunbideaz eta maillez.

Baita, esan eben: Iru milla maraiz goitiko kopururik eta baliorik ez dagoan erri-auzietan, dirutza aundiagoko Auzietan izan oi dan beste ekiñaldi izan dala orain arte, eta gaur bere orrenbeste badala, au dala-ta, auzilariek nekea jasanik. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, ondasun mogikorrak, lur-ondasunak eta abere-ondasunak ebazkizun diranean, guztien kopurua edo balioa iru milla maraiz goitikoa ez baldin

Ogeitabederatzigarren Atala

bada (eralketarik baga) ezin daitekela Bizkaia'n ekiñaldi bi besterik izan; eta ekiñaldi biotako era ta jarduerak ondoren datorren langoak izan bear dauala ta onangoxea izan daitela: Auzia Foru-Alkatearen aurrean asi baldin bada, Alkate onek emondako Epaitik edo egindako iraiñetik iraindua izanak Bizkai'ko Korrejidoreagana ta Aldunengana batera jo daikela edo Ordezkari Nagusiagana ta Aldunengana batera, eta biotatik zeiñengana gora-joleak berak autatu dagiala; eta Korrejidoreagana ta Aldunengana jotea aukeratu badadi, gora-jote au Korrejidoreak onar dagiala, zein Aldunak bertan izan zein ez izan, eta Auzia azter dagiala, berarenean amaiturik eta azkeneko Epaia emonik (bigarrengo ekiñaldi onetan egiztagarririk ez da ekarri bear-eta, Auzibide berberaz baliaturik, Arau-bidezko Legearen arabera Epaia emon baiño), eta Auzia amaituz gero, Korrejidoreak Auzibide guztia ikus dagiala, Epaia moldaturik, eta Aldunei dei egin eta Aolkularien saria zeaztuz gero, areen Letrau ta Aolkularia ekarteko agindu dagiala, eta Korrejidoreagana etorririk, bien artean Auzibidea ta Epaia aztertu dagiezala. Eta alkar artzen badabe, Korrejidoreak eta Aldunek Epaia emon eta erakutsi dagiela; Korrejidorea ta Letraua bata-besteagaz bat ez baletoz, barriz, leku aretako beste Letrau bat izendatu dagiela, eta onek, alderdi auzilari bien pentzutan etorri eta besteekaz alkarturik, berba egin dagiala, eta iruron arteko geienen ebazbidea onar daitela, Epaia emonez eta iragarriz, eta Epai au bete-eragin daitela, Gora-joterik eta babespiderik eta indargatzerik izan baga. Gora-joleak Korrejidorearen Ordezkari Nagusiagana ta Aldunengana jotea aukeratu ezkero, baiña, Ordezkari onek gora-jotea onar dagiala, zein Aldunak bertan izan zein ez izan, eta Auzia aztertu ta azkeneko Epaia emon dagiala, egiztagarririk ekarri baga, esanda dagoanez. Eta egiteko au amaituz gero, Auzibidea azter dagiala, eta aztertu ezkero, Aldunei ta Aolkulariari emon eragin dagioela, eurek eta euren Aolkulariak izenpetuta gero, biek edo

Auzitan Gora-joteaz

euretarikoren batek egun gitxi barru ekarri dagioela agindurik, eta eurena ta Ordezkariarena bat baletoz, iragarri dagiela; bat ez baletoz, ostera, Korrejidoreari ta Aldunei buruzko ekiñaldian izan dan jarduera bera izan eta erabil daitela, Ordezkari Nagusiagaz batera Epaia iragarteko Aldun bat naiko izanik eta Aolkulariagaz betera biek izenpeturik; Auzia, baiña, Korrejidorearen aurrean asi baldin bada, onek emoniko Epaitik Aldunengana jo daitela eta Korrejidoreak berak onar dagiala, gorago esanda dagoanez, azkeneko Epaia emon arte azterturik, eta amaitutako Auzibidea Aldunei ta Aolkulariari emon dakiezala eta oneek Letrau Aolkulariaren irizpidez Epaia molda dagiela, eta moldatuz gero, berau Korrejidoreari ikusi eragin dagioela, eta berak moldatutakoaz bat datorrela ikus badagi, iragarri ta sendotu dagiala; bat ez datorrela ikus badagi, ostera, Letrau Aolkulariari deitu eragin dagiola eta bata-besteagaz berba egiñik (alkar artzerik ez balitz) eta beste irugarren Letrau bat izendaturik, Auzia Korrejidorearen aurrean asi ez dan guztietan erabilliriko ta gorago esaniko era ta jarduera bera gorde daitela. Eta gora-joteko, jakin eragiteko, aurkeztuteko ta ebazteko epe ta mugak eurak izan daitezala, Erreiñuko Legeek erabagiten daben erara egiñik eta zigor bera ezarririk. Eta bigarren ekiñaldia egiten dan auzietan, beste egiztagarririk baga Errege-Legearen arabera Auzibide beraren bidez erabagi dagiela; eta Auzi areetan Korrejidoreak eta Ordezkari Nagusiak alderdientzat bearrezko dan bakotxean Leen-Auzibidea ekiñaldi bakotxerako emon dagian Auziaren Eskribaua beartu dagiela, eta Auzia bigarrengo ekiñaldian amaitu badadi, dirutza txikikoa izan ezkero, ondoren izandako agiri guztiekaz Leen-Auzibidea biur dakiela.

IX Legea. Auzipean dagoan gauzearen balioa neurtu egin bear dala, amabost milla maraiz goitikoa dan jakiteko.

Epaita, esan eben: Amabost milla marairen kopurua-

Ogeitabederatzigarren Atala

ren auzia danean, Konderritik kanpora ezin daitekela jo, eta dirutza ori txanponetakoa izan ez eta Auzitan dagoan lur-ondasuna edo beste zerbait amabost milla maraitara edo amar millatara an-da-emen ez eltzea izan leitekela; eta balioa neurtu ta zeaztu baga dagoalako, Auzitan Gora-jotea onartu edo Balladolid'en luzatu egitea jazo daiteke. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Gora-jotea eskatu dakioken emengo Epaikariak, Gora-jote au onartu edo ukatu baiño leenago (Gora-jotea jasan bear dauan alderdiak eskatuz gero), alderdiei dei egiñik, Auzipean dagoan gauzearen balio arrunta zenbatetakoa dan jakin dagiala, iru Gizon zintzorengandik, zin egiñazoz gero, argibideak jasorik, eta Auzibidean ezarri eragin dagiala, eta erantzuna onantxe emon dagiala, aitaturiko Legearen arabera eskubidea emonez edo ukatuz, seireun marairen zigorpean, erdia leku aretako gaixoetxeko beartsuentzat eta beste erdia bidegintzarako dala.

X Legea. Zigor-auzia izan ezkero, Goi-Auzitegira zein kasutan jo daiteken, eta Goi-Auzitegira jo ezin daiteken kasuetan izan bear dan jardueraz.

Baita, esan eben: Ikusien gaiñera ikusi izan dala, Bizkaitarrek Zigor-auzietan edozein zigor dala-ta, naiz-eta txikia izan, Auzitan Konderritik kanpora jo izan dabela, eta orain bere onantxe egin oi dabela, eta Gora-joteok azkeneraiño eroaten dituela, jokaera onek Bizkaitarrentzat eralketak eta nekeak ekarriz. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Bizkai'ko Korrejidoreak edo onen Ordezkari Nagusiak emoniko Epaia izan ezkero (erio-zigorrik edo odola ixurtekorik edo gorputz-zatiren ebaterik edo astinketarik edo lotsabidezkorik edo beste gorputz-zigorrik edo izen txarrekorik edo Konderritik at urte erdirako erbesteratu bearrik edo Konderri barruan urtebeterakorik edo ondasunen beteeragipenik edo iru milla

Auzitan Gora-jateaz

maraiz goitiko diru-zigorrik ezarri ez baldin bada) edozein Zigor-auzitan, Gortean dagozan Bizkai'ko Epaikari Nagusiagana edo Auzitegi-Buru eta Oidoreengana joterik ez daitela izan, ez indargatzerik, ez edozein auzialdi egiterik, ez babespiderik edo beste urtenbiderik; eta emengo Epaikariek ez dagiela onangorik onar; aitaturiko Zigor-auziotan Gora-joteko ta Epaia emoteko urrengoko era ta jokaera au bearrezko izan daitela: Ordezkari Nagusiak emoniko epaitik, iraindua izan dan alderdiak Korrejidoreagana ta Aldunengana batera jo daikela; eta Korrejidoreak Gora-jote au onar dagiala, zein Aldunak bertan ez izan, zein bertan izan; eta onartu eta Auzia Aldunik baga azter dagiala, Auzia amaitu ta azkeneko Epaia emon arte, zein atxillotzeko zein jarein egiteko zein egiztatzeko; amaitu ta Azken Epaia emonda gero, Korrejidoreak Auzibidea artu ta bere Epaia molda dagiala, Auzibidea Aldunei ta oneen Aolkulariari emonik; Aldunok euren Aolkularia Korrejidoreari ekar dagioela, eurek eta Korrejidoreak emon eta iragarri bear daben Epaia eurekaz batera ikus dagian; eta bat etor badaitez, iragarri dagiela, guztiek izenpeturik; Korrejidorea ta Letrau Aolkularia bat ez badatoz, barriz, Korrejidoreak eta Letrauak, biek, leku aretako beste irugarren Letrau bat izendatu ta autatu dagiela, alderdi bien kontura; eta iruron artean Auzia ikusi ta azterturik, iruron arteko geienen autarkiek ebatzi dagiela, eta geiengoaren aolku ta erabagiaren arabera Epaia emon eta iragarri daitela, amabost milla maraiz beetiko Auzi ta Auzibideetan egin oi danez, irugarrenak Epaia emon eta izenpetu ezkero; eta Epai au adierazo baiño leenago, Korrejidoreak Aldunen irugarren Letrau oni zin eragin eta legezko eginbearra onartu eragin dagiola, amabost milla maraiz beetiko Auzi ta Auzibideei buruz diarduten Legeetan erabagiten danez; eta emongo leuken Epaia sendo izan beite; eta bigarrengo ekiñaldi onetan Zigor-auziez diarduten Foru onetako Legeek ezarten dituen epe ta mugetan eta eran egin daitela egiztapena, esanda dagoanez. Auzi au

Ogeitabederatzigarren Atala

Korrejidorearen aurrean asi badadi, baiña, Aldunengana ta Korrejidoreagana batera jo daitela, eta Korrejidoreak Gora-jote au onar dagiala, Auzia azterturik, naiz Aldunak bertan izan naiz ez izan, Azken Epaia emon arte, aren Ordezkari Nagusiagandik, Gora-joten danean egin oi dan modura; salatua izanaren atxillotze edo jarein egiteari buruz, alan bere, Aldunek eta oneen Letrau dan Aolkulariak Korrejidoreagaz batera aztertu ta ebatzi dagiela; eta Letraua ta Aolkularia ta Korrejidorea bat baletoz, axe erabagi daitela; ez baletoz, ostera, gorago esan dan erara egin daitela, eta Azken Epaia emon bere bai. Eta esaniko Auzi ta Epaietan, jazo oi danez, Korrejidoreak edo oneN Ordezkariak erbesteratze-zigorra emokeran, Konderritik kanpora urte erdirako eta Konderri barruan urtebeterako, geiagoko edo gitxiagoko ataltxo bat Epaikarion naierara ezarriz, Epaia iragarten eta azaltzen daben ezkero, eta au aitaturiko Legearen kaltetan eta Aldunen eskumendearen nekegarri iruzurrez egin oi daben edo egin daikeen ezkero, olakoan, Korrejidoreak eta onen Ordezkariak onango urtea edo urte erdia edo erbesteraldia ezin daikela geitu. Eta ataltxo au gorabeera, Aldunek Korrejidoreagaz edo onen Ordezkari Nagusiagaz batera epaitu daikeela, azalduta dagoanez.

XI Legea. Azkeneko epaia emon aurretik, Aldunek zelan erabagi daikeen.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Gora-jo dalako edo indarbakotzat etsi edo beste urtenbideren bat artu dalako, Bizkai'ko Aldunei itzuli jakezan Auzi guztietan, Azkeneko Epaia emon baiño leenago alderdiren batek dongakeriren edo beste iraiñen atzeratzea edo barriztatzea eskatuko baleu, Aldunek ori egin daikeela; erabagi au artu aurretik, baiña, Korrejidoreagaz alkartu daitezala eta Azken Epaia emoteko gorde bear dan era ta jarduera ta modua gorde daitela, azalduta ta esanda dagoanez.

Ogeitamargarren Atala

OGEITAMARGARREN ATALA, BIZKAI'ko Udalen edo Uriren batek bizkaitarren bat atxillotuko baleu, aren alde joan egin bear dabela.

I Legea. Uriek egiñiko atxillotzeen aurka bizkaitarrek lagundu egin bear dabela.

Leenengo esan eben: Konderri onetako Urietako Udalek baiturak eta iñausketak eta beste bidebaga asko Lurralde Lauko bizkaitarrei ta bizilagunei legearen aurka egitez eta indarrez egiten dautseezala, ori dala-ta, Bizkaitarrek kalte eta irain eta min aundia arturik. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, Konderriko Uriren batek edo batzuek Lurralde Lauko bizkaitar eta bizilagunen bati biurrikeriarik eta matxinadarik egingo baleutsoe, Atxillotzeak eta presondegiratzeak eta onango beste bidebagak egiñik, onan iraindua izan danak deiadar egingo baleu, Lurralde Lauko Auzokide ta bizilagun guztiak kaltea arturik edo atxilloturik dagoan iraindu aren alde urtetera eta Uriarek egindako okerra zuzentzera bearturik dagozala; eta onelango deiadarra legikena errudun dala eta Urietakoek bidez diarduela agertuko balitz, Bizkai'koek eurenganatu dituen eralgibearrak, kalte eta galera guztiak ordaindu dagizala, baita aitaturiko Uriak egiñiko eralgibearrak bere.

OGEITAMAIKAGARREN ATALA, ZElan eta non eta zein menditan eizan egin daikeen.

I Legea. Bizkaitarrek, eurek ataraten daben eizeari jarraitu daikeoela, besteren lurretan eta barrutietan sartu arren.

Leenengo esan eben: Bizkaitarrak basurde ta artz eta beste eize-

Eize-basauntzen billa

basauntzen billa euren mendi ta lurretan eizean ibilli oi dirala, orain arte oituraz egin dabenez; eta basurdea edo basauntza atarata gero, jazo oi danez, beste leku ta mendietara joaten dalako, basurde edo basauntz oni jagi eragin dautsana aren atzetik beste Aitonen semeen lurretara ta barrutietara joaten dala, arazo oni buruz eztabaidak geiturik. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, bere lurrean edo barrutian basurderen edo basauntzen bati jagi eragin dautsan edozein Bizkaitarrek, bere lur orretan eizea usarioz egin baldin badau, eta basurde edo basauntz arek bere lur eta barrutitik urtenda, beste Aitonen semeen lur eta mendi eta barrutiren batera iges egin ezkero, atara ebana aren atzetik joan daitekela, jarraitu daikeon eta il daiken, edozein lekutara il arte jarraiturik; eta au galazoten eta eragozten iñor ez daitela ausartu, mendiok eta lurrok galazo nai dauanarenak dirala esanik, Legez ezarririko zigorrenpean. Eta beste batek aurrean dakarren eta berak jagi eragin dautsan basurdea edo basauntza iñork ilgo baleu, eta jagi eragin dautsana basurdea edo basauntza il dauan egun orretan edo urrengo eguneko eguerdia baiño leen elduko balitz, il dauana atara dauanari ta aurrean dakarrenari oso-osorik emotera bearturik dagoala, esaniko zigorrenpean. Bizkaitarren batek, baiña, eizean egin izan dauan beste Bizkaitarren baten barrutian basurderi edo basauntzi jagi eragingo baleutso, eta besteren batek il, ori egin daikela ta beretzako izen daitela, ezertariko zigorrik baga. Eta orretan zalantzarik eta asarrebiderik izan ezkero, Erreiñuko Legeen arabera, Bizkai'ko Korrejidoreak erabagi dagiala.

Ogeitamabigarren Atala

OGEITAMABIGARREN ATALA, ELIZ-zaindaritzaz eta Eliz-epaikariez ta Fiskalez.

I Legea. Eliz-zaindaritzan bizkaitarrak babestu daitezala.



eenengo esan eben: Bizkaia'n Eliz-zaindaritzako Monastegiak badirala, batzuk Errege-zaindaritzakoak eta beste batzuk debisetakoak; eta Bizkaitarrek eta Aitonen semeek aspaldidanik bidez izan eta euki dituen debisak badirala, Erroma'ko Aita Santu guztiek eta Espainia'ko Errege ta Erregegaiek on-eretxia emonaz eta onartuaz. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Bizkaitarrak eta Aitonen semeak aitaturiko euren Monastegi eta debisa oneetan babes daitezala, orain arte izan diranez, eta iñork ez dagioela oztoporik jarri.





II Legea. Eliz-zaindaritza kentzeko ekarriko litzatekezan buldei buruz, eta debisetakoek ez dagiela oi daben baiño geiagorik eroan, eta eliz-zaindaritza dala-ta, zein epaikari dan eskubidedun.



aita, esan eben: Bizkai'ko Monastegi ta Eliz-zaindaritza guztiak Bizkaitarrek eta Aitonen semeek euki dituela beti, eta orain bere onelantxe daukezala, batzuk Jaun Aundiek emonda eta beste batzuk debisetakoek emonda; eta Foruz eta usarioz eta oituraz onantxe izan zituela; eta Eliz-gizonek edo Errigizon batzuek ausardiz eta mesedez Aita Santuagandik edo beste Eliz-bururengandik Buldak eta legebagako eta guzurbidezko Eskutitzak lortu ta ekarten dituela, Monastegi areen jabegoa Bizkaitarrei kentzeko; au, barriz, Jaun Aundiari menpetasuna ukatzea eta Aitonen semeei eta Zaindari

Eliz-zaindaritzaz

eta dabisetakoei kalte egitea dala. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Bizkaitarrek aitaturiko Monastegiak eta Eliz-zaindaritza izan eta euki dagiezala, bai Jaun Aundiagandikoak eta baita debisetakoengandikoak bere, joan mendetan izan zituenez; eta onelangoen aurka orrelako Buldarik eta bidebagezko Eskutitzik norbaitzuek lortuz eta ekarriz Bizkaia'n irakurriko balebe, men egin dakiola eta bete ez, Foruz onantxe ebela-ta. Monastegi areetako debisetakoek euren debisak eskatu ta euki daikeezala, Korrejidoreari ta Ordezkari Nagusiari ta Foru-Alkateei eskaturik, usarioz eta oituraz orain arte euki dituenez; eta Bizkai'ko Monastegi ta Eliz-zaindaritzaren eskubidedun Epaikari eurok izan daitezala.

III Legea. Erri-gizonak epaitzeko eskubidea Gotzaiñak eta Probisoreak zein kasutan euki daikeen.

Baita, esan eben: Kalaorra ta Kaltzada Elizbarrutiko Gotzaiñak eta onen Kargudunek Bizkaitar erri-gizonak epaitzen askotan ausartzen dirala, eskubidez Jaun Aundiari ta beronen Erri-Epaikariei dagokiezan arazoetan; eta au Jaun Aundiari menpetasuna ukatzea ta beronen eskumendea urratzea dala, Bizkaitarren kalte aunditan; arazo au dala-ta, Jaun Aundiagana jo ebela, eta Jaun Aundi onek eta beronen Aurretiko Errege ta Jaunek Errege-eskumendea aldeztuteko eskubiderik edo alatsukorik badabela, euren Erreiñu ta Jaurerriotan erri-gizonei, uts egiñez, egiten jakezan indarkeri guztiak ebagi ta kentzeko, Gotzaiñek eta Eliz-buruek egin arren bere, eta arazo au dala-ta, Jaun Aundiagana jo ebela, eta Jaun Aundi onek Eskutitzak eta Errege-erabagiak eta kartagaiñak eta bete-eragipenak aitaturiko Gotzain berarentzat eta onen Kargudunentzat bialdu zituala, Bizkaitar erri-gizonak zein kasutan, eta ez geiagotan, eskubidez epaitu daikeezan ebatziz, Atalok urrengo datozanak dirala.

Leenengo Errege-eskutitza

Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Errege-erabagiok eta Atalok Foru onetan berbaz-berba bir-idatz daitezala, zati onen urrengo ezarriz; eta Legetzat eta Forutzat ezarten ebela, berton datorren guztia egiteko aginduz.



LEENENGO ERREGE-ESKUTITZA.

Beroni buruz, Errege-eskutitza, eta Kalaorra'ko Gotzain-auzitegiko sariei buruz, eta Probisoreak zein kasutan epaitu daiken eta fiskalgoak ez daitezala alogeratu.

Doña Joana'k, Jainkoaren Graziaz, Kastilla'ko, Leon'go, Granada'ko, Toledo'ko, Galizia'ko, Sebilla'ko, Kordoba'ko, Murzia'ko, Jaen'go, Aljeziras'ko, Algarbes'ko, Jibraltar'go, Kanaria Ugarteetako eta Indietako, Itxas Aundiko Ugarte ta Leorreko Erregiñak, Aragon eta Naparra'ko, Sizilia Bietako, Jerusalen'go Printzesak, Austria'ko Artxidukesak, Borgoña ta Brabante'ko Dukesak, etab., Flandes eta Tirol'go Kondesak, etab., Bizkai'ko ta Molina'ko Anderak, etab. Zuoi, Kalaorra eta Kaltzada'ko Probisoreoi eta Gotzaitegi bereko Artzipreste ta Bikario ta beste Epaikarioi, Noble ta Leial dan nire Bizkai'ko Konderrian zagozen eta gaurgeiago egongo zareenoi, zuotariko bakotxari eta beeragoko Eskutitzak dakarrena dagokion edonori, Osasuna ta Bakea. Neuk Eskutitz bat zuoi emon eragiteko agindu nebana ondo dakizue edo jakin bear zendukee, neure Jaun eta Aita Erregeren eta neure Andera ta Ama Erregiñaren (zeruan izan bedi) beste bat tartean ezarririk. Eskutitzok oneexek dira: Doña Joana'k, Jainkoaren Graziaz, Kastilla'ko, Leon'go, Granada'ko, Toledo'ko, Galizia'ko, Sebilla'ko, Kordoba'ko, Murzia'ko, Jaen'go, Aljezira, Algarbes'ko, Jibraltar'go, Kanaria Ugarteetako, India Ugarte ta Leorreko, Itxas Aundiko Erregiñak, Aragon'go, Sizilia bietako, Jerusalen'go, Printzesak, Austria'ko Artxidukesak, Borgoña ta Brabante'ko Kon-

Ogeitamabigarren Atala

desak, etab., Flandes eta Tirol'go Kondesak, etab. Bizkai'ko ta Molina'ko Anderak, etab. Zuoi, Kalaorra ta Kaltzada'ko Probisoreoi, eta Gotzaitegi bereko Artzipreste ta Bikario ta beste Epaikarioi, Noble ta Leial dan Bizkai'ko nire Konderrian zagozenoi edo aurrerantzean egongo zareenoi, zuotariko bakotxari eta nire Eskutitz onek dakarrena dagokion edonori, Osasuna ta Grazia. Nire Jaun eta Aita Erregek eta nire Ama ta Andera Erregiñak Eliza orretako Gotzaitegirako ta zuontzak Eskutitz bat eta Txartel bat emon eragin zituala ta emon bere, emon zituala jakin egizue. Eskutitz ori ta Txartel ori oneexek dira: Don Fernando'k eta Doña Isabel'ek, Jainkoaren Graziaz, Kastilla'ko, Leon' go, Aragon' go, Sizilia' ko, Toledo' ko, Balenzia' ko, Galizia' ko, Mallorkaetako, Sebilla' ko, Zerdeña' ko, Kordoba' ko, Murzia' ko, Aljezira' ko, Algarbes' ko, Jibraltar' go Erregek eta Erregiñak, Barzelona' ko Kondeek, Bizkai' ko ta Molina' ko Jaunak eta Anderak, Atenas eta Neopatria' ko Dukeek, Ruiseillon eta Zerdania'ko Kondeek, Oristan eta Goziano'ko Markesek. Zuoi, Kalaorra' ko Gotzaitegiko Fiskal Eragille zareenoi edo izango zareenoi, eta gure Eskutitz au edo beronen bir-idatzia, Erri-Eskribauk izenpetua, erakutsi dakioken zuotariko bakotxari ta edonori, Osasuna ta Grazia. Guztiz Noble ta Leial dan gure Konderri ta Jaurerriko erritarrek eskabide bat egiñik, Aipamen egin euskuela jakin egizue, bertan esanez: Zuok eta zuotarikoren batek erriko uskeri txiki batzuekaitik salatu egiten dituzuela ta meatxuak egiten, esanez: Salatu egin gura dituzuela, erosi egin ei dituzue ta maraiak kendu ta kendu egiten ei dautsazuez; eta au onelan itxiko balitz, Konderritarrei ta bertako Bizilagunei irain eta kalte aundiak egingo ei jakezala; eta, orregaitik, gure Eskutitz au ango Fiskalentzat emoteko agindurik, Zuzentasunezko urtenbide bat ezarteko eskatzen euskuela, mesedez eskatu bere, Konderri aretako Laikorik, zein Gizakume zein Emakume, gure Errege-eskumendeko izan ezkero, salatu ez dagizuen,

Leenengo Errege-eskutitza

ezta salatu eragin bere, gure Fede Katolikuari dagokion arazoren baten izan ezik, eta salatu bear dozuenean, Konderriko gure Korrejidore edo Epaikari Aztertzailleari aurretiaz adierazo dagiozuela, euren aurrera argibidezko Lekukoak ekarririk, lege-ausle dirala ta salatzea bidezko dala garbi ager daiten, eta Epaikariaren aurrean Argibidea agertu zenduelako, Epaikari beronek emondako egiztabidea eroan dagizuela: eta zuen salakuntza onelan eroan dagizuela aurrera ta ez beste era batetara, edo arazo oni buruz, geuk mesedez geritxon erabagia artzeko agindu gengiala: gure Batzarrekoek au aztertuta gero, Eskutitz au emon eragin egin bear genduala erabagi zan, eta GUK ontzat izan genduan. Orregaitik, zuok edo zuotarikoren batek ez dagizuela ez orain ez gaurgero Konderri aretako Erritar dan Laikorik salatu agintzen dautsuegu, Laikoak bere legez salatu daitekezan Eliz-legeren austea izan ezik. Eta gure Errege-eskumendeko diran Laikoen aurka salakuntzarik beste eratara egiterik bururatu bere ez dakizuela egin: eta onantxe egiteko ta beteteko agintzen dautsuegu elizgizon zareenoi; gure Mesedea ta gure Erreiñuko erritartasuna ta bertan dituzuen eta daukazuezan apaizondasunak galduko dituzuen eta arrotz eta erbestekotzat eukiko zaituezen zigorrenpean; eta Laiko zareenoi, zuon ondasun guztiak gure Dirutegirako eta Erri-altxorrerako legez kenduko jatzuezan zigorrenpean; eta (besterik egin ezkero) oraindixek legez kentzen dautsueguz eta gure Dirutegirako ta Erri-altxorrerako kendutakotzat daukaguz; edozein Erri-Eskribauri zigor berarenpean au agintzen datsagu: Eskutitz au erakusten dautsuenari bere silluaz sillau eta Agiria emon dagiola, orretarako deitu bajako, gure agindua zelan betetzen dan GUK jakin dagigun. Guztiz Noble dan Burgos'ko Uriaundian emona Jesukristo gure Salbatzaillea jaio zala milla laureun eta larogeitamaikagarren urteko Azaroaren amalaugarrenean. Belasko'ko Don Pedro Fernandez Kastilla'ko Kondestableak, Erregek eta Erregiñak emonda

Ogeitamabigarren Atala

dituan aalmenen indarrez agindu eban emoteko. Neuk, Kueto'ko Santxo Ruiz'ek, Jaun Aundien Idazkari onek Batzarrekoen aginduz idatzi eragin neban. Gundisalbus Lizentziatus, Frantziskus Doktor, eta Abbas, Kintanilla'ko Alonso'k, ezarririk, Frantzizko Ruiz'ek, Zisneros'ko Frantzizko Kantzillerrak. ERREGEK. Kalaorra'ko Eliza ta Gotzaitegiko Kabildoetako Agurgarriok: Luno'ko Pero Martinez'ek, Noble ta Leial dan Bizkai'ko nire Konderri ta Jaurerriaren izenean, Aipamen egin eustan, esanez: Uriaundi ta Gotzaitegi orretako Gotzain izanak (ezin egin eikeala ta egin bear ez ebala ta nire Erreiñuetako Lege ta Erri-arauak austen zituala) Bizkai'ko Konderrian Laikoak salatzeko Fiskal batzuk eta areen auzi ta auzigaiak erabagiteko Epaikari batzuk jarri ta sorrerazo ei zituala, eta onelango Fiskal eta Epaikariek Laikoei dagokien eskumendetik kanpora eurak atara ta aitaturiko Epaikarien aurrera deitu ta erosi egiten dituela, eta onelango Fiskal eta salatari ta Epaikariak euren ogen eta etenakaitik txartzat euki ta zigortu egin bear ei leukeela, Jainko gure Jaunaren mendea ta nirea ukatu egiten dabelako, Konderritarren ta bertako Bizilagunen kaltetan eta Eliz-Epaikariek Laikoak zein kasutan eskubidez epaitu daikeezan Konderriko nire Korrejidore Astudillo Lizentzidunak zeatz azaldu eban ezkero, onangoxeetan soillik epaitu daikeezala, eta bestetan ez, Konderriaren izenean arren egin eta Mesedez eskatu eustan; eta orain Epaikari diranak kendu daitezala, eta gaurgeiago jarriko diranak Jakitun eta barru garbiko izan daitezala; eta auziperatu ta salatuko leukeezan Laikoak euron Eskumendean egin daitezala Eskumende onetaz kanpo bagarik, eta Zuzentasunezko edo neuk Mesedez neritxon urtenbide bat ezarri nengioela, batez bere. Orregaitik, gorago esandakoari buruz egin eragin nituan Eskutitzak eta Erabagiak ikusi ta gorde ta bete dagizuezala Nik zuoi erregu egin eta agintzen dautsuet, an agintzen dana gordeazorik eta bete eragiñik; eta gaurgero izendatuko dituzuen Bikario ta Epaikari ta Fiskal eta beste Kargudunak

Leenengo Errege-eskutitza

(Eliza ori Gotzainik baga dagoan bitartean Bizkai'ko Konderri ta Jaurerrian jarri bear izango balira, eta Eliza ta Gotzaitegi orretako Gotzain izango danak jarriko leukezanak) Gizon zintzo ta izen oneko ta barru garbiko ta kargu orretarako egoki izan daitezala, eta ez areek eta ez beste Eliz-Epaikarik nire Errege-eskumendeko diran auziak garbitzea ez dagizuela onartu, ez orretarako biderik emon, ezta Gotzaiñak berak bere, legez Eliz-Foruari dagokiozan gauzak eta kasuak izan ezik, era berean, aitaturiko Eliz-Epaikariek legez eurei dagokiezan auzietan nire Errege-eskumendeko diran Laikoak Artzipesteen eskumendez eta barrutiaz kanpo ataratea ez dagizuela onar, ez orretarako biderik emon, Artzipesteek eurek edo Bikarioek eta beeko beste Epaikariek leenengo ekiñaldian epaitu oi dituen eta epaitu daikeezan auziak aztertu ta ebatzi bear izan ezkero, eta beste iraiñik bere ez dakiela egin, bidezko asarrebiderik izan ez dagien.

Madril'go Urian, milla laureun eta larogei ta emeretzigarreneko Epaillaren ogeitazazpigarrenean. NEUK ERREGE ONEK. Erregeren aginduz Grizio'ko Gaspar'ek. ERREGEK eta ERREGIÑAK. Kristo'gan Aita Agurgarri ta gure Batzarreko zaran Kalaorrá'ko Gotzain ori. Luno'ko Pero Martinez'ek, Noble ta Leial dan Bizkai'ko gure Konderri ta Jaurerriko Batzarreko Ordelariak, bertako Zaldunen, Eskutarien eta Aitonen semeen izenean, Aipamen egin euskun, esanez: Zuon Auzitegian zuon Epaikariek eta Bikario ta Kargudun eta Notarioek, euren aurrean erabagiten diran auziak dirala-ta, auzilariengandik Sari aundiegiak jasoten dituela, ez zuzenez, bidegabez baiño: aitaturiko Konderriko Erritarrek onetan irain eta kalte aundiak artu ta artzen dituela ta Sariok orren aundiak eta itzelak diranez, Auzilari askok euren auziak alde batera izten dituela, euren eskubidea galdurik; askotan jazo oi danez, auzipeko diran gauzak balio dauana baiño Sari aundiagoa kentzen dautseela-ta. Eta urtenbide Zuzen bat edo Mesedez ezarri gengikena ezarri gengiala, erregu egiñik, eskatu eus-

Ogeitamabigarren Atala

kun: eta, badakutzuenez, au zuzendu bearrekoa eta orrenbesteko Sariak eskuratzea gorabeera aundiko gauzea dalako; orregaitik, Lansari-araudia zeaztu eragin eta zeaztu dagizuela Geuk zuoi eskatzen eta agintzen dautsuegu, zuon Epaikari, Bikario, Kargudun eta Notarioek gaurtik aurrera Konderrian Lansari orreexek jaso dagiezan, eta Lansariok, zuon Kargudunak eta Notarioak bizi diran eta egotez dagozan lekuetan Konderriko gure Justizigiñek eta Eskribauek jasoten dituen Lansariekaz bat etor daitezala; orain arte jaso dituen eta orain jasoten dituen geiegizko Lansariok, beraz, aurrerantzean ezin daitekezala ta ez dagiezala jaso, Konderriko gure Justizigiñek eta Eskribauek dituen Lansari-arauen arabera baiño. Toledo'ko Uriaundian, milla bosteaun eta bigarreneko Bagillaren bosgarrenean. NEUK ERREGE ONEK. NEUK ERREGIÑA ONEK. Erregeren eta Erregiñaren aginduz Grizio'ko Gaspar'ek. Kristo'gan Aita Agurgarri zaran Kalaorra'ko Gotzai ori, Bizkai'ko nire Konderri ta Jaurretik eta Uri Uriandi ta Enkartaldetik Aipamen egin eusten, esanez: Zure Auzitegian zure Bikario ta Probisoreek, Epaikari ta Kargudun eta Notarioek euren aurrean auziak garbitu dituen eta garbitzen diarduten Auzilariei (kendu bear litzakiezan baiño) Sari aundiagoak kentzen ei dautseez, eta ori bidegabez eta zuzengabez eta, orregaitik, Konderri ta Enkartaldeko Erritarrek bidebaga ta kalte aundiak izaten ei ditue, eta, arazo oni buruz, erabagi ta urtenbideren bat ezarri edo Mesedez neuk neritxona egin nengiala, erregu egiñik, Mesedez eskatu eusten; eta, badakutzuenez, au zuzendu bearreko gauzea da ta orrenbesteko Sariak jasotzea gorabeera aundiakoa. Orregaitik, zure Probisore ta Bikario ta Epaikari ta Notarioek gaurgeiago jasoko dituen Lansarien Araudia ezarri ta ezarri eragin dagizuela Neuk erregu dagitsuet ta agintzen dautsuet, eta Lansariok, nire Eskribau ta Justizigiñek Konderrian eta Enkartaldean jaso oi dituen Lansarien araberakoak izan daitezala. Orain arte jaso ta

Leenengo Errege-eskutitza

orain jasoten dituen geiegizko Sariok, beraz, gaurtik aurrera ezin daitekezala jaso, Konderri ta Enkartaldeko nire Justizigiñek eta Eskribauek dituan Lansari-arauen arabera baiño; au (egin bear dozuena eginda gero) neuri egiñiko serbitzutzat artuko dot. Alkala de Enares'ko Urian, milla bosteun eta irugarreneko Garagarrillaren bosgarrenean. NEUK ERREGIÑA ONEK. Erregiñaren aginduz Grizio'ko Gaspar'ek. Kristo'gan Aita Agurgarri ta nire Batzarreko zaran Gotzain ori; badakizu, igaz Toledo'ko Uriaundian nintzala, Bizkai'ko Konderrian sar zeintezala erabagi zanean, Konderri, Enkartalde edo Lurralde Lau aretan Epaikari bi ta Fiskal bi baiño ez zengizala ipiñi ta Fiskalgo ori ez zengiala alogeratu erabagi zana: alogeratu ezkero, Konderrian bidebaga ta kalte aundiak izaten dituela-ta. Orregaitik, Epaikari bi ta Fiskal bi baiño ez dagizuzala ipiñi ta Fiskalgoa ez dagizula alogeratu neuk erregu dagitsut eta agintzen dautsut; alogeratu ezkero, Fiskal orrek Konderria ta bertako Erritarrak nekarazo egiteko bide, era ta aitxakiak aurkituko leukezala-ta: Au egin ezkero, egin bear dozuna ta bearturik zagona egin ta gero, nik serbitzutzat artuko dot. Alkala de Enares'ko Urian, milla bosteun eta irugarreneko Garagarrillaren amargarrenean. NEUK ERREGIÑA ONEK. Erregiñaren aginduz Grizio'ko Gaspar'ek. Eta orain jakin egizue Ugarte'ko Batxillerrak eta Bitoria'ko Batxillerrak eta Ariz'ko Joan Santxez'ek, Noble ta Leial dan nire Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriko Ordelari diranez eta beraren izenean, Aipamen egin eustela, esanez: Zuok, Probisore ta Artxipreste ta Bikario ta Epaikariok erri-auziak epaitzen diran auzialdian, auzi ori zuoi ez dagokizuelarik, erri-arazoez Laikoak epaitu ta epaitzen dituzuela, nire Errege-eskumendea urraturik; eta zuok, Eskribau eta Notariook legez egiztatzen dituzuela; eta zuok, Fiskalok, aitaturiko zuon Eliz-Epaikarien aurrean Laikoak salatu egiten dituzuela, bidebagakeriak egiñaz, aitaturiko Laikoak iraindurik; eta, era berean, erosi egiten dituzuela ta diru-zigorrak ezarri, Gotzaitegi orretarako ta

Ogeitamabigarren Atala

zuontzat eta zuon Auzitegi orretan dagozan beste Kargudunentzat dirala; eta nire Justizigiñen Lansariarauetan agertzen diran baiño Sari aundiagoak jasoten dituzuela; eta beste bidebagakeri ta indarkeri batzuk egiten dituzuela nire Errege eskumendearen kaltetan; eta Konderrian izan bear leukeen baiño Fiskal geiago zagozela egotez: Eta ortik Konderri aretako Erritarrek bidebaga ta kalte aundiak izaten dituela: Eta guzti au nire Batzarrekoan aurrean aurkezturiko Argibide ta Autorren bidez argi agertu dala; eta Erri-auzirik epaitzen ez zaitezela asi, eta epaitu bere, ez dagizuela epaitu, Eliz-arazoak eta zuoi dagokizuezanak eta nire Auzitegiko Oidore dan Astudillo Lizentzidunak zeatz-meatz azaldu zituanak izan ezik; eta Eliz-Kargurik ez dagizuela alogeratu, eta nire Justizigiñaren Lansariarauetan izendaturiko Sariak baiño aundiagorik ez dagizuela jaso bein baiño geiagotan agindu jatzue, eta nire Errege-eskumendearen eta gorago ezarririko Eskutitz eta Txartelen okerrez eta kaltez, oraindik nire Errege-eskumendea urratu egiten ei dozue, eta nire Mendeko diran ango Erritarrak neketan bizi ei dira; eta au onan laga baleite, Konderriak eta bertako Erritarrak bidebaga ta kalte aundiak artuko leukeezala. Eta aitaturiko Ugarte'ko Batxillerrak eta Bitoria'ko Batxillerrak eta Ariz'ko Joan Santxez'ek aitaturiko Konderriaren izenean Zuzentasunezko edo Mesedez neuk neritxon urtenbidea ezarri nengiala, erregu egiñik, Mesedez eskatu eusten; eta nire Batzarrean au aztertuz gero, eta nire Aita ta Jaun dan Erregeri aolku eskaturik eta arazo guzti oni buruz erabagi bat artu ta urtenbide bat ezarri nai izanik, nire Eskutitz au emon eragin egin bear nebala erabagi zan, eta nik onartu egin neban. Orregaitik, Eskutitz au ta gorago ezarririko Txartel ori ikusi dagizuezala agintzen dautsuet, eta gorde ta bete dagizuezala, an agertzen dan guztia osoosorik eta edozergaitik gordeazorik eta bete eragiñik; eta onelan gorderik eta beterik jasoko dituzuen Lansarien Araudia bereala egin dagizuela, barriztatu zan

Leenengo Errege-eskutitza


nire Justizigiñen eta Eskribau Laikoen Lansari-araudiaren arabera, eta Araudi au zuon Auzitegian eta eurotariko bakotxean ipiñi ta ipiñiazo dagizuela, Araudi onen arabera Sariak jaso dagizuezan; eta zuoi, aitaturiko Fiskaloi, agintzen dautsuet: aitaturiko Karguok ez dagizuezala alogeratu, esaniko Eskutitzak eta Txartelak dakarrenez; eta zuok, Epaikariok, erriauzirik eta zuoi ez dagokizuen beste arazorik ez dagizuela epaitu, Astudillo Lizentzidunak azaldu zituan kasu ta gauzak izan ezik, eta Konderriko Laikorik ez dagizuela diruz zigortu, ezta Gotzaitegi aretako Gotzaiñarentzat edo zuontzat edo beste edonorentzat Diruzigorrik ezarri bere: eta au zuok, Eliz-gizonok, onelantxe egin eta bete dagizuela agintzen dautsuet, nire Mesedea ta Erreiñuetako erritartasuna eta apaizondasunak galduko dituzuen zigorrenpean, bertan erbesteko ta arrotz zareela, eta Errege-aginduak egin ete beteten ez dituen Eliz-Epaikariak jausten diran zigorrenpean zuok jausi ez zaitezen, areek eurenganaturiko zigorrak zuok bere zuonganaturik; eta Laiko zarenoi, nire Dirutegirako izango diran berrogeitamar milla marairen zigorrenpean, zigor au oraindixek (besterik egin badagizue) ezarten dautsuedala, eta, ezarri bere, nire Dirutegirako ezarritakotzat daukadala: Edozein Erri-Eskribauri zigor berarenpean agintzen dautsat, orretarako deitu baldin bajako, erakutsi dagionari bere silluaz sillaturiko Agiria emon dagiola, neure agindua zelan beteten dan neuk jakin dagidan. Madril'go Urian, Jesukristo gure Salbatzaillea jaio ezkero, milla bosteun eta amargarreneko Epaillaren bigarrenean. NEUK ERREGE ONEK. Neuk, Kontxillos'ko Lope'k, gure Andera Erregiñaren Idazkari onek, aren Aita dan Erregeren aginduz idatziazo neban. Konde'k, Alferez'ek, Fernandus Tello Lizentzidunak. Doktor Karbajal'ek. Santiago'ko Lizentzidunak. Agirre'ko Lizentzidunak. Doktor Kabrero'k. Ezarririk. Jimenez Lizentzidunak. Kastañeda Lizentzidunak. Eta orain Arbolantxa'ko Joan'ek, Bizkai'ko Konderriko Ordelari

Ogeitamabigarren Atala

danak, aren izenean Aipamen egiñik, eskatu eustan, esanez: Aitaturiko nire Jaun Erregeren eta nire Andera Erregiñaren Eskutitza ta Kartagaiña zuok aintzat arturik eta bete eragiteko agindurik izanda gero, zeuk, aitaturiko Gotzaitegiko Probisore orain zaran orrek Fiskalengan eta Zordunkideengan beteeragipena egitea gura ei dozu, esanez: Fiskalgoa alogeraturik daukela ta orrelakorik ezin egin daikeela ta legez ez dabela egin bear eta aitaturiko Eskutitzaren eta Kartagaiñaren esanen eta erabagien aurka doala; eta onan lagako balitz, Konderriko Erritarrek irain eta kalte aundiak izango leukeezala; eta gorago ezarri diran Eskutitzak eta Kartagaiñak bete eragiteko nire Eskutitz au emonazorik, Zuzenbidezko urtenbide bat ezarri nengiala edo nire Mesedeari legokiona egin nengiala Mesedez eskatu eustan. Eta au nire Batzarrean aztertuz gero, arazo oni buruz neure Eskutitz au emon eragin egin bear nebala erabagi zan, eta nik onartu egin neban; orregaitik, gorago ezarri diran nire Jaun Erregeren eta nire Andera Erregiñaren Eskutitza ta Kartagaiña ikusi ta gorde ta egin eta bete eragin dagizuezala zuoi ta zuotariko bakotxari agintzen dautsuet, bertan datorren guztia osorik eta edozergaitik gordeazo ta egiñazo ta beteazorik, eta onelan gorderik eta beterik, Fiskalgoa ez dagizuela iñori alogeratu: Eta alogeraturik balego, edozein alogeratze ez egindakotzat izan dagizuela, edozein eratara eginda balego bere, eta alogeratze ori dala-ta, ez dagizuela Fiskal arengan eta aren Zordunkideengan beteeragipenik egin edo egin eragin; Gizon leial eta ogasundun eta zintzoa izendatu dagizuela Fiskalgoa euki dagian, iñori alogeratu baga, berak usatu ta erabilli dagian, eta ez batzuok eta ez bestetzuek ez dagizuela aurkarik egin, nire Mesede eta Kartagain aretan datozan zigorrenpean; eta Eskutitz au zelan adierazo dautsuen eta zelan bete dozuen jakiteko, zuoi erakutsiko leuskizuenari bere silluaz sillaturiko Agiria emon dagiola edozein Eskribauri agintzen dautsat, orretarako deitua izan baldin

Leenengo Errege-eskutitza

bada, nire agindua zelan beteten dan neuk jakin dagidan. Segobia'ko Uriandian emona, Jesukristo gure Salbatzaillea jaio ezkero, milla bosteun eta amabosgarreneko Iraillaren amalaugarrenean. Artxiepiskopus Granaten. Santiago'ko Lizentzidunak. Agirre Lizentziadunak. Almeria'ko Gotzaiñak. Doktor Kabrero'k. Neuk, Kastillo'ko Luis'ek, gure Andera Erregiñaren Idazkari onek, aren aginduz eta aren Batzarreko Oidoreen oneretxiz idatzi eragin neban. Ezarririk. Jimenez Lizentzidunak. Kastañeda Kantzillerrak.



Ogeitamabigarren Atala

BIGARREN ERREGE-ESKUTITZA.



Beroni buruz beste Errege-Eskutitz bat, eta fiskalgoak ez daitezala alogeratu, eta Gotzaiñak ez dagiala erri-gizonen aurka jardun kasu batzuetan izan ezik.

Doña Joana'k eta Beronen seme Don Karlos'ek, Jainkoaren Graziaz Kastilla'ko, Leon'go, Aragon'go, Sizilia Bietako, Jerusalen'go, Naparra'ko, Granada'ko, Toledo'ko, Balenzia'ko, Mallorkasetako, Sebilla'ko, Zerdeña'ko, Kordoba'ko, Korzega'ko, Murzia'ko, Jaen'go, Algarbes'ko, Aljeziras'ko eta Jibraltar'go Erregek eta Erregiñak, Barzelona'ko Kondeek, Bizkai'ko ta Molina'ko Jaunak eta Anderak, Atenas eta Neopatria'ko Dukeek, Ruisellon eta Zerdania'ko Kondeek, Oristan eta Goziano'ko Markesek, Austria'ko Artxidukesek, Borgoña ta Brabante'ko Dukeek, Flandes eta Tirol'go Kondesek, etab. Zuoi, Kalaorra ta Kaltzada'ko Gotzaitegiko Probisoreoi eta Gotzaitegi orretako Artzipreste ta Bikario ta beste Epaikarioi, Noble ta Leial dan geure Biskai'ko Konderri ta Jaurerrian egotez zagozanoi ta gaurgero egongo zareenoi, eta gure Eskutitz au edo beronen bir-idazkia, Erri-Eskribauk sillautua, erakutsi lekioken zuotariko bakotxari, Osasuna ta Bakea. Gure Batzarreko dan Oristan'go Kardenal guztiz Agurgarri ta Kalaorra'ko Gotzaiñaren eta onen Probisore ta Bikario Nagusi dan de la Torre Lizentziduaren izenean, Diego Gris gure Batzarrekoen aurrean aurkeztu zala jakin egizue, legez egin eikeanez eta ondoen egin aal eikean erara ta modura, bidebaga egin jakela-ta, Txartel eta Eskutitz eta Kartagain batzuen indargatzea eskatzeko gorajokaturik. Txartelok-eta, Justizigiñen eta Erri-Eskribauen Lansari-araudiaren arabera Sariak jasoteko Lansari-araudia egin zengien emon izan ziran; eta Fiskalgorik alogeratu ez zengien eta eginda zeunkeen edozein alogeratze ez egindakotzat izan zengien

Bigarren Errege-eskutitza

eta alogeratze onen maraiakaitik bete-eragipenik egin ez zengien; eta egiña izan balitz, ez egindakotzat izan zengien; eta Astudillo Lizentzidunak azaldutako gauzetan izan ezik, ez zengiela epaitu eta Gotzaiñaren Batzarrerako ez eitela dirudzigorrik ezarri, aitaturiko Eskutitz eta Kartagain areetan luzeago agertzen danez; Eskutitz eta Kartagaiñok (bear dan begiramenez eta lotsaz itz eginda) euren alderdientzat guztiz bidebagako eta guztiz iraingarri dirala; alderdiak eskatu baga jaritxi izan diralako, eta Eskutitzok-eta emon aurretik, Kardenalari ta onen aurretik izan ziran Gotzaiñei, edo eurotariko bati ez jakela deitu, ez entzun, eta egia ez zana esanda eta egia eskutaturik lortu izan zirala; eta Eliz-buruak ez ebala Konderrian Auzitegiko beste Saririk, eta Sariok betidanik jaso ta kobrau izan zirala, Lansariaraudi zaarretan usarioz gorde izanik; eta ez zala gauza barria ta Erreiñu oneetako beste Gotzaitegietan bere orixe egiten zala; Gotzaitegiotako Eliz-Auzitegietan Sari aundiagoak eta Laiko-Auzitegietan jasoten ziranen bi alakoak jasorik; eta aspaldi-aspaldidanik jaso izan diran eta jasoten diran Sariak gitxitzea bidebaga aundia izango litzatekela, eta Fiskalgoetako Karguak betidanik alogeratu izan dirala, eta Gotzaiaunditasunaren kaltezkoak eta erriaren pekatuak zigortzeko bidea kentzea izango litzatekela, zeintzuk eta zelangoak direan jakiteko ardurarik Fiskalek ez ebela izaten-eta; eta beste leku askotan, Jaurerrietan, batez bere, Abuazilkuntza eta Karguak eta Idazkaritza alogeratzen dirala, eta, antxiñakoak ziranez, eroan egiten zirala, eta Kargu onetan onelantxe egin bear litzatekela; eta antxiña alogeratu izanez gaiñera, premiña aundia egoala; Eta Astudillo Lizentzidunak zeaztu zituan gauzak baiño ez epaitzeari buruz, ez litzatekela mugarik ezarri bear, eurek, egitan, erri-erriko soillik dan gauzarik ez ebela epaitzen-eta, ezta eurei ez dagokienik bere: eta Kondeerriko Eliz-gizonek eta beste Erritarrek orixe nai izaten ebela, Eliz-gizonok sasiemazteak euren etxeetan

Ogeitamabigarren Atala

etxeko lez gau ta egun daukezalako, pekatuzko bizitzan gogorturik eta murgildurik erriaren aurrean bizi dirala-ta, eta Laikoek, euren bidezko emazteak bertan beera itxirik, sasiemazteekaz bizi dirala-ta, gure Jaun eta Jainkoaren bildurrik baga; ez ebela nai salatuko leukezan Fiskalik, ez gaitzetsiko leukezan Epaikaririk; eta egun gitxi dala, Fiskalek eta Epaikariek bidebagak eta lapurretak egiten zituen ezkero, Konderrikoak kexaz etorri zirala, eta arazo onetan billaketa egin egian Konderrian Epaikari bat izendatu ebela, eta bere ordeazko eginkizunik ez ebala bete, aitaturiko Epaikarien aurkako egiztabiderik ez zalako, eurekaz bat egin ebala-ta; eta zuok epaitzeko eskubidea daukazuen guztietan diru-zigorrez gaitzetsi zengikeela, Gotzaiñarentzat izanik, eta betidanik usarioz onantxe egin izan zala, eta ez zala legearen aurkakoa; eta Fiskalak izendatzeari ta Fiskalgoa alogeratzeari buruz, Gotzain baten eta Konderriaren artean Erroma'n Auzi bat izan zala, eta Epaia ta erabagia Gotzain onen alderako izan zirala. Ori dala-ta, arazo oni buruz aitaturikoen izenean erabagia artu gengiala, erregu egiñik, eskatzen euskuela, aitaturiko Txartel eta Kartagaiñak indargaturik eta deusezturik, eta orain arte usarioz gorde izan dana, orain bere gordetako edo geuk Mesedez geritxona egiteko agindurik: oni buruz, Gurunaga'ko Martin Ibañez Aldunak eta Goikolea'ko Gonzalo Errejidoreak, Konderriaren izenean, gure Batzarrekoen aurrean beste Eskabide bat egin eben, esanez: Aitaturiko Txartel eta Eskutitz eta Kartagaiñak adierazo jatzuezala, eta, men egiñik, ez dituzuela orain arte bete, eta, areek gorabeera, aitaturiko Fiskalgoon eta Fiskal-zigorren kopuruagaitik, eskabidea egiñez, bete-eragipena egin zenduela, Eskutitzon eta Kartagaiñon bidez Konderriak alogeratzailleak bere gain artuta euki arren: Orregaitik, aitaturiko Eskari ori ta bertan aitatzen diran arrazoiak gorabeera, gure Gorteko norbait bialtzeko eskatzen euskuela, aitaturiko bete-eragipenak egin zituenen aurka ekin egian eta indargatu egizan, eta,

Bigarren Errege-eskutitza

arazo au dala-ta, kendu jakezan ondasun eta beste gauza guztiak biur eitezala egin egian; eta aitaturiko Konderriko Erritarrek lege-austeak (beste alderdiak iñoanez) egin arren, Fiskalek salatu leikeezala zigorrok alogeratu baga: Alogeratu ezkero, koipekeriz erosi ta bidebaga ta indarkeri aundiak egiten zirala ta lege-ausleak ez zirala zigortzen, eta erabagia artu edo geuk Mesedez geritxona egiteko eskatzen euskuela. Gure Batzarrekoek guzti au aztertuz gero, arazo oni buruz Eskutitz au emon eragin egin bear genduala erabagi zan, eta GUK onartu egin genduan: orregaitik, gorago ezarri diran aitaturiko Eskutitz, Txartel eta Kartagaiñak ikus dagizuezala zuoi agintzen dautsuet, eta Kalaorra'ko Gotzaiñak eta Probisore ta Bikario Nagusi dan de la Torre Lizentzidunak egin eben eskabidea gorabeera, aitaturiko Fiskalgorik ez daitela alogeratu, eta Astudillo Lizentzidunak zeaztu zituan arazoak soilki eskubidez epaitu dagizuezala ta areek dakarrena osorik eta edozergaitik gorde ta bete dagizuela, gordeazorik eta bete eragiñik: eta areek esanaren eta aginduaren aurka ez dagizuela ezer egin, ez orretarako biderik emon, ezta iñork egiterik eta bide emoterik onartu bere. Eta, era berean, zuon aurrean erabagiten diran auzi ta arazoak dirala-ta, Gotzaitegi orretako Uriaundi, Uri ta Lekuetako Erritarrei baiño Sari aundiagorik Konderriko Erritarrei ez zuok, ez zuon Auzitegietako beste Eskribau ta Notario ta Kargudunek aurrerantzean ez dagioezuela kengu agintzen dautsuet, ezta bestek kentzerik onartu bere. Eta ez dagizuela zuok aurkarik egin, ezta beste batzuek bere. Madril'go Urian emona, Jesukristo gure Salbatzaillea jaio zala, milla bosteun eta amaseigarreneko Apirillaren amazortzigarrenean. Artxiepiskopus Granaten. Santiago'ko Lizentzidunak. Doktor Gebara'ko. Agirre'ko Lizentzidunak. Kastañeda'ko Bartolome Ruiz'ek, Erregiñaren eta beronen seme Erregeren Batzarreko Esbrikau onek aren aginduz, Batzarrekoen on-eretxiz idatziazo neban. Ezarririk. Jimenez Lizentzidunak. Kastañeda Kantzillerrak.

Ogeitamabigarren Atala

III Legea. Zein kasutan ez dan eskomikurik irakurri bear.

Baita, esan eben: Bizkaitarrek ortuarien eta sagar eta frutuen lapurretakaitik eta soloetan sartzeagaitik Eskomikuak eta zensurak irakurri eragiten zituela: eta au (Laikoak Eliz-Epaikarien aurrera era onetan erakartea Errege-eskumendea urratzea izateaz gain) Arimen kalte aunditan dala. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, orrelako Eskutitzik ez daitela irakurri, irakurriko leuken bakotxari seireun marairen zigorra ezarten jakola, Konderriko konponketarako: erri ta zigorauzibidez eskatu, ostera, eta Legearen arabera Epaikari Laikoen aurrera erakarri, egin daikeela. Eta edozein eratako auzi ta zigor-auzi dala-ta bere, ez daitela Eskomikurik irakurri, zigor berarenpean.

IV Legea. Gotzaiñaren Epaikariez eta Fiskalez, eta euren auzialdiak non egin bear dituen, eta euren notarioen sariez.

Baita, esan eben: Elizbarruti onetako Gotzaiñak Bizkai'ra Kargudunak, Fiskalak eta Epaikariak bialtzen dituala, eta ez bat bakarrik, iru edo lau edo geiago baiño: eta eliz-legeen austea ta pekatuari dagokiozan arazoak garbituko dituelako aitzakiaz, eta Bizkaitarrei pekatua galazotearren, askotan lapurkeriak egin eta koipekeriz erosi egiten dituela, eta (okerrago dana) onelan lapurtzeko ta koipekeriz erosteko egokiera aundiagoa euki dagien (legebidez) Korrejidorea edo onen Ordezkari Nagusia bizi ta egotez dagozan leku jendetsuetan eta ospetsuagotan

Ogeitamabigarren Atala

euren Auzialdiak egin bearrean, aitaturiko Epaikariek Elizateetan eta Leku baztarretan egiten dituela, ara deituta doazan Laikoek eurak babesteko Letraurik, ez Legegizonik, ez Ordelaririk izan ez dagien: batetik, aitaturiko Fiskalek Laikoen auzibideak erabagiten eta Erri-arazoak epaitzen ausartzen diran guztietan, Laikoek Korrejidoreagana edo onen Ordezkari Nagusiagana jokatzen dabelako, indarkeri ta bidebaga aretatik aldeztu ta babestu dagiezan; eta Jaun Aundiaren Epaikari diran Korrejidoreak eta onen Ordezkariak, Eliz-buru ta Eliz-Epaikariek egin oi dituen indarkeri guztia kentzeko ta deuseztatzeko aalmena, edo alatsukoa, badabenez (Korrejidorea ta onen Ordezkaria ta Fiskal-Epaikariak egotez Laikoen lekuetan egoten dira-ta), Korrejidorea ta onen Ordezkaria Fiskal-Epaikariokaz artez alkartzen dira, Laikoen aurka arrotu dan Auzibidea ta Auzia aztertzeko: eta Eliz-arazoa edo Izpirituzkoa ta beronen aztertzea eskumendez Eliz-Epaikariari dagokiona baldin bada, berari bialtzen dautsoe: eta arena izan ezik, eurek euretara ebaztea erabagiten dabe, zuzenez epaiturik; eta, bestetik, Korrejidorea ta Ordezkaria Konderriko Uri ta Lekurik jendetsuenetan eta nagusietan egotez dagozanez, an Auziak defenditzeko Letrau ta Ordelaririk ugari izaten dalako. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Bizkaia'n Gotzaiñaren Fiskal-kargua eukiteko ta egikuntza onetan jarduteko ez daitezala Urietan eta Lurralde Lauan Fiskal bi baiño izan, eta oneetariko bata Korrejidorea dagoan lekuan bizi ta egotez egon daitela (gitxienez aren Epaikariak Auzialdia antxe egin dagizala), eta bestea, Ordezkari Nagusia egotez dagoan lekuan egon daitela, edo aren Epaikariak Auzialdiak antxe egin dagizala, eta beste lekuetan ez: Korrejidorea ta Ordezkari Nagusia, egon bere, beti euren eskualde banatan dagoz, Bizkai guztia ia erdibana daukelarik, eta onela bertoko eskualde bitan dagoz; eta aitaturiko okerrak onelan galazo egiten dira, eta an egotez egon baga arrotuko litzatekezan

Ogeitamabigarren Atala

beste asko bere bai; arazo onen gorabeeran, orixe erabagiteko Jaun Aundiari arren egiten eutsoela, eta, Gotzaiñak onarturik, Fiskalok eta Epaikariok izendatu dagizala; bestelan, Bizkaia'n ondamendi aundiak izango litzatekez-eta; Sariak jasoteari gagokiozala, ondorenez, Kargu orretako Eskribau ta Notarioek Erregeerabagien arabera Erreiñuko Łansari-araudia gordetzeko agintzen ebela, onantxe agindurik.



Bizikariez eta Janariez

OGEITAMAIRUGARREN ATALA, KONderrira datozan bizikariez eta janariez.

I Legea. Bizkai'ra etorriko litzateken bizigarririk ez daitela atara, kasu batzuetan izan ezik.

Leenengo esan eben: Bizkaitarrek (Bizkaia mendi-tsua izanik, berton ereiten ez danez eta ogirik eta beste bizikaririk lurrean ez dabenez) jan-edan egiteko ta mantendu aal izateko, ogia ta aragia ta arraiña ta gaiñetiko bizikariak Frantzia'tik, Inglaterra'tik eta Portugal'dik eta beste Erreiñu batzuetatik ekarteko oiturea ta frankeza ta errieskubidea betidanik izan dabela, eta onango bizigarriak, jazo oi danez, itxasoz ekarri ta Bizkai'ko kaietan leorreratuz gero, Bizkaitarren edo erbestekoren batzuek bizikariok lurraldetik at ataraten dituela kanpoan saltzeko; eta onelan erria ain barik gelditzen dala. Orregaitik, Foruz, usarioz eta oituraz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, ogia ta ardaoa ta jan-edateko beste bizikariak (Bizkai'ko kaietan saltzeko leorreratu izan diranak) Bizkai'tik ataraten edo beste aparteko leku batera eroaten iñor bere ez daitela ausartu, barriro saltzeko erosirik edo beste era batetara ori egiñik, Jaun Aundiaren baimen eta agindu bagarik eta beronen Gaztelu ta Muga-leku ta Gudaroste ta Guda-ontzidia janaritzeko izan ezik, eta bestetara ez; zigor onenpean, besterik egingo leukenak orretarako erabilli dituan Ontzi-zabala ta Itxas-ontzia ta saleroskiak gal dagizala, erdia Bizkai'ko konponketarako ta beste erdia salatariarentzat eta epaitu dauanaren Epaikariarentzat erdibana dala.

Ogeitamairugarren Atala

II Legea. Itxas-ontziek Bizkai'ra dakarren bizikari erdia berton leorreratu bear dabela, eta saldu zelan egin bear daben, eta arerioentzat bizikariak dakarrezan ontziez, ori egiztatu ezkero.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Bizkai'ko itxas-ertzetik kanpokoa dan Ontzia edo Ontzi-zabala bizikariagaz Bizkai'ra datorrena, dakarren bizikariaren erdia Bizkaia'n leorreratzera beartu daitela, berton itxi eragiñik, eta berak nai dauanez sal dagiala; eta beste erdia nai dauan lekura eroan daikela, Jaun Aundiaren arerioentzako izan ezik; olakoan, bada, (ori egiztatu ezkero), aitaturiko bizikaria, baita Ontzia ta Ontzi-zabala bere, zigorrik baga edonork artu ta beretzakotu daikezala, eta Bizkai'ko edozein kaitara era onetan datorren bizikaria bere lekuan leorreratu baga berezko bederatzi egunetan egon daitela, salneurri bat baiño geiago jarri baga; eta bederatzi egunok igaro ezkero, leorreratu daitekela eta alik eta ondoen lurrean saldu, eta epe-muga onetan Etxerik edo beste lekurik gordetzeko emon dagionak zigorrez amar milla marai ordaindu dagizala, erdia Konderriko konponketarako ta beste erdia salatariarentzat eta bete-eragipena egin eban Epaikariarentzat erdibana, eta guztia edo geiena moltzoan erosiko leukenak saleroskiaren salneurria gal dagiala ta bizikaria ugazabarentzat barriro saltzeko izan daitela. Eta salneurria gorago esaniko erara banandu daitela; eta bederatzi egunetako epemuga orretan bizikariari ez dakiola zizarik ez beste zergarik ezarri.



Bizikariez eta janariez

III Legea. Bizigarriekaz Bizkai'ra datozan ontziak aukeran etor daitezala, eta biurkeran, debekaturik ez dagozan salkariak eroan dagiezala, iñork ordainkatu baga.

Baita, esan eben: Bizkai'ko Kaietara ta Itxas-adarretara, jazo oi danez, Jaun Aundiaren adiskide diran Frantzia ta Bretaña ta beste Erreiñu batzuetatik itxasoz Ontzizabalak eta Ontziak bizikariekaz etorten dirala; eta Kai ta Itxas-adarretara eldurik, ordainkak edo zena edo bigarren zena dituen batzuek Ontziok eta bizikariok menderatu egiten dituela, eta, orregaitik, bizikariagaz Bizkai'ra etorten ez dirala ausartzen, eta, ori dala-ta, Bizkaitarrek kalte ta neke aundiak artzen dituela, lurra elkorra dalako. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, orrelako ordainka ta zena ta bigarren zena dituan iñor ez daitela Bizkai'ra ta bertoko Kai ta Itxas-adarretara bizigarriak eta jakiak dakarrezan Ontzi ta Ontzi-zabalok menderatzen ausartu, etorten, sartzen eta aukeran eta zergarik baga euren bizikaria saltzen itxi baiño, aurreragoko Legeetan esanda dagoanez, eta, itzulkeran, Erreiñu onetako Legeek debekatzen ez daben Burdiña edo beste edozein salkari nai daben edo ondo datorkien lekura eroan dagiela, Jaun Aundiaren arerioentzat izan ezik: zigor onenpean, esandakoaren aurka iñork ezer egin balegi edo egiteko asmorik baleuko, egindakoa utsa eta indarrik eta ondorenik bagakoa izan daitela: eta Bizkai'ko Epaikari ta Justizigiñek, edozelango ordainka ta zena ta bigarren zena gorabeera, bizikariekaz datozenei biur eragin dagioela, zergarik baga saltzeko bidea egiñik.

Bizikariez eta Janariez

IV Legea. Bere etxean bizikariak edonork sal daikezala, debekaturik ez badago.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, edozein Bizkaitar bere etxean edo eskualdean ogia ta ardaoa ta okelea edo beste edozein jaki edo bizikari Elizate aretako zergazaiñen sal-neurrian zergarik baga ta aukeran saltzeko bere eskuko izan daitela, baita erosteko bere; Erriak edo Erriaren zati bik beste Erri-arauren bat egiteko alkar artu ez badabe, eta, ori egin daikeenez, olakoan, erabagi dabena baliozkoa izan daitela, Lege au gorabeera.

OGEITAMALAUGARREN ATALA, ZIGOrrei ta kalteei buruz.

I Legea. Abereak mendira eroan bear dirala, eta egin daikeen kaltearen zigorra.

Eenengo esan eben: Bizkaia'n abererik eta kumerik ugari dala, eta lurra edatua dalarik, eta bakotxak bere basetxea, solo ta guzti, mendian eta beealdean dauanez, idi ta bei ta auntz eta beste abere-taldeak dituenek euren ugazaben etxe ondoan zain barik larratzen dituela; eta abereok ez soillik euren ugazaben soloak, baita auzokoenak bere, ondatu egiten dituela, baiña onangorik ez litzatekela jazoko ugazabek euren abereak goiko mendi ta erriko basoetara makilladun zaiñagaz bialduko balitue, Foru zaar eta usario ta antxiñako oituren arabera. Orregaitik, Foruz eta usarioz eta oituraz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: agintzen ebela, onantxe agindurik, abereak dituan edozein Bizkaitarrek egunean bein, goiz oro, abereok mendira ta goiko erri-baso ta oizko larretara bota bear dituala, makilladun zaiñak Eguzkizeguzki jagon eta ekarri dagizan: bakotxeko berrogeitamar marairen nekepean Erriko bideak konpontzeko. Eta gauez etor daitezenean,

Zigorrei eta Kaltei buruz

Abere txikiak, Auntz, Ardi ta Txarriak abeletxeetan euki dagiezala, baita Abere aundiak bere, erriko baso ta larretatik jatsi ezkero; zigor onenpean, Abere Aundien jabeak, esaterako, Zaldi, Auntz eta beste Abere Aundien jabeek egun bakotxeko lau marai ta egiñiko kaltea ordaindu dagiala. Eta gauez sar baledi, egindako kaltea ta zigorra bi alakoz geiturik ordaindu dagiala. Eta orrela abereak sartu dirala Lekuko baten esanez edo Lekukoaren esanak beste indar daben aztarrenez jakin ezkero (aitaturiko zigorrari ta kalteari gagokiezala) soloaren jabeak esan eta zin egin baldin badau, sinis dakiola: eta aitaturiko zigorrok soloaren jabearentzat izan daitezala. Eta gorago esaniko zigorra abere-buru bakotxagaitik izan daitela.





II Legea. Egindako kalteagatik abereak zelan baitu eragin daitekezan.

Baita, esan eben: Aitaturiko abereek auzokoen soloetan, zein garitza zein maasti, sagasti ta baratzetan kalte aundiak egiten dituela, Abereon jabeak txarki jagoten ditualako. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Abereen jabeak kalterik ez egiteko eraz jagon dagizala. Eta egunez besteren soloan sartu ta kalterik egin ezkero, aurreragoko Legean ezarririko zigorrak ordaindu dagizala: eta soloaren jabeak Abereak abeletxera eroan eta baitu daikezala, oso-osorik ordaindu edo beste arenbesteko baituraren bat emon arte katigu eukirik; eta iges egin dabelako ezin abelatxeratu izan balitu, olakoan, argibide ori izan eta zin egin ezkero, Abereen jabeak bereala eroan eta emon dagiozala abeletxeratu dagizan edo arenbesteko baiturak emon eta oso-osorik ordaindu dakion arte katigu

Ogeitamalaugarren Atala

euki dagizan; eta orrelako argibidea izan ezkero, Abereen jabeak ez dagizala atara eginbearrekoa egin baga, ori egin dagian bakotxeko eun marairen zigorpean soloaren jabearentzat.

III Legea. Zigorraren eta kaltearen ordaiña eskuratzeko jabeek euren soloak zelan esitu bear dituen.

Baita, esan eben: Aitaturiko soloen jabeek, jazo oi danez, abereek euren soloetan egindako kalteak diralata, Abereen jabeak egiten dituela kalteon errudun; eta Abereen jabeek, ostera soloak txarto esituta daukezalako datorkiela kalte ori salatzen dabela, eta onelan eztabaidak sortzen dirala. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela onantxe agindurik, Abereen jabeak soloaren jabeari Soloa esiz inguratu dagiala eskatzen badautso, olakoan, Soloaren jabea Soloa esiz inguratzera beartuta dagoala, iru Gizon zintzok ikusi ta aztertuta gero, bakotxak berea autaturik eta irugarrena autaturiko biek izendatzen dabela. Eta iru Gizonok aztertuz gero, esitu ez badagi, Abereen jabea ez daitela zigorgarri izan, Abereak egindako kaltea ordaintzera beartu baiño. Eta eskabidea egin eta kaltearen ordaiña emonda, esitu ez daualako, barriro kaltea etor badakio, azalduta dagoanez, Abereen jabea ez daitela ordaiña emotera beartu.

IV Legea. Auzoarena dan mendialdean erein ezkero, ereillearena izan daitela arriskua, kaltea jakiñaren gaiñean egin ezik.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, norbaitek mendialdean usa edo auzo-lurra dan lekua garitarako edo beste ereite batetarako esituko baleu, eta, auzo-lur ori goialdean eta mendian dagoalako, Abereen batzuk kalte egin, onan erein dauanak, ez-ustez etor dakioken kaltearen arriskua berak eroan dagiala; eta Abereen jabea ez daitela ezertariko kalterik eta zigorrik ordaintzera beartu, norbaitek bere Abereak jakiñaren gaiñean ara eroan dituala jakin ezik;

Zigorrei ta Kaltei buruz

onan izan ezkero, bada, aitaturiko zigorren eta kalteen errudun izan beite; eta esitu ori auzo-lurrean egin badau, ezin daikela lubanez edo arresiz inguratu, esiz baiño, eta garia batu ezkero, zabalik itxi dagiala iru lekutan atakak egiñik, Abereak aukeran sartu ta jan dagien barriro erein arte.

V Legea. Erbestetik ez daitela abererik barriro saltzeko ekarri, eta erriarakiñei ez dagokiela.

Baita, esan eben: Asturias'dik eta beste leku batzuetatik birikietako gaixoz Bizkai'ra datozan idi eta beiek lurraldeko mendi ta txara ta larretan dagozan Abereei kalte aundia dakartseela. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Urietako edo Lurralde Lauko Bizkaitarrik ez daitela saltzeko edo loditu ta birsaltzeko kanpoko Abererik Bizkai'ra ekarten ausartu, bere etxerako, lugintzarako ta bere bearrizanetarako izan ezik. Eta erbestekoren batek saltzeko ekarri dauala jazo badadi, Lurralde Lauko ta Urietako Bizkaitarrik ez daitela saltzeko erosten ausartu, bere etxeko bearrizanetarako baiño: zigor onenpean, besterik egiten dauanak ekarri edo erosi dauan Aberea gal dagiala, irutatik bat Aberea artu dan Elizateko erri-bideak konpontzeko, beste zatia beteeragipena egin dauan salatariarentzat eta irugarrena salatu dauan salatariarentzat dala: Konderriko edozein arakin, ostera, zein erosteko zein larretara ekarri eta loditu aal izateko bere eskuko izan daitela, gero berak bere Aragitegian saldu dagian, baiña Konderrian beste Arakiñi ez beste iñori bei edo idi bizirik eta osorik ezin daikeola sáldu, ezta erbestean bere, besterik egiten dauan bakotxeko bost milla marairen zigorpean, esaniko erara banantzeko.







Ogeitamalaugarren Atala

VI Legea. Iñork ez dagiala menditik idirik eta lan-abererik jabearen baietzik baga eroan, eta onangorik egiten dabenen aurka zelan jardun bear dan.

Baita, esan eben: Bizkai'ko mendi eta larretatik euren eskuz eta jabearen baietzik baga idi ta mando ta zamari ta beste lan-abereak eroaten ausarten dirala, ez lapurtzeko asmoz euren solo-lanak egiteko baiño; eta batzuetan orrelako idi ta abereak galdu egiten dirala, eta beste batzuetan, ez. Eta, okerrago dana, idi ta abere bi edo iru onelan eroateko beste asko geiago bere eroaten dituela (lanik eragin baga), naiz eroan gura dituanei lagun egiteko naiz idi ta abereok arei atzetik jarraitu dagioen; eta onangoak, jazo oi danez, galdu edo iñorendu egiten dirala; Eta au Legearen aurkakoa izateaz gaiñera, erriarentzat kaltegarri bere kaltegarri dala eta abereon jabeentzat galbide, eta orrelako kalteak kentzeko eta ortik sortzen diran eztabaidak zokoratzeko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: agintzen ebela, onantxe agindurik, iñor ez daitela mendi ta larretatik bere eskuz eta jabearen baietzik baga idirik edo beste lan-abererik eroaten ausartu, ezta buztartu ta lan eragiten bere, onelan eroan edo bidean zamatua ekarri edo buztarria ezarri dautson bakotxeko irureun marairen zigorpean aitaturiko idi edo aberearen jabearentzat: eta onan eroan dan idirik edo abererik gal baledi, aitaturiko zigorraz gain, idi edo aberearen jabeari salneurriaren bi alakoa ordaintzera beartu daitela; baita eroan dituan abereen atzetzik joan zana aldendu eta galdu baldin bada bere, onelan eroan zituana ziur jakin ezkero; Eta egiztagarririk ez balitz, salaturiko idirik ez abererik berak ez ebala eroan ez buztartu, ezta bere aginduz beste iñork bere, Errudunak bere Zin-elizan zin egin bear dauala, urtebete ta egun baten buruan ori eskatu ezkero, eta geroago ez; Eta ostutzeko asmoz eta gogoz eroan izan baleuz, lapur-zigorra egotzi dakiola.



Zigorrei ta Kaltei buruz

VII Legea. Norbaitek loditzen daukazan txarriak euren mugarritutik urten ezkero, zelan baitu bear diran.

Baita, esan eben: Garaua ta ezkurra dagoan mugarrituriko mendiren edo lurzatiren bat daukan Bizkaitarrek, jazo oi danez, erbestetik txarriak ekarten dituala mugarritu aretan loditzeko, txarrion jabeek ordaiña emoten dautsoela; eta onan ekarritako txarriak askotan euren mugarritutik urten eta beste batzuen lur eta sail mugarrituetara joaten dirala; eta txarriak joan diran lurraren jabeak, andik igaro ta an aurkitu ezkero, artu ta abeletxeratu egiten dituala eta loditzeko ekarri dituanari ez dautsala biurtu ta itzuli nai izaten, arturiko nekearen eta kaltearen ordaiña emoteko prest egon arren bere, txarrion jabe ez dirala esanez, eta, au dala-ta, lur mugarrituaren jabe ta jaunak bidebagea izaten dauala, onelan eztabaidak sorturik. Orregaitik, eztabaidok kentzeko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, ezkurra dagoan bere mendi mugarrituan edo solo esituren baten orrelako txarririk aurkitzen dauan edonork, loditzeko dukazala ekarleak adierazo badagio, biurtu ta itzuli ta emon egin bear dautsazala, txarriok eurenganatu daben zigorra edo iraiña (au da) garaua edo ezkurra dagoan bere mugarrituan egunez aurkitu legiken txarri bakotxagaitik marai bi ordaintzeko prest egon ezkero; eta gauez izan ezkero, lau marai, txarrien jabe nagusiak eskatu ez arren; eta au, loditzeko ekarri dituanak baitura emonik: aitaturiko zigor au baitu zituan mendiaren jabearentzat izan daitela. Orrelako txarriak, baiña, esiturik daukan bere soloren baten norbaitek aurkitu ta abeletxeratuko baleuz, txarriok loditzeko dakazanak legebarruan dagoalako Erantzulea emon eta erabagitako eta egindako kaltea ordaindu ezkero, abeletxeratu zituana emotera ta biurtzera beartu daitela, txarrien jabeari kalte ta obari guztiak eta gaiñera txarri bakotxeko eun marai

Ogeitamalaugarren Atala

loditzeko ekarri dituanarentzat ordaindu bearreko zigorpean.

VIII Legea. Besteren soloan zelan sartu eta andik zelan igaro daiteken.

Baita, esan eben: Bizkaia'n solo esitu ta mugarritu asko dagoan ezkero, solo areetan asko sartu ta andik igaro egiten dirala, jabeari kalterik eta iraiñik egiteko asmorik baga. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, bestek daukan eta berea dauan edozein solotan sartzeko ta andik igaroteko eskua edonork izan daikela; eta au, berenez, aitaturiko solo ori esitua ta mugarritua izan arren; norbait, baiña, burdiagaz edo abere perratuagaz iñoren solo esituan eta mugarrituan jabearen gogoaz bestera sartuko balitz, bakotxean eun marai ordaindu dagizala zigortzat, erdia solo aren jabearentzat eta beste erdia eskualde aretako bidegintzarako, eta kaltea ta obaria, gaiñera, alderdiari ordaindu dagiozala, Eta iñoren soloan iñor sartuko balitz eta kalterik egin. kaltea bi alakoz geituta ordaindu dagiala: eta soloaren jabeak (bertan dagoala) bere solo aretan sartzea iñori debekatuko baleutso, eta, alan da guzti bere, aren gogoaz bestera sartuko balitz (Legean ezarririko zigorrez gain) zigortzat eun marai ordaindu dagizala, esaniko erara banantzeko.

IX Legea. Norbaiten kontra sut-autsezko tirorik jaurtitzen edo jaurtitzeko agintzen dabenen zigorra.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Bizkaitarrik ez daitela Bizkaia'n adiskideren edo arerioaren aurka sut-autsezko tirorik egiten edo jaurtitzen ausartu, ez geldi-unetan, ez geldi-unetatik kanpo, onango zigorpean, sut-autsezko tirorik iñori jaurtitzen dautsonak azpikeritsuaren erio-zigorra izan dagiala, tiroz kalterik egin ez arren bere; eta jaurtitzeko agindu dauan Jaun edo aide nagusiak zigor ori berori izan dagiala.

Zigorrei ta Kaltei buruz

X Legea. Su-emoleen zigorra.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, garitzei edo soloetako ereiñei edo etxeei jakiñaren gaiñean su emoten iñor ez daitela Bizkaia'n ausartu naiz bake-unetan naiz geldiunetatik kanpo, azpikeritsuari dagokion erio-zigorpean.

XI Legea. Kalterik ez egiteko soloak zelan erre bear diran, eta kalte egiñez soloan sua egiten dauanaren zigorra.

Baita, esan eben: Zugatzik baga garbi dagozan mendi ta larretan batzuek sua egiten dabela, su au bedarraren onerako iziotu eragiñik. Eta batzuetan, jazo oi danez, sua egiten dan mendietatik urrean dagozan beste mendi ta solo batzuetara joaten dala, kalte aundiak egiñik; eta onan sua egiten dabenek zein alditan eta lekutan eta eratan sua egin daikeen jakin dagien: Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, mendi soilletatik oianetara ta solo esituetara suak urteten ez dauan aldian eta eran egin dagiela, suak kalterik egin ez dagian, zigor onenpean: Onan urtendako suak mendietan eta soloetan kalterik egingo baleu, su-egilleak (amalau urtez goitikoa izan ezkero) kaltea egin jakonari kaltearen bi alakoa eta, gaiñera, seireun marairen zigorra, ori egiten dauan bakotxean, ordaindu dagiozala, iru zatitatik bat bidegintzarako, bestea salatariarentzat eta irugarrena bete-eragipena egin eban Epaikariarentzat dalarik. Eta amalau urtez beetikoa balitz, eta ordaintzeko ondasunik izan ez (bere Gurasoek eta Nagusiek aginduta egin ebala ziur jakin ezkero) zigorra ta kaltea eurok ordaindu dagiezala, ori egin eban mutil edo neskaren esanez eta autormenez bakarrik jakin arren bere, eta ziur ezin jakin badadi, mutil edo neska a Elizate aretatik urtebeterako erbesteratu daitela: eta Elizate aretako edonork bere

Ogeitamalaugarren Atala

etxean urtebete orren barruan artu badagi, aitaturiko zigorra eta egiñiko kaltea berak ordaindu dagizala. Eta adin orretakoa baiño zaarragoa izan ezkero, ordaindu arte Erri-Presondegian katigu egon daitela.

XII Legea. Zein lekutan ezin daiteken surik egin.

Baita, esan eben: Goiko mendietan eta erri-basoetan sua egin ezkero eta urrean arboladuirik izan, ikusien gaiñera ikusi izan danez, suak urten eta mendiotan kalte aundiak egiten dituala. Orregaitik, oker au kentzeko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, onango mendi ta goialdeko erri-basoetan jakiñaren gaiñean surik egiten iñor ez daitela ausartu: zigor onenpean, onelan sua egiten dauanak, kalterik ez egiñarren bere (ausardiagaitik bakarrik) bost milla marai ordaindu dagizala, goragoko Legearen arabera banantzeko: eta adin txikitakoa balitz eta zorra zegaz ordaindurik izan ez, Bizkai'ko Konderri guztitik bost urtetarako erbesteratua izan daitela.

XIII Legea. Norberaren soloan sua zelan egin daiteken.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, bere iratzari edo otatzari edo soloari su emoteko edonor izan daitela bere eskuko, sua besteren solora edo erriko basoren batera ez igaroteko erara egin ezkero; zigor onenpean, besteren solora edo erriko basora sua igaroko balitz, aitaturiko zigorra ta kalteak bi alakoz geituta ordaindu dagizala, aurreragoko Legeak dakarren erara banantzeko.

XIV Legea. Besteren zugatzei ez dakiela azalik kendu, eta ori egiten dauanaren zigorra.

Baita, esan eben: Erriko mendietan eta mugarrituetan zugatzak zuritu ta Azala kendu egiten jakelako, Jabeei ta Erriei kalte aundiak etorten jakezala, gero igartu ta galdu egiten dira-ra. Orregaitik, Foruz ebena

Zigorrei ta Kaltei buruz

Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, besteren mugarri barruan edo erriko basoan Aretxik edo Zugatzik zuritzen edo Azalik kentzen iñor ez daitela ausartu: zigor onenpean, bost Zugatz baiño gitxiago zuritzen dituanak egindako kaltearen bi alakoa jabeari ordaindu dagiola eta seireun marai Konderriko bideak konpontzeko; eta bost baiño geiago zuritu badagiz, ostera, iñauslearen zigorra bereganatu dagiala.

XV Legea. Iñoren zugatzen eta maastien iñausleez.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, besteren soloetako zugatzak jakiñaren gaiñean iñausi edo soildu egiten dituana, orregaitik il daitela. Eta iñoren soloetako zugatzsoiltzaillea nor dan zalantza izan daiteken ezkero, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, eta azaltzen ebela, onantxe azaldurik, ogei Igali-zugatz baiño geiago barrenetik ebagiten dituana, iñausle izan daitela, eta gitxiago ebagiten dituanak Bizkai'ko Konderri guztitik urte bitarako erbesteratu daitezala eta lurraren jabeari egindako kaltearen lau alakoa ordaindu dagiola eta onango Igali-zugatzak matsondo ta sagarrondo ta gaztañondo ta intxaurrondoak izan daitezala, baita jateko frutua emoten dauan edozein Zugatz bere. Baiña iruzurrez ebagi edo iñausi ez baldin badau, iñorena barik berea zalakotan ori egiñik, olakoan, ez dakiola onango zigorrik ezarri, kaltearen lau alakoa ordaindu etagin baiño, Epaikariak bere naierara zigorra ezarririk. Baiña iñoren soloan ebagi edo atara edo iñausi edo zuritu dauana Igali-zugatza izan ez baldin bada, bost zugatz arteraiño kaltearen lau alakoa eta zigorrez seireun marai Bidegintzarako ordaindu dagizala; bost zugatz baiño geiago izan ezkero, barriz, Konderri guztitik urte bitarako erbesteratu daitela, jabeari kaltearen lau alakoa ta aitaturiko seireun marai Bidegintzarako ordaindurik; Eta soloren edo beste lekuren baten dagoan Aretx edo Zugatzen bat eragozpide edo nekebide jakolako, Epaikariaren agindurik baga

Ogeitamalaugarren Atala

eta alderdiaren baimenik baga ebagiko baleu, kaltearen lau alakoa jabeari ordaindu dagiola, urte beterako erbestera bialdua izanik: Aretxik edo beste Zugatzik barrenetik ebagi baga adarrak ebagi edo iñausi baditu, ostera, Aretx orren jabeari egindako kaltea ordaindu dagiola, eta gaiñera adar bakotxeko eun marai Aretx bakotxean amar adarretaraiño, erdia jabearentzat eta beste erdia Konderriko Bidegintzarako dala.

XVI Legea. Ebaiketagaitik zein kasutan ezin daiteken zigor-auziz jokatu.

Baita, esan eben: Gorago aitatu diran basoen eta Igalizugatzen ebagite ta iñaustearen aitzakiz, askok beste txikiagoko ebagite eta garrantzirik bagako urratzeagaitik bere zigor-auzitaratu egiten dabela, esaterako, naiz otak eta agak eta makillak ebagi diralako naiz igarturikoa urratu dalako, eta Auzibide aundiak izaten dirala, batzuek eta bestetzuek neke arturik; eta onangoak uxatzeko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, orrelako ebagite ta urratze ta atarateak egin arren, ezin daitekela zigor-auziz salakuntzarik egin, eta Epaikariek ez dagiela orretarako salakuntzarik onartu (indarrez egiñazo ezik), erri ta diru-auzia eskatu baiño.

XVII Legea. Baimenik baga mugarriak kentzen eta jarten dituenen zigorra.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, iñoren soloan edo besterenaren eta norberaren tartean bere eskuz eta Epaikariaren baimenik baga mugarriak jarri edo kendu egiten dauan edonor seireun marairen zigorpean jausi daitela, mugarri bakotxagaitik neke ori leenengoz bereganaturik, eta bigarrenez, alako bi ordaindu dagiala, mugarria noren kaltetan kendu edo ipiñi eban eta arexentzat erdia eta bestea Konderriko bideak konpontzeko dala, eta Bizkai'tik erbesteratua izan daitela, eta irugarrenez, il daitela.

Zigorrei ta Kaltei buruz

XVIII Legea. Bestek daukan soloan indarrez sartzen diranen zigorra.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, urtebete ta egun batez bortxariaren agirian norbaitek bere menpean daukan soloan jabeari indar eginda iñor sar baledi, onango ausardiagaitik (Foruz eta Legez ezarririko beste zigorrez gain) soloak balio dauanaren bi alakoa soloa daukanari ordaindu dagiola, eta, gaiñera, an eukan eskubidea ta egin-asmo eban eginbidea gal dagiala.

XIX Legea. Ola edo errota edo urbidea edo andapara apurtzen dabenen zigorra.

Baita, esan eben: Bizkaia'n olak dagozalako Jaun Aundiari on aundia datorkiola ta erriari onura ta mesede aundia, eta onegaitik gaizkilleengandik babestu ta jagon egin bear dirala, guztiak edo geienak jendartetik urrun eta leku baztarretan dagozeta. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, Olarik edo Errotarik edo urbiderik edo andapararik jakiñaren gaiñean eta bere eskubidez apurtu dagiana edo Ausporik ausi edo zulotu dagiana, orregaitik il daitela, eta kaltea bitan geiturik ordaindu dagiola jabeari.

XX Legea. Iñoren upela ustuten dauanaren zigorra, eta zein kasutan lapurreta izango dan.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, norbaitek besteren upela itzuliz, ebagiz edo zulatuz, an egoan sagardau guztia edo geiena gal badadi, orrelakoa bortxarieren zigorpean jausi daitela, eta alderdiari kaltea lautan geitua ordaindu dagiola; eta ori, ostuteko asmoz egin ez baldin badau. Ostuteko asmoz egin ezkero, ostera, lapurraren zigorra ezarri dakiola, jabeari kaltearen bi alakoa ordaindurik.

Ogeitamalaugarren Atala

XXI Legea. Atal onetako legeetan aitatzen diran soloetako eta bakarlekuetako kalteen naiko egiztagarri izango diranak.

Baita, esan eben: (Orrelako ebagiteak egin eta su emon eta era berean Zugatzak zuritu ta azala kendu) egiten diran mendiak eta basoak Bakar-leku izan oi dirala, eta ikustez Lekuko izan zeitekezanak ekartea gatx izaten dala; eta onango egiztabiderik ez dalako, lege-austeak eta okerrak zigortu baga eta ordaiña jaso baga gelditzen dirala, mendion eta soloon jabeei kalte aundiak etorririk. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, mendietan eta Bakar-lekuetan egin oi diran onango okerrak eta kalteak (ikustez Lekuko danik ez izan arren), errian zabal dabizan ustez eta aztarrenez egiztatu daitekezala, eta lege-auslea ustez salatu egiten daben eretxiok eta aztarrenok izan badaitez, lege-auslea gaitzetsi daitekela, gorago aitaturiko zigorren irabaztun egiñik eta zigorrok bete-eragiñik, erbesteratze eta diru-zigorra besterik ezarten ez danean: Konderritik at erbesteratu bear au urtebeterako baiño ez bedi izan, diru-zigorra, barriz, iru milla maraiz goitikoa bere ez, alderdiari ordaindu bearreko kalteaz gaiñera.

XXII Legea. Esker txarreko doadunen zigorra.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela, edozein Seme edo ondorengo edo Senide edo familiaz besteko dana Aitak edo Amak edo bestek jabegei egin ezkero, edo-ta ondasun guztiak edo geienak doan artu ezkero, bere Aitari edo Amari edo doaiz edo ezkon-sariz emon eutsanari eskuak sumiñez ezarriko baleutsoz edo onango beste esker txarreko egiñik egingo baleu, orrelako egite gaiztoagaitik ondarea kentzeko edo janaria ukatu edo doaiz edo ezkon-sariz emona ezeztatzeko Legeak agindu ezkero, ori ziurkiro jakin baledi eta onelan iraindu ta mindu

Zigorrei ta Kaltei buruz

izana urtebete ta egun baten buruan kexaz baletor, arelako Semeak edo ondorengoak, senideak edo doadunak arturiko ondarea edo doaiz edo ezkon-sariz bereganaturiko ondasunak gal dagizala: min artzailleak irain egilleari orrelako miña edo iraiña barkatzen ez dautsan bitarṭean, mai berean jan-edan edo adiskidekiro berba egin edo onango beste ezaugarri baten bidez askespena ta barkamena ta estalpena agerturik; eta orrelako ondasunak min artutako edo iraindutako doan emoleari biur dakiozala.





Ogeitamabosgarren Atala

OGEITAMABOSGARREN ATALA, ERRIko jokoez eta pekatuez.

I Legea. Illabete bi igaro ezkero, jokoei buruz ez daitela billakuntzarik egin, alderdiaren salakuntzarik izan ezik.

Baita, esan eben: Jokoei dagokiezan zigorrei buruz Jaun Aundiaren Erabagi ta Mesede bat ebela, usarioz orain arte gorde izan ebena, eta aurrerantzean Legetzat ezarri eitela agintzen ebela, onantxe agindurik: Errege-erabagi au urrengo datorren auxe dozu.

II Legea. Beroni buruz. Errege-eskutitza.

Don Fernando'k eta Doña Isabele'ek, Jainkoaren graziaz, Kastilla'ko, Leon'go, Aragon'go, Sizilia'ko, Granada'ko, Toledo'ko, Balentzia'ko, Galizia'ko, Mallorkasetako, Sebilla'ko, Zerdeña'ko, Kordoba'ko, Korzega'ko, Murzia'ko, Jaen'go, Algarbes'ko, Aljeziras'ko, Jibraltar'go, Kanaria Ugarteetako Erregek eta Erregiñak, Barzelona'ko Kondeek, Bizkai'ko ta Molina'ko Jaunak eta Anderak, Atenas eta Neopatria'ko Dukeek, Ruisellon eta Zerdania'ko Kondeek, Oristan eta Goziano'ko Markesek. Zuri, Noble ta Leial dan gure Konderri ta Jaurerriko Korrejidore edo Zuribideko Epaikari zaran edo izango zaran orri, edo kargu orretan zure Alkate danari, eta zuotariko bakotxari, Osasuna ta Grazia. Jakin egizue, Eskoriatza'ko Joan Lopez'ek, aitaturiko gure Konderriko Aldunak, Konderri beraren eta bertako Erritarren izenean, gure Batzarrean aurkeztutako Eskabidez, aipamen egin euskula, esanez: Prestameruak, gure Korrejidore zaran orren Leku-Ordezkari lez eta zure Aginduz, Bizkai'ko Konderri ta Jaurerriko Foruek eta Lege bereziek debekaturik daukezan gauza guztien billakuntza egiten ei diardu, batez bere, diru jakiña, edozein modutan dala,

Erriko Jokoez eta Pekatuez

nork eta nortzuk jokatu daben esateko itaunka, eta guk au onartuko bagendu, Erriarentzat ondamendia etorriko litzatekela eta, onan jazo ezkero, gure Konderri orrek eta bertoko Erritarrek bidebaga ta kalte aundiak izango leukeezala, eta arazo oni buruz erabagi Zuzen bat urtenbidetzat artu gengiala, erregu egiñik, Mesedez eskatu euskun, jokook dirala-ta, guztien billakuntzarik ez daitela egin agindurik, edo Geuk Mesedez geritxona egiñik. Au gure Batzarrean aztertuz gero, arazo oni buruz Zeuretzako Ezkutitz au egiñazo gengiala ebatzi zan eta Guk onartu egin genduan. Orregaitik, illabete bi igaro ezkero, ez dagizula alderdiak eskatu baga aitaturiko jokooi buruz zure Egintzaz Konderrian billakuntzarik egin zuri agintzen dautsut, ezta orretarako baimenik emon bere, eta geroago egin dan jokoaz ez dagizula Konderriko Erritarrentzat zeure Egintzaz eta alderdia tarteko izan baga zigorrik eskatu, ez aiko-maikorik atara, ezta orrelakoetan eralketarik ez beste kalterik arei leporatu eragin bere, eta oni ez dagiozula ezelan bere aurkarik egin, nire Mesedea galdu eta gure Dirutegirako amar milla marai ordaindu bearreko zigorpean, eta Eskutitz au zuri erakutsiko dautsunari, gaiñera, Geure aurrera etor zaitezan ots egin dagizula eskatzen dautsagu, zuri ots egin eta leenengo amabost egunetan gure Gortea zein tokitan dagoan eta araxe agerturik, zigor berarenpean: Eta orretarako deitua izan dan edozein Erri-Eskribauri, zuri erakutsiko dautsunari bere silluaz sillautako Agiria emon dagiola zigor berarenpean agintzen dautsagu, geure agindua zelan beteten dan Geuk jakin dagigun. Balladolid'go Urian emona, Jesukristo gure Salbatzaillea jaio ezkero, milla bosteun eta batgarreneko Otsaillaren emeretzigarrenean. Kabra'ko Kondeak. Kordoba'ko Don Diego Fernandez'ek. Errege ta Erregiña gure Jaun eta Anderagandik dituan aalmenez eta Jaun Aundien Batzarrekoen on-eritxiz Kabra'ko Kondeak idazteko agindu eban. Neuk, Bitoria'ko Kristobal onek idatziazo neban. Joannes Doktor Frantzizko

Ogeitamabosgarren Atala

Lizentzidunak. Petrus Doktor. Ezarririk. Eskobar'ko Pero Gonzalez'ek. Ribadeneira'ko Frantzizko Kantzillerrak.

III Legea. Erreal bitaraiño joka daitekela, edatetxean izan ezik.

Baita, esan eben: Diru jakiña jokatzen dan jokoei buruz (Aitonen semeek denpora-emongarri gitxi-gitxi jokatu arren bere) orrelako jokalariek Erreiñu oneetako Legeak ausi egiten dituela-ta, Konderri ta Jaurerriko Epaikari bete-eragilleek olakoak salatu egiten dituela eta orregaitik Bizkaitarrak neke aunditan bizi dirala, kalte aundiak izanik. Au dala-ta, agintzen ebela, onantxe agindurik eta gaurgeiago Legetzat ezarri nai ebela eta Forutzat ezarten, onan jokoan egin arren edo onan jokatu edo jakatuko balebe bere, erreal bitaraiño jokatu ezkero (diru jakiña izan arren) ezin daitekezala salatu, ez auzitaratu, ez zigortu, ez bete-eragipenik egin: Onango jokaldia edatetxean egin ezik: edatetxeko jokaldiagaitik, Lege au gora beera, zigortu daitezala.

IV Legea. Erriko pekatuez eta sasi-emazteez ez daitela oro-ar salakuntzarik egin, eta sasi-emazteen aurka zelan jokatu bear dan.

Baita, esan eben: Bizkai'ko bete-eragille batzuek, batzuren batzuk Koipekeriz erosteko gurariz, erriko pekaturen batzuk oro-ar salatzen dituela, esate baterako, jokoak eta Eliz-gizonen eta ezkonduen sasi-emazteak, eta euren asmoetarako argibideak euren alderako Eskribauengandik jasota gero. Lekuko iguingarriak edo erosirikoak ekarten dituela, edo egirik ez dabela agertzen, zerbait emon dagioen: eta onan Jainkoaganako ta Jaun Aundiaganako menpetasunik eza erakusten dabela eta erriak kaltea izaten. Orregaitik, onango okerrak uxatzearren, agintzen ebela, orantxe agindurik eta Legetzat ezarten ebela, aurrerantzean ez Prestameruk ez Merinuk ezin daikela orrelako erri-pekaturik oro-ar salatu ta auziperatu, zeaztuz baiño; eta Korrejidoreak eta

Erriko Jokoez ta Pekatuez

onen Ordezkariak, salakuntza artukeran, egiztabideak ekarteko ta billaketak egiteko, salatu izan dana zein erritako auzokidea dan eta ango Eskribauari ta erriko Zergazaiñari agindu dagioela, eta sasi-emazteei buruz erri aretako auzokide ta izen oneko ta bizibide zuzeneko ta zintzo diran pertsonak Lekukotzat ekar dagizala, eta bestetakorik ez. Eta Lekukoon esanetatik arelako emakumeak sasi-emazte dirala agertuko balitz, Epaikariak zuzenez auzia garbitu dagiala; eta epairik emon baga, azpitik erosi izatea ez dagiala onar. Orrelako emakumea, baiña, salakuntza egite orduan eta sei illabete aurretik sasi-emazte izan zala egizta ez badaite (orrelako sasi-emaztea aurretiaz joan egin zalako eta pekatu orretatik alde egin ebala ta sei illabeteotan bizibide zuzena egin dauala ta orain bere onelantxe egiten dauala egizta badaite), ez daitela zigortu, eta Epaikariak ez dagiola ez Legearen zigorrik ez bestelakorik ezarri.

V Legea. Meza barrietara eta ezteguetara nortzuk joan daitekezan, parrokitik kanpora ospatu ezkero.

Baita, esan eben: Ikusien gaiñera ikusi izan dala, Bizkaia'n Meza barri ta eztegu ta bateo ta gaubela ta illetatara ots egiten dalako, kalteak eta okerrak eta galbideak geitu ta geitu egin dirala (okerrok ezagun-ezagunak diranez, emen ez dira aitatzen), eta orrelakoak kentzeko, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik eta Legetzat ezarten ebela gaurgero ezin daitekela Bizkaitarrik, ez Gizakumerik ez Emakumerik zein Meza barritara zein Epistolatara zein Ebanjeliotara Parrokitik at joan; eta nor bere Parroki-barruan edo andik kanpora, naiz deituta naiz deitzeke, ezin daitekela ez eztegutara ez bateotara Gizakumerik edo Emakumerik joan, orrelakoaren edo Meza barri emoillearen aurretikoa edo ondorengoa edo irugarren mailla barruan zearkako ezkon-aidea edo odol berekoa izan ezik; joan ezkero, amar milla marairen nekepean berea dan leiñuko

Ogeitamabosgarren Atala

Aide Nagusiarentzat; eta joan daiteken pertsona bakotxarentzat, joaten dan bakotxeko, milla marairenpean: Baita: Parrokitik at ez daitezala gaubelatara ez illetatara joan, aitaturiko Senide ta ezkon-aideak laugarren mailla barruan izan ezik, zigor berarenpean: Eta Aide Nagusiak euren Senide ta euren leiñukoen Illeta ta Gaubelatara joan daitekezala (euren Parrokitik kanpora izan arren) etxean daukezan morroiekaz eta eurek nai dituen beste sei gizakume geiago daroezala, aitaturiko zigorra eurenganatu baga; eta geiagorik eroango balebe, eurak eta eurekaz doazanak zigor orrenpean jausi daitezala: Irutatik bat Errege-Dirutegirako, bestea Konderriko bideen konponketarako eta irugarrena salatariarentzat eta beteeragipena egin ebanarentzat erdibana dala.



VI Legea. Ildakoagaitik zelan negar egin eta zelako illeta-soiñekoa jantzi bear dan.

Baita, esan eben: Jainko gure Jaunarentzat goragarri ta Jaun Aundiarentzat onuragarri ez diran negar aundiak eta beste itsuskeri zantarrak egiten dirala Bizkaia'n (norbait ilten danean); au, barriz, onango negarrak eta itsuskeriak egiten dituenentzat barruan gorabeera aundiko ta kaltegarri ta galgarri ta zantarkeri aundia zala, baita erri guztiarentzat bere. Eta orrelako okerrak alboratu ta kentzeko, Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, aurrerantzean, Bizkaia'n edo Bizkai'tik at iñor il ezkero, Itxasoan naiz Leorrean, Lurralde Lauan naiz Urietan eta Uriaundian, iñor ez daitela negarrik egiten ausartu, naiz uleak erauzi naiz arpegia urratu naiz buru-utsik agertu naiz kantaka negar egin naiz marragazko jantzia jantzirik; zigor onenpean, besterik egiten dauanari, egin dagian bakotxeko, milla marairen

Erriko Jokoez eta Pekatuez

nekea ezarten jakola, au baiño leenago aitaturiko Legeak diñoan erara ta modura banantzeko. Onartzen dogu, orraitiño, era onez negar eginda bakotxak eriotza orren naigabea agertzea (gura izango baleu), zaratarik egin eta arpegirik urratu ta ulerik erauzi baga. Eta Emazteak Senarragaitik eta Senarrak Emazteagaitik eta Seme-alabak eta Suiñak eta Erranak euren Gurasoakaitik eraz egin daikeela negar zigorgarri izan baga, aitatu danez. Baiña Gurutzea eta Eliz-gizonak Errespontzuak egiteko gorpua dagoan lekura etor daitezanean (Gurutzea eta Elizgizonak an dagozan bitartean eta gorpua Elizako Illerrian eta lurperatuko dan lekuan eortziz gero) onango erabidezko negarrak amaitu daitezala, guztiak ixildurik, eta ez dagiela erriaren aurrean negarrezko ulurik egin, zigor berarenpean; eta Elizan lurperatu ezkero, Emakume batek bere ez dagiala ildako aregaitik jendaurrean geiago negarrik egin, zigor berarenpean: Ildakoaren alderako otoitz egin eta eskupekoa emon bearrean, Elizetan negarzotinka ekitea, ez itxurazkoa, ezta Jainkoarentzat goragarri bere ez dalako. Eta (okerrago dana) Elizkizunak galerazorik.

VII Legea. Seiña egin barri dana ikustera doazan emakumeek ez dagiela emarkariz beteta neskatillarik eroan.

Baita, esan eben: Bizkaia'n Emakumeak beste Emakume batzuk ikustera joaten dirala (seiña egin barri dagozanean) emarkariz beteriko Neskatillak lagun dituela, eta ortik erriari kaltea datorkiola. Eta au galazoteko, erabagi ta agindu ebela eta Legetzat ezarri, emendik aurrera ez Andrarik, ez Neskatillarik ez daitela Ama barri dan beste Emakume bat ikustera joaten ausartu, eta ez agirian eta ez ixilpean ez daitela agiriko emarkariak eroanez joan, otzarez beterik Neskatillak daroazala, ezta bestetara bere; Andra edo Neskatilla bakotxarentzat, ori egiten dauan bakotxeko, seireun marairen zigorpean, aurreragoko Legeetan erabagi dan erara banantzeko.

Ogeitamabosgarren Atala

VIII Legea. Errotariek pisuak zelan euki bear dituen eta zorroak pisauta artu ta biurtu dagizala.

Baita, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik eta Legetzat ezarririk, Bizkaia'n gaurgero edozein Errotarik, Gizakumek naiz Emakumek, eioteko daroatsoen edozein garagar-zorro pisauteko bere Errotan pisuak eta aztagailluak izan bear dituala ta izan dagizala, baiña ez erroma-aztagaillurik; eta Konderriko pisu guztiak kidekoak eta Elizate'ko Zergazaiñak markautakoak izan daitezala, eta zorro guztiak pisauta artu dagizala, eta eiota gero, pisauta biurtu: zigor onenpean, Errotariak, naiz Gizakume naiz Emakume izan, onango aztagaillurik beroni dagokiozan pisuekaz bere Errotan ez baldin badauko, eta ogitarako diran zorroak onantxe pisauta artu ta biurtzen ez baditu, olakoa seireun marairen zigorpean jausi daitela, orrelakorik egiten dauan bakotxean neke ori bereganaturik, erdia bideak konpontzeko eta beste erdia bete-eragipena egin dauan Justizigiñarentzat eta salatu dauan salatariarentzat dala.

IX Legea. Errotariek jaso bear daben sariaren neurria.

Baita: Errotariek uruna eiotearren eskuratu bear daben libren neurririk Bizkaia'n ez dagoalako, naaste aundia izanik, Errotariek ostu egiten dabela; eta Erri batzuetan ura geiago ta Errotak bere ugariago dagozalako beste batzuetan baiño, eta Erri edo Aran batzuetan eioteagaitik sari aundiagoak eta beste batzuetan txikiagoak jasoten dituelako; eta, azkenik, Erri baten bere neurririk ez dagoalako, Errotariek nai dabena egiten dabela, au dala-ta, errietan kalteak aunditu ta aunditu egiñik; eta orrelako okerrak kentzeko, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, eta Legetzat ezarririk, Errotari bakotxak anega bat Gari edo Arto eiotearren, bost libra eroan daikezala eta geiagorik ez. Eta gitxiago eroan oi daben lekuetan, oi izan dabena eroan dagiela eta geiagorik ez: eta Lege

Erriko Jokoez eta Pekatuez

au izan arren, ezin daikeela oi dabena baiño geiagorik eskuratu: Onantxe gorde ta bete daitela, besterik egiten dauan Errotari bakotxari, ori egiten dauan bakotxeko, seireun marairen zigorra ezarten jakoala, gorago esaniko erara banantzeko.

X Legea. Zergazaiñek urteoro bideak ikustatu dagiezala, eta barriztau egin bear diranen gomuta-agiria Korrejidoreari emon dagioela.

Baita, esan eben: Erri bakotxeko Errege-bideak obeto jagon eta barriztau daitezan (Jainkoarentzat eta Jaun Aundiarentzat serbitzu aundia eta Konderriarentzat on aundia ortik datorrenez) agintzen ebela, onantxe agindurik eta Legetzat ezarten ebela, Erri bakotxeko Zergazaiñak urteoro, Maiatzeko il guztian bere Erriko Errege-bide guztiak ikustatu dagizala, bideok nongo lekutan konpondu bearra dauken eta konponketok egiteko gitxi gora-beera zenbat eralgi bear izango dan Gomuta-agiri bat egiñik. Eta Gomuta-agiri au Erri bakotxeko Zergazain bakotxak edo euretariko batek ekarri eta Korrejidoreari edo onen Ordezkariari erakutsi bear dautsala, Bizkai'ko Korrejidorea edo onen Ordezkaria egotez dagoan lekuko Batzarreko ta Errejimentuko Eskribauari amabost egunen barruan emonik, egunok urrengo Bagilleko amabostgarrenean betetzen dirala, arazo oni buruz Bizkaia'k daukan Errege-erabagiak dakarrenez, Korrejidoreak edo onen Ordezkariak, ondoen deritxon erara, erabagia artu dagian, zigor onenpean: ori egiten eta betetzen ez dauan Errietako Zergazain bakotxa seireun marairen zigorpean jausi daitela, euretariko bakotxak neke ori bereganaturik, erdia salatariarentzat eta beste erdia bideak konpontzeko: eta zigor beronenpean jausi beitez aitaturiko Gomuta-agiria egiazkoa ekarri ezik.

Ogeitamabosgarren Atala

XI Legea. Ur gazatako erreketan ez daitela bota onda-sarerik ez karerik ez intxaur-azalik.

Baita, esan eben: Bizkaitarrek Bizkai'ko Urbideetan ondasareak botaten dituelako, erreketako arrain guztia ondatu ta urritu egiten dala, baita erreka orreetan karea ta intxaur azala botata bere. Orregaitik, oker au alboratzeko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, Urbide baten bere ondasarerik botatzen iñor ez daitela ausartu, ez karerik, ez intxaur-azalik, arraiña il eta arrapatzeko; zigor onenpean, besterik egiten dauanarentzat, ori egiten dauan bakotxeko, seireun marairen zigorpean, erdia salatariarentzat eta beste erdia Bidegintzarako. Itxasoko ur gazieten, ostera (au da), barratik gorantz Itxasoko ur gazitaraiño onda-sarea nai danean bota daitekela.

XII Legea. Zital-itunbenik ez daitela egin.

Baita, esan eben: Foruz ebela ta Legetzat ezarten ebela ez iñork beretara, ez Udalek, ez Unibertsitatek, ez dagiala beste Unibertsitateren edo beste Norbait bakan eta banakoren aurka zital-itunbenik egin, Erreiñu oneetako Legeetan ezarritako zigorrenpean.

XIII Legea. Tabernariek ez dagiela kartarik, ez seikorik, ez bolarik, ez beste jokogaillurik euki, eta jokatzerik bere ez dagiela onartu, eta bere elizateko auzokiderik ez dagiela lotarako artu.

Baita, esan eben: Bizkaia'n tabernetan egin oi diran jokaldietatik (ikusien gaiñera ikusi izan danez) eriotzak eta zauriak eta biraoak eta etxaldea galtzea eta galbideak eta okerrak geitu egin dirala eta egunoro geitzen dirala. Orregaitik, esaniko okerrak galazoteko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onan-

Erriko Jokoez eta Pekatuez

txe agindurik, Tabernaririk, naiz Gizakume naiz Emakume izan, ez daitela bere Etxean kartarik eukiten ausartu, ez seikorik, ez jokoolik, ez joko bolarik, ez beste jokogaillurik: eta bere Etxean edo aterpean dirurik edo ardaurik edo beste gauzarik jokatzerik bere ez dagiala onar, ez gitxi ez asko, ezta orretarako biderik emon bere; eta bere Erri edo Elizateko auzokiderik bere Etxean gauez artzen ez daitela ausartu, besterik egiten dauan bakotxeko bi milla marairen zigorpean, irutatik bat Taberna bera dagoan Elizateko Gaixoetxe ta ez-eukientzat, beste zatia Elizate bereko bideak konpontzeko, irugarrena salatariaren eta bete-eragipena egin dauan Epaikariaren artean erdibana egiteko.

Tabernetan jokoan diardutenen aurka.

Eta onango jokolariek (aitaturiko edozein jokalditan dirurik, ardaurik edo igalirik edo ogirik edo beste zerbait, zein gitxi zein asko, jokatu badabe) Erreiñuko Legeak diru jakiña jokatzen dabenen aurka ezarririko zigorra ordaindu dagiela, gorago esaniko erara banantzeko.

Ogeitamaseigarren Atala

OGEITAMASEIGARREN ATALA, JAUN

Aundiari eun milla marairen zensoa zor dautsoen sortetxeak bertan beera izten dituenei buruz.

I Legea. Jaun Aundiari eun milla marairen zensoa zor dautsoen etxe ta baserriak eregi egin bear dirala, eta jabeei eregi eragin bear jakela.

Baita, esan eben: Bizkaia'n eun milla marai onetarikoen zensoa zor dautsoen etxe ta baserri batzuk badirala (zenso ori zor izanez Jaunaren lurrean eta lekuan kokaturik dagozalako) eta maraiok onelako etxe ta baserriak dituen jabeek euren artean banatzen dituela: eta oneetarikoren batek, besteek legez ordaindu bearrik ez izateko, ordaindu bear dauan etxe aretan bizi izan baga, bertan beera itxi egiten dauala; eta libre dan beste Aundiki-etxe bat eregi edo onetariko batera bizi izateko joaten dala; eta ordaindu bearra daben Etxe ta soloak andik zuzentzen dituala, irabazia atararik; eta arelako Etxeari jausten bere izten dautso; eta orregaitik Jaun Aundiari errentaren urritzea datorkiola eta ordaintzen daben besteei kaltea ta galera; batzuek ordaintzeari uko egin ezkero, gelditzen diranak zensoa oso-osorik ordaindu bearra izaten dabela-ta. Orregaitik, oker ori galazoteko, Foruz ebena Legetzat ezarriz, esan eben: Agintzen ebela, onantxe agindurik, orrelako zensoa zor daben eta ordaindu bear daben Etxe ta Baserri guztiek zutik iraun dagiela, bertan beera itxi baga ta ondatu baga. Eta bere Sortetxea orrela bertan beera itxi eta Aundiki ta zergabagako ta libre dan aldera urten dauan edonori Bizkai'ko Prestameruak edo onen Ordezkariak ordaindu bear dauan Etxea barriro zutitu eragin dagiola, bertan bizi eragiñik; eta ori eskatu ta sei illabetera Etxea eregi eragin dakiola, bearkizun ori ari leporaturik, zigor onenpean: (epe-muga ori igaro ezkero eta Erri-Eskribau batek egindako agiriz deia egin jakola eta ordaindu bearra daukan orubea utsik eta ondaturik dagoala bear-

Etxeak izten dituenei buruz

ainbat egiztagarriz ziur jakin ezkero), Prestameruak edo zensoa ordaindu bear dauan beste edozeiñek eskaturik, Bizkai'ko Korrejidoreak aitaturiko Sortetxea bertan beera ta utsik itxi ebana bere diruaz barriro Etxea eregitera beartu dagiala, bertan egon eta bizi erigiñik: Ordaintzen dabenek Sortetxe aretako zensoaren lagiña nori eskatu jakin dagien; eta, ori dala-ta, atxillotu dagiala, egin eta amaitu arte presondegian katigu eukirik.

II Legea. Jaun Aundiaren zensopeko diran baserrien jabeek ezin daikeezala besterendu lege onetako kasuetan izan ezik.

Baita, esan eben: Foruz, usarioz eta oituraz ebela ta Legetzat ezarten ebela, Jaun Aundiaren zensopeko dan Etxerik edo Baserririk daukan edo eukiko dauan jabek ezin daikela saldu, ez besterendu, ez truk egin, ez aldatu arelako Etxearen edo Baserriaren zatirik edo solorik: Eta beti osorik eta sendorik izan daitela, Jaun Aundiari urteoro zor dautson zensoa ordaindu dagion: besterenganatu ezkero, ikusien gaiñera ikusi izan danez, orrelako Baserriak urritu egiten diralako eta Erregek dauan bere zensoan eta errentan kalte izaten daualako; eta arelako Etxe edo soloaren zatiren bat norbaitek saldu edo besterenduko baleu, ez daitela baliozko izan; eta erosiko leukenak aregaitik emon eban ordaiña gal dagiala ta erosi eban guztia Etxe edo Baserri aren ondorengoari biur dagiola, ordaindu barik eta emon eban ordaiña artu baga. Arelako Etxe edo Baserria daukan Jaunak, baiña, bere bidezko Semeri edo jabegairi emokariz edo ezkon-sariz edo beste era batetara emon daikeola zenso berarenpean, besteak lurondasunen zati bategaz baztarturik, onelako Aundiketxe ta Baserrietan bizi diranek usarioz egin oi dabenez; eta zorrakaitik oso-osorik eta zenso berarenpean sal dakiokela; zatirik, barriz, ezin dakiokela sal, osorik baiño, arelako Etxea ta Baserria beti sendorik eta osorik izan daiten.

Ogeitamaseigarren Atala

III Legea. Bizkai'ko auzietan epaikari guztiek Foru onetako legeak gorde dagiezala, eta legerik ez dan kasuetan Erreiñuko legeak gorde dagiezala.

Baita, esan eben: Bizkaitarrak euren eskuko ta zergabagako ta Jaun Aundiaren eta onen aurretiko Erregeen lege berezidun dirala, eurek euren buruz eta euren etxaldez Jaun Aundiari Itxasoz eta Leorrez serbitzu aundiak zintzoro egin izan eta egunoro egiten dautsoezalako; eta erria salerostera eta jendea auzitara emona dala, eta lur-ondasuna Sortetxetikoa ta lege bereziduna ta ia auzi guztiak euren Foru onezaz erabagi daitekezan erakoa: Foru au aukerabidezkoa da buru-zorroztasunezkoa ta eskugoaren indarrezkoa baiño areago; eta Bizkaia'n eta emendik kanpora (zein Errege-Batzarrean zein Gortean zein Jaun Aundiaren Goi-Auzitegian) Bizkaitarrei aitaturiko Forua onartuko ez balitzakie eta Bizkai'ko ta kanpoko Epaikariek auzi ta auzigaietan Foruaren aurka ebatziko balebe, eta ez aren arabera, eta aitaturiko euren epaietan Erreiñuko beste Legeak edo Eliz-legedia edo Errilegedia edo Jakintsuen aburuak onartuko balebez, Bizkaitarrentzat ez litzatekela ezertan bere ongarri izango, edo gitxi-gitxi. Orregaitik, Foruz ebena Legetzat ezarriz, agintzen ebela, onantxe agindurik, Bizkaia'n edo Gortean eta Goi-Auzitegian edo Jaun Aundiaren Errege-Batzarrean edo beste nonbaiten egotez dagoan Epaikarik, bere aurrean Bizkaitarren auzibiderik erabagi bear baldin bada, ez dagiala epaitu, ez erabagi, ez auzia garbitu beste Legez edo Erriarauez, Bizkai'ko Foru onetako Legeez baiño (euron bidez garbitu aal daitekezanak), eta Lege onetzaz ezin ebatzi daitekezanak Erreiñuko Legeez eta Jaun Aundiaren Pragmatiku-Legeez garbitu daitezala: Bizkai'ko ta Enkartaldeko auziak garbitzeko Bizkai'ko Foru onetako Legeak Erreiñuko beste Lege ta Pragmatiku-lege eta guztien eskugoarenak baiño leenago erabilli daitezala; eta beste era batetara zerbait epaitu ta ebatzi ta erabagi badadi, utsa ta indarrik eta ondorenik bagakoa izan dai-

Etxeak izten dituenei buruz

tela: eta Jaun Aundiak bere Txartelaz babesturik eta agindurik baletor bere eta naiz bitan naiz irutan naiz geiagotan bialdu, men egin bekio, baiña ez bete, lurralde onetan legearen aurkakoa balitz bezela; eta Foru onetako Legeren baten aurka zuzenean liarduken Letrau edo Lege-gizona, ori egiten dauan bakotxean, seirun marairen zigorpean jausi daitela, neke ori bereganaturik, eta zein alderdiren alde mintzo dan eta alderdi berari eralketa guztiak ordaindu dagiozala; eta auzi aretan emongo dan epaian arelako Lege-gizona gaitzetsi daitela, auzitarako ots egin eta deitu baga eta arazo onetaz entzun baga, Foruaren Legez eta Letrau arek erakutsiko leukenez, onek ebatzirikoa garbi agertuko data; eta seireun marairen erdia bideak konpontzeko eta beste erdia epaitu dauan Epaikariarentzat izan daitezala.

IV Legea. Bete-eragilleek merezi daben saria Korrejidoreak ikus dagiala.

Baita, esan eben: Lansari-araudian sari txikiak ezarten diralako, Konderri onetako bete-eragilleek ez dabela zigor-auzietan egin bear leukeen arduraz agindurik bete-eragiten. Orregaitik, ezbear au kentzeko, agintzen ebela, onantxe agindurik, orrelako bete-eragilleak bere lanagaitik, agindua bete-eragitearren izan bear dauan saria Korrejidore danak edo izango danak ikus dagiala. Foru barriztatu au geuk, Zarra'ko Martin Ibañez'ek eta Gallarza'ko Pedro Otxoa Eskribauok zuzendua eta Leen-egiñagaz bateratua izan zan, gorago aitaturiko barriztatzailleek izenpeturik, ikusle ta lekuko Pedro Jiron Bizkai'ko Korrejidorea ta Zerbatos-ko Gudiel aren Lizentzidun Ordezkaria, Goikolea'ko Tomas eta beste batzuk izan zirala. Eta neu, Gallartza'ko Pedro Otxoa Jaun Aundien Eskribau ta areen Gortean eta areen Erreiñu ta Jaurerri guztietan eta Bizkai'ko Korrejimentuko Auzitegian eta Batzorde eta Errejimentuan Erri-Notario nazan au, nitaz aipamen egiten dauan guztietan antxe izan nintzan

Ogeitamaseigarren Atala

Batzarre eta Errejimentuko Eskribau dan Zarra'ko Martin Ibañez'egaz batera, eta leen erri-liburutik biridatzirik, aitaturiko Foru au idatzi eragin genduan, leen idatzia, geuk izenpetu ondoren, geure mendean dala eta eun eta zazpi orrialde dituala, eta nire ikurra azkenengo onetan doa ta asieran orrialde zuri bat marra batzuekaz dator; eta, orregaitik, neure ikur au ementxe ezarri neban. Egiaren agergarri: Gallartza'ko Pedro Otxoa'k. Eta neu, aitaturiko Zarra'ko Martin Ibañez, Jaun Aundien eta Batzordean eta Bizkai'ko Errejimentuan Eskribau nazan au, gorago aitaturiko guztia egikeran, antxe izan nintzan Gallartza'ko Pedro Otxoa Eskribauagaz batera; eta, orregaitik, neure ikur au ementxe ezarri neban. Egiaren agergarri: Martin Ibañez'ek.



Foruen Bayeztapena

FORUAREN AURKEZPENA

Balladolid'go Urian, milla bosteun eta ogetazazpigarreneko apirillaren zortzigarrenean.
Ibarguen'go Iñigo Urtiz'ek eta Baraia'ko Pedro'k Foru au batzarrekoei aurkeztu eutseen.

Kanpo'ko Ramiro'k

ENPERADOREAK ONARTUA

Don Karlos'ek, Jainkoaren graziaz, Erromatarren Errege ta Enperadore beti Itzaltsuak, doña Juana aren amak, eta don Karlos berak, Jainkoaren graziaz, Gaztela'ko, Leon'go, Aragon'go, Sizilia bietako, Jerusalen'go, Naparroa'ko, Granada'ko, Toledo'ko, Balenzia'ko, Galizia'ko, Mallorkaseko, Sebilla'ko, Aljezira'ko, Jibraltar'go, Kanaria Ugarteetako, Indietako, Itsas Aundiko Ugarte ta leorreko Erregeek, Barzelona'ko Kondeek, Bizkaia ta Molina'ko Jaunek, Atenas eta Neopatria'ko Dukeek, Ruisellon eta Zerdeña'ko Kondeek, Oristan eta Goziano'ko Markesek, Austria'ko Artxidukeek, Borgoña eta Brabante'ko Dukeek, Flandes eta Tirol'go Kondeek, etab. Zuk, Baraia'ko Pedro, Bizkai'ko Jaurerri Guztiz Noble ta Guztiz Leialeko Foru-Alkate orrek, eta zuk Ibarguen'go Iñigo Ortiz orrek, Bizkai'ko Jaurreriko Aldun zareenez, eta beraren

Enperadoreana

izenean eskabide bat egin zeunskuen, esanez: Jaurerri orretako Lurralde Lauko zaldun, eta eskutari eta aitonen semeek euren Lege, eta Foru, eta Frankeza eta Erri-Eskubideak dituela bizibide ta zuzenbide, eta Jaurerrian bertan Epaikariek euron bidez Zuzentasuna egiten dabela; Foru au don Fernando ta doña Isabel, Errege Katoliku, gure guraso jaun eta aitita-amomek (goian izan beitez) eta nik Erregin onek eta Gu baiño leenago izan ziran gomuta oneko Erregeek onartua izan zan, gordetzeko agindurik: eta onelantxe bete ta gorde izan da orain arte: eta gaurgero obeto gorde ta bete daiten, Jaurerriko silluaz sillau eta Batzarre ta Errejimentuko Eskribauek izenpetuta Gure aurrean aurkeztu zenduen ezkero, Foru ori ontzat emon eta onartzeko agindu gengiala, erregu egiñik, mesedez eskatu zeunskuen: eta Guk ontzat izan genduan. Orregaitik, Bizkai'ko Jaurerriari eta bertako erritarrei on eta mesede egiteko, aitaturiko Foru au eskutitz onen bidez eta geuk geuretara eta jakiñaren gaiñean goratzen, onesten, onartzen eta baieztatzen dogu, baita Jaurerri, eta Lurralde Lau, eta uri ta Uriaundiko Lege Berezi, eta Frankeza, eta Erri-Eskubideak bere, gure guraso jaun eta aitita-amoma Errege Katolikuek onartu ta baieztu zituenez, eta Foruan bertan datozanez onetsirik: eta gure Auzitegietan Buru ta Oidore diranei, gure Etxe ta Gorteko Alkateei, eta Bizkai'ko gure Epaikari Nagusiari, eta gure Korrejidoreari edo izango danari, eta Jaurerri bereko Zuribideko Epaikariari, edo onen Leku-ordezkariari, eta Jaurerri ta Lurralde Lauko Aldun, Ordelari, Buruzagi, Prestameru ta Merinu, Eskutari ta Gizon onei, eta gure edozein Epaikari ta Justizigiñi eta oneen agintebarrutian eurotariko bakotxari gure eskutitz onek dakarrena gorde ta bete dagiela agintzen dautsegueta berak dakarrenaren aurka ez daitezala joan, ez bertan datorrenik apurtu, ezta aurka joaterik edo iñork ezer apurtzerik ezelan bere onartu; eta ez batzuok, ez bestetzuok ez egizue aurkarik egin, gure mesedea galtzearen eta gure Dirutegirako izango litzate-

kezan amar milla marairen zigorrenpean. Balladolid'go urian emona, Jesukristo gure Jauna jaio ezkero milla bosteun ta ogetazazpigarreneko bagillaren zazpigarrenean. NEUK ERREGE ONEK. Neuk, Kobos'ko Frantzisko, Jaun Aundita Katolikuen Idazkari onek oneen aginduz idatzierazo neban. Konpostelanus, Lizenziatus Agirre'ko. Doktor Gebara'k. Akuña Lizentziatus. Martinus Doktor. Medina Lizentzidunak. Ezarririk. Lizentziatus Jimenez. Kantzillerraren ordez Orbina'k.

Forua irarteko
ENPERADOREAREN
BAIMENA

ERREGEK

uk, Bizkai'ko Jaurerri Guztiz Noble ta Guztiz Leialeko Foru-Alkate zaran Baraia'ko Pedro orrek, eta zuk, Ibarguen'ko Iñigo Ortiz orrek, Jaurerriko Aldun zareenez, beronen izenean zerau aitatu zeunskuen, Errege Katoliku nire aitita-amonek (goian izan beitez) Bizkai'ko Forua baieztatu ta onartu egin ebela, gorde egiteko agindurik, eta, Jaurerriko silluaz sillatuz eta Batzarre ta Errejimentuko Eskribauek izenpetuz, orain nire aurrera ekarri dozuela; eta gure eskutitz onen bidez onartu egin dot, eta gordeteko agindu: eta Bizkai'ko Jaurerriari mesede aundiagoa egite arren, Foru ori irarteko baimena emon gengiala, erregu egiñik, eskatu zeunsten, eta Nik ontzat izan neban, eta agiri onen bidez gure erreiñuetako edozein inprimatzailleri baimena damotsot, Bizkai'ko Jaurerriari mesede egiñez, Bizkai'ko Forua ta

Batzarraren Agiria

Baieztapenak barriro irar dagizan, eta, irarri ezkero, zeuoi emon dagizuezan, zeuok ezarriko dozuen salneurrian, ori dala-ta ezertariko zigorrik eurenganatu baga eta orretan jausi baga, baiña, zuekaz bat eginda, Jaurerriak bear dituan baiño geiago ezin daitekela irarri, ezta iñori saldu bere. Balladolid'en, milla bosteun eta ogetazazpigarreneko Bagillaren leenengoan.

NEUK ERREGE ONEK.

Jaun Aundiaren aginduz,
Kobos'ko Frantzisko'k.

BATZARRAREN AGIRIA

Jaun Aundiak onartutako Forua Batzarre Nagusian aurkeztu zala, eta artu, eta esana egin, eta irarteko agindu zala.

Gernika'ko Zugazpean, Bizkai'ko Jaurreri Guztiz Noble ta Guztiz Leial onetako Batzarre Nagusiak egin oi diran lekuan, gaur, Jesukristo gure Jauna jaio ezkero, milla ta bosteun eta ogeta zazpigarreneko Garagarrillaren irugarrenean, Bizkai'ko Jaurerriko Zaldun eta Aldunek Foruz, usarioz eta oituraz leen aitatu dan arazorako Batzarre Nagusi jakin bat egitean. Loaisa'ko Pedro Jiron Lizentzidun jaun prestua, Jaurerri ta Enkartaldean Jaun Aundien Korrejidore ta Ikuslaria, eta Zerbatos'ko Gudiel Lizentziduna, aren Ordezkari Nagusia, eta Muxika ta Butron'go don Joan Alonso, Aramaio'ko jauna, eta Arteaga ta Ganboa'ko don Joan, Arteaga'ko etxe ta sortetxeko jabea, eta Abendaño ta Ganboa'ko Martin Ruiz, Billarreal'go jaunaren ordez Gerra'ko

Batzarraren Agiria

Otxoa Urtiz, eta Bizkai'ko beste zaldun, eskutari ta aitonen semerik asko, eta Belendiz'ko Rodrigo Martinez, eta Susunaga'ko Fortun Santxez, Bizkai'ko Aldunak, eta Solozabal'go Pedro, Mundaka elizateko zergazaiña, eta Arana'ko Joan, Sukarrieta'ko San Andres elizateko zergazaiña, eta Etxebarria'ko Martin Perez, Busturia'ko zergazaiña, eta Landaeta'ko Martin, Murueta elizateko zergazaiña, eta Olaeta'ko Iñigo, Foru elizateko zergazaiña, eta Arribalzaga'ko Pedro Ibañez, Luno elizateko zergazaiña, eta Zabala'ko Fernando, Ugarte Muxika elizateko zergazaiña, eta Monesterio'ko Martin Santxez, Arrieta elizateko zergazaiña, eta Sagargazte'ko Pedro, Mendata elizateko zergazaiña, eta Astobieta'ko Joan, Ajangiz elizateko zergazaiña, eta Zubieta'ko Rodrigo, Arratzu elizateko zergazaiña, eta Geztaren'go Joan, Ereño elizateko zergazaiña, eta Akorda'ko Lope, Ibarrangelu elizateko zergazaiña, eta Ea'ko Joan, Natxitua'ko zergazaiña, eta Aldamiz'go Fernando, Gautegiz'ko zergazaiña, eta Latxaga'ko Pedro, Kortezubi'ko zergazaiña, eta Gallate'ko Joan, Ispazter'ko zergazaiña, eta Jauregi'ko Martin, Bedaru'ko zergazaiña, eta Iturrioz'ko Pedro Martinez, Murelaga'ko zergazaiña, eta Larrinaga'ko Rodrigo, Nabarniz'ko zergazaiña, eta Akuriola'ko Joan Otxoa, Gizaburuaga'ko zergazaiña, eta Aldeko'ko Martin, Amoroto'ko zergazaiña, eta Leaegi'ko Fortuño, Mendexa'ko zergazaiña, eta Agirre'ko Lope, Zenarruza'ko zergazaiña, eta Garro'ko Joan, Arbazegi'ko zergazaiña, eta Axpe'ko Migel, Jemein'go zergazaiña, eta Magure'ko Andres, Etxebarria'ko zergazaiña, eta Sarasua'ko Martin, Amorebietako zergazaiña, eta Isasi'ko Pedro, Etxano'ko zergazaiña, eta Burdaria'ko Martin, Ibarruri'ko zergazaiña, eta Oka'ko Joan Santxez, Gorozika'ko zergazaiña, eta Susunaga'ko Gonzalo, Barakaldo'ko elizatearen ordez, eta Etxaso'ko Martin, Abando'ko zergazaiña, eta Elorza'ko Pedro Martinez, Galdakano'ko zergazaiña, eta Burdaria'ko Martin, Arrigorriaga'ko zergazaiña, eta Burdaria'ko Martin bera, Arran-

Batzarraren Agiria

kudiaga'ren ordez, eta Basabil'go Pedro, Lezama'ren ordez, eta Lukundiz'ko Joan Otxoa, Zamudio'ko zergazaiña, eta Berria'ko Diego, Sondika'ko zergazaiña, eta Diego berau, Lujua elizatearen ordez, eta Leura'ko Fortuño, Erandio'ko zergazaiña, eta Aretxabaleta'ko Diego, Leioa'ko zergazaiña, eta Larraondo'ko Joan, Sopelana'ko zergazaiña, eta Garai'ko Joan, Urduliz'ko zergazaiña, eta Maruri'ren ordez, eta Astui'ko Martin, Gatita'ko zergazaiña, eta Agirre'ko Pedro, Laukiniz'ko zergazaiña, eta Ugalde'ko Joan Perez, Basigo'ko zergazaiña, eta Errotaeta'ko Joan Perez, Meakaur'ko zergazaiña, eta Billela'ko Iñigo, Mungia'ko zergazaiña, eta Olagorta'ko Martinez, Gamiz'ko zergazaiña, eta Mandaluniz'ko Santxo, Fruiz'ko zergazaiña, eta Landaeta'ko Fortuño, Fika'ko zergazaiña, eta Etxebarria'ko Joan, Meñaka'ko Andra Mari elizateko zergazaiña, eta Arraño'ko Rodrigo, Lemoa'ko zergazaiña, eta Izaga'ko Joan, Yurre'ko zergazaiña, eta Lekerika'ko Pedro Iñigez, Arantzazu'ren ordez, eta Lejarazu'ko Pedro, Dima'ko elizatearen ordez, eta Pedro Iñigez berau, Zeanuri ta Kastillo ta Ubidea'ren ordez, eta Sautuola'ko Txomin, Olabarriata'ren ordez: guztiak Bizkai'ko Lurralde Lauko Udal eta Elizateetako zergazaiñak eta Aldunak, usarioz eta oituraz ebenez, danak batera Zugazpean Batzarre Nagusia egiten ziarduelarik, Zarra'ko Martin Ibañez eta Galartza'ko Pedro Otxoa, Jaun Aundien erreiñu guztietan eta Jaurerrietan eta Jaurerri onetako Batzarre ta Errejimentuan Eskribau garanon eta leenago aitaturiko lekukoen aurrean, aitaturiko Batzarre onetan urrengo oneek aurkeztu ziran: Zerbatos'ko Gudiel Lizentziduna, Korrejidoarearen Ordezkaria, eta Baraia'ko Pedro, Bizkai'ko Foru-Alkatea, eta Ibarguen'go Iñigo Urtiz, Batzarre aretako Aldunak, Bizkai'ko Jaurerri onek dituan Lege Berezi, Foru, eta Frankeza, eta Erri-Eskubideak onartzeko Jaun Aundiei erregu egiteko izendatuak. Eta Aurkeztu ziranean, zerau kontatu eben, Jaurerri ta Batzarreko zaldun, eskutari ta aitonen

Batzarraren Agiria

semeen izenean Enperadore-Errege gure Jaun Aundiari erregu egin eutsoela, geuk, aitaturiko Eskribauok izenpetuz gero, aurkeztu geuntsan Bizkai'ko Forua ontzat izan egiala, Bizkai'ko Foru, Lege Berezi, Frankeza ta Erri-Eskubideak onarturik, eta Jaun Aundiak, bere goi-goiko Batzarreko jaunekaz batera onetsi egin ebala, obeto gorde zeiten, irarri zeitela agindurik, eta begiz ikus egien, eurei emon izan jaken aitaturiko Forua aurkeztu eben. Foru onek agiri bat dakar Jaun Aundiaren Idazkari dan Kanpo'ko Ramiro'k ezarria, eta Jaun Aundiaren goiko Batzarrean aurkeztua izan zala autor egiten dauana. Eta onelantxe eskutitz edo erabagi bat aurkeztu eben, Jaun Aundiak izenpetua, eta aren silluaz sillatua, Kobos'ko Frantzisko, aren Idazkariak egiztatua, eta atzekaldean Jaun Aundiaren Batzarreko batzuen siñadurak dakazana, aitaturiko erabagi ta baieztapen au Foruaren azkenean dator. Eta onelantxe aurkezturik, guri Eskribauoi irakurri eragin euskuen. Eta nik, Galartza'ko Pedro Otxoak abots ozenez irakurri neban, guztiek entzuteko ta ulertzeko eran. Eta onelan irakurriz gero, aitaturiko Korrejidoreak, eta Muxika ta Butron'go don Joan Alonso'k, eta Arteaga ta Ganboa'ko don Joan'ek, eta Abendaño ta Ganboa'ko Martin Ruiz'en izenean Gerra'ko Otxoa Urtiz'ek, Batzarrekoen eta Jaurerri guztiaren ordez baieztapen-eskutitza ta errege-erabagia euren eskuetan arturik, burukoak kendu eta mun egin eutsoen, eta euren buru—gaiñean ipiñi eben, eta bear dan begirunez men egin eutsoen, Enperadore Katoliku ta Jaun Aundiaren bizia luzatu egiala eta beraren Aginterria eta erreiñuak, berak biotz-biotzez nai dauanez, geitu egizala gure Jaun eta Jaungoikoari eskaturik: eta Korrejidore, zaldun, Aldun, zergazain eta Ordelarien eginkizunari buruz, esan eben: Agintzen ebela, eta agindu bere onelantxe egin eben, Bizkai'ko Forua eta berak dakarren guztia auzietan eta auziez kanpo, oso-osorik eta edozergaitik bere aurrerantzean usatu ta gorde daitela idatzita dagoanez, eta agintzen ebela, eta agindu bere

Batzarraren Agiria

onantxe agindu eben, Foru au irar zeitela, Jaun Aundiak baieztapen eta agiri onegaz batera bialtzen eban txartelean agintzen ebanez; eta Bizkai'ko Errejimentuko jaunei, aitaturiko Forua irar zeitenean, argitaratu egiela agindu eutseen, eta guzti onen agergarria eskatu eben, eta agiri au Foruaren urrengo ezarri zeitela: au egin zanean, antxe ziran Zarate'ko Joan Urtiz, Prestameruaren Ordezkari Nagusia, eta Zarate'ko Rodrigo, eta Nabea'ko Fernando, Merinuaren Ordezkaria, eta Prestamerua, eta Ibargen'go Fortun Iñigez, eta Errenteri'ko San Joan, eta beste asko. Eta ni, Eskribau nazan Zarra'ko Martin Ibañez au, guzti au egin zanean, antxe izan nintzan Pedro Otxoa Eskribauagaz eta lekukoekaz batera, eta orregaitik ezarri neban neure ikur au: egiaren agergarri: Martin Ibañez'ek.



ATALEN AURKIBIDEA

LEENENGO ATALA, Bizkai'ko Lege Bereziak ..... *21 or.*

BIGARREN ATALA, Konderri ta Jaurerriko Epaikari ta Kargudunak, eta oneen lan-sariak eta Epaikari Aztertzailleak dirala-ta ..... *36 or.*

IRUGARREN ATALA, Oizko Epaikariek eta Aztertzailleek Auzitan Gora-jotea onar dagiela, eta beteeragipenik ez dagiela egin..... *45 or.*

LAUGARREN ATALA, Alkateei ta beteeragilleei kontu eskatzeaz..... *46 or.*

BOSGARREN ATALA, Errejimentuan ez daitela bete-eragillerik ez besterik sartu, Errejimentuko Karguduna izan ezik *48 or.*

SEIGARREN ATALA, Eskribauen kopurua, eta legez egiztagarri diran edo ez diran agerkaiak, eta areen sariak eta Bizkai'ko Auzitegiko Ordelariak dirala-ta ..... *48 or.*

ZAZPIGARREN ATALA, Auziez eta eskatzeaz..... *55 or.*

ZORTZIGARREN ATALA, Zigorauzietako egikeraz eta jardueraz, eta Epaikariari egintzaz dagokiozan egiteez..... *65 or.*

BEDERATZIGARREN ATALA, Akusaziño ta salakuntzei buruz; eta onangoetan zelan jokatu bear dan ..... *67 or.*

AMARGARREN ATALA, Ezkutatzailleei buruz..... *77 or.*

AMAIKAGARREN ATALA, Konderriko erri-presondegiaz 78 *or.*

AMABIGARREN ATALA, Iraun-legeak dirala-ta ..... 97 *or.*

AMAIRUGARREN ATALA Zin egiteaz..... 99 *or.*

AMALAUGARREN ATALA, Epaiei buruz..... 101 *or.*

AMABOSGARREN ATALA, Auzitan eznaia egitea dala-ta 102 *or.*

AMASEIGARREN ATALA, Emokuntzak eta bete-eragipenak diralata..... 102 *or.*

AMAZAZPIGARREN ATALA, Salmentak dirala-ta ..... 109 *or.*

AMAZORTZIGARREN ATALA, Truk egitea ta ordez emotea dala-ta 116 *or.*

EMERETZIGARREN ATALA, Baikuntzak dirala-ta ..... 117 *or.*

OGEIGARREN ATALA, Ezkon-sariak eta emoitzak eta sortsenideak eta senar-emazteen arteko irabaziak dirala-ta 119 *or.*

OGEITABATGARREN ATALA, Ilburukoak eta agintzariak eta ilburukobakoak dirala-ta 130 *or.*

OGEITABIGARREN ATALA, Adinbakoen eta oneen ondasunen zaintzeaz..... 138 *or.*

OGEITAIRUGARREN ATALA, Gurasoen eta aitita-amamen janariak eta bizigarriak diralata..... 140 *or.*

OGEITALAUGARREN ATALA, Etxegintza ta etxeak dirala-ta 140 *or.*

OGEITABOSGARREN ATALA, Zugatzlandarei ta beste frutuei buruz..... 151 *or.*

OGEITASEIGARREN ATALA, Eginbearrak eta ordaindubearrak diralata, zeintzuk baliozko izan bear daben eta zeinzuk ez..... 155 *or.*

OGEITAZAZPIGARREN ATALA, Bideak eta errege-bideak dirala-ta ..... 156 or.

OGEITAZORTZIGARREN ATALA, Olen sugarria eta bertako aztagailluak eta burdin-meak dirala-ta ..... 161 or.

OGEITABEDERATZIGARREN ATALA, Auzitan gora-joteaz 164 or.

OGEITAMARGARREN ATALA, Bizkai'ko Udalen edo Uriren batek bizkaitarren bat atxillotuko baleu, aren alde joan egin bear dabela 175 or.

OGEITAMAIKAGARREN ATALA, Zelan eta non eta zein menditan eizan egin daikeen 175 or.

OGEITAMABIGARREN ATALA, Eliz-zaindaritzaz eta Eliz-epaikariez ta Fiskalez ..... 177 or.

OGEITAMAIRUGARREN ATALA, Konderrira datozan bizikariez eta janariez .... 197 or.

OGEITAMALAUGARREN ATALA, Zigorrei ta kalteei buruz 200 or.

OGEITAMABOSGARREN ATALA, Errriko jokoez eta pekatuez..... 214 or.

OGEITAMASEIGARREN ATALA, Jaun Aundiari eun milla marairen zensoa zor dautsoen sortetxeak bertan beera izten dituenei buruz..... 224 or.



BIZKAI'KO FORUAK DAKAZAN
LEGEEN AURKIBIDEA

A

Abereak mendira eroan bear dirala, eta egiten daben kaltea ordaindu bere bai. 1 Legea, 34 Atala.

Abereek besteren soloan egindako kalteaz, eta agindutako erara jabeari ordain dakiola. 1 ta 2 Legeak, 34 Atala.
Eta jabeek euren soloak esitu egin bear dituela, abereek egindako kaltea eskuratu aal izateko. 3 Legea, 34 Atala.

Abeurreak eta bidigazak erriko lurrean zelan ipiñiko diran. 4 Legea, 24 Atala.

Abeurreak eta bidigazak ez dagizala iñork kendu Epaikariaren agindurik baga. 9 Legea, 24 Atala.

Abeurreak eta bidigazak lagindunen soloetan zelan ipiñiko diran. 5 Legea, 24 Atala.

Adinbakoak ondasunak erabilteko gai badira, ondasunok emon dakiezala, amazortzi urte izan ezkero. 2 Legea, 22 Atala.

Aita edo ama bigarrenez ezkondu ezkero eta leenezkontzako umeak euki, onetarikoren batengandik lur-ondasunik jarauntsi ezkero, ondasunok ez dagiozala bigarren edo irugarren ezkontzako semeri edo alabari itxi, leen-

ezkontzakoei baiño. 9 Legea, 21 Atala.

Aitordeek eta arduradunek ondasunen ardurea izateko zer egin bear daben. 3 Legea, 22 Atala.

Alarguna ezkon-sariagaz edo arrioagaz baserrira joan bada, eta seme-alabarik izan ez, alargun soiñekoz jantzirik etxe aretan urtebete ta egun batez bizi daitekela, etxe aretako erdiaren gozamena dauala. 2 Lege, 20 Atala.

Aldunak edo oneetariko batzuk errenterietako eta olategietako pisuak ikustatzeko bearturik dagozala, bearrizana dagoanean, egiazkoak eta ziurrak ipiñerazorik. 3 Legea, 28 Atala.

Aldunak Korrejidoreagaz edo onen Ordezkariagaz batera Epaikari bakar dirala jatorriei eta belaunaldiei buruz azterkizunak egiteko. 13 Legea, 1 Atala.

Aldunek eurei biurturiko erabagiak aldatu daikeezala, azken epaia emon aurretik izan ezkero. 11 Legea, 29 Atala.

Aldunen aolkulariari ezin dakiokela eznairik egin, auzialdia amaitu ezkero. 1 Legea, 15 Atala.

Aldun Nagusiek Jaurerriko sillua atara eta Jaurerriaren onerako emon izan diran agiriak sillatu daikeezala. 18 Legea, 1 Atala.

Almiranteari edo aren ordeko diranei ez dagokiela ezer, itxasoan edo leorrean zerbait artuarren bere. 9 Legea, 1 Atala.

Almiranterik ezin daitekela Bizkaia'n izan. 9 Legea, 1 Atala.

Amabost milla maraiz beetiko auzietan egin bear dan gora joteaz. 5 Legea, 29 Atala.

Amaituriko auzibideren bat ezin daitekela beste auzialdi baten agertu, legeak ezarten dauan erara izan

ezik. 7 Legea, 11 Atala.

Amaituriko auzibiderik ezin dakiokela besteri erantsi, eta zein kasutan ori egin daiteken. 10 Legea, 11 Atala.

Aolkularia ez daitela erbestekoa izan, eta, Bizkai'koak ontzat artzen ez diranean, erbestekoa izan daitela, baiña susmorik bagakoa. 3 Legea, 29 Atala.

Aolkulariak Korrejidorearen aurrean noiz agertu bear dauan. 5, 6 ta 7 Legeak, 29 Atala.

Ardaoagaitik agurka dabiltzan eskekoak (Foruan eskale deritxenak) egintzaz zigortu daitekezala, Gernika'ko Zugazpera deitu baga. 1 Legea, 8 Atala.

Arimearen alderako zer itxi daiteken. 10 Legea, 21 Atala.

Artzekodunak baituran daukana saldu gura izango baleu, zordunak kendu gura ez dautsalako, ori zelan egingo dan. 3 Legea, 19 Atala.

Astudillo Lizentzidunak zeazturiko arazoak Eliz-Epaikariek epaitu daikeezala. 3 Legea, 32 Atala (Leen-Errege-Eskutitza).

Aukerabidezko diru-zigorrak bidegintzan eralgi beitez. 4 Legea, 27 Atala.

Aundikien lur-ondasunak enborra enborrari ta erroa erroari dagokionetarikoak izan daitezala. 25 Legea, 11 Atala.

Aundiki-lurretan dagozan ondasunak ezin daitekezala legez saldu, ezta urikoetan dagozanak bere. 25 Legea, 11 Atala.

Auzibidea amaituz gero, Epaikariari edo Letrauari eznaia egitea ez beite onartu. 1 Legea, 15 Atala.

Auzibide Laburrean agerturiko lekukoak obendunak bir-ekarritakotzat artu daikezala, eta onangoan

zelan jokatuko dan. 11 Legea, 11 Atala.

Auzibide Laburreko lekukoak Epaikariak berak aztertu bear dituala, obendunak eskatu ezkero. 12 Legea, 11 Atala.

Auzi-deiak zelan egingo diran. 7 Legea, 7 Atala.

Auzigai batez salatu izan diranak ezin daitekezala beste auzigai batez salatu kasu berezi baten izan ezik. 5 Legea, 11 Atala.

Auzipean dagoan gauzearen balioa zelan billatu bear dan. 9 Legea, 29 Atala.

Auzo-lurrean norbaitek daukan zatia saldu ezkero, erostuna ezin daitekela ordaintzeke geratu, zatiketa egin barik dagoala esanez. 7 Legea, 17 Atala.

Azken epaia edo auzibitartekoa zein epetan emon daiteken. 1 Legea, 14 Atala.

Azterraldirik ez daitela egin, zenbait kasutan izan ezik. 1 Legea, 8 Atala.

Aztikeria lege-auste berezia danez, aztia egintzaz atxillotu daitekela. 1 Legea, 8 Atala.

B

Baitu dan soloa sort-senideek eurentzakotu daikeela. 1 Legea, 19 Atala.

Baituran dagoan gauzea artzekodunak saldu daikela, zordunak kendu gura izango ez baleutso. 3 Legea, 19 Atala.

Bakarlekuetan egindako kalteen egiztagarriak diralata. 21 Legea, 34 Atala.

Barriro saltzeko abererik ez beite erbestetik ekarri, erriarakiñak izan ezik. 5 Legea, 34 Atala.

Basurde, artz eta basauntzei mendian noraiño jarraitu

dakieken. 1 Legea, 31 Atala.

Batzarraren agiriak Foruaren eratzeari buruz.

Besteren soloan indarrez sartzen diranen zigorra. 18 Legea, 34 Atala.

Besteren soloa zapalduz ez daitela iñor igaro. 1 Legea, 27 Atala.

Besteren solotik oiñez igaro daitekela. 8 Legea, 34 Atala.

Bete-eragillea ta Merinua legezko salmenta egiteko etxe baten zelan sartuko diran. 4 Legea, 16 Atala.

Bete-eragilleak ez daitezala Errejimentuan sartu, eta, kargudunak izan ezkero, eurei dagokiezan arazoak azterkeran, urte dagiela. 1 Legea, 5 Atala.

Bete-eragilleei ze sari emongo jaken, artzekodunak eta aurkariak izan ezkero. 16 Legea, 2 Atala.

Bete-eragilleek eta urietako Alkateek ez dagiela Lurralde Lauan makillarik eroan. 9 Legea, 2 Atala.

Bete-eragilleen sariak zelan bananduko diran, kargudunak aldatu ezkero. 14 Legea, 2 Atala.

Bete-eragilleen sariak zelangoak izango diran zigorauzietan. 4 Legea, 36 Atala.

Bete-eragipena amar egunen buruan adierazo beite. 6 Legea, 16 Atala.

Bete-eragipenetan ze sari jasoko dan. 12 Legea, 2 Atala.

Bete-eragiteko agindua zelan emongo dan. 1 Legea, 16 Atala.

Bete-eragiteko agindua zelan emongo dan, eginbearra edo Kobratzea gauza edo dirutza jakiñekoa ez danean. 2 Legea, 16 Atala.

Bete-eragiteko agindurik ez daitela emon, zordunari

iru egun aurretik adierazo barik. 2 Legea, 16 Atala.

Betirako erbesteratzea gorputzeko zigortzat euki bear dala. 2 Legea, 9 Atala.

Bideak elizatearen pentzutan konpondu daitezala, eta aukerabidezko diruzigorrak orretantxe eralgi daitezala. 5 Legea, 27 Atala.

Bideak urtean urtean zergazaiñak ikustatu dagizala, eta barriztatzeko premiña dabenen barri Korrejidoreari emon dagiola. 10 Legea, 35 Atala.

Biderik ez dagiala iñork zugatzez edo beste itxitura batez ezereztu. 3 Legea, 27 Atala.

Bidigazak eta abeurreak errriko lurrean zelan ipiñiko diran. 4 Legea, 24 Atala.

Bidigazak eta abeurreak lagindunen soloetan zelan ipiñiko diran. 5 Legea, 24 Atala.

Biraolarien aurka zelan jardun daiteken. 3 Legea, 8 Atala.

Bizigarriak bere etxean edonork saldu daikezala, beste agindurik izan ezik. 4 Legea, 33 Atala.

Bizikarien salneurria zergazaiñek ezarriko dabela. 4 Legea, 33 Atala.

Bizkaia bere eskuko izatearen aurkako erabagi ta eskutitzei men egin bekie, baiña bete ez. 1 ta 2 Legeak, 1 Atala.

Bizkaia'n bertakotasuna nai dauanak bere jatorriaren barri emon bear dauala. 13 Legea, 1 Atala.

Bizkai'ko Aldunak eskubidedun Epaikari dirala. 6 Legea, 6 Atala.

Bizkai'ko Epaikari guztiek gorde bear daben epaijardueraz, eta zein kasutan ez dan ori egingo. 13 Legea, 7 Atala.

Bizkai'ko Jaunak artuenik

eta zergarik ez dauala jasoko, Forua onartuz, urte-barruan zin egiteko etor ez badadi. 1 Legea, 1 Atala.

Bizkai'ko Jaunak eskatuz gero, bizkaitarrak soldadutzara joan bear dabela, eta zein kasutan soldata emongo jaken. 5 Legea, 1 Atala.

Bizkai'ko Jaunaren sariak eta zergak. 4 Legea, 1 Atala.

Bizkai'ko Jaunaren zin egitez, eta zin au egiteko etorri ezik, zer egin bear dan. 1 Legea, 1 Atala.

Bizkai'ko Korrejidorea Letrau, Maixu edo Lizentzidun, aitonen seme ta odol garbiko izen beite, eta zein Ordezkari ezarri daiken. 2 Legea, 2 Atala.

Bizkai'ko lur-ondasunik ezin daitekela legez saldu. 25 Legea, 11 Atala.

Bizkai'ko monastegi, mesede ta karguak Jaun Aundiak semez bertoko diranei emon dagioezala. 6 Legea, 1 Atala.

Bizkaitarrak euren eliz-zaindaritza ta debisetan babestuak izan bear dabela. 1 Legea, 32 Atala.

Bizkaitarrak euren etxeetan zernai erosi ta saldu ta artzeko euren eskuko ta aske dirala. 10 Legea, 1 Atala.

Bizkaitarrak leen-auzialdian ezin daitekezala Bizkaitik at atara, eta arazo oni buruz errege-erabagia. 1 Legea, 7 Atala.

Bizkaitarrei astean astean, eguenez, Epai-lekua izendatu dakiela, eta asitako auzibideak aurrera zelan eroango diran. 20 Legea, 1 Atala.

Bizkaitarrei eliz-zaindaritza kentzeko guzurbidez ekarritako buldei men egin dakiela, baiña bete ez, legearen aurkakoak diralako. 2 Legea, 32 Atala.

Bizkaitarrek ataraten daben eizeari jarraitu daikeoela,

besteren lurretan eta barrutietan sartu arren. 1 Legea, 31 Atala.

Bizkaitarrek Bizkai'tik at egindako edozein itun edo lege-auste dala-ta, Epaikari Nagusiaren aurrera soillik eroan daitezala. 19 Legea, 1 Atala.

Bizkaitarrek Eliz-Auzitegietan ez dagiela Erri-Auzitegietako Lansari-Araudiak eskatzen dauana baiño geiagorik kendu. Leen-Errege-Eskutitza. 32 Atala.

Bizkaitarrek ez dabela bidasaririk, ez martin-zergarik, ez portu leorreko saririk, ez serbitzurik, ez beste eskabiderik, ez Bizkaia'n, ez andik kanpora. 4 Legea, 1 Atala.

Bizkaitarrek ez dabela ordaindu bearrik, ez zergarik. 4 Legea, 1 Atala.

Bizkaitarren aundikitasuna ta martzaltasuna. 13 y 16 Legeak, 1 Atala; 9 Legea, 9 Atala.

Bizkaitarren etxean legezko salmenta bete-eragiteko zelan sartu daiteken. 4 Legea, 16 Atala.

Bizkaitarri ezin dakiokela armarik, ez etxerik, ez zaldirik legez kendu, lege-austetik datorren zorrengaitik izan ezik. 3 Legea, 16 Atala.

Bizkaitarrik ezin daitekela Artzipeste ta Bikarioen aginte-barrutik kanpora atara, Artzipeste ta Bikariook leen-auzialdian epaitu ezkero. Leen-Errege-Eskutitza. 32 Atala.

Burdin-mearen astagaillua nork euki daiken eta non, eta zamatzen dan burdinmea ona izan daitela. 2 Legea, 28 Atala.

Burdin-mearik ezin daitekela bideetan bir-saldu. 2 Legea, 28 Atala.

D

"Delito infraganti" izenekoa edo, Foruak diñoanez, narruaz eta aragiaz egiñe-

koa, gaizkillea legea auste orduan edo gaiztakeria eginda ogeitalau orduren buruan atxillotzen danean izan oi da, eta arelangoa presondegiratu daiteke. 5 Legea, 9 Atala.

Deuseztatzea auzilariak ezkatuz gero, Epaikariak emon egin bear dauala. 23 Legea, 11 Atala.

Dirua karrakatu egitea legeauste berezia danez, ori dagiana egintzaz atxillotu daiteke. 1 Legea, 8 Atala.

Diru-zigorra dala-ta, eta gaitzetsi danak gora jo balegi, ontzat artu dakiola, eta Nagusiarengana joango dala eta epaiturikoa ordainduko dauala baibenak ezarri ezkero, ez dakiola presondegian jarraitu eragin. 1 Legea, 3 Atala.

Doan emoleak doarik emon diran ondasunetan artzekodun guztiak baiño leenago izan daitezala. 2 Legea, 23 Atala.

Doan emoleak jakiak artzealde doadunari ondasunak emon eta bear dan beste jaki ez dauala artzen salatuko baleu, zer egin bear dan. 3 Legea, 23 Atala.

Doan emoleak janariak artze-alde doadunari ondasunak emonda gero, doaduna adinbako umeak dituala il badadi, zer egin bear dan. 1 Legea, 23 Atala.

Doan emoleak ondasunak saldu daikezala, doadunak, ari janariak emote-ordez artu izan baleuz bere. 8 Legea, 17 Atala.

E

Edozein bizkaitar Eskribauk egin daikezala agiriak Korrejidoarearen eta onen Ordezkariaren aurrean. 2 Legea, 6 Atala.

Edozein bizkaitarrek bere lurrean etxean egin daikela, eta etxegintza au dalata, salatua izan ezkero, zer egin bear dan. 2 Legea, 24 Atala.

Eginbearra seme-alabei zein

kasutan ezarri dakieken. 7 Legea, 21 Atala.

Egindako kalteagaitik abereak zelan baitu eragin daitekezan. 2 Legea, 34 Atala.

Eliz-gizonak ez daitezala Ordelari izan. 9 Legea, 6 Atala.

Eliz-gizonek ze ondasun itxi daikeoen legezko ez diran umeei. 11 Legean, 20 Atala.

Eliz-gizonen eta ezkonduen sasi-emazteak dirala-ta. 4 Legea, 35 Atala.

Eliz-zaindaritza kentzeko ekarri daitekezan buldei buruz. 2 Legea, 32 Atala.

Emakumea indarka eroatea lege-auste berezia danez orrelangoa egintzaz atxillotu daitekela Gernika'ko Zugazpera deitu barik. 1 Legea, 8 Atala.

Emakumea lekuko izan daitekela euskeraz ilburukoa esaten dan aretan. 4 Legea, 21 Atala.

Emaztearen ondasunik ezin daitekela senarraren legeausteagaitik saldu, ezta alderantziz bere. 5 Legea, 20 Atala.

Emoitzat eta agintzaritzat ze ondasun emon daiteken. 18 Legea, 20 Atala.

Epaia urrundean zelan emongo dan, zigor-auzia izan ezkero. 1 Legea, 14 Atala.
Eta zelan adierazoko dan. 17 Legea, 11 Atala.

Eta zelan bete-eragingo dan, eta ondasunen erostunak ziur izan daitezala. 18 Legea, 11 Atala.

Epaikari Aztertzailleen Eskribauek euren egikuntzan jardun baiño leen, agiriak Bizkaia'n itxiko dituelako zordunordeak izendatu bear dituela. 3 Legea, 6 Atala.

Erbestekoak Gernika'ko Zugazpera deitu barik atxillotu daitekezala, edo-

zein lege-austegaitik eta edozein alditan. 5 Legea, 9 Atala.

Erbesteratzea eta onen zelangotasuna. 1 Legea, 3 Atala.

Erositako lur-ondasunak ondarez eskuraturikoak langoak izan daitezala. 16 Legea, 20 Atala.

Errege-bideek ze zabalera izango daben. 2 Legea, 27 Atala.

Errejimentua egin daitekela bete-eragilleak bertan izan barik bere, kargudunak izan ezik, eta eurei dagokion arazoren bat azter badaite, urten dagiela. 1 Legea, 5 Atala.

Erreiñuko Lansari-araudia gorde daitela. 3 Legea, 14 Atala.

Errege-erabagiak eta leen-izkribuak gordetzeko Konderriko Kutxa Gernika'n izan daitela, Leen-Foruagaz batera, Antxiñako Andra Mariren eliza deritxan aretan. 18 Legea, 1 Atala.

Errege-eskutitz eta erabagiak zuzenka edo zearka Foruko Legeen aurka izan ezkero, men egin, baiña bete ez. 2 Legea, 1 Atala. 28 orr. Eta bitan, naiz irutan, naiz geiagotan bialdu, men egin bedikio, baiña bete ez. 3 Legea, 36 Atala.

Erri-auzi baten ezin daitekela iñoiz bere ad perpetuam rei memoriam lekukorik ekarri, alderdiari ots egin baga. 11 Legea, 9 Atala.

Erriko basoak Bizkaia'n aitonen semeenak eta erriarenak dirala. 8 Legea, 1 Atala.

Erriko basoan erein ezkero, arriskua egillearena izan daitela, kaltea jakiñaren gaiñean egin ezik. 4 Legea, 34 Atala.

Erriko basoan zugatzak zelan landatuko diran eta frutuak zelan jasoko diran. 1 Legea, 25 Atala.

Erri-basoko ikatza bertan dagozan olategien eusgarrirako izan daitela, iru

gizon onek ezarriko daben salneurrian, leku aretako neurria gogotan dabela. 1 Legea, 28 Atala.

Erriko pekatuei buruz salakuntzarik oro-ar ezin daitekela egin. 4 Legea, 35 Atala.

Errotariek zelango pisuak euki bear dituen, eta zorroak zelan artu ta itzuliko dituen, eta ze sari jasoko daben. 8 Legea, 35 Atala.

Errotea edo olea, urbidea edo andapara apurtzen dauanaren zigorra. 17 Legea, 34 Atala.

Esker txarreko doan artzaillearen zigorra, 22 Legea, 34 Atala.

Eskribauak ez beitez Legegizon izan, ezta Ordelari bere. 6 Legea, 6 Atala.

Eskribau bagarik egin daiteken ilburukoaz. 4 Legea, 21 Atala.

Eskribauek ze sari jasoko daben, eta leen-auzibideak Letrauari emon dagiozala. 4 ta 5 Legeak, 6 Atala.

Estalgilleek ze zigor merezi daben. 1 Legea, 10 Atala.

Eta Gernika'ko Zugazpera deitzeke atxillotu daitekezala. 1 Legea, 8 Atala.

Etxea saldu edo doan emon geiago zeaztu barik esaten danean, illobia ta elizako lekua bere ortxe sartzen dirala. 12 Legea, 20 Atala.

Etxegilleak arria ta zura besteren soloan zear iragon daikezala. 3 Legea, 24 Atala.

Etxegintza barria dala-ta, salakuntzak izan ezkero, Epaikariak zelan jardungo dauan. 2 Legea, 24 Atala.

Etxeren edo soloren baten ondoan zugatzik landatu bear izan ezkero, ze bitartek izan bear dauan. 5 Legea, 25 Atala.

Etxe ta atariak alogaratzen

dituenek ez dagiela salerosten jardun. 4 Legea, 28 Atala.

Etxe ta solo ereiñak leenezkontzako umeek eurentzokotu bear dituela, eta bigarren edo irugarren ezkontzako umerik izan ezkero, senar-emazteek ezkontza-bitartean eurenganaturiko ondasunak erabilli daikeezala. 4 Legea, 20 Atala.

Eukitzeak iraun-legea noiz lortzen dauan. 2 Legea, 12 Atala.

Euskaldunak lekuko diranean, gaztelerarik ez badakie, itzultzailleren bidez jasoko dirala egiztagarriak. 2 Legea, 9 Atala.

Ezkon-sarizko ondasunak zelan bananduko diran, beste ezkontza batetako seme-alabak diranean. 3 Legea, 20 Atala.

Ezkontza bitartean irabaziriko ondasunak senarrak saldu daikezala bere zorrei erantzuteko. 6 Legea, 20 Atala.

Eztegutara ta meza barritara nortzuk joan daitekezan parrokitik kanpora. 5 Legea, 35 Atala.

F

Fiskalik ez daitela Bizkaia'n izendatu, ezta Goi-Auzitegian bere, auzilariak atzera egin ezkero. 23 Legea, 11 Atala.

Forua erabarritzeko pertsonen izendapena.

Foruak dakazan legeak itzezitz aditu bear dirala. 13 Legea, 7 Atala; 3 Legea, 36 Atala.

Foruak gordeko dituala Bizkai'ko Jaunak zin egiten dauanean, zin ori, Kristoren Gorputza eskuetan daualarik, abade dan elizgizonek artu bear dauala. 2 Legea, 1 Atala.

Foru-Alkateak zenbat izango diran, eta oneen agintebarrutiaz. 3 Legea, 2 Atala.

Foru-Alkateek elizzaindaritzaz eta debisaz

ebatzi daikeela. 2 Legea, 32 Atala.

Foru-Alkateek salakuntzak zelan artuko dituen. 6 Legea, 8 Atala.

Foru-Alkateek ze sari izango daben eta nondik ordaindu bear jaken, eta aolkularirik ez dagiela eroan. 4 Legea, 2 Atala.

Foru-Alkateek eta oletakoek eta Aldunek kontu-emotea egin bear dabela, Korrejidoreak egiten daaunean, eta zein kasutan ezin daiteken kargu bera artu. 1 Legea, 4 Atala.

Foru-Alkateen lan-sariak dirala-ta. 11 Legea, 2 Atala.

Foru-Alkaterengandik Korrejidoreagana eta onengandik Aldunengana zelan jo ta epaia emon daiteken. 6 ta 8 Legeak, 29 Atala.

Foru-Alkaterengandik Korrejidoreagana eta onen Ordezkariagana joteaz. 1 Legea, 29 Atala.

Foruko Legeak aukerabidezkoak dira buruzorroztasunezkoak baiño geiago. 3 Legea, 36 Atala.

G

Gaizkilleei noiz dei egin dakieken Gernika'ko Zugazpera. 5 Legea, 9 Atala.

Gaizkilleei zelan adierazo dakieken Gernika'ko Zugazpera dei egin jakela, eta onangoetan bete bear diranak. 6, 7 ta 8 Legeak, 9 Atala.

Eginkizunok bete ezik, deia utsa izan daitela. 8 Legea, 9 Atala.

Gaiztakeriazko ondasunak zelan salduko diran. 9 Legea, 16 Atala; 18 Legea, 11 Atala; 1 Legea, 17 Atala.

Garitzari edo uztari sua emoten dautsoenen zigorra. 10 Legea, 34 Atala.

Garrantzirik bagako ebagite ta urratzeagaitik ezin dai-

tekela zigor-auziz epaitu. 16 Legea, 34 Atala.

Gauzea baitu ebana ta artu ebana zenbatetan bat ez datozenean, zer egin bear dan. 2 Legea, 19 Atala.

Gernika'ko presondegiaren arduradun dan Prestameruak beste merinalde batzuetan bere Prestameruegінkizuna bete daikela. 6 Legea, 11 Atala.

Gernika'ko presondegizaiña Ebro'z andikoa izan daitela. 1 Legea, 11 Atala.

Gernika'ko Zugazpera dei egin ezkero, deia artu dauanak zein presondegitan nai eta antxe agertu daitela, eta andik Korrejidorearen aurrera autorpenak egiteko bein eroan daitekela, eta gero leenengo presondegira biurtu bear dauala. 2 Legea, 11 Atala.

Gernika'ko Zugazpera deitu barik bizkaitar bati bera agertu daitela Epaikariak zein kasutan agindu daikeon, eta baitura ezarri ezkero, jarein dakiola. 3 Legea, 9 Atala.

Gernika'ko Zugazpera deitu jakenen urrundea, eta onelangoen aurka zelan jardun daiteken. 14 Legea, 11 Atala.

Gernika'ko Zugazpera zein Justizigiñek dei egingo dautsan gaizkilleari, et ze sari jasoko dauan. 6 Legea, 9 Atala.

Gizonaren edo emaztearen aldetiko ondasunak erosten diranean eta seme-alabarik ez, zer egin bear dan, ezkontza askatu ezkero. 8 Legea, 20 Atala.

Gorrotorik, destaiñarik, zigorrik eta oneetarikoren saririk ez daitela Bizkaia'n izan. 21 Legea, 11 Atala.

Gotzaiñaren Epaikariez eta Fizkalez, eta euren auzialdiak non egingo dituen. 4 Legea, 32 Atala.

Gotzaiñaren Notarioen

sariak-dirala-ta. Bigarren Errege-Eskutitza. 32 Atala.

Gotzaiñek eta Probisoreek laikoak noiz epaitu daikeezan. 3 Legea, 32 Atala.

Gozamena senarrak eta emazteak zein kasutan izango daben, ezkontza askatu ezkero. 2 Legea, 20 Atala.

Gozamendun gurasoek zein areitz moztu daikeen eta zein ez. 9 Legea, 11 Atala.

Gurasoek euren etxalde guztia semeren edo alabaren bati itxirik, beste guztiak lurzati banaz baztartu daikeezala. 11 ta 13 Legeak, 20 Atala; 6 ta 10 Legeak, 21 Atala.

Gurasoek ondasunak billobei itxi daikeoezala, euren seme-alabak eta billoben gurasoak illik izan ezkero. 11 Legea, 20 Atala.

Gurasoen eta seme-alaben arteko eginbearrei buruz, ezkon-sarien inguruan iruzurrik izan ezkero. 1 Legea, 36 Atala.

Guzurrezko agiria edo erregedirua lege-auste berezia danez, bizkaitar bat bere etxetik atara daitekela. 2 Legea, 7 Atala.

Guzurrezko dirua lege-auste berezia danez, egintzaz jardun daitekela, gaizkilleari Gernika'ko Zugazpera dei egin barik. 1 Legea, 8 Atala.

Guzurrezko lekukoen eta azpikeriaz eta koipekeriaz aspitik erosten dituenen aurka Epaikariak epaibidez jokatu daikela, zein eurek autortu egin dabelako, zein aldatu egin, zein guzurtatu egin diralako. 2 Legea, 8 Atala.

I

Ikatz-zorroak ze neurritakoak izango diran. 1 Legea, 28 Atala.

Ikuslaria Bizkaia'n Korrejidorea dala, 1 Legea, 2

Atala. 3 ta 13 Legeak, 1 Atala.

Ilburubagakoa oiñordeko zelan izan daiteken. 8 Legea, 21 Atala.

Ilburukoaren indargatzea zelan egiztatu bear dan. 2 Legea, 21 Atala.

Ilburukorik ez danean, lurondasunen eta mogikorren gerokoa zelan erabagiko dan. 8 Legea, 21 Atala.

Ildako baten senideen parkatzea. 23 Legea, 11 Atala.

Ildakorik danean, zelan negar egin eta illondokoa zelan egin daiteken. 6 Legea, 35 Atala.

Illabete bi igaro ezkero, ez daitela jokoei buruz billakuntzarik egin, eta erreal bitaraiño joka daitekela, edatetxean izan ezik. 1 ta 2 Legeak. 35 Atala.

Illobiak seme-alaba guztientzat izan daitezala. 19 Legea, 20 Atala.

Iñoiz moztu ez dan zugatzik ezin daitekela moztu. 9 Legea, 17 Atala.

Iñoren soloan jabearen baimenik barik erein dana soloaren jabearentzat izan daitela. 4 Legea, 25 Atala.

Iñoren upela ustuten dauanaren zigorra, eta zein kasutan lapurreta izango dan. 20 Legea, 34 Atala.

Iñoren zugatzik edo maastirik ez dagiala iñork iñausi, eta ori egiten dabenen zigorra. 15 Legea, 34 Atala.

Onelango iñausketatan noiz ezin daiteken zigorauziz jardun 16 Legea, 34 Atala.

Iñor ez beite atxillotu orretarako agindurik baga, ezta eralketagaitik iñor presondegian euki bere. 26 Legea, 11 Atala.

Iñor ezin daitekela presondegiratu argibiderik baga. 3

Legea, 9 Atala.

Irabazitako ondasunak senarrak sal daikezala zorrak ordaintzeko, eta beste ondasunei buruz Erreiñuko Legea gorde daitela. 6 Legea, 20 Atala.

Iru arrabeteko bitartea itxi bear dala ola edo errota barriak egiten diranean, zaarragoak ur barik geratu ez daitezan. 1 Legea, 31 Atala.

Irugarren maillaren barruan salatariaren senide edo koñau dan Eskribauk ezik daikela aren alde egiztagarririk, ez argibiderik jaso. 2 Legea, 9 Atala.

Iru milla maraiz beetiko erriauzietan zelan jo daiteken. 8 Legea, 29 Atala.

Iru milla maraiz beetiko zorra ordaindu dala zelan egiztatuko dan. 2 Legea, 26 Atala.

Itxas-ontziek Bizkai'ra dakarren bizikaritik erdia bertan leorreratu bear dabela, beste erdia arerioentzat eroan ezik. 3 Legea, 33 Atala.

Itxasoz Bizkai'ra datozan bizikari ta janariak zelan erosi ta salduko diran. 1, 2 ta 3 Legeak, 33 Atala.

Izkiriatzearen sariak diralata. 15 Legea, 7 Atala.

Izkiriatze-bidea edo probabidea egilleak aukeratu daikela, eta zein kasutan ori egin daiken 12 Legea, 7 Atala.

J

Jabearen baimen barik mendittik lanerako abereak artzen dituenen zigorra. 6 Legea, 34 Atala.

Jakiak artze-alde egiñiko emoitza emoleari biur dakiola, bera bizirik dala, doaduna seme-alabarik ez eta il egin ezkero. 17 Legea, 20 Atala.

Janaria arerioari eroaten dautsoen itxas-ontzien

zigorra, 2 Legea, 33 Atala.

Jatorriz judutar edo morotar danik ez daitela Bizkaia'n bertokotu, eta bizitzeko Bizkai'ra datozanak euren jatorriaren barri emon bear dabela. 13 Legea, 1 Atala.

Jaun Aundiari milla maraitako zensoa zor dautsoen etxe ta baserriak eregi egin bear dirala, eta jabeek orretara beartu egin bear dirala. 1 Legea, 36 Atala.

Jaurerriko Sindiku Nagusiak, 1 Ataleko 15 Legearen arabera, jatorriaz eta belaunaldiaz diarduten Atal bereko 13 ta 14 Legeak bete-eragiteko eskubidedun dirala. 13, 14 ta 15 Legeak, 1 Atala.

K

Kalte egin daben abereen zigorra. 1 Legea, 34 Atala.

Karguak, monastegiak, eta lurraldeak Jaun Aundiak semez bertoko diranei emon dagioezala. 6 Legea, 1 Atala.

Kartagaiña zelan atarako dan. 9 Legea, 7 Atala. 106 orr.
Eta zelan adierazoko dan. 10 Legea, 7 Atala.

Kartagaiña ta beronen gaitzespena zelan adierazoko diran, eta auzia aurrera zelan eroango dan. 11 Legea, 7 Atala.

Kartarik, seikorik, bolarik edo beste jokogaillurik ez dagiela tabernariek euki. 3 ta 13 Legeak, 35 Atala.

Katigu dagoan bati jarein eragiteko agindu ezkero, diru-eralketagaitik ez daitela atzeratu, baitura ta zordunkidea ezarri baditu. 26 Legea, 11 Atala.

Kintal-pisuak zenbat libra daukazan eta libra batek zenbat ontza. 3 Legea, 28 Atala.

Korrejidoreagandik Aldunengana jo ezkero, Aldunok Korrejidoreagaz bate-

ra edo Korrejidore barik zelan epaitu daikeen, eta epai onetatik Goi-Auzitegira jo daitekela. 3 Legea, 29 Atala.

Korrejidoreak eta onen Ordezkari Nagusiak euren aginte-barrutietan ia Bizkai guztia daukela. 4 Legea, 32 Atala.

Korrejidorea, Ikuslaria, Prestamerua, Alkate ta Merinuak Jaun Aundiak izendatu bear dituala. 1 Legea, 2 Atala.

Korrejidoreak ikustatu bear dauala bete-eragilleek bear daben saria. 4 Legea, 36 Atala.

Korrejidorea urietako Alkate Nagusi dala. 2 Legea, 2 Atala.

Korrejidoreak zenbat auzialdi egingo dauan eta ze ordutan. 5 Legea, 7 Atala.

Korrejidoreak beste norbaiti billakuntzaren bat egitea erabagi daikela, eta auzibide bereziren baten ebazkuntza besteren bati leporatu daikeola. 2 Legea, 2 Atala.

Korrejimentuan diarduten Eskribauek bertokoak izan daitezala. 2 Legea, 6 Atala, ta 2 Legea, 9 Atala.

L

Korrejidoreak Bizkai'ko monastegi, debisa ta elizzaindaritzako auziak epaitu daikezala. 2 Legea, 32 Atala.

Landatzaillearen eta soloaren jabearen artean frutuak erdibana izateko sagarrondoak landatzen diranean, zer egin bear dan. 3 Legea, 25 Atala.

Korrejidoreak ez dauala saririk Bizkaia'n, eta Jaun Aundiak bere ondasunetatik ordaintzen dautsala, eta Lansari-araudikoak jaso daikezala. 10 Legea, 2 Atala.

Lagindun batek auzoko sagastian besteei ezer esateke sagarrondoak landatu ezkero, frutua norentzat dan. 2 Legea, 25 Atala.

Lagindun batek olea edo errotea barriztau nai dauanean eta besteak nai ez, zer egin bear dan. 1 Legea, 24 Atala.

Lan egiteko abererik, ez idirik ez dagiala iñork menditik artu jaberen baimenik baga. 6 Legea, 34 Atala.

Lantzari ta baleztari- mesedeak seme nagusiei emon dakiezala, eta onelangorik izan ezik, semez bizkaitar diranei. 6 ta 7 Legeak, 1 Atala.

Lapur eta beste gaizkilleak, urrundean diralarik, atxillotu daitekezala, eta onelan epaituak, legegatuak eta enkartaduak izanez gero, erriko iñork ez dagizala bere etxean artu, ezta lagundu bere, Foruz eta legez ezarririko zigorrenpean. 1 Legea, 10 Atala.

Lapurreta egin dagiana egintzaz atxillotu daitekela. 1 Legea, 8 Atala.

Leenengo ezkontzara ekarritako lur-ondasunik bigarren edo irugarren ezkontzako umeek ezin daikeela eurentzakotu, leen-ezkontzako umeek edo oneen ondorengoek jarauntsi baiño. 3 Legea, 20 Atala.

Lege-ausleei zelan deituko jaken, eta, urrundean diralarik, zelan epaituko diran, eta deitu barik zein kasutan presondegiratu daitekezan. 5 Legea, 9 Atala.

Lege-austea zelangoa eta presondegi-era bere alangoxea izan daitela. 4 Legea, 11 Atala.

Lege-auste baten obendun batzuk agertu ezkero eta besteak ez, agertu diranen auzibidean zer egin bear dan. 8 Legea, 11 Atala.

Lege-auste bategaitik epaibidez salgai dagozan ondasunak zelan salduko diran. 5 Legea, 17 Atala.

Lege-auste txikiak dirala-ta egin oi diran zigorauzietan gora jolea presondegitik askatu egin bear dala, baituak ezarriz eta

zein kasutan egin daiteken aurrera. 1 Legea, 3 Atala.

Lege bereziak, izkribuak eta sillua zein zaintzaillek gorde bear dituan. 18 Legea, 1 Atala.

Lege-gizonak izenpeturiko izkribuak soillik onar daitekezala. 6 Legea, 8 Atala, ta 6 Legea, 6 Atala.

Lege-gizon eta Ordelari izan diran Eskribauen zigorra. 6 Legea, 6 Atala.

Legezko ez diran seme-alabei lur-ondasunen eta mogikorren bostena itxi dakikeela, eta bosten orregaz illeta ta il-ostekoa doarik egin daitezela. 11 Legea, 20 Atala.

Legezko ez diran seme-alabak oiñordeko noiz izan daitekezan. 11 Legea, 20 Atala.

Legezko salmenta egiteko eskubideak amar urtetako epez iraun-legea lortzen dauala. Eginbear orretan baikuntzarik izan ezkero, eta eginbear au norbaitzkoa eta zerbaitezkoa bada, zorrak amabost urtetako epez iraun-legea Lortzen dauala. 1 Legea, 22 Atala.

Legezko salmenten sariak dirala-ta. 12 Legea, 2 Atala.
Eta sariok zelan ulertzen diran. 13 Legea, 2 Atala.

Legez salduriko ondasunak errematean erosi dituanak zordunkide bat izendatu dagiala, eta zer egin bear dan aurkaririk ager baleita ta ez baleite. 8 Legea, 16 Atala.

Legez salduriko ondasunak zelan lerrokatu daitekezan, eta artzekodunak ez dagizala lekuz aldatu. 5 Legea, 16 Atala.

Legez salduriko ondasunen erostunak ziur izan bear dabela. 18 Legea, 11 Atala.

Leorreko Alkateak zein merinaldetan izango diran eta zein auzi ebatzi daikeen. 4 Legea, 2 Atala. 58 orr.

Leorreratu dan bizigarririk ez

daitela Bizkai'tik kanpora atara, kasu batzuetan izan ezik. 1 Legea, 33 Atala.

Letrauei auzibideak emon dakiezala. 4 Legea, 6 Atala.

Lotsagabez bertsoka ta kantaka diarduenen aurka legez zelan joka daiteken. 1 Legea, 8 Atala.

Lur-ondasunak naita saltzen diranean, ze eginkizun bete bear dan. 6 Legea, 17 Atala.
Eginkizun oneek bete ezik, errenta ez daitela baliozko izan senideen aurka. 6 Legea, 17 Atala.

Lur-ondasunak saltzen diraneanm legezko salmenta eginda bere bai, erosteko senide asko etorri ezkero, leenago nor izango dan. 2 Legea, 17 Atala.

Eta sort-senidea leenago dala laginduna baiño. 3 Legea, 17 Atala.

Lur-ondasunen salmenta zelan iragarriko dan, senide guztiak jakitu egin daitezan. 1 Legea, 17 Atala.

Lur-ondasunik ezin daitekela familiaz bestekori itxi, sort-seniderik izan ezkero. 18 Legea, 20 Atala.

Lur-ondasunik salduko danean, deiak zelan eta noiz egingo diran. 1 Legea, 17 Atala.

Lur-ondasunetan egindako obekuntzak leenezkontzako umeentzak dirala, bigarren edo irugarren ezkontzako umeak izan arren. 4 Legea, 20 Atala.

M

Merinaldeetan Eskribauen kopurua gorde daitela, eta besteren izkriburik ez daitela legez egiztagarri izan. 1 Legea, 6 Atala.

Merinuez eta oneen ordekariez. 7 Legea, 2 Atala.

Merinurik, ez beste beteeragillerik ez daitela beteeragipena egiteko besteren

etxean sartu, baldintza batzuk betez izan ezik. 4 Legea, 16 Atala.

Meza barritarako, ezteguta-rako ta illetatarako nort-zuk joan daitekezan parro-kiatik kanpora. 5 Legea, 35 Atala.

Miagaia erbesteko erreiñueta-ra eroan dabenen zigorra. 17 Legea, 1 Atala.

Milla maraiz beetiko auzie-tan gora joterik ez daitela onar. 11 Legea, 7 Atala.

N

Neska galtzearen iraun-legea. 4 Legea, 12 Atala.

Norbaiten aurka sut-autsezko tiroren bat jaurti edo jaur-titzeko agindu dabenen zigorra. 9 Legea, 34 Ata-la.

Norbaitek loditzen daukazan txarriak euren mugarritu-tik urten ezkero, zelan bai-tu bear diran. 7 Legea, 34 Atala.

O

Obenduna agertu bada, auzi-bidea emon dakiola, legeak diñoan eran. 7 Legea, 11 Atala.

Obenduna agertu ezkero, alderdi biek zelan ekarriko dituen egiztagarriak, eta salatariak ezin daikela auzialdi aretan ez beste baten beste egiztagarririk ekarri. 9 Legea, 11 Ata-la.

Obenduna agertu ezkero, bera-ren ondasunak eta eralke-tak dirala-ta, zer egin bear dan. 20, 21 ta 22 Legeak, 11 Atala.

Obenduna urrundean gaitze-tsita gero, katigu badago, bere burua zuritu daikela, eta kasu orretan zer egin bear dan. 19 Legea, 11 Atala.

Ola-etxea egingo dan lekua batena ta andapara egingo dana beste batena izan eta etxea egiteko biak bat ez datozenean, zer egin bear dan. 6 Legea, 24. Atala.

Ola-etxe ta errota-etxe barriak egiten dituenek ura emon egin bear dabela, gorago egindako zaarragoek kalterik izan ez dagien. 7 Legea, 24 Atala.

Oletako Alkateak noiz, zein kasutan eta zein personetaz agintea erabilli daikeen. 5 Legea, 2 Atala.

Ondasun mogikorrak, lurondasunak eta sortetxetikoak zelan erabilliko diran seme-alabarik izan badadi eta izan ez badadi, eta zorrak zelan ordainduko diran. 14 Legea, 20 Atala.

Ondasun mogikorrak eta lurondasunak dituanak zenbatez eta zelan erabilli daikezan, aurretikorik edo ondorengorik izan balegi edo ez balegi. 5 Legea, 21 Atala.

Ondasun mogikorren eta lurondasunen erremata zelan egingo dan. 7 Legea, 16 Atala.

Ondasunen salmenta ez baite baliozko izan senideen kaltetan egin bada, eta Legearen arabera egin ez bada. 6 Legea, 17 Atala.

Ondorengorik edo aurretikorik izan ezik, lur-ondasunen bostena itxi daitekela, geiagorik ez, eta bosten ori bere ondasun mogikorrik ez danean. 10 Legea, 21 Atala.

Ordeazkoak eta oiñordekoak zelan izendatu daitekezan. 3 Legea, 21 Atala.

Ordezkari Nagusiagana egin dan gora jotea Korrejidoreagana egin daiteke. 1, 2 Legea, 29 Atala.

P

Perradun abererik ezin daitekela solo itxitik edo mugarritutik jabearen baimenik baga igaro. 8 Legea, 34 Atala.

Pisuak kidekoak izan deitezala, eta Aldunek ikustatu egin bear dituela. 3 Legea, 28 Atala.

Plazan edo lagindunen lurrean jarritako zugatz-

landarei buruz, eta oneen frutua norentzat dan. 1 Legea, 25 Atala.

Presondegia dei egin jakonak aukeratu daikela. 2 Legea, 11 Atala.

Presondegian iñor ez daitela egindako eralketakaitik luzaroago egoten beartu, baitura ta zordunkide zintzoa ezarri ezkero. 26 Legea, 11 Atala.

Presondegi bi izan daitezala, eta Prestameruak bizkaitarra ez dan zaiña ekarri bear dauala. 1 Legea, 11 Atala.

Presondegizaiñak katigu dagozanak txarki jagon ditualako, oneek iges egin badagie, presondegizaiñak ze zigor izango dauan. 6 Legea, 11 Atala.

Presondegizaiñak janaren eta lo egitearen ordez katigu dagozanei zer ordaindu eragingo dautsen. 3 Legea, 11 Atala.

Prestameruak oin-burdiñak eta jagole onak euki bear dituala, eta Ebro'z andikoa izan daitela. 6 Legea, 11 Atala.

Prestameruak zein ordezkari izendatu eta non ipiñi daiken. 6 Legea, 2 Atala.

S

Sagar-aleen eskabidea zelan egingo dan, soloa erdibana euki ezkero, eta soloa lantzen dauanak zelan landuko dauan, eta solotik noiz urtengo dauan. 1 Legea, 25 Atala.

Salakuntzak zein eratan egingo diran, eta salatu dana ez daitela bere izenez aitatu. 1 Legea, 8 Atala.

Salataria salakuntzatik atzeratu daitekela, eta Fiskalak ez dagiola eztoporik ipiñi. 23 Legea, 11 Atala.

Saldukeria lege-auste berezia danez, ori egin dagian bizkaitarra bere etxetik atara daitekela. 2 Legea, 7 Atala.

Salmenta egiñez gero, ez beite deuseztu, zati biek nai izan ezik, eta saldutako lur-ondasun guztia sort-senideak bereganatu dagiala. 4 Legea, 17 Atala.

Saltzen edo doan emoten diran ondasunak zeatz-meatz Eskribauren aurrean agertu bear dirala. 12 Legea, 20 Atala.

Sasi-emazteen aurka zelan jardun bear dan. 4 Legea, 35 Atala.

Seiña egin barri diran amak ikustera ez daitela emakumerik joan, ez emarkaririk eurei eroan. 7 Legea, 35 Atala.

Senar-emazte biek batera egiñiko ilburukoa bizirik geratu danak zelan ezeztu daiken. 1 Legea, 21 Atala.

Senar-emazteek ezkontza-bitartean irabaziriko ondasunen erdia senarrak saldu edo galdu ezkero, zer egin bear dan. 7 Legea, 20 Atala.

Senar-emazteek batera edo bakotxak berea dana seme edo alaba bati ondasun guztiak itxi daikeozala, besteak lur-zati banaz baztarturik. 6 Legea, 21 Atala; 11 Legea, 20 Atala.

Senar-emazteek irabaziriko ondasunak bigarren eta irugarren ezkontzako umeen artean erabilli daitekezala. 4 Legea, 20 Atala.

Senar-emazteek irabazitako ondasunak edozein ezkontzatako semeri edo alabari emon edo doan emon dakiokezala. 4 Legea, 20 Atala.

Senar-emazteek irabazitako lur-ondasuna edo batagandik edo besteagandik datorrena zein sort-senidek eta zelan bereganatuko dauan, ezkontza askatu ezkero. 8 Legea, 20 Atala.

Senar-emazteen ondasunak bata-bestearentzat izan daitezala, seme-alabak dituela il ezkero; eta seme-alabarik izan ezik, zelan

bananduko diran. 1 Legea, 20 Atala.

Senar-emazteen zorragaitik ondasunak bete-eragipenez sal badadiz, ezkontza, askatuz gero, zor ori zelan ordaindu bear dan. 10 Legea, 20 Atala.

Senarrak ezin daikela ezkontza-bitartean berea ez dan lur-ondasunik, ez mogikorrik saldu, emaztearen baimenik baga. 9 Legea, 20 Atala.

Senarraren baserrira ezkonsaria ekarri dauan andreak beraren bizigarritzak etxe aretako frutuen gozamena izan dagiala, bere ezkon-saria osorik ordain dakion arte, 2 Legea, 20 Atala.

Senarrari dagokion erdia saldu ezkero, beste erdia osoosorik dala emaztearena, eta ezkontza askatu ezkero, erdi au zelan zatitu daiteken, seme-alabak diranean eta ez diranean. 7 Legea, 20 Atala.

Sodonkeria dagiana atxillotu daitekela eta presondegiratu bere bai, ogeitamar egunen buruan Gernika'ko Zugazpera deitu barik. 1 Legea, 8 Atala.

Soloren bat iruzurrez truk egiteaz, eta urtebete ta egun bat baiño leenago barriro eskatu ezkero, iruzur ori arteztu daitela. 1 Legea, 28 Atala.

Sort-senideri iruzur egiñik ezin daitekela truk egin. 2 Legea, 18 Atala.

Su-emoleak erio-zigorra izan dagiala, jakiñaren gaiñean su-emon ezkero. 10 Legea, 34 Atala.

Surik ezin daitekela soloetan egin, eta jakiñaren gaiñean egiten dauana, kaltea ordainduaz gaiñera, zigortua izan daitela. 10, 11 ta 12 Legeak, 34 Atala.

Sut-autsezko tirorik jaurti edo jaurtitzeko agindu dauanaren zigorra. 9 Legea, 34 Atala.

T

Tabernariek ez dagiela kartarik, ez seikorik, ez bolarik, ez beste jokogaillurik euki. 13 Legea, 35 Atala.

Tabernetan jokoan egiten dabenen zigorra. 13 Legea, 35 Atala.

Tormentua ezarteko beste aztarren izan ezkero, oizko zigorra ezarteko bere naiko izan daitela. 10 Legea, 9 Atala.

Tormenturik, ezta zemaika bere, ezin dakioke bizkaitarri ezarri, ez Bizkaia'n, ez beste iñongo lekutan. 12 Legea, 1 Atala; 9 Legea, 9 Atala.

Torretxea edozein bizkaitarrek bere lurretan egin edo eragin daikela. 2 Legea, 24 Atala.

U

Umezurtzen aitorde ta jagole izatea nori dagokion. 1 Legea, 22 Atala.

Ur gazatako erreketan ez daitela onda-sarerik bota, ez karerik, ez intxaur-azalik. 11 Legea, 35 Atala.

Urari goragoko olategien jabeek zelan eutsi daikeoen. 8 legea, 24 Atala.

Uri barria egiteko Bizkai'ko Jaunak noiz agindu daiken. 8 Legea, 1 Atala.

Uribe'ko Merinuez. 8 Legea, 2 Atala.

Urietako Alkate Nagusi Korrejidorea dala. 2 Legea, 2 Atala.

Urietako Alkate ta beteeragilleek ez dagiela Lurralde Lauan makillarik eroan. 9 Legea, 2 Atala.

Uriko Bizkaitarren batek Lurralde Lauan ondasunik izango baleu, Bizkai'ko Foruaren arabera erabilliko dauala. 15 Legea, 20 Atala.

Urikoek egindako baituren aurka bizkatarrek urten

egin bear dabela. 1 Legea, 30 Atala.

Urrundea dala-ta, salakuntza zelan egin daiteken. 8 Legea, 7 Atala.

Urrundea zelan salatu daiteken, Gernika'ko Zugazpera deitu ezkero. 13 Legea, 11 Atala.

Urrundean diranen aurka zelan jardun daiteken. 13 Legea, 11 Atala.

Eta betekizun guztiak bete ezik, deia utsa izan daitela. 14 Legea, 11 Atala.

Urrundean diranak aurkeztu daitekezala, eralketak ordaindu ezkero. 21 Legea, 11 Atala.

Urrundean emondako epaia dala-ta gora joteaz: zein kasutan egin eta zelan jokatu daiteken aurrera. 11 ta 12 Legeak, 7 Atala.

Urrundean gaitzetsi dan obendunak, atxillotua izanda gero, bera errugetasuna zelan erakutsi daiken. 19 Legea, 11 Atala.

Urrunekoak ez dirala Korrejidoreak auzialdia egite orduan agertzen diranak. 5 Legea, 7 Atala.

Urrunekoak zelan epaitu daitekezan. 10 Legea, 7 Atala.

Urrunekoen aurka lekukoak zelan bir-ekarri daitekezan. 15 Legea, 11 Atala.

Usak eta erriko basoak aitonen semeenak eta erriarenak dirala. 8 Legea, 1 Atala.

Z

Zaldirik, armarik eta bizilekurik ezin dakiokela bizkaitarri legez kendu, legeaustetik edo alatsukotik ez datorren zorrengaitik. 3 Legea, 16 Atala.

Zeaztu barik oro-ar egiten diran emoiak zelan ulertu bear diran. 13 Legea, 20 Atala.

Zein lekutan egingo dauan zin Jaunak. 2 Legea, 1 Atala.

Zensurarik eta exkomikurik ezin daitekela irakurri ortuari ta sagarrakaitik eta soloan sartzeagaitik. 3 Legea, 32 Atala.

Zergarik ez beite Bizkaia'n izan. 4 Legea, 1 Atala.

Zergazaiñek urtean urtean bideak ikustatu dagiezala eta konpontzeko premiñan zein bide dagoan Korrejidoreari aditzera emon dagioela. 10 Legea, 35 Atala.

Zigor-auzietan egiztagarriak eta argibideak zelan jasoko diran. 2 Legea, 9 Atala.

Zigor-auzietan Goi-Auzitegira noiz jo daiteken. 10 Legea, 29 Atala.

Zigor-auziak Korrejidorearen eta onen Ordezkariaren aurrean aztertu bear dirala, eta ez beste Epaikariren aurrean. 5 Legea, 8 Atala.

Zital-itunbenik ez daitela egin. 12 Legea, 35 Atala.

Zor bat ordaindu izan bada, ez daitela beragaitik beste bete-eragipenik egin, eta onelangorik eskatzen dauanak ze zigor daukan. 2 Legea, 26 Atala.

Zordunkideak zelan presondegiratu eta areen ondasunak zelan salduko diran, eta zordunkide eukitsuei buruz bere orixe egin bedi. 9 Legea, 16 Atala.

Zordunordearen ondasunak legez sal badaitez, saririk ez dala jaso bear. 15 Legea, 2 Atala.

Zorrak dirala-ta, bizkaitar bat ezin daitekela presondegiratu, lege-austetik edo alatsukotik etorri ezik. 3 Legea, 16 Atala.

Zorra kobraturik euki eta bete-eragipena egiten dabenen zigorra. 2 Legea, 26 Atala.


Zorrak ondasun mogikorrez ordaindu beitez, eta ez sortetxetikoez. 14 Legea, 20 Atala.

Zorren batengaitik bizkaitarren bat uriren baten presondegiratu badabe, jarein dakiola, Lurralde Lauan ondasunak izan eta zordunkidea izendatu ezkero. 6 Legea, 7 Atala.

Zugatz eta solo ta etxeren artean ze bitartek izan bear dauan. 5 Legea, 25 Atala.

Zugatzak eta maastiak iñaustearen zigorra. 15 Legea, 34 Atala.

Zugatzei ez dakiela azalik kendu. 14 Legea, 34 Atala.





IZTEGIA - VOCABULARIO

aalmen	poder
aalmen berezi	poder especial
abeletxe	corral
abeletxeratu	encorralar
abel-ondasunak	bienes semovientes
abeurrea	señal foral para edificar
abuazilkuntza	cargo de alguacil
adierazo	notificar
adierazpen	notificación
adinbako	menor de edad
adiñetako	mayor de edad
agergarri	testimonio
agerkaiak	documentos, instrumentos
agindu	mandamiento
aginpide	jurisdicción
aginte-barruti	jurisdicción (territorial)
aginte-makilla	vara de mando
agintza	legado, prometimiento
agintzadun	legatario
agintzari	manda, legado
agiri	auto, testimonio, documento
agunaz	al compás
agurgarriok	venerables
aide nagusiak	parientes mayores
aide-oben	incesto
aipamen	relación (relato)
Aita Agurgarri	Reverendo Padre
aitaleen	progenitor
aitaren aalmen	patria potestad
aitonen seme	hijodalgo
aiton-ondore	abolengo
aitorde	tutor
aitordekotza	tutoría
akats	tacha
akatsik bako ondasunak	bienes sanos, sin vicio
akotadu	acotado
alatsu	vel cuasi
aldaki	trasunto, traslado
aldarri	pregón
aldatu	ceder, cambiar
alde batera itxi	declinar
alderdi	parte (en un juicio)
alderdikeria	parcialidad
aldun	diputado
alkar artu	conformarse
alkar jo	carear

alogeratzaille	arrendador
alogera	alquiler, salario
alogeratu	alquilar
alperkeria	negligencia
amaitutzat	por concluso
anaiarte	hermandad
andapara	antepara, presa
anega	anega
aolkubide	vía de asesoramiento
aolkulari	asesor
aolku-sari	asesoría (pago de)
apaiz ondasunak	temporalidades
apurtu	quebrantar, romper
arakin	carnicero
arategi	carnicería
Arau-bidezko Lege	Ley de Procedimiento
ardura	administración
arduradun	administrador
areriokeria	enemistad
argibide	información
argibide labur	información sumaria
argibidezko lekuko	testigo de información
ariel	tributo, impuesto
arindu	moderar
arrabete	jeme
arragoa	crisol
arresi	seto de piedra, pared
arrio	arreo
arriskurik baga	alevósamente
arrunta	común, corriente
artezbide	remedio
artuen	crédito
artzaille	receptor
artzaille esku-orde	receptor comisario
artzekodun	acreedor
astinketa	azotar (acto de)
atal	título (capítulo)
atari-alogatzaille	longuero
atzerabide	retracto
atzeratu	sobreseer (los pleitos)
atxillotu	prender, detener
aukerabidezko zigor	pena arbitraria
aukeramen	elección, albedrío
aundiki-etxe	casa de infanzonazgo
aundiki-lur	tierra de infanzonazgo
aundikitasun	hidalguía
aurkari	opositor
aurkibide	inventario
ausartu	osar, atreverse

autarki	voto
autormen	testimonio
autortu	deponer, confesar
auzi	juicio, causa, pleito
auzialdi	audiencia (acto de)
auzi-azpikeria	fraude de pleitos
Auzi-barruti	Juzgado (territorio)
auzibide	proceso judicial
auzibide labur	proceso sumario
Auziburu	Presidente del Tribunal
auzi-dei	emplazamiento, llamamiento a juicio
auzi-epaiak	sentencias judiciales
auzi-eralketak	costas de juicio
auzi-eskubideak jabez aldatu	ceder derechos judiciales a otro
auziketa	juicio, pleito
auzikide	colitigante
auzilari	litigante
auzi-liburu	registro judicial (libro)
auzi-mende	juzgado (jurisdicción)
auziperatu	denunciado, demandado
auzitaratu	llevar a juicio
Auzitegi	Tribunal, Audiencia (lugar, edificio)
auzitegi nagusi	cancillería
auziz besteko	extrajudicial
auzoarena	del común, vecindad
auzokide	vecino
auzo-lur	ejido común
azbete	dedo (medida de un dedo)
azkeneko epai	sentencia definitiva
azken nai	última voluntad
asketsi	absolver
azpikeri	fraude, alevosía
azpikeritsu	alevoso
azpitik erosi	cohechar
aztagaillu	balanza
aztarren	indicio
azterketa	pesquisa (acto de)
azterkuntza	pesquisa
aztertu	examinar
aztertzaille	pesquisidor
azti	hechicero
babesgarri	caución
babespide	defensión
baiben	fianza
baikuntza	hipoteca, empeño
baitu	hipotecar, prendar
baitura	hipoteca
baitura biziak	prendas vivas
baleztari	ballestero

balio arrunta	el valor corriente
baliotu	liquidar, tasar
banakuntza	repartimiento
barritsuak	profazadas (mujeres)
barriztapen	reformación
barriztatu	reformar
barriztatzaille	reformador
barru garbiko	de conciencia (hombres)
batena	privado (de uno)
bateo	bautismo
bat etorri	ponerse de acuerdo
batu	recaudar
batzaille	recaudador
batzarre	junta, asamblea, cámara
baztar	heredamiento (heredad)
beargin	obrero, bracero
begirale	guardián, defensor
belaunaldi	generación (de personas)
belaunaldi	genealogía
belaun-ondare	profincaje
berari (obendunari)	en persona (al culpable)
berarizko azterraldi	pesquisa especial
bereizkuntza	excepción
beretzakotu	apropiarse
berezko eriotza	muerte natural
beso-langille	bracero
besteko	extraño, ajeno
besteren	ajeno, de otra persona
besterendu	enajenar
betebear	obligación
bete-eragille	ejecutor
bete-eragin	ejecutar
bete-eragipen	ejecución
bete-eragiteko agindu	mandamiento ejecutivo
bete ez	no cumplir
betidaniko	inmemorial
bidasari	alcabala (derecho de)
bidebage	agravio
bidegabez	indebido
bidegintza	construcción de caminos
bidez	con título (con derecho)
bidezko	legítimo
bidezkotu	legitimar
bidigaza	bidigaza
bigabesa	braza
bigarren zena	contramarca
billaketa	inquisición
biraolari	blasfemo
bir-ekarri	reproducir (testigos, documentos)

bir-idatzi	trasladar (dar copia)
bitariko eginbear	obligación mixta
bitarteko epai	sentencia interlocutoria
biurtu	convertirse
bizigarri	bastimento
bizikari	vitualla
bizilagun	morador
bizi-lege	ley pragmática
biurrikeria	levantamiento
bolu	rueda (de molino)
borreru	sayón, verdugo
bortxagille	forzador
burua aldeztu	descargar
buruaren zuriketa	defensión
burua zuritu	excusarse
buru-zorroztasun	sotileza
burrukaldi	contienda
debisa	devisa
dei-agerkai	llamamiento
dei-agiri	emplazamiento (auto de)
dei-epai	sentencia de llamamiento
deitze-bide	vía de llamamiento
deuseztatu	anular, abolir
dirua aizundu	falsear la moneda
diru-auzi	causa pecuniaria (pleito)
diru jakin	dinero seco
dirutegi	tesorería
diruzain	tesorero
diru-zigor	pena pecunaria
doadun	donatario
doan emole	donador, donante
doarik emon	donar
dongakeria	crimen
Durangalde	Duranguesado
ebazbide	decisión
ebatzi	dirimir, conocer (un pleito)
ebazkizun	causa a dirimir
egikuntza	oficio
egin	proceder
eginbear	obligación, carga, gravamen
eginbide	acción
eginkizun	diligencia
egintza	oficio
egintzaz	de oficio (proceder de)
egiune	pacto, iguala
egiztabide	probanza
egiztagarri	prueba, fe
egiztatu	probar, hacer fe, testimoniar
eiza egin	correr monte, cazar

ekandu	costumbre
ekiñaldi	instancia
elizate	anteiglesia
eliz-barruti	Diócesis
eliz-gizon	clérigo
Eliz-legedi	Derecho Canónico
Eliz-epaikari	Juez eclesiástico
eliz-zaindaritza	patronazgo de la iglesia
emarkari	regalo a recién parida
emazteen buruko	tocado de mujer casada
emoitza	donación
emokari	don, gracia, dádiva
Enkartalde	Encartaciones
enkartadu	encartado
epai	sentencia
epaia iragarri	pronunciar sentencia
epaibidez	por sentencia
epaia emon	dar sentencia
epaikari	juez
Epaikari laiko	Juez civil
Epai-leku	Audiencia (Tribunal)
epai sendo	sentencia firme
epaitu	juzgar, sentenciar
erabagi	decidir, proveer
erabagiteko zin	juramento decisorio
erabidezko lege	ley de ordenamiento
erabidezko negar	llanto honesto
erabiltzaille	disponente
erabilli	disponer (de bienes)
eragozpen	inconveniente, obstáculo
erakutsi	alegar, comunicar
eratu	ordenar (componer)
erbesteko	extraño, extranjero
erbesteratu	desterrar
eretxi	presunción
erio-zigor	pena de muerte
erio-zigorgarri	merecedor de la pena de muerte
erosi egin	cohechar
errege-auzitegi	audiencia real
Errege-erabidezko Lege	Ley de Ordenamiento Real
Errege-dirutegi	Cámara Real, Tesorería Real
errege-eskumende	jurisdicción real
Errege-etxe	Casa Real
Erregearen Aurkako Legeauste	Delito de Lesa Majestad
Errege-txartel	Cédula Real
Errejimentu	Regimiento (corporación rectora)
erremata	remate, subasta
errenteri	rentería
errentero	rentero

erriarena	público (del país)
erriko	público (del país)
erriko altxor	fisco
erriko arakin	carnicero público
erriko arau	ordenanza (reglamento)
erri-auzi	causa civil
erriko baso	ejido
erri-epaikari	juez civil
erri-eskribau	escribano público
erri-gizon	laico, seglar
erriko itun	contrato público
erri-lan	trabajo público
erriko presondegi	cárcel pública
Errejidore	Regidor
erri-legedi	derecho civil
erri-mende	corregimiento
erritar	repúblico, hombre del pueblo
erritartasuna	naturaleza (nacionalidad)
erro	raíz
erruga	inocente
errugetasun	inocencia
esana	deposición (declaración)
esi	cercar
eskabide	petición, pedido
eskakizun	demanda
eskatze	demanda
eskatzaille	demandante
esku	derecho
eskualde	partido (territorio)
eskubidedun	competente (que tiene derecho a)
eskugo	derecho
eskugoaren indarrez	en rigor de derecho
eskuko (bere)	libre de
esku-orde	comisario
eskumende	jurisdicción
eskutari	escudero
eskutitz	carta
estalgille	alcahuete, encubridor
estalgintza	rachateria
estolda	caño, vertedero
etekin	interés
etorbide	línea troncal
etorki	beneficio, advenedizo
etxalde	hacienda, bienes
etxeparte	patrimonio
etxeko lez gau ta egunez	continua y familiarmente
eukille	poseedor
eukitze	posesión, tenencia
eurenganatu	usurpar

ezaupide	reconocimiento
ezkonga	soltero, a
ezkon-sari	dote matrimonial
ezkontide	consorte
ezkontza bitartean	constante matrimonio
ezkontzagaitiko	propternupcias
ezkontza-kume	hijo de matrimonio
ezkontza-orni	arras matrimoniales
eskutatzaille	receptador
eznaia egin	recusar
eztabaida	debate, disputa
eztegu	boda, casamiento
ez zuzenez	injusto
familiaz besteko	extraño a la familia
fiagarri	abonado, seguro
fiskal	fiscal
fiskal eragille	fiscal promotor
fiskalgoa	fiscalía (cargo)
foru	fuero
foru-alkate	alcalde de fuero
gai ez izan	no ser hábil
gaitasunak	materias, cualidades
gaitzbide	perjuicio
gaitzesi	condenar
gaitzespen	condenación, condena
gaizkille	malhechor
gaubela	mortuorio, velorio
gauzadun	tenedor (que tiene)
geiagokari	pujador
geldi-une	tregua
geldo	pavesa, escoria
geroko	sucesión
gezi	saeta, flecha
gogor egin	resistir, oponerse
Goi-auzitegi	Cancillería
Goi-batzarre	Alto Consejo
gora jo	apelar
gora jole	apelante
gora jote	apelación
gomuta-agiri	memorial
gorputz-zatiren bat ebaki	mutilar
gorputz-zigor	castigo corporal
Gorte	Corte
Gotzain	Obispo
gozamen	usufructo
gozamendun	usufructuario
guda-ontzidi	armada (las naves)
gudaroste	ejército
gurariz	con consentimiento

guztien lege	derecho común
guztien legez gaindikoa	exorbitante del derecho común
guztizko azterraldi	pesquisa general
guzurrezko	obreticio, falso
idazkari	secretario
idazkaritza	secretariado
idaztol	tabla, tablero de anuncios
igali-zugatz	árbol frutal
ikatz-zorro	costal de carbón
ikur	signo
ikuslari	veedor
ilburubako	abintestato
ilburuko	testamento
ilburukogin	testador
illerri	cementerio
illeta	animalías (funeral)
illeta-soiñeko	vestido de luto
illobi	sepultura
illosteak	mandas (testamentarias)
indarbako	nulo
indargatu	invalidar
indargatze	nulidad
indarkeri	extorsión
intxaur-azal	corteza de nuez
iñausi	talar
iñausketa	tala
iñausle	talador
iñoren	ajeno
iñorentzakotu	enajenar
iragarri	publicar, pronunciar, pregonar
iragon	acarrear
irain	agravio
iratza	elgueral
iraun-lege	prescripción
iruzur	fraude, engaño, dolo
iruzurrezko	subrepticio
iruzurrezkotzat	por subrepticias
iruzurti-zigor	pena de falsario
itaunketa	interrogatorio
itune	contrato
itun-asmo	transacción (de delito)
iturburu	cabecera del río
itxas-adar	abra (de la ría)
itxas-kai	puerto de mar
itxas-ontzi	navío
itxuskeri zantar	acto deshonesto
itzultzaille	intérprete, traductor
ixilkume	hijo natural
izendatze	institución (de herederos)

izkiriatze	asentamiento
izkiriatze bide	por vía de asentamiento
izkribu-agiri	escritura
izte	abandono
jabe	dueño, propietario
jabe aldatu	enajenar, vender, transmitir
jabegei	heredero
jabego	derecho de propiedad
jakitun	sabedor
jabetza	propiedad
jakitun	de ciencia (hombre)
jarauntsi	heredar
jardunbide	orden, forma a seguir
jarein	soltar, poner en libertad
jatorri	linaje
Jaun Aundi	Majestad, Alteza
Jaurerri	Señorío
jazoera	emergencia
joko-bola	juego de bolas
jokogaillu	aparato de juego
joko-ol	tabla de juego
Justizia	Justicia
Justizigin	Justicia (Cargo)
kalteak	daños
kaltebide	daño
kanpoko	extraño
kargu	cargo
karguaren egintzan jardun	seguir o ejercer el cargo
kargudun	oficial (empleado público)
karrakatu	raer (moneda)
karta	naipe
kartagain	sobrecarta
katigu	preso
katiguzain	carcelero
kendu egin	remover, quitar
kitu	quito
koipekeri	soborno, cohecho
konponketa	concierto, arreglo, reparación
kontari-nagusi	contador mayor
kopuru	cantidad
labur	sumario, corto
labur-labur	sumariamente, sumarísimo
lagindun	parcionero
landatu	plantar
landatzaille	plantador
lansari	salario
lansari-araudi	arancel
lantzari	lancero
lapurreta	hurto


lau	llano
Leen Auzi-bide	Proceso Original
leen ekiñaldi	primera instancia
leen erriko liburu	registro público original
leen izkribu	primera copia
lege	ley, derecho positivo
lege-arrazoi	título justo
lege-ausle	delincuente
lege-auste	delito, crimen
lege-berezi	privilegio, ley privada
legebako	acotado
legebidezko	jurídico, de acuerdo con la ley
legegatu	acotar
lege-gizon	abogado, letrado
legepean egon	estar a derecho
legez egiztagarri diran agerkai	documentos que hacen fe
legezkotu	legalizar
leinu	linaje
lekuko	testigo
leku-ordezkari	lugar-teniente
leorrean	en tierra
leorreko alkate	alcalde de la tierra
lerrokatu	inventariar
letrau	letrado
liburu zantar	libelo
lokabe	exento
lotura	vínculo, dependencia
loturiko	adherente
luban	valladar
lur-ondasun	bien raíz, inmueble
lur-ordain	relación de las tierras
lurralde lau	tierra llana
mailla	grado
makilla	vara
Malato Zugatz	Arbol Malato
mandazain	mulatero
marai	maravedí
martin-zerga	martiniega
marragazko jantzi	luto de marraga
matxinada	asonada, revuelta
meagune	venera (de mineral)
mea langille	venaquero
mende	siglo
men egin dakiola eta bete ez	que se obedezca pero no se cumpla
men egin	obedecer
menpeko	vasallo, súbdito
menderatze	sumisión
Merinalde	Merindad (territorio)
Merinu	Merino

metalki	metal
meagai	vena (mineral)
mogikor	mueble
moldatu	ordenar, componer
morrontza	servicio
moztu	rozar (árboles)
muga-leku	lugar frontero
mugarritu	amojonar
nasaibiderako	para el sosiego
neska galdu	desflorar una mujer
neska galtze	estupro
neurtu	aforar, tasar, medir
neurketa	aforamiento, tasación
norbaitegazko eginbide	acción personal
norberaren	propio, suyo
nork geiagokoa egin	pujar, licitar
obari	interés
obekuntza	mejoramiento
obenaldi bero beroan	en flagrante delito
obendun	reo
obetsi	preferir
odol bereko	consanguíneo
ogasundun zordunkide	fiador abonado
Oidore	Oidor
oin-billur	grillo de los pies
oin-burdiña	hierro de prisiones
oiñordekide	coheredero
oiñordeko	heredero
oitura	costumbre
Oizko Alkate	Alcalde Ordinario
oizko bide	vía ordinaria
oizko era	forma común
oizko epaikari	juez ordinario
ondare	herencia
onda-sare	red barredera
ondasunak	bienes
ondasunak irabazi	conquistar bienes
ondasundegi	tesorería, fisco
ondasundun baibenak	fianzas raigadas
ondasunen zerrenda	inventario de bienes
ondasun mogigaitzak	bienes inmuebles
ondasun mogikorrak	bienes muebles
ondore	efecto
ondorengo	sucesor
ontzi-buru	bajelero
ontzi-zabal	fusta (barco)
onulari	asesor
ordainka	represalia
ondainkatu	represaliar, represar

ordainketa	pago
ordeazkotza	comisión
Ordelari	Procurador
ordez emon	cambiar
ordezkari	Teniente
Ordezkari Nagusi	Teniente General
ordeazko	comisario
ortuari	hortaliza
orube	solar despoblado
otzara	cesta
petxu	tributo
pisu	pesa
pragmatiku-lege	ley pragmática
presondegi	cárcel
presondegizain	carcelero
Prestameru	Prestamero
salakizun	denuncia, cargo
salakuntza	acusación
salatari	acusador, denunciante
salatzaille	id, id
saldo	busto (de vacas), rebaño
saleroski	mercadería
saleroskuntza	compraventa
salkuntza	venta
salmenta	venta
sari	derecho, salario (pago)
sasiemazte	manceba
sasikume	hijo ilegítimo
seiko	dado (de juego)
sendo	firme
serbitzuak	exequias
seni-parte	legítima (herencia legal)
setakeria	contumacia
setakerizko gorroto	odio contumaz
setatsu	contumaz
sillatu	sellar
sillu	sello
Sindiku	Síndico
siñadura	signo (firma)
sodonkeria	sodomía
soildu	despoblar
soiltzaille	despoblador
soldadutza	servicio militar
soldata	sueldo
solo	heredad (propiedad)
solo ereiñak	plantíos
sort-enbor	tronco familiar
sortetxe	casa solariega
sortetxetiko ondasunak	bienes troncales

sort-ondasunak	bienes tronqueros
sort-senide	pariente profinco
su-emole	incendiario
sutauts	pólvora
taiuketa	apreciación
taiutu	apreciar, tasar
taiutzaille	apreciador
titulu	título
trukegin	permutar
txatal	capítulo
Udal	Concejo
ule-txortadun neska	moza en cabello (virgen)
umezurtz-aro	edad pupilar
upel	cuba
urbide	cauce, calce, vía de agua
ur gaza	agua dulce
ur gazi	agua salada
Uri	Villa
Uriaundi	Ciudad
urratu	perturbar
urrunde	rebeldía
urrunde-zigor	pena de rebeldía
urruneko	rebelde
urtenbide	remedio
urte-sari	censo anual
urte saripeko	censuales, bajo censo
usa	usa
usario	uso
uste onez	de buena fe
uts	nulo, inválido
zain	guarda
zaintzaille	curador (tutor)
zaldun	caballero
zamari	rocín
zamatu	cargar
zatidun	comunero, copartícipe
zearka	indirecto, indirectamente
zeatz-meatz	específicamente
zearko ezkon-aide	afines, transversales
zelakotasun	calidad
zelango	de la cual (calidad)
zemai	amenaza, conminación
zena	marca
zenso	censo
zerbaitegazko eginbide	acción real
zerga	contribución, imposición
zergabagako	exento
zergazain	fiel (cargo)
zigor	pena (castigo)

Zigor-alkate	Alcalde del Crimen
zigor-auzi	causa criminal
zigorkadak	azotes
zigor-lege	ley penal, derecho penal
zin	juramento
zin-bidez	por juramento
zin egin	jurar
zin-eliza	iglesia juradera
zital itunben	monopolio
zintzo	fiel, leal
ziza	sisa
zor	deuda
zordun	deudor
zordunkide	fiador solidario
zordun orde	fiador
zorro	zurrón
zotz-egin	sortear
zurarte	cepo (en la cárcel)
zuribide	descargo
Zuribideko Epai	Sentencia de Descargo
Zuribideko Epaikari	Juez de Residencia
zurigarri	excepción
Zuzen	Derecho
Zuzenbide	Justicia, Equidad
zuzenka	directamente
zuzenkiro	fielmente
Zuzentasun	Justicia
Zuzentasun-makilla	Vara de la Justicia



II

BIZKAIKO ETA ARABAKO FORU ZUZENBIDE ZIBILAREN BILDUMARI BURUZKO UZTAILAREN 30EKO 1959/32. LEGEA

[E.B.O.ko (BOE) 1959.eko uztailaren 31ko 182. zk.]

1888. urteko maiatzaren llko Oinarriei buruzko Legeak bere 5. artikuluan, Foru Zuzenbideak bizirik zituzten probintzia eta herrialdeek halakoak beren osotasunean, zuten erregimen juridikoaren aldaketarik jasan gabe, gordeko zituzketela xedatu zuen, Kode Zibilaren argitarapena gertatua izan arren «berau haietariko bakoitzean, Lege Berezien hutsunerik denean bakarrik, zuzenbide gehigarri gisa izango baita aginduzko».

Lege berak agindu zion gobernuari, Kodegintza Batzordeari entzun eta gero, Korteei lege proiektu batetan zein batzutan, bizirik zirauten probintzia zein herrialde bakoitzean jagotea komeni ziren Foru Erakundeak jasoko zituen Kode Zibilaren eranskinak aurkezteko.

urteko apirilaren 17ko Erret Dekretuak Gobernuak lan hori egiteko Batzordebereziak izenda zitzala agindu zuen eta urte bereko apirilaren 24eko Erret Dekretuaren bidez izendatu zen Bizkaiko eta Arabako Foru Zuzenbide Zibilaren aurreproiektua idatzi behar zuen Batzorde berezia. 1900. urteko otsailaren 9an egin zuen Batzorde honek bere azken bilkura eta bukatutzat eman bere lana.

Bizkaiak eta Arabak, beren Zuzenbide Zibilaren Foru Legeak Kode bakar batetan argituak, ordenatuak eta sistematizatuak edukitzeko zuten gogo biziak Probintziako Aldundiak eta Abokatuen Elkargoak, beren baitan, Batzordeak eginiko proiektua ebazteko Batzorde bereziak eratzea ekarri zuen, lan hau Bilboko Abokatuen Elkargoak bete zuelarik, 1928. urteko azaroaren 15ean eginiko txostenaren bidez.

Berriz ere, Zaragozan izandako Foru Zuzenbideari buruzko Biltzarraren ondorioz, 1947. urteko maiatzaren 23ko Dekretuak, orain arte bete-betean konpondua izan ez den arazoari, hots, beren aniztasunean gure tradizio juridikoaren aberastasunaren erakusle diren es-

painiar antolamendu zibil desberdinen elkarbizitzak legegileari planteatzen dionari ekin zion. Irtenbidea bilatzeko asmotan, berriro Foru Zuzenbideko erakundeak aztertu eta ordenatzeko Legekarien batzordeak sortzeari ekin zion eta Bildumen Aurreproiektuak, erakunde historikoak aurkitzen ziren uneko beharrizan eta premiei egokitzeko zuten indarra zein aplikagarritasuna kontutan izanik egokiro sistematizatuz, Kode Zibilaren sistematikara moldatuz eta kointzidentzia eta errepikapenak ekidinez egin beharra zegoela xedatu zuen.

Sortutako Legekarien Batzordeen lana osatzeko, Kodegintza Batzorde Orokorraren 1953. urteko urriaren 23ko Dekretu Organikoak, bere barnean Batzordekide foruzaleak sartzea agindu zuen, eginiko bildumak ikertu eta zegozkien aurreproiektuak gobernuaren menpean jar zitzaten. Batzorde Iraunkorrak, Batzordeko Lehendakariaren ardurapean, Bizkaiko eta Arabako batzordekide foruzale eta Lehen saileko ordezkariekin osaturiko sail berezi bat sortzeko agindu zuen, 1928. urtean Bilboko Abokatuen Elkargo Txit Argiak egindako txostena oinarritzat hartuz, aurreproiektu bat idatz zezan.

Gobernuari aurkeztutako testua, aurretik egindako aurreproiektuen, Foru berberaren eta Bizkaiko eta Arabako zuzenbide bereziaren inguruan sorturiko doktrina juridiko eta jurisprudentzialaren miaketa zehatz eta xehetuaren ondorioa da.

Lan honen helbururik nagusiena, tradizio juridikoaren bilduma ordenatu eta sistematiko baten bidez zein zuzenbide hispaniarren ezaguera, zehaztapen eta komunikazioaren bitartez, Kode Zibil orokor baten azterketa eta idazkuntzara heltzea da, bertan bilduko direlarik herri espainiarrean eta bertako eskualde desberdinetan bizirik dirauten erakunde bizi eta indarrekoak, erro nazionala duten errealitate natural, sozial eta juridikoen erakusleak eta berebiziko interes moral zein materialei dagozkienak. Azken batetan helburua ez da, halanolako zuzenbide uniformea sortzea, erakundeen onartasun eta komenigarritasunari buruz jokatzea baino, nazionala denaren egituraketa eta integrazioaren bidea era amultsu eta zientifiko batez egiteko.

Forudun herrialdeko erakundeen arau erregulatzaileen indar eta aplikagarritasunaren azterketak ez du, ez Bizkaian ez eta Araban,

arazo funtsezkorik planteatzen, berauetan beren zuzenbide pribatua herriaren barnemuin ekonomiko, familiar eta sozialean ondo errotuta bait dago.

Areago oraindik, Bizkaitar Foru Zuzenbidea, benetako baserri estatutua dena, espainiar baserriaren antolamendu juridikorako joera berrien aurrerapen gertatzen da, familia eta ondaren kontzentrazioaren bitartez eta kezka bakar horren zerbitzuan, Bizkaiko zuzenbide berezia, bere erakundeen oreka armonikoan, hain bikaintasun tekniko handiko tresna izanik, egungo legegilearentzat, aintzinako kutsuaz bada ere, eredu izan daitekeelarik.

Bizkaiko eta Arabako bildumaren aldarrikapenak ez luke bere berezko xederik beteko, herriko praktika juridikoetan osoki gordeak direla, gaur ere, berebiziko antolaketa ekonomiko, familiar eta sozialaren zerbitzuan diren zuzenbide pribatuzko erakunde tradizionalak gorpu organiko batetan batzera eta artikulatzera mugatuko balira.

Bizkaitar Zuzenbidearen eraginkortasun funtzionalak arrisku bizian konprometatuta jarraitzen du ezpairik gabe, historikoki sistema beraren ahulezia izan denarengatik, hain zuzen ere, Foruaren herrialde oinarriaren zehaztapen ezagatik, Herrialdean elkarren ondoan bizi izan diren bi erregimen juridiko zibilen gatazka amaigabeagatik.

Izan ere, zuzenbide honek bere Herrialde oinarriarenganako duen desegokiera hori, bizkaitar foru estatutuaren akats barnekoi eta bereberekoa da, zeren jatorrian Zuzenbide arrunta hiri forugabeetako udal mugarte hiritarrean kontzentratua egonik, inguruko baserri giroan hiritarraren izaera tartekatzearen prozesu geldoak Kodearen eta Foruaren arteko gatazka automatikoa sortzen du, etengabeki onibarren oinetxekotasun objektiboa zein forudunen oinordetzazko estatutu pertsonala eta ezkontz ekonomia nahasten dituelarik.

Horrela, zehaztapen juridiko falta hori sortzen indar desbideratzaile handiagoz lagundu du honako errakuntza historiko honek: hau da, zuzenbide pribatua, Forua hiri forugabeen zabalkunde administratiboak bereganaturiko baserri guneetatik baztertuz, aldaketa topografikoen menpean jartzeak.

Ezin ditu inolaz ere erizpide legegileak arazo hauek alde batera utzi; are gutxiago foru Bildumaren aldarrikapenak ematen dion abagadunean, Bizkaitar Zuzenbidearen erakundeetako bizitasuna bertan behera desegiketa prozesu baten arriskuan jarri gabe.

Horrelako hori konpontzeko, Probintziako Batzordearen Aurreproiektuan bildutako formula proposatu zen, hots, bat-batean zuzenbide arruntaren gunea, hiri forugabeetako hiriguneko mugatik, gaur beraien udal mugarteetako perimetroa zehazten duen lerro administratiboraino zabaltzea. Sistema honen bidez, Foru Zuzenbideak, trukaketa astunenaren ordainez, itxura batetako egonkortasuna irabaziko luke: hau da, bizkaitar familia ondarearen berezitasunik jatorrizkoenak era bereziz kokatzen direneko baserrigune zabal askotatik kanpo geratzea.

Agerikoa baldin bada ere ezin dela lortu, aldian ez eta espazioan, formula erabateko eta iraunkor baten bidez bizkaitar zuzenbidearen eta beraren herrialde oinarrien arteko egokiera, Legeak, Kodegintza Batzordearen ebazpenaren arabera, zuzenbidearen eta beraren herrialde oinarrien arteko lotura antolamendu juridiko honen gorenengo zioa dela pentsatuz, Herri honen bizimodu juridikoa ezerosotasunez betetzen duten eskumen gatazkak ekiditeko irtenbidea bilatzera jotzen du.

Halakoari dagokio Bildumaren Lehen Titulua, Kode Zibilaren aginpidea hiri forugabeetako egungo hiriguneen perimetro osora zabaltzen hasten den arau zuzentzaileen sistema baten bidez; jarraian gertatuta uzten du haien garapen organikoaren araberako zuzenbide arruntaren hedakuntza automatikoa eta landa eta hiria elkarren artean nahasten diren gunera, Kodea eta Forua elkarren aurka hasten diren unera heltzean, presuntzio bikoitza jartzen du aginpide biak beren benetako herrialde oinarrietan kokatzeko, baserri bakoitzaren eta beraren lurren ondare batasunari dagokionean Foru Zuzenbidea lekutuz eta mugatuz. Horrela fideltasun osoz betetzen da Foruaren «ratio legis» delakoa, honek bere erakundeak, batez ere baserriaren banaezintasunaren eta bizkaitar famili ondarearen funtzionaltasunaren ohoretan zabaltzen dituelako.

Baina Foruaren ideia nagusienarenganako menpekotasun horrek, gaur egungo udal mugarteko mugetaraino, iraupen irtenbiderik gabe aurreratu den Bilbo hiriaren hedapen hiritarraren azterketa berezia eskatzen du. Hiriburuaren udal mugarte osoa, hitzaren adiera teknikoan hiritarra da eta horrelakoa ez dena ere, bere baserritartasuna galdua duela, xedez zein helburuz hiritartasunez beteta dago. Desagertu egin da, beraz, Foruaren zioa udal mugarte osoan. Eta hala ere, beraren hiriburutasunaren garrantzia, beraren higiezinen hedadura eta beraren ekonomia industrialaren garapen handia hala badira ere, Bilboko bizimodu juridiko indartsu osoak legegintzazko biltasunaren euskarri irristakorraren gainean oinarrituz jarraitzen du, beraren mugak uste huts eta irudimenaren hondakin soil izatera iragan direlarik.

Zilegi da, beraz, salbuespen gisa, Bilboko udal mugarte osoa Zuzenbide arrunteko deklaratzea, hemen ez bait dago Foruaren inolako atzerapenik, udal mugarte osoan desagertu bait da forua izateko zioa. Eta Lehen Tituluan trinkoki biltzen diren egonkortasun neurri horiek osatzeko, 4. artikuluak erabat ixten dio bidea Foruaren aginpidean egin daitekeen edozein tartesartze administratibori.

Teknika legegilearen arrazoiak direla medio, Bizkaiko Foru Zuzenbidea konfigurazio autonomozko erakundeen inguruan, hala nola oinetxetasun, testamentu askatasun eta foru komunikazioan mamitzen bada ere, onartu beharra dago, sakonean, ondare kontzentrazioaren printzipioa indar berberaz sortu eta nagusitzen dela Bizkaiko Zuzenbide Zibilaren gune osoan, Foruaren Printzipio guztiak erabat agortuz, Foruko manu guztiek delako printzipio nagusi haren menpean egon behar dutelako eta haren esanetara ez daudenak sistemaren barne orekatik kanpo geratzen direlako.

Oinarrizko ideia honen nagusitasunak, beraz, jatorrizko foru manuak aukeratzeko erabateko erizpidea ematen du eta horrexegatik onartzen ditu Legeak batera eta ohore guztiak dituztela mendeetan zehar Herrialde antolamenduaren benetako politikaren menpe izan diren erakunde horiek, berauetariko batzuren barneko egituraketan beharrezko garapen teknikoak, hala nola, foru deiak sortzera mugatuz edo eta, beste batzu, oinordetza ordeinadun zein testamentu-

gabean gertatzen den bezala, Kodean egiten den gai beraren foru sistematizazioari egokituz.

Erizpide berbera aplikatuz, alde batera uzten dira Foruaren printzipio sortzaileen araberakoak ez diren erakundeak, honela laga egiten delarik testamentu amankomunatua eta Kode Zibilpean jartzen direlarik dohaintzen ezeztapena, preskripzioa eta lursailen arteko distantziak.

Laudio eta Aramaio forugune arabarretan, Bizkaiko zuzenbideak duen dudagabeko indarrak ez du eskumen arazorik sortzen, Zuzenbide pribatuaren eremua nahikoa ezarrita dagoelako, Bizkaiko zuzenbide zibil bereziak, egun ere, bere indar osoa gordetzen dueneko bi udal mugarteetako muga administratiboen alboan.

Era berean, Aiarako Forua gaur egun indarrean izatea onartuz, Bilduma, beraren tradiziozko ezarpen lurraldean lekutzera eta, hasierako foru testuaren isiltasuna, Aiarako erabateko testamentu askatasuna eta nahitaezko jaraunsleen seniparte eskubide zilegierazleak bateragarri egiten dituen formula batez ordezkatzera mugatzen da. Aiaratarrentzako ondasunak erabiltzeko askatasun zabal honen onarpenak, bere-berea duen «gozamen poderosoa» deituriko Foru erakundea mantentzea suposatzen du.

Foru Erakundeen ikuspegia osotzeko eta erregimen juridiko orokorraren barnean kokatzeko, Kode Zibilaren indarra aldarrikatzen da zuzenbide osatzaile eta ordezkatzaile bakartzat, hots, Bilduman bildu gabeko gaietan zuzenean eta lehen mailan aplikagarri den zuzenbide osagarri bakarra eta bildutakoetan ordezkatzaile bakarra dena, zeren testamentu amankomunatua indargabetua eta komisari bidezko testamentuei dagozkien Toro-ko 31 eta 38. Legeetako aginduak hirugarren tituluan artikulatuak izan ondoren ez baitago Gaztelako zuzenbide klasikora jo beharrik.

Ondorioz eta Espainiako Korteek egindako proposamenarekin ados izanik, honako hau xedatu dut:

LEHEN LIBURUA

Bizkaian apligarriak diren xedapenak

LEHEN TITULUA

Bizkaiko zuzenbide zibilaren herrialde aplikazioa

1. artikulua. Lege honetako Lehen Liburuaren xedapenek Bizkaiko Infanzonatuan edo Lur Lauean izango dira aginduzko.

2. artikulua. Bizkaiko Infanzonatu edo Lur Lauaren izenduraz gaur egungo Bizkaiko probintziak hartzen duen lurralde osoa izendatzen da, salbu Bermeo, Durango, Ermua, Gernika eta Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina, Otxandio, Ondarroa, Portugalete, Plentzia eta Balmaseda hamabi hiriak, Urduñako ziutatea eta Bilboko udal mugarte osoa.

Salbuetsitako lurralde honetan Kode Zibila izango da aginduzko.

3. artikulua. Aurreko artikuluan zerrendatutako hamabi hiri forugabeei dagokien izendurak beraien hiriguneetako egungo edo etorkizuneko perimetroko lurralde osoa hartzen du barru.

Hamabi hiri forugabeetako hiriguneen alboko soro-landa eta lurrak, menpekotasunez zein xedez beraiei erantsitzat joko dira eta, ondorioz, Kode Zibila izango dute aginduzko, baserri batetako atalak izanik, beraren nekazal ustiategiaren batasunari Iotuak ez badira, behintzat.

Hamabi hiri forugabeetako hiriguneei erantsitzat eta, baita ere, Kode Zibilaren aginduzkotzat joko dira:

a) Beraien udal mugarteetan kokaturiko eraikuntza eta lurguneak, ustiategi industrialera zein berez baserriko erabilera edo ekintza ez direnetara zuzendutakoak edo eta baserri bateko lursailak ez direnak.

b) Egungo nahiz etorkizuneko lurzoruaren gaineko legeriaren arabera, ofizialki onartutako urbanizazio planek joak izanik, beraien udal mugartean lekuturiko lurguneak.

Aurreko erregelak aplikagarri izango zaizkio Urduñako ziutateari ere.

4. artikulua. Bizkaiko udal mugarteetako mugen aldaketa administratiboek ez dute lurralde ukituei dagokien zuzenbide zibil aplikagarria aldaeraziko.

5. artikulua. Bizkaiko eta bizkaitarrentzako estatutu pertsonal, erreal eta formalaren ondorioak eta legeria zibil desberdinetako gainerako espainiar lurraldeenganako duten bizkaitartasuna, Kode Zibilaren Atariko Tituluko arauen eta kideko xedapen bidez edo eta etorkizunean gai hau aginduzko izango duten lege orokorrez arautuko dira.

Tokiko auzotartasuna, hiritartasuna eta auzotartasun zibilaren arau orokorren bitartez zehaztuko da.

BIGARREN TITULUA

Oinetxekotasuna

6. artikulua. Ahaidetasuneko oinetxekotasuna, beti, Infanzonatuan lekuturiko onibar bati dagokionean zehazten da. Ondorio horretarako onibar dira:

1. Kode Zibilaren 334. artikuluaren lehenengo zenbakitik zazpigarren zenbakirainokoak.

2. Elizetako hilobiak.

7. *artikulua.* Senide oinetxekotar dira:

1. Beheranzko lerroan, legezko seme-alaba guztiak, ezkontzaren ondorioz legeztatuak zein gainerako legezko ondorengoak. Hauek falta direnean, odoleko semealabak eta Estatuko Buruzagiaren emakidaren bidez legeztatuak eta batzuen zein besteen legezko ondorengoak horrelakotzat aitortu dituen aita-amarekiko.

2. Goranzkoan, delako onibarrak jatorri dueneko aitaren edo amaren lerroko legezko aurrekoak.

3. Bizirik dirauten aita edo ama ere izango dira, Lege honen 36. artikuluan ezartzen den erreserbaren kalterik gabe, berek ezkon-

tza bitartean erosi edo irabazitako eta aurrehildako ezkontidearengandik ezkontzan edukitako seme-alabengandik jarauntsitako ondasunekiko.

4. Albokoan, delako onibarrak jatorri dueneko aitaren edo amaren lerroaren legezko senideak.

8. artikulua. Beheranzko lerroan, ahaidetasun oinetxetarra luzatu egiten da, edozein delarik iristen deneko maila.

Goranzkoan, ahaidetasun oinetxetarra onibarra lehen aldiz eduki zuen aurrekoan bukatzen da, oinetxekotarra ez den oinordetzan beraren aurrekoek dituzten eskubideen kaltetan izan gabe.

Albokoan odolkidetasunezko laugarren maila zibileraino iristen da, hau ere barne delarik

9. artikulua. Oinetxetartzat hartzen dira:

1. Beheranzko lerroari dagokionean, Infanzonatuan lekuturiko onibar guztiak, jarauntsiak zein erosiak, arrotzengandik eskuratuak izan badira ere.

2. Aurreko nahiz alboko lerroei dagokienean, oinordekoaren eta oinordetza kausatzailearen oin amankomunarenak izan diren Infanzonatuan lekuturiko onibar guztiak, azken honek senide oinetxetarrengandik eskuratuak izan direnak ere barru direla. Behar denean «oinordeko» eta «kausatzaile» hitzak «erosle» eta «saltzaile» hitzen bidez ordezkatuko dira.

3. Infanzontuan kokaturikoak direlarik, oinetxetarrak diren ondasunen eta horrelakoak ez direnen arteko trukaketa bidez eskuratuak.

10. artikulua. Bizkaitarrek Bizkaiko Foru Herrialdetik kanpoko beste batetan bizi badira ere, senide oinetxekotarrak edukiz gero, haien alde bakarrik erabil ditzakete ondasun oinetxetarrak «inter vivos» zein «mortis causa» dohainezko titulu bidez.

11. artikulua. Ondasunean oinordekoaren izendapena, direla oinetxekotarrak edo ez, testamentu, ezkontza kontratu, ezkontsari-eskritura edo dohaintzaren bidez egin beharko da.

12. artikulua. Baserri baten dohainezko eskualdaketak, kontrako xedapenik ez denean, beraren lursailekin batera, barnean dituen altzariak, abereak eta laborantzarako tresnak barruhartzen ditu.

HIRUGARREN TITULUA

Testamentu motak

13. artikulua. Kode Zibilak arauturiko testamentu egikera ezberdinez gainera Infanzonatuan «Hil-buruko» testamentua eta «botere testamentugile» ere deitua den komisariaren bidezko testamentua onartzen dira.

LEHEN KAPITULUA

«Hil-buruko» testamentua

14. artikulua. Herritik eta Notari publikoaren egoitzatik urrun hilzorian dagoenak hiru lekukoen aurrean testamentua egiletsi ahal izango du, idatziz zein ahoz.

Testamentu honen balioa, Auzibide Zibilari buruzko Legearen III. Liburuko VI. Tituluan berau kautotzeko formalitateak betetzearen menpean gelditukо da.

BIGARREN KAPITULUA

Komisariaren bidezko testamentua

15. artikulua. Testamentu egileak bere oinordekoaren izendapena, bere ondasunen banaketa eta hauek oinordetzazko eskualdaketari buruz dagozkion ahalmenak, komisari baten zein batzuren eskuetan utz ditzake.

16. artikulua. Komisariaren izendapena Notariaren aurrean eginiko testamentuan bakarrik egin daiteke. Ezkontideek elkar izenda ditzateke komisari ezkontz kontratuaren eskrituran.

17. artikulua. Komisariak testamentuan egilesleak xedatutakoaren eredura ihardungo du bere karguan eta halakorik ez dagoenean, Lege honen arabera testamentu egileari dagozkion ahalmenak edukiko ditu.

Komisariak ezin izango du Komisio-emailearen testamentua, osoro zein zatiriko, ezeztatu honek ez badu horretarako bereziki baimentzen.

18. artikulua. Komisariek, testamentutik besterik ateratzen ez bada, beren eginkizunak amankomunzki beteko dituzte. Erabakiak bizirik dirauten komisarien arteko gehiengoz hartuko dira eta berdinketaren kasuan lehenengo izendaturikoak ebatziko du. Edozein komisariren berarizko ahalmenak beraren heriotzaz amaitzen dira. Komisari kargua, edozein kasutan ere, dohainezkoa da eta beraren ahalmenak amankomunatuak nahiz solidarioak, norberezkoak eta eskualdaezinak dira.

19. artikulua. Komisariak bere egitekoa egintza batetan formalizatuko du, oinordeko guztiak adin nagusikoak badira; baina haietariko bat edo haiek guztiak horrelakoak ez balira, egilespen batetan edo batzutan egin ahal izango du, haiek ezkondu edo adin nagusiko egiten diren adinean.

Testamentu egileak epea jar diezaioke komisariari bere eginkizuna burutzeko. Epea jartzen ez dionean, urtebetekoa izango da, testamentu egilearen heriotzatik edo eta, kasua denean, ustezko oinordekoetariko gazteena ezkondu edo adin nagusiko egiten denetik zenbatuko delarik.

Testamentuzko boterearen erabileran komisariak egiletsitako xedapenak ezeztaezinak izango dira.

20. artikulua. Komisariak bere testamentuzko boterea «inter vivos» edo ondorio bakar horretarako egiletsitako testamentuaren bidez erabil dezake, bertan bere ondasunik erabil ez dezanean. Hala ere,

bizirik dirauen ezkontideak aurre-hildakoak berari emandako testamentuzko boterea, osoro zein zatikiro, erabili ahal izango du, beti ere bi ezkontideen seme-alaba edo ondorengo erkideei bakarrik dagokienean.

LAUGARREN TITULUA

Testamentuzko oinordetza

21. artikulua. Legezko edo nahitaezko jaraunspena testamentu egilearen ondasun guztien lau bostenez osatuta dago. Gainerako bostena erabilera askekoa da.

22. artikulua. Nahitaezko jaraunspena honako mailakatze honen bidez burutzen da:

1. Legezko seme-alaba eta ondorengo legezkoei, beren legezko ondorengotzaren aldeko ordezkapen eskubidea dutela.

2. Odoleko seme-alaba aitortuei eta Estatuko Buruzagiaren emakidaren bidez legeztatuei, legezko ondorengotzaren aldeko ordezkapen eskubidea izango dutela.

3. Legezko guraso eta aurrekoei.

4. Albokide oinetxetarrei beren lerroko ondasun oinetxetarrei dagokienean.

Honelako nahitaezko oinordekorik ez denean, ondasun guztiak, direla oinetxetarrak edo ez, erabilera askekoak izango dira.

23. artikulua. Testamentu egileak askatasun osoz bana dezake nahitaezko jaraunspena, aurreko artikuluaren lerro bakoitzean sarturiko oinordekoen artean edo eta haietariko bakar bat, besteak baztertuz hautatu.

Artikulu horretako bat, bi eta hiru zenbakietan sarturikoak bazterketa formula berezirik gabe albora daitezke, testamentu egileak bere jaraunspenetik baztertzeko duen gogoa argi egonez gero.

Laugarren zenbakian sarturikoen bazterketa esanbidezkoa edo isilezkoa izan daiteke, isilaren bidez batertutzat ematen direlarik beren aldeko izendapenik izan ez dutenak.

24. artikulua. Lerro bakoitzaren aurreko oinetxetarrek, ondasunak oinetxetarrak direnean, bakoitzaren lerrotik datozenak jarauntsiko dituzte 7. artikuluko 3. zenbakian xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

Bi lerro horietako batetan aurreko oinetxetarrik izaten ez denean, ondasun oinetxetarrak, alboko oinetxetarrek jarauntsiko dituzte hurbiltasun mailako ordenaren arabera.

25. artikulua. Legezko guraso eta aurrekoek oinetxetarrak ez diren ondasunak erdi bana jarauntsiko dituzte lerro bien artean, edozein delarik bataren zein bestearen hurbiltasun maila. Haietariko batetan horrelakoak ez direnean beste lerrokoek jarauntsiko dituzte.

26. artikulua. Ezkontide alargunak erabilera askeko ondasunen erdiaren gozamena edukiko du, seme-alaba edo ondorengo legezkoekin batera gertatzen ez denean.

27. artikulua. Seme-alaba, ondorengo edo aurreko legezkoei ezin izango zaie ondasunen bostetik gorakoa den ordezpen edo zamarik inposatu, nahitaezko oinordekoen alde denean izan ezik.

Era berean, ezin izango da ordezpen edo zamarik ondasun oinetxetarren gainean inposatu, beste oinordeko oinetxetar baten alde ez bada.

28. artikulua. Testamentu egileak, seme-alabak, ondorengoak edo eta aurrekoak, guztiak legezkoak direla, eduki ditzanean, erabilera askeko bostena, zorren kenketa egin osteko ondasun jaraunsgarrien balioa kontutan hartuz, zenbatuko da; baina ezofiziosoa izango da ondasun ez-oinetxekotarren balioak gainezkatzen duen erabilera.

Kausatzailearen zorrak ondasun higigarrien eta onibar ez-oinetxetarren zenbatekoaz ordainduko dira eta batzuen eta besteen eza denean bakarrik erantzungo dute lerro bakoitzaren ondasun eta onibar oinetxekotarrek, bakoitzaren zenbatekoaren proportzioan.

29. artikulua. Arimaren aldeko bostenaren legatua, zorren kenketa egin eta gero, ondasun guztien balioa kontuan hartuz zenbatuko da, baina lehenengo eta behin ondasun higigarri eta onibar ez oinetxetarretatik aterako da. Ondasun hauen kopurua legatuarena betetzeko ainakoa ez denean, onibar oinetxetarretara joko da, falta dena, kausatzailearen bi lerroetatik, beren kopuruaren proportzioan, ateratzeko.

«Animaren aldeko legatua» esamoldean sartutzat ulertzen dira testamentu egileari pietatezko agindu guztiak, horrela, mezak, pobreentzako erremusinak, Onegintza Etxeentzako legatuak eta horrelakoen antzeko helburuak dituztenak.

30. artikulua. Oinordetza, ezkontz kontratu, ezkontsari eskritura edo dohaintzaz gauza dadinean, bazterketa 23. artikuluan ezarritako moduan egin beharko da.

BOSTGARREN TITULUA

«Ab intestato» oinordetza

31. artikulua. Testamenturik gabeko oinordetza jarraiko ordenaren arabera burutuko da:

1. Legezko seme-alabei eskubide propioz eta gainerako ondorengo legezkoei ordezkapen eskubidez.

2. Odoleko seme-alabatzat aitortuei eta Estatuko Buruzagiaren emakidaz legeztatuei eskubide propioz eta beren ondorengo legezkoei ordezkapen eskubidez.

Ordezkapen eskubidea beheranzko lerro zuzenean bakarrik gertatzen da.

32. artikulua. Aurreko artikuluan aipaturiko oinordekorik ez denean, oinordetza honela ordenatuko da:

a) Aitaren zein amaren lerro bakoitzeko ondasun oinetxetarrak, beren jatorriaren arabera, lerroko aurreko oinetxetarrentzat izango dira, 7. artikuluaren 3. zenbakiak ezkontza bitartean zein ira-

bazitakoei buruz xedatutakoaren kaltetan izango ez dela. Lerro batetan aurreko oinetxetarrik ez dagoenean, ondasunak bertako alboko oinetxetarrentzat izango dira. Lerroen batetan alboko oinetxetarrik izango ezbalitz, ondasun oinetxetarrek galdu egingo lukete izaera hori.

b) Ondasun ez-oinetxetarrak zati berdinetan banatuko dira legezko aurrekoen bi lerroen artean, edozein delarik lerro bateko zein besteko aurrekoen hurbiltasun maila. Haietariko batetan legezko aurrekorik ez dagoenean, ondasun guztiak aurrekoak dituen lerroko aurrekoentzat izango dira. Batetan ere ez dagoenean, erdi bana banatuko dira albokide legezkoen lerro bien artean, edozein delarik bateko zein besteko senideen hurbiltasuna.

Bietatik batetan albokide legezkorik ez dagoenean bakarrik igaroko dira albokideak dituen lerrokoengana.

33. artikulua. Goranzko eta alboko lerroetan, aitarenean zein amarenean, senide hurbilenak mailak urrunagokoa baztertzen du. Lehentasun mailako senideak hainbat badira, ondasunak beraien artean zati berdinetan banatuko dira eta lotura bikoitzeko nebaarrebek, lotura soilekoekin batera egoten badira, hauen zatia bikoiztuta jarauntsiko dute.

34. artikulua. Ezkontide alarguna, senide oinetxekotarrik ez dagoenean, testamenturik gabeko ondasun oinetxekotarren oinordetzara deitua izango da; ondasun ez-oinetxekotarretan, neba-arreben eta neba-arreben seme-alaben ostean.

Beste kasuetan, seme-alaba edo ondorengo legezkoak ez diren oinordekoekin partehartzen duenean, testamentuzko ondorengotzan erabilera askekoak izango liratekeen ondasunen erdiaren gozamena.

SEIGARREN TITULUA

Oinordetza testamentudun eta testamentugabeei zein dohaintzei buruzko baterako xedapenak

35. artikulua. Infanzonatuan Kode Zibilaren 811. eta 812. artikuluak dira aginduzko, 7. artikuluaren 3. zenbakiari dagokion ondasunen oinordetza oinetxetarraren kaltetan izan gabe.

36. artikulua. Legearen aginduz edo borondatezko jaraunspenez, seme-alaba batengandik, honek aitarengandik edo amarengandik jaruntsitako onibar oinetxekotarrak eskuratzen dituen aitak edo amak, geroko ezkontzarik burutzen badu, ondasun horiek, hildako seme-alabaren lotura bikoitzeko neba-arreba edo beraien seme-alaba edo legezko ondorengoentzat, kasua denaren arabera, erreserbatu beharra edukiko du, geroko ezkontzaren ondorengoak baztertuak geratuko direla.

37. artikulua. Geroko ezkontzarik burutzen duen alargunak, aurreko ezkontzako seme-alaba edo ondorengo legezkoen alde erreserbatu behar ditu, hildako ezkontidearen lerrotik komunikazioaren bidez eskuraturiko onibarrak. Halakorik ez dagoenean, ondorengotza, ondasun horiek jatorria duten lerroko oinordeko oinetxetarrek izango dute.

Bi kasuetarik edozeinetan, bi aldiz ezkondutako ezkontideak oinordekoak izenda ditzeke holako ondasunen ondorengotzara deituriko pertsonen artean testamentuzko oinordetzarako ezarritako moduan.

38. artikulua. Ezkontza batentzako, burutua izan aurretik zein ostetik, dohaindu edo ezkontsaritzat emandako onibarretan, beretik izandako seme-alaba edo ondorengo legezkoek oinordetuko dute, geroko ezkontzan berriro ezkondutako ezkontideak eduki dezakeen ondorengotza baztertuz. Dohaintza-hartzaileak halakoen artean ondasun haien oinordekoa izendatu ahal izango du eta ezingo ditu beraien gainean ordezpen edo zamak ezarri, oinordetzara deitutako seme-alaba edo ondorengoen alde izan ezik.

Oinordetzak, edonola ere, berriro ezkondutakoak egindako eraikuntza, landaketa edo hobekuntzak barruhartzen ditu, berari halakoen kopuru erdia ordaindu beharko zaiolarik beraren edukitzan sartu diren egunetik zenbatuko den urtebete eta egunaren barruan.

39. artikulua. Dohaintzailearengana itzuliko dira elikatzeko zama gisa beraren ondorengo bati dohaindutako ondasunak, berau, hark bizirik dirauela, seme-alaba edo ondorengo legezkorik utzi gabe hiltzen denean.

Dohaintza-hartzaileak ezin izango ditu dohaintzailearen bizitza bitartean, dohainezko ondasunak, dela «inter vivos», dela «mortis causa» besterenganatu, zamatu edo erabili, dohainezko tituluaren bidez bere seme-alaba edo legezko ondorengoen alde denean izan ezik.

40. artikulua. Ezkontzaren bidez legezturiko seme-alabak, oinordetza testamentudunean zein testamentugabea, legezkoek dituzten bezainbesteko eskubideak izango dituzte.

ZAZPIGARREN TITULUA

Ezkontzaren ondasun erregimena eta foru erkidegoa

41. artikulua. Ezkontzaren ondasun erregimena, hura burutu eta gero, aldaezina da, senarrari bizkaitar infanzoi izaeraren galera zein eskuraketa borondatez edo borondaterik gabe gertatu bazaio ere.

42. artikulua. Ondasunen gaineko kontraturik ez denean, ezkontza burutzerakoan senarra bizkaitar infanzoia bada, ezkontza hori ondasunen Foru Komunikazio erregimenaren pean egina izan dela ulertuko da.

43. artikulua. Foru Komunikazioaren bidez erdi bana erkideratuko dira, senaremazteen arteko ondasun guztiak, direla higigarriak zein onibarrak, edonolakoa dutelarik beren jatorria, edozein tituluz batena zein bestearenak direlarik, ezkontza bitartean eskuratu zein erakarriak eta edozein delarik aurkitzen direneko lekua.

44. artikulua. Foru Komunikazioak ez du ukatzen ezkontza bitartean irabazpidezko ondasunak izatea, Kode Zibilaren arabera horrelakotzat joko direlarik izaera hori merezi dutenak.

45. artikulua. Foru komunikazioan, onibar komunikatuetan eta ezkontza bitartean eginiko besterenganaketa edo zamaketa egintzek, bi ezkontideen adostasuna beharko dute.

Ondasun higigarrien besterenganaketa Kode Zibilak arautuko du.

46. artikulua. Senar-emazteen ondasunen administrazioak Kode Zibila izango du aginduzko.

Bestearen baimenik gabe, ezkontide batek harturiko zor eta betebeharrak, bakarrik betebehar peko denaren erdiaren kontura izango dira, hura horren ondorioz saldua izango balitz, bere zor edo betebeharra dela eta salmentabide izan zen ezkontideak ez luke, ezkontza bitartean, gainerako erdian zatirik izango, ezingo lukeela azken hau beste ezkontideak besterenganatu eta familiaren elikadurarako utzi beharko litzatekeela.

47. artikulua. Ezkontza seme-alabak dituela desegiten denean, iraun egingo du Foru komunikazioak, alargunaren eta aurre-hildakoaren oinordekoak diren seme-alaba edo ondorengoen artean, ondasun komunikatuen banaketa eta esleipena egin dadin arte.

Gurasoek beren adin txikiko seme-alabei esleitutako ondasunen gozamena eta administrazioa edukiko dituzte Kode Zibilaren arabera.

48. artikulua. Aurre-hildako ezkontideak oinordekoa izendatzea komisariari agindu dionean, ondasunek «pro indiviso» iraungo dute, hark izendapena egin arte. Ondasunak egoera horretan dirauten artean ezkontide alarguna izango da jaraunspeneko ondasuntza osoaren ordezkatzailea eta administratzailea.

49. artikulua. Ezkontza seme-alabarik gabe desegiten denean, bukatu egingo da Foru Komunikazioa eta ondoko erregela hauen eredura jokatuko da:

1. Irabazpidezkoak ez diren ondasunak, jabea duten ezkontidearengana edo honen ondorengoengana bihurtuko dira.

2. Irabazpidezkoak diren ondasunak Kode Zibilaren arabera banatuko dira.

3. Aurre-hildakoaren baserrira etorritakoa den ezkontide alargunak egoera horretan irauten duen bitartean bertan jarraitzeko eskubidea edukiko du eta bereak izandakoen gozamenaren erdiaz gozatzeko eskubidea urtebete eta egun batez, gozamen hori 26. eta 34. artikuluetan ezarritakoarekin bateragarri izango delarik.

4. Ezkontide alargunak ezkontsaririk edo bestelako aportaziorik ekarria badu, aurreko erregelan ezarritako epea luzatu egingo da, hildakoaren oinordekoek, hura berari berriz itzultzeko egiten duten denbora osoz, edozein unetan, aipaturiko urtebetea eta eguna igaro eta gero haiei erreklamatzeko duen eskubidearen kaltetan izan gabe.

5. Ondasun onibar oinetxetarren erosketak eta hobekuntzak, beraien jatorria duten lerroaren ezkontidearentzat edo bere oinordeko oinetxetarrentzat izango dira, nolanahi ere, ezkontz sozietatearen likidazioan, bizi den ezkontiderari dagokion edukina ordaintzeko, eginiko erosketa edo hobekuntzen kopurua kontutan hartuko delarik.

Erregela honetan xedatutakoa ondoriorik gabe gera daiteke, alarguna hil arte, beroni erdia libreki gozatzeko eta disfrutatzeko eskubidea aitortzen bait zaio bere bizitzako egunetan.

50. artikulua. Ondasun komunikatuen esleipenean ondoko erregela hauek beteko dira:

1. Lehenik, ezkontide alargunari, bereak dituen hartzekoak ordaintzeko, bere jatorrizko onibar oinetxetarrak esleituko zaizkio.

2. Hauek nahikoak ez balira, falta liratekeen ondasun higigarri eta onibar ezoinetxetarren bidez beteko litzateke.

3. Aurreko bi erregeletako ondasunak nahikoak ez direnean bakarrik joko da hildako ezkontidearen onibar oinetxetarrera.

Ezkontide alargunaren hartzekoa zehazteko, 46. artikuluko 2. lerroaldean xedatutakoa hartuko da aintzakotzat.

ZORTZIGARREN TITULUA

Ondasun oinetxetarren besterenganaketa

51. artikulua. Senide oinetxekotarrek, 7. artikulo ordena zein onibarrarenganako hurbiltasun mailaren arabera, beren lerroetako ondasunak eskuratzeko lehentasun eskubidea dute, ondasun horien besterenganaketa kostubidezko tituluaren bidez egin nahi denean, eskubide hori besterenganaketa-gai diren ondasun guztien edo batzuren gainean erabili ahal izango delarik.

Eskubide hau erabiltzera maila bereko hainbat senidek joko balute, lehentasuna, onibarra dagoen herrian ondasun higiezinetan hedadura gutxien duenak izango luke.

52. artikulua. Ondasun oinetxekotarren salmenta, jendaurrean, ondasun horien gainean Eliz eskumena duen parrokiako elizako atean domeka batetako meza nagusi orduan jarriko den ediktu baten bidez iragarriko da. Agerian egongo da beraren ezarpen egunetik kontatuko diren hamabost egunetan zehar, berau ediktuaren oinean lekuko Parrokoak ezarritako ziurtagiriaren bidez benetakotua izan daitekeelarik.

Ediktuak salmentaren salneurria, besterenganaketaren baldintzak eta berau egiletsi behar duen notaria adieraziko ditu.

53. artikulua. Onibarra eskuratu nahi duen oinetxetarra, ediktuan esandako epearen barruan, bertan izendaturiko notariarengana aurkeztuko da beraren eskuetan, fidantza gisa, iragarritako salneurriaren ehuneko hamarraren gordailua eginez.

Egintza berean adierazko du, salneurria eta iragarritako baldintzak onartzen dituen ala finka bere berberezko balioztapenaren bidez eskuratzea hautatzen duen. Erabaki hau hurrengo hiru egunen barruan jakineraziko dio Notariak saltzaileari.

Oinetxetarrak iragarritako salneurrian eskuratzea hautatuko balu, hurrengo bost egunen barruan egiletsiko da eskritura. Bidezko balioztapenaren aldeko aukera egiten denean berau jartzeko, bi alderdiak, beren gizon onen laguntza dakartela, epe berberaren barruan agertuko dira notariaren aurrean. Desadostasunik ez denean, alderdiek egintza berean izendatutako gainontzeko batek erabakiko du eta, haiek ez badira pertsonari buruz ados jartzen, hiru izen sartuko dira zorro batetan, ahal den neurrian lur kontribuzioa ordaintzen duten lekuetakoak direla, zorteak izendatzen duena aukeratuko dela eta eskritura hurrengo bost egunen barruan egiletsiko delarik.

54. artikulua. Ediktuan ezarritako epearen barruan dei oinetxetarretara eskuratzeko legebideztatua den oinetxetarrik etorriko ez balitz, jabeak askatasun osoa izango luke iragarritako baldintzetan onibarra gainontzeko bati saltzeko.

55. artikulua. Ediktua jarria izatea, hura idatziko deneko notari aktaren bidez agerteraziko da eta jarraiko eginbideetan 53. artikuluan aipatzen diren notari egintzak jakineraziko dira.

56. artikulua. Ondasun oinetxekotarren gaineko edozein eskrituratan Foru deia egina izan den ala ez jarriko da, lehen kasuan ediktua jarria izateari buruzko akta eta jarraiko eginbideei aipamen zehatza eginez eta dagokion erregistro inskripzioan dei hori legezko eran egina izan den ala ez agerteraziko delarik.

57. artikulua. Onibar oinetxetarra deirik gabe edo eta deia egina izan arren salmenta ediktuan ezarritako salneurri edo eta baldintza ezberdinetan saldua izan denean, eskuratzeko legebideztatuak diren senide oinetxetarrek, Jabetza Erregistroaren inskripzio egunetik edo eta, kasua denean, salmentaren ezagupidea edukitzen dutenetik zenbatuko den urtebetearen barruan, hura epaibidez baliogabe uztea zein onibar saldua, perizialki prozedura berean eta hurrengo artikuluan ezartzen den moduan ezarritako bidezko balorazioan beraiei esleitzea eskatu ahal izango dute.

58. artikulua. Hipoteka beterazpenean eta onibar oinetxetarren kontra auzibidetzen delako balorazio jarrita agertzen deneko beste kasu guztietan, senide oinetxetarrek, ondasun horiek baloratuak dauden salneurrian eskuratzeko gogoa adierazteko enkantera agertzeko eskubidea izango dute.

Balorazio hori agertzen ez den premiamenduzko bestelako kasuetan, alderdi bakoitzak bana izendatuak izango diren bi perituk jarriko dute edo eta, ados izango ez balira, ahal den neurrian onibarrak daudeneko udal mugartean lur kontribuzioa ordaintzen dutenen artean, zaku batetan sarturiko hiru izenen artean zortez aukeratutako gainontzeko batek jarria izango da.

Epaiketaz kanpoko prozeduran onibarren balorazioa 53. artikuluaren azken lerroaldean ezarritako moduan egingo da.

59. artikulua. Titulu honetan salerosketarako xedatutakoa, ondasun oinetxetarren kostubidezko edozein eskualdaketari aplikatuko zaio baita oinetxetarra den finkaren bat horrelakoa ez den beste baten ordez trukatzean gertatzen diren trukaketa tituluei ere.

BIGARREN LIBURUA

Araban aplikagarriak diren xedapenak

LEHEN TITULUA

Laudio eta Aramaioko zuzenbide zibilaren lurralde aplikazioa

60. artikulua. Laudio eta Aramaioko udal mugarteetan ere aginduzko da Lehen Liburua, Lehen Tituluko, 1, 2 eta 3. artikuluak izan ezik.

BIGARREN TITULUA

Aiara lurraldeko legeria zibila

61. artikulua. Aiara lurraldeak Aiara, Amurrio, Lezama eta Okendo udal mugarteak, eta Artzeniegako udal mugarteko Mendieta, Retes

de Tudela, Santa Koloma eta Sojoguti herriak barruhartzen ditu, bertako hiria eta baserritalgoa kanpo direla.

62. artikulua. Aiaratarrek, Aiarako Foruaren arabera, ondasun guztiak zein haien zatiak, testamentuz, agintzaz nahiz dohaintzaz, titulu orokorrez edo bereziz erabil ditzateke, beti ere, beren legezko oinordekoak, gutxi zein askorekin, nahi izan edo ontzat jotzen dutenarekin bazter ditzatenean. Legezko oinordekotzat, Kode Zibilaren arabera nahitaezkoak direnak ulertzen dira.

63. artikulua. Izendatua edo eta zerbaitekin espreski baztertua izan ez den legezko oinordekoak, bere senipartea erreklama dezake, baina oinordekoak izendatzea eta gainerako testamentuzko erabakiak, legezko seniparte honen kaltetan diren adinean bakarrik ezereztuko dira, halakotzat seniparte luzea deiturikoa dela ulertzen delarik.

AZKEN XEDAPENAK

1. Bizkaiko eta Aiarako Foruen xedapen zibil guztiak, bilduma honetan daudenen bidez ordezkatuak gelditzen dira.

2. Lege honetan aurrikusiak izan ez direnetan eta beraren aurka ez doazen adinean, Bizkaiko Infanzonatuan eta Arabako Foru Herrialdean, Kode Zibila eta berak indarrean direla aitortzen dituen Legeak aplikatuko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

1. Aurreko legeriaren pean eskuraturiko eskubide guztiak errespetatuko dira, bizirik aitortzen direlarik eta beraien ondorioak hark xedatutakoaren arabera sortuko dituztelarik.

2. Lege hau indarrean jartzen den unetik, 2. artikuluan zuzenbide arrunta zabaltzen den Bilboko udal mugarteko aldeko biztanleek, delako egitatearen bidez zuzenbide arrunteko auzotartasuna irabaziko dute, hala ere, berau indarrean sartu baino lehenago haiek burututako edo egiletsitako egintza edo kontratuak, ordurarte

indarrean zegoen Legearen araberakoak izanez gero, baliozkoak izango direla eta halakoan beren ondorio guztiak sorteraziko dituztela.

3. Honako Eranskin honen argitarapenak sor ditzakeen zuzenbide iragankorreko arazoak Kode Zibilaren xedapen iragankorren arabera konponduko dira.

El Pardo-ko Jauregian, 1959.eko Uztailaren 30ean emana.

III

EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO XEDAPEN OROKORRAK

III.1

Epailaren 18ko 6/1988 LEGEA, Foruzko Herri-Legea zati baten aldatzezkoa

[EHAA, 70. zk. 1988, apirilaren 12. Hutsen zuzenketa
EHAA, 102. zk. 1988 maiatzaren 27koa]

LEHENDAKARITZA

801

Epailaren 18ko 6/1988 LEGEA, Foruzko Herri-Legea zati baten aldatzezkoa.

Euskadiko hiritar guztiei zera jakin erazten zaie: Eusko Legebiltzarrak, Foruzko Herri-Legea zati batean aldatzeari buruzko 6/1988 Legea onartu duela. Ondorioz, Euskadiko hiritar, partikular eta agintari guztiei, Lege horri men egiteko eta men eginerazteko agintzen diet.

Gasteiz, 1988.eko Martxoak 28.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

ZIOEN ADIERAZPENA

Euskal Herriko Autonomia-Estatutuko 10.5 atalak, Konstituzioko 149, 1.8 atalari eta erabaki gehigarrietako lehenengoari datxekiela, Autonomia Elkarteari, honek bere-bere izan duen idatzizko eta aintzinatikako herri-alorreko foru-legepideak osatu, eguneratu eta aldatzeko agintepideak ematen dizkio.

Herri-alorreko foruzko legepidetza hori eguneratzeko, osabideratzeko eta aldatzeko, herri-alorreko erakunde ezberdinen erapidetza eta sortarauen sorburuei buruzko ikerkuntza eta hausnarketa-bideak egin, legepidetza hori gaur egungo gizarterako eta indarra izango duteneko lurralde-eremurako egokitu beharra dago; lan horretan Eusko Legebiltzarra lehenengo aldian Bizkaiko foru-legepidetzarekikoak egiten hasia bada ere, gaiaren korapilotsua dela oraindik luzerako lana izango bait da.

Lege honen aldi-egokitasuna bidezko egiten duten bakarrak ez dira Bizkaiko zuzenbidea, 1959garrenetik hona bederen, aurkitzen deneko bere horretantxe egonezko eta gaurkotasunik gabeko egoera, ez eta bizkaitarrek zenbait gaitan, hona nola, ezkontideen ekonomia-

-jaurpidea aldatzeko askatasunarekikoan edo oinordekotarako seme-alaben berdinketa egitearekikoan, gainontzeko euskaldunen eretzean berez bereizkeriazkoak diren oztopoak kentzeko egiten duten gero eta haundiagoa den eskea ere. Guzti hori eraberriketari beste gabe ekiteko nahiko zuripide izanik ere, ba dira orain-oraingoak izan eta hori ez atzeratzera behartzeko xehapenak eta, hori, atzerapena zeharbidezko epai-erabakien bidez gauzatu dadin galerazteko.

Presako eta aldi-egokitasunezko arrazoi horiek egiten dute beharrezko lege hau, honen xedea ezkondu aurretiko nahiz ondorengo ezkontza-ituneak egiteko askatasunarekiko eta oinordekotzatarako ezkontzatikako eta ezkontzaz kanpoko seme-alaben berdintasunarekiko oinarri-irizpideak finkatzea delarik, salbuespenei buruzko gaur egungo araupeketari bere horretan eutsiz, eta osabideratzeko, eguneratzeko eta aldatzeko gaur egun aztergai diren Bizkaiko Foru-zuzenbideko gainontzeko alderdiak arriskuan jarri gabe.

Lehenengo atala.– Ezkontideen ekonomia-jaurpidea ezkontideek euren ezkontza aurretik nahiz ondoren egindako ezkontza-ituneetan askatasunez erabaki dezatena izango da.

Horren ezean, eta ondasunen jaurpidearekiko itunerik ez izanez gero, indarrean dauden foruzko legeetan esaten den eran eta baldintzetan, ondasunen foruzko adierazpen-jaurpidepean egindakotzat joko da ezkontza.

Izakizun baten nahiz bestean, ezkontideek eurek elkar hartuta ezkontza-ituneen bidez aldatu ahal izango da ezkontideen ekonomia-jaurpidea.

2. Atala.– Oinordekotzarako seme-alaben berdintasuna finkatzen da, haiek nahiz ezkontzatikakoak nahiz ezkontzatik kanpokoak izan.

Berdinketa honek ez du salbuespenen alorrean gaur egun indarrean dagoen araupeketa hartzen ez eta ikutzen ere.

BALIOGABETZEZKO ERABAKIA

Lege hau indarrean jartzean, hemen agin-dutakoaren aurkako diren arau guztiak baliogabetuta eta indarrik gabe geratuko dira.

802

Apirilaren 11ko 70/1988 DEKRETOA, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapenerako Sailburua egon ezean, Sail horren ardura eta Jaurlaritzaren Idazkari-egitekoak Lan eta Gizarte Segurantza-Sailburuak hartu ditzala erabakiz.

Jaurlaritzari buruzko Ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.1) atalak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

Juan Ramón Guevara Saleta Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapenerako Sailburu Jauna egon ezean, atzerrira joango bait da, eta itzuli artean, José Ignacio Arrieta Heras Lan eta Gizarte Segurantza-Sailburu Jaunak hartu ditzala Sail haren ardura eta Jaurlaritzaren Idazkari-egitekoak.

Gasteizen, 1988.eko Apirilak 11.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

LEHENDAKARITZA

1112

Epailaren 18ko 6/1988 LEGEA, Foruzko Herri-Legea zati baten aldatzezkoa.(Hutsen zuzenketa).

Apirilaren 12ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialeko 70. alean argitaratutako aipatu Legeko euskarazko testuan hutsak egin direla ohartuta, horri dagozkion zuzenketak egiten dira honen ondoren:

Honako hau dioenean: «ondasunen foruzko adierazpen-jaurpidepean»,

honako hau esan behar du: «elkarren jabetzapeko foruzko ondasun-jaurpidepean».

Honako hau dioenean: «salbuespenen»,

honako hau esan behar du: «gorde beharrekoen».

III.2.a

Uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa

[EHAA, 153. zk., 1992ko abuztuaren 7koa]

LEHENDAKARITZA

2144

3/1992 LEGEA, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

UZTAILAREN 1EKO 3/1992 LEGEA, EUSKAL HERRIKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKOA

Zioen Adierazpena

Foru-jaurpidea gain-behera joan izanak galerazi egin zion gure araudi zibilari legegintza-teknikak XIX. eta XX. mendeetan egindako aurrerapide sakonekin batera joatea eta, horregatik, Foru-Zuzenbideak berez dituen balio nabarmenak aintzinako moldez jantzita agertzen dira oraindik, moldeok eguneratzea beharrezkoa dela. Horrela jokatu zen Espainiako zuzenbide arruntarekin, berori berriztatu eta Kode Zibila eta geroko hainbat lege garatu bait ziren. Ez zen nahikoa, noski, biltze eta metaketa-lan hutsa, Zaragozako Biltzarrak horrela jokatu nahi izan bazuen ere. Ezinbestekoa zen, ordea, gaurregungo gizartearen teknika eta beharrizanei egokitzea.

Foru-legeek Felipe V.aren garaietatik, eta gure kasuan karlistadetatik, jasaten zituzten garapen-mugak gainditzea ekarri zuen 1978.eko Konstituzioak, bere 149.1.8 atalak ohartematen duenaren arauera, Autonomi Elakarteek iraunerazi, aldatu eta garatu egin bait dezakete eurei dagokien Zuzenbide Zibila.

Konstituzioak berariazko zuzenbide zibilik "egon badagoenenan" dio. Eta Euskal Herrian horrelakorik badago egon. Lurralde batzuetan, Bizkaian eta Araban, idatziz mantentzen da. Beste batzuetan, Gipuzkoan esaterako, ohituraz zainduta eta hainbat alorretan Euskal Herriko gainerantzeko lurraldeetako oso antzerako usadioei jarraituz, usadiook iraun egiten dutela nahiz eta aurkako oinarriak dituen Zuzenbide arruntak horretarako hainbat eragozpen jarri.

1888.eko Kode Zibilak "oraingoz" bere hartan uzten zuen forudun Lurraldeetako jaurpidea eta berariaz aipatzen zuen idatzizko zein ohiturazko Zuzenbidea. Gaurregungo Euskadiko Estatutuak, Autonomi Elkarteari dagozkion aginpideak zehazterakoan, 10.5 atalean adierazten denez, foruzko Zuzenbide zibila edo berariazkoa "iraunerazi, aldatu edo garatzeko" lana berdin burutu daiteke zuzenbide hori idatzizkoa izan zein ohituraz gordetakoa izan.

Horrela bada, euskal legelariek eraberritu eta gaurko mundura egokitu behar dute Foru-Zuzenbide zaharra, Bizkaian eta Araban idatzita iraun duena eta Gipuzkoan, dagoeneko badakigunez, ohituraz baino gorde ez dena. Kontuz egin beharreko lana da eta gaur eguneko euskal gizartearekiko begirunerik handienarekin burutu beharrekoa, gizarte hori ezin bait daiteke maiteen dituen erakundeok gabe utzi, ezta berez errotuta ez dituen erakundeok gabe utzi, ezta berez errotuta ez dituen erakundeak hartzera behartu ere, beste alor batzuetan beharrizanak aldaketa sakonak egitea bideratzen badu ere, Zuzenbide zibilak ezin duelako aurrera egin herritarrak erakundeok onartu eta orokorrean eurenganatu gabe.

Eusko Legebiltzarrak, Estatutuaren 10.5. atalak ohartemandakoaren arauera, foru-erakundeen ezarpen-esparrua zehazteko askatasuna du, baina ezin du ezarpen-esparrurik besterik gabe aldatu. Nahiz eta etorkizunean, egindako azterketek eta gizarteak aldaketak egitea eskatuta aldatu beharra egon, ziur asko horrelakorik sartu beharra egongo da eta, gure Zuzenbidearen lehen gorpuzketa honetan, legea sakon ausnartuta egindakoan, ez du Zuzenbidea gaurreguneratu besterik egiten, 1959.eko Bildumak oraindino jasotzen zituen gauza zaharkituak ezabatu eta bertan agertzen ez ziran eta berez oso sustraiturik zeuden beste erakunde batzuk agerteraziz.

Edonola ere, guzti hori ez dadila izan eragozpen gure Unibertsitateetan, zorionez, indartsu sortu diren ikerketak ugaritu daitezen, euron bidez eraberritze eta lege-aldaketak eragin bait daitezke, ezarpen-esparruan bertan ere, Zuzenbide Zibil berriztua eta gizarte-aldetik aurreratua lortu arte. Bilatu behar ditugun euskal Zuzenbide Zibilaren baterako berezitasunak agertuz joango dira eurotan sakondu eta aztertu ahala, oraingoz idatziz dauden sistemek eta euren ezarpen-esparru zehatzek eragin dezaketen erakarpen-indarra ekidin ezinezkoa delarik.

METODOLOGIA

Aipatutako arrazoiongatik, Bizkaia eta Arabaren kasuan, Bildumaren eraketa eta atal-hurrenkera zaindu beharrik ez du ikusi Legegileak. Esparru estuegia da eta horretara mugatu beharrik ez du. Bildumak aintzakotzat hartu ez zituen erakunde biziak, elkarrekin edo ermandadean egindako testamentua esaterako, sartu beharra zegoen edo aipatu baino egiten ez zituen beste batzuk, 11. atalean agertzen diren oinordetzazko itunak edo Aiarako podere osoko gozamena adibidez, behar bestean garatu beharra zegoen, azken hori garapen-ezagatik ez delarik benetan ezargarri izan.

Ezinbestekoa zen Atariko Idazpurua egitea, batez ere Zuzenbidearen iturburuen alorrean bi giltzarri finkatzeko: ohiturea zaintzea, Bizkaian tradizio haundikoa dena, eta gure Zuzenbidearen oinarri orokorren babesa, eurok gabe arau juridikoak bere benetazko bizitasuna galdu egiten bait du, inoiz Foruaren iturburuei jaramonik egin ez eta zuzenbide osogarrira jo izanagatik foru senetik guztiz urrundutako ondorioetara heldu izan dela epaigintza.

Horrela bada, Atariko-Idazpuruak eta luzera ezberdineko hiru Liburuk, lehenengoa Bizkaikoak, bigarrena Arabakoak eta hirugarrena Gipuzkoakoak, osatzen dute testua.

AUKERATUTAKO IZENA

Bilduma hitza, gure artean tradiziorik gabekoa, ez zaio egokitzen legearen helburuari ezta izaerari ere, helburu hori euskal Zuzenbide pribatua goitik-behera eguneratzea da eta. Hortik dator Euskal Herriko foru zibilari buruzko Lege izena eman izana. Zibila Zuzenbide pribatua baino ez duelako hartzen; Foruzkoa Zuzenbide arruntetik bereizteko eta ez aintzinako eta ezarpen-esparruz Euskal Herriko erakundeak berpiztu egiten dituelako, nahiz eta Zuzenbide arrunteko esparruak ere egon.

LEGEAREN AZTERKETA

I. LIBURUA
BIZKAIKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

Bizkaiak betidanik izan du bere legeria egiteko eskubidea eta foru-jaurpidea behera etorri zenean baino ez zuen hori galdu. Foru-legeria indarrean egon zen bere osotasunean 1959. urteko Bilduma egin zen arte, honek moztu eta murriztu egiten zuela hainbat arlotan. Ohizko foru-legeria berreskuratzeko eskubidea Konstituzioak babesturiko "jatorrizko eskubidetzat" hartu behar dugu, diktadura-garaietan egindako Bilduma horrek sakon erasotako jatorrizko eskubidea.

Erabakiok gaurregunera egokitzea beharrezkotzat jo izan da, aintzinako iharduerak aldenduz eta gaurko gizarteari ondo egokitzen ez zaizkion erabakiak mugatuz edo kenduz, esate baterako tronkalaren gorabehera batzuk, edo inoiz, sistema osatzeko derrigorrezko erabaki batzuk gehituz, adibidez, gizonezko alargunen eskubideak ugaritzeari, mantenu-beharra aitortzeari edo baserrietako errentariak babesteari dagokionean.

Ez da Koderik ere idatzi, arlo zibileko erakunde guztiak batuz egindako legea ez bait da. Legea Konstituzioaren eta Estatutuaren agindua betetzera mugatzen da, eurotan gure Foru-Zuzenbidea iraunerazi, aldatu eta garatzeko ahalmena aitortzen dela, kasu honetan Bizkaikoa. Erakundeak geldierazi beharrean, bizirik eta Bizkaiko gizarteak duen aurrera joateko borondateak eta beharrezko ikerketa-lanak seguru asko eskatuko duten aldaketei zabalik mantenduko dituen bideari lotzen gatzaizkio Lege honekin.

Europan araupide zibil ezberdin asko egotea, euretariko batzuk Bizkaiko eta Euskal Herriko erakundeengandik hurbilago daudenak, oso aberasgarria da zalantzarik gabe; eta erakundeotariko batzuk Kode Zibilarekin bat egin gabe irautea ezberdintasunak egon daudela erakusten duen adierazgarria da, aurrerantzean sintesi hobeak egiteko bideak zabal ditzakeena. Kode Zibilean egindako azken berrikuntzei buruz adi egotea komeni da, arlo batzutan Foru-Zuzenbidera asko hurbiltzen delako eta harrigarria da Familiaren baserri-ustiakuntza eta baserritar gazteen Estatutoa onartu zuen 1981.eko Abenduaren 24eko Legeak Bizkaiko legeko erakunderik garratzitsuenak, Kode Zibilean agertu ere egiten ez zirenak, ia hitzez hitz, bereganatzen zituela ikustea, esate baterako amankomuneko edo "eskuorde-bidezko" testamentuak, oinordetza-itunak, familiaren ondasunak osotasunean eskualdatzea etab.

I. IDAZPURUA
EZARPEN-EREMUA

Foru-Zuzenbidea Bizkaian zein eremutan ezarri behar den zehaztea Zuzenbide honen izateari berari dagokion gai oinarrizkotzat hartu da. Baina, aldi berean, arazo horrek konponbide zaila du, Hiriek eta Elizateek historian zehar izan dituzten gora-beherak direla-eta bakoitzaren barrutia bereiztea ez delako bat ere erreza, batez ere, eta hau oso garratzitsua da, Hiriei ezargarri zaien lege zibilari dagokionez, Hiririk gehienetan alde forudunak alde forugabekoekin batera irauten dutelako.

1959. urteko Bilduмak nahaste haundiagoa sortu zuen bere 2. eta 3. ataletako arau marapilotsuekin, eta harrez gero zail egiten da, Hirigunceta tik kanpo, nor den foruduna eta nor ez zehaztea.

Gainera, Bildumaren sistemak alde forudunen eta forugabekoen lurraldeak behin eta berriro aldatzen ditu. Hori dela eta, eta Konstituzioaren 9.3. atalak eskatzen duen segurtasun juridikoa aintzakotzat hartuta, arau zehatzagoak egin beharra dago. Erizpide hau erabili da Foru-Lege honen 6, 7 eta 8. atalak eta Azken Erabakietako lehenengoa idaztean, Autonomia-Estatutuaren 10. atalean aitortutako legegintzarako baimenean oinarritzen direla eta forudun lurraldea zein den ondo zehaztuta utzi nahi dutela.

Beste alde batetik, Bildumak balio eta indarrik gabe utzi zuen 1630. urteko Konkordia. Konkordia horrek Bizkaiko Hiriei baimena ematen zien euren barrutian Foru-Legea indarrean izatea eskatzeko eta horretara jokatu zuten Elorriok (1712), Bermeok (1734), Otxandiok (1818) eta Arcatzak (1825), Forua oso-osoan edo zati baten aukeratuz. Lege honek berriro jartzen du indarrean 1630.ean konkordatutako araua, baina eguneratuz (10. atala).

Forua nori ezarri dela eta, horretan ere segurtasun juridiko haundiagoa bilatzen du legeak, baita berdintasun haundiagoa ere, oraintsuko epai batzuren bidegabekeriak aldendu nahian. Epaiok, ulertze-modu oso murrizgarriak erabiliaz, Foru-Legea ezartzeko lotura-puntu bi eta inoiz hiru ere eskatzera heldu ziren, Kode Zibilaren Atariko Idazpuruak ezartzen dituen auzietarako arauen aurka eginez. Horretara, inoiz gertatu da seme bati tronkalekotasun-eskubideak ukatzea bizkaitar herritasuna galdu zuelako. 16. atalak, joera hori zuzenduz, izaera orokorreko erabakiak hartzen ditu auzietarako oinarrizko arautzat, forugabeko bizkaitarren estatutuaren berezitasunak besterik gabe salbuetsiz.

II. IDAZPURUA
TRONKALEKOTASUNA

Bizkaiko Foru-Zuzenbidearen berezitasunik nabarmenena tronkalekotasuna sakon sustraiturik egotea da, horretan ez dago zalantzarik. Hori testamentuzko oinordetzan zein testamentugabekoan ikusten da, "inter vivos" edo "mortis causa" ekintzetan, ordainbidezkoak nahiz dohainezkoak izan. Sustraitze hori gure inguruko herrietan, Auñamendialdeko forudun herrialdeak ere barruan direla, ezagutzen dena baino askoz sakonagoa da.

Hori dela eta, tronkalekotasunaren erakundeak I. Liburuaren II. Idazpurua hartzen du, tronkalekotasuna eta bere osagaiak zehaztuz. Aldi berean, bere eraginik ertzekoenak argitzeko, eta behar bada mugatzeko, ahaleginak egiten dira, erakunde hau gaurregungo bizimoduaren beharrizanei egokituz.

Ildo honetatik, tronkalekotasunaren osagai bikoitza, gizasemeei lotutakoa eta gauzei lotutakoa, azaltzen da 17. ataletik 20.enera. Gizasemeei lotutako osagaia dela eta, berrikuntza bat daukagu, seme-alaba ordeak tronkaleko senideen artean sartzea, Eusko Legebiltzarraren 1988.eko Martxoaren 18ko 6/1988

Legearen araucra. Gauzei lotutako osagaiari buruz, zehaztu egiten dira onibarrak. Zehazketa hori Bilduman erabilitako Kode Zibileko 334. ataleko zerrenda baino hobeto egokitzen zaio tronkalekotasunaren izaerari.

Hirilurretan kokaturiko ondasunen ordainbidezko inorentzeetan tronkalekotasuna nahaspilotsua izan daiteke eta ez zaio baserrialdeetan bezain beharrezkoa erizten, Foruaren oinarrizko helburua baserriaren iraupena bait da. Hori dela eta, II. Idazpuru hau 114. atalean (V. Idazpurua) ezarritako arauaz osatzen da, lehentasunez eskuratzeko eskubideetatik eta saka-eskubidetik salbuetsi egiten dela hirilur dena edo izatekotan dena.

III. IDAZPURUA
OINORDETZAK

Oinordetzaz III. Idazpururak dihardu, bost Atalburutan banatzen dela.

Azpimarratzekoa da, lehenengo Atalburuan, eskuordeko bidez eginiko testamentuaren edo "alkar poderosoa"ren arauketa berria, gure Foru-Zuzenbidearen osagarririk garantzitsuenetarikoa bera. Berorri esker alargunaren eskubideak sendotzea eta familia egokitasunez eratzea bideratzen da.

Arlo horretan, hurrengo hauek dira lege berriaren oinarriak:

a) Bizkaitarrek ia euren ezkontza-hitzarmen guztietan alkarpoderosoa edo testamentua egiteko poderea erabiltzeko izan duten etenik gabeko ohitureari jarraitu egiten zaio.

b) Erakunde hori eguneratu egiten da, gaurregungo gizartearen beharrizanetara egokituz.

c) Ezkontide eskuordekoaren egoera juridikoa indartu egiten da, Bilduma aurretiko ohiturarekin lotuz.

d) Jaraunspenezko oinordetza zentzunez eta ausnartuta egiteko aukerak dirau, behar denean testamentu egokia eginaz, askotan aurrikuspen ezagatik jazotako testamenturik gabeko oinordetzarik izan ez dadin.

e) Ondarea zentzunik gabe eta ekonomiaren aurka sakabanatzea eta zatitzea eragozten da, azken aldiotan ematen diren administrazio-erabaki berriak indartuz.

f) Erakunde hau, Alkarpoderosoa, idazkera erakargarriz hornitzen da, Kode Zibilaren 831. atala erabil dezaketen forugabekoentzat eurentzat ere. Kode horren idazkera aldatuz joan da, bizkaitarrei eurei dagokienera hurbiltzeraino.

Horrela bada, ohituretan oinarritutako berrikuntzak sartzen dira, oinordetzaileak testamentua egiteko gaitasunak eta komisaria edo eskuordekoa izendatzekoak osotasunean dirautela, jakineko lege-mugak kontuan izanda. Hurrengoak dira berrikuntzok:

a) Oinordetzaileari eskuordekoa -komisaria edo podereduna- izendatzeko gaitasun zabala ematen zaio (32. atala).

b) Izendapena bermatu egiten da, testamentuz zein ezkontza-hitzarmenez, horretarako beharrezkoa dela Eskribauak eskuartzea (33. atala).

c) Oinordekoak izendatzeko gaitasuna berdindu egiten da eskuordekoarentzat eta oinordetzailearentzat. (34. atala).

d) Eskuordekoak hori izateagatik irabazirik ez izatea beharrezkoa da (39. atala).

e) Oraingoan berariaz zaintzen da banatugabeko jarauntsiaren segurtasun juridikoa, bere ordezkari nor izango den arautuz (40. atala).

f) Familiaren alde jokatuz, oraingoan lehenengoz arautzen dira adingabeko edo ezgaiei mantenua eman beharrari eta tutoretza edo kuradoretza jartzeari dagozkienak ere, ohituretan hori egiteko joera bazegoen-eta (41 eta 42. atalak).

g) Eskuordekoak bat baino gehiago izan daitezeneko podere-erabilera arautzen da (43. atala).

h) Poderea erabiltzeko epea eskuzabaltasunez hartzen da, beti erabili izan den moduan, epeok mugatuegi bihurtzen dituzten agindukeriazko erabakiak alde batera utziz (44. atala).

i) Berariaz arautzen da alkarpoderosoa ekintza baten baino gehiagotan gauzatzeko ahalmena, erakunde hori etenik gabe erabili ahal izateko eta elkarren aurkako erizpide itxiek eragindako egoera arazotsurik izan ez dadin (45. atala).

j) Poderearen erabilera-moduak 46 eta 47. ataletan arautzen dira, eskuordeko ezkontideak, podere hori bere testamentuan gauzatu bada, poderearen erabilera ezezta egin dezakeela.

k) Amaitzeko, berariaz arautzen dira poderea iraungitzeko arrazoiak, gaurregun izan daitezkeen egoera juridikoak aintzakotzat hartuta (48. atala).

Idazpuru berorretako laugarren sailean testamentua elkarrekin edo ermandadean egitea arautzen da, behinolako Bildumak jasotzen ez zuena. Testamentu-

era hori, Aragoi eta Nafarroan zaindu zena eta gaurregungo Kode batzutan indar-indarrean dirauena, Bizkaiko Zuzenbidearen berezitasunetariko bat da, forulegeek aldarrikatu eta ohiturak etenik gabe zaindutakoa. Gainera, horri irauneraztea askatasun zibilaren eskakizuna ere bada.

Elkarrekin edo ermandadean egindako testamentuaren eragozpenik handienetarikoa, legelari batzuen eritzian, aldatu ezinezkoa izatean datza. Bizkaiko Legeak asko mugatzen zuen aldaezintasun hori, ezkontide testamentu-egileetarikoren bat testamentu hori egin osteko urtebete eta egun bateko epe barruan hilez gero baino ez bait zuen mantentzen (XXI. Idazpuruko I. Legea). Erakunde hori aipatutako muga horrekin jasotzen da legean, adituek ekarritako beste aurrerapen batzuk jaso beharretik eratorritako beste zehaztasun batzuk gehituz, aldatu ezinezkotasuna bienak izandako ondasunenei buruz erabakitzera mugatuz, ondasunok direlako hori holan izatearen benetazko arrazoia (49. ataletik 52.era).

Derrigorrezko ondorengotza III. Idazpuru horretako II. Atalburuan arautzen da. Berori idazterakoan ahalegin berezia egin da foruzko ondorengotza gaurregungo gizartearen beharrizanei egokitzeko, eta alde horretatik hurrengo hauek azpimarra genitzake:

a) Aurrekoei dagokiena testamentu-egilearen ondasunen erdia izateraino gutxitzen da, bostetik lau izan beharrean (56. atala).

b) Nabarmen gehitzen dira ezkontide alargunaren eskubideak. Bilduman aitortzen zaion gozamen-eskubide hain murriztu hori handitu egiten da, alarguna ondorengoekin eta aurrekoekin batera badago ondasun guztien erdira heltzeraino, eta hirutik bira alboko senideekin batera badago. Besterik ezean baino ezin dezake gozamenik izan tronkaleko ondasunetatik, eta holakorik jazoko

balitz, onartzen da ondasunok dirutan emandako kapitalaren truke aldatzea ere (58. atala). Edonola ere eskubideok iraungi egiten dira ezkontzaren banantze, baliogabekotze edo dibortzioa dela eta, ezkontzak porrot eginez gero.

61. atalean ondasun guztien gozamena ezkontideari uzteko aukera ere onartzen da.

c) Oinordekoak baztertzeko egin beharrekoak erreztu egiten dira (54. atala).

d) Ondorengoen mantenu-eskubidea arautzen da (66. atala), seme-alaba moten arteko bereizkuntzarik egin gabe, seme-alaba ordeak ere horren barruan sartuaz ondorio guztietarako (53. atala).

e) 62. atalak Foru-Bildumaren hutsunea betetzen du seniparteari dagokion zatia ateratzeko arauak emanaz, baita dohaintzak zenbatgarritzekoak eta jarauntsira itzuli beharreko ondasunak zehaztekoak ere.

Testamenturik gabeko ondorengotzan (III. Idazpuruko III. Atalburua) berrikuntzarik garrantzitsuena seme-alaba moten arteko bereizkuntza kentzea da (67. atala).

Ordezkotza-eskubidea, gaurregun beherantzako belaun-lerroari mugatuta dagoena, alboko belaun-lerrora ere zabaltzeari ondo eritzi zaio, baina neba-arrebak neba-arreben seme-alabekin batera direnean baino ez (72. atala). Horrela jokatuta lehenengo eranskinaren egitasmoa atondu zuen batzordearen erizpideari jarraitzen zaio, ohiturak behin eta berriz erakusten zuen hori aintzakotzat hartuta.

Testamenturik gabeko jarauntsietan, zuzeneko edo alboko belaun-lerroan laugarren belaunaldira heldu eta senitartekorik ez badago, dagokien Foru Aldundiaren eskuetara igaroko da (73. atala).

IV. Atalburuan, eta "Oinordetza-Itunak" izenburupean, itun-bidezko oinordetza-era batzuk arautzen dira, bizkaitarren artean ondo sustraituta egon arren gaurregungo Bilduman 11. atalean aipatu baino egiten ez direnak, arlo horretan gehiago sakondu gabe. Oinordetza-itunok direla-eta adituak gero eta aldekoago agertu ezeze Kode Zibila bera ere, elkarren ostean egindako aldaketetan, hasieran horrelakoak eragozteko zuen erizpide gogorra bigunduz joan da.

Askatasun zibilarekiko begiruneak, foruzko lege eta ohituren eragilea denak, eta Bizkaian agiri-bidez datozkigunetan baserria eskualdatzeko erarik erabiliena oinordetza-itunak izateak, beharrezko egiten dute itunok legez arautzea, Bildumaren 11. atalak egiten zuen aipamen hutsa nahiko ez delarik.

Ezkontza-hitzarmenak oinordetza-itunik garrantzitsuenak dira, jakina, baina dohaintzarako eskriturak ere sarri egiten dira eta horrela jasotzen da egitasmoan (74. atala).

Itun motarik garrantzitsuenak ere aztertu egin behar izan dira (non agertzen diren alde batera utzita) eta horregatik arreta bereziaz arautzen da ondasunak uncan bertan zein izendatzailea hil ostean eskualdatuz egindako ondasun guztien dohaintza, baita jakineko ondasunena ere (76. ataletik 78.era).

Baserria edo baserri-ustiakuntzaren bat eskualdatzen denean sarri askotan agertzen da dohaintza-emaile eta hartzaileen arteko lotura, hau da, ezkontide gazte eta ezkontide zaharrak elkarrekin bizi eta osatutako familia-elkartea, eta ezinbestekoa zen hori ere aintzakotzat hartzea. Lege-erakunde hori ere sartu nahi izan da dirauen ohiturari jarraituz (82. atala).

Inorentzako gordetzeak eta itzultzeak III. Idazpuru horren V. Atalburuan arautzen dira "Oinordetzeko erei buruzko baterako erabakiak" izenburupean. Lehenengo eta behin Kode Zibilean, 811. atalean, agertzen den inorentzako gordetzea jasoten da, baina Bizkaian izan dezakeen erabilerara egokituta, hau da, tronkaleko ez diren ondasunei mugatuta (84. atala).

85, 86 eta 87. ataletan ezkontza-aldian irabazitako ondasunak inorentzako gordetzea (85. atala), forukomunikazioa desegitean aurrez hildako ezkontidearen ondaretik etorritako tronkaleko ondasunak (86. atala) eta ezkontzagatik edo ezkonsaritzat emandako ondasunak (87. atala) jasotzen dira, aldaketa txikiekin.

Era berean, tronkaleko ez diren ondasunetarako, inorentzako gordetzea sartzen da 88. atalean, Kode Zibileko 968. atalean agertzen denaren parean joanda.

90. atalaren arauera, gordetzaileak gordetakoaren hartzaileen artean izenda dezake oinordekoa. Atalburua 92. atalean amaitzen da, mantenu beharraz emandako ondasunak itzultzeko eskubidea arautzen dela bertan.

IV. IDAZPURUA
EZKONTZAREN ONDASUNEN JAURPIDEA

Horixe da IV. Idazpuruaren gaia.

Eusko Legebiltzarraren 1988.eko martxoaren 18ko 6/1988 Legearen erizpideari jarraituz, ezkontzaren ondasunen jaurpidea, ezkontza aurretik zein ostean, ituntzeko edo berori askatasunez aldatzeko eskubidea aitortzen da, foru-sistemaren eragile den askatasun zibilarekin neurri handi baten bat datorrena (93. atala).

Andrazkoen eta gizonezkoen arteko edozein bazterkeria ezabatu egiten da, ezkontideek herritasun bera ez dutenean ondasunen jaurpidea zehazteko kasuan

bertan ere bai (94. atala). Legearen atal hori bat dator Kode Zibilaren oraintsuko aldaketak herritasun zibilaren arloan emandako erizpidearekin.

Foru-komunikazioaren legezko jaurpidea amaitu egiten da ezkontideak banandu zein dibortziatu egiten badira edo ezkontza baliogabekotzat joaz gero, baita itunez erabakiz gero ere (95. atala).

Arauren batzuk bereiztu egiten dituzte irabazpidezko ondasunak eta ezkontide bakoitzak ekarritakoak eta euren lege-jaurpidea zehazten dute (97.etik 102. atalera), ondasunei buruz erabakitzeko ezkontide bien foruaren arauerako oneritzia ezinbestekoa dela (99. atala).

Ezkontza ezkontideren bat hiltzeagatik amaitzen denean seme-alabak bienak izatea edo ez izatea bereizten duen foru-arauari jarraitzen dio lege honek.

Bien seme-alabak egonez gero, finkatu egiten da foru-komunikazioa (104. atala) eta jaraunspenezko erkidego egiten da alargunaren eta hildakoaren seme-alaben artean ondasunak banatu eta esleitu arte; edonola ere eskuordeko izendatutako ezkontideak ondasun guztien erdia eslei diezaioke bere buruari (106. atala) eta, horrez gain, ondasuntza guztiaren gozamena ere izango du (105. atala).

Ezkontzaren banantze, baliogabekotze edo dibortzio-epairen bategatik ezkontza amaituz gero edo ezkontide bien seme-alabarik ez bada, foru-komunikazioa ezabatu egiten da horrelakoetarako irabazpidezko jaurpidean erabilitakoaren antzeko sistemari jarraituz (109. atala). Dena dela, azken kasu horretan, foru-tradizioan ondo sustraitutako eskubide batzuk oraindik ere baditu alargunak (110. atala).

V. IDAZPURURA
LEHENTASUNEZ ESKURATZEKO ESKUBIDEAK

Legegileak arreta berezia jarri behar du gai honetan, foru-sistemak jasaten dituen kritiken arrazoietariko bat izaten bait da, saka-eskubidea espekulazio hutserako erabiltzean egon daitezkeen gehiegikeriengatik. Horregatik bada, txarrerako eragina duten horrelako batzuk mugatu egiten ditu legeak, eta tronkaleko eskubideak erabiltzea ere erreztu bide batez, tronkaleko ondasunak tronkaleko familian irautea baino izan ez dadin eskubideon foruzko helburu bakarra.

Helburuok kontuan izanda berrikuntza garrantzitsuak egiten dira, lehenengo eta behin lehentasunez eskuratzeko eskubidedunei eta eskubideenpeko ondasunei eraginez:

a) Eskubidedunei buruz, 126. atalak lehentasunez eskuratzeko eskubidea aitortzen die berrogei urtetik gorako kontratua duten errentariei, alboko belaun-lerrokoei baino lehentasun handiagoa emanez.

Sustraituen dagoen ohituretariko bat errentariak berak gozatzeko daukan eta eskualda ere egin dezakeen errentari-eskubidea da, batzuetan eskubide horren ondorengo nor izango den ezkontza-hitzarmen edo testamentu bidez adieraz dezakeela. Eskubide hori oso ezaguna da gure ohiturazko Zuzenbidea aztertu dutenen artean, Bilduman jaso ez zen arren. 1918.ean Oñatin izandako Eusko Ikaskuntzaren Biltzarrak ere eskatu egin zuen berrogei urtetik gorako kontratua zuten errentariei zabaltzea saka-eskubidea. Lege honek jaso egiten du eskari hori, gaurregungo gizarteaaren beharrizanekin bat datorrena.

b) Lehentasunez eskuratzeko eskubidepeko ondasunei dagokienean, 114. atalak kanpoan uzten ditu hirilurretan edo hirilur izateko daudenetan kokatutako funtsak, horrela eskubide hori erabiltzean sarrien jazo daitekeen gehiegikeria-arrazoia aldentzen saiatuz, indarrean uzten duela eskubide hori famili izaerarekin sakon lotuta dagoen lekuetan.

Tronkaleko ondasunak inorendu aurretik forudeiak egin behar izango dira. Foruan esaten zenez, ondasunok inorentzeko asmoa agertzea eta eurok senideei eskeintzea zen deion helburua. Bildumak helburu hori, nolabait, aldatu egin zuen, salneurria eta baldintzak zehaztea eskatuz. Saldu izana baliogabekotzat jotzeko eta balioespenaren arauera eslcitzeko aukera zegoenez, behar bada tirabira gogorren poderioz dagoeneko hitzartuta zegoen salmenta hondatu zitekeen.

Lege hau berriro lotzen zaio foru-sistemari. Inorentzaileak bere saltzeko asmoa agertzen du eta dei horri erantzuten dioten senideek balioetsitako salneurrian erosiko dutela agintzen dute. Edonola ere, salneurria iragarrita badago, onartu egin dezakete (118. atala). Deiari inork ez badio erantzuten, jabeak edonori sal diezaioke urtebeteko epe barruan (120. atala).

Deiok, Eskribauak egiaztatuta, Udaletxeko iragarki-tokian jarriko dira eta, elizan ere agertzeak zabalkundea hoba dezakeenez, bertan ere jartzeko baimena ematen zaio Eskribauari (116. atala).

Onibarra eskuratu nahi dezan tronkalekoak diru-bermea eman beharko du, bere kopurua eta ondorioak 117. eta 119. atalctan zehazten direla.

Inorentzea deirik gabe egiten denean, tronkaleko senideek saka-eskubidea dute, horren bitartez salmenta

baliogabekotzat jo eta funtsa bidezkotasunez balioetsita esleitu dakiela eska dezaketela. Lege honek eskubide hori erabiltzeak ekar ditzakeen ondorioak arautzen ditu eta, batez ere, inorentzailea, saka-eskubidea eskatzen duen tronkalekoa eta baliogabekotzat eman den salmentako eroslearen arteko harremanak (123. atala). Baliogabeko aldarrikatzeko ihardunbidea aitormenezko auzibide arrüntaren araucra egingo da, euskal Estatutoaren 10.6. atalak foruzko gaietan auzibidezko arauak emateko bideak jarri eta horretarako baimena ematen bait du.

VI. IDAZPURUA
BIDE-ZORRAK

Iraun-legeei buruz Foruak zuen Idazpurua Bildumak ez zuen jaso eta horregatik idatzi da Idazpuru hau. Ez jasotze horrek, eta Kode Zibilaren arauera erabili izanaren iraupen hutsak bide-zorrik izatea ekartzen ez duenez (539. atala), makina bat auzi eragin du 1959. urtetik aurrera, eurotan aintzinatik erabilitako bideetatik igarotzeko eskubideak ukatu egin direla. Lege honen 128. atalak berriro hartzen du aintzakotzat erabili izanaren iraupenagatiko zorra, baina foruaren epea, hamabost urtekoa, luzatu egiten du Kode Zibilaren berezkoa den hogei urtekora arte. Aldi berean, beste arau bi ematen dira 129. eta 130. ataletan, auzigai diren arazorik garratzitsuenei irtenbidea emateko.

II. LIBURUA
ARABAKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

Aipatu ekimena bultzatu duten arrazoien hari beretik, eta Bizkaiko foru-zuzenbide zibilaren aldakuntzak Arabako Laudio eta Aramaio udalerrietan duen eragina gorabehera, Arabako foru-erakundeek Aiarako Foruaren gaur egungo idazkerak sortarazten dituen arazoen konponbiderako sentiberatasuna helarazi diote Eusko Legebiltzarrari lege honen bidez.

Gai honi gagozkiolarik, Aiarako Foruak, arau gutxi badu ere garrantzi handikoak bait dira, berebiziko gaurkotasuna du, oinordetzari buruzko zuzenbide berrienari lotzen zaiolako edukiari dagokionez. Izan ere, zuzenbide-arlo hori jakintsuen artean eta legedi berrienetan jasaten ari den bilakaerak oinordetzaren eragilearen borondatearekiko begirunearen nagusitasuna du oinarri, besteak beste. Aiarako Foru idatzi nahiz ohiturazkoa dugu, hain zuzen, hatsapen horren eredurik behinena, beste zuzenbideetako lege-erakunde zenbait parekatu bai baina gailendu ezin zaiolarik.

Foruaren arabera, ondasunen aukerako banaketak, edozein bidez, intervivos zein mortis causa ekintzaz, bereizketaren legea du muga bakarra eta, berez, arautuko duen lege-arau jakinik ez du behar. Ondasunak aukeran banatzeko eskubidea finkatzea asko da, bere ezarpenak gertakari-multzo aberats eta joria sortaraz dezan, zilegitasun osoz jantzia. Alabaina, lege-segurtasunak ulerkera- eta garapen-arau orokorrak ezartzea eskatzen du, banatzailearen borondate eta nahia mugatu nahiz ordezkatu gabe, arrazoiz osabetetzeko bideak eman ditzatenak.

Bizkaiko eta Arabako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumak ondasunen aukerako banaketa arautu zuen moduak zenbait arazo sortu du, ihardunean batik bat, lege honek gainditu nahi lituzkeenak.

Horrela, ezinbesteko gertatzen da zuzenbide-iturburu sistema berezia zehaztea, Zuzenbide idatziarekin batera, Aiarako Forua bere lege-ekanduaren arabera mamitzen duten ohituraren eta zuzenbide-hastapen orokorren lehentasuna finkatu eta Zuzenbide arruntera jo baino lehen epaigintza-erizpideen balioa aitortuko duena.

Beharrezko da, halaber, indar izango duen lurralde-esparrua zehaztea, gertatu diren udalerri-mugen aldaketak kontutan hartuz eta gerta daitezkeenen eragina aurrikusiaz.

Foruaren indar-esparrua mugatzeko, geografia-administraziozko erizpideez gain, banatzailearen beraren legebidearen aipamenaz osatzen da, bere herritartasunaren ondorio dena.

Ondasunak aukeran banatzeko eskubideari gagozkiolarik eta aipatu den lege-segurtasunaren mesedetan, askatasun-erizpide orokor hori praktikan bidegabeki muga dezaketen eragozpenak gainditze aldera, bereizketa finkatu nahi izan da, eta baita horren aldaera eta senipartedunen eskubideak zehazten dituzten bestelako eskubideekiko baliokidetasunak eta ezberdintasunak ere eta, halaber, senipartedun horien eta beren eskubideen zehaztapena, baztertze-kasuetan dagozkienak barne.

Aiarako Foruaren edukiari eskainitako Liburuan, Bildumaren Zioen Adierazpenean aipatutako ohiturazko "podere osoko gozamena" idatzizko legebidean jaso da azkenekoz, aukeran banatzeko eskubidearen hegalpean sortutako lege-erakunde bezala. Aiara herrian nabarmenki sustraituta egon arren, lege honetara arte ez zuen idatzizko araubiderik eta horrek zailtasun praktikoak zekarzkion.

Eragozpen horiek gainditze aldera, gizarte-egoerari egokitutako erakunde hori idatzizko lege-araubidean jaso da, edukia zehazteko orduan oinordetzaren eragilearen borondateak erabatekoa izaten jarraitzen duelarik.

II. Liburu honen II. Idazpuruan, Bizkaiko Forua Arabako Foru-Zuzenbide Zibilaren baitan jaso da, bere lege-ekanduaren, Konstituzioaren eta Estatutuaren arabera, Laudio eta Aramaio udalerrietan ezar dadin.

III. LIBURUA
GIPUZKOAKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

Idatzizko legerik ez bazuten ere, gipuzkoarrek aintzinatik mantendu egin zituzten euren erakundeak, Bizkaikoen eta Arabakoen oso antzerakoan zirenak. Erakundeok bizirik irautea lortu zuten idatzizko Zuzenbidearen erasoari gehiago eginez, baina zailtasun haundiekin, batez ere 1348.eko Alcaláko Ordenamenduaz geroztik. Gipuzkoako Batzar Nagusiek behin eta berriz eskatu zuten ondorengotza Bizkaiako kasuaren antzera arautzea (1554.eko Segurako Batzarretatik hasita). 1841.eko Foruak egokitzeko egitasmoan ere eskatu zuen Gipuzkoak bere berariazko Zuzenbide Zibila aitor zekion, baina alperrik. Oraintsuago ere berriro eskatu izan da gauza bera Eusko Ikaskuntzak Elkartearen didez, 1918.ean eta 1930.ean, orduan ere jaramonik ez zitzaiola egin.

Nahiz eta arazoak gero eta larriagoak izan, gipuzkoarrek, baserrialdean, mantendu egin zuten, ordea, euren ohitura-araudia. Etxea banandu gabe eskualdatzea, tronkalera itzultzeak, ezkonsaria edo familiak osatzen zuen ekonomi batasuna bezalako gaiak batzen dira araudi horretan, Alvaro de Navajas gipuzkoar legegile ospetsuak agertu zuenez.

Edonola ere, zailtasun garrantzitsuak daude ohituraren indar-esparrua zehazteko ezeze, bere edukia argiro finkatzeko ere, Bizkaiko, Nafarroako edo Arabako legeekiko zer den baterakoa eta zer berezia finkatzeko, horretarako Araba eta Bizkaiari buruz mendearen hasieran egin ziran ikerketen antzerakoak burutu egin beharko direla.

Bitartean, zuhurtasunez jokatzeari ondo eritzita, ez dira definizio zehatzak egin eta lege hau ez da Gipuzkoako ohiturazko Zuzenbidea egon dagoela aitortzetik haraindi joan, berori legez arautzea gerorako, autonomi mailako eta foru-erakundeek eragin beharko dituzten ikerketen ondorioak aztertzen direnerako utziz.

ERABAKI GEHIGARRIA

Foru-Legearen eta herritasun forudunaren lurralde-zabalkundeari buruzko edozein zalantza alde batera utzi nahi izan da Bizkaian. Horretarako, planoak egitea beharrezkotzat jotzen da, nahi dezan edozeinen esku egongo direnak Hirietako Udaletxeetan.

ALDIBATERAKO ERABAKIAK

Aldibaterako Erabakiek aurretiazko legeriaren menpean sortu eta lege honek ezarritako legeria berriaren eraginez aldatutako egoerak gainditu nahi dituzte, ahal den neurrian legeria berri honetara egokitu behar direlako. Azkenik, lege honen eragina izango dutenen lege-egoera berria horren garrantzitsua denez, indarrean jartzeko hiru hilabeteko epea ematea egokitzat jo da.

EUSKARA ETA FORU ZIBILA

Aparteko ahalegina egin da lege honen euskarari dagokionez, itzulpena izan beharrean benetan "euskarazkoa" izan dadin, foru-Zuzenbide pribatuan euskarari bere legebidezko eremua eman nahi izan zaiola. Horretarako erabilitako erizpidea hauxe izan da: arlo honetan herri-hizkeran erabili izan diren hitzak ("alkarpoderosoa", "bide-zorrak") eta aurretik datozenak ("hil-burukoa") jaso eta gaurregun euskarak legegintza-arloan izandako harremanen eraginez sortutako esamoldeekin batera erabiltzea, testuan berezko barne-egokitasuna eta borobiltasuna lortzeko asmoz.

Beste alde batetik, euskararen eta Foru-Zuzenbidearen arteko lotura lortzeko, lege honen eraginpekoak izan daitezkeenei Foru Zibil honetako ekintzak eta hitzarmenak euskaraz egiteko eskubidea aitortzen zaie, horren ondorenez sor litezkeen egoerak arautuz (15. atala). Foru-zuzenbide pribatuaren eremuan euskararen normalkuntzarako urrats garrantzitsua ematea eka-

rriko du guzti horrek, horretan ez dago zalantzarik, lehenengoz elkartzen bait dira testu berean (1988.eko martxoko legea salbuetsita) Euskal Herriaren berezitasunetako bi: bere hizkuntza eta bere Zuzenbide pribatua.

EUSKAL HERRIKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKO LEGEA

ATARIKO IDAZPURUA
FORU-ZUZENBIDEAREN ITURBURUAK

1. atala.-

1.- Lege honetako aginduek, ohiturak eta bere tradizioaren araucra mamitzen duten zuzenbide-oinarri orokorrek osatzen dute Euskal Herriko Lurraldeen Foru-Zuzenbide Zibila.

2.- Nabarmena ez den ohitura frogatu egin beharko da.

2. atala.-

Epaigintzak osatuko du Bizkaiko Foru-Zuzenbide Zibila, berori ulertu eta ezartzerakoan Euskadiko Zuzentza Auzitegi Nagusiak eman ditzan jarraituzko erizpideekin.

3. atala.-

1.- Foru-arau ezargarririk ez balego, Kode Zibila eta gainerantzeko ezarpen orokorreko erabakiak ezarriko lirateke zuzenbide osagarri bezala.

2.- Zuzenbide osagarriaren ezarpena Foru-Zuzenbide Zibilaren oinarriei egokitu beharko zaie.

4. atala.-

Euskal Herriko Foru-Zuzenbidean tradiziozko den askatasun zibilaren oinarriaren arauera, legeak esku-emaile direla jotzen da eta eurotatik datozen eskubideei uko egitea baliozkoa izango da, beti ere herriaren onaren zein gizarte-erabidearen aurkakoa ez bada eta beste inori kalterik ez badio egiten.

I. LIBURUA
BIZKAIKO FORU-ZIBILA

I. IDAZPURUA
FORU-ARAUEN EZARPENAZ

I. ATALBURUA
EZARPEN-EREMUA

I. SAILA
Lurralde-Eremua

5. atala.-

Foru honek, Bizkaiko Lurraldeko berezko legeria zibila denez, bere osotasunean izango du indarra Lur Lauan.

6. atala.-

Lur Laua deritzo Bizkaiko Lurralde osoari, Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugalete eta Plentzia hirietako eta Urduña ziutateko alde forugabekoa eta Bilboko gaurregungo udal mugarte osoa kanpoan utzita.

Kanpoan utzitako lurraldean legeria zibil orokorra izango da ezargarri, Foru hau ezargarri den guztietan izan ezik.

7. atala.-

Aurreko atalean aipatutako lurralde forugabekoa hiri bakoitzaren jatorrizko hirigunearen gaurregungo lurrak eta Foru hau indarrean sar dadinean indarreko hirigintza-planen arauera "hirilur" bezala sailkatuta egon daitezen bere albokoek osatuko dute.

8. atala.-

Hirigintza-planen osteragoko aldaketek ez dute aldaeraziko lurralde forugabekoaren luze-zabalera.

9. atala.-

Administrazioak egindako Bizkaiko udalen muga-aldaketek ez dute aldaeraziko lurraldeotan ezarri beharreko Zuzenbide Zibila.

Hiriren bati erantsirik dagoen aintzina Elizate izandakoren bat Hiri horretatik bananduko balitz, berez eta besterik gabe berreskuratuko luke zeukan jatorrizko elizate-izaera.

10. atala.-

1.- Legeria zibil orokorra ezargarri duten udalerriek Foru zibil hau euren lurralde guztian ezar dadin aukera egin ahal izango dute, 1630.eko Konkordiaren indarrez eta Konstituzioaren erabaki gehigarrietalo lehenengoan eta Euskal Herriko Autonomia-Estatutuaren 10.5. atalean agintzen denaren arauera, honakook betez gero:

a) Udalbatzarraren erabakia, aurkako baino aldeko botu gehiagoz.

b) Bizkaiko Batzar Nagusien eritzia entzutea.

c) Herritarrek onartzea, Udalak deitutako erreferendumean emandako botu baliodunen gehiengoa aldeko izanda.

d) Eusko Legebiltzarraren lege bidez onartzea.

2.- Asmo horrek aurrera egingo ez balu, bost urtegarrenera arte ezingo litzaioke berriro ekin.

11. atala.-

Bertako herritarrek aurreko atalean zehaztutako urrats guztiekin agerturiko borondatearen ondorioz Foru hau oso-osorik ezartzen bada Hiri bateko lurralde forugabekoan, foru-herritasun zibila lortuko dute zuzen-zuzen.

Aurreko atalean agindutakoaren arauera ezargarri izan dadin legeria berriak ez du aldaeraziko ordura arteko ezkontzen ondasun-jaurpidea, ezkontza-hitzarmenetan horrela erabakitzen ez baldin badute behintzat.

Pertsonen arteko eta oinordetza-kontuko harremanetan, aldibaterako erabakietan agintzen dena ezarriko da.

2. SAILA
Pertsona-Eremua

12. atala.-

Foru zibil honen ondorioetarako, Bizkaiko Lurraldeko herritasun zibila dutenak dira bizkaitarrak.

Foru-lurraldeko herritasun zibila duena da forudun edo infantzoia.

13. atala.-

Bizkaitar forugabekoek elkarrekin edo ermandadean edota eskuordeko bidez egin dezakete testamentua, Foru honetako aginduen esanera.

14. atala.-

Bizkaitarrek egin ditzaten Eskribau-agirietan euren herritasun zibila, forudun ala forugabeko diren eta, hala badagokie, zein ezkontza-jaurpide duten jaso beharko da, eurek adierazitakoaren arauera.

Agiria egin nahi duenak berak adierazten ez badu, eta bestelako frogarik ezean, jaio zen tokiari dagokion herritasun zibila ducla ulertuko da eta, halaber, senar-emazteen ondasunen jaurpidea elkarrekin izan duten azkenengo bizilekuaren tokiari legez dagokiona dela, edo horrelakorik ez bada, ezkontza egin zen tokikoa.

15. atala.-

Foru Zibil honek arautzen dituen ekintza eta hitzarmenak euskaraz egin daitezke.

Ekintza edo hitzarmenok Eskribau aurrean egin eta Eskribauak euskaraz ez badaki, eskritura egin nahi duenak aukeratutako itzultzaile bat beharko da, bere aginduak gaztelaniara itzul ditzan, eta agiria hizkuntza bietan idatziko da Eskribautza-araudiak ezartzen duen bezala, beti ere indarrean dagoen hizkuntzari buruzko legeriak besterik agintzen ez badu.

II. ATALBURUA
LEGEEN GATAZKAK

16. atala.-

Berariazko araurik ez balego, Bizkai barruan legebide desberdinak batera egoteak biztu ditzan lege-gatazkak arau orokorrak erabilita ebatziko lirateke, erakunde bakoitzaren izaeraren arauera.

Atzerritarrek bizkaitar forudunen herritasuna izango dute Espainiartasuna hartzerakoan lurralde forudunean administrazio-herritasuna badute, espainiartzeko espedientean aurkako aukerarik adierazi ezean.

II. IDAZPURUA
TRONKALA

17. atala.-

1.- Onibarren jabetza tronkalekoa da. Tronkalaren izate horrekin etxaguntza familia barruan gordetzen da.

2.- Tronkalaren indarrez, onibarren jabeak ezin ditzake onibarrok erabili trokaleko senideen eskubideak kontutan izan gabe.

3.- Tronkaleko senideen eskubideei kalte egin diezaieten erabilpen-ekintzen aurka egin daiteke, Foru Zibil honetan agindutako moduan eta bertan esandako ondorioekin.

18. atala.-

Tronkaleko senidetasuna Lur Lauean dagoen onibarrari begira zehaztuko da beti.

19. atala.-

Tronkalari begira, onibar dira hurrengoen gaineko jabetza zein gauzen gaineko bestelako gozamen-eskubideak:

1.- Lurra eta lur gainean eraiki, landatu edo ereindako edozer.

Aurreko lerroaldian aipatutakoei lotutako zein batutako ondasun mugikorrak ere onibartzat joko dira, kalterik gabe banandu ahal izan eta banatuta eskualdatzen direnean izan ezik.

Eskuratu gabeko frutuak, lurrarekin batera eskualdatzen ez diren landarak eta ebakitzeko saltzen diren zuhaitzak ez dira tronkalekoak izango.

2. Elizetako sepulturak.

20. atala.-

Honako hauek dira tronkaleko senide:

1.- Beherako belaun-lerroan, seme-alabak eta gainerantzeko ondorengoak, baita ordekoak ere.

2.- Gorakoan, tronkalaren jatorritik datorren belaun-lerroko aurrekoak.

3.- Baita bizirik dirauen aita edo ama ere, ezkontza bitartean erosi edo irabazitako eta bietako bat hildakoan bion seme-alabek jarauntsitako ondasunetarako, Foru honetako 85. atalean ezarten den gordekizunaren eragozpenik gabe.

4.- Alboko belaun-lerroan, onibarraren jatorritik datorren aitaren edo amaren belaun-lerroko senideak.

Seme zein alaba ordeentzako, tronkaleko senidetasuna seme-alabatzakoa guraso ordearen odoleko semea edo alaba balitz bezala zehaztuko da, gorako zein alboko belaun-lerroan.

21. atala.-

Beherako belaun-lerroan, tronkaleko senidetasunak jarraitu egiten du belaunez-belaun, maila-mugarik gabe.

Gorakoan, tronkaleko senidetasuna jatorriko onibarra lehenengoz eduki zuen aurrekoan bukatzen da.

Alboko belaun-lerroan, odolkidetasuneko laugarren belaun-maila zibileraino iristen da, laugarren hori ere barruan dela.

22. atala.-

Hurrengook dira tronkalekoak:

1.- Beherako belaun-lerroari dagokionez, Lur Lauean dauden onibar guztiak, edonola eskuratuak direla, kanpokoengandik eskuratuak izan arren.

2.- Gorako eta alboko belaun-lerroei dagokienez, Lur Lauean dauden eta oinordekoaren eta oinordetzailearen oin berekoak diren onibar guztiak, oinordetzaileak kanpokoengandik eskuratuak barruan direla.

"Inter vivos" erako eskualdaketetan "oinordeko" eta "oinordetzaile" berben ordez "eskuratzaile" eta "eskualdatzaile" erabiliko dira.

3.- Tronkaleko ondasunen truke zein ordezkotzan hartzea eskatzen duen beste ordainbidezko bideren batez eskuratutako Lur Lauean dauden onibarrak.

23. atala.-

Tronkaletik datozen eskubide eta betekizunak Bizkaiko herritar zibil guztiei dagozkie, bizkaitar direnez.

Tronkalaren beraren izaeragatik, bizkaitar-herritasuna galtzeak ez ditu ezertan murriztuko beraren indarrez izandako eskubide eta betekizunak.

24. atala.-

Tronkaleko ondasunak kanpoko inori zein eskualdatzailearen lehentasunezko belauneko ez den inolako senideri eskualdatzeko dohaineko ekintzak, "inter vivos" edo "mortis causa"zkoak, berez izango dira lege-baliogabekoak.

25. atala.-

Bizkaitar forudun ez direnek askatasuna dute tronkaleko ondasunak lehentasunezko belauneko tronkaleko edozeini dohain eskualdatzeko, baina hartzaileak ezingo du hartukizunik izan tronkaleko ez diren

ondasunetan, ondasunokin gainontzeko seniparteduner euren legezko seniparte laburra eman-arte.

26. atala.-

Baserria gainerantzekoekin dohain eskualdatzerakoan, besterik esan ezean, altzariak, abereak, lanabesak eta ustiapen-ezarkinak sartuko dira.

III. IDAZPURUA
OINORDETZAK

ERABAKI OROKORRAK

27. atala.-

Oinordekoa, tronkalcko ondasunak izan edo ez izan, testamentuz, legez, oinordetza-itunez, ezkontzahitzarmenez zein dohaintza-eskrituraz izenda daiteke.

28. atala.-

"Tronkaleko senideak" esaten denean besterik gabe, eurei dagokien oinaren belaun-lerrotik testamenturik gabeko oinordetzara deituriko senideak direla ulertu behar da.

I. ATALBURUA
TESTAMENTU BIDEZKO OINORDETZA

1. SAILA
Testamentuak orokorrean

29. atala.-

Legeria zibil orokorrean araututako testamentumoduez gain, "hil-buruko" testamentua ere onartzen da lurralde forudunean.

30. atala.-

Bizkaiko lurralde guztian Eskribau aurrean egindako ezein testamentutan ez da lekukorik behar izango, testamentu-egileak berak edo egiaztatzen duen Eskribauak horrela eskatzen ez badute behintzat.

2. SAILA
"Hil buruko" testamentua

31. atala.-

Hil zorian dagoenak testamentua egin dezake hiru lekukoren aurrean, bai ahoz bai idatziz.

Testamentu hori indarrik gabe geratuko da egilea hiltzeko arriskutik atera eta bi hilabetegarrenean. Testamentu-egile hori epe horren barruan hilez gero ere indarrik gabe geratuko da testamentua, baldin heriotza osteko hiru hilabeteen barruan egiaztaerazten ez bada, ihardunbide-legeek agintzen duten eran.

Testamentu-egilea hilteko arriskutik atera baina beste testamenturik egiteko ezgai geratuko balitz, egiaztaerazteko epea hiru hilabetekoa izango litzateke, testamentua egin zenetik kontatzen hasita.

Testamentua epaile batek egiaztaerazi ostean, Eskribau-liburuan jasoeraziko da.

3. SAILA
Testamentua egiteko poderea eta eskuorde-bidezko testamentua

32. atala.-

Testamentu-egileak eskuordeko bati edo batzuri eman diezaieke oinordekoa izendatu eta ondasunak banatzeko ardura, eta ondasunon oinordetza-eskualdaketa dela eta, berari dagozkion beste ahalbide guztiak.

33. atala.-

Eskuordekoa Eskribau aurrean egindako testamentu bidez izendatu behar da.

Senar-emazteek, ezkondu aurretik zein ezkondu ostean, elkar izenda dezakete eskuordeko ezkontza-hitzarmenean edo oinordetza-itunean. "alkar-poderosoa" deritzo senar-emazteen arteko izendapen horri.

34. atala.-

Eskuordeko izendatutakoak behar den besteko gaitasuna izan beharko du testamentua egiteko poderea gauzatzeko orduan.

Oinordeko izendatutakoak jaraunsteko gai izan beharko du gauzatze horren orduan edo oinordetzailea hiltzen denean. Baldintzapeko zein fideikomiso-izendapenak kanpoan geratzen dira.

35. atala.-

Eskuordekoak eskuordetzaileak poderea ematerakoan berariaz agindutakoari zehatz jarraituaz beteko du bere ardura eta, berariaz agindu gabekoetan, Foru honetako aginduen arauera oinordetzaileari dagozkion ahalmenak izango ditu.

36. atala.-

Edonola ere, eskuordekoak oinordetzaren ondasun, eskubide, zor eta betekizun guztien zerrenda egin beharko du behin eskuordetzailea hil eta eskuordeko izendatu duela jakiten duenetik sei hilabeteko epe barruan, eta oinordeko ustezkoak zerrenda horrek dioenaren jakitun jarri beharko ditu.

37. atala.-

Eskuordekoak ezin izango du eskuordetzailearen testamentua osorik edo bere zatirik ezereztu, horretarako baimena berariaz eman ez baldin badio behintzat.

38. atala.-

Eskuordekoak, oinordetzaileak testamentu bidez eman diezaizkion ondasunak beretzat har ditzake, baita testamenturik gabeko oinordetzan edo testamentu-poderea gauzatu ezean legozkiokeenak ere.

Hartukizunok 62. eta 64. ataletan agindutakoei lotuta egin beharko dira.

39. atala.-

Eskuordekoaren ardura borondatezkoa eta dohainekoa izango da beti eta dagozkion ahalmenak, amankomunekoak zein baterakoak egiteko izan, norberarenak eta eskualdaezinak dira.

Eskuordekoak eskuordetzailearen jarauntsiaren albazea eta kontulari-banatzailea izenda ditzake.

40. atala.-

Oinordetzara deitu eta jarauntsia onartu bitartean, testamentu-egileak testamentuan bertan izendatutako pertsona izango da jarauntsiaren ordezkari eta administratzaile, eman diezaizkion ahalmenekin eta ezarri diezaizkion erantzunbeharrekin.

Inor izendatzen ez bada, alargunak ordezkatu eta administratuko du jarauntsia eta, alargunik ezean, eskuordekoak berak.

41. atala.-

Testamentu-poderea gauzatu arte, oinordetzailearen seme-alabei eta horretarako legezko eskubidea duten ondorengo guztiei mantenua zor zaie jarauntsiondasunen etekinen kontura, horretara behartutako pertsonarik ez badute.

42. atala.-

Eskuordekoa oinordetzailearen adingabeko edo ezgai diren seme-alabei eta gainerantzeko horrelako ondorengoei tutoretza edo kuradoretza jartzera behartuta dago.

43. atala.-

Eskuordekoek amakomunean ihardungo dute, testamentuan bertan besterik adierazten ez bada. Gehiengoz hartuko dituzte erabakiak eta, berdinean, lehenengo izendatutakoak erabakiko du.

44. atala.-

Eskuordetzaileak testamentu-poderea gauzatzeko epea ezar dezake. Eskuordekoa alarguna balitz, poderea eperik gabe edo bizialdirako eman diezaioke.

Eperik jarri ezean, testamentu-egilea hil zenetik, edo epaileak hil dela adierazten duenetik, urtebetekoa izango da, ondorengo ustezko guztiak gara-adinekoak badira; ez badira, gara-adinera denak heltzen direnean hasiko da epe hori, ondorengook burujabe egitea ez dela nahikoa izango horretarako.

45. atala.-

Eskuordekoak ekintza edo eskritura bakarrean edo bat baino gehiagotan gauza dezake testamentu-poderea, testamentu-egileak besterik agindu ezean.

46. atala.-

Eskuordekoak, "inter vivos" edo "mortis causa" ekintzetan gauza dezake testamentu-poderea, ondasun guztietarako edo batzurentzako, legeak testamentu-egile ororentzat ezartzen dituen mugak baino ez dituela izango.

Alargunak bere testamentuan gauza dezake hildakoak emandako testamentu-poderea, baina bien semc-alaba eta ondorengoen artean baino ezingo du banatu. Horela bada, ezkontidearen izenean egindako banaketa ezeztagarria dela adieraz dezake, berariaz, eskuordekoak.

47. atala.-

Eskuordekoak testamentu-poderea erabiliz egin ditzan banaketak ezeztu ezinekoak izango dira, aurreko ataleko azkenengo zatian araututakoan izan ezik.

48. atala.-

Testamentu-poderea honakootan iraungiko da:

1.- Gauzatzeko jarri zaion epea bukatutakoan.

2.- Eskuordekoari heriotza, ezintasuna edo ezgaitasuna etorri zaiolako.

3.- Eskuordekoa ezkontidea bada, testamentu-poderea egin ostean ezkontzaren banantze, baliogabekotze edo dibortzio-eskea egin dadinean.

4.- Eskuordekoa ezkontidea izanda, hau berriro ezkondu dadinean, beste batekin ezkondu-bizimodua daramanean edo ezkontzatik kanpo seme-alabarik izan dezanean, testamentu-egileak besterik adierazi ez badu behintzat.

5.- Uko egiteagatik.

6.- Jaraunsteko ezgaitzen duten gaiztakerietakoren bat egiten badio eskuordekoak oinordetzaileari edo bere ondorengoei.

7.- Poderean bertan agertzen den beste arrazoiren bategatik.

8.- Podere-emaileak ezeztatuta.

4. SAILA
Ermandadeko edo elkarrekiko testamentua

49. atala.-

Senar-emazteek biek batera erabaki dezakete euren ondasunei buruz testamentua elkarrekin edo ermandadean eginda.

Testamentu hori Eskribau aurrean baino ezin daiteke egin.

50. atala.-

Elkarrekin edo ermandadean egindako testamentua ezeztatu edo aldatu egin dezakete senar-emazteek biek batera, Eskribau aurrean egindako beste testamentu edo oinordetza-itun batez.

51. atala.-

Senar-emazteetariko batek ere ezezta dezake bere aldetik elkarrekin edo ermandadean egindako testamentua, besteari modu egiazkoan jakinerazita. Hori gabe, ezeztapenak ez du indarrik izango.

Alde batak elkarrekin edo ermandadean egindako testamentua edo bere ataletakoren bat ezeztatzen badau, testamentu osoa geratuko da indargalduta.

52. atala.-

Senar-emaztetariko bat elkarrekin edo ermandadean egindako testamentua egin eta urtebete baino lehenago hiltzen bada, alargunak ezin izango du ezeztatu bion ondasunen gaineko erabakirik.

II. ATALBURUA
DERRIGORREZKO OINORDEKOAK

53. atala.-

Derrigorrezko oinordekoak ondoko hurrenkeraren araucra deituak izango dira, tronkalekoetarako aginduta dagoenaren kalterik gabe:

1.- Seme-alabak, ordekoak barruan direla, eta gainerantzeko ondorengoak.

2.- Gurasoak eta beste aurrekoak.

54. atala.-

Testamentu-egileak askatasun guztiz bana ditzake derrigorrezko oinordetza osatzen duten ondasunak aurreko atalean aipatutako lerro bakoitzeko oinordekoen artean, edo euretarik bakarra aukeratu besteak baztertuta, baita belaun-maila urrunagokoa hurbilagokoa baino nahiago izan ere.

Derrigorrezko oinordekoak inongo berariazko bazterketa-esamolderik gabe bazter daitezke, beti ere testamentu-egileak oinordetzarik gabe lagatzeko borondatea argi erakutsi badu.

Baztertu gabeko ondorengo baten ondorengoak haren ordezko dira oinordetzan. Bestela, nahi ez dela

testamentuan aipatu gabeko inor balego gutxien hartu duen belaun-maila bereko ondorengoaren besteko zatia eskatzeko eskubidea izango luke.

55. atala.-

Testamentu-egilearen ondasun guztien lau bostenek osatzen dute ondorengoen senipartea.

Beste bostena askatasunez bana daiteke, horretarako tronkaleko ez den nahiko ondasunik baldin badago.

56. atala.-

Aurrekoen senipartea testamentu-egilearen ondasun guztien erdiak osatzen du. Beste erdia askatasunez banatzekoa da, tronkaleko ondasunak ez badira behintzat.

57. atala.-

Tronkaleko ondasunei dagokienean, belaun-lerro bakoitzeko tronkaleko aurrekoak bakoitzaren belaun-lerrotik datozenetarako izango dira oinordeko, 20. ataleko 3. zatian agindutakoaren kalterik gabe.

Tronkaleko aurrekorik ez badago, testamentu-egileak izendatutako tronkaleko alboko senideak izango dira oinordeko tronkaleko ondasunetan eta aipatu gabekoak isilbidez baztertuta daudela ulertuko da. Alde honetatik alboko senideei banatutako ondasunek ez dute gutxituko testamentu-egileak askatasunez bana dezakeen zatia.

58. atala.-

Alargunak oinordetzailearen ondasun guztien erdiaren gozamena izango luke, ondorengoekin edo aurrekoekin batera balego.

Ondorengo zein aurrekorik ez balego, ondasun guztien bi herenaren gozamena izango luke.

Azkenengoz, oinordetzailearen bi belaun-lerroetako tronkaleko ondasunen gainean jarriko da gozamena, lerrootako bakoitzaren edukiaren heinean.

Alargunaren gozamena, tronkaleko ondasunen pentzu denean, eskudiruko kapital baten truke alda dezakete tronkaleko senideek. Alargunak askatasunez erabil dezake dirutza hori eta berori dela eta, ez du gordekizuna jartzeko eta atzera emateko beharkizunik izango hurrengo lerroaldian aipatzen den moduan ezeztatzen bada gozamen hori.

Alargunaren gozamen-eskubidea ezereztu egingo da berriro ezkontzen bada, edo beste batekin ezkondu-bizimodua badarama, edo ezkondu denboran zein ostean ezkontzatik kanpoko umerik izaten badu, testamentu-egileak besterik agindu ezean behintzat.

59. atala.-

Jarautsian ez du oinordeko izateko eskubiderik edukiko berari egotzi dakiokeen arrazoiagatik dibortziatutako edo banandutako ezkontideak.

60. atala.-

Ezin izango zaie seme-alabei, ondorengoei edo aurrekoei askatasunez banatzeko zatia baino ordezpen edo karga handiagorik ezarri, beste derrigorrezko oinordekoen alde ez bada.

Tronkaleko ondasunen gainean ere ezin izango da ordezpen edo kargarik ezarri, belaun-lerro bereko tronkaleko senideren baten alde ez bada.

Alargunari aitortutako eskubideak eta bere alde ezarritako gozamen-eskubide orokorraren agintzak ez diote eragingo senipartearen edo tronkaleko ondasunen ukitu-ezinari.

61. atala.-

Testamentu-egileak bere ondasun guztien gozamena utz diezaioke ezkontideari, 58. ataleko senipartearentzat ezarritako arrazoi berberengatik iraungiko dena. Agintza hori eta askatasunez banatzeko zatiaren agintza ezin izango dira batera hartu. Hala ere, testamentu-egileak biak aukeran utzi baldin baditu, alargunari dagokio hautatzea.

62. atala.-

1.- Senipartearí dagokion zatia ateratzeko, oinordetzarako deia gauzatzen denean jarauntsiak dituen ondasun guztien balioa hartuko da kontuan, zor eta zorpe guztiak kenduta. Irtetzen duen zenbatekoari dohaintza zenbatgarriena gehituko zaio.

Oinordetzailearen tronkaleko ondasunak zenbatgarritu egingo dira senipartearí dagokion zatia ateratzeko eta, ezer baino lehen, senipartea ordaintzeko jarriko dira, testamentu-egileak kontrakorik berariaz adierazi ezean.

Tronkaleko ez diren ondasunekin derrigorrezko oinordeko ez direnen alde egindako dohaintzak eta inor berariaz baztertu gabe egindakoak baino ez dira zenbatgarri izango.

2.- Dohaintza zenbatgarrien balioa oinordetzailea hil zenean zutena izango da, hartutako ondasunotan hartzaileak ordaindutako hobekuntza onuragarriak eta konpontzeko eta iraunerazteko egin dituen aparteko gastuak kenduta, bere erruz egin

behar izan ez baditu. Ondasunon balioari hartzailearen erruz sortutako eta bere balioa urritu duten andegen balioespenekoa gehituko zaio. Hartzaileak dohaintza-ondasunak inorendu baditu, inorentzerakoan zuten balioa hartuko da kontuan. Hartzailearen erruz galdu diren ondasunetarako, galdu zirenean zuten balioa besterik ez da zenbatgarrituko.

3.- Derrigorrezko oinordekoen aldeko dohaintzak ez dira jarauntsira itzuli beharrekoak izango, emaileak aurkakorik agindu ezean edo esanbidezko bazterketarik egin izan ez badu.

4.- Jarauntsira itzuli beharreko dohaintzek banaketa egiteko unean zuten balioa izango dute.

63. atala.-

Oinordetzailearen zorrak ondasun mugikorrekin eta tronkaleko ez diren ondasun mugiezinekin ordainduko dira. Ez batekorik eta ez bestekorik ez dagoenean bakarrik izango dira erantzule belaun-lerro bakoitzeko tronkaleko onibarrak, bakoitzaren heinean.

64. atala.-

Testamentu-podererik balego, senipartea zehazteko ondasunen balioa honakook aterako lukete:

1.- Eskuordekoak, jarauntsia berari ez badoakio.

2.- Eskuordekoak, oinordetzaileak izendatutako kontulari-banatzailearekin batera.

3.- Eskuordekoak, oinordeko ustezkoekin batera.

4.- Epailearen erabakiz.

65. atala.-

Oinordetza ezkontza-hitzarmenez, oinordetza-itunez edo dohaintza-eskrituraz burutzen denean, bazterketa 54. eta 57. ataletan agindutako eran egin beharko da eta 62.3. atalean esandako ondorioak izango ditu.

66. atala.-

Legez mantenua eska dezaketen oinordetzailearen ondorengoek haren oinordekoei eska diezaieke mantenu hori, legeria zibil orokorraren arauera horretara behartutako beste inor ez balego.

Oinordeko bakoitzak jarauntsitako ondasunen heinean eman beharko du mantenua eta ondasunon balioaren gainetik ez du beharkizunik izango.

III. ATALBURUA
TESTAMENTURIK GABEKO OINORDETZA

67. atala.-

Testamenturik gabeko oinordetza seme-alaben alde burutuko da, berezko eskubidez, eta bestelako ondorengoen alde, ordezkotza-eskubidez.

68. atala.-

Aurreko atalean aipaturiko ondorengorik ez badago, jarauntsia honelaxe banatuko da:

a) Aitaren zein amaren aldeko belaun-lerroko tronkaleko ondasunak belaun-lerro bakoitzeko tronkaleko aurrekoei dagozkie, ezkontza bitartean erosi edo irabazitakoen gainean 20. ataleko 3. zenbakian esandakoaren kalterik gabe. Belaun-lerroren baten tronkaleko aurrekorik ez dagoenean, ondasunok horren alboko senide tronkalekoei dagozkie.

b) Tronkaleko ez diren ondasunetan, guraso biak izango dira oinordeko edo biotatik bizirik dagoena. Guraso bizirik ezean, belaun-lerro bietako aurrekoen artean erdibituko dira, aurrekook edozein belauneko direla ere. Belaun-lerro biotako baten aurrekorik ez dagoenean, badagoeneko belaun-lerroko aurrekoei dagozkie ondasun guztiok.

69. atala.-

Ondorengorik ez aurrekorik ez badago, alarguna izango da jarauntsiaren oinordeko, alboko senideak baino lehenago, tronkaleko ez diren ondasun guztietan.

Bestelakoetan, alargunak 58. atalean aitortutako seniparte-eskubideak izango ditu.

70. atala.-

Ez aurrekorik ezta ezkontiderik ere ez dagoenean, tronkaleko ez diren ondasunak alboko senideetako belaun-lerro bien artean erdibituko dira, laugarren belaun-mailaraino, belaun-lerro bakoitzeko senideen hurbiltasuna edozein dela ere.

Biotakoren baten alboko seniderik ez dagoenean, beste lerroko alboko senideei dagozkie ondasunok oso-osorik.

71. atala.-

Belaun-lerro bakoitzean, amarenean zein aitarenean, hurbilagoko senideak urrunagokoa kanporatzen du. Lehentasuna duten senideak bat baino gehiago badira, ondasunak euren artean banatuko dira zati berdinetan.

72. atala.-

Alboko belaun-lerroan, neba-arrebak eta neba-arrebon seme-alabak batera direnean baino ez da ordezkotza-eskubiderik izango. Neba-arrebok buruko eta seme-alabok erroko hartuta izango dira oinordeko. Guraso bietako neba-arrebak eta guraso bakarreko neba-arrebak batera direnean, lehenengoei bigarrenei halako bi zati dagokie jarauntsian.

73. atala.-

Testamenturik gabeko oinordetzetan, alboko seniderik ere ez badago, oinordetzailearen herritasunari dagokion Lurraldeko Foru Aldundiari dei egingo zaio.

IV. ATALBURUA
OINORDETZA-ITUNAK

74. atala.-

Ezkontza-hitzarmenez, dohaintzaz edo Eskribau aurreko eskritura bitartez egindako itunez bana daitezke jarauntsiko ondasunak, guztiak edo batzuk, bertan agindutako era, gordekizun, ordezkatze, itzultze-hizpaketa, zorpe eta betekizunekin. Eskritura-egileek, gainera, dauzkaten ondasun guztiak edo batzuk unean bertan eskualdatzea zein hildakoan egin dadila erabaki dezakete.

75. atala.-

Ondasunen oinordekoa oinordetza-itunez izendatzen bada, indarrik gabe geratuko da aurretik testamentu bitartez egindako edonolako ondasun-banaketa.

Izendapen hori, egin dutenen edo euren ondorengoen arteko itun berri batez baino ezin izango da aldatu ezta iraungi ere eta, beti ere, alde biek itundutako arrazoiengatik baino ez.

76. atala.-

"Mortis causa" egindako ondasun jakin baten dohaintza oinordetza-ituntzat joko da, baita "inter vivos" ekintzaren bidezko ondasun guztien dohaintza ere, besterik hitzartu ezean.

77. atala.-

Ondasunak unean bertan eskualdatzeko egiten den oinordeko-izendapenak ondasunon jabetza ematen dio oinordekoari, izendatzailearen, familiaren zein ondasunen irabazpidearen mesedean alde biek hitzartutako muga-baldintzekin. Horregatik, edonolako erabaki edo karga-ekintzak izendatzailearen eta izendatutakoaren arteko adostasun baterakoa beharko du baliozkoa izateko, bestelako itunik ezean.

78. atala.-

Hil ostean indarra izan dezan egindako oinordeko-izendapenak ondasunon oinordeko izaera ematen dio izendatutakoari eta berak ezin izango du ez inorendu ez zorpetu. Ezkontzeko dagoen seme edo alaba izendatu bada oinordeko, honek bere seme-alabei edo ondorengoei bana diezaieke ondasunok dohain, "inter vivos" edo "mortis causa" ekintzen bidez.

Izendatzaileek ondasunon jabe izaten jarraitzen badute ere, ordainbidez baino ezin izango dituzte ondasunok banatu.

79. atala.-

Izendatzaileek honako hauetan ezezta ditzakete izendapena:

1.- Itundutako arrazoiengatik.

2.- Jarritako zorpe eta baldintzetan ez betetze larria egin izanagatik.

3.- Izendatutakoak ezgaitzeko edo oinordetza galtzeko arrazoi direnetakoren bat egin badu.

4.- Izendatutakoak familikoen eguneroko elkarbizitza galeraziz jokatzen badu.

5.- Izendatutakoen ezkontzaren banantze, baliogabekotze edo dibortzioa gertatuz gero, oinordetza-ituna ezkontzagatik egin denean.

80. atala.-

Oinordeko izendapena honako hauetan iraungiko da:

1.- Izendapena baldintzatzen zuen iraungitze-kasua jazoz gero.

2.- Izendatutakoa ondorengorik gabe hiltzen denean.

3.- Izendatzaileen erabakiz, Eskribau-eskrituraz gauzatuta.

81. atala.-

Aurreko ataletan aipatutako kasuetan, euren kontura egindako hobekuntzen eta gehikuntzen eguneratutako balioa ordaindu beharko zaie izendatutakoei urtebeteko epean.

82. atala.-

Izendatzaileek eta izendatutakoek elkarrekin bizi-ko direla edo gozamen-eskubidea zein antzerako beste ahalmenen bat ez galtzea itundu badute izendatzaileen alde, bietako bat hilda bere alargunak osorik eta bizi den artean gordeko ditu eskubideok.

83. atala.-

Ezkontzera doanen bat oinordeko izendatzen bada eta izendatutakoa arinago hiltzen bada, berari dagokion eskubidea seme-alabei eta ondorengoei eskualdatuko zaie.

Izendatutakoa ondorengorik utzi gabe hilgo balitz, izendatzaileari itzuliko litzaizkioke unean bertan eskualdatzeko itunpeko ondare edo ondasunak.

V. ATALBURUA
OINORDETZEKO EREI BURUZKO BATERAKO ERABAKIAK

84. atala.-

Ondorengoren batek beste aurreko edo neba-arrebaren batengandik irabazpidez jasotako tronkaleko ez diren ondasunak bere aurrekoren bati utziz gero, aurreko horrek ondasunak datozen lerroko hirugarren belaun-mailarainoko senideentzat gorde behar izango ditu lege-indarrez jasotakoak.

85. atala.-

Gurasoengandik onibarrik dohain lortu izan duen seme-alabak onibarrok berriro ere dohain eskuratzen badizkio aitari edo amari eta dena delako guraso horrek, gerokoan berriro ezkondu edo aurrean hildako ezkontidearena ez den seme-alabarik izanez gero, eskualdatzailearen eta bere guraso bereko neba-arrebentzat edo euren edozein ondorengorentzat gorde beharko ditu ondasunok.

86. atala.-

Berriro ezkontzen den alargunak, edo aurrerago hildako ezkontidearena ez den seme-alabarik duenak,

hildako ezkontidearen tronkaleko senideentzat gorde beharko ditu hildakoarengandik foru-komunikazioaren bidez etorritako tronkaleko ondasunak.

Kasuotan ere, ezkontideren bat hil izanagatik foru-komunikazioa amaitzean, alargunak jasotako ondasunek bere jatorrizkoen eta irabazitako erdiaren batuketak baino balio handiagoa badute, gaindikin hori ezkontza horretatik sortutako seme-alaba eta ondorengoentzat gorde beharko du alargunak.

87. atala.-

Ezkontzagatik, ezkontza aurretik zein ostean, emandako ondasun mugiezinen oinordeko, ezkontza horretatik sortutako seme-alabak edo ondorengoak baino ez dira izango.

88. atala.-

Berriro ezkontzen den alargunak, edo aurrerago hildako ezkontidearena ez den seme-alabarik duenak, hildakoarengandik testamentuz, dohaintzaz edo irabazpidezko beste edozein eratan jasotako ondasun guztiak gorde beharko ditu aipatutako hildakoaren seme-alaba eta ondorengoentzat.

89. atala.-

Hemen zehaztutako gordekizunak, edonola ere, gordetzaileak egindako eraikuntza, landaketa eta hobekuntzei baino ez dagozkie, gordetzaile horri edo bere oinordekoei eguneratutako euron balioa ordaindu beharko zaiela. Ordainketa hori gordetakoaren hartzaileak ondasunok eskura ditzan egunean hasita urtebete eta egun bateko epe barruan egin beharko da.

90. atala.-

Atalburu honetan araututako kasu guztietan gordetzaileak gordetakoaren hartzaileen artean izenda de-

zake ondorengoa, testamentu bidezko oinordetzetarako araututakoaren arauera, eta gordetzaileak ezingo du ordezkapenik egin edo kargarik jarri hartzaileon alde ez bada.

91. atala.-

Aurrekoak baino ez dira oinordeko izango umerik izan gabe hildako euren seme-alabei edo ondorengoei emandako tronkaleko ez diren ondasunei dagokienean, beti ere oinordetzan emandako ondasun berberok badaude. Ondasunok inorendu egin badira, dohaintza-hartzaileak eurongatik izan ditzan eskubide guztiak izango dituzte aurrekoek. Era berean, ondasunok saldu izan balira, salneurria eskura lezakete, eta trukatu edo aldatu egin balira, euron ordez jasotakoa.

92. atala.-

Mantenu-beharraz emandako ondasunen hartzailea seme-alaba edo ondorengorik gabe hiltzen bada emailea bizi dela, emaileari itzuliko zaizkio ondasunok.

Kasu horretan, emailea bizi dela, dohaintza-hartzaileak ezingo ditu jasotako ondasunok inorendu, kargatu edo euroi buruz erabaki, "inter vivos" edo "mortis causa" ekintzaz, dohaineko ekintzaz, bere seme-alaba edo ondorengoen alde izan ezik.

IV. IDAZPURURA
EZKONTZAREN ONDASUN-JAURPIDEA ETA FORU-KOMUNIKAZIOA

I. ATALBURUA
ERABAKI OROKORRAK

93. atala.-

Ezkontzaren ondasunen jaurpidea ezkontideek, ezkondu aurretik zein ostean, askatasunez Eskribau-eskritura bidez itun dezatena izango da.

Ezkontzaren ondasunen jaurpidea, itundutakoa zein legezkoa, aldatu egin liteke ezkontza-hitzarmen bidez.

Edonola ere, ezkontzaren ondasunen jaurpidean izandako aldaketak ez dira beste inork eskuratutako eskubideen edo tronkaletik eratorritakoen kalterako izango.

94. atala.-

Itunik egon ez dadinean, hurrengo kasuotan ulertuko da ezkongaiak foru-komunikaziopean ezkontzen direla: biak forudun bizkaitarrak direnean; biok herritasun hori ez dutenean, batera bizitzeko izan dezaten lehenengo ohizko egoitza Lur Lauan badago; eta baterako egoitza hori izan ezean, Lur Laucan ezkondu badira.

II. ATALBURUA
ONDASUNEN FORU-KOMUNIKAZIOA

95. atala.-

Foru-komunikazioaren bidez ezkontideek erdibana izango dituzte ondasun mugiezin edo mugikor guztiak, ondasunon jatorria dena delakoa dela, batenak zein bestearenak izan, berdin ezkontzara bakoitzak ekarritakoak zein ezkontzan zehar irabazitakoak, ondasunok dauden lekuak zerikusirik ez duela.

Foru-komunikazioak, ezkontzak dirauen artean, Foruan zehaztutako zabalkunde eta mugak ditu eta berez eta besterik gabe amaituko da ezkontzaren banantze, baliogabekotze edo dibortzio-epaiez, baita ezkontza-hitzarmenez ere ezkontideek beste ondasunen jaurpideren bat aukeratzen badute.

Foru-komunikazioa epailearen erabakiz eta ezkontideren batek eskatuta buka daiteke, hurrengo kasuotan:

1.- Beste ezkontidea ezgaitua izan, alde egindakotzat jo, porrot eginda dagoela edo zor-hartzekodunak dituela aldarrikatu edo familia uzteagatik zigortu dutelako epaibidez.

2.- Beste ezkontideak bere eskubideen kalterako erabakiak hartu edo kudeaketa egiten duenean.

3.- Epairik gabe bananduta urtebete edo gehiago egotea, elkarrekin bat etorrita bada ere.

96. atala.-

Foru-komunikazioa, ezkontzeaz batera sortzen dena, seme-alaba edo ondorengorik elkarrekin izan duten ezkontideren bat hiltzeagatik ezkontza desegiten den unean finkatzen da.

97. atala.-

Foru-komunikazioan, irabazitako eta ezkontide bakoitzak ekarritako ondasunen arteko bereizkuntza, legeria zibil orokorrak irabazpidezko ondasunetarako eta bakarrekoetarako ematen dituen arauei jarraituz egingo da.

98. atala.-

Ezkontzako zorpeak, lehenengo eta behin, irabazitako ondasunekin ordainduko dira, eta horrelakorik ez balego edo daudenak nahiko ez balira baino ez lirateke ezkontide bakoitzaren jatorrizko ondasunen pentzu ordainduko, euren balioaren heinean.

Azkenon pentzu egindakoak gerokoan izan daitezkeen irabaziekin ordainduko dira.

99. atala.-

Foru-komunikazioak dirauen artean, ondasunei buruz erabakitzeko ezkontide bien baimena beharko da.

Ezkontideetariko batek baimen hori eman nahi izango ez balu, Epaileak eman dezake horretarako baimena, familiaren onerako dela baderitzo.

Edonola ere, ezkontide bakoitzak bere kabuz erabil ditzake bere izenean dauden diru edo ondasun mugikorrak.

100. atala.-

Ezkontide bakoitzari berari baino ez dagokio bere jatorrizko ondasunak administratzea.

101. atala.-

Batera irabazitako ondasunak administratzea ezkontide bici dagokie, hori dela eta, Merkataritza-Kodean zehaztutakoaren eragozpenik gabe.

102. atala.-

Beste ezkontidearen baimenik gabe egindako zorrak eta betebeharrak zorpetutakoari foru-komunikazioaren bidez dagokion erdiaren pentzu ordainduko dira, hurrengoetan izan ezik:

Lehenengoa.- Zorpetu ez den ezkontidearen ondasunak beti geratuko dira erantzunkizunetik kanpo.

Bigarrena.- Irabazitako ondasunen eta zorpetutakoaren jatorrizko ondasunen pentzuko erantzunkizuna hurrengo arauoi jarraituz izango da:

1.- **Bahitura jakinerazi egin beharko zaio zordun ez den ezkontideari. Horrek, hamabost egutegi-eguneko epea du foru-komunikazioa buka dadin eskatzeko, 109. atalean zehaztutakoaren arauera. Horrelakorik jazoz gero, zorpetutakoari eslcitutako ondasunen pentzu baino ez da zorra ordainduko eta hortik aurrera ondasunen banatze-jaurpidea izango du ezkontzak. Eskubide hori ez da izango hartzekodunak zorra familiaren onerako izan dela erakusten badu.**

2.- Foru-komunikazioa amaitzeagatiko ondasunak norbaiti eskeitzea beterazpen-ekinbide berean, baina berciztuta, gauzatuko da, jarauntsiak banatzeko araudi jarraituz.

3.- Zordun ez zen ezkontideak berriro ere ondasunak foru-komunikaziopean izatea eska lezake, bakoitzari zegokion erdia eskeitu zenetik sei hilabeteko epe barruan, eskari hori Eskribau-agiri bidez egin beharko dela.

Hirugarrena.- Foru-komunikazioan zordunari dagokion erdia zorrak ordaintzeko erabili egin bada, beti ere ezkontzak iraun egiten badu, geratzen den beste erdia dela eta, ez du zordunak inolako parterik izango, zorrik gabeko ezkontidearen administraziopean geratzen dela. Honek epailearen baimenik gabe ezin izango du inorendu eta bertatik eratorritakoa familiaren agizko gastuetarako erabili behar izango da.

Edozein modutan ere, zorra ordaintzeko erabilitako ondasunak ezkontide zordunak jasotakotzat joko dira, foru-komunikazioarengatik dagokionaren pentzu, ondasunon balioa ezkontzaren orduko ondasunen jaurpidea amaitzean zutena izango dela.

103. atala.-

Foru-komunikazioak dirauen artean, jaraunspenen batera deitutako ezkontideak derrigorrez onartu beharko du beste ezkontideak ez onartzeko baimenik ematen ez badio. Adostasunik ez bada, jarauntsia, bere zorrei dauden ondasunen neurrian baino ez erantzutekotan onartzen dela ulertuko da.

III ATALBURUA
FORU-KOMUNIKAZIOAREN JAURPIDEA AMAITZEAZ

104. atala.-

Ezkontideetariko bat hiltzeagatik ezkontza desegin eta bien seme-alabak izan daitezenean finkatzen da foru-komunikazioa eta ondasun-erkidego bihurtzen da. Erkidego hori alde batetik alargunak eta beste batetik hildakoaren seme-alaba edo ondorengoek osatzen dute, ondasunak banatu eta esleitu arte iraungo duela.

105. atala.-

Oinordetzaileak eskuordekoa izendatu badu ondasunek erkidegoan jarraituko dute oinordekoa izendatu arte. Ondasunok horrela jarrai dezaten artean alarguna izango da, testamentu egileak bestelakorik agindu ezean, jaraunspenaren ordezkari bakarra eta ondasuntza guztiaren administraria, izendatutako oinordekoek jarauntsia onartzen ez duten bitartean.

Testamentu-egileak bestelakorik agindu ezean, bakarrik edo beste batzuekin batera eskuordeko izendatutako alargunak, testamentu egiteko poderea erabili arte, ondasuntza guztiaren gozamenerako eskubidea izango du, bermerik jarri behar izango ez duela.

106. atala.-

104. atalean zehaztutakoaren salbuespen bezala, eskuordeko izendatutako alargunak bere buruari eslei diezaioke ondasun guzti-guztien erdia, beste erdia hildakoaren oinordekoentzako utzita, tronkaleko ondasunak gorde beharrari kalte egin gabe.

Oinordetzaileak izendatutako kontulari-banatzailerik badago, eskuordeko ezkontideak, kontulari-banatzailearekin batera, eratutako ondasun-erkidegoa ezabatu eta kitatu egin lezake, 108. atalean zehaztutako eran, oinordetzailearen oinordetzari berari izendatutako

ondasunak geratuko zaizkiola. Berdin joka lezake ustezko oinordekoekin edo, bestela, bere eskariz emandako epai bidez ere egin lezake.

107. atala.-

Ezkontide bat hil eta ezkontzan seme-alaba edo ondorengoak izan badira, alargunak epai bidez eskatu diezaieke hildakoaren oinordekoei hildakoari berari zegokion jarauntsiren bat onartzea. Epaileak emandako epea, edonola ere hogeitamar egunetik gorakoa izango ez dena, igaro eta oinordekook jarauntsia onartzeko borondaterik agertzen ez badute, edo ez dutela nahi adierazten badute, alargunak bereganatu egin dezake jarauntsi hori zorrak irabazien neurrian baino ez ordaintzekotan.

108. atala.-

Foru-komunikaziopean zeuden ondasunak esleitzerakoan hurrengo arauok izango dira kontuan:

1.- Lehenengo eta behin alargunari bere jatorrizko tronkaleko onibarrak esleituko zaizkio, dagokion hartzekoa ordaintzeko.

2.- Horiek nahikoa ez badira, esku-ondasunek eta tronkaleko ez diren onibarrek osatuko dute bere hartzekoa.

3.- Aurreko arau biok nahikoa ez direnean baino ez da joko hildako ezkontidearen tronkaleko ondasunetara.

Alargunaren hartzekoa ateratzeko 102. atalean zehaztutakoa hartuko da aintzakotzat.

109. atala.-

Ezkontide bien seme-alabarik egon ez eta ezkontideetariko baten heriotzagatik amaitzen bada foru-komunikazioa, edo ezkontzaren banantze, baliogabetotze

edo dibortzio-epaia egotcagatik, hurrengo arauoi jarraituz jokatuko da:

1.- Ezkontide bakoitzari baino ez dagozkio berak jatorriz ekarritako ondasunak edo eurokin lortutakoak edo ondasunok saltzetik lortutakoak. Jasotakoak bere jatorrizkoak ez ziren beste ondasun batzuetatik ere atera badira, ondasunon jabeenak izango dira banatu arte jabekidetasunean eta euren balioaren heinean.

2.- Irabazitako ondasunak erdibana egingo dira ezkontide bien artean.

3.- Ezkontideren baten ondasunetarikoren bat edo horrek balio duena familiaren onerako gastatu izan balitz, bere eguneratutako balioa hartuko litzateke kontuan irabazitako ondasunekin ordaindu ahal izan dadin, eta irabazitakook nahiko ez balira, falta denetik beste ezkontideak berari dagokion heinean ordainduko luke, bakoitzak dituen ondasunen balioaren araucra.

Foru-komunikazioa ezkontzaren ondasunen jaurpidea aldatu izanagatik amaituz gero, itundutakoari jarraituko zaio eta, horrelakorik ezean, atal honetan esandakoa ezarriko da.

110. atala.-

Ondorengorik izan ez eta ezkontideetariko baten heriotzagatik amaitzen bada, aurreko ataleko arauez gain besteok ere erabiliko dira:

1.- Hildakoaren baserrira etorritako alargunak, alargun dirauen artean, baserrian jarrai dezake urtebete eta egun batez, legezko edo borondatezko erabakiz dagozkion gainerantzeko eskubideen eragozpenik gabe.

2.- Alargunak ezkonsaria edo antzeko ondasuna ekarri balu, aurrean zehaztutako epe hori luzatu egingo litzateke hildakoaren jaraunsleek berori itzultzen eman dezaten denbora guztian zehar.

3.- Tronkaleko onibarren ordainbidezko eskuraketak edo hobekuntzak, zeinen lerrotik datozen hartako ezkontidearentzat edo bere tronkaleko jaraunsleentzat izango dira. Edonola ere, ezkontzaren ondasunen jaurpidea kitatzerakoan, beste ezkontideari edo bere oinordekoei dagokien hartzekoa ordaintzeko, kontuan izango da egindako diruezarketen balio eguneratutakoa. Ordainketa hori ezkontide alarguna hil arte egin gabe utz daiteke, bizi den artean bere erdia askatasun osoz gozatu eta erabiltzeko eskubidea aitortzen bait zaio.

111. atala.-

Ezkontzaren banantze, baliogabekotze edo dibortzio-epaiz amaitzen bada ezkontza, foru-komunikazioa amaitzeak errudun edo banantzearen zein dibortzioaren eragile izan ez den ezkontideari eragindako kalteak kontuan izango dira bere aldeko pentsioa zehazteko edo legeria zibil orokorreko arauei jarraituz jarritakoa osatzeko.

V. IDAZPURUA
SAKA-ESKUBIDEA ETA LEHENTASUNEZ ESKURATZEKO BESTE ESKUBIDEAK

112. atala.-

Tronkaleko senideek, forudunak zein forurik gabekoak izan, 20. atalaren hurrenkeraren eta lerroaren eta belaun-mailaren oinarekiko hurbiltasunaren arauera, kanpokoei eta ordainbidez inorendu nahi izan daitezen tronkaleko ondasunak direla-eta lehentasunez eskuratzeko eskubidea dute.

Eskubidea erabiltzen duen tronkaleko senidea baino lerro urrunagoko tronkaleko senideren baten alde egin dadinean inorentzea, orduan ere izan liteke lehentasunezko eskuraketa.

Tronkalekoak uko egin diezaioke lehentasunez eskuratzeko eskubideari edozein unetan, baina behin une horretatik urtebete igaro ondoren ez da ukatze horretara behartuta egongo.

113. atala.-

Lerro bakoitzaren barruan, hurbilagoko senideak urrunagokoa kanporatzen du. Lehentasunez eskuratzeko eskubidea belaun-maila bereko senide batek baino gehiagok erabiltzen badute, eskubidea funtsa duen tronkalekoari dagokio edo, bestela, inorenganatzaileak euron artean nahiago duena aukera dezake. Inor aukeratu ezean, eskuratzailea Eskribauaren aurreko zozketaz erabakiko da.

114. atala.-

Ez da lehentasunez eskuratzeko eskubiderik izango hirilur direnetan, edo indarreko hirigintza-planen arauera hirilur izango direnetan, dauden funtsak inorentzea dela eta.

Salbuespen bezala, tronkaleko senidearen aurrekoren baten famili-etxea izandakoa, eta osotasunean berezia dena, inoretzea dela eta, lehentasunez eskuratzeko eskubidea izango da, dagoen tokian dagoela.

115. atala.-

Inorendutako funtsak bat baino gehiago direnean, eurotariko bat edo batzuk direla-eta erabil dezake tronkalekoak bere eskubidea, guztietan erabili beharrean, baina inorendutakoa baserria bada, ustiakuntza-batasuntzat eskuratu behar izango du berari lotuta-

ko guztiekin, Jabetza-Lerrokategian bananduta agertzen badira ere.

116. atala.-

Saka-eskubidepeko ondasunik inorendu nahi dezanak Eskribau bidezko deia egingo die tronkaleko senideei.

Deia atal honetan zehaztutakoaren arauera argitaratutako iragarpen-agiriz egingo da.

Iragarpen-agirian ondorengoak adieraziko dira: inorentzea egin nahi duenaren gora-beherak, inorentzen den funtsarenak, horren eskuraketa nondik datorkion, katastroaren arauerako balioa, horrelakorik baldin balego, eta inorentzea gauzatzeko aukeratutako Eskribaua, baita funtsaren lerrokatze-ezaugarriak ere, horrelakorik balu.

Iragarpen-agiria, edozelan ere, funtsa dagoen Udalerriaren udaletxeko iragarkietarako tokian emango da argitara, parroki-elizara ere igorri litekeela Eskribau agiri-egileak horrela egitcari egoki baldin baleritzo.

Deia Eskribau-Agiriz adieraziko da. Horretarako, Eskribauak Alkateari iragarpen-agiria eskura eman edo jaso-izanaren agiridun ziurtatutako postabidez igorri diezaioke, eta, halan baderitzo, dagokion Parrokoari ere, iragarkietarako tokian jarri eta hamabost egunez etenik gabe jendeaurrean egon dadin. Jaso duenak hori horrela izan dela egiaztatuko du berak izenpetutako edo iragarpen-agiriaren bchekaldean onetsitako egiaztagiriz.

117. atala.-

Onibarra eskura nahi duen tronkalekoak iragarpen-agirian aipatzen den Eskribauarengana joko du argitalpenaren epearen amaieratik hamar asteguneko epearen barruan. Ekintza berean katastroko balioaren

ehuneko hogeia gordailuan emango du bermetzat, iragarpen-agirian balio hori aipatzen bada.

Tronkaleko bat baino gehiago agertzen badira, denak eman behar izango dute berme-gordekizuna, Eskribau-eskritura egin arte Eskribauak gordeko duena, itzultzea eskatzen duenak eskubidcari uko egiten diola ulertzen dela.

Salmentazko Eskribau-eskrituraren aurreko Eskribauaren iharduera guztiak agiri bakarrean jasoko dira. Eskribauak burututako ekinbide guztien lekukotza emango die agertutakoei.

118. atala.-

Eskribauak dei egingo die batzuei eta besteei funtsa balioetsi behar duen aditua izendatu dezaten aurreko atalean aipatutako epea amaitu eta hogei astegunetako epea bete orduko. Horretan bat ez badatoz, alderdi bakoitzeko aditu bana izendatuko da, baita hirugarren bat ere, Eskribauak izendatutako lau izen zorro baten sartu eta zozketaz bere aurrean ateratakoa aukeratuz. Ekintza berean, inorentzaileak tronkalekoen artean nor nahi adieraziko du, 113. atalean zehaztutakoaren arauera.

Adituek jarritako salneurrira behartuta egongo dira alderdietakoak, salneurri horren berri ematen duen jakinerazpena jaso eta biharamonean hasita hamabost egunetako epea dutela Eskribau-eskritura egiteko.

Iz da beharrezkoa izango adituon neurketarik eskualdatzailea eta aukeratutako edo izendatutako lehentasunezko tronkaleko senidea salneurrian bat badatoz, aldi berean Eskribau-eskritura burutuko dutela.

119. atala.-

Bermetzat emandakoa emailearen betebeharren erantzunkizunetarako izango da eta, Eskribau-eskritura egiteko orduan agertzen ez bada, eskualdatzaileak aukeran izango du eskualdaketa jarritako salneurrian egiteko eskatzea edo eskuratu nahi ez duela ulertzea, ino-

rentzea egiteko asmoa zuenarentzat izango dela bermea, kalte-ordain bezala. Eskualdaketa egitea aukeratuko balu, bermea salneurriaren zatitzat hartuko litzateke.

Eskuratu nahi ez denean, bermea gordailuan eman eta mantendu duten tronkaleko senideei horren jakinerazpena emango die Eskribauak, hamar eguneko epean, salmenta egiteko eguna eta ordua zehaztuz. Jakineraztetik salmenta egiteko egunera arte gutxienez hamabost egun igaro beharko dute, jakinerazpena jaso dutenek adituek berriro neur dezaten eskatu ezik.

120. atala.-

Tronkaleko senideik agertuko ez balitz edo batek ere ez balu bere eskubidea erabiliko, jabeak askatasun osoa izango luke onibarra beste norbaiti inorentzeko edonolako ordainbidez eta berak erabakitako salneurri eta baldintzen arauera, iragarpen-agiria azkenez argitara eman eta urtebeteko epearen barruan. Epe hori igaro ondoren, ezin izango du ordainbidez inorendu deia berriro egin gabe.

Tronkalekoa ez agertutzat joko da Idazpuru honetan aipatutako edozein epe iraungiten uzten duenean.

121. atala.-

Inorentzaileak eta deira legez agertutako tronkalekoek, lehentasunezko belaun-mailakoak ez direnek ere, funtsa beste norbaiti inorentzea erabaki dezakete, ahobatez eta Eskribau aurreko agerpen bidez. Inorentzea aurreko atalean aipatutako urte beteko epean egin beharko da.

122. atala.-

Saka-eskubidepean dauden tronkaleko ondasunen ordainbidezko inorentzeko edozein Eskribau-eskrituratan foru-deia egin den ala ez jarriko da. Baiez-

koan, iragarpen-agiria jarri izanari buruzko agiria eta ostean burututako ekinbideak aipatuko dira, dagokion lerrokapenean dei hori legezko eran egin zen ala ez zehaztuz.

123. atala.-

Onibarra inorendu egingo balitz aurreko deia egin gabe, eskuratu duenak baino lehenagoko eskubidea duen tronkaleko edozeinek erabil dezake saka-eskubidea, egindako inorentzea bertan behera uzteko eta funtsa bidezko balioaren arauera berari izendatzeko eskatuz. Eskubide hori saltzaile eta eroslearen aurkako agizko epaiketaz erabili behar izango du, Jabetza-Lerrokategian agertuerazi egiten denetik, edo egiten ez bada inorentzearen berri izan duenetik, hiru hilabeteko epea bete orduko.

Saka gertatuko balitz, onibarraren balioaren salneurria gordekizun éman beharko du tronkalekoak Epaitegian, eta horren gainean erosleak izango du lehentasuna, saltzailearen beste edozein hartzekodunen aurretik, egindako erosketaren salneurria eta horren errediruak berreskuratzeko.

Eroslearen eta saltzailearen arteko arazoak, kalteei buruzko erantzunkizunak direla-eta, epaiaren egiterapen-aldian erabakiko dira gertakizunen ekinbide berean, baina bereiztuta.

124. atala.-

Bahitura bidezko zor-ordainketetan, epaizkoak edo epaiz kanpokoak, zein premiazko ihardunbidezkoetan, tronkaleko senideek hurrengo eskubideetariko edozein erabil dezakete:

1.- Lehentasunez eskuratzekoa, esleipenaren salneurri berean, enkantea egiten duen ihardute-sailaren aurrean agertuz, hartzailcari eskualdaketaren Eskribau-eskriturea egin orduko, eta aipatutako salneurria ekintzan bertan gordailuan emanaz, edo

2.- Saka deritzona, Idazpuru honetan araututakoaren arauera eta enkantea egin den egunetik hasita hiru hilabeteko epearen barruan.

Zorraren hartzekodunari izendatzen zaionean ere berdin izango du eskubidea, izendatze-egunetik hasita hiru hilabeteko epearen barruan.

125. atala.-

Idazpuru honetan araututakoa trukaketetan ere ezarriko da jarraian zehazturiko egoerotan:

1.- Tronkaleko funtsa tronkalekoak ez diren ondasunen ordez trukatzen denean, edo tronkalekoak izan arren lehentasunez eskuratzeko eskubidepetik kanpo daudenean.

2.- Trukaketaren bidez jasotzen den funtsak emandako tronkaleko ondasunaren balioaren heren bat gutxiago balio duenean.

126. atala.-

Berrogei urtetik gora errenta-hitzarmena indarrean izan dezan errentariak, bere senideek funtsa errentan izan zuten denborea ere barruan dela, errentan hartutako funtsa hori dela eta lehentasunez eskuratzeko eskubidea izango du, Idazpuru honetan arautzen denaren arauera.

Errentariaren aipatutako eskubideak lehentasuna dauka alboko senideenaren aurrean, eta trokaleko batek ere ez du lehentasunezko eskubiderik izango jabe izatera heltzeko eskubidea dela-eta inorentzen zaionean funtsa errentariari.

127. atala.-

Idazpuru honetan aitorturiko eskubideek antzeko izaeradun beste edozeinek baino lehentasun haundiagoa izango dute.

VI. IDAZPURUA
BIDE-ZORRAK

128. atala.-

Bide-zorra tituluz edo hogei urteko erabilpenez eskuratzen da.

129. atala.-

Bide-zorraren zabalera lur-zati zor-hartzailearen beharrizan guztiak betetzeko bestean handitzea eska dezake lur-zati horren jabeak, horri dagokion kalte-ordaina emanaz.

130. atala.-

Bide-zorrean, berori hobeto erabiltzeko komenigarritzat jotzen dituen bide-zoruko lanak bere pentzu egiteko ahalmena du lur-zati zor-hartzailearen jabeak, lur-zati zor-emailearen jabeari horren berri eman ostean.

II. LIBURUA
ARABAKO FORU ZIBILA

I. IDAZPURUA
AIARAKO FORUA

I. ATALBURUA
EZARPEN-EREMUA

131. atala.-

Aiarako Forua, Aiara, Amurrio eta Okondo udalerri osoetan eta Artziniega udalerriko Mendieta, Erreta-Tutera, Santa Koloma eta Zollo guti herrietan ezartzen da.

132. atala.-

1.- Udalerri bat edo batzuk batzen bazaizkio Aiarako Forua ezargarri duen udalerriren bati, Aiarako Forua hedatuko zaio udalerri batuberriari.

2.- Udalerri forugabe bati udalerri forudunen bat batzen bazaio edota udalerri forudunen baten zati bat banatzen bada, horrek ez dio eragingo batutako lurraldean nahiz banatuan ezargarri zen zuzenbide zibilari.

3.- Udalerri forudunetakoren batek bat egiten badu udalerri forugaberen batekin, Aiarako Forua izango da ezargarri udalerri berri horretan.

133. atala.-

1.- Herritasun zibilak aginduko du Aiarako Forua ezartzerakoan.

2.- Aiarako Forua ezartzeko orduan, Zuzenbide arruntak arautuko du herritasun zibila.

II. ATALBURUA

1. SAILA
Ondasunen aukerako erabilpenaz

134. atala.-

1.- Foru-herritasuna daukienek ondasunak askatasun osoz erabil ditzakete, guztiak ala zati bat, testamentuz, agintzaz nahiz dohaintza bidez, derrigorrezko oinordekoak handiaz nahiz txikiaz baztertu ondoren, on ala hobe eritziagatik.

2.- Ondorengoak, aurrekoak eta ezkontidea joko dira derrigorrezko oinordekotzat, Kode Zibilak erabakitako kasuetan.

135. atala.-

1.- Bazterketa esan nahiz isilbidezkoa izan daiteke eta, halaber, banakakoa edo baterakoa.

2.- Isilbidezko bazterketatzat joko dira nahita aipatu gabekoa eta bidezko zein bidegabeko oinordetza-kentzea.

3.- Derrigorrezko oinordeko guztien baterako bazterketak, oinordetzailea hiltzean horrelakoak diren guztiak hartuko ditu.

136. atala.-

Ez dira aipatu gabekotzat joko edozein bidez baztertutako senipartedunak.

137. atala.-

Nahigabe aipaturik gabeko derrigorrezko oinordekoak, bere senipartea eska dezake. Oinordeko-izendapena eta testamentuko gainerako erabaki guztiak seniparte hori gutxi dezaten neurrian murriztuko dira.

138. atala.-

Ondorengo guztiak aipatu gabe uzten direnean, seniparte luzea jasotzeko eskubidea izango dute ondorengook. Horietakoren bat baino ez bada aipatu gabe utzi gainerako senipartedun aipatutakoetatik gutxien jasotakoak beste hartzeko eskubidea izango du eta, gutxienez, seniparte laburra.

139. atala.-

Baztertutako ondorengoen ondorengoak ez dira aipatugabekotzat joko, eta aurrekoaren ordezko gertatuko dira bazterketan.

2. SAILA
Podere osoko gozamena

140. atala.-

Podere osoko gozamenaren arabera, gozamendunari dagokio, intervivos edo mortis causa ekintzaz, gozamen-jartzailearen seme-alaba edo ondorengo guztien nahiz zenbaiten artean ondasun guztiak zein ondasun batzuk dohain banatzeko ahalmena, gozamen-eskubidearen berezko edukiari dagokionaz gain.

141. atala.-

Aurreko atalean erabakitakoa gorabehera, testamentu egiteko askatasuna erabiliaz, gozamen-jartzaileak esku osoa izango du podere osoko gozamendunak ondasunen jasotzailea edo jasotzaileak nortzuren artean izenda ditzakeen aipatzeko eta, halaber, podere osoaren edukia zabaldu, murriztu nahiz zehatzagotzeko.

142. atala.-

Podere osoko gozamena bere-berezko eskubidea da. Ezin izango da inolako bidez ez inorendu ez zorpetu, gozamen-jartzailearen baimenik gabe.

143. atala.-

Gozamendunak podere osoko gozameneko ondasunak zenbait senipartedunen artean bana baditzake, senipartedunok baztertutzat joko dira, gozamendunak banatu gabeko ondasunekiko egoki dakiekeen eskubidearen kalterik gabe.

144. atala.-

Podere osoko gozamenpeko ondasunei dagozkien andega-konponketa, gastu, zorpe nahiz zerga guztiak gozamendunaren kontura izango dira, ondasunok bana ditzan artean.

145. atala.-

Podere osoko gozamendunak ez du bermerik ezarri beharrik izango, oinordetzaleak besterik agindu izan ezean.

II. IDAZPURUA
LAUDION ETA ARAMAION EZARGARRI DEN FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

146. atala.-

1.- Laudio eta Aramaio udalerrietan Bizkaiko Forua da ezargarri, Bizkaia Lurralderako bereziki ezargarri izan daitekeen lurralde-eremuaren zehaztapenari dagozkion erabakiak salbu.

2.- Bizkaiko Forua ezartzerakoan herritasun zibilak aginduko du Laudio eta Aramaio udalerrietan.

III. LIBURUA
GIPUZKOAKO FORU ZIBILA

147. atala.-

1.- Baserriaren eta familiaren ondasunen antolaketari buruzko ohitura zibilen indarra aitortzen da, ohiturok Eusko Legebiltzarreko legearen bidez eguneratu egin beharko direla.

2.- Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako foruzko erakundeek bultzatu eta sustatu egingo dituzte Lurralde horretako ohiturazko zuzenbidea gaur egunean duen indarraren araberako behin-betiko idazkeraz hornituta gera dadin lortzeko lanak.

ERABAKI GEHIGARRIA

7. atalean ezarritakoaren ondorioetarako, forurik gabeko Bizkaiko Hirietako Udalek Lege hau argitara-

tzen denetik hiru hilabeteko epea dute jatorrizko hirigunearen gaur eguneko lurrak eta indarreko hirigintza-planen arauera "hirilur" bezala sailkatuta egon daitezen bere albokoak zehaztuko dituen planoa egiteko.

Aipatutako Udalek egin beharreko planook Foru Aldundira bidali behar izango dituzte, eta honek Batzar Nagusietara bidaliko ditu, behin-betikotasunez onartu ondoren euren argitalpena aginduko dutela.

Erabaki honetan aipatutako planook onartu ondoren, kopia bana igorriko zaie Zuzentza Auzitegi Nagusiari eta dagokion Udalari, nahi dezatenen eskura egon daitezen.

ALDIBATERAKO ERABAKIAK

Lehenengoa.-

Pertsona eta oinordetzazko harremanak, lege honen 11. atalak aipatzen duenerako, legeria berriak arautuko ditu, berori indarrean sartuaz batera eta ezargarri diren Kode Zibilaren aldibaterako erabakien arauera.

Bigarrena.-

44. atalean testamentua egiteko poderea erabiltzeko epeari buruz eta 45. atalean testamentu-poderea ekintza edo eskritura bakarrean zein bat baino gehiagotan erabiltzeko aukereari buruz zehaztutakoa atzera-indarrezkoa izango da Lege hau indarrean jarri baino arinagokoentzat.

Hirugarrena.-

Legea indarrean jarri aurretik emandako testamentua egiteko podereetan ezkontidea eskuordeko izendatu bada, bizi den artean gozamena izateko eskubidea aitortuko zaio, podere hori erabiltzeagatik iraungiko ez dena.

Laugarrena.-

Lege hau indarrean jarri aurretik hasitako bide-erabilpena kontuan izango da bide-zorraren eskubidedun izateko epe-arazoetarako.

INDARGABEKOTZE-ERABAKIA

Lege hau indarrean jarri dadinean indargabekotuta geratuko dira Bizkaiko eta Arabako Foru-Zuzenbide Zibilaren Bildumari buruzko 1959.eko Uztailaren 30eko Legea, Foru-Zuzenbide Zibilaren Zatizko Aldaketari buruzko 1988.eko Martxoaren 18ko Eusko Legebiltzarraren Legea eta Lege honen aurka joan daitezen beste erabaki guztiak.

AZKEN ERABAKIA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Autonomi Elkartea osatzen duten Lurraldeetakoetan argitaratuko da, euretariko lehenengoan osorik argitaratzetik hiru hilabetera jarriko dela indarrean.

III.2.b

Euskal Herriko foru-zuzenbide zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 legearen ontzat emandako Bizkaierako idazkera

[EHAA, 153. zk., 1992ko abuztuaren 7koa]

Zioen Adierazpena

Foru-jaurpidea gain-behera joan izanak galerazo egin eutson gure araudi zibilari legegintza-teknikak XIX. eta XX. mendeetan egindako aurrerapide sakonakaz batera joatea eta, horregaitik, Foru-Zuzenbideak berez dituan balio nabarmenak antxinako moldeaz jantzita agertzen dira oraindik, moldeok eguneratzea beharrezkoa dala. Horrela jokatu zan Espainiako zuzenbide arruntagaz, berori barriztatu eta Kode Zibila eta geroko hainbat lege garatu ziren eta. Ez zan nahikoa, zer ezanik be, biltze eta metaketa-lan hutsa, Zaragozako Biltzarrak horrela jokatu nahi izan baeban be. Izinbestekoa zan, ostera, gaurregungo gizartearen teknika eta beharrizanei egokitzea.

Foru-legeek Felipe V.aren garaietatik, eta gure kasuan karlistadetatik, jasaten ebezan garapen-mugak gainditzea ekarri eban 1978.eko Konstituzioak, bere 149.1.8 atalak ohartemoten dauanaren arabera, Autonomi Elakarteek irauneraz, aldatu eta garatu egin leikiez-eta eurei jagoken Zuzenbide Zibila.

Konstituzioak beren-beregiko zuzenbide zibilik "egon badagoenenan" dino. Eta Euskal Herrian horrelakorik badago egon. Lurralde batzuetan, Bizkaian eta Araban, idatziz mantentzen da. Beste batzuetan, Gipuzkoan esaterako, ohituraz zainduta eta hainbat arlotan Euskal Herriko gainerantzeko lurraldeetako oso antzerako usadioei jarraituaz, usadiook iraun egiten dabela nahiz eta aurkako oinarriak dituan Zuzenbide arruntak horretarako hainbat eragozpen ipini.

1888.eko Kode Zibilak "oraingoz" bere hartan izten eban forudun Lurraldeetako jaurpidea eta berenberegi aitatzen eban idatzizko zein ohiturazko Zuzenbidea. Gaurregungo Euskadiko Estatutuak, Autonomi Elkarteari jagokozan aginpideak zehazterakoan, 10.5. atalean adierazoten danez, foruzko Zuzenbide zibila edo beren-beregikoa "irauneraz, aldatu edo garatzeko" lana berdin burutu leiteke zuzenbide hori idatzizkoa izan zein ekanduz gordetakoa izan.

Horrela bada, euskal legelariek erabarritu eta gaurko mundura egokitu behar dabe Foru-Zuzenbide zaharra, Bizkaian eta Araban idatzita iraun dauana eta Gipuzkoan, daborduko badakigunez, ekanduz baino gorde ez dana. Kontuz egin beharreko lana da eta gaurregungo euskal gizarteagazko begirunerik handienaz burutu beharrekoa, gizarte hori ezin leiteke maiteen dituan erakundeok barik itxi-eta, ezta berez errotuta ez dituan erakundeak hartzera behartu be, beste arlo batzuetan beharrizanak aldaketa sakonak egitea bideratzen badau be, Zuzenbide zibilak ezin daualako aurrera egin herritarrak erakundeok onartu eta orokorrean eurenganatu barik.

Eusko Legebiltzarrak, Estatutuaren 10.5. atalak ohartemondakoaren arabera, foru-erakundeen ezarpen-esparrua zehazteko askatasuna dauka, baina ezin dau ezarpen-esparrurik beste barik aldatu. Nahiz eta etorkizunean, egindako azterketek eta gizarteak aldaketak egitea eskatuta aldatu beharra egon, ziur asko horrelakorik sartu beharra egongo da-ta, gure Zuzenbidearen lehen gorpuzketa honetan, legea sakon ausnartuta egindakoan, ez dau Zuzenbidea gaurreguneratu besterik egiten, 1959.eko Bildumak oraindino jasotzen ebazan gauza zaharkituak ezabatu eta bertan agertzen ez ziran eta berez oso sustraiturik egozan beste erakunde batzuk agerterazoaz.

Edozelan be, guzti hori ez daitela izan eragozpen gure Unibertsitateetan, zorionez, indartsu sortu diran ikerketak ugaritu daitezan, euron bidez erabarritze eta lege-aldaketak eragin leitekez-eta, ezarpen-esparruan bertan be, Zuzenbide Zibil barriztua eta gizarte-aldetik aurreratua lortu arte. Bilatu behar ditugun euskal Zuzenbide Zibilaren baterako berezitasunak agertuz joango dira eurotan sakondu eta aztertu ahala, oraingoz idatziz dagozan sistemek eta euren ezarpen-esparru zehatzek eragin leikien erakarpen-indarra ekidin ezinezkoa dala.

METODOLOGIA

Aitatutako arrazoiokaitik, Bizkaia eta Arabaren kasuan, Bildumaren eraketa eta atal-hurrenkerea zaindu beharrik ez dau ikusi Legegileak. Esparru estuegia da eta horretara zertan mugatu ez dauka. Bildumak aintzakotzat hartu ez ebazan erakunde biziak, alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua esaterako, sartu beharra egoan, edo aitatu baino egiten ez ebazan beste batzuk, 11. atalean agertzen diran oinordetzazko itunak edo Aiarako podere osoko gozamena adibidez, behar bestean garatu beharra zegoen, azken hori garapen-ezagaitik ez da-ta benetan ezargarri izan.

Ezinbestekoa zan Atariko Idazpurua egitea, batez be Zuzenbidearen iturburuen arloan giltzarri bi finkatzeko: ohiturea zaintzea, Bizkaian tradizino haundikoa dana, eta gure Zuzenbidearen oinarri orokorren babesa, eurok barik arau juridikoak bere benetako bizitasuna galdu egiten dau-ta, inoiz Foruaren iturburuei jaramonik egin ez eta zuzenbide osogarrira jo izanagaitik foru senetik guztiz urrundutako ondorioetara heldu izan dala epaigintza.

Horrela bada, Atariko-Idazpuruak eta luzera ezbardineko hiru Liburuk, lehenengoa Bizkaikoa, bigarrena Arabakoa eta hirugarrena Gipuzkoakoa, osatzen dabe testua.

AUKERATUTAKO IZENA

Bilduma hitza, gure artean tradizinorik bakoa, Legearen helburuari ez jako egokitzen ezta izaereari be, helburu hori euskal Zuzenbide pribatua goitik-behera eguneratzea da-ta. Hortik dator Euskal Herriko Foru Zibilari buruzko Lege izena emon izana. Zibila Zuzenbide pribatua baino ez daualako hartzen; Foruzkoa Zuzenbide arruntetik bereizteko eta ez antxinako eta ezarpen-esparruz Euskal Herriko erakundeak berpiztu egiten ditualako, nahiz eta Zuzenbide Arrunteko esparruak be egon.

LEGEAREN AZTERKETA

I. LIBURUA
BIZKAIKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

Bizkaiak betirik euki izan dau bere legeria egiteko eskubidea, eta Foru-Jaurpidea behera etorri zanean baino ez eban hori galdu. Foru-legeria indarrean egon zan bere osotasunean 1959. urteko Bilduma egin zan arte, honek moztu eta murriztu egiten ebala hainbat arlotan. Ohizko foru-legeria berreskuratzeko eskubidea Konstituzinoak babesturiko "jatorrizko eskubidetzat" hartu behar dogu, diktadura-garaietan egindako Bilduma horrek sakon erasotako jatorrizko eskubidea.

Erabagi guztiok gaurregunera egokitzea beharrezkotzat jo izan da, antxinako jarduera zaharkituak aldenduz eta gaurko gizarteari ondo ez joakozan erabagiak mugatuaz edo kenduaz, esate baterako tronkalaren gorabehera batzuk, edo inoiz sistemea osatzeko derrigorrezko erabagi batzuk gehituaz, adibidez, gizonezko alargunen eskubideak ugaritzeari, mantenu-beharra autortzeari edo baserrietako errentariak babesteari jagokonean.

Ez da Koderik be idatzi, arlo zibileko erakunde guztiak batuta egindako legea ez da-ta. Legea Konstituzinoaren eta Estatutuaren agindua betetzera mugatzen da, eurotan gure Foru-Zuzenbidea iraunerazo, aldatu eta garatzeko ahalmena autortzen dala, kasu honetan Bizkaikoa. Erakundeak geldierazi beharrean, bizirik eta Bizkaiko gizarteak daukan aurrera joateko borondateak eta beharrezko ikerketa-lanak seguru asko eskatuko daben aldaketei zabalik manteniduko dituan bideari lotzen gatxakoz Lege honegaz.

Europan araupide zibil desbardin asko egotea, euretariko batzuk Bizkaiko eta Euskal Herriko erakun-

deengandik hurrago dagozanak, oso aberasgarria da ziurrik; eta erakundeotariko batzuk Kode Zibilagaz bat egin barik irautea desbardintasunak egon dagozala erakusten dauan adierazgarria da, aurrerantzean sintesi hobeak egiteko bideak zabaldu leikezana. Kode Zibilean egindako azken barrikuntzei buruz adi egotea komeni da, arlo batzutan Foru-Zuzenbidera asko hurreratzen dalako eta harrigarria da Familiaren baserri-ustiakuntza eta baserritar gazteen Estatutoa onartu eban 1981.eko abenduaren 24ko legeak Bizkaiko legeko erakunderik garratzitsuenak, Kode Zibilean agertu be egiten ez ziranak, ia hitzez hitz, bereganatzen ebazala ikustea, esate baterako amankomuneko edo "eskuorde-bidezko" testamentuak, oinordetza-itunak, familiaren ondasunak osotasunean eskualdatzea etab.

I. IDAZPURUA
EZARPEN-EREMUA

Foru-Zuzenbidea Bizkaian zein eremutan ezarri behar dan zehaztea Zuzenbide honen izateari berari jagokon gai oinarrizkotzat hartu da. Baina, aldi berean, arazo horrek konponbide gatxa dauka, Uriek eta Eleizateek historian zehar izan dituen gora-beherak dirala-ta bakotxaren barrutia bereiztea ez dalako bat be erreza, batez be, eta hau oso garratzitsua da, Uriei ezargarri jaken lege zibilari jagokonez, Uririk gehienetan alde forudunak alde forubakoakaz batera irauten dabelako.

1959. urteko Bildumak nahaste haundiagoa sortu eban bere 2. eta 3. ataletako arau marapilotsuakaz, eta harrezkero gatx egiten da, Uriguneetatik kanpo, nor dan foruduna eta nor ez zehaztea.

Gainera, Bildumaren sistemak alde forudunen eta forubakoen lurraldeak behin eta barriro aldatzen ditu. Hori dala-ta, eta Konstituzinoaren 9.3. atalak eskatzen dauan segurtasun juridikoa aintzakotzat hartuta, arau zehatzagoak egin beharra dago. Erizpide hau erabili da

Foru-Lege honen 6, 7 eta 8. atalak eta Igo Azken Erabagia idazterakoan, Autonomia-Estatutuaren 10. atalean autortutako legegintzarako baimenean oinarritzen dirala eta forudun lurraldea zein dan ondo zehaztuta itxi gura dabela.

Beste alde batetik, Bildumak balio eta indar barik itxi eban 1630. urteko Konkordia. Konkordia horrek Bizkaiko Uriei baimena emoten eutsen euren barrutian Foru-Legea indarrean izatea eskatzeko, eta horretara jokatu eben Elorriok (1712), Bermeok (1734), Otxandiok (1818) eta Areatzak (1825), Forua oso-osoan edo zati baten aukeratuaz. Lege honek barriro jarten dau indarrean 1630.ean konkordatutako araua, baina eguneratuaz (10. atala).

Forua nori ezarri dala-ta, horretan be segurtasun juridiko haundiagoa bilatzen dau legeak, baita bardintasun haundiagoa be, oraintsuko epai batzuren bidebagakeriak aldendu gurean. Epaiok, ulertze-modu oso murrizgarriak erabiliaz, Foru-Legea ezarteko loturapuntu bi eta inoiz hiru be eskatzera heldu ziran, Kode Zibilaren Atariko Idazpuruak ezartzen dituan auzietarako arauen aurka eginez. Horretara, inoiz gertatu da seme bati tronkalekotasun-eskubideak ukatzea, bizkaitar herritasuna galdu ebalako. 16. atalak, joera hori zuzenduaz, izaera orokorreko erabagiak hartzen ditu auzietarako oinarrizko arautzat, forubako bizkaitarren estatutuaren berezitasunak beste barik salbuetsiaz.

II. IDAZPURUA
TRONKALEKOTASUNA

Bizkaiko Foru-Zuzenbidearen berezitasunik nabarmenena tronkalekotasuna sakon sustraiturik egotea da, horretan ez dago zalantzarik. Hori testamentuzko oinordetzan zein testamentubakoan ikusten da, intervivos edo mortis causa ekintzetan, ordainbidezkoak nahiz dohainezkoak izan. Sustraitze hori gure inguruko

herrietan, Auñamendialdeko forudun herrialdeak be barruan dirala, ezagutzen dana baino askozaz sakonagoa da.

Hori dala-ta, tronkalekotasunaren erakundeak I. Liburuaren I. Idazpurua hartzen dau, tronkalekotasuna eta bere osagaiak zehaztuz. Aldi berean, bere eraginik ertzekoenak argitzeko, eta behar bada mugatzeko, ahaleginak egiten dira, erakunde hau gaurregungoo bizimoduaren beharrizanei egokituaz.

Ildo honetatik, tronkalekotasunaren osagai bikotxa, gizasemeei lotutakoa eta gauzei lotutakoa, azaltzen da 17. ataletik 20.enera. Gizasemeei lotutako osagaia dala-ta barrikuntza bat daukagu, seme-alaba ordeak tronkaleko senideen artean sartzea, Eusko Legebiltzarraren 1988.eko martiaren 18ko 6/1988 Legearen arabera. Gauzei lotutako osagaiari buruz, zehaztu egiten dira onibarrak. Zehazketa hori Bilduman erabilitako Kode Zibileko 334. ataleko zerrendea baino hobeto egokitzen jako tronkalekotasunaren izaerari.

Urilurretan kokaturiko ondasunen ordainbidezko inorentzeetan tronkalekotasuna nahastetsua izan daiteke eta ez jako baserrialdeetan baizen beharrezkoa eristen, Foruaren oinarrizko helburua baserriaren iraupena dalako. Hori dala-ta, I. Idazpuru hau 114. atalean (IV. Idazpurua) ezarritako arauagaz osatzen da, lehentasunez eskuratzeko eskubideetatik eta saka-eskubidetik salbuetsi egiten dala urilur dana edo izatekotan dana.

III. IDAZPURUA
OINORDETZAK

Oinordetzaz III. Idazpururak dihardu, bost Atalburutan banatzen dala.

Azpimarratzekoa da, lehenengo Atalburuan, eskuordeko bidez eginiko testamentuaren edo "alkar-poderosoa"ren arauketa barria, gure Foru-Zuzenbidearen osagarririk garantzitsuenetarikoa bera. Berorri esker

alargunaren eskubideak sendotzea eta familia egokitasunez eratzea bideratzen da.

Arlo horretan, hurrengo honeek dira Lege barriaren oinarriak:

a) Bizkaitarrek ia euren ezkontza-hitzarmen guztietan alkarpoderosoa edo testamentua egiteko poderea erabilteko izan daben etenbako ohitureari jarraitu egiten jako.

b) Erakunde hori eguneratu egiten da, gaurregungo gizartearen beharrizanetara egokituaz.

c) Ezkontide eskuordekoaren egoera juridikoa indartu egiten da, Bilduma aurretiko ohitureagaz lotuaz.

d) Jaraunspenczko oinordetza zentzunez eta ausnartuta egiteko aukereak dirau, behar danean testamentu egokia eginaz, askotan aurrikuspen ezagaitik jazotako testamentu bako oinordetzarik izan ez daiten.

e) Ondarea zentzun barik eta ekonomiaren aurka sakabanatzea eta zatitzea eragozten da, azken aldiotan emoten diran administrazino-erabagi barriak indartuaz.

f) Erakunde hau, Alkarpoderosoa, idazkera erakargarriz hornitzen da, Kode Zibilaren 831. atala erabili leikien forubakoentzat eurentzat be. Kode horren idazkerea aldatuaz joan da, bizkaitarrei eurei jagokenera hurreratzeraino.

Holan bada, ohituretan oinarritutako barrikuntzak sartzen dira, oinordetzaileak testamentua egiteko gaitasunak eta komisario edo eskuordekoa izendatzekoak osotasunean dirauela, jakineko lege-mugak kontuan izanda. Hurrengoak dira barrikuntzok:

a) Oinordetzaileari eskuordekoa -komisarioa edo podereduna- izendatzeko gaitasun zabala emoten jako (32. atala).

b) Izendapena bermatu egiten da, testamentuz zein ezkontza-hitzarmenez, horretarako beharrezkoa dala Eskribauak eskuartzea (33. atala).

c) Oinordekoak izendatzeko gaitasuna bardindu egiten da eskuordekoarentzat eta oinordetzailearentzat (34. atala).

d) Eskuordekoak hori izateagaitik irabazirik ez izatea beharrezkoa da (39. atala).

e) Oraingoan beren-beregi zaintzen da banatubako jarauntsiaren segurtasun juridikoa, bere ordezkari nor izango dan arautuaz (40. atala).

f) Familiaren alde jokatuaz, oraingoan lehenengoz arautzen dira adinbako edo ezgaiei mantenua emon beharrari eta tutoretza edo kuradoretza ipinteari jagokezanak be, ekanduetan hori egiteko joerea baegoan-eta (41 eta 42. atalak).

g) Eskuordekoak bat baino gehiago izan daitezaneko podere-erabilera arautzen da (43. atala).

h) Poderea erabilteko epea eskuzabaltasunez hartzen da, beti erabili izan dan moduan, epeok mugatuegi bihurtzen dabezan agindukeriazko erabagiak alde batera itxiaz (44. atala).

i) Berariaz arautzen da alkarpoderosoa ekintza baten baino gehiagotan gauzatzeko ahalmena, erakunde hori eten barik erabili ahal izateko eta alkarren aurkako erizpide itxiek eragindako egoera arazotsurik izan ez daiten (45. atala).

j) Poderearen erabilera-moduak 46. eta 47. ataletan arautzen dira, eskuordeko ezkontideak, podere hori bere testamentuan gauzatu bada, poderearen erabilera ezeztatu egin leikeala.

k) Amaitzeko, beren-beregi arautzen dira poderea iraungiteko arrazoiak, gaurregun izan daitekezan egoera juridikoak aintzakotzat hartuta (48. atala).

Idazpuru berorretako laugarren sailean testamentua alkarregaz edo ermandadean egitea arautzen da, behinolako Bildumak batzen ez ebana. Testamentu-era hori, Aragoi eta Nafarroan zaindu zana eta gaurregungo Kode batzutan indar-indarrean dirauana, Bizkaiko Zuzenbidearen berezitasunetariko bat da, foru-legeek aldarrikatu eta ohitureak eten barik zaindutakoa. Gainera, horri iraunerazotea askatasun zibilaren eskakizuna be bada.

Alkarregaz edo ermandadean egindako testamentuaren eragozpenik handienetarikoa, legelari batzuren eritxian, aldatu ezinezkoa izatean datza. Bizkaiko Legeak asko mugatzen eban aldaezintasun hori, ezkontide testamentu-egileetarikoren bat testamentu hori egin ostcko urtebete eta egun bateko epe barruan hil ezkero baino ez eban mantentzen-eta (XXI. Idazpuruko I. Legea). Erakunde hori aitatutako muga horregaz batzen da legean, adituek ekarritako beste aurrerapen batzuk jaso beharretik eratorritako beste zehaztasun batzuk gehituaz, aldatu ezinezkotasuna bienak izandako ondasunenei buruz erabagitera mugatuaz, ondasunok diralako hori holan izatearen benetako arrazoia (49. ataletik 52.era).

Derrigorrezko ondorengotza I. Idazpuru horretako II. Atalburuan arautzen da. Berori idazterakoan ahalegin berezia egin da foruzko ondorengotza gaurregungo gizartearen beharrizanei egokitzeko, eta alde horretatik hurrengo honeek azpimarratu geinkez:

a) Aurrekoei jagokena testamentu-egilearen ondasunen erdia izateraino gitxitzen da, bostetik lau izan beharrean (56. atala).

b) Nabarmen gehitzen dira ezkontide alargunaren eskubideak. Bilduman autortzen jakon goza-

men-eskubide hain murriztu hori handitu egiten da, alarguna ondorengoakaz eta aurrekoakaz batera badago ondasun guztien erdira heltzeraino, eta hirutik bira alboko senideakaz batera badago. Besterik ezean baino ezin leike gozamenik izan tronkaleko ondasunetatik, eta holakorik jazoko balitz, onartzen da ondasunok dirutan emondako kapitalaren truke aldatzea be (58. atala). Edozelan be eskubideok iraungi egiten dira ezkontzaren banantze, baliobakotze edo dibortzioa dala-ta ezkontzak porrot egin ezkero.

61. atalean ondasun guztien gozamena ezkontideari izteko aukerea be onartzen da.

c) Oinordekoak baztertzeko egin beharrekoak erreztu egiten dira (54. atala).

d) Ondorengoen mantenu-eskubidea arautzen da (66. atala), seme-alaba moten arteko bereizkuntzarik egin barik, seme-alaba ordeak be horren barruan sartuaz ondorio guztietarako (53. atala).

e) 62. atalak Foru-Bildumaren hutsunea beteten dau seniparteari jagokon zatia atarateko arauak emonaz, baita dohaintzak zenbatgarritzekoak eta jarauntsira itzuli beharreko ondasunak zehaztekoak be.

Testamentu bako ondorengotzan (III. Idazpuruko III. Atalburua) barrikuntzarik garrantzitsuena seme-alaba moten arteko bereizkuntza kentzea da (67. atala).

Ordezkotza-eskubidea, gaurregun beherantzako belaun-lerroari mugatuta dagoana, alboko belaun-lerrora be zabaltzeari ondo eritxi jako, baina neba-arrebak neba-arreben seme-alabekin batera diranean baino ez (72. atala). Holan jokatuta lehenengo eranskinaren egitasmoa atondu eban batzordearen erizpideari jarrai-

tzen jako, ekanduak behin eta barriro erakusten ebanori aintzakotzat hartuta.

Testamentu bako jarauntsietan, zuzeneko edo alboko belaun-lerroan laugarren belaunaldira heldu eta senitartekorik ez badago, jagoken Foru Aldundiaren eskuetara igaroko da (73. atala)

IV. Atalburuan, eta "oinordetza-itunak" izenburupean, itun-bidezko oinordetza-era batzuk arautzen dira, bizkaitarren artean ondo sustraituta egon arren gaurregungo Bilduman 11. atalean aitatu baino egiten ez diranak, arlo horretan gehiago sakondu barik. Oinordetza-itunok dirala-ta adituak gero eta aldekoago agertu ezeze, Kode Zibila bera be, alkarren ostean egindako aldaketetan, hasieran holakoak eragozteko eukan erizpide gogorra bigunduaz joan da.

Askatasun zibilagazko begiruneak, foruzko lege eta ekanduen eragile danak, eta Bizkaian agiri-bidez jatorkuzanetan baserria eskualdatzeko erarik erabilena oinordetza-itunak izateak, beharrezko egiten dabe itunok legez arautzea, Bildumaren 11. atalak egiten eban aitamen hutsa nahikoa ez dala.

Ezkontza-hitzarmenak oinordetza-itunik garrantzitsuenak dira, jakina, baina dohaintzarako eskriturak be sarri egiten dira eta holan batu da egitasmoan (74. atala).

Itun motarik garrantzitsuenak be aztertu egin behar izan dira (non agertzen diran alde batera itxita) eta horregaitik ardura bereziaz arautzen da ondasunak unean bertan zein izendatzailea hil ostean eskualdatuaz egindako ondasun guztien dohaintza, baita jakineko ondasunena be (76. ataletik 78.era).

Baserria edo baserri-ustiakuntzaren bat eskualdatzen danean sarri askotan agertzen da dohaintza-emole eta hartzaileen arteko loturea, hau da, ezkontide gazte eta ezkontide zaharrak alkarregaz bizi eta osatutako fa-

milia-alkartea, eta ezinbestekoa zan hori be aintzakotzat hartzea. Lege-erakunde hori be sartu gura izan da dirauan ekanduari jarraituaz (82. atala)

Inorentzako gordeteak eta itzultzeak II. Idazpuru horren V. Atalburuan arautzen dira "Oinordetzeko erei buruzko baterako erabagiak" izenburupean. Lehenengo eta behin Kode Zibilean, 811. atalean, agertzen dan inorentzako gordetea batzen da, baina Bizkaian izan leiken erabilerara egokituta, hau da, tronkaleko ez diran ondasunei mugatuta (84. atala).

85, 86 eta 87. ataletan ezkontza-aldian irabazitako ondasunak inorentzako gordetea (85. atala), forukomunikazinoa desegitean aurrez hildako ezkontidearen ondaretik etorritako tronkaleko ondasunak (86. atala) eta ezkontzagaitik edo ezkonsaritzat emondako ondasunak (87. atala) batzen dira, aldaketa txikiakaz.

Era berean, tronkaleko ez diran ondasunetarako, inorentzako gordetea sartzen da 88. atalean, Kode Zibileko 968. atalean agertzen danaren parean joanda.

90. atalaren arabera, gordetzaileak gordetakoaren hartzaileen artean izendatu leike oinordekoa. Atalburua 92. atalean amaitzen da, mantenu beharraz emondako ondasunak itzultzeko eskubidea arautzen dala bertan.

IV. IDAZPURUA
EZKONTZAREN ONDASUNEN JAURPIDEA

Horixe da IV. Idazpuruaren gaia.

Eusko Legebiltzarraren martiaren 18ko 6/1988 Legearen erizpideari jarraituaz, ezkontzaren ondasunen jaurpidea, ezkontza aurretik zein ostean, ituntzeko edo berori askatasunez aldatzeko eskubidea autortzen da, foru-sistemearen eragile dan askatasun zibilagaz neurri handi baten bat datorrena (93. atala).

Andrazkoen eta gizonezkoen arteko edozein bazterkeria ezabatu egiten da, ezkontideek herritasun bera

ez daukenean ondasunen jaurpidea zehazteko kasuan bertan be bai (94. atala). Legearen atal hori bat dator Kode Zibilaren oraintsuko aldaketak herritasun zibilaren arloan emondako erizpideagaz.

Foru-komunikazinoaren legezko jaurpidea amaitu egiten da ezkontideak banandu zein dibortziatu egiten badira edo ezkontza baliobakotzat jo ezkero, baita itunez erabagi ezkero be (95. atala).

Arauren batzuk bereiztu egiten dabez irabazpidezko ondasunak eta ezkontide bakotxak ekarritakoak, eta euren lege-jaurpidea zehazten dabe (97.etik 102. atalera), ondasunei buruz erabagiteko ezkontide bien foruaren araberako oneritxia ezinbestekoa dala (99. atala).

Ezkontza ezkontideren bat hilteagaitik amaitzen danean seme-alabak bienak izatea edo ez izatea bereizten dauan foru-arauari jarraitzen deutso lege honek.

Bien seme-alabak egon ezkero, finkatu egiten da foru-komunikazinoa (104. atala) eta jaraunspenezko erkidego egiten da alargunaren eta hildakoaren seme-alaben artean ondasunak banatu eta esleitu arte; edozelan be eskuordeko izendatutako ezkontideak ondasun guztien erdia esleitu leikio bere buruari (106. atala) eta, horrez gainera, ondasuntza guztiaren gozamena be izango dau (105. atala).

Ezkontzaren banantze, baliobakotze edo dibortzio-epairen bategaitik ezkontza amaitu ezkero edo ezkontide bien seme-alabarik ez bada, foru-komunikazinoa ezabatu egiten da holakoetarako irabazpidezko jaurpidean erabilitakoaren antzeko sistemeari jarraituaz (109. atala). Dana dala, azken kasu horretan, foru-tradizinoan ondo sustraitutako eskubide batzuk oraindik be baditu alargunak (110. atala).

V. IDAZPURURA
LEHENTASUNEZ ESKURATZEKO ESKUBIDEAK

Legegileak arreta berezia ipini behar dau gai honetan, foru-sistemeak jasaten dituan kritiken arrazoietariko bat izaten dalako, saka-eskubidea espekulazino hutserako erabiltean egon daitekezan gehiegikeriakaitik. Horregaitik bada, txarrerako eragina daukien horrelako batzuk mugatu egiten ditu legeak, eta tronkaleko eskubideak erabiltea be erreztu bide batez, tronkaleko ondasunak tronkaleko familian irautea baino izan ez daiten eskubideon foruzko helburu bakarra.

Helburuok kontuan izanda barrikuntza garrantzitsuak egiten dira, lehenengo eta behin lehentasunez eskuratzeko eskubidedunei eta eskubideonpeko ondasunei eraginez:

a) Eskubidedunoi buruz, 126. atalak lehentasunez eskuratzeko eskubidea autortzen deutse berrogei urtetik gorako kontratua dauken errentariei, alboko belaun-lerrokoei baino lehentasun handiagoa emonaz.

   Sustraituen dagoan ohiturctariko bat errentariak berak gozatzeko daukan eta eskualdatu be egin leiken errentari-eskubidea da, batzutan eskubide horren ondorengo nor izango dan ezkontza-hitzarmen edo testamentu bidez adierazo leikeala. Eskubide hori oso ezaguna da gure ekanduzko Zuzenbidea aztertu dabenen artean, Bilduman batu ez zan arren. 1918.ean Oñatin izandako Eusko Ikaskuntzaren Biltzarrak be eskatu egin eban berrogei urtetik gorako kontratua euken errentariei zabaltzea saka-eskubidea. legeonek batu egiten dau eskari hori, gaurregungo gizartearen beharrizanakaz bat datorrena.

b) Lehentasunez eskuratzeko eskubidepeko ondasunei jagokenean, 114. atalak kanpoan izten ditu urilurretan edo urilur izateko dagozanetan koka-

tutako funtsak, horrela eskubide hori erabiltean sarrien jazo leitekean gehiegikeria-arrazoia aldentzen saiatuz, indarrean izten dauala eskubide hori famili izaereagaz sakon lotuta dagoan lekuetan.

Tronkaleko ondasunak inorendu aurretik forudciak egin behar izango dira. Foruan esaten zanez, ondasunok inorentzeko asmoa agertzea eta eurok senideei eskeintzea zan deion helburua. Bildumak helburu hori, zelanbait, aldatu egin eban, salneurria eta baldintzak zehaztea eskatuz. Saldu izana baliobakotzat joteko eta balioespenaren arabera esleitzeko aukerea egoanez, behar bada tirabira gogorren poderioz daborduko hitzartuta egoan salmenta hondatu eitekean.

Lege hau barriro lotzen jako foru-sistemeari. Inorentzaileak bere saltzeko asmoa agertzen dau eta dei horri erantzuten deutsoen senideek balioetsitako salneurrian erosiko dabela agintzen dabe. Edozelan be, salneurria iragarrita badago, onartu egin leikie (118. atala). Deiári inork ez badeutso erantzuten, jabeak edonori saldu leikio urtebeteko epe barruan (120. atala).

Deiok, Eskribauak egiaztatuta, Udaletxeko iragarki-lekuan ipiniko dira eta, elizan be agertzeak zabalkundea hobatu leikeanez, bertan be ipinteko baimena emoten jako Eskribauari (116. atala).

Onibarra eskuratu gura dagian tronkalekoak diru-bermea emon beharko dau, bere kopurua eta ondorioak 117. eta 119. ataletan zehazten dirala.

Inorentzea deirik barik egiten danean, tronkaleko senideek saka-eskubidea daukie, horren bitartez salmenta baliobakotzat jo eta funtsa bidezkotasunez balioetsita esleitu dakiela eskatu leikiela. Lege honek eskubide hori erabiltcak ekarri leikezan ondorioak arautzen ditu eta, batez be, inorentzailea, saka-eskubidea eskatzen dauan tronkalekoa eta baliobakotzat emon dan salmentako eroslearen arteko hartu-emonak (123.

atala). Baliobako aldarrikatzeko jardunbidea autonomenezko auzibide arruntaren arabera egingo da, Euskal Estatutoaren 10.6. atalak foruzko gaietan auzibidezko arauak emoteko bideak jarri eta horretarako baimena emoten dau-eta.

VI. IDAZPURUA
BIDE-ZORRAK

Iraun-legeei buruz Foruak eukan Idazpurua Bildumak ez eban jaso eta horregaitik idatzi da Idazpuru hau. Ez jasotze horrek, eta Kode Zibilaren arabera erabili izanaren iraupen hutsak bide-zorrik izatea ekarten ez dauanez (539. atala), makina bat auzi eragin dau 1959. urtetik aurrera, eurotan antxinatik erabilitako bideetatik igaroteko eskubideak ukatu egin dirala. Lege honen 128. atalak barriro hartzen dau aintzakotzat erabili izanaren iraupenagaitiko zorra, baina foruaren epea, hamabost urtekoa, luzatu egiten dau Kode Zibilaren berezkoa dan hogei urtekora arte. Aldi berean, beste arau bi emoten dira 129. eta 130. ataletan, auzigai diran arazorik garratzitsuenei urtenbidea emoteko.

II. LIBURUA
ARABAKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

Aitatutako ekimena bultzatu dabn arrazoien hari beretik, eta Bizkaiko foru-zuzenbide zibilaren aldakuntzak Arabako Laudio eta Aramaio udalerrietan daukan eragina gorabehera, Arabako foru-erakundeek Aiarako Foruaren gaurregungo idazkereak sortarazoten dituan arazoen konponbiderako sentiberatasuna helduazo deutsoe Eusko Legebiltzarrari lege honen bidez.

Gai honi gagokozala, Aiarako Foruak, arau gitxi baina garrantzi handikoez hornitutakoak, itzelezko gaurkotasuna dauka, oinordetzari buruzko zuzenbide barrienari lotzen jakolako edukinari jagokonez. Izan be, zuzenbide-arlo hori jakintsuen artean eta legedi barrienetan jasaten ari dan bilakaereak oinordetzaren eragilearen borondateagazko begirunearen nagusitasuna dau oinarri, besteak beste. Aiarako Foru idatzi nahiz

ohiturazkoa dogu, hain zuzen, jokabide horren eredurik behinena, beste zuzenbideetako lege-erakunde zenbait parekatu bai baina gailendu ezin jakozala.

Foruaren arabera, ondasunen aukerako banaketak, edozein bidez, intervivos zein mortis causa ekintzaz, bereizketaren legea dau muga bakarra eta, berez, arautuko dauan lege-arau jakinik ez dau behar. Ondasunak aukeran banatzeko eskubidea finkatzea asko da, bere ezarpenak gertakari-multzo aberats eta joria sortuazo dagian, zilegitasun osoz jantzia. Edozelan be, lege-segurtasunak ulerkera eta garapen-arau orokorrak ezartzea eskatzen dau, banatzailearen borondate eta nahia mugatu nahiz ordezkatu bage, arrazoiz osabetetzeko bideak emon dagiezanak.

Bizkaiko eta Arabako Foru-Zuzenbide Zibilaren Bildumak ondasunen aukerako banaketa arautu eban moduak hainbat arazo sortu dau, jardunean batik bat, Lege honek gainditu nahi leukezanak.

Horrela, ezinbesteko gertatzen da zuzenbide-iturburuen sistema berezia zehaztea, Zuzenbide idatziagaz batera, Aiarako Forua bere lege-ekanduaren arabera mamintzen daben ohituraren eta zuzenbide-hastapen orokorren lehentasuna finkatu eta Zuzenbide arruntera jo baino lehen epaigintza-erizpideen balioa aitortuko dauana.

Beharrezko da, era berean, zein lurralde-esparrutan izango dauan indarra zehaztea, jazo diran udalerri-mugen aldaketak kontutan hartuaz eta gertatu leitekezanen eragina aurrikusiaz.

Foruaren indar-esparrua mugatzeko, geografia-administraziozko erizpideez ganera, banatzailearen beraren legebidearen aitamenaz osatzen da, bere herritasunaren ondorena dana.

Ondasunak aukeran banatzeko eskubideari jagokonean eta aitatu dan lege-segurtasunaren mesedetan, askatasun-erizpide orokor hori praktikan bidebakotasunez mugatu leikien eragozpenak gainditzeko, bereizketea finkatu nahi izan da, baita horren aldaerea eta senipartedunen eskubideak zehazten dituen bestelako eskubideakazko baliokidetasunak eta desbardintasunak be eta, era berean, senipartedun horreen eta euren eskubideen zehaztapena, baztertze-kasuetan jagokezanak barruan dirala.

Aiarako Foruaren edukinari eskainitako Liburuan, Bildumaren Zioen Adierazpenean aitatutako ohiturazko "podere osoko gozamena" idatzizko legebidean jaso da azkenekoz, aukeran banatzeko eskubidearen hegalpean sortutako lege-erakunde lez. Aiara herrian nabarmen sustraituta egon arren, lege honetara arte ez eukan idatzizko araubiderik eta horrek zailtasun praktikoak ekarkozan.

Eragozpen horreek gainditzeko, gizarte-egoereari egokitutako erakunde hori idatzizko lege-araubidean jaso da, edukia zehazteko orduan oinordetzaren eragilearen borondateak erabatekoa izaten jarraitzen daualarik.

II. Liburu honen II. Idazpuruan, Bizkaiko Forua Arabako Foru-Zuzenbide Zibilaren barruan jaso da, bere lege-ekanduaren, Konstituzioaren eta Estatutuaren arabera, Laudio eta Aramaio udalerrietan ezarri daiten.

III. LIBURUA
GIPUZKOAKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

Idatzizko legerik ez baeuken be, gipuzkoarrek antxinatik mantendu egin zituen euren erakundeak, Bizkaikoen eta Arabakoen oso antzerakoan ziranak. Erakundeok bizirik irautea lortu eben idatzizko Zuzenbidearen erasoari gehiago eginez, baina zailtasun haundiakaz, batez be 1348.eko Alcaláko Ordenamenduaz geroztik. Gipuzkoako Batzar Nagusiek behin eta barriz eskatu eben ondorengotza Bizkaiako kasuaren antzera arautzea (1554.eko Segurako Batzarretatik hasita). 1841.eko Foruak egokitzeko egitasmoan be eskatu eban Gipuzkoak bere beren-beregiko Zuzenbide Zibila autortu zekion, baina alperrik. Oraintsuago be barriro eskatu izan da gauza bera Eusko Ikaskuntzak Elkartearen didez, 1918.ean eta 1930.ean, orduan be jaramonik ez jakola egin.

Nahiz eta arazoak gero eta larriagoak izan, gipuzkoarrek, baserrialdean, mantendu egin eben, ostera, euren ohitura-araudia. Etxea banandu barik eskualdatzea, tronkalera itzultzeak, ezkonsaria edo familiak osatzen eban ekonomi batasunaren moduko gaiak batzen dira araudi horretan, Alvaro de Navajas gipuzkoar legegile ospetsuak agertu ebanez.

Edozelan be, zailtasun garrantzitsuak dagoz ohiturearen indar-esparrua zehazteko ezeze, bere edukina argiro finkatzeko be, Bizkaiko, Nafarroako edo Arabako legeakazko zer dan baterakoa eta zer berezia finkatzeko, horretarako Araba eta Bizkaiari buruz mendearen hasieran egin ziran ikerketen antzerakoak burutu beharko dirala.

Bitartean, zuhurtasunez jokatzeari ondo eritxita, ez dira definizio zehatzak egin eta lege hau ez da Gipuzkoako ohiturazko Zuzenbidea egon dagoala aitortzetik haraindi joan, berori legez arautzea gerorako, autonomi mailako eta foru-erakundeek eragin beharko dituen ikerketen ondorioak aztertzen diranerako itxiz.

ERABAGI GEHIGARRIA

Lehenengo eta behin (I. Erabagi Gehigarrian) Foru-Legearen eta herritasun forudunaren lurralde-zabalkundeari buruzko edozein zalantza alde batera itxi gura izan da. Horretarako, planoak egitea beharrezkotzat joten da, nahi dagian edozeinen esku egongo diranak Urietako Udaletxcetan.

ALDIBATERAKO ERABAGIAK

Aldibaterako Erabagiek aurretiazko legeriaren menpean sortu eta lege honek ezarritako legeria barriaren eraginez aldatutako egoerak gainditu nahi dabez, ahal dan neurrian legeria berri honetara egokitu behar diralako. Azkenik, lege honen eragina izango dabenen lege-egoera barria horren garrantzitsua danez, indarrean jarteko hiru hilabeteko epea emotea egokitzat jo da.

EUSKERA ETA FORU ZIBILA

Aparteko ahalegina egin da Lege honen euskereari jagokonez, itzulpena barik benetan "euskerazkoa" izan daiten, foru-Zuzenbide pribatuan euskereari bere legebidezko eremua emon gura izan jakola. Horretarako erabilitako erizpidea hauxe izan da: arlo honetan herri-hizkeran erabili izan diran berbak ("alkar-poderosoa", "bide-zorrak") eta aurretik datozanak ("hil-burukoa") jaso eta gaurregun euskereak legegintza-arloan izandako hartuemonen eraginez sortutako esamoldeakaz batera erabiltea, testuan berezko barru-egokitasuna eta biribiltasuna lortzeko asmoz.

Beste alde batetik, euskerearen eta Foru-Zuzenbidearen arteko loturea lortzeko, lege honen eraginpekoak izan daitekezanei Foru Zibil honetako ekintzak eta hitzarmenak euskeraz egiteko eskubidea autortzen jake, horren ondorenez sortu leitekezan egoerak arautuz (15. atala). Foru-zuzenbide pribatuaren eremuan euskerearen normalkuntzarako urrats garrantzitsua emotea ekarriko dau guzti horrek, horretan ez dago zalantzarik, lehenengoz alkartzen dira-ta testu berean

(1988.eko martiko legea salbuetsita) Euskal Herriaren berezitasunetako bi: bere hizkuntza eta bere Zuzenbide pribatua.

EUSKAL HERRIKO FORU-ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKO LEGEA

ATARIKO IDAZPURUA
FORU-ZUZENBIDEAREN ITURBURUAK

1. atala.-

1.- Lege honetako aginduek, ohiturak eta bere tradizioaren arabera mamintzen daben zuzenbide-oinarri orokorrek osatzen dabe Euskal Herriko Lurraldeen Foru-Zuzenbide Zibila.

2.- Nabarmena ez dan ohiturea frogatu egin beharko da.

2. atala.-

Epaigintzak osatuko dau Bizkaiko Foru-Zuzenbide Zibila, berori ulertu eta ezarterakoan Euskadiko Zuzentza Auzitegi Nagusiak emon dagizan jarraituzko erizpideekin.

3. atala.-

1.- Foru-arau ezargarririk ez balego, Kode Zibila eta gainerantzeko ezarpen orokorreko erabagiak ezarriko lirateke zuzenbide osagarri lez.

2.- Zuzenbide osagarriaren ezarpena Foru-Zuzenbide Zibilaren oinarriei egokitu beharko jake.

4. atala.-

Euskal Herriko Foru-Zuzenbidean tradiziozko dan askatasun zibilaren oinarriaren arabera, legeak esku-emole dirala joten da eta eurotatik datozan eskubi-

deei uko egitea baliozkoa izango da, beti be herriaren onaren zein gizarte-erabidearen aurkakoa ez bada eta beste inori kalterik ez badeutso egiten.

I. LIBURUA
BIZKAIKO FORU-ZIBILA

I. IDAZPURUA
FORU-ARAUEN EZARPENAZ

I. ATALBURUA
EZARPEN-EREMUA

1. SAILA
Lurralde-eremua

5. atala.-

Foru honek, Bizkaiko Lurraldeko berezko legeria zibila danez, bere osotasunean izango dau indarra Lur Lauan.

6. atala.-

Lur Laua deritxo Bizkaiko Lurralde osoari, Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugalete eta Plentzia urietako eta Urduña ziutateko alde forubakoa eta Bilboko gaurregungo urimugarte osoa kanpoan dirala.

Kanpoan itxitako lurraldean legeria zibil orokorra izango da ezargarri, Foru hau ezargarri den guztietan izan ezik.

7. atala.-

Aurreko atalean aitatutako lurralde forubakoa uri bakotxaren jatorrizko urigunearen gaurregungo lurrak eta Foru hau indarrean sartu daitenean indarreko urigintza-planen arabera "urilur" lez sailkatuta egon daitezan bere albokoek osatuko dabe.

8. atala.-

Urigintza-planen osteragoko aldaketek ez dabe aldaerazoko lurralde forubakoaren luze-zabalerea.

9. atala.-

Administrazinoak egindako Bizkaiko udalen muga-aldaketek ez dabe aldaerazoko lurraldeotan ezarri beharreko Zuzenbide Zibila.

Uriren bati erantsirik dagoan antxina Eleizate izandakoren bat Uri horretatik bananduko balitz, berez eta beste barik berreskuratuko leuke eukan jatorrizko eleizate-izaerea.

10. atala.-

1.- Legebide zibil orokorra ezargarri daben udalerriek Foru zibil hau euren lurralde guztian ezarteko aukerea egin ahal izango dabe, 1630.eko Konkordiaren indarrez eta Konstituzinoaren erabagi gehigarrietako lehenengoan eta Euskal Herriko Autonomia-Estatutuaren 10.5. atalean agintzen danaren arabera, honakook bete ezkero:

a) Udalbatzarraren erabagia, aurkako baino aldeko botu gehiagoz.

b) Bizkaiko Batzar Nagusien eritxia entzutea.

c) Herritarrek onartzea, Udalak deitutako erreferendumean emondako botu baliodunen gehiengoa aldeko izanda.

d) Eusko Legebiltzarraren lege bidez onartzea.

2.- Asmo horrek aurrera egingo ez baleu, bost urtegarrenerarte ezingo litzakio barriro ekin.

11. atala.-

Bertako herritarrek aurreko atalean zehaztutako pauso guztiakaz agerturiko borondatearen ondorioz Foru hau oso-osorik ezarten bada Uri bateko lurralde forubakoan, foru-herritasun zibila lortuko dabe zuzen-zuzen.

Aurreko atalean agindutakoaren arabera ezargarri izan daiten iegeria barriak ez dau aldaerazoko ordurarteko ezkontzen ondasun-jaurpidea, baldin ezkontza-hitzarmenetan holan erabagiten ez badabe behintzat.

Pertsonen arteko eta oinordetza-kontuko hartuemonetan, aldibaterako erabagietan agintzen dana ezarriko da.

2. SAILA
Pertsona-eremua

12. atala.-

Foru zibil honen ondorenetarako, Bizkaiko Lurraldeko herritasun zibila daukienak dira bizkaitarrak.

Foru-lurraldeko herritasun zibila daukana da forudun edo infantzoia.

13. atala.-

Bizkaitar forubakoek alkarregaz edo ermandadean edota eskuordeko bidez egin leikie testamentua, Foru honetako aginduen esanera.

14. atala.-

Bizkaitarrek egin dagiezan Eskribau-eskrituretan euren herritasun zibila, forudun ala forubako diran eta, halan bajagoke, zein ezkontza-jaurpide daukien jaso beharko da, eurek adierazotakoaren arabera.

Agiria egin gura dauanak berak adierazoten ez badau, eta bestelako frogarik ezean, jaio zan tokiari jagokon herritasun zibila daukala ulertuko da eta era berean, senar-emazteen ondasunen jaurpidea alkarregaz euki daben azkenengo bizilekuaren tokiari legez jagokona dala, edo horrelakorik ez bada, ezkontza egin zan tokikoa.

15. atala.-

Foru zibil honek arautzen dituan ekintza eta hitzarmenak euskeraz egin leitekez.

Ekintza edo hitzarmenok Eskribau aurrean egin eta Eskribauak euskeraz ez badaki, eskriturea egin gura dauanak aukeratutako itzultzaile bat beharko da, bere aginduak gaztelaniara itzuli daizan, eta agiria hizkuntza bietan idatziko da Eskribautza-araudiak ezarten dauan lez, beti be indarrean dagoan hizkuntzari buruzko legeriak besterik agintzen ez badau.

II. ATALBURUA
LEGEEN GATAZKAK

16. atala.-

Beren-beregiko araurik ez balego, Bizkai barruan legebide desbardinak batera egoteak biztu daizan legegatazkak arau orokorrak erabilita ebagiko litzatekez, erakunde bakotxaren izaerearen arabera.

Atzerritarrek bizkaitar forudunen herritasuna eukiko dabe Espainiartasuna hartzerakoan lurralde forudunean administrazino-herritasuna badaukie, espainiartzeko espedientean aurkako aukerarik adierazo ezean.

II. IDAZPURUA
TRONKALA

17. atala.-

1.- Onibarren jabetza tronkaleko da. Tronkalaren izate horregaz etxaguntza familia barruan gordeten da.

2.- Tronkalaren indarrez, onibarren jabeak ezin leikez onibarrok erabili trokaleko senideen eskubideak kontutan izan barik.

3.- Tronkaleko senideen eskubideei kalte egin deieen erabilpen-ekintzen aurka egin leiteke, Foru zibil honetan agindutako moduan eta bertan esandako ondorioakaz.

18. atala.-

Tronkaleko senidetasuna Lur Lauan dagoan onibarrari begira zehaztuko da beti.

19. atala.-

Tronkalari begira, onibar dira hurrengoen ganeko jabetza zein gauzen gaineko bestelako gozamen-eskubideak:

1.- **Lurra eta lur gàinean eregi, landatu edo ereindako edozer.**

Aurreko lerroaldian aitatutakoei lotutako zein batutako ondasun mugikorrak be onibartzat joko dira, kalte barik banandu ahal izan eta banatuta eskualdatzen diranean izan ezik.

Eskuratu bako frutuak, lurragaz batera eskualdatzen ez diran landarak eta ebagiteko saltzen diran zugatzak ez dira tronkalekoak izango.

2.- **Eleizetako sepulturak.**

20. atala.-

Honako honeek dira tronkaleko senide:

1.- Beherako belaun-lerroan, seme-alabak eta gainontzeko ondorengoak, baita ordekoak be.

2.- Gorakoan, tronkalaren jatorritik datorren belaun-lerroko aurrekoak.

3.- Baita bizirik dirauan aita edo ama be, ezkontza bitarteaosi edo irabazitako eta bietako bat hildakoan bion seme-alabek jarauntsitako ondasunetarako, Foru honetako 85. atalean ezarten dan gordekizunaren eragozpenik barik.

4.- Alboko belaun-lerroan, onibarraren jatorritik datorren aitaren edo amaren belaun-lerroko senideak.

Seme zein alaba ordeentzako, tronkaleko senidetasuna seme-alabatzakoa guraso ordearen odoleko semea edo alabea balitz lez zehaztuko da, gorako zein alboko belaun-lerroan.

21. atala.-

Beherako belaun-lerroan, tronkaleko senidetasunak jarraitu egiten dau belaunez belaun, maila-mugarik barik.

Gorakoan, tronkaleko senidetasuna jatorriko onibarra lehenengoz euki eban aurrekoan amaitzen da.

Alboko belaun-lerroan, odolkidetasuneko laugarren belaun-maila zibileraino heltzen da, laugarren hori be barruan dala.

22. atala.-

Hurrengook dira tronkalekoak:

1.- Beherako belaun-lerroari jagokonez, Lur Lauan dagozan onibar guztiak, edozelan eskuratuak dirala, kanpokoengandik eskuratuak izan arren.

2.- Gorako eta alboko belaun-lerroei jagokenez, Lur Lauan dagozan eta oinordekoaren eta oinorde-

tzailearen oin berekoak diran onibar guztiak, oinordetzaileak kanpokoengandik eskuratuak barruan dirala.

"Inter vivos" erako eskualdaketetan "oinordeko" eta "oinordetzaile" berben ordez "eskuratzaile" eta "eskualdatzaile" erabiliko dira.

3.- Tronkeleko ondasuen truke zein ordezkotzan hartzea eskatzen dauan beste ordainbidezko bideren batez eskuratutako Lur Lauan dagozan onibarrak.

23. atala.-

Tronkaletik datozan eskubide eta betekizunak Bizkaiko herritar zibil guztiei jagokez, bizkaitar diranez.

Tronkalaren beraren izaereagaitik, bizkaitar-herritasuna galtzeak ez ditu ezertan gitxituko beraren indarrez izandako eskubide zein betekizunak.

24. atala.-

Tronkaleko ondasunak kanpoko inori zein eskualdatzailearen lehentasunezko belauneko ez dan ezein senideri eskualdatzeko dubaneko ekintzak, "inter vivos" edo "mortis causa"zkoak, berez izango dira lege-baliobakoak.

25. atala.-

Bizkatar forudun ez diranak askatasuna dauke tronkaleko ondasunak lehentasunezko belauneko tronkaleko edozeini duban eskualdatzeko, baina hartzaileak ezingo dau hartukizunik euki tronkaleko ez diran ondasunetan, ondasunokaz gainontzeko senipartedunei euren legezko seniparte laburra emon arte.

26. atala.-

Baserria enparaduakaz duban eskualdatzerakoan, besterik esan ezean, altzariak, abereak, lanabesak eta ustiapen-ezarkinak sartuko dira.

III. IDAZPURUA
OINORDETZAK

ERABAGI OROKORRAK

27. atala.-

Oinordekoa, tronkaleko ondasunak izan edo ez izan, testamentuz, legez, oinordetza-itunez, ezkontza-hitzarmenez zein dohaintza-eskrituraz izendatu leiteke.

28. atala.-

"Tronkaleko senideak" esaten danean beste barik, eurei jagoken oinaren belaun-lerrotik testamentubako oinordetzara deituriko senideak dirala aitu behar da.

I. ATALBURUA
TESTAMENTU BIDEZKO OINORDETZA

1. SAILA
Testamentuak orokorrean

29. atala.-

Legeria zibil orokorrean araututako testamentu-moduez gainera, "hil-buruko" testamentua be onartzen da lurralde foruduncan.

30. atala.-

Bizkaiko lurralde guztian Eskribau aurrean egindako ezein testamentutan ez da lekukorik behar izango, testamentu-egileak berak edo egiaztatzen dauan Eskribauak holan eskatzen ez badabe behintzat.

2. SAILA
"Hil buruko" testamentua

31. atala.-

Hil hurren dagoanak testamentua egin lei hiru lekukoren aurrean, bai ahoz bai idatziz.

Testamentu hori indar barik geratuko da egilea hilteko arriskutik urten eta bi hilabetegarrenean. Testamentu-egileori epe horren barruan hil ezkero be indar barik geratuko da testamentua, baldin heriotza osteko hiru hilabeteen barruan egiaztaerazoten ez bada, jardunbide-legeek agintzen daben eran.

Testamentu-egilea hilteko arriskutik urten baina beste testamenturik egiteko ezgai geratuko balitz, egiaztaerazoteko epea hiru hilabetekoa izango litzateke, testamentua egin zanetik kontatzen hasita.

Testamentua epaile batek egiaztaerazo ostean, Eskribau-liburuan jasoerazoko da.

3. SAILA

Testamentua egiteko poderea eta eskuorde-bidezko testamentua

32. atala.-

Testamentu-egileak eskuordeko bati edo batzuri emon leikioe oinordekoa izendatu eta ondasunak banatzeko ardurea, eta ondasunon oinordetza-eskualdaketa dala-ta berari jagokozan beste ahalbide guztiak.

33. atala.-

Eskuordekoa Eskribau aurrean egindako testamentu bidez izendatu behar da.

Senar-emazteek, ezkondu aurretik zein ezkondu ostean, alkar izendatu leikie eskuordeko ezkontza-hitzarmenean edo oinordetza-itunean. "Alkar-poderosoa" deritxo senar-emazteen arteko izendapen horri.

34. atala.-

Eskuordeko izendatutakoak behar dan besteko gaitasuna euki beharko dau testamentua egiteko poderea gauzatzeko orduan.

Oinordeko izendatutakoak jaraunsteko gai izan beharko dau gauzatze horren orduan edo oinordetzailea hilten danean. Baldintzapeko zein fideikomiso-izendapenak kanpoan geratzen dira.

35. atala.-

Eskuordekoak eskuordetzaileak poderea emoterakoan beren-beregi agindutakoari zehatz jarraituaz beteko dau bere ardurea eta, berariaz agindu bakoetan, Foru honetako aginduen arabera oinordetzaileari jagokozan ahalmenak izango ditu.

36. atala.-

Edozelan be, eskuordekoak oinordetzaren ondasun, eskubide, zor eta betekizun guztien zerrendea egin beharko dau behin eskuordetzailea hil eta eskuordeko izendatu dauala jakiten dauanetik sei hilabeteko epe barruan, eta oinordeko ustezkoak zerrenda horrek dinoanaren jakitun ipini beharko ditu.

37. atala.-

Eskuordekoak ezin izango dau testamentu-egilearen testamentua osorik edo bere zatirik ezereztu, horretarako beren-beregi baimena emon ez baleutso behintzat.

38. atala.-

Eskuordekoak, oinordetzaileak testamentu bidez emon leikiozan ondasunak beretzat hartu leiz, baita testamentubako oinordetzan edo testamentu-poderea gauzatu ezean legokiozanak be.

Hartukizunok 62. eta 64. ataletan agindutakoei lotuta egin beharko dira.

39. atala.-

Eskuordekoaren ardura borondatezkoa eta dubakoa izango da beti eta jagokozan ahalmenak, amanko-

munekoak zein baterakoak egiteko izan, norberarenak eta eskualdaezinak dira.

Eskuordekoak eskuordetzailearen jarauntsiaren albazea eta kontulari-banatzailea izendatu leikez.

40. atala.-

Oinordetzara deitu eta jarauntsia onartu bitartean, testamentu-egileak testamentuan bertan izendatutako pertsonea izango da jarauntsiaren ordezkari eta administratzaile, emon deiozan ahalmenakaz eta ezarri deiozan erantzunbeharrakaz.

Inor izendatzen ez bada, alargunak ordezkatu eta administratuko dau jarauntsia eta, alargunik ezean, eskuordekoak berak.

41. atala.-

Testamentu-poderea gauzatu arte, oinordetzailearen seme-alabei eta horretarako legezko eskubidea dauken ondorengo guztiei mantenua zor jake jarauntsi-ondasunen etekinen kontura, horretara behartutako pertsonarik ez badaukie.

42. atala.-

Eskuordekoa oinordetzailearen adinbako edo ezgai diran seme-alabei eta gainontzeko horrelako ondorengoei tutoretza edo kuradoretza ipintera behartuta dago.

43. atala.-

Eskuordekoek amankomunean jardungo dabe, testamentuan bertan besterik adierazo ez baledi. Gehiengoz hartuko ditue erabagiak eta, bardinean, lehenengo izendatutakoak erabagiko dau.

44. atala.-

Eskuordetzaileak testamentu-poderea gauzatzeko epea ezarri lei. Eskuordekoa alarguna balitz, poderea epe barik edo bizialdirako emon leikio.

Eperik ipini ezean, testamentu-egilea hil zanetik, edo epaileak hil dala adierazoten dauanetik, urtebetekoa izango da, ondorengo ustezko guztiak gara-adinekoak badira; ez badira, gara-adinera danak heltzen diranean hasiko da epe hori, ondorengook burujabe egitea ez dala nahikoa izango horretarako.

45. atala.-

Eskuordekoak ekintza edo eskritura bakarrean edo bat baino gehiagotan gauzatu lei testamentu-poderea, testamentu-egileak besterik agindu ezean.

46. atala.-

Eskuordekoak, "inter vivos" edo "mortis causa" ekintzetan gauzatu lei testamentu-poderea, ondasun guztietarako edo batzurentzako, legeak testamentu-egile guztientzako ezarten dituan mugak baino ez dituala izango.

Alargunak bere testamentuan gauzatu lei hildakoak emondako testamentu-poderea, baina bien seme-alaba eta ondorengoen artean baino ezingo dau banatu. Holan bada, ezkontidearen izenean egindako banaketea ezeztagarria dala adierazo leike, beren-beregi, eskuordekoak.

47. atala.-

Eskuordekoak testamentu-poderea erabiliz egin daizan banaketak ezeztu ezinekoak izango dira, aurreko ataleko azkenengo zatian araututakoan izan ezik.

48. atala.-

Testamentu-poderea honakootan iraungiko da:

1.- Gauzatzeko ipini jakon epea amaitutakoan.

2.- Eskuordekoari heriotzea, ezintasuna edo ezgaitasuna etorri jakolako.

3.- Eskuordekoa ezkontidea bada, testamentu-poderea egin ostean ezkontzaren banantze, baliobakotze edo dibortzio-eskea egin daitenean.

4.- Eskuordekoa ezkontidea izanda, hau barriro ezkondu daitenean, beste bategaz ezkondu-bizimodua daroanean edo ezkontzatik kanpo seme-alabarik euki dagiancan, testamentu-egileak besterik adierazo ez badau behintzat.

5.- Uko egiteagaitik.

6.- Jaraunsteko ezgaitzen daben gaiztakerietakoren bat egiten badeutso eskuordekoak oinordetzaileari edo bere ondorengoei.

7.- Poderean bertan agertzen dan beste arrazoiren bategaitik.

8.- Podere-emoleak ezeztatuta.

4. SAILA
Ermandadeko edo alkarrekiko testamentua

49. atala.-

Senar-emazteek biek batera erabagi leikie euren ondasunei buruz testamentua alkarregaz edo ermandadean eginda.

Testamentu hori Eskribau aurrean baino ezin egin leiteke.

50. atala.-

Alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua ezeztatu edo aldatu egin leikie senar-emazteek biek batera, Eskribau aurrean egindako beste testamentu edo oinordetza-itun batez.

51. atala.-

Senar-emazteetariko batek be ezeztatu lei bere aldetik alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua, besteari modu egiazkoan jakinerazota. Hori barik, ezeztapenak ez dau indarrik izango.

Alde batak alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua edo bere ataletakoren bat ezeztatzen badau, testamentu osoa geratuko da indargalduta.

52. atala.-

Senar-emazteetariko bat alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua egin eta urtebete baino lehenago hilten bada, alargunak ezin izango dau ezeztatu bion ondasunen gaineko erabagirik.

II. ATALBURUA
DERRIGORREZKO OINORDEKOAK

53. atala.-

Derrigorrezko oinordekoak honako hurrenkerearen arabera deituak izango dira, tronkalekoetarako aginduta dagoanaren kalte barik:

1.- Seme-alabak, ordekoak barruan dirala, eta gainontzeko ondorengoak.

2.- Gurasoak eta beste aurrekoak.

54. atala.-

Testamentu-egileak askatasun guztiaz banatu leikez derrigorrezko oinordetza osatzen daben ondasunak aurreko atalean aitatutako lerro bakotxeko oinordekoen artean, edo euretarik bakarra aukeratu besteak baztertuta, baita belaun-maila urrinagokoa hurragokoa baino gurago izan be.

Derrigorrezko oinordekoak inongo beren-beregiko bazterketa-esamolde barik baztertu leitekez, beti be testamentu-egileak oinordetza barik lagateko borondatea argi erakutsi badau.

Baztertu bako ondorengo baten ondorengoak haren ordezko dira oinordetzan. Bestela, gura ez dala testamentuan aitatu bariko inor balego, gitxien hartu dauan belaun-mailabereko ondorengoaren besteko zatia eskatzeko eskubidea eukiko leuke.

55. atala.-

Testamentu-egilearen ondasun guztien lau bostenek osatzen dabe ondorengoen senipartea.

Beste bostena askatasunez banatu leiteke, horretarako tronkaleko ez dan nahiko ondasunik balego.

56. atala.-

Aurrekoen senipartea testamentu-egilearen ondasun guztien erdiak osatzen dau. Beste erdia askatasunez banatzekoa da, tronkaleko ondasunak ez badira behintzat.

57. atala.-

Tronkaleko ondasunei jagokenean, belaun-lerro bakotxeko tronkaleko aurrekoak bakotxaren belaun-lerrotik datozanetarako izango dira oinordeko, 20. ataleko 3. zatian agindutakoaren kalte barik.

Tronkaleko aurrekorik ez balego, testamentu-egileak izendatutako tronkaleko alboko senideak izango dira oinordeko tronkaleko ondasunetan eta aitatu bakoak isilbidez baztertuta dagozala ulertuko da. Alde honetatik alboko senideei banaturiko ondasunek ez dabe gitxituko testamentu-egileak askatasunez banatu leikean zatia.

58. atala.-

Alargunak oinordetzailearen ondasun guztien erdiaren gozamena eukiko leuke, ondorengoakaz edo aurrekoakaz batera balego.

Ondorengo zein aurrekorik ez balego, ondasun guztien bi hirurenaren gozamena eukiko leuke.

Azkenengoz, oinordetzailearen belaun-lerro bietako tronkaleko ondasunen gainean jarriko da gozamena, lerrootako bakotxaren eukiaren ereduan.

Alargunaren gozamena, tronkaleko ondasunen pentzu danean, eskudiruko kapital baten truke aldatu leikie tronkaleko senideek. Alargunak askatasunez erabili leike dirutza hori eta berori dala-ta ez dau gordekizuna ipinteko eta atzera emoteko beharkizunik eukiko hurrengo lerroaldian aitatzen dan moduan ezeztatzen bada gozamen hori.

Alargunaren gozamen-eskubidea ezereztu egingo da barriro ezkontzen bada, edo beste batégaz ezkondu-bizimodua badaroa, edo ezkondu denboran zein ostean ezkontzatik kanpoko umerik eukiten badau, testamentu-egileak besterik agindu ezean behintzat.

59. atala.-

Jarautsian ez dau oinordeko izateko eskubiderik eukiko berari egotzi lekikion arrazoiagaitik dibortziatutako edo banandutako ezkontideak.

60. atala.-

Ezin izango jake seme-alabei, ondorengoei edo aurrekoei askatasunez banatzeko zatia baino ordezpen edo karga handiagorik ezarri, beste derrigorrezko oinordekoen alde ez bada.

Tronkaleko ondasunen gainean be ezin izango da ordezpen edo kargarik ezarri, belaun-lerro bereko tronkaleko senideren baten alde ez bada.

Alargunari autortutako eskubideak eta bere alde ezarritako gozamen-eskubide orokorraren agintzak ez deutsie eragingo senipartearen edo tronkaleko ondasunen ikutu-ezinari.

61. atala.-

Testamentu-egileak bere ondasun guztien gozamena itxi leio ezkontideari, 58. ataleko senipartearentzat ezarritako arrazoi berberakaitik iraungiko dana. Agintza hori eta askatasunez banatzeko dan zatiaren agintza ezin izango dira batera hartu. Edozelan be, testamentu-egileak biak aukeran itxi baditu, alargunari jagoko hautatzea.

62. atala.-

1.- Seniparteari jagokon zatia atarateko, oinordetzarako deia gauzatzen danean jarauntsiak dituan ondasun guztien balioa hartuko da kontuan, zor eta zorpe guztiak kenduta. Urteten dauan zenbatekoari dohaintza zenbatgarriena gehituko jako.

Oinordetzailearen tronkaleko ondasunak zenbatgarritu egingo dira seniparteari jagokon zatia atarateko eta, ezer baino lehen, senipartea ordaintzeko ipiniko dira, testamentu-egileak kontrakorik beren-beregi adierazo ezean.

Tronkaleko ez diran ondasunakaz derrigorrezko oinordeko ez diranen alde egindako dohaintzak eta inor beren-beregi baztertu barik egindakoak baino ez dira zenbatgarri izango.

2.- Dohaintza zenbatgarrien balioa oinordetzilea hil zanean eukena izango da, hartutako ondasunotan hartzaileak ordaindutako hobekuntza onuragarriak eta konpontzeko eta iraunerazoteko egin dituan aparteko gastuak kenduta, bere erruz egin behar izan ez baditu. Ondasunon balioari hartzailearen erruz sortutako eta bere balioa urritu daben ar.egen balioespenekoa gehituko jako. Hartzaileak emaitza-ondasunak inorendu baditu, inorentzerakoan euken balioa hartuko da kontuan. Hartzailearen erruz galdu diran ondasunetarako, galdu ziranean euken balioa besterik ez da zenbatgarrituko.

3.- Derrigorrezko oinordekoen aldeko dohaintzak ez dira jarauntsira itzuli beharrekoak izango, emoleak aurkakorik agindu ezean edo esanbidezko bazterketarik egin izan ez badau.

4.- Jarauntsira itzuli beharreko dohaintzek banaketa egiteko unean euken balioa izango dabe.

63. atala.-

Oinordetzailearen zorrak ondasun mugikorrakaz eta tronkaleko ez diran ondasun mugiezinakaz ordainduko dira. Ez batekorik eta ez bestekorik ez dagoanean bakarrik izango dira erantzule belaun-lerro bakotxeko tronkaleko onibarrak, bakotxaren ginoan.

64. atala.-

Testamentu-podererik balego, senipartea zehazteko ondasunen balioa honakook atarako leukie:

1.- Eskuordekoak, jarauntsia berari ez bajoako.

2.- Eskuordekoak, oinordetzaileak izendatutako kontulari-banatzaileagaz batera.

3.- Eskuordekoak, oinordeko ustezkoakaz batera.

4.- Epailearen erabagiz.

65. atala.-

Oinordetza ezkontza-hitzarmenez, oinordetza-itunez edo dohaintza-eskrituraz burutzen danean, bazterketea 54. eta 57. ataletan agindutako eran egin beharko da eta 62.3. atalean esandako ondorioak eukiko ditu.

66. atala.-

Legez mantenua eskatu leikien oinordetzilearen ondorengoek haren oinordekoei eskatu leikiee mantenuori, legeria zibil orokorraren arabera horretara behartutako beste inor ez balego.

Oinordeko bakotxak jarauntsitako ondasunen ereduan emon beharko dau mantenua eta ondasunon balioaren gainetik ez dau beharkizunik eukiko.

III. ATALBURUA
TESTAMENTURIK BAKO OINORDETZA

67. atala.-

Testamentu bako oinordetza seme-alaben alde burutuko da, berezko eskubidez, eta bestelako ondorengoen alde, ordezkotza-eskubidez.

68. atala.-

Aurreko atalean aitatutako ondorengorik ez badago, jarauntsia holantxe banatuko da:

a) Amaren zein aitaren aldeko belaun-lerroko tronkaleko ondasunak belaun-lerro bakotxeko tronkaleko aurrekoei jagokez, ezkontza bitartean ero-

si edo irabazitakoen gainean 20. ataleko 3. zenbakian esandakoaren kalte barik. Belaun-lerroren baten tronkaleko aurrekorik ez dagoanean, ondasunok horren alboko senide tronkalekoei jagokez.

b) Tronkaleko ez diran ondasunetan, guraso biak izango dira oinordeko edo biotatik bizirik dagoana. Guraso bizirik ezean, belaun-lerro bietako aurrekoen artean erdibituko dira, aurrekook edozein belaunekó dirala be. Belaun-lerro biotako baten aurretikorik ez dagoanean, badagoaneko belaun-lerroko aurrekoei jagokez ondasun guztiok.

69. atala.-

Ondorengorik ez aurrekorik ez badago, alarguna izango da jarauntsiaren oinordeko, alboko senideak baino lehenago, tronkaleko ez diran ondasun guztietan.

Bestelakoetan, alargunak 58. atalean autortutako seniparte-eskubideak izango ditu.

70. atala.-

Ez aurrekorik ezta ezkontiderik be ez dagoanean, tronkaleko ez diran ondasunak alboko senideetako belaun-lerro bien artean erdibituko dira, laugarren belaun-mailaraino, belaun-lerro bakotxeko senideen hurrentasuna edozein dala be.

Biotakoren baten alboko seniderik ez dagoanean, beste lerroko alboko senideei jagokez ondasunok osoosorik.

71. atala.-

Belaun-lerro bakotxean, amarenean zein aitarenean, hurragoko senideak urrinagokoa kanporatzen dau. Lehentasuna dauken senideak bat baino gehiago badira, ondasunak euren artean banatuko dira zati bardinetan.

72. atala.-

Alboko belaun-lerroan, neba-arrebak eta neba-arrebon seme-alabak batera diranean baino ez da ordezkotza-eskubiderik izango. Neba-arrebok buruko eta seme-alabok erroko hartuta izango dira oinordeko. Guraso bietako neba-arrebak eta guraso bakarreko neba-arrebak batera diranean, lehenengoei bigarrenei halako zati bi jagoke jarauntsian.

73. atala.-

Testamentu bako oinordetzetan, alboko senide-rik be ez badago, oinordetzailearen herritasunari jagokon Lurraldeko Foru Aldundiari dei egingo jako.

IV. ATALBURUA
OINORDETZA-ITUNAK

74. atala.-

Ezkontza-hitzarmenez, dohaintzaz edo Eskribau aurreko eskritura bidez egindako itunaz banatu leitekez jarauntsiko ondasunak, guztiak edo batzuk, bertan agindutako era, gordekizun, ordezkatze, itzultze-hizpaketa, zorpe eta betekizunakaz. Eskritura-egileek, gainera, daukezan ondasun guztiak edo batzuk unean bertan eskualdatzea edo hildakoan egitea erabagi leikie.

75. atala.-

Ondasunen oinordekoa oinordetza-itunez izendatzen bada, indar barik geratuko da aurretik testamentu bidez egindako edozein ondasun-banaketa.

Izendapen hori, egin dabenen edo euren ondorengoen arteko itun barri batez baino ezin izango da aldatu, ezta iraungi be eta, beti be, alde biek itundutako arrazoiakaitik baino ez.

76. atala.-

Mortis causa egindako ondasun jakin baten dohaintza oinordetza-ituntzat joko da, baita intervivos ekintzaren bidezko ondasun guztien dohaintza be, besterik hitzartu ezean.

77. atala.-

Ondasunak unean bertan eskualdatzeko egiten dan oinordeko-izendapenak ondasunon jabetza emoten deutso oinordekoari, izendatzailearen, familiaren zein ondasunen irabazpidearen mesedean alde biek hitzartutako muga-baldintzakaz. Horregaitik, edozelango erabagik edo karga-ekintzak izendatzailearen eta izendatutakoaren arteko adostasun baterakoa beharko dau baliozkoa izateko, bestelako itunik ezean.

78. atala.-

Hil ostean indarra euki dagian egindako oinordeko-izendapenak ondasunon oinordeko izaerea emoten deutso izendatutakoari eta berak ezin izango dau ez inorendu ez zorpetu. Ezkontzeko dagoan seme edo alabea izendatu bada oinordeko, honek berc seme-alabei edo ondorengoei banatu leikioez ondasunok duban, "inter vivos" edo "mortis causa" ekintzen bidez.

Izendatzaileek ondasunon jabe izaten jarraitzen badabe be, ordainbidez baino ezin izango dabez ondasunok banatu.

79. atala.-

Izendatzaileek honako honeetan ezeztu leikie izendapena:

1.- Itundutako arrazoiakaitik.

2.- Ipinitako zorpe eta baldintzetan ez betete larria egin izanagaitik.

3.- Izendatutakoak ezgaitzeko edo oinordetza galtzeko arrazoi diranetakoren bat egin badau.

4.- Izendatutakoak familikoen eguneroko alkarbizitza galerazoz jokatzen badau.

5.- Izendatutakoen ezkontzaren banantze, baliobakotze edo dibortzioa jazo ezkero, oinordetza-ituna ezkontzagaitik egin danean.

80. atala.-

Oinordeko izendapena honako honeetan iraungiko da:

1.- Izendapena baldintzatzen eban iraungitze-kasua jazo ezkero.

2.- Izendatutakoa ondorengo barik hil daitenean.

3.- Izendatzaileen erabagiz, Eskribau-eskrituraz gauzatuta.

81. atala.-

Aurreko ataletan aitatutako kasuetan, euren kontura egindako hobekuntzen eta gehikuntzen eguneratutako balioa ordaindu beharko jake izendatutakoei urtebeteko epean.

82. atala.-

Izendatzaileek eta izendatutakoek alkarregaz bizi ko dirala edo gozamen-eskubidea zein antzeko beste ahalmenen bat ez galtzea itundu badabe izendatzaileen alde, bietako bat hilda bere alargunak osorik eta bizi dan artean gordeko ditu eskubideok.

83. atala.-

Ezkontzera doanen bat oinordeko izendatzen bada eta izendatutakoa arinago hilten bada, berari jagokon eskubidea seme-alabei eta ondorengoei eskualdatuko jake.

Izendatutakoa ondorengorik itxi barik hilgo balitz, izendatzaileari itzuliko litxakioz unean bertan eskualdatzeko itunpeko ondare edo ondasunak.

V. ATALBURUA
OINORDETZEKO EREI BURUZKO BATERAKO ERABAGIAK

84. atala.-

Ondorengoren batek beste aurreko edo neba-arrebaren bategandik irabazpidez jasotako tronkaleko ez diran ondasunak bere aurrekoren bati itxi ezkero, aurreko horrek ondasunak datozan lerroko hirugarren belaun-mailarainoko senideentzat gorde beharko ditu lege-indarrez jasotakoak.

85. atala.-

Gurasoengandik onibarrik duban lortu izan dauan seme-alabak onibarrok barriro be duban eskuratzen badeutsoz aitari edo amari, eta dana dalako guraso horrek, gerokoan barriro ezkondu edo aurrean hildako ezkontidearena ez dan seme-alabarik izan ezkero, eskualdatzailearen eta bere guraso bereko neba-arrebentzat edo euren edozein ondorengorentzat gorde beharko ditu ondasunok.

86. atala.-

Barriro ezkontzen dan alargunak, edo aurrerago hildako ezkontidearena ez dan seme-alabarik daukanak, hildako ezkontidearen tronkaleko senideentzat gorde beharko ditu hildakoagandik foru-komunikazioaren bidez etorritako tronkaleko ondasunak.

Kasuotan be, ezkontideren bat hil izanagaitik foru-komunikazioa amaitzean, alargunak jasotako ondasunek bere jatorrizkoen eta irabazitako erdiaren batuketak baino balio handiagoa badauke, gaindikin hori ezkontza horretatik sortutako seme-alaba eta ondorengoentzat gorde beharko dau alargunak.

87. atala.-

Ezkontzagaitik, ezkontza aurretik zein ostean, emondako ondasun mugiezinen oinordeko, ezkontza horretatik sortutako seme-alabak edo ondorengoak baino ez dira izango.

88. atala.-

Barriro ezkontzen dan alargunak, edo aurrerago hildako ezkontidearena ez dan seme-alabarik daukanak, hildakoagandik testamentuz, dohaintzaz edo irabazpidezko beste edozein eratan jasotako ondasun guztiak gorde beharko ditu aitatutako hildakoaren seme-alaba eta ondorengoentzat.

89. atala.-

Hemen zehaztutako gordekizunak, edozelan be, gordetzaileak egindako eraikuntza, landaketa eta hobakuntzei baino ez jagokez, gordetzaile horri edo bere oinordekoei egunerratutako euron balioa ordaindu beharko jakela. Ordainketa hori gordetakoaren hartzaileak ondasunok eskuratu daizan egunean hasita urtebete eta egun bateko epe barruan egin beharko da.

90. atala.-

Atalburu honetan araututako kasu guztietan gordetzaileak gordetakoaren hartzaileen artean izendatu leike ondorengoa, testamentu bidezko oinordetzetarako araututakoaren arabera, eta gordetzaileak ezingo dau ordezkapenik egin edo kargarik jarri hartzaileon alde ez bada.

91. atala.-

Aurrekoak baino ez dira oinordeko izango umerik izan barik hildako euren seme-alabei edo ondorengoei emondako tronkalcko ez diran ondasunei jagokenean, beti be oinordetzan emondako ondasun berberok badagoz. Ondasunok inorendu egin badira, dohaintza-hartzaileak eurokaitik izan daizan eskubide guztiak

eukiko ditue aurrekoek. Era berean, ondasunok saldu izan balira, salneurria eskuratu leikie, eta trukatu edo aldatu egin balira, euron ordez jasotakoa.

92. atala.-

Mantenu-beharraz emondako ondasunen hartzailea seme-alaba edo ondorengo barik hilten bada emolea bizi dala, emoleari itzuliko jakoz ondasunok.

Kasu horretan, emolea bizi dala, dohaintza-hartzaileak ezingo dauz jasotako ondasunok inorendu, kargatu edo euroi buruz erabagi, "inter vivos" edo "mortis causa" ekintzaz, dubaneko ekintzaz, bere seme-alaba edo ondorengoen alde izan ezean.

IV. IDAZPURURA
EZKONTZAREN ONDASUN-JAURPIDEA ETA FORUKOMUNIKAZIOA

I. ATALBURUA
ERABAGI OROKORRAK

93. atala.-

Ezkontzaren ondasunen jaurpidea ezkontideek, ezkondu aurretik zein ostean, askatasunez Eskribau-eskritura bidez itundu dagiena izango da.

Ezkontzaren ondasunen jaurpidea, itundutakoa zein legezkoa, aldatu egin leiteke ezkontza-hitzarmen bidez.

Edozelan be, ezkontzaren ondasunen jaurpidean izandako aldaketak ez dira beste inork eskuratutako eskubideen edo tronkaletik eratorritakoen kalterako izango.

94. atala.-

Itunik egon ez daitenean hurrengo kasuetan ulertuko da ezkogaiak foru-komunikaziopean ezkontzen dirala: biak forudun bizkaitarrak diranean; biok herritasun hori ez daukienean batera biziteko izan dagien lehenengo ohizko egoitza Lur Lauan badago; eta baterako egoitza hori euki ezean, Lur Lauan ezkondu badira.

II. ATALBURUA
ONDASUNEN FORU-KOMUNIKAZIOA

95. atala.-

Foru-komunikazioaren bidez ezkontideek erdibana eukiko dabez ondasun mugiezin edo mugikor guztiak, ondasunon jatorria dana dalakoa dala, batenak zein bestearenak izan, bardin ezkontzara bakotxak ekarritakoak zein ezkontzan zehar irabazitakoak, ondasunok dagozan lekuak zerikusirik ez daukala.

Foru-komunikazioak, ezkontzak dirauan artean, Foruan zehaztutako zabalkunde eta mugak daukaz, eta berez eta beste barik amaituko da ezkontzaren bananţze, baliobakotze edo dibortzio-epaiaz, baita ezkontza-hitzarmenez be ezkontideek beste ondasunen jaurpideren bat aukeratzen badabe.

Foru-komunikazioa epailearen erabagiz eta ezkontideren batek eskatuta amaitu leiteke, hurrengo kasuotan:

1.- Beste ezkontidea ezgaitua izan, alde egindakotzat jo, porrot eginda dagoala edo zor-hartzekodunak daukazala aldarrikatu edo familia izteagaitik zigortu dabelako epaibidez.

2.- Beste ezkontideak bere eskubideen kalterako erabagiak hartu edo kudeaketa egiten dauanean.

3.- Epai barik bananduta urtebete edo gehiago egotea, alkarregaz bat etorrita bada be.

96. atala.-

Foru-komunikazioa, ezkontzeaz batera sortzen dana, seme-alaba edo ondorengorik alkarregaz izan daben ezkontideetariko bat hilteagaitik desegiten dan unean finkatzen da.

97. atala.-

Foru-komunikazioan, irabazitako eta ezkontide bakotxak ekarritako ondasunen arteko bereizkuntza, legeria zibil orokorrak irabazpidezko ondasunetarako eta bakarrekoetarako emoten dituan arauei jarraituz egingo da.

98. atala.-

Ezkontzako zorpeak, lehenengo eta behin, irabazitako ondasunakaz ordainduko dira, eta holakorik ez balego edo dagozanak nahikoa ez balira baino ez iitzatekez ezkontide bakotxaren jatorrizko ondasunen pentzu ordainduko, euren balioaren ereduan.

Azkenon pentzu egindakoak gerokoan izan daitekezan irabaziakaz ordainduko dira.

99. atala.-

Foru-komunikazioak dirauan artean, ondasunei buruz erabagiteko ezkontide bien baimena beharko da.

Ezkontideetariko batek baimen hori emon gurako ez baleu, Epaileak emon leike horretarako baimena, familiaren onerako dala baderitxo.

Edozelan be, ezkontide bakotxak bere kabuz erabili leikez bere izenean dagozan diru edo ondasun mugikorrak.

100. atala.-

Ezkontide bakotxari berari baino ez jagoko bere jatorrizko ondasunak administratzea.

101. atala.-

Batera irabazitako ondasunak administratzea ezkontide biei jagoke, hori dala-ta Merkataritza-Kodean zehaztutakoaren eragozpen barik.

102. atala.-

Beste ezkontidearen baimen barik egindako zorrak eta betebeharrak zorpetutakoari foru-komunikazioaren bidez jagokon erdiaren pentzu ordainduko dira, hurrengoetan izan ezik:

Lehenengoa.- Zorpetu ez dan ezkontidearen ondasunak beti geratuko dira erantzunkizunetik kanpo.

Bigarrena.- Irabazitako ondasunen eta zorpetutakoaren jatorrizko ondasunen pentzuko erantzunkizuna hurrengo arauoi jarraituz izango da:

1.- Bahiturea jakinerazo egin beharko jako zordun ez dan ezkontideari. Horrek, hamabost egutegi-eguneko epea dauka foru-komunikazioa amaitu daiten eskatzeko, 109. atalean zehaztutakoaren arabera. Holakorik jazo ezkero, zorpetutakoari eslitutako ondasunen pentzu baino ez da zorra ordainduko eta hortik aurrera ondasunen banatze-jaurpidea izango dau ezkontzak. Eskubide hori ez da izango hartzekodunak zorra familiaren onerako izan dala erakusten badau.

2.- Foru-komunikazioa amaitzeagaitiko ondasunak norbaiti esleitzea beterazpen-ekinbide berean, baina bereiztuta, gauzatuko da, jarauntsiak banatzeko arauei jarraituaz.

3.- Zordun ez zan ezkontideak barriro be ondasunak foru-komu izatea eskatu lei, bakotxari egokion erdia izendatu zanetik sei hilabeteko epe barruan, eskari hori Eskribau-eskritura bidez egin beharko dala.

Hirugarrena.- Foru-komunikazioan zordunari jagokon erdia zorrak ordaintzeko erabili egin bada, beti be ezkontzak iraun egiten badau, geratzen dan beste erdia dala-ta ez dau zordunak inolako parterik izango, zorrik bako ezkontidearen administrazinopean geratzen dala. Honek epailearen baimen barik ezin izango dau inorendu eta bertatik eratorritakoa familiaren agizko gastuetarako erabili behar izango da.

Edozelan be, zorra ordaintzeko erabilitako ondasunak ezkontide zordunak jasotakotzat joko dira, foru-komunikazioagaitik jagokonaren pentzu, ondasunon balioa ezkontzaren orduko ondasunen jaurpidea amaitzean eukena izango dala.

103. atala.-

Foru-komunikazioak dirauan artean, jaraunspenen batera deitutako ezkontideak derrigorrez onartu beharko dau beste ezkontideak ez onartzeko baimenik emoten ez badeutso. Adostasunik ez bada, jarauntsia, bere zorrei dagozan ondasunen neurrian baino ez erantzutekotan onartzen dala ulertuko da.

III. ATALBURUA
FORU-KOMUNIKAZIOAREN JAURPIDEA AMAITZEAZ

104. atala.-

Ezkontideetariko bat hilteagaitik ezkontza desegin eta bien seme-alabak izan daitezanean finkatzen da foru-komunikazioa eta ondasun-erkidego bihurtzen da. Erkidego hori alde batetik alargunak eta beste batetik hildakoaren seme-alaba edo ondorengoek osatzen dabe, ondasunak banatu eta eslaitu arte iraungo dauala.

105. atala.-

Oinordetzaileak eskuordekoa izendatu badau ondasunek erkidegoan jarraituko dabe oinordekoa izendatu arte. Ondasunok holan jarraitu dagien artean

alarguna izango da, testamentu egileak bestelakorik agindu ezean, jaraunspenaren ordezkari bakarra eta ondasuntza guztiaren administraria, izendatutako oinordekoek jarauntsia onartzen ez daben bitartean.

Testamentu-egileak bestelakorik agindu ezean, bakarrik edo beste batzukaz batera eskuordeko izendatutako alargunak, testamentu egiteko poderea erabili arte, ondasuntza guztiaren gozamenerako eskubidea izango dau, bermerik ipini behar izango ez dauala.

106. atala.-

104. atalean zehaztutakoaren salbuespen lez, eskuordeko izendatutako alargunak bere buruari esleitutu leikio ondasun guzti-guztien erdia, beste erdia hildakoaren oinordekoentzako itxita, tronkaleko ondasunak gorde beharrari kalte egin barik.

Oinordetzaileak izendatutako kontulari-banatzailerik badago, eskuordeko ezkontideak, kontulari-banatzaileagaz batera, eratutako ondasun-erkidegoa ezabatu eta kitatu egin leike, 108. atalean zehaztutako eran, oinordetzailearen oinordetzari berari izendatutako ondasunak geratuko jakozala. Bardin jokatu leike ustezko oinordekoekin edo, bestela, bere eskariz emondako epai bidez be egin leike.

107. atala.-

Ezkontide bat hil eta ezkontzan seme-alaba edo ondorengoak izan badira, alargunak epai bidez eskatu leikioe hildakoaren oinordekoei hildakoari berari egokon jarauntsiren bat onartzea. Epaileak emondako epea, edozelan be hogeitamar egunetik gorakoa izango ez dana, igaro eta oinordekook jarauntsia onartzeko borondaterik agertzen ez badabe, edo ez dabela gura adierazoten badabe, alargunak bereganatu egin leike jarauntsiori zorrak irabazien neurrian baino ez ordaintzekotan.

108. atala.-

Foru-komunikaziopean egozan ondasunak esleitzerakoan hurrengo arauok izango dira kontuan:

1.- Lehenengo eta behin alargunari bere jatorrizko tronkaleko onibarrak esleituko jakoz, jagokon hartzekoa ordaintzeko.

2.- Horreek nahikoa ez badira, ondasun mugikorrek eta tronkaleko ez diran onibarrek osatuko dabe bere hartzekoa.

3.- Aurreko arau biok nahikoa ez diranean baino ez da joko hildako ezkontidearen tronkaleko ondasunetara.

Alargunaren hartzekoa atarateko 102. atalean zehaztutakoa hartuko da aintzakotzat.

109. atala.-

Ezkontide bien seme-alabarik egon ez eta ezkontideetariko baten heriotzeagaitik amaitzen bada forukomunikazioa, edo ezkontzaren banantze, baliobakotze edo dibortzio-epaia egoteagaitik, hurrengo arauoi jarraituz jokatuko da:

1.- Ezkontide bakotxari baino ez jagokoz berak jatorriz ekarritako ondasunak edo eurokaz lortutakoak edo ondasunok saltzetik lortutakoak. Jasotakoak bere jatorrizkoak ez ziran beste ondasun batzutatik be atara badira, ondasunon jabeenak izango dira banatu arte jabekidetasunean eta euren balioaren ereduan.

2.- Irabazitako ondasunak erdibana egingo dira ezkontide bien artean.

3.- Ezkontideren baten ondasunetarikoren bat edo horrek balio dauana familiaren onerako gastatu baledi, bere eguneratutako balioa hartuko litzateke kontuan irabazitako ondasunekaz ordaindu

ahal izan daiten, eta irabazitakook nahiko ez balira, falta danetik beste ezkontideak berari jagokon ereduan ordainduko leuke, bakotxak dituan ondasunen balioaren arabera.

Foru-komunikazioa ezkontzaren ondasunen jaurpidea aldatu izanagaitik amaitu ezkero, itundutakoari jarraituko jako eta, holakorik ezean, atal honetan esandakoa ezarriko da.

110. atala.-

Ondorengorik izan ez eta ezkontideetariko baten heriotzeagaitik amaitzen bada, aurreko ataleko arauez gainera besteok be erabiliko dira:

1.- Hildakoaren baserrira etorritako alargunak, alargun diauan artean, baserrian jarraitu leike urtebete eta egun batez, legezko edo borondatezko erabagiz jagokozan enparaduko eskubideen eragozpenik barik.

2.- Alargunak ezkonsaria edo antzeko ondasuna ekarri baleu, aurrean zehaztutako epe hori luzatu egingo litzateke hildakoaren jaraunsleek berori itzultzen emon dagien denpora guztian zehar.

3.- Tronkaleko onibarren ordainbidezko eskuraketak edo hobekuntzak, zeinen lerrotik datozan, hatako ezkontidearentzat edo bere tronkaleko jaraunsleentzat izango dira. Edozelan be, ezkontzaren ondasunen jaurpidea kitatzerakoan, beste ezkontideari edo bere oinordekoei jagoken hartzekoa ordaintzeko, kontuan izango da egindako diruezarketen balio eguneratutakoa. Ordainketa hori ezkontide alarguna hil arte egin barik itxi daiteke, bizi dan artean bere erdia askatasun osoz gozatu eta erabilteko eskubidea autortzen jako-ta.

111. atala.-

Ezkontzaren banantze, baliobakotze edo dibortzio-epaiz amaitzen bada ezkontza, foru-komunikazioa amaitzeak errudun edo banantzearen zein dibortzioaren eragile izan ez dan ezkontideari eragindako kalteak kontuan izango dira bere aldeko pentsioa zehazteko edo legeria zibil orokorreko arauei jarraituz ipinitakoa osatzeko.

V. IDAZPURUA
SAKA-ESKUBIDEA ETA LEHENTASUNEZ ESKURATZEKO BESTE ESKUBIDEAK

112. atala.-

Tronkaleko senideek, forudunak zein foru bakoak izan, 20. atalaren hurrenkeraren eta lerroaren eta belaun-mailaren oinagazko hurrentasunaren arabera, kanpokoei eta ordainbidez inorendu gura izan daitezan tronkaleko ondasunak dirala-ta lehentasunez eskuratzeko eskubidea daukie.

Eskubidea erabilten dauan tronkaleko senidea baino lerro urrinagoko tronkaleko senideren baten alde egin daitenean inorentzea, orduan be izan leiteke lehentasunezko eskuraketa.

Tronkalekoak uko egin leikio lehentasunez eskuratzeko eskubideari edozein unetan, baina behin une horretatik urtebete igaro ondoren ez da ukatze horretara behartuta egongo.

113. atala.-

Lerro bakotxaren barruan, hurragoko senideak urrinagokoa kanporatzen dau. Lehentasunez eskuratzeko eskubidea belaun-maila bereko senide batek baino gehiagok erabilten badabe, eskubidea funtsa daukan tronkalekoari jagoko edo, bestela, inorenganatzaileak euron artean guren dauana aukeratu lei. Inor aukeratu ezean, eskuratzailea Eskribauaren aurreko zozketaz erabagiko da.

114. atala.-

Ez da lehentasunez eskuratzeko eskubiderik izango urilur diranetan, edo indarreko urigintza-planen arabera urilur izango diranetan, dagozan funtsak inorentzea dala-ta.

Salbuespen lez, tronkaleko senidearen aurrekoren baten famili-etxea izandakoa, eta osotasunean berezia dana, inoretzea dala-ta, lehentasunez eskuratzeko eskubidea izango da, dagoan lekuan dagoala.

115. atala.-

Inorendutako funtsak bat baino gehiago diranean, eurotariko bat edo batzuk dirala-ta erabili lei tronkalekoak bere eskubidea, guztietan erabili beharrean, baina inorendutakoa baserria bada, ustiakuntza-batasuntzat eskuratu beharko dau berari lotutako guztiekin, Jabetza-Lerrokategian banatuta agertzen badira be.

116. atala.-

Saka-eskubidepeko ondasunik inorendu gura dauanak Eskribau bidezko deia egingo deutse tronkaleko senideei.

Deia atal honetan zehaztutakoaren arabera argitaratutako iragarpen-agiriz egingo da.

Iragarpen-agirian ondorengoak adierazoko dira: inorentzea egin gura dauanaren gora-beherak, inorentzen dan funtsarenak, horren eskuraketa nondik jatorkon, katastroaren araberako balioa, holakorik baldin balego, eta inorentzea gauzatzeko aukeratutako Eskribaua, baita funtsaren lerrokatze-ezaugarriak be, euki baleukaz.

Iragarpen-agiria, edozelan be, funtsa dagoan Udalerriaren udaletxeko iragarkietarako lekuan emon-

go da argitara, parroki-elizara be igorri leitekeala Eskribau Agiri-egileak holan egiteari egoki baleritxo.

Deia Eskribau-Agiriz adierazoko da. Horretarako, Eskribauak Alkateari iragarpen-agiria eskura emon edo jaso-izanaren agiridun ziurtatutako postabidez igorri leikio, eta, halan baderitxo, jagokon parrokoari be, iragarkietarako lekuan jarri eta hamabost egunez eten barik jendeaurrean egon daiten. Jaso dauanak hori holan izan dala egiaztatuko dau berak izenpetutako edo iragarpen-agiriaren behekaldean onetsitako egiaztagiriaz.

117. atala.-

Onibarra eskuratu gura dauan tronkalekoak iragarpen-agirian aitatzen dan Eskribauagana joko dau argitalpenaren epearen amaieratik hamar asteguneko epearen barruan. Ekintza berean katastroko balioaren ehuneko hogeia gordailuan emongo dau bermetzat, iragarpen-agirian balio hori aitatzen bada.

Tronkaleko bat baino gehiago agertzen badira, danak emon beharko dabe berme gordailuan, Eskribau-eskriturea egin arte Eskribauak gordeko dauana, itzultzea eskatzen dauanak eskubideari uko egiten deutsala ulertzen dala.

Salmentazko Eskribau-eskriturearen aurretiko Eskribauaren jarduera guztiak agiri bakarrean jasoko dira. Eskribauak burututako ekinbide guztien lekukotza emongo deutsie agertutakoei.

118. atala.-

Eskribauak dei egingo deutse batzuei eta besteei funtsa balioetsi behar dauan aditua izendatu dagien aurreko atalean aitatutako epea amaitu eta hogei asteguneko epea bete orduko. Horretan bat ez badatoz, alderdi bakotxeko aditu bana izendatuko da, baita hirugarren bat be, Eskribauak izendatutako lau izen zorro baten sartu eta zozketaz bere aurrean ataratakoa auke-

ratuz. Ekintza berean, inorentzaileak tronkalekoen artean nor dauan gurago adierazoko dau, 113. atalean zehaztutakoaren arabera.

Adituek jarritako salneurrira behartuta egongo dira alderdietakoak, salneurri horren barri emoten dauan jakinerazpena jaso eta biharamonean hasita hamabost eguneko epea daukiela Eskribau-eskriturea egiteko.

Ez da beharrezkoa izango adituon neurketarik eskualdatzailea eta aukeratutako edo izendatutako lehentasunezko trokaleko senidea salneurrian bat badatoz, aldi berean Eskribau-eskriturea burutuko dabela.

119. atala.-

Bermetzat emondakoa emolearen betebeharren erantzunkizunetarako izango da eta, Eskribau-eskriturea egiteko orduan agertzen ez bada, eskualdatzaileak aukeran izango dau eskualdaketa jarritako salneurrian egiteko eskatzea edo eskuratu gura ez dauala ulertzea, inorentzea egiteko asmoa ebanarentzat izango dala bermea, kalte-ordain lez. Eskualdaketa egitea aukeratuko baleu, bermea salneurriaren zatitzat hartuko litzateke.

Eskuratu gura ez danean, bermea gordailuan emon eta mantendu daben tronkaleko senideei horren jakinerazpena emongo deutse Eskribauak, hamar eguneko epean, salmenta egiteko eguna eta ordua zehaztuz. Jakinerazotetik salmenta egiteko egunera arte gitxienez hamabost egun igaro beharko dabe, jakinerazpena jaso dabenek adituek barriro neurtu dagien eskatu ezik.

120. atala.-

Tronkaleko seniderik agertuko ez balitz edo batek be ez baleu bere eskubidea erabiliko, jabeak askatasun osoa eukiko dau onibarra beste norbaiti inorentzeko edozelango ordainbidez eta berak erabagitako

salneurri eta baldintzen arabera, iragarpen-agiria azkenez argitara emon eta urtebeteko epearen barruan. Epe hori igaro ondoren, ezin izango dau ordainbidez inorendu deia barriro egin barik.

Tronkalekoa ez agertutzat joko da Idazpuru honetan aitatutako edozein epe iraungiten izten dauanean.

121. atala.-

Inorentzaileak eta deira legez agertutako tronkalekoek, lehentasunezko belaun-mailakoak ez diranek be, funtsa beste norbaiti inorentzea erabagi leikie, agobatez eta Eskribau aurreko agerpen bidez. Inorentzea aurreko atalean aitatutako urte beteko epean egin beharko da.

122. atala.-

Saka-eskubidepean dagozan tronkaleko ondasunen ordainbidezko inorentzeko edozein Eskribau-eskrituratan foru-deia egin dan ala ez jarriko da. Baiezkoan, iragarpen-agiria jarri izanari buruzko agiria eta ostean burututako ekinbideak aitatuko dira, jagokon lerrokapenean dei hori legezko eran egin zan ala ez zehaztuz.

123. atala.-

Onibarra inorendu egingo balitz aurreko deia egin barik, eskuratu dauanak baino lehenagoko eskubidea daukan tronkaleko edozeinek erabili lei saka-eskubidea, egindako inorentzea bertan behera izteko eta funtsa bidezko balioaren arabera berari izendatzeko eskatuaz. Eskubide hori saltzaile eta eroslearen aurkako agizko epaiketaz erabili beharko dau, Jabetza-Lerrokategian agertuerazoten danetik, edo egiten ez bada inorentzearen barri izan dauanetik, hiru hilabeteko epea bete orduko.

Saka gertatuko balitz, onibarraren balioaren salneurria gordailuan emon beharko dau tronkalekoak Epaitegian, eta horren gainean eroslcak izango dau le-

hentasuna, saltzailearen beste edozein hartzekodunen aurretik, egindako erosketaren salneurria eta horren errediruak berreskuratzeko.

Eroslearen eta saltzailearen arteko arazoak, kalteei buruzko erantzunkizunak dirala-ta, epaiaren egiterapen-aldian erabagiko dira gertakizunen ekinbide berean, baina bereiztuta.

124. atala.-

Bahitura bidezko zor-ordainketetan, epaizkoak edo epaiz kanpokoak, zein preminazko jardunbidezkoetan, tronkaleko senideek hurrengo eskubideetariko edozein erabili leikie:

1.- Lehentasunez eskuratzekoa, esleipenaren salneurri berean, enkantea egiten dauan jardute-sailaren aurrean agertuz, hartzaileari eskualdaketaren Eskribau-eskriturea egin orduko, eta aitatutako salneurria ekintzan bertan gordailuan emonaz, edo

2.- Saka deritxona, Idazpuru honetan araututakoaren arabera eta enkantea egin dan egunetik hasita hiru hilabeteko epearen barruan.

Zorraren hartzekodunari izendatzen jakonean be bardin izango dau eskubidea, izendatze-egunetik hasita hiru hilabeteko epearen barruan.

125. atala.-

Idazpuru honetan araututakoa trukaketetan be ezarriko da jarraian zehazturiko egoerotan:

1.- Tronkaleko funtsa tronkalekoak ez diran ondasunen ordez trukatzen danean, edo tronkalekoak izan arren lehentasunez eskuratzeko eskubidepetik kanpo dagozanean.

2.- Trukaketaren bidez jasoten dan funtsak emondako tronkaleko ondasunaren balioaren hiruren bat gitxiago balio dauanean.

126. atala.-

Berrogei urtetik gora errenta-hitzarmena indarrean euki dagian errentariak, bere senideek funtsa errentan euki eben denporea be barruan dala, errentan hartutako funtsa hori dala-ta lehentasunez eskuratzeko eskubidea izango dau, Idazpuru honetan arautzen danaren arabera.

Errentariaren aitatutako eskubideak lehentasuna dauka alboko senideenaren aurrean, eta trokaleko batek be ez dau lehentasunezko eskubiderik izango jabe izatera heltzeko eskubidea dala-ta inorentzen jakonean funtsa errentariari.

127. atala.-

Idazpuru honetan autorturiko eskubideek antzeko izaeradun beste edozeinek baino lehentasun haundiagoa izango dabe.

VI. IDAZPURUA
BIDE-ZORRAK

128. atala.-

Bide-zorra tituluz edo hogei urteko erabilpenez eskuratzen da.

129. atala.-

Bide-zorraren zabalera lur-zati zor-hartzailearen beharrizan guztiak beteteko bestean handitzea eskatu lei lur-zati horren jabeak, horri jagokon kalte-ordaina emonaz.

130. atala.-

Bide-zorrean, berori hobeto erabilteko komenigarritzat joten dituan bide-zoruko lanak bere pentzu

egiteko ahalmena dauka lur-zati zor-hartzailearen jabeak, lur-zati zor-emolearen jabeari horren barri emon ostean.

II. LIBURUA
ARABAKO FORU ZIBILA

I. IDAZPURUA
ARABAKO FORUA

I. ATALBURUA
EZARPEN-EREMUA

131. atala.-

Arabako Forua, Arabako, Amurrio eta Okondo udalerri osoetan eta Artziniega udalerriko Mendieta, Erreta-Tutera, Santa Koloma eta Zolloguti herrietan ezarten da.

132. atala.-

1.- Udalerri bat edo batzuk batzen bajakoz Arabako Forua ezargarri dauan udalerriren bati, Arabako Forua hedatuko jako udalerri batuberriari.

2.- Udalerri forubako bati udalerri forudunen bat batzen bajako edota udalerri forudunen baten zati bat banatzen bada, horrek ez deutso eragingo batutako lurraldean nahiz banatuan ezargarri zan zuzenbide zibilari.

3.- Udalerri forudunetakoren batek bat egiten badau udalerri forubakoren bategaz, Arabako Forua izango da ezargarri udalerri barri horretan.

133. atala.-

1.- Herritasun zibilak aginduko dau Arabako Forua ezarterakoan.

2.- Arabako Forua ezarteko orduan, Zuzenbide arruntak arautuko dau herritasun zibila.

II. ATALBURUA

1. SAILA
Ondasunen aukerako erabilpenaz

134. atala.-

1.- Foru-herritasuna dutenek ondasunak askatasun osoz erabili leikiez, guztiak ala zati bat, testamentuz, agintzaz nahiz dohaintza bidez, derrigorrezko oinordekoak handiaz nahiz txikiaz baztertu ondoan, on ala hobe eritxiagatik.

2.- Ondorengoak, aurrekoak eta ezkontidea joko dira derrigorrezko oinordekotzat, Kode Zibilak erabagitako kasuetan.

135. atala.-

1.- Bazterketa esan nahiz isilbidezkoa izan daiteke eta, era berean, banakakoa edo baterakoa.

2.- Isilbidezko bazterketatzat joko dira nahita aitatu bakoa eta bidezko zein bidebako oinordetza-kentzea.

3.- Derrigorrezko oinordeko guztien baterako bazterketak, oinordetzailea hiltzean horrelakoak diran guztiak hartuko ditu.

136. atala.-

Ez dira aitatu bakotzat joko edozein bidez baztertutako senipartedunak.

137. atala.-

Gurabarik aitatubako derrigorrezko oinordekoak, bere senipartea eskatu leike. Oinordeko-izendapena eta testamentuko gainerako erabagi guztiak seniparte hori gitxitu dagien neurrian murriztuko dira.

138. atala.-

Ondorengo guztiak aitatu barik izten diranean, seniparte luzea jasoteko eskubidea izango dabe ondorengook. Horreetarikoren bat baino ez bada aitatu barik itxi gainerako senipartedun itatutakoetatik gitxien jasotakoak beste hartzeko eskubidea izango dau eta, gitxienez, seniparte laburra.

139. atala.-

Baztertutako ondorengoen ondorengoak ez dira aitatubakotzat joko, eta aurrekoaren ordezko gertatuko dira bazterketan.

2. SAILA
Podere osoko gozamena

140. atala.-

Podere osoko gozamenaren arabera, gozamendunari jagoko, intervivos edo mortis causa ekintzaz, gozamen-jartzailearen seme-alaba edo ondorengo guztien nahiz zenbaiten artean ondasun guztiak zein ondasun batzuk duban banatzeko ahalmena, gozamen-eskubidearen berezko edukinari jagokonaz ganera.

141. atala.-

Aurreko atalean erabagitakoa gorabehera, testamentu egiteko askatasuna erabiliaz, gozamen-jartzaileak esku osoa izango dau podere osoko gozamendunak ondasunen jasotzailea edo jasotzaileak nortzuren artean izendatu leikezan aitatzeko eta, era berean, podere osoaren edukina zabaldu, murriztu nahiz zehatzagotzeko.

142. atala.-

Podere osoko gozamena bere-berezko eskubidea da. Ezin izango da inolako bidez ez inorendu ez zorpetu, gozamen-jartzailearen baimenik barik.

143. atala.-

Gozamendunak podere osoko gozameneko ondasunak zenbait senipartedunen artean banatu baleikez, senipartedunok baztertutzat joko dira, gozamendunak banatu bako ondasunakazko egokitu dakikien eskubidearen kalterik barik.

144. atala.-

Podere osoko gozamenpeko ondasunei jagokezan andega-konponketa, gastu, zorpe edo zerga guztiak gozamendunaren kontura izango dira, ondasunok banatu dagizan artean.

145. atala.-

Podere osoko gozamendunak ez dau bermerik ipini beharrik izango, oinordetzaleak besterik agindu izan ezean.

II. IDAZPURUA
LAUDION ETA ARAMAION EZARGARRI DAN FORU-ZUZENBIDE ZIBILA

146. atala.-

1.- Laudio eta Aramaio udalerrietan Bizkaiko Forua da ezargarri, Bizkaia Lurralderako beren-beregi ezargarri izan daitekeen lurralde-eremuaren zehaztapenari jagokozan erabagiak izan ezik.

2.- Bizkaiko Forua ezarterakoan herritasun zibilak aginduko dau Laudio eta Aramaio udalerrietan.

III. LIBURUA
GIPUZKOAKO FORU ZIBILA

147. atala.-

1.- Baserriaren eta familiaren ondasunen antolaketari buruzko ohitura zibien indarra aitortzen da, ohiturok Eusko Legebiltzarreko legearen bidez eguneratu egin beharko dirala.

2.- Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako foruzko erakundeek bultzatu eta sustatu egingo ditue Lurralde horretako ohiturazko zuzenbidea gaur egunean daukan indarraren araberako behin-betiko idazkeraz hornituta geratu daiten lortzeko lanak.

ERABAKI GEHIGARRIA

7. atalean ezarritakoaren ondorenetarako, forurik bako Bizkaiko Urietako Udalek Lege hau argitaratzen danetik hiru hilabeteko epea daukie jatorrizko urigunearen gaurregungo lurrak eta indarreko urigintza-planen arabera "urilur" lez sailkatuta egon daitezan bere albokoak zehaztuko dituan planoa egiteko.

Aitatutako Udalek egin beharreko planook Foru Aldundira bialdu behar izango ditue, eta honek Batzar Nagusietara bialduko ditu, behin-betikotasunez onartu ondoan euren argitalpena aginduko dabela.

Erabagi honetan aitatutako planook onartu ostean, kopia bana igorriko jake Zuzentza Auzitegi Nagusiari eta jagokon Udalari, nahi dagienen eskura egon daitezan.

ALDIBATERAKO ERABAKIAK

Lehenengoa.-

Pertsona eta oinordetzazko hartuemonak, lege honen 11. atalak aitatzen dauanerako, legeria barriak arautuko ditu, berori indarrean jsrriaz batera eta ezargarri diran Kode Zibilaren aldibaterako erabagien arabera.

Bigarrena.-

44. atalean testamentua egiteko poderea erabilteko epeari buruz eta 45. atalean testamentu-poderea ekintza edo eskritura bakarrean zein bat baino gehiagotan erabilteko aukereari buruz zehaztutakoa atzeraindarrezkoa izango da Lege hau indarrean jarri baino arinagokoentzat.

Hirugarrena.-

Legea indarrean jarri aurretik emondako testamentua egiteko podereetan ezkontidea eskuordeko izendatu bada, bizi dan artean gozamena izateko eskubidea autortuko jako, podere hori erabilteagaitik iraungiko ez dana.

Laugarrena.-

Lege hau indarrean jarri aurretik hasitako bide-erabilpena kontuan izango da bide-zorraren eskubidedun izateko epe-arazoetarako.

INDARGABEKOTZE-ERABAKIA

Lege hau indarrean jarri daitenean indarbakotuta geratuko dira Bizkaiko eta Arabako Foru-Zuzenbide Zibilaren Bildumari buruzko 1959.eko uztailaren 30eko Legea, Foru-Zuzenbide Zibilaren Zatizko Aldaketari buruzko 1988.eko martiaren 18ko Eusko Legebiltzarraren Legea eta Lege honen aurka joan daitezan beste erabagi guztiak.

AZKEN ERABAKIA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Autonomi Elkartea osatzen daben Lurraldeetakoetan argitaratuko da, euretariko lehenengoan argitaratu eta hiru hilabetegarrenean jarriko dala indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Ajuria-Eneako Jauregian, 1992ko uztailak 13.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

III.3

5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide zibilari buruzkoa

[EHAA, 124.zk.,2015eko uztailaren 3koa eta
Hutsen zuzenketa, EHAA, 84.zk., 2016ko maiatzaren 5ekoa]

Eusko Legebiltzarrak 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ZIOEN AZALPENA

I

Eusko Legebiltzarrak ondutako uztailaren 1eko 3/1992 Legea izan zen lehena, Euskal Zuzen-bide Zibilaren arauketa gauzatzeko orduan, 1526ko Bizkaiko Foru Berriaren ostean. Lege hori euskal legelariek idatzi zuten eta euskal organo legegile batek onetsi zuen.

Eusko Legebiltzarrak ahalmenak zituen lege hori onesteko, hain zuzen ere, 1978. urteko Espai-niako Konstituzioaren 149.1.8 artikulua Horrek, Estatuaren mesederako gorde bazuen ere gai zibiletan legeak egiteko ahalmena, salbuespenak ezarri zituen; besteak beste, autonomia-erki-degoek zuzenbide zibilak, forudunak nahiz bereziak, iraunarazi, aldarazi eta garatu ahal izango dituzte, halakoak direnetan. Konstituzioaren xedapen horretan oinarri harturik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak arautu zuen, 10.5 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuduntza beregaina, honetara zuzendua: Euskal Herria osatzen duten herrialde historikoen zuzenbide zibil foral eta berezi idatziaren nahiz ohiturazkoaren kontserbazio, aldatze eta bilakaera, bai eta bera-ren indarraren lurralde-barrutiaren finkapena ere.

Beste alde batetik, ezin da ere ahaztu testu horrek bultzada handia jaso zuela Gipuzkoako lurraldeari dagokionez geroagoko aldatze eta handitze batekin, zeina ekarri baitzuen azaroaren 26ko 3/1999 Legeak, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionean aldatzekoak. Lege horrek mugarri bat jarri zuen Gipuzkoako

Zuzenbidean, 1992ko testuak beste bi lurraldeetan jarri zuenaren parekoa, kontuan hartzen bada urriak izan direla beti Gipuzkoako Foru Zibilaren idatzizko iturriak, ohiturazko zuzenbidea izan delako beti lurralde hartako zuzenbide pribatuaren funtsezko iturria.

Hogeita hamar urtetik gora pasa dira Konstituzio eta Estatutua indarrean jarri zirenetik, eta zuzenbide zibil foral edo berezi propioa duten autonomia-erkidegoen legegintza-esperientzia alderatuak eta jurisprudentzia konstituzionalak oinarri sendo bat jarri dute biltzar autonomikoei eskumenak aitor dakizkien zuzenbide zibil foralean ahalsmen legegilea baliatzeko.

Horregatik, lege hau prestatzeko orduan askatasun osoz eta 1992ko Legea egiterakoan izan ziren eskumen-zalantzak planteatu gabe jokatu ahal izan da, baita begiradaren mugak zabalduz ere, jurisprudentzia konstituzionalak, zentzu onak eta denen hobe beharrak ezarritako lerroen barruan. Helburua izan da, beti, bizirik mantentzea eta aprobetxatzea tradiziozko eta ohiturazko zuzenbidearen legatua, baina aldi berean begirada jartzea gaurko munduan eta egungo euskal herrian, non merkataritzak eta industriak pisu handia daukaten eta zein ezin den identifikatu duela mende batzuetako landa-gizartearekin, zuzenbide honen jatorrizko formulazioak erantzuten zion gizarte harekin.

Euskal Herriaren beste ezaugarri batzuekin gertatzen den bezalaxe, funts alboraezina da Gaztelako eta Europako zuzenbidea, eta horrexegatik testua interpretatu behar da Espainiako Kode Zibilarekin batera, testu honek ez baitu xede aspaldiko erakunde zibilen eduki osoa agortzea, horiek bizirik baitaude Kode Zibilak arautzen dituen moduan. Kode Zibil hori indarrean dago testuaren zatirik zabalenean eta, kasurik okerrenean ere, zuzenbide ordeztailearen izaera du, salbu eta erakunde beregainak arautzen direnean, hala nola tronkalitatea, Bizkaian, Laudion eta Ara-maion aplikatzen dena.

Euskal Zuzenbidea zuzenbide europarra da eta sarturik dago mendebaldeko zuzenbide euro-parraren esparruan. Jakina denez, Erdi Arotik barruratu zen Zuzenbide Erromatarra lekuan lekuko zuzenbidearen sustraien gainean, nahiz eta Euskal Zuzenbideak badituen erakunde batzuk non Zuzenbide Erromatarra ez den aplikagarri.

Ondorioz, Gaztelako Zuzenbidea, Zuzenbide Erromatarraren eragin nabarmena zuena, bertako zuzenbidearen hutsuneen betegarri zen. Nolanahi ere, badira Euskal Zuzenbidean ñabardura esanguratsuak, zuzenbide erkidea aldarazten dutenak eta lege honek gordetzen eta garatzen direnak.

Era berean, lege hau interpretatzeko orduan kontuan izan behar da ere aplikagarria den Zuzenbide Komunitarioa, hasi baita eragina izaten, eta gero eta gehiago eragingo baitu, zuzenbide pribatuan, eta beraz baita zuzenbide foralak arautu ohi zituen gaietan ere. Hor da, adibidez, Euro-par Batasuneko Legebiltzarraren eta Kontseiluaren uztailaren 4ko 650/2012 Erregelamendua, xedapenen eskumen, lege aplikagarri, errekonozimendu eta egikaritzari buruzkoa, mortis causa oinordetzen arloko dokumentu publikoen onarpen eta egikaritzari buruzkoa eta oinordetza-ziurta-giri europar bat sortzeari buruzkoa.

Azkenik, lege honen asmoa ez da agortzea orain Euskal Foru Zuzenbide Zibilak izan dezakeen garapen-eremu guztia. Zuzenbide hori poliki-poliki hedatuko da eremu berri batzuetara Legebiltzar honek onesten dituen beste lege batzuen bidez, une bakoitzeko beharrizanei eta eskaera sozialei erantzute aldera gorago azaldutako eskumen-esparruaren barruan, eta baita, gorago esan den bezala, ohituraren bidez eta Foru Zuzenbide Zibilaren printzipio orokorren bidez ere, Zuzenbidea-ren iturri diren heinean. Orain gure Zuzenbide Zibila zabaldu eta sakondu beharra daukagu, beste autonomia erkidego batzuek egin duten bezala, eta Euskal Zuzenbide Zibilaren formulazio ahalik eta osatuena lortu, epe egoki batean.

II

Atariko tituluan Euskal Foru Zuzenbide Zibilaren iturrien kontua jorratzen da. Funtsean ez da aldentzen iturrien eskema propiotik eta indarrean dagoenetik, baina erantzuna eman nahi zaio aplikagarriak diren arauen irismen eta interpretazioari buruz segurtasun juridikoa eta ziurtasuna izan beharrari, gaurko garaira eta egungo legeria prozesalera eta antolaketa judizialera egokitutako ikuspuntua-

rekin. Horrela, arauketa osoagoa eman zaie ohiturari eta zuzenbidearen printzipio orokorrei, aintzat harturik Euskal Herrian oinordetza-zuzenbidea beti izan dela ohiturazkoa, salbu eta Aiarako Forua eta Bizkaiko tronkalitate arauak eta idatzizko beste arau solte batzuk. Gainerakoan, dokumentu zaharrek erakusten dute oso antzeko arauak aplikatu zirela hiru lurralde historikoetan eta are testamentu-ahalordeak eta testamentu mankomunatua sarri erabili zirela Bizkaitik kanpo, bereziki Gipuzkoan.

Ondoren, printzipio orokor batzuk ezartzen dira. Bertan agerian uzten da jabetza-eskubideak izaera solidarioa zeukala gure lege zaharretan eta kategorikoki baieztatzen da askatasun zibila, zeinak pentsarazten duen lege guztiak esku-emaileak direla.

Berrikuntzarik nabarmenena, hala ere, euskal auzotasun zibilaren arauketan datza. Orain arte ez zegoen tokiko auzotasuna baizik eta horrek eragozten zuen, berbarako, izatezko bikoteen ondorioak arautzeko euskal auzotasuna ardatz moduan hartzea, halakorik ez zegoelako. Hainbatez, auzotasun administratiboan babestu da izatezko bikoteen araubidea.

Premiazkoa zen, hortaz, auzotasun erkide bat izatea Euskal Autonomia Erkidegoaren herritar guztiontzat. Halakoa sortzen eta arautzen du testu honen 11. artikuluak, hori bera bateragarria dela tokian tokiko auzotasunarekin. Azken hori da, izan ere, erakunde batzuen aplikaziorako Aia-rako auzotarrek, bizkaitarrek edota gipuzkoarrek dutena.

Testuaren jomuga da, bestalde, indarra izatea Euskal Autonomia Erkidego osoan. Horren xedapenek aplikagarriak behar dute izan lurralde osoan. Egia da, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia bide desberdinetatik joan zirela, baina egia da, orobat, euren arteko desberdintasunak urriak eta kasurik gehienetan formalak direla, ez funtsezkoak, betiere foru-ohituraren esparru zabalean.

Egoera horrek ahalbidetu du testu bateratua egitea, herritar guztientzat onargarri izan daitekeena, lege eta ohitura oso bestelakoetan izan ezik, hala nola testamentua egiteko askatasuna Aiaran, edo tronkalitatea eta ondasunen ko munikazio-araubidea bizkaitarren arteko ezkontzan.

Desberdintasunek ez dute saihesten auzotasun zibil erkide bat moldatzea, hain zuzen ere euskal auzotasuna, aurreko legeak arautu ez zuena. Bistan da hori gabe zaila dela lege-gatazkak konpontzea.

III

titulua hasten da ondareari buruzko zuzenbidearen printzipioak adieraziz. Horien artean, 13. artikuluan landa-errendamenduak aipatzen dira, zeinak asko hedatu baitziren XIX. eta XX. mendeetako euskal baserrietan. Epeari dagokionez, mugagabeak ziren, errentaren ordainketan huts egin ezean. Botere zentralak horri buruz aldarrikaturiko legeek sarritan jarri zituzten zalantzan landa-errendamendu horiek, aintzat hartzeke baserrien kasuetan etxebizitzaren erabilera lotzen dela lursailen jorraketarekin, gehienetan bigarren hauek lehenaren erantsiak direla.

Euskal baserrien landa-errentamendua berezko izaera duen erakundea da, beharbada zentsuetatik hurbil dagoena, eta testuak berezitasun hori gorde nahi du, nahiz eta erakundearen garatze bidea botere publikoen zeregina izan eta erabaki politikoen menpe egon.

Legeak, orobat, sozietate zibilak arautu nahi ditu, horiek aspaldiko espiritu baten adierazleak baitira, besteak beste gizakumeak elkarrekin jardutekoa. Halakoak irauten du egunotan ere, kofradia, ermandade eta mutualitateetan eta ez da arauketa propio baten objektua izan orain arte.

IV

II. tituluak oinordetzak ditu araugai. Aiarako forua eta Bizkaiko tronkalitateari buruzko arauak salbuetsita, Euskal Herriko oinordetza-zuzenbidea beti izan da ohiturazkoa. Gainerakoan, agiri zaharrek adierazten dute arau bertsuak aplikatu zirela hiru herrialde historikoetan eta testamentu-ahalordeak eta alkarpoderosoak eta testamentu mankomunatuak sarri erabili zirela Bizkaitik kanpo ere. Hori dela eta, idazkera bakar bat egin da, Bizkaiko eta Aiarako arau bereiziak

jarraian datozela. Horretara jarrita, testamentu egilearen askatasuna zabaltzen da.

Hilburukoa heriotza-arriskuan egindako testamentua da eta egoki dago araututa Bizkaiko Foruan. Hainbatez, arauketa hori hedatzen da hiru herrialde historikoetara, Zuzenbide Zibil erkidea aplikagarri izan dakien.

Kode Zibilak bereziki debekatu zuen testamentu mankomunatua, Alemaniako Kodearen debeku gogorra aintzat harturik, baina horrek sortzen dituen susmoak eta errezeloak gutxitzen joan dira araubide modernoetan. Bizkaiko Forua eta 1992. urteko euskal legeak haren indarra gorde dute, senar-emazteen artean soil-soilean bada ere.

Nahitaezko oinordetzari dagokionez, desberdintasun handiak dira gure zuzenbide historikoan. Horiek bateratze bidean jartzea komenigarri izango litzateke. Aiarako Foruak testamentu egiteko askatasun osoa gordetzen du. Arean ere, ikusirik horrek Aiaran dituen sustrai sendoak, uste da zuhurra dela erakunde hori gordetzea.

Gainerakoetan, agerikoa da leku askotan Kode Zibilaren seniparte-sistema dagoela indarrean, Bizkaian izan ezik. Bertan senipartea hartu zen Gaztelan indarrean zegoen Partiden Legetik, hori ere gure tradizioaren aurkakoa zela, eta jarauntsiaren lau bostenekoa zen, Kode Zibilak bi herenetara murriztu arren, bat seniparte hetsiarena eta bestea hobekuntzarena.

Testuak seniparte bakarra ezartzen du, ondarearen heren batena, Euskal Autonomia Erkidego osorako. Uste izan da erabaki hori oso garrantzitsua dela eta laguntzen duela, beste edozerk baino gehiago, Euskal Zuzenbideari batasuna ematen eta Europako legeriei buruz hurreratzen.

Salbuespen bakarra da, nahitaez, Aiarako haranarekin egin beharrekoa, testamentu egiteko orduan erabateko askatasuna gorde behar baita.

Alkarpoderosoa edo komisario bidezko testamentua oinarrizko osagaia da Bizkaiko oinordetzan. Lege honek ñabardura batzuk barruratzen ditu horretan. Testamentua egiteko ahalordeak euren osotasu-

nean gordetzen ditu, betiere notarioaren aurreko testamentuan egiten badira. Ezkontideek edo izatezko bikotekideek ezkontza hitzarmenean edo oinordetza itunean egin dezakete halakoa. Berrikuntzarik nabarmenena izan daiteke, beharbada, ezkontide alargunaren eta bizirik dirauen izatezko bikotekidearen arteko berdintasuna, egungo legeriaren aginduak betetzeko asmoz.

Bizkaiko erakunderik esanguratsuena, zuzenbide pribatuari dagokionez, tronkalitatea da. Horren lorratza ere begien bistakoa da Nafarroan eta Lapurdiko ohituretan. Aldiz, Gipuzkoan eta Araban ez dago araututa, herrialde horiek inoiz ere ez baitzituzten euren legeak idatzi. Bizkaian bilduta dago Foruan eta zabal garatuta 1992. urteko legean. XX. mende hasieran, tronkalitatea zen erakunderik bereizgarriena eta estimatuena, bizkaitar legelarien aldetik.

Egungo gizartearen bilakaera, ostera, mota honetako erakundeen aldekoa ez da. Nolanahi ere, erakunde horrek Bizkaian dituen sustraiak aintzat hartuta, zuhurtasunak aholkatzen du gordetzea.

Testuak bizirik gordetzen du Bizkaian tronkalitatearen erakundea eta foru-sakaren egikaritza ondasun tronkalak besterentzen direnean. Testuak eskubide horren egikaritza argitu eta erraztu egin nahi du eta, modu batean zein bestean, horren aplikazioetan gerta daitezkeen gehiegikeriak arindu. Hartara, berrikuntzarik irtenena da aspaldiko deuseztasun erabatekoa, tronkalitatetik kanpo diren arrotzen mesederako egindako ekintzetan, deuseztasun erlatibo edo deseztagarritasun mugatu bihurtzen dela, Jabetza Erregistroan noiz inskribatu eta hurrengo lau urtetan egikaritu behar baita.

Saka-eskubidearen egikaritzeari dagokionez, ondasun tronkal bat arrotz bati besterentzen zaionean, testuak mugatu egiten du hori, hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarri sektorizatuan badaude ondasun horiek. Eskubidea egikaritzeko moduak ere, bitarikoak proposatzen ditu testuak, bata, zuzenetik egitekoa eta bestea, iragarkien bidez, bi-biak notarioen fede pekoak, tronkaleko senideei deia egiteko.

Testuak arautzen du, orobat, baserri baten errentariak izan dezakeen eskubidea errentapeko etxebizitza eskuratzeko, kontratuaren indarral-

dia berrogei urtekoa baino gehiagokoa bada. Euskal baserriaren berezitasuna da hori, finkaren errendamenduan familiaren etxebizitza sartzen baita eta horrek ahalbidetzen du errentariak ere, testuaren 86. artikuluak arauturikoaren arabera, lehenespenez eskuratzeko eskubidea.

Modu esanguratsuan batzen da testu honetara Aiarako Forua. Tradizioz artikulu bakarrekoa izan ohi da hori. Hemen, berriz, luze-zabal garatzen da, legelari arabarren ekarpenekin, botere osoko gozamenaren araubidea, Aiarako modalitateak barne.

Era berean, gipuzkoar baserriaren oinordetzari buruzko arauak garatzen dira testuan. Baserria zer den 96. artikuluan zehazten da eta orobat, eskuratzaileen betebeharra, baserriaren xedea gordetzeko.

Oinordetza-itunak hedadura handiz arautzen dira titulu honetan. Kode Zibilaren debekua gora-behera, horrek eragozten zuela oinordekoa izateko ituna, erakundea bizirik zegoen Bizkaian, batez ere ezkontza bidezko itunetan eta debekua ez da arrazoizkoa gaur egun hainbat legelarirentzat. Horrexegatik eman behar zaio arreta berezia eta berme-arauak ezarri horren baitan.

V

III. tituluan barneratzen dira ezkontza bitarteko ondasunen araubidea eta horren lehenengo kapituluan ezartzen da aukera askeko araubidea, ezkontza egin aurretik zein ondoren. Hitzarmenik ezean, Kode Zibilak arauturiko irabazpideen araubidea izango da aginduzko.

Bizkaiko Forua aplikagarri non den eta bertako lurraldean, hala ere, titulu honen bigarren kapituluak ezartzen du ezen, tradizioaren arabera, ulertzen dela ezkontideen artean foru-komunikazioa dela aginduzko, Foruak arautzen zuen bezalaxe, eta horren bidez ondasun guztiak erkide egiten dira, horiek higigarriak edo onibarrak izan, edozein dela euren jatorria.

VI

Lehen xedapen gehigarriak Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea sortzen du. Eusko Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren kontsulta-organoa izango da eta gaiari buruz ikerketak sustatzea eta lege-aldaketak proposatzea izango du helburu.

Bigarren xedapen gehigarrian izatezko bikoteei hedatzen zaie —bada jada horiei buruzko lege bat indarrean— lege honetan auzotasun zibilari eta ordezko araubide ekonomikoari buruz dauden arauen aplikazioa.

Hirugarren xedapen gehigarriak hizpide ditu lege honetan aurreikusitako figuren azpian sortutako harreman juridikoek ekarriko dituzten zerga-aldaketak, zeinak esleitzen zaizkien gaian arauketa-eskumena duten foru-organoei.

Xedapen iragankorretan zehazten dira zenbait figurari eta euskal auzotasun zibilari eragiten dieten aldi baterako egoerak. Euskal auzotasun zibila ulertuko da automatikoki eskuratzen dutela Euskal Autonomia Erkidegoko auzotar guztiek lege hau indarrean jartzen denetik.

Indargabetze-xedapenak berariaz indargabetzen ditu aurreko 3/1992 eta 3/1999 legeak eta oraingo lege honekin kontraesanean dagoen beste oro.

Azkenik, azken xedapenak ezartzen du argitaratzen denetik hiru hilabetera jarriko dela indarrean lege hau, epe hori zentzuzkoa baita jardule juridiko guztiek ondo ezagutu ditzaten bertako manuak.

ATARIKO TITULUA

LEHENENGO KAPITULUA

EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN ITURRIAK

1. artikulua.– Iturri juridikoak.

1) Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibila osatzen dute lege honen xedapenek, ohiturak eta zuzenbide hori eratzen duten printzipio orokorrek.

2) Ohitura, nabaria ez bada, frogatu egin beharko da.

2. artikulua.– Jurisprudentzia.

1) Jurisprudentziak argituko du Euskal Zuzenbide Zibilaren interpretazioa eta integratuko ditu bere aginduak.

2) Euskal Zuzenbide Zibilaren ondoreetarako, jurisprudentziatzat ulertuko da Euskal Herrian jurisdikzioa duten epaile eta auzitegiek zuzenbide horren aplikazioan emandako ebazpen arrazoituek ezartzen duten doktrina.

3) Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Zibil arloko Sala arduratuko da aipatutako epaile eta auzitegietatik sortzen den doktrina bateratzeko, legeria prozesalak une bakoitzean hartarako ezartzen dituen baliabideen bitartez.

3. artikulua.– Ordezko zuzenbidea.

1) Legerik edo foru-ohitura aplikagarririk izan ezean, ordezko moduan aplikatuko dira Kode Zibila eta indarrean dauden gainerako xedapen orokorrak.

2) Lege horien etorkizuneko aldaketak aplikatuko dira, Euskal Zuzenbide Zibila zein printzipiok eratu eta printzipio horien aurkakoak ez diren neurrian.

4. artikulua.– Askatasun zibilaren printzipioa.

Askatasun zibilaren printzipioa, Euskal Zuzenbide Zibilean tradiziozkoa dena, aintzakotzat harturik, legeak esku-emaileak direla uste izango da, eta legeok eratortzen dituzten eskubideei uko egitea baliozkoa izango da, interes edo ordena publikoaren aurkakoa ez bada eta hirugarrenari kalterik egiten ez badio.

BIGARREN KAPITULUA

EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN PRINTZIPIO ERATZAILEAK

5. artikulua.– Solidaritate-printzipioa eta jabetzaren funtzio soziala.

1) Jabetzaren euskal kontzepzioa jabetzaren funtzio sozialak eta solidaritate-printzipioak modulatzen dute.

2) Banakako jabetzaz gainera, legeek Euskal Zuzenbide Zibileko jabetza forma berezi desber-dinak babestuko dituzte, hots, auzo-jabetza, familia-jabetza eta gizarte-jabetza, betiere aplikatu beharreko aldiko errealitate sozialera egokitu daitezen.

6. artikulua.– Pertsona.

Pertsonenganako errespetua eta begirunea euskal legeriaren oinarri dira.

7. artikulua.– Hizkuntza koofizialak eta Euskal Zuzenbide Zibila.

1) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetatik edozeinetan formalizatu ahal izango dira lege honek araututako egintzak eta kontratuak.

2) Egilesleek egilespen-tokiko hizkuntza ofizialetatik zein hitzartu eta hizkuntza horretan idatziko dira agiri publikoak; eta hizkuntza ofizialak bat baino gehiago izanez gero, alderdiek aukeratutakoa erabiliko da. Alderdien artean desadostasuna gertatuz gero, agerkai publikoa bertako hizkuntza ofizial guztietan idatzi beharko da. Tokiko

hizkuntza ofizialetatik eskatzaileak zein auke-ratu eta hizkuntza horretan luzatuko dira kopiak.

HIRUGARREN KAPITULUA

EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN APLIKAZIO-EREMUA

8. artikulua.– Lurralde-aplikaziorako eremua.

Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremu osoan aplikatuko da, salbu eta manu zehatzek beren-beregi adierazten dutenean manu horiek lurralde jakin batean bakarrik daudela indarrean.

9. artikulua.– Gatazka-arauak.

1) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean legeria-aniztasunak indarrean dirauen artean, Eusko Legebiltzarrari dagokio Euskal Lege Zibilaren indarraldirako lurralde-eremua mugatzea, eta, hala badagokio, barne-gatazkak konpontzeko arauak ezartzea ere bai.

2) Arau berezirik izan ezean, zenbait antolamendu juridiko aldi berean izateak lege-gatazkak eragiten dituenean, gatazkok konponduko dira Estatuak emandako arau orokorren bidez, kasuan kasuko erakundearen izaera kontuan harturik.

3) Tokiko gatazkak gertatzen direnean lurralde batzuetan indarrean dauden arauen artean, edo gatazkak gertatzen direnean arau horien eta Euskal Autonomia Erkidegoko arau orokorren artean, gatazkok konponduko dira Kode Zibilaren xedapenen bitartez, betiere ondasun tronkalen arloan indarrean dagoen lurraldetasun-printzipioari kalterik egin gabe.

10. artikulua.– Aplikazio pertsonalerako eremua.

1) Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Zibila aplikatzen zaie euskal auzotasun zibila duten pertsona guztiei.

2) Euskal auzotasun zibila, edo bestela tokiko auzotasun zibila hori aplikatu behar denean, Kode Zibilaren arauekin bat etorriz eskuratu,

iraunarazi eta galdu egiten da, betiere ondasun tronkalen kasuan lurraldetasun-printzipioari kalterik egin gabe.

3) Lege honek Zuzenbide Zibileko arauak jasotzen dituela kontuan hartuta, halako batzuk arau berezi moduan indarrean badaude Bizkaiko lurralde historikoan, eta Laudio eta Aramaioko udaletan, orduan lurralde horietan tokiko auzotasun zibila dutenei aplikatzen zaizkie arauok, forudun izan zein ez.

11. artikulua.– Auzotasun zibilaren egiaztapena.

Euskal Autonomia Erkidegoan egiletsitako agerkai publikoetan, egileslearen euskal auzotasun zibila eta tokiko auzotasun zibila agerraraziko dira; eta agerrarazi beharko da, halaber, egileslearen ezkontzari edo izatezko bikoteari zein ondasun-araubide dagokion, horrek eragina izan badezake egiletsitako xedapenen gainean edo xedapen horien ondorioen gainean. Zalantza izanez gero, eta kontrakoa frogatu ezik, uste izango da auzotasun zibila dela jaiotza-lekuari dagokiona, eta ondasunen araubidea dela, ezkontideen azken egoitza erkidea non izan eta bertako lege-araubidea; eta, ezkontideek egoitza erkiderik izan ezean, ezkontza non egin eta bertakoa, edo, izatezko bikoteen kasuan, ondasunen banantze-araubidea.

I. TITULUA

ONDAREARI BURUZKO ZUZENBIDEAREN PRINTZIPIOAK

12. artikulua.– Baserria.

Baserria, izatez, familiaren ustiategia da, nekazaritzaren arlokoa nahiz abeltzaintzaren arlokoa; ustiategi hori eratzen dute landetxeak berak, eta, horrekin batera, osagai higigarri desberdinek, abelburuek, ustiatze-eskubideek, makineriak, instalazioek, eta, orobat, landa, lursail edo mendi batek edo batzuek. Lursail edo landa horiek landetxearen ondoan egon daitezke edo horretatik aparte, eta, halakoak izendatzeko, baserriari dagozkion lurrak direla esan ohi da.

13. artikulua.– Landa-errentamendua.

Landa-errentamenduaren kontratuak, euskal tradizioan, ezaugarri bereziak ditu, errentamen-duaren egonkortasunari, errentariaren eskubidea eskualdatzeari eta bestelako alorrei dagokienez; horiek guztiek justifikatzen dute, lege honen xedapenetatik kanpo ere, errentamendu hori lege bereziaren bitartez arautzea.

14. artikulua.– Bide-zorra.

1) Bide-zorra eskuratzen da, tituluaren bidez edo hogei urteko preskripzioaren bidez.

2) Lur nagusiaren jabeak galdatu ahal izango du, kalte-ordain egokiaren bitartez, bide-zorrari zabalera handiagoa ematea, lur horren beharrizanak asetzeko beharrezkoa den neurrian.

3) Lur nagusiaren jabeak ahalmena du, orobat, bere kontura zoruan sendotze-lanak egiteko, baldin eta lan horiei komenigarri baderitze lurra hobeto erabiltzeko, eta lanokin ez bazaio kalterik egiten zorpeko lurraren ustiatzeari; horretarako, aldez aurretik jakinarazpena egin behar zaio zorpeko lurraren jabeari.

15. artikulua.– Landak ixteko eskubidea eta bide-zorra.

Jabeak eskubidea du bere edukitzapeko landa ixteko, baina ezin du eragotzi gizabanakoek bertatik igarotzea irabazirik gabeko erabilera dela eta, gizabanako horiek ez badute inongo ibilgailurik baliatzen. Norbaitek eskubide hori erabiltzen badu, landaketak errespetatu beharko ditu, eta, kalteak eraginez gero, kalte-ordaina eman beharko du.

16. artikulua.– Kofradiak, ermandadeak edo mutualitateak.

1) Sozietate zibilak lege honen mende egongo dira, baldin eta halakoak eratzeko erabili bada kofradia, ermandade edo mutualitateen forma tradizionaletatik edozein.

2) Sozietate horien arauak izango dira haien estatutuak eta barne-arauak, betiere horiek guztiak ez direnean lege honen aurkakoak, berau garatzeko ematen diren arauen aurkakoak eta ordezko legeriaren

aurkakoak. Sozietate zibil horiek inskriba daitezke erregistro bereizi batean, horretarako sortua Eusko Jaurlaritzaren aldetik. Sozietateak nortasun juridikoa izango du, inskri-baturik egonez gero.

II. TITULUA OINORDETZAK

ATARIKO XEDAPENAK

17. artikulua.– Oinordetza eta delazioa.

1) Pertsona baten eskubideak eta betebeharrak haren oinordekoei eskualdatzen zaizkie heriotza-unean bertan, lege honen xedapenekin bat etorriz oinordetza-itunean ezarritakoa salbu.

2) Delazioa gertatuko da, noiz eta kausatzailearen heriotza-unean, eta non eta kausatzaile horren azken bizilekuari dagokion tokian, edo, halakorik izan ezean, heriotzari dagokion tokian. Hildakoak testamentu-ahalordea egiletsita badauka, oinordetza irekiko da, ahalorde horrek ukitzen dituen ondasunei dagokienez, komisarioak ahalordea erabiltzen duen unean, edo, bestela, lege honek aipatu arrazoietatik edozeinen ondorioz ahalordea azkentzen den unean.

18. artikulua.– Oinordetza gauzatzeko erak.

1) Oinordetza gauzatzen da testamentuaren bidez, oinordetza-itunaren bidez, edo, bi horiek izan ezean, legearen xedapenen bidez.

2) Ondasun batzuk xedatu ahal dira testamentuaren bidez, eta beste batzuk itunaren bidez. Testamentuak ez du oinordetza-ituna ezeztatzen, baina oinordetza-itunak baliorik gabe uzten du horren aurkakoa den testamentua.

LEHENENGO KAPITULUA

TESTAMENTUZKO OINORDETZA

LEHENENGO ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

19. artikulua.– Oinordetza unibertsala eta banakakoa.

1) Oinordetza antolatu ahal da titulu unibertsalaren bidez edo banakako tituluaren bidez.

2) Jaraunslea da titulu unibertsalaren bidez izendatua izan dena, dela jarauntsi osoan, dela jarauntsiaren zati alikuota baten gainean. Jaraunsleak kausatzailearen ondasunak eta eskubideak eskuratzen ditu, horien edukitzari eusten dio, kausatzailearen betebeharretan subrogatzen da, eta jarauntsiaren zamak betetzeko betebeharra bereganatzen du.

3) Banakako tituluaren bidezko oinordekoak edo legatu-hartzaileak bere eskubidea baliatu ahal du, jaraunsle unibertsalen aurka, legatuaren ematea edo ordainketa galdatzeko.

4) Jaraunslea, aldi berean, legatu-hartzailea denean, legatua onartu eta jarauntsia arbuiatu ahal izango du.

20. artikulua.– Oinordetza unibertsalaren eta banakakoaren arteko harremana.

Testamentugileak kontrakoa xedatu ezik, norbait banakako tituluaren bidez izendatzen bada familia- edo lanbide-ondare baten oinordeko, eta horren balioa jarauntsiaren hiru laurdena baino handiagoa bada, orduan, izendatutako hori, ondorio guztietarako, jaraunsle unibertsaltzat joko da. Nahitaezko jaraunslea baldin bada, izendapena seniparteari egotziko zaio, testamentugileak kontrakoa xedatu ezik.

21. artikulua.– Oinordetzaren gastuak eta banantze-onura.

1) Kausatzaileak utzitako ondasunen kontura ordainduko dira:

a) Kausatzailearen seme-alabei eta ondorengoei zor zaien mantenua, betebehar hori beste pertsona batzuei ez badagokie.

b) Jarauntsiko zamak eta zorrak, eta.

c) Ondasunak iraunarazteko gastuak, tributuak, aseguru-primak eta bestelako gastuak, betiere halakoek lotura dutenean aipatu ondasunekin; orobat, administratzaileak kausatzailearen nego-zioak kudeatzean bereganatutako betebeharrak, edo negozio horien ustiatzeak eratortzen dituenak, baldin eta ezkontide gozamendunak ez baditu horiek ordaindu behar.

2) Jaraunsleak erantzukizuna du kausatzailearen betebeharren gain, legatuen gain eta zamen gain, jarauntsi bidez eskuratutako ondasunen balioaren neurrian.

3) Jaraunsleen erantzukizunaren ondoreetarako, banantze-onura ezartzen da. Jarauntsiko hartzekodunek, kausatzailearen heriotza-egunetik kontatzen hasita sei hilabeteko epean, epai-leari eskatu ahal izango diote inbentarioa eratzea eta jarauntsiko ondasunak banantzea, haiekin ordaintzeko beraien kredituak, horietako bakoitzaren mailaren arabera, jaraunslearen hartzekodun partikularrak kanpoan utziz harik eta aurrekoen kredituak erabat ordaindu arte. Une horretara arte, ez dira nahastuko jaraunslearen eta kausatzailearen artean dauden zorrak eta kredituak, eta ez dira azkenduko dagozkien bermeak.

Legatu-hartzaileek aurreko eskubide bera edukiko dute, gorago aipatutako hartzekodunei ordaindu ondoren, gelditzen den jarauntsi-gerakinarekin legatuak betetzea bermatzeko.

Konkurtso-arautegia kaltetu gabe, jarauntsiko ondasunen banantzeak horiek lotuko ditu eskatu duten hartzekodunei eta legatu-hartzaileei lehenespenez ordaintzearekin. Epaileak, interesatuek eskatuta, inbentarioa eratzeko epea jarriko du eta prebentziozko oharpenak eta enbargoak, jaki-narazpenak eta gainerako aseguratze-neurriak aginduko ditu.

Banantzea eskatu duten jarauntsiko hartzekodunei eta legatu-hartzaileei ordaindu ondoren, banantzerik eskatu ez duten hartzekodunei eta legatu-hartzaileei ordainduko zaie, beraien artean lehenespen bakarra izango delarik beren kredituen izaeragatik dagokiena edo Hipoteka Legean xedatutakoaren araberakoa.

Kausatzaileak komisarioa izendatu duen oinordetzen kasuan, 43. artikuluan xedatutakoa jarraituko da.

22. artikulua.– Testamendua egiteko erak.

Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean daude Kode Zibilak testamentua egiteko arautzen dituen forma guztiak, eta, gainera, hilburukoa, heriotza-arriskuan egiten den testamentua.

BIGARREN ATALA

HERIOTZA-ARRISKUKO TESTAMENTUA EDO HILBURUKOA

23. artikulua.– Heriotza-arriskuko testamentua edo hilburukoa.

1) Heriotza-arriskuan dagoenak testamentua egiletsi ahal izango du, hiru lekukoren aurrean, notarioaren esku-hartzerik gabe eta fede-emaile publikoaren absentzia justifikatu beharrik gabe. Testamentu horri euskaraz «hilburukoa» deritzo.

2) Ez da beharrezkoa izango testamentua idatziz jartzea eta testamentugileari irakurtzea, urgentziak ahalbidetzen ez duenean, baina behin bere azken borondatea xedapen-hitzekin adie-razi duelarik, ahalik arinen idatziko da.

3) Testamentu hori eraginik gabe geratuko da, baldin eta bi hilabete igaro badira testamen-tugilea heriotza-arriskutik atera denetik. Testamentugilea epe horretan hiltzen bada, orduan ere eraginik gabe geratuko da testamentua, baldin eta testamentu hori ez bada egiaztarazten, proze-suko legeek agindutako moduan, heriotzaren ondorengo hiru hiletan.

4) Testamentugilea heriotza-arriskutik atera arren beste testamentu bat egilesteko ezgaituta geratzen bada, egiaztarazte-epea hiru hilekoa izango da, testamentua egiletsi zenetik zenbatuta.

5) Behin testamentua epaiketa bidez egiaztarazi eta gero, hori notarioaren protokoloan jaso beharko da.

HIRUGARREN ATALA

TESTAMENTU MANKOMUNATUA EDO ERMANDADEKOA

24. artikulua.– Testamentu mankomunatua.

1) Mankomunatutzat joko da testamentua baldin eta bi pertsonak, bizikidetza- edo senidetasun-harremana eduki edo ez, beren heriotza ondorako beren ondasun guztiak edo haietako batzuk tresna bakar batean xedatzen badituzte.

2) Mankomunatutzat joko da ere baterako testamentua baldin eta testamentugileetako batek edo biek komisario izendatzen badute pertsona bera edo ezberdina, beraren edo beraien heriotzaren ondoren dagokion oinordetza agindu dezan.

3) Euskal auzotasun zibila daukatenek amankomunean egin dezakete testamentua Autonomia Erkidego honetatik kanpo ere.

4) Testamentu mankomunatua egin ahal izango dute ere, beren autonomia-erkidegoaren barruan edo kanpoan, beste kausatzaile batekin elkartuta, baldin eta hari bere lege pertsonalak ez badio debekatzen amankomunean egitea.

5) Ermandadeko testamentua baliozkoa izan dadin, testamentugile biak emantzipatuta egon behar dira hura egilesteko unean.

6) Testamentu mankomunatuak forma irekia baino ezingo du eduki, eta beti ere notarioaren aurrean egiletsi beharko da.

25. artikulua.– Testamentu mankomunatuaren edukia.

1) Amankomunean egiletsitako testamentuak bata bestearentzako liberaltasunak jaso ditzake edo ez, horiek bakarrik edo hirugarren baten aldeko xedapenekin batera.

2) Hirugarrenak ere izendatu daitezke aurrez hildakoaren oinorde eta bizirik dagoenaren ordezko.

3) Elkarren mendekotzat joko dira testamentugilekidearen xedapenetan izate-arrazoia duten ondare-edukiko testamentu-klausulak, kontuan izan gabe batzuek eta besteek egilesle horren edo hirugarren

baten aldeko direnetz. Elkarmendetasunari iritzi egiten zaio, baina egiaztatu daiteke inplizituki ezarri zutela testamentugileek.

4) Testamentu mankomunatuko xedapen baten deuseztasunak edo deuseztatzeak eragiten du testamentu berean harekin elkarmendetasunean dagoen beste ororen erabateko eragingabetasuna. Alabaina, hasiera batean baliozkoa zen xedapen baten gertatze bidezko eragingabetasunak ez dio eragiten harekin elkarmendetasuna duenari, nahiz eta honek galdu egingo duen elkamen-detasun hori.

26. artikulua.– Baterako ezeztapena edo aldaketa.

Testamentu mankomunatua edo ermandadekoa bi egilesleek batera ezeztatu edo aldatu ahal izango dute, beste testamentu baten bitartez edo geroko oinordetza-itunaren bitartez.

27. artikulua.– Aldebakarreko ezeztapen edo aldaketa testamentugilekidea bizirik dela.

1) Testamentugilekidea bizirik dela aldebakarreko ezeztapen edo aldaketa egiteari dagokionez, hori ere notarioaren aurrean egiletsitako testamentu ireki bitartez edo oinordetza-itun bitartez gauzatu beharko da, eta testamentugilekideari jakinarazi beharko zaio modu fede-emailean. Baimena ematen duen notarioak egingo du jakinarazpen hori, hurrengo hamar egunen barruan eta haren aurrean azaldutakoak adierazitako bizilekuan. Gainera, bizileku hori desberdina balitz, ezeztaturiko edo aldaturiko testamentuan jasotako bizilekuan ere egingo du jakinarazpena.

2) Alabaina, eta alde batera utzirik egotzi dakizkiokeen erantzukizunak, egilesleak testamen-tugilekidearen bizilekua faltsutzeak edo ezkutatzeak, eta orobat beharrezko jakinarazpena ez egiteak, ez dio eragingo arrandiro egindako ezeztapen edo aldaketaren eraginkortasunari.

3) Testamentuaren aldebakarreko ezeztapen edo aldaketagatik, eragingabe bihurtuko dira ezeztaturiko testamentuaren klausula guztiak.

28. artikulua.– Ezeztapen edo aldaketa testamentugilekidea hil ondoren.

1) Egilesleetako bat hil ondoren, besteak ezingo ditu ezeztatu ez aldatu hark bere jaraun-tsi propioari buruz egiletsi dituen xedapenak, baldin eta aurrez hildakoaren xedapenak badituzte horiek izate-arrazoi.

2) Testamentuak besterik ezartzen ez badu, bizirik gelditzen denak ezingo du dohainik xedatu elkarmendetasuneko xedapenen helburu izendatu diren ondasunez, ez baldin bada testamentu mankomunatuan horien onuradun izendatu diren pertsonen alde. Bestela, kaltetuak ondasunon balio eguneratua erreklamatu ahal izango die dohaintza-hartzaileei, xedapenen egilea hiltzen denetik kontatzen hasita bi urteko epean.

3) Ezkontideen kasuan, deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-epaia emanez gero, edo izatezko bikoteen kasuan bikote hori bikotekideen bizitza bitartean azkenduz gero, azkentzea haien arteko ezkontzak eragiten duenean izan ezik, ondorerik gabe geratuko dira haren xedapen guztiak, salbu eta elkarren mende egin direnak desgaitasuna duen seme edo alabaren mesederako.

29. artikulua.– Testamentugileetako baten heriotza.

1) Testamentugileetako bat hildakoan, haren oinordetza irekiko da, eta hildakoak egiletsitako xedapen guztiek ondorea sortuko dute.

2) Oinordetza horretan interesa egiaztatzen duenari, hildako kausatzaileak egiletsitako testa-mentu mankomunatuaren kopia egingo dio notarioak, kanpoan utzita beste testamentugilearen oinordetzari baino eragiten ez dioten xedapenak.

LAUGARREN ATALA

KOMISARIO BIDEZKO OINORDETZA

30. artikulua.– Komisario bidezko oinordetza.

Testamentugileak komisario baten edo batzuen ardurapean jar ditzake oinordekoaren izendapena, ondasunen banaketa, eta, oro har, ondasunok oinordetza bidez eskualdatzeko berak dituen ahalmen guztiak.

31. artikulua.– Komisarioaren izendapena.

1) Komisarioa notarioaren aurreko testamentuan izendatu beharko da.

2) Ezkontideek, ezkontzaren aurretik zein horren ondoren, komisario izendatu ahal dute elkar, ezkontzako itunetan nahiz oinordetza-itunean.

3) Izatezko bikotekideek komisario izendatu ahal dute elkar, euren ondarearen araubide ekonomikoa zein itunek arautu eta itun horretan bertan, edo oinordetza-itunean, baldin eta ituna notarioaren aurreko agiri publikoan egilesten bada.

32. artikulua.– Gaitasun juridikoa eta testamentu-ahalordea egikaritzea.

1) Komisarioak gaitasuna izan beharko du, kasuan kasuko egintza burutzeko, testamentu-ahalordea egikaritzen den unean.

2) Izendatutako oinordekoak edo oinordekoek oinordeko izateko gaitasuna izan beharko dute, kausatzailearen heriotza-unean, edo, bestela, testamentu-ahalordea egikaritzen den data horretan.

3) Testamentugileak kontrakoa xedatu ezik, komisarioak ezin izango du fideikomisorik ezarri; ezin izango ditu oinordekoaren inguruan baldintzapeko izendapenak egin, titulu unibertsalaren bidez edo banakako tituluaren bidez; eta ezin izango ditu erabakiak hartu, erabakion helburua baldin bada oinordekoen izendapena eta ondasunen adjudikazioa atzeratzea.

33. artikulua.– Testamentu-ahalordearen mugak.

1) Komisarioak bere kargua beteko du, ahalorde-emaileak testamentu-ahalorde horretan beren-beregi ezarritakoarekin bat etorriz, eta ezin izango du inola ere ahalorde hori aldarazi; eta, bertan ezer adierazi ezik, lege honen arabera eta ordezko zuzenbidearen arabera testamentugi-leari dagozkion ahalmen guztiak izango ditu.

2) Testamentugileak adierazi badu komisarioak zein pertsonaren artean aukeratu behar duen, orduan komisario horrek ahalordean ezarritakoa bete beharko du. Mota horretako adierazpenik egin ezean, komisarioak aukeratu beharko du alargunaren, bizirik dirauen iza-

tezko bikotekidearen eta nahitaezko jaraunsleen artean; eta, ondasun tronkalen kasuan, tronkeroen artean bakarrik aukeratu ahal izango du.

3) Nahitaezko jaraunslerik izan ezean, komisarioak askatasunez izendatu ahal izango ditu oinordekoak.

34. artikulua.– Inbentarioa egitea.

1) Testamentugilea hil eta hurrengo sei hileko epean, behin komisarioak bere izendapenaren berri jasota, jarauntsiko ondasun, eskubide, zama eta betebehar guztien inbentarioa egin beharko du; inbentario horren inguruan, kontu-arrazoiak eman beharko dizkie ustezko oinordekoei, eta, oinordeko horiek, behin aipatu epea bukatuta, komisarioari agindeia egin ahal izango diote, bete-behar hori bete dezan.

2) Komisarioak, agindei hori jaso arren, sei hileko epean ez badu betetzen ondasunen inben-tarioa egiteko beharra, epaileak erabaki ahal izango du inbentarioa komisarioaren kontura egitea.

3) Ustezko oinordekoek eta jarauntsiko hartzekodunek inbentarioa aurkaratu ahal izango dute, eta ezkutatutako ondasunak bertan sartzea edo haien balorazioa berrikustea eskatu ahal izango dute.

35. artikulua.– Ondasunen autoesleipena.

Komisarioak bere buruari adjudikatu ahal izango dizkio kausatzaileak berari eratxiki dizkion ondasunak, bai eta testamenturik gabeko oinordetzan edo testamentu-ahalordea egikaritu ezean berari legozkiokeen ondasunak ere.

36. artikulua.– Komisario-karguaren ezaugarriak eta albazea eta kontulari-banatzailea izendatzeko aukera.

1) Komisarioaren kargua, edozein kasutan ere, borondatezko eta doakoa da, eta haren ahal-menak, mankomunatuak nahiz solidarioak, bere-berezkoak eta eskualdaezinak dira.

2) Komisarioak ahalorde-emailearen jarauntsirako albazea eta kontulari-banatzailea izendatu ahal izango ditu, ahalorde-emaileak ez badu hori egin.

37. artikulua.– Jarantsiaren ordezkaria eta administratzailea.

1) Oinordetza gauzatu eta jarauntsia onartzen ez den bitartean, ondasunen ordezkari eta admi-nistratzailea izango da testamentugileak bere testamentuan zein pertsona izendatu eta hori berori, testamentugileak izendatuari eratxiki dizkion ahalmenekin eta horri ezarri dizkion bermeekin.

2) Izendapena egin ezean, jarauntsia ordezkatu eta administratuko du alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak, eta, hori izan ezean, komisarioak berak.

38. artikulua.– Mantenu-eskubidea testamentu-ahalordea egikaritu gabe dagoenean.

Testamentu-ahalordea egikaritzeko dagoen bitartean, kausatzailearen seme-alabek eta gainerako ondorengoek mantenu-eskubidea izango dute, jarauntsiko ondasunek ematen dituzten etekinen kontura, baldin eta mantenu hori eskatzeko lege-egoera betetzen badute, eta ez badago beste inor, mantenua emateko betebeharra duena.

39. artikulua.– Adingabeen eta desgaituen tutoretza eta kuradoretza.

Komisarioak betebeharra du, kausatzailearen seme-alaba eta ondorengoen gainean tutoretza edo kuradoretza era dadin eskatzeko, horiek adingabeak edo ezgaituak baldin badira.

40. artikulua.– Komisario bat baino gehiagoren izendapena.

Testamentugileak komisario batzuk izendatu baditu, horiek modu mankomunatuan beteko dituzte euren eginkizunak, testamentuaren edukitik besterik ateratzen ez bada. Erabakiak gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketa gertatuz gero, lehenengo izendatuak hartuko du erabakia.

41. artikulua.– Testamentu-ahalordea egikaritzeko epea.

1) Testamentugileak testamentu-ahalordea egikaritzeko epea jarri ahal izango du. Ezkontidea edo izatezko bikotekidea komisario izendatzen denean, horri epe mugagabea eman ahal izango zaio, edo bera bizi den urte guztietarako.

2) Epea jarri ezean, hori urte betekoa izango da, testamentugilearen heriotzatik zenbatuta, edo haren inguruko heriotza-adierazpena epaiketa bidez eman denetik zenbatuta, oinordeko guztiak adin nagusikoak baldin badira; bestela, oinordeko horiek guztiek adin-nagusitasuna lortzen dutenetik zenbatuta, ondore horietarako emantzipazioa nahikoa ez dela.

3) Komisario izendatu denean alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea, bera da, testamentugileak kontrakoa xedatu ezik, jarauntsiko ondarearen ordezkari, administratzaile eta gozamenduna, eta izaera horri eutsiko dio, baita ahalordea erabili eta gero ere.

42. artikulua.– Testamentu-ahalordea hurrenez hurren egikaritzea.

Testamentugileak kontrakoa xedatu ezean, komisarioak testamentu-ahalordea erabili ahal izango du egintza batean nahiz batzuetan.

43. artikulua.– Testamentu-ahalordea egikaritzea eta hirugarrenen aldeko kautelak.

1) Komisarioak testamentu-ahalordea egikaritu ahal izango du, inter vivos nahiz mortis causa egintzen bitartez, notarioaren aurreko testamentuan nahiz oinordetza-itunean, titulu unibertsalaren ondorioz nahiz banakako tituluaren ondorioz, eta, betiere, legeak testamentugileari ezartzen dizkion mugak baino ez ditu izango.

2) Alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak, notarioaren aurrean bere testamen-tua egiten duenean, bertan erabili ahal izango du aurrez hildakoak berari emandako ahalordea, baina xedapenak egin ahal izango ditu bi-bion seme-alaba edo jaraunsleen artean bakarrik. Kasu horretan, komisarioak izaera ezeztagarria eman ahal izango dio aurrez hildako ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen izenean egindako xedapenari.

3) Alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea izendatu bada komisario, eta bera bada, orobat, jarauntsiko ondarearen ordezkari eta administratzailea, jarauntsiko betebeharrak, zamak eta zorrak ordainduko ditu; ondasuntza horri dagozkion negozioak kudeatuko ditu; muga-egunera-tutako kredituak kobratu ahal izango ditu; kre-

ditu horiek bermatzeko fidantzak eta eskubideak eratu badira, horiek ezereztea onartu ahal izango du; eta, oro har, administratzaile orori dagozkion egin-tzak burutu ahal izango ditu, baita ahalorde-emaileak berari eratxiki dizkion kudeaketa-ahalmenak egikaritu ere. Era berean, komisarioak legitimazio aktiboa nahiz pasiboa izango du, jarauntsiko ondareari dagozkion akzio guztietan.

Jarauntsiko hartzekodunek, kausatzailearen heriotza-egunetik kontatzen hasita sei hilabeteko epean, komisarioari edo, halakorik ezean, epaile eskudunari eskatu ahal izango diote jarauntsiaren inbentarioa egiteko eta ondasunak banantzeko, horiekin ordaindu daitezen beren kreditu propioak, bakoitzari dagokion mailaren arabera, kanpoan utziz jaraunslearen hartzekodun partikularrak harik eta aipatutako kreditu horiek erabat ordaindu arte.

Une horretara arte ez dira nahasiko jaraunslearen eta kausatzailearen artean dauden zorrak eta kredituak, eta ez dira azkenduko dagozkien bermeak. Legatu-hartzaileek eskubide hori bera edukiko dute, hartzekodun haiek ordainduak izan ondoren jarantsiko gerakinarekin legatuak betetzea bermatzeko.

Konkurtso-arautegia kaltetu gabe, jarauntsiko ondasunen banantzeak ondasun horiek lotu egingo ditu banantzea eskatu duten hartzekodunei eta legatu-hartzaileei lehenespenez ordain-tzeko. Hartarako, komisarioak edo, hala badagokio, epaileak, interesatuek eskatuta, inbentarioa eratzeari ekingo dio eta dagozkion neurriak hartuko ditu ondasuntzaren aseguramendu, inbentario-eraketa, administrazio, zaintza eta iraunarazpenerako.

Banantzea eskatu duten jarauntsiaren hartzekodunei eta legatu-hartzaileei ordaindu ondoren, eskatu ez duten hartzekodunei eta legatu-hartzaileei ordainduko zaie. Beraien artean lehenespen bakarra izango da beren kredituen izaeragatik edo Hipoteka Legean xedatutakoaren arabera dagokiena.

4) Alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea izendatu bada komisario, eta bera bada, orobat, jarauntsiko ondarearen ordezkari eta administratzailea, jarauntsiko ondasunak edo eskubideak xedatu

ahal izango ditu, baldin eta ahalorde-emaileak horretarako baimena eman badio, edo jarauntsiko betebeharrei, zamei eta zorrei aurre egiteko baimena eman badio, edo berak horri egoki baderitzo batzuk besteen ordez eskuratzeko. Lortutako kontraprestazioa subrogatu egingo da besterendutako ondasunen lekuan, salbu eta jarauntsiko betebeharrak, zamak eta zorrak ordaintzeko erabiltzen denean.

5) Senipartedunak daudenean, alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea komisa-rio izendatu bada, eta bera bada, orobat, jarauntsiko ondarearen ordezkari eta administratzaile, eta kostu bidezko xedatze-egintzak burutu baditu ondasun higiezinekin, enpresekin eta ustiategi ekonomikoekin, balore higigarriekin edo objektu baliotsuekin, orduan, nahitaezkoa izango da jarduteko gaitasun osoa duten senipartedunetatik edozeinek baimena ematea; eta, senipartedunak adingabeak edo ezgaiak badira, nahitaezkoa izango da epailearen baimena.

44. artikulua.– Komisarioaren xedapenen ezeztaezintasuna.

Aurreko artikuluan ezarritako kasuan izan ezik, ezeztaezinak izango dira komisarioak testamentu-ahalordea erabiliz egiletsitako xedapen guztiak. Hori gorabehera, deia berriro egin ahal izango da, baldin eta xedapena deusez gertatzen bada, edo onuradunek ez badute hori onartu nahi edo ezin badute hori onartu. Kasu horretan, komisarioak beste izendapen bat egin ahal izango du, urtebeteko epean, egitate horiek sinesgarriro jakin dituenetik zenbatuta.

45. artikulua.– Testamentu-ahalordearen azkentzea. Testamentu-ahalordea azkenduko da:

1) Hori egikaritzeko zein epe eman eta epe hori agortzean.

2) Komisarioaren heriotza, ezintasun edo gertatze bidezko ezgaitasunaren ondorioz.

3) Ezkontide komisarioaren kasuan, behin testamentu-ahalordea egiletsi eta gero, ezkontzaren inguruko banantze-, dibortzio- edo deuseztasun-demanda aurkeztearen ondorioz, nahiz eta kausatzailea hil aurretik epaia eman ez.

4) Ezkontide komisarioa berriro ezkontzen denean, ezkonduen antzeko bizimodua egiten duenean edo ezkontzatik kanpoko seme edo alabaren bat duenean, testamentugileak beren-beregi kontrakoa xedatu duenean izan ezik.

5) Uko egitearen ondorioz. Komisarioak uko egiten duela ulertuko da, baldin eta, horretarako epailearen bidez agindeia jaso ondoren ez badu izendapena onartzen hirurogei eguneko epean.

6) Kausatzaileari edo horren ondorengoei begira, komisarioak oinordeko izateko ezduin-tasun-arrazoiren bat betetzen duenean.

7) Ahalordean bertan ezarritako arrazoien ondorioz.

8) Ezeztapenaren ondorioz.

9) Izatezko bikotea azkentzearen ondorioz, azkentzeko arrazoia ez bada izatezko bikotekideak elkarrekin ezkontzea.

46. artikulua.– Testamentugilearen borondatea interpretazio-irizpide gisa.

Testamentugilearen borondateak lehenespena du beti, atal honetako arauak interpretatu eta aplikatzeko orduan.

BIGARREN KAPITULUA

TESTAMENTUA EGITEKO ASKATASUNARI JARRITAKO MUGAPENAK

LEHENENGO ATALA

SENIPARTEA

47. artikulua.– Senipartedunak.

Senipartedunak dira: seme-alabak edo ondorengoak, edozein gradutan; eta alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea, horren gozamen-kuota dela bide, eta, betiere, beste jaraunsle-mota guztiekin batera.

Bizkaiko infantzonatuan edo lur lauan, eta Arabako Laudio eta Aramaioko udal-mugarteetan, tronkalitateari buruzko arauek lehenespena dute, senipartearen gainean; baina, tronkeroa seni-parteduna denean, berari esleitutako ondasun tronkalak seniparteari egotziko zaizkio.

48. artikulua.– Senipartea.

1) Ondorengoen senipartea jarauntsiaren gaineko kuota bat da, balio ekonomikoaren arabera kalkulatzen dena; testamentugileak kuota hori eratxiki ahal die bere oinordekoei, jaraunsle-izendapenaren bidez, legatuaren bidez, dohaintzaren bidez nahiz bestelako moduez.

2) Testamentugileak betebeharra du, bere oinordekoei senipartea eskualdatzeko; baina, horien artean, bat edo batzuk aukera ditzake, eta gainerakoak baztertu, esanbidez nahiz isilbidez.

3) Bazterketarik ez egitea eta isilbidez baztertzea parekoak dira.

4) Ondorengoa nahitaezko jaraunslea baldin bada, eta, nahita edo nahi gabe, preterituta gera-tzen bada, preterizio hori bazterketaren parekoa da.

5) Seniparteari uko egin dakioke, kausatzailearen heriotza gertatu aurretik ere, horretarako eginiko oinordetza-itunaren bidez, kausatzailearen eta senipartedunaren artean. Senipartedun guztiek uko egitean izan ezik, senipartearen ukiezintasuna gordeko da, berorri uko egin ez dioten senipartedunentzat.

49. artikulua.– Ondorengoen senipartearen zenbatekoa.

Seme-alaba edo ondorengoen senipartea, kopuruari dagokionez, jarauntsiko ondasunen heren batekoa da.

50. artikulua.– Senipartedunen ordezkoak eta ordezkariak.

Seme-alabak hilda badaude edo jaraunsgabetuak izan badira, euren ondorengoak izango dira haien ordezko edo ordezkari.

51. artikulua.– Senipartedunen baztertzea eta preteritzea.

1) Testamentugileak senipartea eman ahal izango die bere ilobei edo urrunagoko ondorengoei, nahiz eta horien gurasoak edo aurrekoak bizirik egon.

2) Nahitaezko jaraunsle guztiak preterituz gero, horrek berarekin dakar ondare izaerako oinordetza-xedapen guztien deuseztasuna.

3) Nahitaezko jaraunslea, esanbidez edo isilbidez, baztertua izan bada, eta testamentuak seni-parte kolektiboari kalte egiten badio, orduan jaraunsle horrek eutsi egiten die hirugarrenen aurka dituen eskubideei.

52. artikulua.– Alargunaren edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen senipartea.

1) Alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak gozamen-eskubidea izango du, kausa-tzaileak utzitako ondasun guztien erdien gainean, ondorengoekin batera agertuz gero.

2) Ondorengorik izan ezean, gozamena izango du, ondasunen bi herenen gainean.

53. artikulua.– Alargunaren edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen gozamenaren kommu-tazioa.

1) Ezkontideari edo bizirik dirauen izatezko bikotekideari bere gozamen-zatia ordaintzeko, jaraunsleek esleitu ahal dizkiote bizi arteko errenta, ondasun zehatz batzuen produktuak edo eskudiruzko kapitala; horretarako, elkarrekin ados jarrita jardun behar dute, edo, bestela, epailearen aginduz.

2) Hori egiten ez den bitartean, jarauntsiko ondasun guztiak lotuta daude, alargunari edo bizirik dirauen izatezko bikotekideari dagokion gozamen-zatiaren ordainketarekin.

3) Alargunaren edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen gozamena diruaren gainekoa edo inbertsio-funtsen gainekoa baldin bada, funtsok elkarren artean pilatzeko modukoak izan zein izan ez, gozamen horri, lehenengo eta behin, kausatzailearen xedapenak aplikatzen zaizkio, bai eta gozamendunaren eta jabe soilen arteko hitzarmenak

ere. Halako hitzarmenik izan ezean, diruaren gaineko gozamena duenak eskubidea du, kapitalaren ondoriozko korrituen gainean eta bestelako etekinen gainean; eta, bestalde, inbertsio-funtsek eratorritako partaidetzen gaineko gozamena duenak eskubidea du, eraketa-datatik gozamena azkendu arte sortutako gainbalioen gainean. Ustezko etekin eta gainbalio horiei fruitu zibilen erregelak aplikatuko zaizkie.

54 artikulua.– Alargunaren edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen biztantze-eskubidea. Alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak, bere seniparteaz gain, biztantzeko esku-bidea izango du, ezkontzari edo izatezko bikoteari dagokion etxebizitza horretan, betiere alargun dirauen artean, ezkonduen antzeko bizimodurik egiten ez duen artean, ezkontzatik kanpoko seme edo alabaren bat ez duen artean edo izatezko beste bikote bat eratzen ez duen artean.

55. artikulua.– Alargunaren edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen senipartearen azkentzea.

Testamentugileak beren-beregi xedatutakoa salbu, banandutako ezkontideak ez du seniparte-eskubiderik izango, eta, ezkontzari edo izatezko bikoteari dagokion etxebizitza horretan, ez du biztantzeko eskubiderik izango, baldin eta banantzea epai irmoan adierazi bada, edo banantze hori elkarrekin ados jarrita erabaki eta modu sinesgarrian jasota badago; orobat, ezkontideak, ezkonduen antzeko bizimodua egiten duenean, edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak, beste norbaiti lotuta dagoenean sentimendu- eta sexu-harremanak direla bide.

56. artikulua.– Senipartearen ukiezintasuna.

1) Seme-alaba eta ondorengoei ezin izango zaie ezarri ordezpen edo kargarik, horrek xedapen askeko zatia gainditzen badu, salbu eta hori nahitaezko beste oinordeko batzuen mesederako egiten denean.

2) Alargunari edo bizirik dirauen izatezko bikotekideari aitortutako eskubideek ez dute eraginik izango senipartea ukitzeko ezintasunaren gainean; ez du ukiezintasun horren gainean eraginik izango, halaber, hari gozamen unibertsalaren gaineko legatua emateak.

57. artikulua.– Alargunaren edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen gozamen unibertsala.

Kausatzaileak bere ezkontideari legatu gisa eman ahal izango dio bere ondasunen gaineko gozamen unibertsala; gozamen hori azkenduko da, 55. artikuluko senipartea zein arrazoik azkendu eta arrazoi berberen ondorioz. Testamentugileak beren-beregi xedatutakoa salbu, legatu hori eta xedapen askeko zatiaren gainekoa bateraezinak izango dira.

Kausatzaileak bi legatu horiek hautabidez xedatzen baditu, alargunak edo bizirik dirauen iza-tezko bikotekideak egingo du aukeraketa.

BIGARREN ATALA

JARAUNTSIA KALKULATZEA ETA SENIPARTEAK ORDAINTZEA

58. artikulua.– Senipartearen kalkulua.

Seniparte-kuota kalkulatzeko, kontuan hartuko da oinordetzako ondasun guztien balioa, oinor-detzarako delazioa gauzatzen den unean, betiere zor eta zamak kenduta. Balio likidoari gehituko zaio zenbatu beharreko dohaintzen balioa; halako dohaintzak dira esanbidezko bazterketarik gabe egindako guztiak, edo nahitaezko jaraunsle ez direnen mesederako egindakoak.

59. artikulua.– Zenbatu eta kolazionatu beharreko dohaintzen balioa.

1) Zenbatu beharreko dohaintzen balioa izango da dohaintzok kausatzailearen heriotza-unean zutena; betiere, aurretiaz kendu behar dira dohaintza-hartzaileak dohaintzapeko ondasunetan egin eta ordaindutako hobekuntza onuragarriak, eta, era berean, dohaintza-hartzaile horrek ordaindutako artatze- edo konponketa-gastu bereziak, baldin eta gastuok ez badira beraren erruz gertatu. Ondasunen balioari erantsiko zaio dohaintza-hartzailearen erruz gertaturiko narriaduren zenbatespena, narriadurok ondasunen balioa txikitu badute. Dohaintza-hartzaileak dohaintzapeko ondasunak besterendu baditu, horien

balio gisa hartuko da besterentze-unean ondasunok zutena. Ondasun batzuk dohaintza-hartzailearen erruz suntsitu badira, horiek suntsitze unean zuten balioa bakarrik zenbatuko da.

2) Nahitaezko jaraunsleen mesederako dohaintzak kolazionatu beharrekoak izango dira, bakar-bakarrik, dohaintza-emaileak kontrakoa xedatzen ez duenean edo dohaintza-emaile horrek esanbidezko bazterketarik egiten ez duenean.

3) Kolazionatu beharreko dohaintzak halakoak izango dira, banaketa-unean duten balioaren neurrian.

4) Senipartedun baten mesederako egindako oinordetza-xedapenak kolazionatu beharrekoak izango dira, baldin eta halakoetan gainerako senipartedunen esanbidezko bazterketa egin ez bada.

60. artikulua.– Ondasunen balioa finkatzea testamendu-ahalordea dagoen kasuan. Testamentu-ahalordea izanez gero, eta senipartea finkatzeko helburuarekin, ondasunen balorazioa egingo du:

1) Komisarioak, oinordetzaren gaineko interesik ez badu.

2) Komisarioak, kausatzaileak izendatu duen kontulari-banatzailearekin batera.

3) Komisarioak, ustezko oinordekoekin batera.

4) Epailearen erabakiz.

HIRUGARREN ATALA

TRONKALITATEA BIZKAIA, ARAMAIO ETA LAUDION

LEHENENGO AZPIATALA

XEDAPEN OROKORRAK

61. artikulua.– Tronkalitatearen lurralde-aplikazioa.

1) Tronkalitatearen ondoreetarako, onibarrak dira, bakarrik, Bizkaiko infantzonatu edo lur lauan nahiz Arabako Aramaio eta Laudioko udalerrietan kokaturikoak.

2) Infantzonatua edo lur laua da Bizkaiko lurralde historiko osoa, salbu eta Balmaseda, Bermeo, Bilbo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugalete eta Plentziako hiribilduen zati forugabea, eta Urduñako hiria.

62. artikulua.– Tronkalitatea.

1) Bizkaiko lur lauan, eta Arabako Aramaio eta Laudioko udal-mugarteetan, onibarren gaineko jabetza tronkala da. Tronkalitateak ondarearen familia-izaera babesten du.

2) Ondasun tronkalen jabeak horiek xedatu ahal ditu, bakarrik, senide tronkeroen eskubideak errespetatuz.

3) Xedatze-egintzek senide tronkeroen eskubideak urratzen badituzte, egintza horiek aurkaratu ahal izango dira, lege honetan ezarritako forma eta ondoreekin.

63. artikulua.– Ondasun tronkalak eta senidetasun tronkala.

1) Senidetasun tronkala beti zehazten da, Bizkaiko infantzonatuan edo lur lauan nahiz Arabako Aramaio eta Laudioko udal-mugarteetan kokaturiko onibarrari begira.

2) Onibarrak tronkalak dira, senide tronkeroak daudenean bakarrik.

3) Ondasunak senide tronkeroetatik kanpo eskuratzen direnean, nahiz eta lehenago horieta-riko baten jabetzapekoak izan, ez dira tronkal bihurtzen, ondorengo bati eskualdatzen ez zaizkion bitartean.

64. artikulua.– Onibarrak.

1) Tronkalitatearen ondoreetarako, onibarrak dira jabetza eta gainerako gozatze- eskubide errealak, baldin eta lurzoruaren gainekoak badira, edo bertan eraiki, landatu eta ereiten den guz-tiaren gainekoak.

2) Onibar gisa hartuko dira ondasun higigarriak, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako ondasunetarako destinatzen badira edo horiei lotuta badaude, salbu eta, kalterik eragin gabe banantzeko modukoak izanik, modu independentean eskualdatzen direnean.

3) Fruituak eta landareak, banantzeko modukoak izanik, lurzorutik bereizita eskualdatzen badira, ez daude tronkalitate-printzipioaren mende, ezta zuhaitzak ere, horiek mozteko besterentzen badira.

65. artikulua.– Hiribilduak, hiria eta tronkalitatea.

1) Aipatu hiribilduen eta hiriaren lurraldearen barruan, tronkalitatea aginduzkoa izango da, bakarrik, lur lauari dagokion gunean; hiriek egindako planoetan dago mugatuta gune hori, eta Bizkaiko Batzar Nagusiek plano horiek onetsi zituzten, 1994ko maiatzaren 4ko erabakiaren bitartez.

2) Bizkaiko udalerrien mugetan administrazio-aldarazpenak gertatuz gero, horiek ez dute alda-tuko ukitutako lurraldeetan aplikatu beharreko zuzenbide zibila.

66. artikulua.– Senide tronkeroak eta beraien arteko lehenespenak. Senide tronkeroak dira, odolkidetasunez zein adopzio bidez:

1) Beheranzko zuzeneko lerroan, seme-alabak eta gainerako ondorengoak.

2) Goranzko zuzeneko lerroan, onibarra zein lerrotatik etorri eta lerro horretako aurrekoak, eskuraketa-titulua edozein izanik ere.

Bi ezkontideek ezkontza bitartean eskuratutako onibarrei dagokienez, edo izatezko bikotekideek bikotearen indarraldian zehar eskuraturiko onibarrei dagokienez, tronkero dira bi ezkontideak edo izatezko bikotekide biak. Nahiz eta ondasun horiek seme-alabei edo ondorengoei eskualdatu, ezkontide edo izatezko bikotekide eskuratzaileek eusten diote goranzko lerroan tronkero izateari, ondorengo titularrarekin duten senidetasun-gradua edozein izanik ere.

3) Alboko lerroan, laugarren graduraino albokoak, betiere onibarra zein lerrotatik etorri eta lerro horretan.

67. artikulua.– Tronkalitatearen hedapena.

1) Beheranzko lerroan, senidetasun tronkala luzatzen da, gradu-mugarik gabe, 63.3 artikuluan xedatutakoa salbu.

2) Goranzkoan, senidetasun tronkala bukatzen da, onibarraren edukitza lehenengoz izan zuen aurrekoarengan.

3) Albokoan, senidetasun tronkala odoleko laugarren gradu zibileraino heltzen da, hori ere barne.

68. artikulua.– Tronkalitatearen sortzea eta azkentzea.

1) Tronkalitatea sortzen da, Bizkaiko toki-auzotasun zibila edo Aramaio eta Laudio udal-mugarteetako toki-auzotasun zibila duen pertsonak onibarra eskuratzen duen unetik; eta, une horretatik aurrera, tronkalitatea hedatzen zaie pertsona horren ondorengo guztiei, lege honen 63.3 artikuluan ezarritakoa salbu.

2) Behin tronkalitatea eratuta, senide tronkeroek, euskal auzotasun zibila izan zein izan ez, euren lehenespen-eskubideari eusten diote, titularrak inter vivos nahiz mortis causa gauzatzen dituen xedatze-egintza guztietan.

3) Familian tronkalitatea azkentzen da, titularra hiltzean ez badago senide tronkerorik.

Tronkalitatea azkentzen da, halaber, titularrak Bizkaiko toki-auzotasun zibila galtzen duen unean ez badago senide tronkerorik zuzeneko lerroan, ezta alboko lerroko bigarren eta hirugarren graduetan ere.

69. artikulua.– Tronkalitatearen ondoreak.

1) Ondasun tronkalak xedatzeko egintzak inter vivos eta doan burutzen badira kanpokoen mesederako edo ondasunok eskuratzeko lehenespeneko lerroan ez dauden senideen mesederako, senide tronkeroek egintza horiek deuseztatu ahal izango dituzte, lau urteko epean, legitimazioa dutenek xedatze-egintzaren berri izan dutenetik eta, edozein kasutan ere, Jabetza Erregistroan inskribatu direnetik.

2) Ondasun tronkalak xedatzeko egintzak mortis causa burutzen badira kanpokoen mesederako edo lehenespeneko lerroan ez dauden senideen mesederako, egintzok baliozkoak izango dira; hala ere, senide tronkeroek testamentu- nahiz oinordetza-klausula aurkaratu ahal izango dute, lau urteko epean, legitimazioa dutenek xedatze-egintza-

ren berri izan dutenetik eta, edozein kasutan ere, Jabetza Erregistroan inskribatu direnetik.

70. artikulua.– Tronkalitatea eta nahitaezko oinordetza.

1) Tronkalitate-eskubideak gailentzen dira, seniparteari begira.

2) Pertsona bera, aldi berean, oinordeko tronkeroa eta seniparteduna baldin bada, tronkero gisa dagozkion ondasunak haren seniparteari egotziko zaizkio.

3) Alargunaren edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen senipartea ondasun ez-tronkalekin ordainduko da, eta, halakorik ez dagoenean, eta orduan bakarrik, ondasun tronkaletara jo ahal izango da, beharrezkoa den kopuruan.

4) Ezin izango da ordezpen edo zamarik ezarri ondasun tronkalen gainean, lerro bereko beste senide tronkero baten mesederako ez bada.

5) Alargunari edo bizirik dirauen izatezko bikotekideari aitortutako eskubideek ez dute eraginik izango ondasun tronkalak ukitzeko ezintasunaren gainean; ez du ukiezintasun horren gainean eraginik izango, halaber, hari gozamen unibertsalaren gaineko legatua emateak.

6) Tronkeroek kommutatu ahal izango dute alargunari edo bizirik dirauen izatezko bikotekideari ondasun tronkaletan dagokion gozamena, 53. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz; horretarako, eskudiruzko kapitala emango diote, eta hark askatasunez xedatu ahal izango du kapital hori.

7) Kausatzailearen ondasun tronkalak zenbatuko dira, seniparte-kuota kalkulatzeko; eta ulertuko da ondasunok, lehenengo lekuan, senipartearen ordainketari egozten zaizkiola, testa-mentugileak beren-beregi kontrakoa xedatu ezik.

8) Kausatzailearen zorrak ordainduko dira ondasun higigarrien eta ondasun higiezin ez-tron-kalen zenbatekoarekin; eta batzuk eta besteak nahikoa ez badira, eta orduan bakarrik, lerro bakoitzeko ondasun tronkalek izango dute erantzukizuna, bakoitzaren zenbatekoaren arabera.

71. artikulua.– Baserria dohaineko tituluaren bidez eskualdatzean sartutako ondasunak.

Baserria horri lotutako lurrekin batera doan eskualdatzean, eskualdaketa horrek bere baitara bil-duko ditu, kontrakoa xedatu ezean, baserrian bertan hura ustiatzeko dauden altzariak, abelburuak, ustiatze-eskubideak, makineria eta instalazioak.

BIGARREN AZPIATALA

LEHENESPENEZ ESKURATZEKO ESKUBIDE TRONKALAK

72. artikulua.– Ondasun tronkalak lehenespenez eskuratzea eta hori egikaritzeko lehenespena.

1) Tronkeroei lehenespenez eskuratzeko eskubidea dagokie, ondasun tronkalak kostu bidez besterentzen zaizkienean tronkalitatetik kanpokoei. Eskubide horren hedadura eta hura egikaritzeko modua azpiatal honen arauei egokitu behar zaizkie.

2) Lehenespenezko tronkeroek bakarrik egikaritu ahal dituzte eskubide horiek; halakotzat hartzen dira, ondoren, lerroz lerro eta lehenespen-hurrenkeraren arabera aipatuko direnak:

a) Beheranzko zuzeneko lerroan daudenak.

b) Goranzko zuzeneko lerroan daudenak.

c) Anai-arrebak eta hildako anai-arreben seme-alabak, azken horiek haiekin batera agertzen badira.

3) Era berean, eskubide horiek bidezkoak izango dira, baldin eta besterentzea egiten bada, lehenespenez eskuratzeko eskubidea nork egikaritu eta geroagoko lerroan lehenespeneko senide tronkero denaren mesederako.

4) Lehenespenez eskuratzeko eskubideari uko egin ahal zaio edozein unetan; baina uko-egite hori ez da loteslea izango tronkeroarentzat, horren datatik urte bete igarotakoan.

73. artikulua.– Lehenespena lerroan eta graduan.

Lerro bakoitzaren barruan, hurbileko senideak urrunekoa baztertzen du. Gradu bereko senideak bat baino gehiago izanik, guztiek ere lehenespenez eskuratzeko eskubidea egikaritu nahi badute, orduan, finkaren edukitza zein tronkerok izan eta horrexeri dagokio eskubidea. Halakorik izan ezean, eskuratzailea izendatuko da, notarioaren aurrean egindako zozketaren bidez.

74. artikulua.– Eskubidearen mugapena hirigintzako sailkapenaren arabera.

Ez da lehenespenez eskuratzeko eskubiderik gertatuko, besterendutako finkak hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarri sektorizatuan badaude.

75. artikulua.– Finka bat baino gehiago besterentzea.

Finka bat baino gehiago besterentzen badira, tronkeroak bere eskubidea egikaritu ahal izango du, bati edo batzuei begira, eta ez gainerakoei begira; baina, baserria besterentzen bada, orduan hori ustiapen-unitate gisa eskuratu beharko du, horri lotuta besterentzen diren lur guztiekin batera, nahiz eta Jabetza Erregistroan bananduta inskribaturik agertu.

76. artikulua.– Besterentzearen aurreko deia.

Norbaitek ondasun tronkalak besterendu nahi baditu, eta ondasun horiek foru-saka eskubidea-ren mendekoak badira, senide tronkeroei dei egingo die, notarioaren bidez.

Deia aldarrikatuko da ediktuen bidez. Horiek artikulu honetan arauturikoaren arabera argitaratuko dira.

Ediktuan ondorengoak adieraziko dira: besterentzea nork egin nahi duen eta horren nondik norakoak, besterendu nahi den finkarenak, horren eskuraketa-titulua nondik datorkion, katastroaren araberako balioa, horrelakorik baldin balego, eta besterentzea gauzatzeko aukeratutako notarioa, baita finkaren erregistroko inskripzio-ezaugarriak ere, halakoak balitu.

Ediktua, edozelan ere, finka zein udal-mugartetan kokaturik egon eta udaletxeko iragarkietarako tokian emango da argitara.

Deia notario-aktaren bidez adieraziko da. Horretarako, notarioak alkateari ediktua eskura eman edo jaso izanaren agiridun posta ziurtatuz igorri diezaioke, iragarkietarako tokian jarri eta hamabost egunez etenik gabe jendaurrean egon dadin. Jaso duenak hori horrela izan dela egiaztatuko du berak izenpetutako edo ediktuan beheko aldean onetsitako egiaztagiriz.

Deia, halaber, zuzeneko notario-jakinarazpenaren bidez egin daiteke. Ediktuaren xehetasunak bilduko ditu horrek eta senide tronkero guztiei egingo zaie. Ondore horretarako, alboko senideei egindako jakinarazpenaren kasuan, ulertuko da jakinarazpen hori haien semealaba eta ondoren-goei ere egin zaiela.

77. artikulua.– Eskubidea egikaritzeko agerraldia.

1) Tronkeroak onibarra eskuratu nahi badu, jakinarazpen pertsonala zein notariok egin eta notario horren aurrean agertuko da tronkeroa, jakinarazpenetik zenbatuta hilabeteko epean, edo ediktua argitaratu eta hurrengo hamar egun baliodunetan. Egintza horretan bertan, tronkeroak gordailutu egingo du, fidantza gisa, katastroaren araberako balioaren ehuneko hogeia, balio hori ediktuan edo zuzeneko notario-jakinarazpenean agertzen bada.

2) Tronkero bat baino gehiago agertuz gero, guztiek ere fidantza jartzeko betebeharra izango dute, eta notarioak fidantza atxikiko du, eskritura egiletsi arte; norbaitek fidantza kentzen badu, bere eskubidearri uko egiten diola ulertuko da.

3) Salmenta-eskrituraren aurreko notario-jarduna agerkai bakar batean jasoko da. Burututako eginbide guztien lekukotza emango die notarioak agertzaileei.

78. artikulua.– Oinibarraren balorazioa.

1) Notarioak alderdiei dei egingo die, alderdiok, aurreko artikuluan aipatu epea muga-eguneratu eta hurrengo hogei egun baliodunetan,

peritua izenda dezaten; peritu horrek finka baloratu beharko du. Alderdiak ados jartzen ez badira, bakoitzak peritu bana izendatuko du, eta, hiruga-rren peritua izendatzeko, notarioaren aurrean zakuan sartuko dira lau perituren izenak. Notarioak berak izendatuko ditu lau horiek, finken izaera kontuan hartuta, finka horiek bide judizialean baloratzeko baimena duten perituen artean. Behin izenak zakuan sartuta, zozketa bidez izendatuko da lau horietatik bat. Notarioak perituei epea jarriko die, tasazioa egin dezaten; epe hori ezingo da izan hogei egunetik gorakoa.

Perituek finkatutako prezioa alderdientzat loteslea izango da, eta alderdiok eskritura egiletsi beharko dute, tasazioaren emaitza haiei noiz jakinarazi eta hurrengo hamabost egunetan.

Notarioak jarritako data horretan saltzailea ez bada agertzen, ulertuko da ados dagoela, tronkeroek zein peritu proposatu eta peritu horren izendapenarekin.

2) Tasazioa ez da beharrezkoa izango, baldin eta eskualdatzaileak eta lehenespeneko tronkero izendatuak, prezioa hitzartzen badute, eta, aldi berean, eskritura publikoa formalizatzen badute.

79. artikulua.– Salerosketa-eskritura egilestea lehenespeneko senide tronkeroari.

1) Fidantzarekin aurre egingo zaie hura nork eman eta horrexen betebeharrei; pertsona hori ez bada agertzen eskrituraren egilespenera, eskualdatzaileak aukeran du finkatutako prezioan egilespena egin dadin eskatzea edo hark eskuraketan atzera egin duela ulertzea; besterentze-asmoa nork iragarri eta horrexen esku geratuko da fidantzaren zenbatekoa, kalte-ordain gisa eta hori beheratzeko aukeratik gabe. Eskualdaketa aukeratuz gero, prezioaren zati gisa hartuko da fidantza.

2) Atzera-egite kasuan, notarioak atzera-egite hori jakinaraziko die, hamar eguneko epean, fidantza eman eta horri eusten dioten senide tronkeroei, salmenta formalizatzeko eguna eta ordua adieraziz. Jakinarazpenaren eta formalizazio-dataren artean, gutxienez, hamabost egun igaro beharko dira, salbu eta jakinarazpena jaso dutenek beste tasazio bat eskatzen dutenean.

80. artikulua.– Ondasun tronkalak besterentzeko askatasuna.

Senide tronkeroetatik batek ere ez badu bere burua aurkezten edo batek ere ez badu bere esku-bidea gauzatzen, jabeak onibarra besterentzeko askatasuna izango du, kostu bidezko tituluetatik edozeinen bidez, eta berak askatasunez erabakitzen dituen prezio eta baldintzetan; horretarako epea urtebetekoa izango da, ediktuan aipatu epea muga-eguneratu denetik zenbatuta. Epe hori igarota, ezin izango du kostu bidezko besterentzerik gauzatu, beste dei bat egin gabe. Tronkeroak bere burua ez duela aurkeztu ulertuko da, baldin eta tronkero horrek azpiatal honetan aipatu epee-tatik edozein iraungitzen uzten baditu.

81. artikulua.– Tronkero ez diren hirugarrenei besterentzea.

Notarioaren aurreko agerraldiaren bidez, eta aho batez erabakia hartzen badute besterentzaileek, eta dei horretara lege bidez agertu diren tronkeroek, lehenespen-graduan ez daudenek barne, orduan, finka hirugarrenari besterendu ahalko zaio; besterentzea formalizatu beharko da, aurreko artikuluan agindu epean, alegia, urtebeteko epean.

82. artikulua.– Egindako izapideak jasotzea besterentze-eskrituran.

Ondasun tronkalak kostu bidez besterentzeko eskritura guztietan, besterentze hori lehenespenez eskuratzeko eskubidea mendekoa baldin bada, foru-deia egin den ala ez agerraraziko da; eta, baiezko kasuan, xehe-xehe aipatuko dira ediktua finkatzeko akta, edo, hala badagokio, notarioaren zuzeneko jakinarazpena eta geroko eginbideak; kasuan kasuko inskripzioan agerraraziko da, halaber, deia legezko forman egin den ala ez.

83. artikulua.– Foru-saka.

1) Onibarra besterentzen bada aurretiaz deia egin gabe, 72.2 artikuluan zerrendaturiko edo-zein tronkerok foru-saka akzioa egikari dezake, besterentzearen deuseztasuna eta finkaren adjudikazioa eskatuz, azken hori finkaren beraren balorazio zuzenaren arabera. Tronkeroak epaiketa adierazle batean egikaritu beharko du eskubide hori, eta epaiketa hori sustatu beharko du, besterentzailearen aurka,

eskuratzailearen aurka eta erregistroan besterentze hori egin eta harrez-keroko beste eskubide-titular guztien aurka, hiru hileko epean, Jabetza Erregistroan inskripzioa egin denetik zenbatuta, edo, inskripzioa egin ezik, besterentzearen berri izan duenetik zenbatuta.

2) Tronkeroak eskubide berbera izango du, baldin eta, foru-deiak egin arren, finka besterendu bada iragarritako prezio edo baldintzez bestekoetan.

3) Epaiak oniritzia ematen badio saka-akzioari, salmenta deuseza dela adieraziko du, eta demandatzailearen mesederako beste besterentze bat egitea aginduko du; epaiak berak finkatuko du zein prezio ordaindu behar duen demandatzaileak, horretarako, epaiketan bertan, alderdien arteko aurkakotasunean jardungo dela.

4) Behin epaia irmo izanda, demandatzaileak epai hori betearazteko akzioa egikaritzen badu, epaitegiaren zainpean utzi beharko du onibarraren balorazio gisa finkatutako prezioa; prezio horren gain, erosleak lehenespena izango du, saltzailearen beste edozein hartzekoduni begira, erosketaren prezioa eta horren korrituak kobratzeko. Behin jabariari buruzko inskripzioa deuseza dela adierazita, inskripzio horren ondorengo zamak baldin badaude Jabetza Erregistroan, eta zama horiek, epaiaren aginduz, ezereztu beharrekoak badira, orduan, zainpean utzitako prezioa, lehenengo eta behin, geroagoko hartzekodunen esku geratuko da. Inguruabar hori epailearen ebazpenean jaso beharko da.

5) Tronkero demandatzaileak eskatu behar du betearazpena, epaia irmoa denetik hiru hileko epean; behin epe hori igarota, aurkaratutako salmenta baliozkotuta geratuko da. Epaileak, betearazpena agintzeko unean, erabaki beharko du zainpean jarritako kopuruaren destinoa.

84. artikulua.– Lehenespenez eskuratzeko eskubideak egikaritzea hipoteka-betearazpen kasue-tan eta premiamendu-prozeduretan.

1) Hipoteka-betearazpenaren kasuan, betearazpen hori epaiketa bidezkoa izan nahiz epaiketatik kanpokoa izan, eta premiamendu-prozeduretan ere, senide tronkeroek hurrengo eskubideetatik edozein egikaritu ahal izango dute, foru-sakaren ondoriozko eskubidea duten neurrian:

Lehenespenez eskuratzeko eskubidea, salmenta-adjudikazioaren prezioa dela bide. Horretarako, enkantea zein organok egin eta organo horren aurrean agertu beharko da, eta prezioa zainpean utzi beharko du, salmenta-eskritura egiletsi baino lehen, edo organo eskudunak Jabetza Erregistroan inskribatzeko moduko ziurtagiria luzatu baino lehen.

Foru-sakaren ondoriozko eskubidea, atal honetan araututako moduan, eta, betiere, hiru hileko epean, enkantearen datatik zenbatuta.

2) Adjudikazioa hartzekodun betearazleari egiten zaionean, eskubide berbera izango dute, hiru hileko epean, adjudikazioaren datatik zenbatuta.

85. artikulua.– Lehenespenez eskuratzeko eskubideak egikaritzea trukaketa-kasuetan.

1) Azpiatal honetan xedatutakoa aplikatuko da trukaketa-kasuetan ere, baldin eta hurrengo inguruabarretatik bat gertatzen bada:

a) Ondasun tronkala trukatzen edo subrogatzen denean ondasun ez-tronkalekin, edo, tronkalak izanda, lehenespenez eskuratzeko eskubidetik baztertuta dauden ondasunekin.

b) Jasotako ondasunaren balioa, izatez, trukaketan emandako ondasun tronkalarena baino txi-kiagoa denean heren batean.

2) Titularrak ondasun tronkala besterentzen duenean bizi arteko errentaren bat edo mantenua lortzeko, orduan, eskubide hori egikaritzen duenak bermatu beharko du, gutxienez, pentsio hori ordaintzea edo harako laguntza ematea, besterentzailearen eta haren ezkontide edo bizikidearen bizitzak iraun bitartean.

86. artikulua.– Lehenespenez eskuratzeko eskubideak egikaritzea errentamendu-kasuetan.

1) Errentariaren errentamendu-kontratuak berrogei urtetik gorako indarraldia baldin badu, errentari horren kausatzaile zein senide izan eta senide horiek guztiek finkaren gainean izan duten edukitza-epea barne hartuta, orduan errentariak errentapeko finka lehenespenez eskuratzeko eskubidea izango du, azpiatal honetan araututako moduan.

2) Errentariaren eskubide horrek lehenespena izango du alboko senideenari begira, eta tronkeroetatik batek ere ez du lehenespeneko eskubiderik izango, errentariari finka eskualdatzen zaionean jabetza eskuratzeko eskubidearen ondorioz.

3) Edozein kasutan ere, besterentzeko borondatea errentariari ere jakinarazi beharko zaio.

87. artikulua.– Eskubide horien lehenespena beste eskuratze-eskubide batzuen gainetik. Titulu honetan aitorturiko eskubideek lehenespena izango dute beste edozein eskuraketa-eskubideri begira, baita erregistroko hirugarrengotzari begira ere, baldin eta halakoa sortzen bada inskripzioa egin delako lehenespenez eskuratzeko eskubidea egikaritzeko epeetan zehar.

LAUGARREN ATALA

TESTAMENTUA EGITEKO ASKATASUNA ARABAKO AIARA HARANEAN

88. artikulua.– Lurralde-eremua.

1) Aiarako haranari berezko zaion zuzenbide zibila aplikatuko da Aiara, Amurrio eta Okondoko udal-mugarteetan, eta, Artziniegako udaletik, Mendieta, Erretes Tudela, Santa Koloma eta Soxo-gutiko auzoetan.

2) Aipatu udal-mugarteetan geroago administrazio-aldarazpenak gertatuz gero, horiek ez dute aldatuko zuzenbide zibil aplikagarria.

89. artikulua.– Testamentua egiteko askatasuna Aiara haranean.

1) Aiarako toki-auzotasun zibila dutenek euren ondasunak askatasunez xedatu ahal dituzte, hala nahi eta hobesten duten modurik egokienean, testamentu, dohaintza edo oinordetza-itunaren bidez, titulu unibertsalaren bidez edo banakako tituluaren bitartez, euren nahitaezko jaraunsleak gehiagorekin edo gutxiagorekin baztertuz.

2) Nahitaezko jaraunsle gisa hartzen dira lege honen 47. artikuluaren arabera halakoak direnak.

90. artikulua.– Bazterketa.

1) Bazterketa esanbidezkoa nahiz isilbidezkoa izan daiteke, banakakoa nahiz baterakoa.

2) Bazterketa ez egiteak sortuko ditu 48.3 artikuluan ezarritako ondoreak.

91. artikulua.– Botere osoko gozamenaren eraketa.

1) Aiarako toki-auzotasun zibila dutenek botere osoko gozamena eratu ahal dute, testamentuaren bidez nahiz oinordetza-itunaren bidez.

2) Eratutakoa botere osoko gozamen gisa hartzen da, gozamendunari ahalmena ematen zaionean, ondasun guztiak edo batzuk dohaineko tituluan, inter vivos nahiz mortis causa xedatzeko, eratzailearen seme-alaba edo ondorengoen mesederako, eta eratzaileak beren-beregi aipaturiko beste pertsonen mesederako.

3) Eratzaileak botere osoko gozamenaren edukia zabaldu, murriztu edo zehaztu ahal du.

4) Testamentu-ahalordea ematen denean ulertzen da botere osoko gozamena ere egiletsi dela, beren-beregi kontrakoa xedatzen denean izan ezik.

92. artikulua.– Botere osoko gozamenaren ezaugarriak.

Botere osoko gozamena bere-berezko eskubidea da. Ezin izango da inolako tituluren bidez besterendu edo kargatu, eratzaileak horretarako baimena eman ezik.

93. artikulua.– Botere osoko gozamenaren egikaritzea.

Botere osoko gozamendunak ondasun batzuk xedatzen baldin baditu, jasotako ondasunekin baztertuta geratzen dira senipartedun onuradunak; horri kalterik egin gabe, geroagoko egintzetan, gozamendunak beste ondasun batzuk eman ahal dizkie senipartedun horiei.

94. artikulua.– Gozamendunaren betebeharrak.

Gozamendunak ordaindu beharko ditu botere osoko gozamenak zein ondasun hartu, eta onda-sun horien gaineko konponketa, gastu, zama eta kontribuzio guztiak, ondasunok xedatzen ez dituen bitartean.

95. artikulua.– Gozamendunaren fidantza.

Botere osoko gozamendunak ez du fidantza emateko betebeharrik izango, kausatzaileak beren-beregi xedatutakoa salbu.

BOSGARREN ATALA

BASERRIARI BURUZKO ARAU BEREZIAK GIPUZKOAN

96. artikulua.– Baserriaren oinordetzaren antolaketa.

Gipuzkoako lurralde historikoan, baserriaren gaineko oinordetza antolatzeko, lege honen arauak aplikatuko dira, betiere lurralde historiko horretako forma, erakunde eta printzipio tradizionalei egokituz.

97. artikulua.– Baserria.

Baserria, izatez, familiaren ustiategia da, nekazaritzaren arlokoa nahiz abeltzaintzaren arlokoa; ustiategi hori eratzen du landetxeak berak, eta, horrekin batera, osagai higigarri desberdinek, abel-buruek, ustiatze-eskubideek, makineriak, instalazioek, eta, orobat, landa, lursail, baso edo mendi batek edo batzuek. Lursail edo landa horiek landetxearen ondoan egon daitezke edo horretatik aparte, eta, halakoak izendatzeko, baserriari dagozkion lurrak direla esan ohi da.

98. artikulua.– Ondazilegiak.

Baserriaren osagaietan, ondazilegiak diren lursailak barruraturik daudela ulertuko da.

99. artikulua.– Baserria dohaineko tituluaren bidez eskualdatzean sartutako ondasuna.

Baserria eta bere lursailen eskualdaketan, dohaineko tituluaren bidez egiten denean, eta aurkakoa hitzartu ezean, aurreko artikuluetan zehaztutako multzoa barruratuko da.

HIRUGARREN KAPITULUA

OINORDETZA ITUNAK

LEHENENGO ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

100. artikulua.– Oinordetza-ituna.

1) Oinordetza-itunaren bidez, ondasunen titularrak horiek xedatu ahal ditu mortis causa.

2) Itunaren bitartez, halaber, uko egin dakieke jarauntsi oso baten edo zati baten gaineko oinordetza-eskubideei, jarauntsi horren kausatzailea bizirik dagoen bitartean. Era berean, xedatu ahal dira hirugarren baten jarauntsiaren gaineko oinordetza-eskubideak, betiere hirugarren horren adostasunarekin.

3) Oinordetza-ituna baliozkoa izan dadin, nahitaezkoa da egilesleak adin nagusikoak izatea.

4) Oinordetza-itunak nahitaez egiletsi beharko dira eskritura publikoan.

101. artikulua.– Oinordetza-ituna eta testamentua.

1) Oinordetza-itunaren bidez ondasunen oinordekoa izendatzeak ondorerik gabe uzten ditu itunpeko ondasunen gainean aurretiaz egindako testamentu-xedapen guztiak.

2) Izendapen hori aldarazi edo suntsiarazi egingo da, bakarrik, egilesleek edo euren oinordekoek beste itun bat eginez gero, eta, orobat, alderdiek ezarritako arrazoien ondorioz.

3) Oinordetza-ituna azkentzen da, alderdiek finkatutako arrazoien ondorioz edo legez ezarri-tako arrazoien ondorioz.

102. artikulua.– Oinordetza-ituna eta mortis causa dohaintza.

Banakako ondasunen gainean mortis causa egindako dohaintza oinordetza-itun gisa hartzen da, eta halakoa izango da, orobat, inter vivos egindako dohaintza unibertsala, kontrakoa hizpatu ezik.

103. artikulua.– Oinordekoa izendatzeko ituna.

Oinordekoa izendatzeko itunak bere baitan jaso dezake jarauntsiaren gaineko xedapena, titulu unibertsalaren bidez nahiz banakako tituluaren bidez, baita jarauntsiari uko egitea ere; bi kasuotan, egilesleek finka ditzakete hari jarri beharreko erreserbak, zamak, betebeharrak eta baldintzak.

BIGARREN ATALA

OINORDEKOA IZENDATZEKO ITUNAK

104. artikulua.– Oinordekoa izendatzea ondasunak unean bertan eskualdatuz.

1) Oinordekoa izendatzen denean unean bertan ondasunak eskualdatuz, oinordekoak ondasun horien gaineko titulartasuna eskuratzen du, betiere izendatzaileen intereserako, familiaren intereserako eta ondasunen ustiatzearen intereserako ezarritako mugekin; horregatik, kontrako ituna egin ezean, xedatze- edo kargatze-egintza oro baliozkoa izan dadin, nahitaezkoa izango da izendatzailearen eta izendatuaren baterako adostasuna.

2) Izendatzaileak oinordetza-itunaren aurretik zorrak hartu baditu, izendatzailearen hartzeko-dunek lehenespena dute unean bertan eskualdatutako ondasunen gainean.

105. artikulua.– Oinordekoa izendatzea ondasunak post mortem eskualdatuz.

1) Oinordekoa izendatzen denean post mortem eragingarritasunez, izendatuak ondasunak jasoko ditu izendatzailea hiltzen den unean;

baina ituna egilesten denetik oinordeko-izaera eskuratzen du, eta izaera hori besterenduezina eta enbargaezina da.

2) Izendatzaileak ondasunen gaineko titulartasunari eusten dio, eta, kontrakoa itundu ezean, ondasun horiek xedatu ahal izango ditu kostu bidez. Eskualdatutako ondasunak, izatez, ekoizpen-ondareak badira, eta izendatuak ondare horietan lan egiten badu, haren adostasuna nahitaezkoa izango da, ondasunok kostu bidez besterentzeko, baldin eta izendatzaileak eta izen-datuak ez badute bestelakoa itundu.

3) Oinordekoa izendatzen denean post mortem eragingarritasunez, izendapen horren barruko ondasunek erantzukizuna dute izendatzaileak hartutako zorren gainean.

106. artikulua.– Oinordeko izendatuak eskubideak xedatzea.

Oinordetza-itunak post mortem eragingarritasuna badu eta ezkontzako itunetan egilesten bada, izendatuak bere eskubidea xedatu ahal izango du dohaineko tituluaren bidez, baita izendatzailea bizirik dagoenean ere, inter vivos nahiz mortis causa egintzen bitartez, bere seme-alaba eta ondorengoen mesederako.

Izendatua izendatzailea baino lehen hilez gero, izendatuaren eskubidea haren ondorengoei eskualdatzen zaie. Baldin eta abintestato hildako izendatu baten seme-alaba edo ondorengo batzuk badira, izendatzaileak aukera ditzake horietariko bat edo batzuk, testamentu, itun edo bestelako oinordetza-titulu baten bidez.

107. artikulua.– Erkidego-ituna.

1) Familia-ondarearen oinordekoa izendatzen denean, horrekin batera izendatzaileen eta izendatuen arteko erkidego-ituna egin daiteke, sozietate-mota desberdinen formapean edo ondasun-erkidegoaren araubidea erabiliz. Itundutako erkidego-araubideari edo familia-sozieta-teari aplikatuko zaio, lehenengo eta behin, titulu eratzailea, eta, ordezko moduan, Euskal Lege Zibil honetan xedatutakoa.

2) Kontrako ituna egin ezean, izendatzaileetatik bat hiltzean ulertuko da haren ezkontideak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak, itu-

naren egilesle denak, bizi artean eta oso-osorik gordetzen dituela bibiok erreserbatu izan dituzten eskubideak.

3) Izendatzaileari itzuliko zaizkio mantenuaren kargapean oinordetza-itunaren bidez eskualda-tutako ondasunak, izendatua hiltzen bada, seme-alaba etsrengorik utzi gabe, izendatzailea bizirik dagoela.

108. artikulua.– Oinordetza-itunaren ezeztapena. Izendatzaileek izendapena ezeztatu ahal dute:

1) Itundutako arrazoien ondorioz.

2) Ezarritako zama eta baldintzen ez-betetze larriaren ondorioz.

3) Izendatuak ezduintasun- edo jaraunsgabetze-arrazoia betetzearen ondorioz.

4) Izendatuaren jokabidearen ondorioz, horrek familiaren ohiko elkarbizitza oztopatzen badu.

5) Izendatuaren ezkontzari dagokionez deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa gertatzen denean, edo izatezko bikotea azkentzen denean, baldin eta oinordetza-ituna egiletsi bada ezkon-tza horri edo izatezko bikote horri begira. Salbuetsita geratzen da izatezko bikotearen kasua, horren azkentzearen arrazoia bada bikotearen kideak beraien artean ezkondu direla.

109. artikulua.– Oinordetza-itunaren suntsipena. Oinordekoaren gaineko izendapena suntsiarazi egingo da:

1) Izendapen horren gaineko baldintza suntsiarazlea betetzearen ondorioz.

2) Izendatua ondorengorik gabe hiltzearen ondorioz, edo halakoak utzi arren, 106. artikuluan aurreikusita dagoen eskualdaketa gertatu ez bada.

3) Egilesleek eskritura publikoan formalizaturiko hitzarmenaren ondorioz.

LAUGARREN KAPITULUA

LEGEZKO EDO TESTAMENTU GABEKO OINORDETZA

110. artikulua.– Legezko edo testamentu gabeko oinordetza.

Legezko oinordetza gertatzen da, jarauntsi osoa edo horren zati bat baliozkotasunez xedatu ez denean, dela testamentuaren bidez, dela oinordetza-itunaren bidez, lege honetan xedatutakoarekin bat etorriz.

111. artikulua.– Ondasun tronkalen legezko oinordetza.

1) Ondasun tronkalen kasuan, legezko oinordetzaren hurrenkera izango da 66. artikuluan ezarritakoa, baina alargunari edo bizirik dirauen izatezko bikotekideari aitortzen zaizkio lege honetan araututako eskubide guztiak; ondasun ez-tronkalik izan ezean edo horiek aski ez direnean, esku-bideok ondasun tronkalen gainekoak izango dira.

2) Oinordeko tronkerorik ez dagoenean, ondasun guztiak ez-tronkalak direla ulertuko da.

112. artikulua.– Ondasun ez-tronkalen legezko oinordetza.

Ondasun ez-tronkalen kasuan, legezko oinordetza gauzatzen da honako hurrenkera honetan:

1) Lehenengo eta behin, seme-alaba edo ondorengoen mesederako.

2) Alargunaren mesederako, legezko banantzerik edo modu sinesgarrian bi ezkontideen artean hitzartutako banantzerik izan ez denean, edo bizirik dirauen izatezko bikotekidearen mesederako, bikote hori azkendu denean bikotekideetatik bat hiltzearen ondorioz.

3) Aurrekoen mesederako.

4) Albokoen mesederako, laugarren graduaren barruan, odolkidetasunez zein adopzio bidez.

113. artikulua.– Oinordekoak berezko eskubidearen ondorioz edo ordezkapen-eskubidearen ondorioz.

1) Seme-alabak jaraunsle dira berezko eskubidearen ondorioz, jarauntsitik hartzeko dagoena zati berdinetan banatzen delarik.

2) Ilobak eta gainerako ondorengoak jaraunsle izango dira ordezkapen-eskubidearen ondorioz.

114. artikulua.– Ezkontide alarguna edo bizirik dirauen izatekoz bikotekidea.

1) Ondorengorik izan ezean, eta aurrekoak eta albokoak baino lehenago, oinordekoa izango da alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea, bikote hori azkendu denean bikotekideetatik bat hiltzearen ondorioz.

2) Edozein kasutan ere, alargunak edo bizirik dirauen izatezko bikotekideak bere seniparte-eskubideei eutsiko die, gozamenari dagokionez.

115. artikulua.– Aurrekoak.

1) Gurasoek jarauntsiko ondasunak eskuratzen dituzte erdi bana. Euretatik bat hilda badago, bizirik dirauenak ondasun guztiak jasoko ditu.

2) Gurasoetatik bat ere ez badago bizirik, gainerako aurrekoak izango dira oinordeko, bi lerroetan ondasunak erdi bana eginez; eta, lerroren batean ez badago aurrekorik, ondasun guztiak zati berdinetan eskuratuko dituzte aurrekoak zein lerrotan egon eta lerro horretako aurrekoek.

116. artikulua.– Albokoak.

1) Ondorengorik, aurrekorik eta alargunik edo bizirik dirauen izatezko bikotekiderik izan ezean, alboko senideak izango dira oinordeko; lehenengo eta behin, anai-arrebak eta hildako anai-arreben seme-alabak, eta, halakoak izan ezean, seniderik hurbilenak, betiere laugarren graduaren barruan.

2) Ordezkapen-eskubidea gertatuko da, bakarrik, anai-arrebak anai-arreben seme-alabekin batera agertzen direnean; lehenengoak oinordeko izango dira buruko, eta bigarrenak, leinuko. Lotura bikoitzeko

anai-arrebak lotura bakarreko anai-arrebekin agertzen badira, haiek horien bikoitza jasoko dute oinordeko gisa.

117. artikulua.– Autonomia Erkidegoaren aldeko oinordetza.

Aurreko artikuluen arabera lege-aginduz oinordetzara deituriko pertsonarik izan ezean, onda-sun guztien oinordekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorra. Horrek heren bat eratxikiko dio bere buruari, beste heren bat hildakoaren azken egoitzari dagokion foru-aldundiari, eta gainerako herena hildakoak zein udaletan izan duen bere egoitza eta udal horri.

Administrazio publiko horien eskubide eta betebeharrak beste oinordekoen parekoak izango dira, baina beti ulertuko da jarauntsia inbentario-onuraren arabera onartzen dela, horri buruzko adierazpena beharrezkoa ez dela.

BOSGARREN KAPITULUA

OINORDETZA FORMA DESBERDIN GUZTIENTZAKO XEDAPEN ERKIDEAK

118. artikulua.– Ondorengoarengandik eskuratutako ondasunen erreserba.

Aurrekoak jaraunsle gisa eskuratzen baditu ondasun batzuk bere ondorengoarengandik, eta ondorengoak ondasun horiek jaso baditu dohaineko tituluaren bidez beste aurreko batengandik edo anai nahiz arreba batengandik, orduan, aurrekoak betebeharra du lege-aginduz jasotakoak erreserbatzeko, ondasunok zein lerrotatik etorri eta lerro horretan hirugarren graduraino senide direnen mesederako.

119. artikulua.– Ezkontza baterako dohaintzan emandako onibarren erreserba.

Onibarrak dohaintzan eman badira ezkontza baterako, ezkontza horren aurretik zein ondoren, ondasunon oinordeko izango dira ezkontza horretan izandako seme-alabak edo ondorengoak, beste guztiak baztertuz.

120. artikulua.– Ezkontide edo izatezko bikotekide hildakoaren seme-alaben aldeko erreserba.

Kausatzaileak kontrakoa xedatu ezean, alarguna edo bizirik dirauen izatezko bikotekidea berriz ezkontzen bada, izatezko bikote berria eratzen badu edo ezkontide edo izatezko bikotekide hildakoarena ez den seme edo alabaren bat baldin badu, orduan, horren betebeharra izango da hildakoarekin izandako seme-alabei eta ondorengoei erreserbatzea berak harengandik testamen-tuaren bidez, oinordetza-itunaren bidez nahiz dohaineko beste edozein tituluren bidez eskuratutako ondasun guztiak.

121. artikulua.– Erreserben irismena.

Titulu honetan arauturiko erreserbek, edozein kasutan ere, euren baitan hartzen dituzte erreserbagileak egindako eraikin, landaketa eta hobekuntzak; eta betebeharra sortzen da, erreserbagileari edo haren jaraunsleei halakoen balio eguneratua ordaintzeko, erreserba-hartzaileak horien edukitza noiz eskuratu eta hurrengo urtebete eta egun bateko epean.

122. artikulua.– Erreserbagilearen ahalmenak.

Erreserbagileak, titulu honetan araututako kasu guztietan, oinordekoa izendatu ahal izango du erreserba-hartzaileen artean, testamentuzko oinordetzari edo oinordetza-itunari buruz ezarritakoaren arabera; eta ezin izango du ordezpenik eta kargarik ezarri, horien mesederako ez bada.

123. artikulua.– Dohaintzan emandako ondasunen itzulketa.

Aurrekoak oinordeko dira, aurkako oinordetza-ituna izan ezean, euren seme-alaba edo ondo-rengoei eman dizkieten ondasun eztronkaletan, baldin eta seme-alaba edo ondorengo horiek hil badira ondorengorik utzi gabe, eta dohaintzan emandako objektuak eurak oinordetzan badaude. Objektuok besterendu badira, aurrekoak oinordeko izango dira, dohaintza-hartzaileak objektu horiei begira izango zituzkeen akzio guztietan; objektuok saldu badira, prezioan; eta trukatu edo aldatu badira, horien ordezko diren ondasunetan.

124. artikulua.– Itzulketa-gai diren ondasunak zenbatzea.

Aurreko artikuluan zehazten diren ondasunen balioa zenbatuko da kausatzaileak utzitako ondasunetan, oinordetzaren delazioa burutzen den unean.

III. TITULUA

EZKONTZAKO ONDASUNEN ARAUBIDEA

LEHENENGO KAPITULUA

LEGE-ARAUBIDEA

125. artikulua.– Ezkontzaren araubide ekonomikoa.

Ezkontzako ondasunen araubidea izango da ezkontideek ezkontzako itunetan ezarritakoa, bai beren-beregi araubide horren baldintzak hizpatzen dituztenean, bai lege honetan nahiz beste lege batzuetan ezarritako sistema ekonomikoetatik edozein aipatzen dutenean.

126. artikulua.– Ezkontzaren araubide ekonomikoaren aldaketa.

Ezkontzaren araubide ekonomikoa, itundutakoa izan nahiz legezkoa izan, aldarazi ahal izango da, beste ezkontza-itun batzuk egiletsiz.

127. artikulua.– Ezkontzaren araubide ekonomikoa itunik ez dagoenean.

1) Ezkontzako itunak egin ezean, edo egindakoak askiezak edo deusezak izanez gero, ezkontzari aplikatuko zaizkio Kode Zibilean irabazpidezko sozietateari buruz ezarritako arauak.

2) Ezkongaiak Bizkaiko lur lauko, Aramaioko edo Laudioko auzotarrak direnean, ezkontzari aplikatuko zaio, ituna egin ezean, III. titulu honen bigarren kapituluan araututako araubidea.

3) Ezkontideetatik batek bakarrik badu bere auzotasun zibila Bizkaiko lur lauan, Aramaion edo Laudion, ondasunen araubidea izango da, ituna egin ezean, ezkontideen lehenengo eta ohiko bizileku erkideari

dagokiona, eta, halako bizilekua izan ezean, ezkontza non egin eta toki horri dagokiona.

128. artikulua.– Ezkontzaren araubide ekonomikoaren inskribatzea.

Ezkontzako ondasunen araubidea aldarazteak ez du ondorerik sortuko hirugarrenen aurka, aldarazpena Erregistro Zibilean edo, hala denean, Jabetza Erregistroan edo Merkataritza Erregistroan inskribatzen denetik baino.

BIGARREN KAPITULUA

ONDASUNEN FORU KOMUNIKAZIOARI BURUZKO ARAUBIDEA

LEHENENGO ATALA

ONDASUNEN FORU-KOMUNIKAZIOA

129. artikulua.– Ondasunen foru-komunikazioa.

Foru-komunikazioaren bitartez, erkide egiten dira, ezkontideentzat erdi bana, ondasun, eskubide eta akzio guztiak, horien jatorria edozein izanik ere, batarenak izan zein bestearenak izan, edozein tituluren ondoriozkoak, bai ekarritakoak, bai ezkontza bitartean eskuratutakoak, eta horien kokalekua edozein izanik ere.

130. artikulua.– Ondasunen foru-komunikazioaren irismena eta bukaera.

Foru-komunikazioak, ezkontza bitartean, lege honetan ezarritako norainokoa eta mugapenak ditu, eta zuzenean bukatuko da ezkontideen arteko banantze-epaia, ezkontzaren deuseztasunari buruzkoa edo dibortzio-epaia ematean, bai eta ezkontzako itunak egilestean ere, baldin eta ezkontideek beste izaera bateko araubide ekonomikoa ezartzen badute.

131. artikulua.– Ondasunen foru-komunikazioaren bukaeraren beste arrazoi batzuk eta horien ondorioak.

Foru-komunikazioa bukatuko da, halaber, epailearen erabakiz eta ezkontideetatik batek hori eskatuta, hurrengo kasuetan:

1) Beste ezkontidea epaiketa bidez ezgaituta geratu denean, haren absentzia-adierazpena eman denean edo hartzekodunen konkurtso-adierazpena eman denean.

2) Beste ezkontideak xedatze- eta kudeatze-egintzak gauzatzen dituenean, haren kalterako edo haren eskubideei iruzur eginez.

3) Egitez urtebete baino gehiago bananduta egon direnean, nahiz eta elkarrekin adostutako banantzea izan.

Komunikazio-araubidea desegin ondoren ezkontza bera ez bada azkentzen, ezkontideak onda-sunen banantze-araubidearen mende geratuko dira, Kode Zibilean arautu bezala, kontrakoa itundu ezik.

132. artikulua.– Ondasunen foru-komunikazioaren sendotzea.

1) Foru-komunikazioa, ezkontzarekin sortzen dena, sendotu egiten da ezkontideetatik bat hiltzearen ondorioz desegiten den unean, bi-bion seme-alabak edo ondorengoak baldin badaude.

2) Ezkontideetatik edozeinek ezkontza desegin arte lortu dituen ondasun, eskubide eta akzio guztiak komunikatu direla ulertuko da; ez, ordea, pertsonari datxezkion eskubideak, ezta ezkontideetatik baten heriotzaz geroztik eskuratutakoak ere. Era berean, ez dira komunikatuko ondasun eta eskubide eskualdaezinak, ezta norberaren erabilerarako direnak ere.

133. artikulua.– Irabazitako ondasunak eta ezkontide batengan jatorria duten ondasunak.

Foru-komunikazioa indarrean dagoen bitartean, irabazitako ondasunak eta ezkontide batengan jatorria duten ondasunak bereiziko dira, eta bereizketa horri aplikatuko zaizkio legeria zibil orokorrak irabazpidezko ondasunen gainean eta ondasun pribatiboen gainean ezarritako arauak.

134. artikulua.– Ezkontzaren zamak.

1) Ezkontzaren zamatzat hartuko dira familia mantentzeko, seme-alaba erkideak elikatu eta hezteko, eta, ezkontide batenak bakarrik izanik, familiaren etxean bizi diren seme-alabak elikatu eta hezteko beharrezkoak diren guztiak. Beste edozein gastu ondasun erkideekin ordaintzen bada, baina ezkontide baten interes edo ondasunei buruzkoa baldin bada, itzulketa eskatzeko eskubidea sortuko da, komunikazioa likidatzeko unean.

2) Ezkontzaren zamak ordainduko dira, lehenengo eta behin, irabazitako ondasunekin eta, halakorik izan ezean edo horiek nahikoa ez badira, eta orduan bakarrik, ezkontide bakoitzarengan jatorria duten ondasunekin, horien balioaren arabera.

3) Azken horiekin ordaindutakoa etorkizuneko irabaziekin konpentsatuko da.

135. artikulua.– Ondasunak xedatzeko egintzak.

1) Foru-komunikazioan, ondasunak xedatzeko egintzetarako nahitaezkoa izango da bi ezkonti-deen adostasuna. Ezkontideetatik batek adostasuna ukatzen badu, epaileak xedapena baimendu ahal izango du, hori familiaren intereserako dela uste badu.

2) Hala ere, ezkontideetatik edozeinek bere kabuz xedatu ahal izango ditu bere titulartasunpeko dirua, kuotak, kooperatibei egindako ekarpenak edo sozietateetan dituen partaidetzen zati ordezkatzaileak, finantza-aktiboak edo balore higigarriak.

3) Modu berean, ezkontide batek beste ezkontidearen mesederako egin badu pribatibotasu-naren aitortzea, legeria zibil orokorraren arabera, eta aitortza hori Jabetza Erregistroan inskribatu ondoren, ondasun hori xeda dezake hipoteka-legerian ezarritako moduetan, hipoteka-legeria hori dela xedapen egintzaren unean indarrean dagoena.

136. artikulua.– Kreditu-eskubideak.

Kreditu-eskubideak, horien izaera edozein izanik ere, zein ezkontideren izenean eratu eta horrexek egikarituko ditu.

137. artikulua.– Ondasunak kudeatu eta administratzea.

1) Ezkontide bakoitzari dagokio, modu esklusiboan, berarengan jatorria duten ondasunak kudeatu eta administratzea, Merkataritza Kodean ezarritakoari kalterik egin gabe.

2) Era berean, ezkontide bakoitzak bere ondasunen fruituak eta produktuak xedatu ahal izango ditu, eta, aldian-aldian, besteari argibideak eman beharko dizkio ondasun horien egoerari buruz.

138. artikulua.– Zorrak eta betebeharrak.

1) Ezkontideetatik edozeinek zorrak eta betebeharrak hartzen baditu bestearen adostasunik gabe, hartutako horiek betebehardunari dagokion erdiaren kontura bakarrik geratuko dira, hurrengo mugapenekin:

a) Erantzukizunetik aske geratuko dira beti ezkontide ez-zordunarengan jatorria duten ondasunak.

b) Prozesu judizialetan edo betearazpen-prozesuetan, hurrengo erregelen mende geratuko da irabazitako ondasunen eta zordunarengan jatorria duten ondasunen gaineko erantzukizuna:

Ezkontide ez-zordunari jakinarazi beharko zaio enbargoa, eta ezkontide horrek eskubidea izango du edozein enbargoren aurka jartzeko, baldin eta enbargo horrek, irabazitako ondasunen gainekoa izanik, berari dagokion erdia gainditzen badu. Era berean, ezkontide ez-zordunak, egutegiko hamabost eguneko epean, foru-komunikazioaren desegitea eskatu ahal izango du, 145. artikuluko erregelen arabera; kasu horretan, betebehardunari adjudikaturiko ondasunak bakarrik geratuko dira erantzukizunaren menpe, eta ezkontzari ondasunen banantze-araubidea aplikatuko zaio aurrerantzean. Eskubide hori ez da gertatuko, baldin eta hartzekodunak frogatzen badu zorrak onura ekarri diola familiari.

Foru-komunikazioa desegitearen ondorioz, ondasunak adjudikatu behar direnean, adjudikazio hori betearazpen-prozeduran bertan egingo da, eta, zehatzago, pieza bananduan, eta, horretarako, jarauntsien banaketari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira.

c) Betebeharpekoaren erdi komunikatua saltzen bada, ezkontide erantzuleak ezkontza bitartean ez du inolako zatirik izango, beste erdiaren gainean; erdi hori beste ezkontidearen administraziopean geratuko da. Ezkontideak ezin izango du erdi hori besterendu, epailearen baimenik gabe, eta haren fruituak familiaren gastu arruntetarako destinatu beharko ditu.

d) Irabazpidezko ondasunen gaineko erantzukizuna subsidiarioa da, eta ezkontide ez-zordunak halakoak enbargatzea saihestu ahal izango du, zordunaren ondasun propioak behar besteko kopuruan adieraziz.

2) Edozein kasutan ere, betearazpena zein ondasunen gainean gauzatu eta ondasun horiek ezkontide zordunak jasotakotzat hartuko dira, komunikazioan horrek duen partaidetzaren kontura, eta sozietatea likidatzeko unean haiek duten balioaren neurrian.

139. artikulua.– Jarauntsiak arbuiatzea eta onartzea.

Foru-komunikazioa indarrean dagoen bitartean, jarauntsira deitutako ezkontideak ezin izango du hori arbuiatu, bestearen adostasunik gabe. Adostasuna lortu ezean, jarauntsia inbentario-onuraren arabera onartu dela ulertuko da.

BIGARREN ATALA

ONDASUNEN KOMUNIKAZIOARI BURUZKO ARAUBIDEA DESEGITEA

140. artikulua.– Ezkontideetako bat seme-alaba eta ondorengo erkideak utzita hiltzeagatik desegitea.

Ezkontza desegiten bada ezkontideetatik baten heriotzaren ondorioz, eta seme-alaba edo ondorengo erkiderik badago, foru-komunikazioa sendotu eta ondasun-erkidego bihurtzen da, batetik, alargunaren eta, bestetik, aurrez hildakoaren oinordeko diren seme-alaba edo ondorengoen artean, ondasunak zatitu eta adjudikatu arte.

141. artikulua.– Ezkontideetako bat komisarioa izendatuta utzita hiltzeagatik desegitea.

1) Kausatzaileak komisarioa izendatu badu, ondasunak erkidegoan egongo dira, oinordekoa izendatu arte.

2) Ondasunak egoera horretan diren bitartean, alarguna izango da, testamentugileak kontrakoa xedatu ezean, jarauntsiaren ordezkari bakarra eta ondasun guztien administratzailea, izendatutako oinordekoek jarauntsia onartzen ez duten bitartean.

3) Testamentugileak kontrakoa xedatu ezean, alarguna komisario izendatu bada, bera bakarrik edo beste pertsona batzuekin batera, alargun horrek, testamentu-ahalordea erabiltzen ez duen bitartean, xedatzeke dauden ondasunen gaineko gozamena izango du, eta ez du fidantza ema-teko betebeharrik izango.

142. artikulua.– Ezkontide alargun komisarioak ondasunak bere buruari adjudikatzea.

1) 140. artikuluan xedatutakoa salbuetsita, alarguna komisario izendatu bada, alargun horrek bere buruari adjudikatu ahal izango dio ondasun guztien erdia, eta beste erdia aurrez hildakoaren oinordetzarako utzi ahal izango du, oinordetza-erreserbei kalterik egin gabe.

2) Kausatzaileak kontulari-banatzailea izendatu badu, ezkontide komisarioak, kontulari-banatzailearekin batera, eratutako erkidegoaren desegitea eta likidazioa egin ahal izango ditu, 144. artikuluan ezarritako moduan; horrela, kausatzailearen oinordetzan geratuko dira horri adjudi-katuriko ondasunak. Era berean, hori egin ahal izango du ustezko oinordekoekin batera, edo, osterantzean, berak epaileari hala eskatu eta horrexen erabakiz.

143. artikulua.– Ondorengoek jarauntsiak onartzea ezkontide alargunak eskatuta.

Ezkontza desegin bada seme-alabak edo ondorengoak daudela, alargunak, epaiketa bidez, hildakoaren oinordekoei eskatu ahal izango die haren intereseko jarauntsietatik edozein onartzea. Epaileak adierazi-

tako epea ezin izango da hogeita hamar egunetik gorakoa izan; eta, behin hori igarota, oinordekoek ez badute adierazi jarauntsia onartzeko borondatea dutenik, edo jarauntsia arbuiatu badute, aipatutako ezkontideak jarauntsi hori onartu ahal izango du inbentario-onuraren arabera.

144. artikulua.– Komunikaziopeko ondasunen adjudikatzea.

1) Komunikaziopeko ondasunak adjudikatzean, hurrengo erregelak beteko dira:

a) Lehenengo eta behin, alargunari adjudikatuko zaizkio, bere hartzekoa ordaintzeko, berarengan jatorria duten onibar tronkalak.

b) Horiek ez badira nahikoa, alargunaren hartzekoa osatuko da ondasun higigarri eta onibar ez-tronkalekin.

c) Aurreko bi erregeletako ondasunak nahikoa ez direnean, eta orduan bakarrik, aurrez hildako ezkontidearen onibar tronkala erabiliko da.

2) Alargunaren hartzekoa zehazteko, aintzakotzat hartuko da 138. artikuluan xedatutakoa.

145. artikulua.– Ezkontideetako bat ondorengo erkiderik utzi gabe hiltzeagatik edo banantze-, deuseztasun- edo dibortzio-epaia emateagatik desegitea.

1) Foru-komunikazioa azkentzen denean ezkontideetatik bat hiltzeagatik, ondorengo erkiderik utzi gabe, edo banantze-, deuseztasun- edo dibortzio-epaia emateagatik, hurrengo erregelak aplikatuko dira:

a) Ezkontide bakoitzari dagozkio berarengan jatorria duten ondasunak edo horiekin eskuratutakoak nahiz haien salmentaren ondorioz eskuratutakoak. Eskuraketa, zati batez, beste jatorri bateko ondasunekin egin bada, halako ondasunetan proindibisoa sortuko da ondasunon titularren artean, bakoitzak jarritako kopuruaren arabera.

b) Irabazitako ondasunak erdibanatu egingo dira bi ezkontideen artean.

c) Ezkontide baten ondasuna edo horren balioa familiaren intereserako gastatu bada, horren balio eguneratua kontuan hartuko da, irabazitako ondasunekin hori ordaintzeko; eta irabazitako ondasunak nahikoa ez badira, alde horretatik beste ezkontideak ordainduko du berari dagokion zatia, bakoitzak dituen ondasunen balioaren arabera.

2) Foru-komunikazioa azkentzen bada ezkontzaren araubide ekonomikoa aldaraztearren, itun-dutakoa beteko da, eta, horren ezean, aplikagarria izango da artikulu honetan xedatutakoa.

146. artikulua.– Beste erregela partikular batzuk, ezkontideetako bat ondorengo erkiderik utzi gabe hiltzeagatik desegitearen kasurako.

Desegitea gertatzen bada ezkontideetatik baten heriotzaren ondorioz, eta ez badago ondorengorik, orduan, aurreko artikuluko erregelez gain, hurrengoak aplikatuko dira:

a) Alarguna aurrez hildakoaren baserrira ezkondu bada, orduan eskubidea izango du, alargun dagoen bitartean, baserri horretan geratzeko urtebete eta egun bat; horrek ez die kalterik egingo legezko edo borondatezko xedapenaren ondorioz alargunak dituen beste eskubideei.

b) Alargunak ezkonsaria ekarri badu edo bestelako ekarriak egin baditu, aurreko erregelan ezarritako epea luzatu egingo da hildakoaren jaraunsleek alargunari ekarri horiek itzultzen ez diz-kioten bitartean.

c) Onibar tronkalak kostu bidez eskuratu badira, edo horietan hobekuntzak egin badira, eskuraketa eta hobekuntza horiek izango dira ondasunok zein lerrotatik etorri eta lerro horretako ezkontidearentzat edo horren jaraunsle tronkeroentzat; baina, ezkontza-sozietatea likidatzean, aintzakotzat hartuko da egindako inbertsioen balio eguneratua, eta beste ezkontideari edo horren jaraunsleei ordainduko zaie hari dagokion hartzekoa.

Gerta daiteke ordainketa horrek ondorerik ez izatea alarguna hil arte, horri eskubidea aitortzen baitzaio bizirik dagoen bitartean bere erdia askatasunez gozatu eta lupertzeko.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.—Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea

1) Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea sortzen da. Kontsulta-organoa izango da eta bere misioa izango da Euskal Zuzenbide Zibilaren garapena sustatzea. Horretarako, honako hauek egingo ditu: ikerketu, ebaluatu, proposamenak eztabaidatu eta aholkularitza egin Eusko Lege-biltzarrarentzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat, baita arlo horretan lege-berrikuntzak eta aldaketak proposatu ere.

2) Bere osaerak ez du ordainketarik sortuko eta bai osaera, bai bere funtzionamendu-erregimena erregelamendu bidez garatuko dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.—Izatezko bikoteen araubidea

1) Lege honetan izatezko bikoteei buruz egiten diren aipamenak ulertuko da egiten zaizkiela izatezko bikoteak arautzeko martxoaren 7ko 2/2003 Legearen 4. artikuluan ezarritako erregistroan inskribatuta daudenei.

2) Aldatu egiten dira izatezko bikoteak arautzeko martxoaren 7ko 2/2003 Legearen 2. eta 5. artikuluak, testu honen arabera:

«2. artikulua.– Izatezko bikotearen kontzeptua eta aplikazio-eremua.

Lehenengoa.– Lege hau aplikatzeko, izatezko bikotea da bi pertsonaren arteko elkartze askearen ondorioa; pertsona horiek adinez nagusi edo adingabeko emantzipatuak izan behar dute, gaitasun osoa izan behar dute, eta ezin dute euren artean lerro zuzeneko odol- edo adopzio-ahaidetasunik eduki, ez eta alboko lerroko bigarren mailako odol-ahaidetasunik ere. Harreman sexual edo afektiboa izan behar dute elkarren artean, eta berdin izango da pertsona horiek sexu berekoak edo desberdinekoak izatea. Gainera, bikoteko kideek, ez batak ez besteak, ezin dute ezkontzaren edo izatezko bikotearen bidezko loturarik izan beste inorekin.

Lege honetako xedapenak 3. artikuluan eta ondokoetan zehazten den eran eratutako izatezko bikoteei aplikatuko zaizkie.

Horrela, bada, izatezko bikotea inskribatzeko, bikotekideetatik batek behintzat euskal auzotasun zibila izan beharko du».

«5. artikulua.– Bikotearen harremanak eta araubide ekonomiko eta ondarezkoa.

1) Izatezko bikoteko kideek beren elkartzearen ondorio diren harreman pertsonal eta ondarezkoak arautu ahal izango dituzte agiri publiko edo pribatuaren bitartez, eta bakoitzaren eskubide eta betebeharrak zehaztuko dituzte hor, bai eta bikotea deseginez gero, eman beharreko ordain ekonomikoak ere.

2) Ezin izango da hitzartu izatezko bikotea aldi baterako eratzea, ez eta haren eraketa baldintzaren baten menpe ezarri ere. Administrazio publikoek ez dituzte erregistroan jasoko edozein bikotekideren oinarrizko eskubide eta askatasunak hautsi litzaketen itunak.

3) Esanbidezko ituna egin ezean, lege honek araututako izatezko bikoteen araubide ekonomiko eta ondarezkoa izango da Kode Zibilean ondasunen banantzeari buruz araututakoa».

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.—Zerga-arauen egokitzea.

Lurralde historikoetako foru-organoek, beren eskumenak baliatuz, egokitu egingo dituzte beren zerga-arauak lege honetan erregulatutako instituzioetara.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.—Aldi arteko gatazkak

Lege honen eta beronek indargabetzen dituenen artean aldi arteko gatazkak sortzen badira, gatazkok konpontzeko aplikatuko dira Kode Zibilaren xedapen iragankorretako atarikoa, lehenengoa, bigarrena, hirugarrena, laugarrena eta hamabigarrena.

Aldi arteko gatazka ezin bada konpondu aurreko xedapenen bitartez, kontuan hartuko da lege honen ondoriozko aldaketek ezin dietela kalterik egin aurreko legeriaren arabera eskuratutako eskubideei.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.—Bide-zorraren gaineko aldez aurreko edukitza.

Bide-zorraren gaineko edukitza hasi bada lege hau indarrean jarri baino lehen, edukitza horretatik probetxua aterako du edukitzaileak, preskripzio bidez hura eskuratzeko ondoreetarako.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.—Legeko xedapen batzuen atzeraeragina.

Lege honen aurretik egiletsitako testamentu-ahalordeei atzera eraginez aplikatuko zaizkie 41. artikulua, testamentu-ahalordea egikaritzeko epeari dagokionez; 43. artikuluaren 3, 4 eta 5. apartatuak, ondarearen administratzaile eta ordezkari den komisarioaren ahalmenei dagokienez; eta 42. artikulua, ahalordea egintza edo egilespen bakarrean nahiz batzuetan egikaritzeko aukerari dagokionez.

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.—Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legea indarrean jarri aurretik egiletsitako testamentu-ahalordeak.

3/1992ko uztailaren 1eko Legea indarrean jarri aurretik egiletsitako testamentu-ahalordeetan, alarguna komisario izendatzeak berarekin ekarriko du alargun horri bizi arteko gozamena eratxikitzea, eta gozamen hori ez da azkenduko ahalordea erabiltzeagatik.

BOSGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.—Kode Zibilaren 831. artikuluaren itzalpean eta Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legearen 13. artikuluaren itzalpean emandako xedatze-egintzak.

Xedatze-egintzak burutzen badira Kode Zibilaren 831. artikuluaren itzalpean edo Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legearen 13. artikuluaren itzalpean, egintza horiek guztiz baliozkoak izango dira.

SEIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Hilobien gaineko tronkalitate-eskubideak.

Hilobien gaineko tronkalitate-eskubideei, egun indarrean dauden neurrian, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legearen xedapenak aplikatuko zaizkie.

ZAZPIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Euskal auzotasun zibila izendatzea.

Lege hau indarrean jartzeaz geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldeetatik edozeine-tan auzotasun zibila dutenek zuzen-zuzenean eskuratuko dute euskal auzotasun zibila, eta, hala denean, eurei dagokien toki-auzotasun zibila ere bai.

Xedapen honetan ezarritakoarekin bat etorriz, haiei aplikatu beharreko legeria berria ezarriko da, eta legeria horrek ez du aldatuko ezkontzaren araubide ekonomikoa, edo, izatezko bikoteen kasuan, ondare-araubidea, salbu eta hori ezkontzako hitzarmenetan edo itunetan erabakitzen denean; eta, harreman pertsonalei eta oinordetza-harremanei dagokienez, lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoa beteko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe geratzen dira uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibi-lari buruzkoa, eta azaroaren 26ko 3/1999 Legea, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionean aldatzekoa, bai eta beste lege oro ere honen aurka doan guztian.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Lege hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratzen denetik hiru hilabete igarotakoan.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 26a.
Lehendakaria,
Iñigo Urkullu Renteria